


IBAIZABAL


Bibliako *Kontaera-antologia*




Juan Manuel Etxebarria Ayesta

IBAIZABAL

Bibliako Kontiera-antologia



Egilea:
Juan Manuel Etxebarria Ayesta



Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (99-II-8).

Koordinaketa editoriala, produkzioa, diseinua eta maketazioa:
Jose Ignacio Jaio Azula eta Jabi Artaraz Bengoetxea

Azala:

Jose Ignacio Jaio Azula

Testuaren zuzenketa:

Jabi Artaraz Bengoetxea

Fotomekanika:

CROMAN

Inprimaketa:

Edelvives Tailer Grafikoak

50012 ZARAGOZA



Texto bíblico Elizen Arteko Biblia,
© Sociedades Bíblicas Unidas,
Santa Engracia, 133- 28003 Madrid.
www.sociedadbiblica.org

© Ibaizabal Argitaletxea, 1999.
ISBN: 84-8325-214-7
Legezko gordailua: Z-691-99

Sarrera	15
Laburdurak	21
Taula Kronologikoa	23
ITUN ZAHARRA	29
Hasiera	31
Zeru-lurren kreazioa	31
Gizakiaren kreazioa	32
Emakumearen sorrera	33
Jainkoaren agindua hautsi	33
Edendik kanporatuak	34
Kain eta Abel	34
Gizakien gaiztakeria	35
Noek ontzia egin	35
Noe itsasontzian sartu	35
Uholdea	36
Uholdearen amaiera	36
Noek erre-opariak eskaini Jainkoari	37
Jainkoak ituna egin Noerekin	37
Ostadarra	37
Babelgo dorrea	37
Jaunak Abrahami dei	38
Jaunak agintzaria berritu Abrahami	38
Isaaken jaiotzaz bigarren agintzaria	39
Sodomako suntsipena iragarri	39
Abrahamen erregua	39
Lotek bi aingeruei abegi ona	40
Sodomaren hondamendia	41
Isaaken jaiotza	41
Agar eta Ismael	42
Isaak opari eskainia	42
Isaakentzat emaztea hautatu	43
Rebeka, Betuelen alaba	43
Ezkon-tratua	44
Rebeka Isaaken emazte	45
Esau eta Jakob	46
Esauk bere lehensemetza-eskubidea saldu	46
Esauren ordezkari Jakob bedeinkatu	46
Isaak eta Esau iruzurraz ohartu	48
Jakob ihesi Rebekak gomendatuta	48

Isaakek Jakob Mesopotamiara bidali	48
Esau berriro ezkondu	49
Jakoben ametsa	49
Jakob Labanen etxean. Lea eta Rakel	50
Jakob Lea eta Rakelekin ezkondu	50
Jakob Esauri bidera irten	51
Jakobek Esaurekin topo egin	52
Joseren ametsak	52
Joseren anaien mendekua	53
Jose ismaeldarrei saldua	53
Jose hildakotzat emana	54
Jose, Potifarren etxean	54
Jose eta Potifarren emaztea	54
Jose espetxean	55
Faraoiaren ametsa argitu Josek	55
Jose Egiptoko erregeorde	56
Joseren semeak	57
Jakobek bere semeak Egiptora bidali	57
Senideek Jose ezagutu ez	57
Josek beste proba bat ezarri anaiei	58
Anaiak etxera itzuli	58
Jakobek joaten utzi Benjamini	59
Josek bere senideak onartu	59
Jose bere senideekin bazkaltzen	60
Edalontziaren proba	60
Juda Benjaminen alde atera	61
Josek bere burua ezagutzera eman anaiei	61
Faraoiak Jakob gonbidatu Egiptora	62
Jakob Egiptora	62
Jakoben familia	63
Jakoben familia Egipton	63
Faraoiak Jakobi abegi ona	64
Joseren nekazaritza-politika	64
Jakoben azken nahia	65
Jakobek Joseren semeak bedeinkatu	65
Jakobek hamabi semeak bedeinkatu	66
Jakoben azken nahia	67
Jakobengatiko dolua	68
Jakoben hiletak	68
Josek bere anaiak lasaitu	68
Joseren zahartzaroa eta heriotza	69
Irteera	70
Israeldarrak ugaltu	70
Faraoiak esklabo bihurtu israeldarrak	70
Faraoiak israeldar jaioberrien hilketari agindu	71

Moises jaioberria salbatu	71
Moises ihes egin beharrean	71
Moises erbestean, Madian eskualdean	72
Jainkoak Moises hautatu Israel askatzeko	72
Jainkoak bere izena ezagutarazi Moisesi	73
Jainkoak bere ahalmena agertu Moisesi	73
Jainkoak Aaron izendatu Moisesen bozeramaile	74
Jainkoak Moisesi Egiptora itzultzeko agindu	74
Moisesen semea erdaindu	74
Aaronekin topo egin eta Egiptora iritsi	75
Moises eta Aaron faraoiarengana	75
Faraoiak are astunago bihurtu israeldarren lana	75
Moisesek Jaunarengana jo	76
Jainkoak Pazkoa ospatzeko agindu	76
Legamigabeko Ogien Jaia	77
Moisesek Pazkoa ospatzeko agindua adierazi	77
Hamargarren izurria: lehen-semeen hilketa	77
Israeldarrak abiabidean	78
Israeldarrak Egiptotik atera	78
Egiptoarrak israeldarren atzetik	78
Israeldarrak egiptoarren beldur	79
Jainkoak israeldarrak salbatu	79
Moisesen gorazarrea	80
Jaunak israeldarrak janariz hornitu basamortuan	81
Masa eta Meribako urak	82
Amalektarren aurkako gudua	83
Jaunak ituna proposatu israeldarrei	83
Jainkoa Sinai mendian agertu	83
Hamar aginduak	84
Israeldarrak Jainkoaren beldur	85
Josue	86
Josuek ikerlariak bidali Jerikora	86
Ikerlariak Rahabekin hitzarmena egin	86
Ikerlariak itzuli	87
Jordan ibaia igarotzeko prestaketak	87
Ibaian barna igaro	88
Josuek Jeriko hartu	88
Josuek Rahab salbatu	89
Epaileak	90
Madianek Israel menderatu	90
Jaunak Gedeon aukeratu Israel askatzeko	90
Gedeon eta Baalen aldarea	91
Gedeonek Jainkoari seinalea eskatu	92
Hirurehun gizon garaipenerako	92
Seinale batek garaipena iragarri	93

Gedeonen amarrua edo engainabidea	93
Sansonen sortzea	93
Sansonen ezteiak	95
Sansonen mendekua	96
Sanson eta asto-matrailezurra	96
Sansonek Gazako ateak eraman	97
Sanson eta Dalila	97
Sansonen heriotza	98
Samuel lehen liburua	99
Ana Xiloko santutegia	99
Samuelen jaiotza eta haurtzaroa	100
Jaunak Samueli dei egin	100
Herriak erregea nahi	101
Saul, asto galduen bila	102
Samuelek Saul aurkitu	103
Samuelek errege sagaratu Saul	103
Saul, errege izendatua herriaren aurrean	104
Jaunak Saul baztertu	105
Jainkoak Dabid errege izendatu	106
Goliategen israeldarrei erronka	106
Dabid Saulen kanpalekura	107
Dabidek Goliat hil	108
Jonatan eta Dabid adiskide	109
Saulek Dabid hil nahi	109
Jonatan Dabiden alde	109
Jonatanek Dabidi ihes egiten lagundu	110
Dabidek bizia barkatu Sauli	112
Saulek emakume hilazti bati kontsulta egin	113
Samuel bigarren liburua	115
Dabid eta Betsabe	115
Urias hila	116
Gabaondarrak eta Saulen senitartekoak	116
Gatazkak filistearren aurka	117
Erregeak I	118
Salomon, faraoiaren alaba batekin ezkondu	118
Salomonek Jainkoari jakinduria eskatu	118
Salomon epaile zuhurra	119
Tenpluaren eraikuntza	119
Jaunaren etxe-barrua	120
Akab, Israelgo errege	121
Eliasek lehortea iragarri	121
Elias Kerit erregera joan	121
Elias eta Sareptako alarguna	121
Elias eta alargunaren semea	122
Elias eta Baalen profetak	122

Lehortearen bukaera	124
Elias Horeb mendirantz	124
Eliseori deia	125
Naboten mahastia	126
Erregeak II	128
Elias zerura eramana. Eliseo profeta	128
Eliseo eta Xunengo emakumea	129
Xunengo emakumearen semea hil	130
Naaman sendatu	131
Eliseoren morroiak Naaman engainatu	132
Isaias	133
Mahastiaren maite-kanta	133
Bakezko garaia	134
Kontsolatu nire herria	134
Jaunak atsegin duen baraua	135
Jeremias	136
Joiakin erregeari	136
Jaunaren agintzari berriak	137
Ezekiel	139
Ezertarako ez den mahatsondoaren parabola	139
Arranoa eta mahatsondoa	139
Jonas	141
Jonas Jaunarengandik ihesi	141
Jonasek arrain-sabeletik otoitz	142
Jonasek Niniben mezua aldarrikatu. Ninibearren konbertsioa	142
Jonasek Jaunaren errukiaren berri ikasi	143
Salmoak	144
1. salmoa. Bi bideak	144
8. salmoa. Jainkoaren handitasuna eta gizakiaren duintasuna	144
14. salmoa. Tenpluan sartzeko baldintzak	145
22. salmoa. Uste onezko otoitza	145
120. salmoa. Israelen zaintzailea	145
122. salmoa. Herri mesprezatuaren erruki-eskea	146
130. salmoa. Jaunaren eskuetan bakean	146
138. salmoa. Meditazioa. Jaunak dena ikusi eta jakin	146
Job	148
Job izeneko gizon bat	148
Satanen lehenengo erronka	148
Satanek Job lehenengoz probatu	149
Satanen bigarren erronka	149
Satanek Job bigarrenez probatu	149
Lagunak gaitzetsiak	150
Job lehengoratua	150
Esaera zaharrak	151

Salomonen esaerak: lehen bilduma	151
Jakintsuen hogeita hamar esaerak	152
Jakintsuen beste zenbait esaera	155
Zenbaki-esaerak	155
Rut	157
Elimelek eta bere familia Moaben	157
Noemi Belenera itzuli Rutekin	157
Rut Boozen soroetan	158
Rutek senarra aurkitu	159
Booz Rutekin ezkondu	160
Boozen ondorengoak	161
Kantarik ederrena	162
Mahastizaina eta artzaina	162
Nire nardoari usain gozo dario	162
Maitasuna ezaugarri	163
Udaberria	163
Honelakoa da ene lastana	164
Zatoz!	164
Baratzea	164
Hurbil eta urruti	165
Honelakoa da ene maitea	165
Nirea da maitea	166
Bat bakarra ene lastana	166
Antzaldaketa	166
Kohelet	167
Deus ez berririk	167
Elkartasuna	167
Diruzalekeria	168
Indarra ala jakinduria	168
Bizitza ederra da	169
Daniel	170
Daniel eta lagunak Babilonian	170
Nabukodonosoren lehen ametsa	171
Jainkoak Danieli erregearen ametsa adierazi	171
Danielek erregearen ametsa azaldu	172
Urrezko irudia gurtzeko agindua	173
Danielen lagunak Jainkoarekiko leial	173
Hiru lagunak labetik atera	174
Erregearen bigarren ametsa	175
Danielek erregeari ametsa adierazi	175
Ametsa bete	176
Nabukodonosor sendatu	176
Belxatzar erregearen otordua	177
Idatzia Danielek azaldu	177
Etsaiek Danieli tranpa jarri	178

Daniel lehoien zuloan	179
Daniel lehoi-zulotik onik atera	179
Danielen lehen ikuskaria: lau piztitzarrak	180
Jainkoaren epaia	180
Lehenengo ikuskariaren azalpena	181
Bigarren ikuskaria: aharia eta akerra	181
Bigarren ikuskariaren azalpena	182
Hirugarren ikuskaria: lihoz jantzitako gizona	182
Nehemias	184
Nehemiasek Jerusalengo berriak jakin	184
Nehemiasek Jerusalemenera itzultzeko baimena lortu	185
Nehemias hiriko harresiak ikusten	185
Nehemiasek usadioak zaharberitu	186
Ester grekoa	188
Astin erreginak erregea iraindu	188
Ester, erregina izendatu	189
Mardoqueo azpikeria salatu	190
Hamanek juduak suntsiarazi nahi	190
Suntsipen-agindua	191
Mardoqueo Esterri laguntza eske	191
Erregea eta Haman otordura gonbidatu Esterrek	192
Hamanek Mardoqueo suntsiarazi nahi	193
Erregeak Mardoqueo ohoratu nahi	193
Haman Mardoqueo ohoratzera behartua	193
Hamanen azkena	194
Esterrek mendekatu nahi	194
Judit	196
Judit	196
Juditek hiriko arduradunei dei egin	196
Juditen otoitza	198
Judit etsaien kanpalekura	198
Judit Holofernesen oihal-etxolan	199
Judit Jaunarekiko leial	201
Judit Holofernesen otorduan	201
Juditek Holofernes hil	202
Judit Betuliara itzuli	202
Juditek erasorako deia egin	203
Asiriarrak menderatu	203
Garaipena ospatu	204
Makabearrak	205
Zazpi anaien martiritza	205
Seme gazteenaren eta amaren martiritza	206
Jakinduria	208
Zuzentasuna, Jakinduria, Espiritua	208
Espiritua eta hitza	208

Bizia eta heriotza	209
Entzun, erregeok	209
Jakinduriak erregetzara darama	209
Adanengandik Noerenganaino	210
Abrahan eta Lot	210
Jakob eta Jose	210
Israel herria eta Moises	211
Ben Sirak	212
Jauna jakinduriaren iturri	212
Jaunarenganako begirunea	212
Nor bere buruaren jabe	213
Zuzen jokatu Jainkoarekin	213
Jakinduriaren goraiamena	213
Jakinduria eta legea	214
Jainkoaren ahalmena izadian	214
Eguzkia	215
Ilargia	215
Izarrak	215
Ortzadarra	215
Naturako gertakariak	216
Arbasoen goraiamena	216
Henok	217
Noe	217
Abrahan	217
Isaak	217
Jakob	217
Moises	218
Aaron	218
Pinhas	219
Josue eta Kaleb	219
Epailleak	220
Samuel	220
Natan	220
Dabid	220
Salomon	221
Roboan	221
Jeroboan	221
Elias	221
Eliseo	222
Ezekias eta Isaias	222
Josias	222
Judako azken erregeak. Jeremias.	223
Ezekiel	223
Profeta txikiak	223
Zorobabel eta Josue	223

Nehemias	223
Henok	223
Jose	223
Lehen arbasoak	223
Simon apaiz nagusia	224
Deia	224
Nazio gorrotatuak	225
Amaiera	225
Daniel grekoa	226
Susanaren historia	226
Daniel eta herensugea	228
ITUN BERRIA	231
Mateo	233
Ereilearen parabola	233
Gari arteko olo gaiztoaren parabola	233
Mostaza-haziaren eta legamiaren parabolak	234
Altxorraren eta harribitxiaren parabolak	234
Sarearen parabola	234
Parabolen konklusioa	234
Barkatu ez zuen zerbitzariaren parabola	234
Mahasti-langileen parabola	235
Seme bien parabola	235
Nekazari hiltzaileen parabola	236
Ezteien parabola	236
Hamar neskatxen parabola	237
Lukas	238
Samariar ona	238
Aberats ergelaren parabola	239
Pikuondo agorraren parabola	239
Gatz gezatuaren parabola	239
Ardi galduaren parabola	239
Txanpon galduaren parabola	240
Aita errukitsuaren eta bi semeen parabola	240
Etkezain argiaren parabola	241
Aberatsa eta Lazaro	241
Fariseuaren eta zergalariaren parabola	241
Ontzako urreen parabola	242
Joan	243
Ezteiak Galileako Kanan	243
Jesus eta emakume samariarra	244
Emakume adulteriogilea	245
Eginak	246
Sauloren konbertsioa	246
Apokalipsia	248

Jesus piztua ikusi	248
Efesoko eliz elkarteari	249
Esmirnako eliz elkarteari	249
Pergamoko eliz elkarteari	249
Tiatirako eliz elkarteari	250
Sardesko eliz elkarteari	250
Filadelfiako eliz elkarteari	250
Laodizeako eliz elkarteari	251
Emakumea eta herensuge gorria	251
Bi piztiak	252
Hiztegia	255
Mapak	271

I. Zer da Biblia?

Etimologiara bagoaz, grekotik datorkigu. Grezieraz «biblion» liburuak da eta «biblia» liburuak. Biblioteka ere hemendik dator eta, egia esateko, Biblia antzinako liburu ugari egindako biblioteka baten antzekoa da.

Juduen Bibliak berrogei liburu ditu. Kristauen Bibliak (katoliko, protestante eta ortodoxoak), ostera, parte handi bi: Itun Zaharra eta Itun Berria.

Itun Zaharrak, judeguren Bibliako berrogei liburuak dauzka. Itun Berriak hogeita sei liburu ditu, lau ebanjelioak barru direla. Ebanjelio hitza ere grekotik dator, «evangelion», berri ona esan nahi duelarik.

II. Noizkoa da Biblia

Mundu zaharreko herri guztien antzera, Bibliako testurik zaharrenak ahoz-ahozkoak dira eta ahoz-ahozkoa izan da belaunaldiz belaunaldiko transmisio-bidea.

Idazkera sortu ahala, idazten hasi ziren Biblia-liburuak orain hiru mila urte inguru. Bertako testurik berrienak orain bi mila urte ingurukoak dira.

III. Nork idatzi du Biblia?

Hasiera batean Bibliako testuak gaurkoarenak baino ugariagoak ziren. Exegeta edo adituek aukeraketa bat egin zuten gaur dugunera heldu arte. Lehenengotako Biblia bi hizkuntzatan dago idatzia: hebraieraz eta grezieraz, zatitxo batzuk arameoz ere bai. Hebraiera eta arameoa hizkuntza semitikoak dira eta grekera indoeuroparra.

Autore askorena da Biblia eta eurretatik asko ezezagunak dira. Dena dela, guztiak ahalegindu dira bizitzako galdera edo enigma

hauei erantzuten, hots: Nor gara? Nondik gatoz? Nora goaz? Nor dago gure gainetik?

IV. Zer kontaktzen du Bibliak?

Biblia Literatura da neurri handi batean eta horregatik genero literario ezberdinak aurkitzen ditugu. Hau da, zelako kontraera, halako generoaz baliatzen da.

Hona hemen nagusienak: Historia, Legeak, Profeziak, Lirika, Jakturia, Kartak, Apokaliptika. Genero hauen barruan, batzuk aipatzearen, hauxe aurki daiteke: mentura kontaktak, historia kontakizunak, ipuin atsegin eta fantastikoak, salmoak, maitasunezko poemak, aholku praktikoak, esaera zaharrak, parabolak... eta orokorrean, Jainkoak gizakiari dion maitasunaren adierazpena.

V. Nork irakurtzen du Biblia?

Gizakion historian zehar gehien irakurri den liburua dela esango genuke. Rekord guztiak ondu ditu liburu honek: mila berderatziehun eta hirurogeita zortzi hizkuntzataraz itzulita dago, gutxienez; eta uste denez, bi mila milioi ale baino gehiagotan kaleratu izan da 1815etik hona.

Euskarara ere itzuli da osorik. Hona hemen batzuk: Duvoisin kapitainarena (1859), aita Uriarte frantziskotarrarena (1859-1868), aita Olabide jesusenlagundikoarena (1958), Jaime Kerexetarena (1976) eta euskara batuan Elizen Arteko Biblia (1994).

VI. Zer da Bibliaren kontraera-antologia?

Biblia liburua oso luzea denez, aukeraketa bat egin da kontraera ederrenetarikoak jaso eta antologia hau osatuz. Beraz, irakurgai-liburu honetan, Biblia osoan zehar agertzen diren kontraera

eder, mamitsu eta interesgarriak dituzu; antzina, Israel partean hasi eta mundu osoan zabaldu direnak kultura-bidean.

VII. Zertarako Bibliako kontaeok?

Besteak beste, Israel aldeko mundu zaharraren tradizioa ezagutzeko egin da antologia hau. Israelgo herrian jaio zen Jesukristo. Israel ingurua, garai hartan, erromatarren mendean zegoen eta San Pedro horrexegatik etorri zen Erromara. Erromak bere eta inguruko herri gaindituen kultura bereganatu eta zabaldu egin zuen bere inperio luze-zabalean. Euskal Herrira ere etorri zitzaigun Bibliaren berri eta era honetara euskaldunon kultura aberastu geure nortasuna galdu barik.

VIII. Biblia, elizarena bakarrik al da?

Ez, gutxiagorik ere ez. Egia da, Biblia eliza ezberdinetako erreferentzia dena, baina kultura ikuspuntutik, Biblia denona dugu. Sinesmena da gauza bat eta historia beste bat. Esate baterako, budismoa edo komunismoaren historia ezagutzeak ez dakar derrigorrez budista edo komunista izaterik. Kulturak ez dauka mugarik eta euskaldunon kultura aberastuko bada, gutxienez ezagutu egin behar dira kulturbideak.

IX. Zein Bibliatik hartu da antologia hau?

Euskarara itzuli den azkenengo Bibliatik egin da antologia hau. Itzulpena euskara batuan dago eta itzultzailea Elizen Arteko Biblia Elkartearen izena da, 1994an argitara emanaz. Elizen Arteko Biblia honen itzultzaileek, hebraierazko eta grekozko testuak izan dituzte oinarri euren lana burutzeko, orain arteko testu kritiko berrienak erabiliz iturritzat.

X. Zelako euskara du antologiak?

Euskara batua da. Elizen Arteko Biblia Elkarteak ahalegin guztia egin du Euskaltzaindiaren arauetara egokitzen.

Dena den, 1994tik hona ere arau berri batzuk eman direnez, guk egokitu egin dugu testua Euskaltzaindiaren gaurko arautegi horretara baina testu-mamia ukitu barik.

Itzultzaileak euskal probintzia ezberdinetakoak izan dira ahal denik eta batu zabalenean egiteko itzulpena euskalki guztietakoentzat ulerterrazagoa izateko. Horretarako, liburuaren azken partean Euskalkien Arteko Hiztegia agertuko da didaktika eta aberastasunerako bidean.

XI. Nola erabili antologia hau?

Egin den kontaera-aukeraketa, Bibliako liburuaren ordena berean egin da; irakurri, ostera, jarraian zein zatika egin daiteke. Liburu bakoitzaren izena agertuko da lehenengo eta gero kapituluak berset eta guzti.

Bersetak beharrezkoak dira, alde batetik, kapituluak eta kontaera batzuen izenburuak bat ez datozelako eta, bestetik, edozein bibliako zita aurkitzeko beharrezkoa delako praktikotasunaren bidean.

Jakingarri bidean, Biblia oharrez beterik dago, exegetak arduratu direlako lekuan lekuko argibideak ematen, antzinako esangurak gaur egunean ulertu ahal izateko.

Guk, hemen, ez dugu notarik jarriko, kontaerak ezagutzea delako helburua. Baina zehaztasun edo argitasun gehiago nahi duenak, ez dauka Bibliara jotzea baino besterik eta ikusi kapitulu-bersetari dagokion azalpena.

XII. Norentzat da kontaera-antologia hau?


Ikastetxeetan era askotako Bibliak erabiltzen dira, umeen adinaren arabera egokituak. Txikitan testua irudiarekin konbinatzen da eta adinean gora egin ahala testua doa nagusitzen.

Guk, orain, 16 urtetik gorakoentzat aurkezten dugu antologia hau. Testua orijinala da, hobeto esanda, orijinaletik euskara batura itzulia.

Zertarako? Ba, adin honetatik aurrera, jatorrizko testuan oinarritzen ikasten joan behar delako.

Beharbada, testu orijinala irakurtzean, pasarte bat edo beste ez da behar bezala ulertuko, berez zaila delako edota garaiz aldatu garelako.

Pasarte ulerkaitzen bat balego, irakaslea duzu laguntzaile edo bestela ohar eta guztizko Biblia osoa, eta horrela ere ezin bada ulertu teologo batengana jo argibidean.



ITUN ZAHARRA

Hebraierazko Biblia

Hasiera	(Has)	Nahum	(Na)
Irteera	(Ir)	Habakuk	(Hab)
Lebitarrena	(Lb)	Sofonias	(So)
Zenbakiak	(Zen)	Ageo	(Ag)
Deuteronomioa	(Dt)	Zakarias	(Za)
Josue	(Jos)	Malakias	(Ml)
Epaileak	(Ep)	Salmoak	(Sal)
1 Samuel	(1 Sm)	Job	(Jb)
2 Samuel	(2 Sm)	Esaera Zaharrak	(Es)
1 Erregeak	(1 Erg)	Rut	(Rt)
2 Erregeak	(2 Erg)	Kantarik Ederrena	(Kt)
Isaias	(Is)	Kohelet	(Koh)
Jeremias	(Jr)	Negar Kantak	(Nk)
Ezekiel	(Ez)	Ester	(Est)
Oseas	(Os)	Daniel	(Dn)
Joel	(Jl)	Esdras	(Esd)
Amos	(Am)	Nehemias	(Ne)
Abdias	(Ab)	1 Kronikak	(1 Kro)
Jonas	(Jon)	2 Kronikak	(2 Kro)
Mikeas	(Mi)		

Liburu Deuterokanonikoak

Ester Grekoa	(Est gr)	Jakinduria	(Jkd)
Judit	(Jdt)	Ben Siraken Jakinduria	(Si)
Tobit	(Tb)	Baruk	(Ba)
1 Makabearrak	(1 M)	Jeremiasen Gutuna	(Jr gt)
2 Makabearrak	(2 M)	Daniel Grekoa	(Dn gr)

ITUN BERRIA

Ebanjelioa Mateoren arabera	(Mt)
Ebanjelioa Markosen arabera	(Mk)
Ebanjelioa Lukasen arabera	(Lk)
Ebanjelioa Joanen arabera	(Jn)
Apostoluen Eginak	(Eg)
Erromatarrei Gutuna	(Erm)
Korintoarrei Lehen Gutuna	(1 Ko)
Korintoarrei Bigarren Gutuna	(2 Ko)
Galaziarrei Gutuna	(Ga)
Efesoarrei Gutuna	(Ef)
Filipoarrei Gutuna	(Flp)
Kolosarrei Gutuna	(Kol)
Tesalonikarrei Lehen Gutuna	(1 Ts)
Tesalonikarrei Bigarren Gutuna	(2 Ts)
Timoteori Lehen Gutuna	(1 Tm)
Timoteori Bigarren Gutuna	(2 Tm)
Titori Gutuna	(Tt)
Filemoni Gutuna	(Flm)
Hebertarrei Gutuna	(Heb)
Santiagoren Gutuna	(St)
Pedroren Lehen Gutuna	(1 P)
Pedroren Bigarren Gutuna	(2 P)
Joanen Lehen Gutuna	(1 Jn)
Joanen Bigarren Gutuna	(2 Jn)
Joanen Hirugarren Gutuna	(3 Jn)
Judasen Gutuna	(Ju)
Apokalipsia	(Ap)

Taula Kronologikoa

PATRIARKAK. ISRAELDARRAK KANAANEN

Abrahan Kanaanera iritsi (Has 12,1-9).	1800
Lehenik Jose eta gero anaiak Egiptora jaitzi.	1700
Egipton Ramses II.a errege.	1304-1238
Hebertarrak lan gogorretara behartuak (Ir 1,8-22).	1300
Moises: Egiptotik irteera (Ir 13,17-15,27).	
1200. urtea baino lehen israeldarrak Kanaan-en kokatu.	1250

EPAILEEN GARAIA. MONARKIAREN HASIERA

Filistearrak Kanaango kostaldean kokatu.	1200
Epailleen garaia.	1200-1030
Asiriarrak Mesopotamian nagusi.	1100
Aramear erresumak (Damasko, Tzoba eta Hamat) eratu.	1075
Samuel profeta eta epaile.	1040 ≈
Saul, lehen errege israeldarra.	1030-1010 ≈
Dabid, Judako errege eta gero Israel osoko errege.	1010-970 ≈
Salomonen erregetza. Tenpluaren eraikuntza.	970-933

ERRESUMAREN BANAKETATIK ERBESTERA

Erresumaren banaketa: Israel iparraldean, Juda Hegoaldean.	933
Omri. Israelgo erregeak Samaria hiria sortu.	
Israel erresumaren hiriburua.	885 ≈
Asiriako erregeak: Asurbanibal II.ak Asiria indarberritu.	883-859
Akab, Israelgo errege.	874 ≈
Salmanasar III.	
Elias profetaren jarduna Israel erresuman (1 Erg 17,1-2 Erg 1,16) eta gero Eliseo profeta (2 Erg 2,1-13,21).	858-824
Amos eta Oseas profetak Israel edo Ipar-erresuman.	750
Tiglat-Pileser III.	745-727
Isaias (Is 6,1) eta Mikeas profetak Juda, hegoaldean.	740tik aurrera
Salmanasar V.	726-722
Asiriarrak Samaria suntsitu. Ipar-erresumaren amaiera	721
Ezekias, Judako errege.	727-698

Sargon II.	722-705
Senakerib.	704-681
Senakerib asiriarra Judean sartu (2 Erg 18,13-19,37).	701
Josias Judako erregearen agintealdian (640-609)	
Deuteronomioan oinarritutako eraberritze erlijiosoa (2 Erg 22-23). Sofonias eta Jeremias (Jr 1,1-10) profetagintzan.	650
Mediarrek eta babiloniarrek Ninibe,	
Asiriako hiriburua, suntsitu.	612
Joakim, Jerusalemgo errege.	609-598
Neko faraoia Nabukodonosorren armadak menderatu Siriako Karkemix-en (Jer 46,2).	605
Nabukodonosorrek bere agintea zabaldu Ekialde Hurbil osoan.	605-562
Habakuk profetagintzan.	
Nabukodonosorrek Jerusalem inguratu. Lehen erbestaldia Ezekiel apaizarekin eta Joakin erregearekin.	
Sedekias, Judako errege.	597
Ezekiel profetagintzan hasi erbesteratuen artean.	593 ≈
Jerusalenen bigarren setiaketa. Tenpluaren suntsipena. Bigarren erbestaldia. Babiloniako erbestaldia (Is 40-55).	588-587

PERTSIAR GARAIA

Pertsiar enperadoreak:	
Ziro.	551-529
Dario I (Esd 4,24-6,18).	522-486
Xerxes I (Est 1,1; Esd 4,6).	486-465
Artaxerxes I (Esd 4,7; 7,1)	465-423
Dario II.	423-404
Zioren ediktua (Es 1,1-4) hebertarrei	
Palestinara itzultzeko baimena emanez.	538
Jerusalengo tenplua berreraiki.	520-515
Ageo eta Zakarias profetagintzan. Malakias profetagintzan.	500
Nehemiasen lehen egonaldia Jerusalemene (Ne 2-3).	445
Nehemiasen bigarren egonaldia Jerusalemene (Ne 13,6-31).	432?
Esdrasen egitekoa.	398

GREZIAR GARAIA

Mazedoniako errege Alexandro Handiaren konkistak hasi, eta 331n pertsiar inperioa menderatu.	334
Alexandrok Palestina konkistatu.	332
Alexandroren heriotza eta inperioaren zatiketa:	
Egipton Lagidak agintari, eta Sirian eta Babilonian Seleukotarrak.	323

Palestina Lagiden mende. Barealdia.	320-200
Itun Zaharra grekora itzultzen hasi: Septuaginta.	300 ≈
Armada siriarrak Egipto menderatu Panean.	200
Palestina Seleukotarren mende. Garai honetako arazo eta gerrak Dn 7-12an aipatzen dira.	200-142
Antioko IV Epifanes.	175-164
Antioko Epifanesek juduak pertsegitu.	167-164
Makabearren altxamendua.	167/166
Independentzi aldia juduentzat.	
Asmoneoarren dinastia (ikus 1 eta 2 Makabearrak).	142-63


ERROMATAR GARAIA

Erromako Ponpeio jeneralak Jerusalem hartu.	
Erromatarren okupazioaldia hasi Palestinan.	63
Herodes handia, erromatarren aliatua, agintean Palestinan (Mt 2).	37-4
Augusto, Erromako enperadorea.	K. a. 29-K. o. 4
Jerusalengo tenplua berreraikitzen hasi: (Herodesen tenplua; ikus Jn 2,20).	20-19
Jesusen jaiotza.	6 ≈
Herodes handiaren heriotza. Honen erresuma semeen artean banatua:	
Arkelaio, Herodes Antipas (Lk 3,1; 23,6-12) eta Filipo (Lk 3,1)	4 ≈
Palestina Erromako probintzia bihurtua Judea izenaz.	K.o. 6
Tiberio, Erromako enperadorea.	K. o. 14-37
Kaifás apaiz nagusi (Jn 11,49).	18-36
Pilato gobernadore erromatarra Palestinan.	26-36
Joan Bataiatzailearen predikua (Mt 3).	
Jesusek bere ministeritza hasi Galilean.	27?
Bazko jaiari Jesusen heriotza.	30
Estebanen martiritza (Eg 6-7).	34 ≈
Tarsoko Sauloren (gero Paulo apostolua izango denaren) konbertsioa (Eg. 9).	36/37 ≈
Kaligula, Erromako enperadorea.	37-41
Klaudio, Erromako enperadorea.	41-54
Santiagoren, Joanen anaiaren, martiritza (Eg 12,2).	43-44
Paulo apostoluaren 1. misio-ibilaldia (Eg 13-14).	46-48
Jerusalengo Biltzarrea (Eg 15).	49?
Paulo apostoluaren 2. misio-ibilaldia (Eg 15,36-18,22).	49-52
Pauloren 1. gutuna: I Tesalonikarrei.	51?
Paulo apostoluaren 3. misio-ibilaldia (Eg 18,23-21,16).	53-58
Neron, Erromako enperadorea.	54-68

I eta 2 Korintoarrei, Galaziarrei eta Erromatarrei gutunak.	56-58
Paulo Jerusalemen atxilotua.	58
Paulo Erromara Bidean (Eg 27,1-28,15).	60
Paulo etxe-zaintzapean Erroman (Eg 28,16-31).	61-63
Pedroren I. gutuna?	64
Juduak erromatarren aurka altxatu Palestinan.	
Markosen ebanjelioa.	66-70
Galba, Erromako enperadorea.	68-69
Vespasiano, Erromako enperadorea.	69-79
Tito jeneral erromatarrak Jerusalem hartu eta tenplua suntsitu.	70
Tito, Erromako enperadorea.	79-81
Domiziano, Erromako enperadorea.	81-96
Mateo eta Lukasen ebanjelioak.	
Apostoluen Eginak.	85 =
Joanen gutunak.	
Joanen ebanjelioa.	
Apokalipsia.	100?



ITUNZALVARA



Hasiera



Grekozko antzinako itzulpenak «Genesis», hau da, *Hasiera*, izena ematen dio liburuari, beronen gaiari lotua; munduaren, gizadiaren eta Israelen sorrera kontatzen du, hain zuzen. Hebertarrek liburuaren lehen hitza erabiltzen dute izenburutzat: «*Hasieran*».

Zeru-surren kreazioa

1 *Hasieran*, Jainkoak zeru-lurrak egin zituen. **2** Lurra nahas-mahas hutsa zen: leize handiaren gain ilunpea. Jainkoaren arnasa uren gainean zebilen.

3 Eta Jainkoak esan zuen: «Izan bedi argia».

Eta izan zen argia. **4** Ikusi zuen Jainkoak argia ona zela eta bereizi egin zuen ilunpeetatik: **5** argiari «egun» eman zion izen eta ilunpeei «gau». Honela, lehen eguna burutu zen.

6 Jainkoak esan zuen: «Izan bedi sabaia uren artean, goiko eta beheko urak bereiz ditzan».

Eta hala izan zen. **7** Jainkoak sabaia egin zuen eta sabai azpiko urak sabai gainekoetatik bereizi zituen. **8** Jainkoak sabaiari «zeru» eman zion izen. Honela, bigarren eguna burutu zen.

9 Jainkoak esan zuen: «Bil bitez multzoan zeru azpiko urak eta ager bedi lehorra».

Eta hala izan zen. **10** Lehorrari «lur» eman zion izen eta ur-multzoari «itsaso». Eta Jainkoak ona zela ikusi zuen.

11 Jainkoak esan zuen: «Eman bitza lurrak belar hezea, hazidun landareak eta orotariko fruta-arbolak beren hazi eta guzti».

Eta hala izan zen. **12** Eta lurrak orotariko hazidun landareak eta fruta-arbolak beren hazi eta guzti eman zituen. Eta Jainkoak ona zela ikusi zuen. **13** Honela, hirugarren eguna burutu zen.

14 Jainkoak esan zuen: «Izan bitez argizagiak zeru-sabaian, eguna eta gaua bereizteko, eta jaiak, egunak eta urteak ezagutarazteko. **15** Izan bitez zeru-sabaian lurrari argi egiteko».

Eta hala izan zen. **16** Jainkoak bi argizagi handi egin zituen: handiena egunaren gain jartzeko eta txikiena gauaren gain. Eta izarrak ere egin zituen. **17** Zeru-sabaian ezarri zituen lurrari argi egiteko, **18** egunaren eta gauaren gain jartzeko, argia eta ilunpea

bereizteko. Eta Jainkoak ona zela ikusi zuen. **19** Honela, laugarren eguna burutu zen.

20 Jainkoak esan zuen: «Egin bezate urek borbor bizidunez; egin bezate hegan hegaztiak lurraren gainean, airean».

21 Jainkoak itsas arrain tzarrak sortu zituen, uretan borbor dabiltzan orotariko bizidunak eta orotariko hegaztiak. Eta Jainkoak ona zela ikusi zuen. **22** Eta bedeinkatu egin zituen, esanez: «Sor itzazue umeak, ugaldtu eta bete itsas urak; ugal bitez hegaztiak ere lurraren gainean». **23** Honela, bosgarren eguna burutu zen.

24 Jainkoak esan zuen: «Eman bitza lurra orotariko bizidunak: abereak, piztiak eta narrastiak».

Eta hala izan zen. **25** Jainkoak orotariko bizidunak sortu zituen: abereak, piztiak eta narrastiak. Eta Jainkoak ona zela ikusi zuen.

26 Jainkoak esan zuen: «Egin dezagun gizakia; izan bedi gure antzeko, gure irudiko; mendera ditzala itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak, abereak, basapiztiak eta lurrean narraska dabiltzan piztia guztiak».

27 Jainkoak, beraz, bere antzeko egin zuen gizakia, Jainkoaren beraren irudira egin zuen; ar eta eme egin zituen.

28 Eta bedeinkatu egin zituen, esanez: «Sor itzazue umeak eta ugaldtu, bete lurra eta izan haren nagusi; mendera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean narraska dabiltzan piztia guztiak».

29 Jainkoak esan zien: «Hara, zeuei ematen dizkizuet lur-azalean diren hazidun landare guztiak eta hazidun fruta-arbola guztiak; horiek izango dituzue janari. **30** Abere, zeruko hegazti eta lurrean narraska dabiltzan bizidun guztiei, berriz, belar hezea ematen diet janari».

Eta hala izan zen. **31** Eta egin zuen guztia oso ona zela ikusi zuen Jainkoak. Honela, seigarren eguna burutu zen.

2 **1** Honela burutu zituen Jainkoak zeru-lurra, berauetan dagoen guztiarekin.

2 Zazpigarren egunerako burutu zuen Jainkoak berak eginiko lana eta zazpigarren egunean lanari utzi, **3** eta bedeinkatu egin zuen zazpigarren eguna eta sagaratu, egun horretan hartu baitzuen atsedean kreazio-lanetik. **4** Hau da zeru-lurren kreazioaren historia.

Gizakiaren kreazioa

Jainko Jaunak zeru-lurra egin zituenean, **5** ez zegoen oraindik landaririk lurrean, ezta belarrik ere erneta, Jainko Jaunak ez baitzion oraindik lurrari euririk eman, eta ez baitzen lurra lantzeko gizakirik. **6** Hala ere, lur-azala hezetzen zuen lurruna zerion lurrari.

7 Orduan, Jainko Jaunak lur-hautsez gizona moldatu zuen; sudur-zuloetan bizi-arnasa putz egin zion, eta gizona bizidun bilakatu zen. **8** Ondoren, Jainko Jaunak baratzea landatu zuen Edenan, ekialdean, eta hantxe ezarri moldaturiko gizona. **9** Orotariko zuhaitzak sortarazi zituen lurretik, ikusgarriak eta fruitu gozodunak. Baratze erdian bi zuhaitz ernearazi zituen: batak bizia ematen zuen eta besteak dena ezagutzeko ahalmena. **10** Edendik ibai bat sortzen zen; baratzea ureztatu eta gero, lau adarretan banatzen zen. **11** Lehenari Pixon zeritzan; urrea aurkitzen den Habilako lurraldea inguratzen du. **12** Urre ona hangoa; badira han erretxina eta harribitxiak ere. **13** Bigarrenari Gihon zeritzan; honek Etiopiako lurralde guztia inguratzen du. **14** Hirugarrenari Tigris, Axurko ekialdetik doana. Laugarrenari Eufrates.

15 Jainko Jaunak gizona hartu eta Edengo baratzean ezarri zuen, landu eta zain zezan. **16** Eta agindu zion: «Baratzeko zuhaitz guztietatik jan dezakezu; **17** baina ez jan dena ezagutzeko ahalmena ematen duen zuhaitzetik; hartatik jaten baduzu, hil egingo zara».

Emakumearen sorrera

18 Gero, esan zuen Jainko Jaunak: «Ez da on gizona bakarrik egotea; egin diezaiodan berari dagokion laguna».

19 Jainko Jaunak, landako abere guztiak eta zeruko hegazti guztiak lurrez moldatu eta gizonari eraman zizkion zein izen ezaritzen zien ikusteko; honela, bizidun orok gizonak ezarritako izena izango zuen. **20** Beren izena jarri zien, beraz, abere guztiei, zeruko hegaztiei eta piztiei; baina bera ri zegokion lagunik ez zuen aurkitu. **21** Orduan, Jainko Jaunak lozorroan murgilarazi zuen gizona. Loak hartu zuenean, saihets-hezur bat kendu zion, hezuraren hutsunea haragiz bete ziolarik. **22** Jainko Jaunak gizonari kenduriko saihets-hezurrez emakumea moldatu eta gizonari eraman zion. **23** Honek esan zuen:

«Hau bai dela ene hezuraren hezur, ene haragiaren haragi! "Emakume" izango da deitua gizakumearengandik izan baita hartua».

24 Hargatik, gizonak bere aitamak utziko ditu bere emaztearekin elkartzeko, eta bat bera izango dira.

25 Larrugorri zeuden gizona eta emaztea; hala ere, ez zuten elkarren lotsarik.

Jainkoaren agindua

hautsi

3 **1** Sugea zen Jainko Jaunak egindako piztiarik maltzurrena.

Sugeak esan zion emakumeari:

—Jainkoak debekatu egin dizue, beraz, baratzeko arbola guztietako fruituetarik jatea?

2 Emakumeak erantzun:

—Ez, jan dezakegu baratzeko arboletako fruituetarik. **3** Baratze erdian dagoen zuhaitzaz bakarrik esan digu Jainkoak: «Ez jan

horretatik, ezta ukitu ere, hil nahi ez baduzue».

4—Ez zarete inolaz ere hilko —esan zion sugeak—. **5** Ongi daki Jainkoak, hartatik jan dezazuenean, begiak zabalduko zaizkizuela, eta bera bezalako bihurtuko zaretela, dena ezagutzeko ahalmena lortuz.

6 Ikusi zuen emakumeak fruitua gozoa zela, arbola ikusgarria eta jakituria lortzeko desiragarria. Hartu zuen, beraz, haren fruituetariko bat eta jan egin zuen. Gero, bere senarrari eman eta honek ere jan egin zuen. **7** Orduan, begiak zabaldu zitzaizkien eta biluzik zeudela ohartu ziren. Piku-hosto batzuk josi eta estalki bana egin zuten.

8 Arratsean, gizonak eta emazteak baratzean zebilen Jainko Jaunaren oin-hotsa entzun zuten eta harengandik gorde egin ziren zuhaitz artean. **9** Baina Jainko Jaunak dei egin zion gizonari:

—Non zara?

10 Gizonak erantzun:

—Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, biluzik nagoelako.

11 Jainkoak esan zion:

—Eta nork jakinarazi dizu biluzik zaude-la? Galarazi nizun arbolako fruitua jan al duzu?

12 Gizonak erantzun:

—Laguntzat eman didazun emakumeak fruitua eskaini dit eta jan egin dut.

13 Jainko Jaunak esan zion emakumeari:

—Zer egin duzu?

Emakumeak erantzun:

—Sugeak engainatu nau eta jan egin dut.

14 Orduan, Jainko Jaunak sugeari esan zion:

«Hori egin dualako,
madarikatua hi abere guztien artean
eta basapiztia guztien artean!
Sabel gainean arrastaka ibiliko haiz
eta hautsa jango duk
heure bizitzako egun guztietan.

15 Elkarren etsai egingo zaituztet
hi eta emakumea,
hire eta haren ondorengotza;
honek burua zapalduko dik
eta hik orpotik helduko diok».

16 Emakumeari esan zion:
«Haurdun gelditzean,
oinazeak ugalduko dizkizut
eta saminez izango dituzu haurrak;
iritsak senarrarengana
bultzatuko zaitu,
eta hura izango duzu nagusi».

17 Eta gizonari esan zion:
«Emaztearen esanari jaramon egin
eta galarazi nizun zuhaitzetik
jan duzunez gero,
madarikatua lurra zure erruz!
Nekearen nekez aterako diozu janaria
zeure bizitzako egun guztietan.

18 Sasia eta laharra emango dizkizu,
basalandarez elikatu beharko duzu.

19 Zeure bekokiko izerdiz
jango duzu ogia,
lurrera itzuli arte,
handik izan zara hartua eta:
hautsa zara
eta hautsera itzuliko zara».

Edendik kanporatuak

20 Gizonak bere emazteari Eva, hau da, «Bizi», eman zion izen, bizidun guztien ama delako. 21 Jainko Jaunak larruzko arropaz jantzi zituen gizona eta emaztea. 22 Gero, Jainko Jaunak esan zuen: «Horra gizakia gutariko bat bihurtua, dena ezagutzeko ahalmena duelarik. Ez dezala orain bizi-arbolako fruiturik hartu eta, hura janez, betirako bizi». 23 Beraz, Jainko Jaunak, Edengo baratetik bota egin zuen, lurra landu zezan, handik izan baitzen hartua. 24 Gizakia bota ondoren, izaki hegadun batzuk jarri zituen Edengo baratzearen ekialdean, suzko ezpata distiratsuak zituztela, bizi-arbolarako pasabidea ixteko.

Kain eta Abel

4 ¹ Gizonak bere emazte Evarekin harremanak izan zituen. Haurdun gelditu zen Eva, eta Kain —hau da, «Eskuratua»— izan zuen. Orduan, esan zuen: «Gizon bat eskuratu dut Jaunari esker». ² Gero, haren anaia Abel izan zuen.

Abel artzain bilakatu zen; Kain, berriz, nekazari. ³ Handik aldi batera, Kainek lurreko fruituen eskaintza egin zion Jaunari. ⁴ Abelek ere ekarri zituen artaldeko lehen bildotsak eta ardi-gantza. Jaunak abegi on egin zien Abeli eta honen emaitzari; ⁵ ez, ordea, Kaini eta honen emaitzari. Kain biziki haserretu zen, eta kopetilun zebilen. ⁶ Jaunak esan zion, orduan:

—Zergatik zaude haserre? Zergatik kopetilun? ⁷ Zuzen jokatuko bazenu, argituko litzaizuke aurpegia; baina oker zabiltzanez gero, atean duzu bekatua, gainera erortzeko zain. Hala ere, mendera dezakezu.

⁸ Behinola, Kainek esanda, Abel eta biak landara elkarrekin joan zirelarik, Kainek anaiari eraso eta hil egin zuen.

⁹ Jaunak esan zion Kaini:

—Non da anaia?

Kainek erantzun:

—Ez dakit. Anaiaren zaintzaile ote naiz, bada, ni?

¹⁰ Jaunak, orduan:

—Zer egin duk? Hire anaiaren odola lurretik oihuka ari zaidak. ¹¹ Horregatik, madarikatu egiten hau hik isuritako odola edan duen lurrak. ¹² Lurra landuko duk, baina ez dik fruiturik emango; nora-ezean ibiliko haiz munduan.

¹³ Kainek esan zion Jaunari:

—Astunegia dut zigor hau, eraman ahal izateko. ¹⁴ Gaur lur hauetatik botatzen nauzularik, zure begi-bistatik urrun eta munduan nora-ezean ibili beharko dut; hala, aurki nazan edonork hil egingo nau.

¹⁵ Jaunak, ordea, erantzun zion:

—Ez horixe! Kain hiltzen duena, zazpi aldiz gogorrago izango da zigortua.

Eta Jaunak ezaugarri bat ezarri zion Kaini, aurkitzen zuen inork hil ez zezan. **16** Honela, Kain, Jaunarengandik aldendurik, Nod lurraldean bizi izan zen, Edenez ekialdera.

Gizakien gaizakeria

6 **1** Gizakiak munduan ugaltzen hasi ziren eta alabak izanzituzten. **2** Jainkoaren semeek, gizakien alabak ederrak zirela ikusirik, haien artetik hautatu eta emaztetzat hartu zituzten.

3 Orduan, Jaunak esan zuen: «Ez diot neure bizi-arnasabetiko utziko gizakiari, haragi hutsekoa denez gero. Horregatik, ehun eta hogeiterteko muga jarriko diot harenbizitzari».

4 Jainkoaren semeek gizakien alabekin batu eta haurrak izanzituztenean, bai eta gero-ago ere, baziren erraldoiak munduan: antzinako heroiak dira hauek, izen handikoak.

5 Ikusi zuen Jainkoak handituz zihoala munduan gizakiaren gaizakeria eta honen burubide guztiek txarrera jotzen zutelabetei.

6 Damutu zen Jauna gizakia egin izanaz eta, bihoz-mindurik, **7** esan zuen: «Desagerrarazi egingo dut mundutik egin dudana gizakia, eta gizakia ez ezik, bai eta abereak, narrastiak eta zeruko hegaztiak ere, damu bainaiz hauek egin izanaz».

8 Baina Noe begiko izan zuen Jaunak.

Noek ontzia egin

9 Hona hemen Noeren historia.

Gizon zuzena zen Noe eta akatsik gabea bere garaikoen artean. Jainkoak nahi bezala jokutzen zuen. **10** Hiru seme izan zituen: Sem, Kam eta Jafet.

11 Mundua gaizakeriaz eta indarkeriaz bete zegoen, **12** den-denek jokaera makurra

baitzeramaten. Jainkoak, mundua hain gaiztotua ikustean, **13** esan zion Noeri: «Izaki oro suntsitzea erabaki dut, gizakien erruz indarkeriaz bete baitago mundua; gizakia eta mundua, biak suntsituko ditut.

14 «Egizu zeuretzat ontzi bat erretxina-egurrez. Antolatu gelak barruan eta estali bikez barrutik eta kanpotik. **15** Hona zein neurritakoa egingo duzun: ehun eta berrogeita hamar metro luze, hogeita bost metro eta erdi zabal, eta hamabost metro eta erdi gora. **16** Sabaiez estaliko duzu, gailurretik hegatera metro eta erdiko jaitsiera emanaz. Alboan atea jarriko diozu. Hiru solairu izango ditu.

17 «Nik uholdea bidaliko dut mundura, zerupeko bidadun guztiak suntsitzeko. Munduko izaki guztiak hilko dira. **18** Baina zurekin ituna egingen dut».

«Sar zaitezte ontzian emaztea eta biok, bai eta zure semeak ere emazteekin. **19** Animalia mota bakoitzetik bikotea, ar-emeak, sartuko duzu, zurekin batera bizirik iraun dezaten. **20** Hegazti-, abere- eta narrasti-mota bakoitzetik bina sartuko dira zurekin, bizirik iraun dezaten. **21** Elikagai guztietatik bildu, zer jan izan dezazuen».

22 Jainkoak agindu guztia egin zuen Noek zehatz-mehatz.

Noe itsasontzian sartu

7 **1** Jaunak esan zion Noeri: «Sar zaitez itsasontzian zeure etxeko guztiekin, zu beste gizon zuzenik ez baitut ikusi zure garaikideen artean. **2** Har itzazu zeurekin zarpina bikote, ar-emeak, legez kutsatugabe-ko diren abereen artetik, eta bikote bana, ar-emeak, kutsatuak direnen artetik. **3** Zeruko hegaztietatik ere zarpina bikote, ar-emeak, hauen arrazak munduan iraun dezan. **4** Zazpi egunen buruan euria bidaliko dut lurrera berrogei egun eta berrogei gauez, egin dudana izaki oro suntsitzeko».

- 5 Noek Jaunak agindu guztia egin zuen.
6 Seiehun urte zituen uholdea gertatu zenean.
7 Uholdea hasi baino lehen, ontzian sartu zen bere emazte, seme eta errainekin batera.
8 Abere kutsatugabe eta kutsatu, hegazti eta lurrean narraska dabiltzan guztietatik, 9 bikote bana sartu zen ontzian Noerekin batera, Jainkoak agindu bezala.
10 Zazpi egunen buruan uholdea hasi zen.

Uholdea

11 Noeren bizitzako seiehungarren urtean, bigarren hilaren hamazazpian, lur azpiko itsasoaren iturri guztiak lehertu ziren eta zeruko atexkak ireki. 12 Euri-jasa izan zen berrogei egun eta berrogei gauez.

13 Egun hartan bertan sartu zen Noe ontzian bere seme Sem, Kam eta Jafetekin, bere emazte eta errainekin. 14 Sartu ziren, bai eta ere, mota guztietako abere eta piztiak, lurreko narrasti eta hegaztiak. 15 Bizidun guztiak binaka sartu ziren ontzian Noerekin batera, 16 mota bakoitzetik arra eta emea, Jainkoak Noeri agindu bezala. Gero, Jaunak ontziko atea itxi zuen.

17 Berrogei egunez iraun zuen uholdeak. Gora egin zuten urek eta ontzia lurretik jaso zuten. 18 Urak gero eta handiago eta indartsuago ziren, eta ontzia ur gainean zebilen.

19 Hain uholde handia izan zen, ezen zerupeko mendi-gailurrik garaienak ere estali baitzituen. 20 Eta oraindik ere zazpi metro gorago igo ziren urak.

21 Bizidun guztiak hil ziren: narrastiak, hegaztiak, abereak eta piztiak, eta lur-azalean mugitzen den oro, eta gizaki guztiak. 22 Lehorrean bizi-arnasa zuen oro hil zen. 23 Munduko izaki guztiak, bada, suntsitu ziren: giza-kietatik hasi eta abere, narrasti eta zeruko hegazti guztietaraino. Ez zen gelditu Noe eta beronekin ontzian zirenak besterik.

24 Ehun eta berrogeita hamar egunez iraun zuen uholdeak.

Uholdearen amaiera

8 1 Gogoratu zen Jainkoa Noe eta beronekin ontzian ziren piztia eta abere guztiez: haizea bidali zuen, eta urak jaisten hasi ziren. 2 Lur azpiko itsasoaren iturriak eta zeruko atexkak itxi ziren eta euria atertu. 3 Poliki-poliki atzera egin zuten urek lur-azaletik. Ehun eta berrogeita hamar egunen buruan jaitsiak ziren urak, 4 eta, zazpigarren hilaren hamazazpian, ontzia Ararat mendi gainean kokatu zen. 5 Urak gutxituz joan ziren hamargarren hilerarte; hilaren lehen egunean mendi-gailurrak agertu ziren.

6 Berrogei egunen buruan, Noek, berak egindako ontziko leihoa irekiz, 7 belea bidali zuen. Hau atera eta joan eta etorri ibili zen, lurreko urak lehortu arte.

8 Ondoren, usoa bidali zuen, urak lurrean gutxitu ote ziren jakiteko. 9 Baina usoa, bere hankak non pausaturik ezta, ontzira itzuli zen, oraindik ura baitzegoen lur-azalean. Noek, eskua luzatuz, usoa hartu eta ontzi barrura sartu zuen.

10 Beste zazpi egun itxaron eta berriro bidali zuen usoa ontzitik. 11 Arratsean etorri zitzaion, olibondo-adartxo moztu berria mokoan zekarrela. Hortik jakin zuen Noek urak gutxitu zirela lur gainean. 12 Beste zazpi egun itxaron eta usoa bidali zuen; oraingoan ez zen itzuli.

13 Beraz, Noeren bizitzaldiko seiehun eta batgarren urtean, lehen hilaren lehen egunean lehortu ziren urak. Noek ontziko estalkia zabaldu eta lur-azala lehor ikusi zuen. 14 Bigarren hilaren zazpian zen hori.

15 Orduan, Jainkoa mintzatu zitzaion Noeri: 16 «Irtan zaitez ontzitik emazte, seme eta errainekin. 17 Atera zeurekin dituzun bizidun guztiak ere: hegazti, abere eta narrasti guztiak. Zabal bitez munduan, sortu umeak eta ugaldu».

18 Atera zen Noe bere emazte, seme eta errainekin. 19 Atera ziren ontzitik bizidun guztiak ere: abere, hegazti eta narrastiak.

Noek erre-opariak eskaini Jainkoari

20 Noek aldarea eraiki zion Jaunari, eta, kutsatugabeko abere eta hegazti batzuk harturik, erre-oparizat eskaini zituen aldarean. **21** Jaunak, oparien lurrina atseginez usnatuz, bere baitarako esan zuen: «Ez dut berriro mundua madarikatuko gizakia dela eta; egia da okerrera jarria dagoela gizakia gaztetandik, baina ez ditut bizidunak berriro suntsituko, orain egin dudana bezala.

22 «Lurra diraueino, ereiteak eta uzta-biltzeak, hotzak eta beroak, udak eta neguak, egunak eta gauak ez dute behin ere huts egingo».

Jainkoak ituna egin Noerekin

9 **1** Jainkoak Noe eta beronen semeak bedeinkatu zituen, esanez: «Sortu umeak, ugaldtu eta bete lurra. **2** Zuen beldur-ikara izango dute abereak eta zeruko hegaztiak; lurreko narrastiak eta itsasoko arrainak zuen esku uzten ditut. **3** Bizi eta mugitzen den guztitik jan dezakezue; lehena landareak bezala, den-dena ematen dizuet. **4** Baina ez duzue haragia odolarekin jango, odolean baitago bizia. **5** Horregatik, zuen odolaren, hau da, zuen biziaren kontu eskatuko diet abereei, eta bere lagun hurkoaren biziaren kontu gizakiari.

6 «Giza odola isuriko duenari giza eskuak isuriko dio berea, Jainkoak bere irudiko

egin baitu gizakia.

7 Zuek sortu umeak, ugaldtu, zabaldu munduan eta bete ezazue jendez».

8 Jainkoak Noeri eta beronen semeei esan zien, gainera: **9** «Ituna egiten dut zuekin eta zuen ondorengoekin, **10** bai eta zuekin dituzuen bizidun guztiakin ere: hegazti, abere eta piztiakin, ontzitik atera diren guztiakin. **11** Hona ematen dizuedan itun-hitza: ez duela uholdeak berriro bizidun hondatuko, ez dela aurrerantzean mundua suntsituko duen uholderik izango».

Ostadarra

12 Hau ere esan zien Jainkoak: «Hau da zuei eta zuen artean bizi diren bizidun guztiei belaunez belaun eta betirako ematen dizuedan itun-hitza ezaugarria: **13** neure ostadarra ezartzen dut hodeien artean.

14 «Nik zerua lainotzean, ostadarra azalduko da hodeietan; **15** orduan, zuei eta bizidun guztiei emandako itun-hitza honetaz oroituko naiz: ez direla aurrerantzean urak uholde bihurtuko, bizidun oro suntsitzeko. **16** Ostadarra hodeietan ikustean, bizidun guztiei betirako ematen diedan itun-hitza honetaz oroituko naiz».

17 Jainkoak esan zion Noeri: «Hau da, bada, lurreko bizidun guztiakin egiten dudana itunaren ezaugarria».

Babelgo dorrea

11 **1** Garai hartan mundu guztiak hizkuntza eta mintzaira berberak zituen. **2** Ekialdetik etorririk, gizonek lautada bat aurkitu zuten Xinear lurraldean eta bertan kokatu ziren. **3** Honela esan zioten elkarri: «Ea, adreiluak egin eta sutan erre

ditzagun». Honela, harriaren ordeaz adreilua erabili zuten eta kare-orearen ordeaz bikea. **4** Gero, esan zuten: «Ea, eraiki ditzagun hiri bat eta zerurainoko dorre bat. Ospetsu egingo gara eta ez gara munduan zehar barreiatuko».

5 Jaitsi zen Jauna gizasemeak eraikitzen ari zirenean hiria eta dorrea ikustera, **6** eta esan zuten: «Hara, guztiak herri bat bera dira, hizkuntza bat berekoak. Hau beren lehenengo lana badute, ez zaie aurrerantzean egin nahiko duten ezer ezinezko gertatuko. **7** Jaitsi eta nahas diezaiegun, bada, hizkuntza, elkar uler ez dezaten».

8 Horrela, Jaunak handik bota eta mundu zabalean sakabanatu zituen; hiria eraikitzeari utzi egin behar izan zioten.

9 Horregatik, Babel —hau da, «Nahasketa»—, eman zioten izen, han nahasi baitzuen Jaunak mundu osoko hizkuntza eta handik sakabanatu baitzituen mundu zabalera.

4 Abiatu zen, beraz, Abraham, Jaunak agindu bezala. Hirurogeita hamabost urte zituen Harandik atera zenean. **5** Berekin hartu zituen bere emazte Sarai, iloba Lot, Haranen lortutako ondasunak eta erositako esklaboak. Hala, Kanaan aldera jo zuten.

Jaunak agintzaria berritu Abrahami

17 **1** Abrahamek lauurogeita hemeretzi urte zituela, berriro agertu zitzaion Jauna eta esan zion: «Ni Jainko Ahaltsua naiz. Bizi nire zerbitzuan, eta joka zuzen.

2 Ituna egingo dut zurekin: zure ondorengoak arras ugalduko ditut».

3 Ahuspez erori zen Abraham, eta Jainkoa mintzatzen jarraitu zitzaion:

4 «Hona egiten dizudan agintzaria: herri askoren sorburu izango zara.

5 Aurrerantzean, ez duzu Abraham izango izen, Abraham baizik, herri askoren sorburu egingo baitzaitut.

6 Ugalduko ditut zure ondorengoak, nazioen sorburu egingo zaitut eta erregeak aterako dira zuregandik.

7 Belaunenez belaun eutsiko diot zurekin eta zure ondorengoekin egin dudana itunari,

betirako balio izango du; zure eta zure ondorengoena Jainkoa izango naiz.

8 Zuri eta zure ondorengoei betiereko jabegotzat emango dizuet Kanaan lurraldea,

gaur egun atzerritar gisa bizi zareneko lurraldea; zure ondorengoena Jainkoa izango naiz».

Jaunak Abrahami dei

12 **1** Jaunak esan zion Abrahami:

«Utzi zeure lurra, zeure ahaideak eta zeure aitaren etxea eta zoaz nik erakutsiko dizudan lurraldera.

2 Nazio handi eginen zaitut. Ospetsu bihurtuko dut zure izena. Bedeinkatuko zaitut, eta bedeinkazio-iturri izango zara.

3 Bedeinkatzen zaituena bedeinkatu egingo dut; madarikatzen zaituena, berriz, madarikatu.

Zure bitartez bedeinkatuko ditut lurreko herri guztiak».

Isaaken jaiotzaz bigarren agintzaria

18 ¹ Behin batean, Jauna agertu zitzaion Abrahami Mamreren artaduan. Abraham oihal-etxolaren sarreran eserita zegoen, berorik handieneko orduan. ² Begiak jasorik, hiru gizona ikusi zituen bere aurrean zutik. Ikusi orduko, lasterka joan zitzaion oihal-etxolaren sarreratik. Ahuspez jarri ³ eta esan zion:

—Ene Jauna, begiko banauzu, ez alde egin, arren. ⁴ Berehala ekarriko dizuet ura, oinak garbitzeko. Hartzazue atsedean bitartean, zuhaitzaren itzalpean. ⁵ Jateko zerbaitekarriko dizuet indarberri zaitezten. Gero, bideari jarraituko diozue. Zerbaitegatik igaro zarete zeuen zerbitzari honen ondotik.

—Ongi da —erantzun zioten—; egizu esan bezala.

⁶ Abraham korrika sartu zen oihal-etxolara, Sararengana, eta esan zion:

—Bizkor, egizu orea irinik onenaz hirurentzat eta presta itzazu opil batzuk.

⁷ Abraham bera bizi-bizi joan zen ikuilura, eta, zekor guri eta gizen bat aukeraturik, morroi bati eman zion; honek berehala atondu zuen. ⁸ Hartu zituen gatzatua, esnea eta atonduriko okela, eta bisitarietara eraman zizkien. Haietara jaten zuten bitartean, zutik egon zen bera ondoan, zuhaitzpean. ⁹ Bukatzean, esan zioten: —Non da Sara zure emaztea?

—Oihal-etxolan —erantzun zion Abrahamek.

¹⁰ Jaunak esan zion:

—Zinez, urtebete barru itzuliko naitzaizu, eta ordurako zure emazte Sarak semea izango du.

Sara adi-adi zegoen oihal-etxolako atean. ¹¹ Abraham eta Sara oso zaharrak ziren, eta iragana zuen Sarak seme-alabak izateko garaia. ¹² Horregatik, irri egin zuen Sarak, bere artean pentsatuz: «Agor-agorra

nagoelarik, senti ote nezake atseginik? Eta nire senarra zaharra dela, gainera».

¹³ Orduan, Jaunak esan zion Abrahami:

—Zergatik ari da irribarrez Sara, zaharra izanik, semerik ezin duela izan pentsatuz?

¹⁴ Ba ote da ezer ezinezkorik Jaunarentzat? Urtebete barru itzuliko naitzaizunean, Sarak semea izango du!

¹⁵ Sarak, beldurturik, ukatu egin zuen, esanez:

—Ez dut irribarrerik egin.

—Nola ezetz! Irri egin duzu —erantzun zion hark.

Sodomako suntsipena iragarri

¹⁶ Ondoren, gizon haiek Sodomarantz abiatu ziren. Abrahamek lagundu egin zien apur batez, agurtu aurretik. ¹⁷ Honela ziharduen Jaunak berekiko: «Egingo dudaren berri eman gabe utzi behar ote dut Abraham? ¹⁸ Izan ere, berau izango da herri handi eta ahaltsu baten buru eta herri guztientzat bedeinkazio-iturri. ¹⁹ Berau hautatu dut bere seme-alaba eta etxekoei Jaunaren arabera bizitzen irakasteko, on eta zuzen dena eginez. Eta nik, Jaunak, bete egingo dut Abrahami aginduriko guztia».

²⁰ Esan zion, beraz, Jaunak Abrahami: «Izugarrria da Sodoma eta Gomorraren aurkako salakuntza. Larriegia da hiri horien bekatua. ²¹ Salakuntza hori egiaztatzen joan behar dut, eta egiazkoa den ala ez ikusi».

²² Gizasemeek Sodomarantz jo zuten.

Abrahamen erregua

Abraham, berriz, Jaunaren aurrean zutik gelditu zen. ²³ Hurbildurik, esan zion:

—Egiaz, errugabea galdu behar ote duzu errudunarekin batera? **24** Beharbada, berrogeita hamar errugabe izango dira herri horretan. Horiek ere hilarazi behar ote dituzu? Ez ote zenioke barkatuko hiri osoari berrogeita hamar errugabeongatik? **25** Utikan zuregandik errugabea errudunarekin batera hilaraztea! Nola jokatuko duzu, bada, berdin batarekin zein bestearekin? Munduaren epaileak ez ote du zuzenbiderik egingo?

26 Jaunak erantzun:

—Baldin berrogeita hamar errugabe aurkitzen badituz, haiengatik hiri osoari barkatuko diot.

27 Abrahamek esan zion:

—Hara, hauts eta errauts besterik ez naizen arren, ene jaun horri mintzatzera ausartzen naiz. **28** Gerta daiteke berrogeita hamarera iristeko bost falta izatea. Hiri osoa suntsituko ote duzu bost horiengatik?

—Ez —erantzun zion Jaunak—, ez dut suntsituko, berrogeita bost errugabe aurkitzen badituz.

29 Eta Abrahamek, berriro:

—Gerta daiteke berrogei besterik ez izatea.

—Ba —ihardetsi zion Jaunak—, ez dut suntsituko berrogei horiengatik.

30—Ez zaitetz haserre, ene Jauna —zionson Abrahamek—, oraindik ere mintzatzan banatzaizu. Badaiteke hogeita hamar besterik ez izatea.

—Ez dut suntsituko hogeita hamar aurkitzen badituz —erantzun zion Jaunak.

31 Abrahamek, berriro ere:

—Badakit ausartegia naizela, baina badaiteke hogei besterik ez izatea.

—Ez dut suntsituko hogei horiengatik —erantzun zion Jaunak.

32 Eta Abrahamek, oraindik:

—Ez haserre, Jauna, beste behin mintzatzan banatzaizu. Badaiteke hamar besterik ez izatea.

Jaunak erantzun zion:

—Ez dut suntsituko hamar horiengatik.

33 Abrahamekin mintzatzan amaitu ondoren, alde egin zuen Jaunak. Eta Abraham bere oihal-etxolara itzuli zen.

Lotek bi aingeruei abegi ona

19 **1** Bi aingeruak Sodomara iritsi zirenean, arratsaldean, Lot hiriko sarreran eseria zegoen. Ikusi zitueneko, altxatu eta bidera atera zitzairen. Ahuspezturik, **2** esan zien:

—Arren, ene jaunok, zatozte nire etxera, oinak garbitu eta gaua igaro dezazuen. Bihar, goizean goiz, zeuen bidaiari jarraituko diozue.

Haiek erantzun zioten:

—Ez! Nahiago dugu gaua plazan igaro.

3 Baina Lotek hainbeste erregutu zienez gero, berarekin joan ziren etxera. Afaria prestatu zien, legamigabeko ogia errearaziz, eta afaldu egin zuten.

4 Baina bidaiariak oheratu baino lehen, Sodomako gizaseme guztiek, zahar eta gazte, hiritar guztiek, etxea inguratu zuten.

5 Oihuka esan zioten Loti:

—Non dituk bart etorri zaizkian gizonak? Atera itzak, bortxatu egin nahi dizkizugu eta!

6 Lot atarira irten, bere atzean atea itxi **7** eta esan zien: —Arren, anaiok, ez egin horrelako gaiztakeriarik! **8** Hara, badituz oraindik birjina dauden bi alaba. Aterako dizkizuet zeuen gogora erabil ditzazuen. Gizaseme hauek, ordea, ez ukitu, ostatua eta babes eman baitizkiet.

9—Alde hortik! —erantzun zioten—. Hara, gure artean atzerritar izan eta zer egin behar dugun erakutsi nahi ziguk! Horiei baino tratu txarragoa emango diagu heuri.

Loten aurka oldartu ziren eta ateraino hurbildu, behera botatzeko asmoz. **10** Orduan, bisitariak heldu eta etxe barrura erakarri zuten Lot, eta atea itxi. **11** Etxe atarian zeudenak, zahar nahiz gazte, itsuturik utzi zituzten. Alferrik jardun zuten ate bila.

Sodomaren hondamendia

12 Gizaseme haiek esan zioten Loti: «Nor duzu besterik hemen? Atera hiri honetatik zeure seme-alabak, suhigaiak eta bertan daukazun guztia, **13** errautsi egin behar dut eta. Handiak dira, izan ere, bertako bizilagunak aurka Jaunak jaso dituen salaketak, eta hiria erraustera bidali gaitu».

14 Lotek suhigaien bila joan eta esan zien: «Ea, atera zaitezte hemendik, Jaunak errautsi egin behar baitu hiria». Baina haiek txantxetan ari zitzaizela pentsatu zuten.

15 Eguna argitzear zegoelarik, bisitariak presa eman zioten Loti, esanez: «Bizkor! Zoaz hemendik emazte eta alaba biek; bestela, hiri honi ezarritako zigor berean hilko zara!»

16 Eta, Lot nagi zebilela ikusirik, bisitariak indarrez atera zituzten bera, emazte eta bi alabak, eta hiritik kanpo utzi, erruki izan baitzien Jaunak.

17 Hiritik kanpora eraman zituztenean, haietako batek esan zion:

—Libra zaitezte! Ez begiratu atzera, ez gelditu ibar honetan. Ihes egizu mendira, hondamendian eror ez zaitezten.

18 Lotek, ordea, erantzun:

—Ez, arren, ene Jauna! **19** Egiaz zure zerbitzari hau begiko izan duzu eta ongina handia agertu didazu, bizirik gordez. Baina ez dut inolako salbabiderik mendian, hondamendiak harrapatu eta bidean hilko baininduke. **20** Ikusi herri koskor hura. Nahiko hurbil dago, bertan babesteko. Arren, uztazu herri txiki horretaraino joaten, eta bizirik aterako naiz.

21—Ea, bada —erantzun zion Jaunak—, emango dizut hori ere. Ez dut suntsituko aipatu didazun herrixka. **22** Zoaz bizkor, ez baitezaket ezer egin zu hara iritsi arte.

Honengatik, herri hari Tzoar —hau da, «Txiki»— deritza. **23** Eguzkia ateratzen ari zuen Lot Tzoarrera iritsi zenean. **24** Orduan, Jaunak sufre eta suzko euria bota zuen zerutik Sodoma eta Gomorraren gainera. **25** Jaunak erraustu egin zituen hiriak eta bertako bizilagunak, lautada osoa eta lurralde hartako landaretza.

26 Loten emazteak atzera begiratu zuen, eta gatz-irudi bihurtu zen.

27 Abraham, goizean goiz jaikirik, Jaunarekin egondako lekura joan zen. **28** Eta Sodoma, Gomorra eta ibarraldeko lautada osora begiraturik, kea ikusi zuen labe batek bezala lurretik altxatzen.

29 Honela, ibarreko hiriak errautsi zituztenean, Abrahamek gogoratu zuen Jainkoa eta onez atera zuen Lot, bizi zeneko hirien hondamen hartatik.

Isaaken jaiotza

21 **1** Agindu bezala, Jauna aldeko agertu zitzaion Sarari eta esana bete zion. **2** Abraham zaharra izan arren, Sara haurdun gertatu zen, eta semea eman zion, Jainkoak iragarritako garaian. **3** Abrahamek, Isaak ezarri zion izen Sararengandik izandako semeari. **4** Zortzi egun iragan ondoren, erdaindu egin zuen, Jainkoak agindu bezala.

5 Abrahamek ehun urte zituen Isaak jaio zitzaionean. **6** Sarak esan zuen: «Irri egiteko bide eman dit Jainkoak, eta honen berri jakingo duten guztiak irri egingo dute nirekin batera». **7** Eta esan zuen gainera: «Nork esango ziokeen Abrahami, Sarak haurrak izango zituela? Hala ere, bere zahartzaroan, semea eman diot».

Agar eta Ismael

8 Isaak handitzen ari zen. Bularra kendu zioten egunean, Abrahamek otordu bikaina antolatu zuen.

9 Ohartu zen Sara, Agar egiptoarrarengandik Abrahamek izandako semea bere seme Isaakekin ari zela jostatzen. **10** Eta honela esan zion Abrahami: «Bidal itzazu etxetik mirabea eta beronen semea. Honek ez baitu oinordeko izan behar nire seme Isaakekin batera!»

11 Biziki atsekabetu zen Abraham, Ismael ere bere seme baitzuen. **12** Baina Jainkoak esan zion: «Ez zaitetz atsekabe zeure mirabe eta mutikoagatik. Egiozu jaramon Sarak esaten dizun guztiari, Isaaken bidez izango baituzu ondorengoak. **13** Baina zeure mirabearen seme horren bidez ere herri handi bat sortaraziko dut, hori ere zeure seme duzulako».

14 Abrahamek, goizean goiz jaiki, ogia eta zahato bat ur hartu eta Agarra ezarri zizkion bizkarrean. Hala, haurrarekin batera igorri egin zuen etxetik. Abiatu zen, bada, Agar, eta Beer-Xeba eremuan noragabe ibili zen.

15 Zahatoko ura ahitu zitzaionean, zuhaitz baten azpian utzi zuen haurra **16** eta, urrutiraturik, aurrez aurre eseri zitzaion ehunen bat metrora. Honela zioen berekiko: «Ez dinat neure semea hiltzen ikusi nahi». Ama eseria zegoelarik, negarrez hasi zen haurra ozenki. **17** Aritu zuen Jainkoak mutikoaren ahotsa, eta Jainkoaren aingeruak dei egin zion zerutik Agarra, esanez: «Zer duzu, Agar? Ez izan beldur, aditu baitu Jainkoak hor duzun mutikoaren ahotsa. **18** Ea, hartzazu berriro mutikoa eta ez utzi eskutik, herri handi baten aita bihurtuko baitut».

19 Orduan, Jainkoak ur-putzu bat ikusarazi zion Agarra. Honek zahatoa urez bete eta edaten eman zion mutikoari.

20-21 Jainkoa lagun izan zuen mutikoak; hau handituz joan zen eta Parango eremuan bizi izan zen. Arkulari trebe bihurtu zen. Amak emakume egiptoar bat eman zion emaztetzat.

Isaak opari eskainia

22 **1** Handik aldi batera, Jainkoak probatu egin nahi izan zuen Abraham eta dei egin zion:

—Abraham!

Honek erantzun:

—Hemen nauzu!

2 Eta Jainkoak:

—Hartzazu Isaak zeure semea, hain maite duzun seme bakarra, eta zoaz Moria lurraldera. Igo zaitetz nik erakutsiko dizudan mendira eta eskaini iezadazu semea han erre-oparizat.

3 Biharamunean, goizean goiz jaiki zen Abraham, txalmatu zuen astoa eta, oparitarako egurra txikiturik, Jainkoak esandako lekura joan zen, bere seme Isaak eta bi morroirekin. **4** Hirugarren egunean, urrutira, aipatutako lekua ikusi ahalizan zuen Abrahamek. **5** Orduan, esan zien morroiei: «Gelditu hemen astoarekin. Mutikoa eta biok hara goaz, Jainkoa gurtzeko. Gero, itzuliko gara».

6 Hartu zuen Abrahamek oparitarako egurra, eta bizkarrean jarri zion bere seme Isaaki; berak aiztoa eta sua zeramatzan. Biak batera zihoazela, **7** Isaakek bere aita Abrahami esan zion:

—Aita!

—Zer duzu, seme? —erantzun zion Abrahamek.

Eta Isaakek:

—Sua eta egurra badaramatzagu; baina non dugu oparitarako arkumea?

8 Abrahamek erantzun:

—Utzi hori Jainkoaren esku, seme!

Eta elkarrekin zihoazen bidean.

9 Jainkoak aipatutako lekura iritsi zirenean, aldarea eraiki zuen Abrahamek eta egurra prestatu. Ondoren, lotu zuen Isaak eta aldareko egur gainean ezarri. **10** Eskua luzatuz, hartu zuen aiztoa bere semea hiltzeko. **11** Baina Jaunaren aingeruak dei egin zion zerutik:

—Abrahan! Abrahan!

—Hemen nauzu! —erantzun zuen Abrahamek.

12 Aingeruak, orduan:

—Geldi esku hori! Ez egin kalterik mutikoari! Orain badakit Jainkoari begirune diozula, ez baitiozu zeure seme bakarra ere ukatu.

13 Jaso zituen begiak Abrahamek, ingurura begiratu eta bere eskuinean ahari bat ikusi zuen sasi artean adarretatik kateatua. Hartu eta erre-oparizat eskaini zuen bere semearen ordez.

14 Abrahamek leku hari «Jaunak du hornitzen» ezarri zion izen, eta gaur egun ere hala dio jendeak: «Mendian Jaunak du hornitzen».

15 Bigarren aldiz deitu zion Jaunaren aingeruak zerutik, **16** esanez: «Honela dio Jaunak: Hala jokatu duzulako, zeure seme bakarra ere ukatu ez didazulako, nik neurez zin dagit: **17** Oparo bedeinkatuko zaitut eta zure ondorengoak zeruko izarrak eta itsasertzeko hondarra bezain ugari egingo ditut eta etsaien hiriez jabetuko dira. **18** Zure ondorengo bidez lurreko herri guztiak bedeinkatuko ditut, nire esana bete duzulako».

19 Orduan, Abrahan bere morroiengana itzuli eta elkarrekin Beer-Xebara joan ziren. Hantxe jarri zen Abrahan bizitzen.

Isaakentzat emaztea hautatu

24 **1** Abrahan zaharra zen, adinean aurreratua. Jaunak gauza guztietan bedeinkatua zuen. **2** Etxeko bere morroi zaharrenari, zuen guztiaren arduradunari, esan zion Abrahamek:

—Ezarri eskua nire izterpean. **3** Zin egidazu Jaunarengatik, zeru-lurren Jainkoarengatik, ez duzula nire semearentzat emazterik

hartuko bizi naizen lurralde honetako kanandaren alabetatik, **4** baizik eta nire sorterrira eta ahaideengana joango zarela, nire seme Isaakentzat emaztea hautatzera.

5 Morroiak galdegin zion:

—Beharbada, neskak ez du lurralde honetara nirekin etorri nahi izango. Orduan, zure semea zure sorterrira eraman beharko ote dut?

6 Abrahamek erantzun:

—Ez eraman hara nire semea. **7** Zeruko Jainko Jaunak nire aitaren etxetik eta nire ahaideetatik hartu ninduen eta zin eginez agindu zidan: «Lurralde hau zure ondorengoei emango diet». Hain zuzen, berak bidaliko dizu aingerua aurretik, handik nire semearentzat emaztea hartu ahal izan dezazun. **8** Eta emakumeak zurekin etorri nahi ez badu, egin didazun zin-hitzetik aske geldituko zara. Dena den, ez eraman hara nire semea.

9 Morroiak, orduan, bere nagusi Abrahamen izterpean eskua ezarri eta zin egin zion.

Rebeka, Betuelen alaba

10 Bere nagusiaren hamar gamelu eta gauzarik hoberenak harturik, Mesopotamia aldera abiatu zen morroia, Nahor bizi zen hirira.

11 Bertara iristeko zegoela, gameluak ur-putzu baten ondoan etzanarazi zituen. Arratsaldea zen, emakumeak ur bila joan ohi ziren sasoi. **12** Bere baitan otoitzari eman zion, honela: «Jauna, nire nagusi Abrahamen Jainkoa, arren, aurki dezadala gaur bila nabilena; ager ezazu nire nagusi Abrahami diozun onginahia. **13** Ni ur-putzu honen ondoan geldituko naiz. Hiriko neskatxak ura ateratzera datozenean, **14** esango diot haietariko bati: "Eraitsi zeure pegarra edan dezadan".

Berak erantzungo balu: “Edazu, eta zure gameluei ere emango diet edaten”, izan bedi huraxe zeure zerbitzari Isaakentzat hautatu duzuna. Honela jakingo dut zeure onginahia agertu diozula nire nagusiari».

15 Bere arteko otoitza amaitu baino lehen, horra non hurbiltzen den Rebeka, pegarra sorbaldan duela. Betuelen alaba zen; Betuel, berriz, Abrahamen anaia Nahorren eta Milkaren semea. **16** Neskak oso ederra zen, birjina eta ezkongabea. Ur-putzura jaitsi, pegarra bete eta igo egin zen. **17** Abrahamen morroia lasterka bidera atera zitzaion eta honela mintzatu:

—Emaidazu, arren, ur pixka bat zeure pegarretik.

18 Hark erantzun:

—Edazu, jauna.

Eta, berehala pegarra besoetara eraitsirik, edaten eman zion.

19 Edan zuenean, esan zion neskak:

—Zure gameluentzat ere ura ateratzera noa, ase arte edan dezaten.

20 Hustu zuen pegarra askan, eta lasterka joan zen putzura ur gehiago hartzera, gamelu guztiei eman zien arte. **21** Bien bitartean, morroia hari begira zegoen, isilean bere buruari galdezka bere bidaiaren helburua lortarazi ote zion Jaunak. **22** Gamelu guztiak ase zirenean, hartu zituen morroiak sei gramoko urrezko eratzuna eta ehun gramoko eskumuturreko, **23** eta galdegin zion:

—Adizu! Noren alaba zara? Ba ote da zure aitaren etxean tokirik guretzat, gaua igarotzeko?

24 Rebekak erantzun zion:

—Betuelen alaba naiz, Milkak Nahorri eman zion semearena.

25 Gainera, esan zion:

—Bada gure etxean lasto eta belar ugari, eta bai eta gaua igarotzeko tokia ere.

26 Orduan, morroiak, ahuspezturik, Jauna gurtu zuen, **27** esanez: «Bedeinkatua Jauna, nire nagusi Abrahamen Jainkoa, onbera eta leiala izan baita ene nagusiarekin.

Jaunak neure nagusiaren ahaideen etxerako bidean jarri nau».

Ezkon-tratua

28 Neskak lasterka joan zen etxera gertatu zitzaionaren berri amari ematera.

29-30 Rebekak neba bat zuen, Laban ize-nekoa. Bere arrebak zeramatzen eratzuna eta eskumuturrekoak ikusi eta gizon bat mintzatu zitzaioela entzunik, Laban etxetik atera eta ur-putzu aldera joan zen korrika morroiarengana. Hau oraindik ur-putzutik hurbil zegoen, gameluen ondoan. **31** Labanek esan zion: «Zertan zaude hor kanpogan? Zatoz etxera, Jaunak bedeinkatu hori! Atondua dut etxea, bai eta gameluentzako tokia ere».

32 Labanek, etxean sartu, gameluei zamak kendu eta lastoa eta belarra eman zizkien. Ondoren, ura ekarri zien morroiari eta honen bidelagunei, oinak garbitzeko.

33 Janaria aurrean jarri zien, baina morroiak esan zuen:

—Ez dut jango, esateko dudana esan aurretik.

Labanek erantzun zion:

—Esan, bada.

34 Morroiak jarraitu zuen:

—Abrahamen morroia nauzu. **35** Jaunak oparo bedeinkatu du nire nagusia eta aberats egin: ardi eta behiak, zilar eta urrea, morroi eta mirabeak, gamelu eta astoak eman dizkio. **36** Sarak, nire nagusiaren emazteak, nire nagusiari seme bat sortu dio bere zahartzaroen, eta honek semeari utzi dizkio bere ondasun guztiak. **37** Neure nagusiak zin eragin zidan, esanez: «Ez duzu nire semearentzat emazterik hartuko bizi naizen lurralde honetako kanaandarren alabetatik. **38** Aitzitik, nire aitaren etxera, nire ahaideengana joango zara nire semearentzat emaztea hartzera». **39** Orduan, nagusiari esan zion: «Beharbada, neskak ez du nirekin etorri

nahi izango». **40** Hark erantzun zidan: «Ni Jaunaren zerbitzuan bizi izan naiz beti eta hark bere aingerua bidaliko du zurekin; zure bidaiaren helburua lortaraziko dizu, eta nire semearentzat emaztea hartuko duzu nire ahaideen artetik, nire aitaren etxetik. **41** Nire ahaideengana joan ondoren, zin-hitzetik aske geldituko zara. Emaztea eman nahi ez badizute ere, zin-hitzetik aske geldituko zara». **42** Beraz, gaur ur-putzura iristean, neurekiko esan dut: «Jauna, nire nagusi Abrahamen Jainkoa, egiten ari naizen bidaiaren helburua lortarazi nahi badidazu, **43** ur-putzu honen ondoan geldituko naiz; eta neskatxaren bat ura ateratzera datorrenean, hau esango diot: "Emaidazu, arren, ur pixka bat zeure pegarretik". **44** Hark erantzungo balit: "Edazu zeuk, eta zure gameluentzat ere aterako dut ura", izan bedi hori, Jauna, nire nagusiaren semearentzat hautatu duzun emaztea.

45 «Nirekiko otoitza amaitu baino lehen, hona non azaldu den Rebeka, pegarra sorbaldan duela, eta ur-putzura jaitsi ura ateratzera. "Emaidazu, arren, edaten", esan diot. **46** Eraitsi du berehala pegarra sorbaldatik eta esan dit: "Edazu, eta emango diet edaten zure gameluei ere". Edan dut nik eta eman die edaten nire gameluei ere. **47** Ondoren, galdegin diot: "Noren alaba zara?". "Betue-lena, Milka eta Nahorren semearena", erantzun dit. Orduan, eratzuna ezarri diot sudurrean eta eskumuturrekoak. **48** Ahuspeztu eta Jauna gurtu dut. Bedeinkatu dut Jauna, neure nagusi Abrahamen Jainkoa, zuzeneko bidetik ekarri nauelako, haren semearentzat neure nagusiaren iloba emaztetzat hartzeko. **49** Orain, bada, esadazue nire nagusiarekiko onbera eta leial agertu nahi duzuen ala ez, nora jo jakin dezadan».

50 Labanek eta Betuelek erantzun zioten: —Jaunaren gauza da hau; ezin dizugu esan ez baietz, ez ezetz. **51** Horra, hor duzu aurrean Rebeka. Hartzazu eta zoaz. Izan bedi zure nagusiaren semearen emazte, Jaunak esan bezala.

52 Abrahamen morroia, hitzok entzun orduko, lurrean ahuspeztu zen, Jaunari eskerak emanez. **53** Atera zituen zilarrezko eta urrezko bitxiak eta soinekoak, eta Rebekari eman zizkion. Honen nebari eta amari ere egin zizkien opariak. **54** Gero, morroia eta bidelagunak afaldu eta lotara joan ziren.

Biharamun goizean, jaikitzean, morroiak esan zuen:

—Uztazue neure nagusiarengana itzultzen.

55 Rebekaren nebak eta amak esan zioten:

—Bego oraindik neskatxa gurekin hamarren bat egun; gero joango zara.

56 Morroiak esan zien:

—Ez nazazue atzerarazi, Jaunak nire bidaiari bukaera ona eman dionez gero. Uztazue neure nagusiarengana itzultzen.

57 Orduan, esan zioten:

—Deitu eta galde diezaiogun neskatxari berari.

58 Deitu eta galdegin zioten Rebekari:

—Joan nahi al dun berehala gizon honekin?

—Bai! —erantzun zuen.

59 Orduan, amore eman zuten, beren arreba Rebeka eta honen inudea Abrahamen morroiarekin eta bidelagunekin joan zitezen, **60** eta Rebekari, bedeinkatuz, esan zioten:

*«Izan dezazula
ondorengo ugari, arreba!
Mendera ditzatela zure ondorengoek
etsaien hiriak!».*

61 Jaiki ziren Rebeka eta honen mirabe-ak, gameluetara igo eta Abrahamen morroiarekin abiatu ziren denak.

Rebeka Isaaken emazte

62 Isaak Lahai-Roiko ur-putzura itzulia zen, Negev lurraldean bizi baitzen. **63** Arrats batean, landara ibilaldi bat egitera joan eta, begiak jasorik, gameluak zetozela ikusi

zuen. **64** Rebekak ere jaso zituen begiak eta, Isaak ikusirik, gamelutik jaitsi zen, **65** eta morroiari galdegin:

—Nor da landan zehar bidera datorki-
gun gizon hori?

Morroiak erantzun:

—Ene nagusia.

Orduan, Rebekak bere aurpegia estali zuen zapi batez. **66** Eginiko guztia kontatu zion morroiak Isaaki. **67** Honek bere ama Sararena izandako oihal-etxolara eraman zuen Rebeka. Emaztetzat hartu eta maite izan zuen. Honela poztu zuen Isaakek bere burua, ama hil ondoren.

Esau eta Jakob

25 **19** Hona hemen Abrahamen seme Isaaken historia. Abrahamek Isaak sortu zuen. **20** Isaakek berrogei urte zituen, Betuelen alaba eta Labanen arreba zen Rebekarekin ezkondu zenean. Betuel eta Laban Mesopotamiako aramearrak ziren.

21 Rebeka emaztea agorra zela-eta, haren alde erregutu zion Isaakek Jainkoari. Jaunak erregua aditu eta haurdun gelditu zen Rebeka. **22** Bi ume ari zitzaizkion sabelean elkarren lehian. Rebekak zioen berekiko: «Zergatik gertatu zait gero niri horrelakorik?» Jaunarengana jo zuen argitasun eske, **23** eta Jaunak erantzun:

*«Bi nazio dituzu sabelean,
bi herri aterako zaizkizu erraietatik:
bata besteari nagusituko zaio,
zaharrena gazteenaren morroi izango da».*

24 Erditzerakoan bikiak izan zituen. **25** Lehenengo atera zena ilegorria zen, abere-larrua bezain iletsua: Esau eman zioten izen. **26** Berehala anaia irten zen, bere eskuaz anaiaren orpoari helduta. Honengatik, Jakob eman zioten izen. Hirurogei urte zituen Isaakek Rebekak bikiak izan zituenean.

27 Haurrak handi egin ziren. Esau ehiztari trebe bihurtu zen eta oihan-gizon. Jakob, ostera, gizon patxadatsua zen eta etxekoia.

28 Isaakek maiteago zuen Esau, gogoko baitzuen ehiza-jana; Rebekak, aldiz, Jakob zuen maiteago.

Esauk bere lehensemetza- eskubidea saldu

29 Behin batean, Jakob lapikokoa egosten ari zela, iritsi zen Esau oihanetik, oso nekatua, **30** eta esan zion anaiari:

—Emadak lapikoko gorri horretatik, leher egina nator eta.

(Honegatik, Edom, —hau da, «Gorri»— izena ezarri zitzaion).

31 Jakobek esan zion:

—Heure lehensemetza-eskubidearen truke emango diat.

32 Esauk erantzun:

—Goseak hiltzear egonik, zertarako diat lehensemetza-eskubidea?

33 Eta Jakobek:

—Zin egidak.

Zin egin zion Esauk, lehensemetza-eskubidea salduz. **34** Orduan, eman zizkion Jakobek anaiari ogia eta platerkada dilista. Hark jan, edan, mahaitik altxa eta alde egin zuen. Honela gutxietsi zuen Esauk bere lehensemetza-eskubidea.

Esaturen ordeztu Jakob bedeinkatu

27 **1** Zahartu zen Isaak, eta ezer ez ikusteraino ahuldu zitzaion ikusmena. Egun batean, Esau bere seme nagusiari deitu zion:

—Seme!

Esauk erantzun:

—Hemen nauzu!

2 Isaakek jarraitu zuen:

—Zahartu naiz eta une batetik bestera hil naiteke. **3** Har itzazu ehizarako iskiluak, uztaia eta geziak, zoaz oihanera eta harrapa ezazu piztiaren bat. **4** Ondoren, atondu iezadazu atsegin dudan erako jaki goxoa eta ekarri, jan dezadan. Gero, neure bedeinkazioa emango dizut, hil baino lehen.

5 Rebekak aditu zuen Isaakek bere seme Esauri esandakoa. Esau aitari eskaintzeko ehiza bila oihanera joan orduko, **6** Rebekak bere seme Jakobi esan zion:

—Begira, zure aitari entzun diot Esauri esaten: **7** «Ekarri ehiza eta atondu jaki goxo bat, jan dezadan. Gero, Jaunaren aurrean bedeinkatuko zaitut, hil baino lehen». **8** Orain, seme, entzun eta egizu nire agindua: **9** Zoaz abere-taldera eta ekarri bi ahuntz guri, eta jaki goxoa prestatuko diot aitari, atsegin duen bezalakoa. **10** Zeuk eramango diozu jateko; horrela, zu bedeinkatuko zaitu hil aurretik.

11 Jakobek erantzun zion bere ama Rebekari:

—Baina Esau iletsua da, eta ni azal leunekoa. **12** Baliteke, ni ukitu eta iruzur egiten diodala aita ohartzea. Orduan, bedeinkazioaren ordezkari madarikazioa erakarriko nuke neure gain.

13 Amak esan zion:

—Betor niregana delako madarikazio hori. Egizu nire esana eta zoaz agindutakoa ekartzera.

14 Joan zen, bada, agindutakoa hartzera, eta amarengana itzuli zen. Honek jaki goxoa prestatu zuen, aitak atsegin zuen bezalakoa. **15** Rebekak, berehala, bere seme nagusi Esauri arropak, etxean zeuzkan arroparik dotoreenak, hartu eta Jakob bere seme gazteenari jantzarazi zizkion. **16** Ahuntz-ileaz estali zizkion eskuak eta lepo leuna. **17** Eta prestaturiko okela eta ogia bere seme Jakob ben eskuetan jarri zituen.

18 Sartu zen Jakob aitarengana eta esan zion:

—Aita!

—Bai, seme —erantzun zion hark—. Baina nor zara zu?

19 Jakobek aitari:

—Esau zure seme nagusia. Bete dut eskatu didazuna. Jaiki, mesedez, eseri eta jan nik ehizatua, bedeinka nazazun.

20 Isaakek erantzun zion:

—Bai azkar aurkitu duzula, seme! Jakobek esan zuen:

—Jaunak, zure Jainkoak, eman dit hartarako egokiera.

21 Orduan, esan zion Isaakek:

—Zatoz hurbilago, seme, uki zaitzadan, egiaz nire seme Esau ote zaren ala ez jakiteko.

22 Hurbildu zitzaion Jakob bere aita Isaaki, eta honek ukitu eta esan zuen:

—Jakobena da mintzoa; eskuak, ordea, Esauriarenak.

23 Ez zuen ezagutu, eskuak anaia Esauriarenak bezain iletsuak baitziren, eta bedeinkazioa eman zion. **24** Isaakek galdegin zion:

—Egiaz nire seme Esau al zara?

—Bai, Esau naiz —erantzun zion Jakobek.

25 Gero, Isaakek:

—Emaidazu jaten ehizakia, seme, eta bedeinkatu egingo zaitut.

Jakobek eman eta hark jan egin zuen. Ekarri zion ardoa eta hark edan. **26** Orduan, esan zion aitak:

—Zatoz hurbilago eta besarka nazazu, seme.

27 Hurbildu eta besarkatu egin zuen. Isaakek, haren arropak usaindu zituenean, bedeinkatu egin zuen, esanez:

«Nire semearen usaina,

Jaunak bedeinkaturiko zelaiaren usaina.

28 Jainkoak eman diezazkizula zeruko ihintza eta lurreko guritasuna, ogi-ardotan oparotasuna.

29 Izan ditzazula herriak zerbitzari, makur daitezela nazioak zure aitzinean. Izan zaitetz zeure senideen nagusi,

makur daitezela zure aitzinean
zure amaren semeak!
Madarikatua, zu madarikatzen zaituena!
Bedeinkatua, zu bedeinkatzen zaituena!».

Isaak eta Esau iruzurraz ohartu

30 Isaakek bedeinkatu eta Jakobek bere aita utzi bezain laster, Esau iritsi zen ehizatik. 31 Honek ere aitak atsegin zuen jaki goxoa prestatu, aitari eraman eta esan zion:

—Jaiki zaitez, aita, eta jan zeure seme honen ehizakitik, bedeinka nazazun.

32 Aita Isaakek galdegin zion:

—Nor zara zu?

—Esau seme zaharrena nauzu —erantzun zion hark.

33 Zirrara ikaragarriak hartu zuen Isaak, eta esan zuen:

—Nor zen, bada, ehizatik etorri eta jatekoa ekarri didana? Harenetik jan dut zu sartu baino lehen. Bedeinkatu egin dut eta betirako dago bedeinkatua.

34 Aitaren hitzak entzutean, Esauk garra-si handi mingotsa egin eta esan zion:

—Bedeinka nazazu neu ere, aita.

35 Isaakek erantzun:

—Azpikeriaz etorri da zure anaia eta berak hartu du zure bedeinkazioa.

36 Esauk ihardetsi zion:

—Ongi jarria du, bai, Jakob izena, orain-goarekin bi bider kendu baitit txanda. Lehensemetsa-eskubidea kendu zidan lehengo eta, orain, bedeinkazioa. Esan zion, gainera:

—Ez al duzu niretzat beste bedeinkaziorik?

37 Isaakek erantzun:

—Hara, zure nagusi egin dut eta senide guztiak haren zerbitzari bihurtu. Ogiz eta ardoz hornitu dut. Zer egin dezaket zure alde, seme?

38 Esauk esan zion:

—Ez al duzu bedeinkazio bakar bat besterik, aita? Bedeinka nazazu neu ere!

Esau negarrez hasi zen ozenki. 39 Eta Isaak honela mintzatu zitzaion:

«Begira,
lur gurietatik kanpo biziko zara,
zeruko ihintzetik urrun.
40 Ezpataz zainduko duzu bizia,
eta zeure anaia zerbitzatuko;
baina bere garaian botako duzu lepotik
haren uztarria».

Jakob ihesi Rebekak gomendatuta

41 Esauk begitan hartu zuen Jakob, honek aitarengandik lortutako bedeinkazio-agatik. Honela zioen berekiko: «Hurbil duk gure aitaren hileta-eguna; orduan, Jakob nire anaia hilko diat».

42 Rebekak, lehen-seme Esaturen asmoei antzemanik, Jakob seme gazteenari dei egin eta esan zion: «Adizu, Esau zure anaiak mendekua hartu nahi du zure bizkarretik, zu hilez. 43 Entzun, seme. Ihes egizu Haranera, Laban nire anaiarenera. 44 Gelditu harekin denboraldi bat, zure anaiari haserre baretu arte. 45 Anaiak zuk egina ahaztu eta haren amorruek atzera egin dezanean, bidaliko dut norbait hara, zure bila. Zer dela-eta galdu behar ditut neure seme biak egun berean?».

Isaakek Jakob Mesopotamiara bidali

46 Rebekak esan zion Isaaki: «Bizitzaz nazaturik nago Esaturen emakume hitita horien-gatik. Zertarako bizi, Jakob ere lurralde honetako emakumeren batekin ezkontzen bada?».

28 ¹ Deitu zuen, bada, Isaakek Jakob bere semea eta bedeinkatu egin zuen. Eta agindu hau eman zion: «Ez zara emakume kanaandarrokin ezkonduko. ² Ea, zoaz Mesopotamiara, Betuel zeure aitona-nera. Hartzazu han emaztetzat Laban zeure osabaren alabetariko bat.

3 «Jainko ahaltsuak bedeinka zaitzala, emankor egin eta ugaldu zaitzala, herri askoren sortzaile bihur zaitezten!

4 Eman diezazueta Abrahamen bedeinkazioa, zuri eta zure ondorengoei, orain atzerri duzun lurralde hau, Jainkoak Abrahami emandakoa, eskura dezazun».

5 Horrela bada, Isaakek Mesopotamiara bidali zuen Jakob, Labanen etxera. Hau Betuel aramearraren semea zen, Jakob eta Esauren ama Rebekaren anaia.

Esau berriro ezkondu

6 Esauk jakin zuen Isaakek Jakob bedeinkatu eta Mesopotamiara bidali zuela emazte bila, bedeinkatzean agindu hau emanez: «Ez zara Kanaango emakumeekin ezkonduko».

7 Aitamen esanera, abiatu zen Jakob. **8** Ohartu zen, beraz, Esau, aitik ez zituela begiko Kanaango emakumeak, **9** eta Abrahamen seme Ismaelengana joan zen. Eta zituen emazteez gain, Ismaelen alaba eta Nebaioten arreba Mahalat hartu zuen emaztetzat.

Jakoben ametsa

10 Atera zen Jakob Beer-Xebatik Haranerantz. **11** Eguzkia sartzean, zegoen lekuan igaro zuen gaua. Harri bat burukotzat harturik, bertan etzan zen. **12** Amets hau egin

zuen: eskailera bat ikusi zuen, beheko ertza lurrean eta goikoa zeruan zituena, eta Jainkoaren aingeruak zurubian gora eta behera. **13** Hortan, Jauna agertu zitzaion bere ondoan zutik, honela zioela:

«Jauna naiz ni,
zure arbaso Abrahamen
eta Isaaken Jainkoa.
Etzanik zaudeneko lurra
zuri eta zure ondorengoei
emango dizuet.

14 Zure ondorengoak
lurreko hautsa bezain ugari
izango dira.
Mendebalde eta ekialdera,
iparralde eta hegoaldera hedatuko zara.
Zure eta zure ondorengoen bitartez
lurreko senitarte guztiak
bedeinkatuko ditut.

15 Begira, zeurekin nauzu!
Noranahi zoazela, zainduko zaitut
eta lurralde honetara itzularaziko.
Ez, ez zaitut eskutik utziko,
esan dizudana bete arte».

16 Esnatu zen Jakob eta esan zuen: «Egiaz Jauna hemen dago eta ni ohartu ez».

17 Eta, beldurturik, esan zuen: «Bai ikaragarria leku hau! Jainkoaren etxea da, zeruko atea».

18 Goizean goiz jaiki eta, burukotzat zeukan harria harturik, zutik ezarri zuen Jakobek, eta olioia isuri zuen gainera, Jaunari sagartzeko.

19 Leku hari Betel —hau da, «Jainkoaren etxe»— eman zion izen; lehenago Luz zeritzon leku hari. **20** Gero, promes hau egin zuen Jakobek:

«Jainkoa neurekin badut,
eta bidaiia honetan babesten banau,
jateko ogia
eta janzteko arropak ematen badizkit,
21 aitarenera bizirik eta osasuntsu
itzultzzen banaiz,

Jauna izango dut neure Jainko.

22 Oroitarri gisa eraiki dudan harri hau Jainkoaren etxe izango da.

Jaunari, ematen didan guztitik, hamarrena bihurtuko diot».

Jakob Labanen etxean.

Lea eta Rakel

29 ¹ Abiatu zen Jakob eta ekialderantz jo zuen. ² Bidean zihoala, putzu bat begiztatu zuen landan eta hiru artalde putzu ondoan etzanak, handik edaten baitzuten artaldeek. Harri handi batek estaltzen zuen putzuko ahoa. ³ Abere-talde guztiak biltzen zirenean, artzainek harria mugitu ohi zuten putzuko aho gainetik eta, ardiei edanarazi ondoren, harria bere lekura, putzu-ahora, itzuli.

⁴ Jakob honela mintzatu zitzaien artzainei:

—Anaiok, nongoak zarete?

—Haran herrialdekoak —erantzun zioten.

⁵ Hark galdetu:

—Ezagutzen al duzue Laban, Nahorren semea?

Haiek erantzun:

—Bai, ezagutzen dugu.

⁶ Eta Jakobek:

—Ongi al da?

—Bai, ongi da —erantzun zioten—. Hor dator, hain zuzen, haren alaba Rakel, ardiekin.

⁷ Jakobek esan zien:

—Begira, oraindik eguargi da. Ez da abereak biltzeko garaia. Eman ardiei edaten eta eramán larrera.

⁸ Baina haiek erantzun zuten:

—Ez dugu hori egiterik, abere-talde guztiak bildu arte; orduan mugituko dugu harria putzuko aho gainetik eta edaten emango.

⁹ Oraindik Jakob haiekin hizketan ari zela, Rakel iritsi zen aitaren ardiekin, artzain

ibiltzen baitzen. ¹⁰ Jakobek, Rakel bere lehengusina eta Laban bere osabaren ardiak ikusi orduko, hurbildu eta putzu-ahoko harria mugiarazi zuen, eta bere osabaren ardiei edaten eman zien. ¹¹ Gero, Jakobek besarkatu egin zuen Rakel eta negarrez hasi zen ozenki. ¹² Rakeli adierazi zion beraren aitaren ahaidea zela, Rebekaren semea. Orduan, Rakel lasterka joan zen, aitari berri ematera.

¹³ Iloba Jakoben berri entzun zuenean, berehala joan zitzaion Laban. Hertsiki besarkatu zuen eta laztandu, eta etxera eramán. Jakobek gertatu zitzaion guztia kontatu zion. ¹⁴ Labanek esan zion: «Zinez neure odol berekoa zara».

Eta harekin gelditu zen Jakob hilabete osoan.

Jakob Lea eta Rakelekin ezkondu

¹⁵ Labanek esan zion Jakobi: «Nire ahaidea zarela eta, hutsaren truke egin behar al duzu lan niretzat? Esadazu zer ordaindu behar dizudan».

¹⁶ Labanek bi alaba zituen: nagusienari Lea zeritzon eta gazteenari Rakel. ¹⁷ Lea begirada samurrekoa zen; Rakel atsegina eta ederra. ¹⁸ Jakob Rakelez maitemindu zen, eta esan zion Labani:

—Zazpi urtez egingo dut lan zuretzat Rakel zure alaba gazteenarekin ezkontzearen.

¹⁹ Labanek erantzun:

—Nahiago dut zuri eman beste inori baino; zaudé nirekin.

²⁰ Jakobek zazpi urtez lan egin zuen Rakelengatik, eta, hain maite baitzuen, egun batzuk besterik ez zitzaizkion iruditu. ²¹ Epea bete zenean, esan zion Jakobek Labani: «Emaidazu andregaiá. Bete da epea eta berarekin ezkondu nahi nuke».

22 Orduan, Labanek auzoko guztiak ezteietara gonbidatu zituen. **23** Arratsean, ordean, bere alaba Lea hartu eta Jakobengana eraman zuen. Hala, Jakob Learekin elkartu zen. **24** Labanek Zilpa bere neskamea eman zion bere alaba Leari neskametzat. **25** Biharamun goizean, Lea zela ohartu zen Jakob. Orduan, esan zion Labani:

—Zer egin didazu? Ez al dut lan egin zuretzat Raketengatik? Zergatik engainatu nauzu?

26 Labanek erantzun zion:

—Gure artean ez dugu alaba gazteena nagusiena baino lehen emateko ohiturarik. **27** Buka ezazu Learen eztei-astea eta, gero, Raket ere emango dizut beste zazpi urteko lanaren truke.

28 Halaxe egin zuen Jakobek. Learekiko eztei-astea bukatu zuenean, Labanek bere alaba Raket eman zion emaztetzat. **29** Labanek bere neskame Bilha eman zion Rakeli neskametzat. **30** Elkartu zen Jakob Rakelekin ere, eta Lea baino maiteago izan zuen. Beste zazpi urtez lan egin behar izan zuen Labanentzat.

Jakob Esauri bidera irten

32 **2** Bere bidean zihoala, Jainkoaren aingeru batzuekin egin zuen topo Jakobek. **3** Haiek ikusi orduko, Jakobek esan zuen: «Jainkoaren kanpalekua da hau!» Eta leku hari Mahanaim —hau da, «Kanpalekubieta»— eman zion izen.

4 Jakobek mezulariak bidali zizkion, bere aurretik, Esau bere anaiari, Seir lurraldera, Edomgo landetara. **5** Agindu hau eman zien: «Hona nola hitz egingo diozuen Esau ene anaiari: Honela mintzo da Jakob zure zerbitzaria: Labanekin egona nauzu eta orain arte luzatu naiz. **6** Baditut behi eta astoak, artaldeak, morroi eta mirabeak.

Mezulariak bidaltzen dizkizut ene jaun horri, honen guztiaren berri ematera, onez hartuko nauzulakoan».

7 Itzuli zitzaizkion mezulariak Jakobi, esanez: «Esau zure anaiarekin egon gara. Bera ere bidera datorkizu lauhun gizonekin».

8 Jakob biziki beldurtu zen eta larritu. Berekin zuen jendea, abere txiki eta handiak eta gameluak bi kanpalekutan banatu zituen; **9** bere baitarako baitzioen: «Esau kanpaleku batera etorri eta erasotzen badit, beste kanpalekukoek ihes egin ahal izango dute».

10 Gero, Jakobek otoitz hau egin zuen: «Jauna, gure guraso Abrahamen eta Isaaken Jainkoa, zuk esan didazu: “Itzul zaitez zeure lurraldera eta zeure ahaideengana, eta bedeinkatuko zaitut”. **11** Ez dut merezi zure zerbitzari honi egin diozun hainbat mesede, leial agertu zatzaizkio eta. Neure makila besterik ez nuen Jordan hau igarotzean, eta orain bi kanpaleku oso ditut. **12** Libra nazazu, arren, neure anaia Esaturen eskutik, ni eta ama-semeak hiltzeko etorriko den beldur bainaiz. **13** Zuk esana da: “Bedeinkazio ugari emango dizut, eta zure ondorengoak konta ez daitekeen itsas hondarra bezainbat ugalduko ditut”».

14 Han igaro zuen gaua. Gero, eskuratuak zituen ondasunetatik Esau bere anaientzat oparia aukeratu zuen: **15** berrehun ahuntz eta hogeitaker, berrehun ardi eta hogeitahari, **16** hogeita hamar gamelu esnedun eta hamar asteme. **17** Abereak taldetan banatu eta bere morroien esku utzi zituen, esanez: «Zoazte nire aurretik, abere-talde batetik bestera tarte bat utzirik».

18 Lehenengoari agindu hau eman zion: «Esau nire anaiak zurekin topo egin eta galdegingo dizunean: “Norena zara? Nora zoaz? Norena da aurrean daramazun abere-taldea?”, **19** hau esango diozu: “Jakob zure zerbitzaria; Esauri bidaltzen dion oparia da; eta bera dator atzetik”».

20 Agindu bera eman zion bigarrenari, gero hirugarrenari, eta abere-taldeen atzetik zihoazen guztiei: «Honela hitz egingo diozue

Esauri, berarekin topo egitean. **21** Ez ahaztu hau esatea: Jakob zure zerbitzaria bera dator gure atzetik».

Bere baitarako honela pentsatzen zuen: «Aurretik bidaltzen diodan opari honekin bigunduko dut. Gero ni neu agertuko nartziaio. Beharbada, ongi etorri egingo dit».

22 Horregatik, oparia aurretik bidali zuen, eta bera kanpalekuan gelditu zen gau hartan.

23 Gauean, Jakobek, jaiki, bere bi emazteak, hauen bi neskameak eta hamaika semeak hartu eta Jakob erreka pasabidea igaroarazi zien. **24** Zeukan guztia ere erreka bestaldera igaroarazi zuen.

Jakobek Esaurekin topo egin

33 **1** Jakobek, begiak jasorik, Esau ikusi zuen lauhun gizonekin etortzen. Orduan, Lea, Rakel eta hauen bi neskameen artean banatu zituen seme-alabak. **2** Aurrean neskameak jarri zituen beren semeekin, gero Lea bere seme-alabekin; azkenik, Rakel eta Jose. **3** Aurretik joan zen bera, eta zazpi aldiz ahuspeztu zen lurrean bere anaia-rengana hurbildu ahala. **4** Lasterka bideratuz, Esauk, besarkatu eta lepotik heldurik, laztandu egin zuen Jakob, eta negarrari eman zioten biek. **5** Esauk, Jakoben emazte eta seme-alabak ikusi zituelarik, galdegin zion:

—Nortzuk dituzu horiek?

Jakobek erantzun:

—Jainkoak zure zerbitzari honi eman dizkion seme-alabak.

6 Orduan, beren semeekin hurbildurik, neskameak ahuspeztu egin zitzaizkion. **7** Lea ere hurbildu zen bere seme-alabekin, eta ahuspeztu. Azkenik, Jose eta Rakel, hurbilduz, ahuspeztu egin ziren.

8 Esauk galdegin zion:

—Zertarako dira ikusi ditudan abere-talde horiek guztiak? Jakobek erantzun:

—Zure abegi ona nahi nuen irabazi.

9 Esauk, orduan:

—Neurearekin nahikoa dut, anaia; zurea zeureztat.

10 Eta Jakobek:

—Ez, otoi; begiko banauzu, hartazazu nire eskuerakutsia, zu ikustea Jainkoa bera ikustea bezain pozgarri gertatu baitzait eta hain ongi hartu bainazu. **11** Onartu, bada, ekarri dizudan oparia, Jainkoa aldeko izan baitut, eta ez zait ezer falta.

Hainbeste erregutu zionez, onartu egin zion Esauk.

12 Honek esan zion:

—Goazen; zure ondoan joango naiz.

13 Baina Jakobek erantzun zion:

—Badakizu ondo, jauna, haurrak ahulak direla, eta errapeko bildots eta axuriak ere baditut. Egun bakar batez behartzea aski litzateke, abere txiki guztiak hiltzeko. **14** Bihoa ene jauna bere zerbitzari honen aurretik, eta nik poliki-poliki egingo dut bidea, aurrean doazen abereen eta haurren martxan, Seirra, ene jaunarengana, iritsi arte.

15 Esauk esan zion:

—Neure gizon batzuk behintzat utziko dizkizut.

Jakobek erantzun:

—Zertarako? Aski dut, jauna, egin didazun abegi ona.

16 Hala, egun hartan, Esau Seirra itzuli zen. **17** Jakob, berriz, Sukot aldera joan zen. Han etxea eraiki zuen beretzat, eta oihaltxolak abere-taldeentzat. Horra zergatik eman zitzaion leku hari Sukot, —hau da, «Etxoleta»— izena.

Joseren ametsak

37 **1** Jakob Kanaan bizi zen, beraren gurasoak atzerritar gisa ibili ziren lurraldean. **2** Hona Jakoben senitartearen historia. Jose, hamazazpi urteko gaztea zelarik, artzantzan zebilen bere anaiekin, bere aitaren

emazte Bilha eta Zilparen semeekin. Josek bere anaien gaiztakeriaren berri ematen zion aitari. **3** Israelek maiteago zuen Jose beste seme guztiak baino, zahartzaroko semea baitzuen, eta jantzi apain bat egina zion.

4 Aitak maiteago zuela ikusirik, anaiak gorrotatzen hasi zitzaizkion eta hitza bera ere ukatu egiten zioten.

5 Behin batean, Josek amets bat izan zuen eta, kontatu zienean, are gehiago gorrotatu zuten anaiak.

6—Entzun nire ametsa —esan zien—.

7 Gari-balak lotzen ari ginen soro erdian. Hartan, nirea jaiki eta zutik jarri zen, eta zue-nak nirearen inguruan ahuspeztu ziren.

8 Anaiak esan zioten:

—Geure errege edo menderatzaile izan behar ote zaitugu?

Eta are gehiago gorrotatu zuten bere amets eta esanengatik.

9 Beste amets bat ere izan zuen eta anaiak kontatu zien, esanez:

—Beste amets bat ere izan dut: Eguzkia, ilargia eta hamaika izar ahuspezten zitzaizkidan aurrean.

10 Aitari eta anaiak kontatu zienean, aitak esan zion haserre:

—Zer amets da hori? Zure aurrean jarri behar ote dugu zu gurtzeko zeure amak, senideek eta nik neuk?

11 Anaiak bekaitzez begiratzen zioten; aitak, ordea, gauza hauek sarritan hausnartzen zituen.

Joseran anaien mendekua

12 Joseran anaiak Sikenera joanak ziren, aitaren artaldea larratzera. **13** Israelek Joseri esan zion:

—Zure anaiak Sikenen dira ardiak larratzen. Haiengana joan behar duzu.

Josek erantzun zion:

—Prest nauzu.

14 Aitak esan zion:

—Zoaz zure anaiak eta artaldea nola dabilzan ikustera, eta ekarri haien berri.

Israelek, bada, Hebron haranetik Sikenera bidali zuen. Hara iristean, **15** gizon batek landan zehar nora-ezean ikusi eta galdegin zion:

—Zeren bila zabilta?

16 Josek erantzun:

—Neure anaien bila. Esadazu non ari diren larratzen!

17 Gizonak esan zion:

—Alde egin dute hemendik. Dotanera zihoazela entzun diet.

Joan zen, bada, Jose anaien ondoren eta Dotanen aurkitu zituen.

18 Anaiak urrutitik ikusi zuten eta, beraiengana hurbildu aurretik, bera hiltzeko akordioa hartu zuten.

19—Badator ameslaria —ziotsaten elkarri—. **20** Ea, hil eta jaurtiki dezagun putzu batera, eta basapiztiaren batek irentsi duela esango dugu. Orduan ikusiko dugu zertan gelditzen diren horren ametsak.

21 Hori entzutean, Jose haien eskuetatik libratu nahian hasi zen Ruben.

—Ez dezagun hil! —esan zien—. **22** Ez isuri odolik! Jaurtiki ezazue eremuko putzu batera, baina ez kalterik egin.

Jose haien eskuetatik libratu egin nahi zuen, aitari itzultzeko.

23 Honela bada, Jose hurbildu zenean, anaiak soinean zeraman jantzi apain hura kendu zioten, **24** heldu eta putzu batera jaurtiki zuten. Hutsik zegoen putzua, urik gabe. **25** Ondoren, jateko eseri ziren.

Jose ismaeldarrei saldua

Horretan, Joseran anaiak Galaadetik zetorren ismaeldar bidaiari-talde bat ikusi zuten. Egiptora zihoazen, gameluetan usaingarriak, ukendua eta mirra eramanez. **26** Judak esan

zien anaiei: «Zer irabazten dugu geure anaia hil eta beraren heriotza ezkutatu? 27 Ea, sal diezaiegun ismaeldarrei, kalterik egin gabe, anaia hau geure odolekoa dugu eta».

Amore eman zuten anaiek. 28 Honela, madiandar merkatariak handik igaro zirenean, Jose putzu lehorretik atera eta zilarrezko hogei txanponetan saldu zieten ismaeldarrei. Hauek Egiptora eraman zuten.

29 Rubenek, putzura itzuli zenean, ez zuen Jose barruan aurkitu. Orduan, soinekoak urratu 30 eta, anaiengana itzulirik, esan zien: «Ez dago mutikoaren arrastorik! Zer egin behar dut nik orain?».

Jose hildakotzat emana

31 Orduan, aker bat hil eta Joseren jantzia harturik, akerraren odoletan busti zuten.

32 Gero, aitari bidali zioten mezu honekin: «Jantzi hau aurkitu dugu; ikus zure semearena den ala ez».

33 Jakobek ikusi eta esan zuen: «Nire semearena da. Basapiztiaren batek txikitu eta irentsi dit».

34 Jakobek bere jantziak urratu zituen. Gero, doluz jantzirik, egunetan egin zuen negar bere semearengatik. 35 Seme-alaba guztiek kontsolatu nahian jardun arren, berak ez zuen nahi izan. Honela zioen: «Ez! Doluminez jaitsiko naiz Hilén Egoitzara, nire semearengana». Eta negarrari ematen zion.

36 Bien bitartean, Egiptora iritsi ondoren, madiandarrek faraoiaren funtzionario eta guardaburu zen Potifarri saldu zioten Jose.

Jose, Potifarren etxean

39¹ Jose Egiptora eraman zuten ismaeldarrek. Egiptoar batek, Potifarrek hain zuzen, faraoiaren funtzionario eta guardaburuak, erosi zien.

2 Bere nagusi egiptoarraren etxean bizi zen Jose. Dena ongi ateratzen zitzaion, Jauna berekin baitzuen. 3 Ohartu zen nagusia Josek berekin zuela Jauna eta denetan ongi ateratzen laguntzen ziola. 4 Josek, bada, Potifarren estimua irabazi zuen, eta honek bere zerbitzurako hartu eta ethezain egin zuen eta ondasun guztien arduradun.

5 Orduz gero, Jose zela eta, Jaunak egiptoarraren etxea bedeinkatu egin zuen, etxean nahiz landan zituen gauza guztiak bedeinkatu zituen. 6 Dena Joseren gain utzi zuen, bada, Potifarrek eta aurrerantzean ez zen ezertaz arduratu, berak jaten zuenaz izan ezik.

Jose eta Potifarren emaztea

Itxura ederrekoa zen Jose. 7 Denboralditxo bat iragan ondoren, nagusiaren emazteak Joserengan begiak jarri eta esan zion:

—Zatoz nirekin ohera.

8 Josek ezezkoa eman zion, esanez:

—Nire nagusiak ez du etxeko ezeren ardurarik, nire gain utzi baitu den-dena. 9 Etxe honetan ez da ni baino goragokorik, eta ez dit ezer galarazi zeu izan ezik, bere emazte zaituelako. Nolatan egin, bada, halako gaiztakeriarik? Nolatan egin bekatu Jainkoaren aurka?

10 Egunero esan eta esan ari zitzaion arren, Josek ez zion onartu berarekin oheratzea.

11 Behin batean, etxean sartu beharra izan zuen Josek, lanarengatik. Ez zegoen une hartan beste zerbitzariarik barruan. 12 Orduan, nagusiaren emazteak soinekotik heldu eta esan zion: «Zatoz nirekin!» Baina Josek soinekoa haren eskuetan utzi eta ihes egin zuen etxetik.

13 Andreak, bere eskuetan soinekoa utzita kanpora ihes egin ziola ikusirik, 14 etxeko zerbitzariari oihu egin zien, deiadarka

esanez: «Begira hebertar hau! Gure lepotik barre egiteko ekarri digute! Nirekin oheratu nahi zuen, baina oihuka hasi natzaio **15** eta, nire oihu eta deiadarrak entzutean, bere soinekoa utzi eta ihes egin du kanpora».

16 Bere aldamenean ezarri zuen Joseren soinekoa, senarra etxeratu arte. **17** Honi gauza bera kontatu zion: «Zuk ekarri diguzun esklabo hebertar hori nirekin gozatzeko asmoz etorri zait, **18** baina oihuka eta deia-darka hasi naizenean, bere soinekoa utzi eta ihes egin du kanpora».

19 «Hara zer egin didan zure esklaboak» ziotson emazteak. Hitz hauek aditzean, haserre bizitan jarri zen nagusia. **20** Jose atxilotu eta erregearen presoak zeuden kartzelatan sartu zuen.

Jose espetxean

Jose kartzelatan preso zegoen. **21** Alabaina, Jauna berekin zuen eta bere onginahia agertu zion. Hala, kartzelako arduradunaren estimua irabazi ahal izan zuen, **22** eta honek bere gain utzi zion preso guztien ardura. Han barruan egiten zen guztia, Joseren aginduz egiten zen. **23** Kartzelako arduradunak ez zion Joseri bere gain utzitako ezeren konturik eskatzen. Berekin zuen, bai, Jauna, eta egiten zuen guztietan ongi ateratzen laguntzen zion.

Faraoiaren ametsa argitu Josek

41 **1** Handik bi urtera, amets bat izan zuen faraoiak. **2** Nilo ibai ondoan zegoela, Nilotik atera eta ibai-ertzean larrean hasi ziren zazpi behi ikusi zituen, itxura ederrekoak eta guriak. **3** Ondoren, beste zazpi behi irten ziren Nilotik, itxura txarrekoak eta

argalak, eta beste behien ondoan jarri ziren, ibai-ertzean. **4** Itxura txarreko eta argal hauek irentsi egin zituzten beste eder eta guri haiek. Une horretan, esnatu egin zen faraoia.

5 Berrito lokartu eta amets egin zuen. Gerri beretik, zazpi galburu aletsu eta mardul sortu ziren; **6** ondoren, beste zazpi galburu mehar sortu ziren, haize-erreak ihar-tuak. **7** Zazpi galburu meharrok irentsi egin zituzten beste aletsu eta bete haiek. Une horretan esnatu eta ametsa izan zela ohartu zen faraoia.

8 Eguna zabaldu zuenean, oso urduri zegoen faraoia eta, Egiptoko azti eta jakintsu guztiei deiturik, ametsa kontatu zien. Baina inor ez zen gauza izan faraoiaren ametsak argitzeko. **9** Orduan, edarizain-arduraduna mintzatu zitzaion, esanez: «Gaur dator kit burura neure errua. **10** Faraoi jauna, okin-arduraduna eta bion aurka haserretu zinen hartan, guardaburuaren kartzelara eraman gintuzun. **11** Gau batean, amets egin genuen biok, bakoitzaren ametsa bere esanahi bereziarekin. **12** Bazen han gurekin hebertar gazte bat, guardaburuaren esklaboa. Kontatu genizkion geure ametsak, eta hark bakoitzaren esanahia argitu zigun. **13** Eta gertatu ere, berak eman zigun argibidearen arabera gertatu zitzaigun: ni neure karguan ezarri ninduzun berrito; bestea, aldiz, urkatu».

14 Faraoiak Joseren bila joateko agindu zuen eta berehala kartzelatik atera zuten. Bizarra moztu, arropak aldatu eta faraoiaren gana eraman zuten. **15** Honek esan zion: —Amets bat izan dut, eta ez dut inor aurkitu esanahia argitzeko gauza denik. Ametsa entzun orduko, ba omen dakizu zuk haren esanahia.

16 Josek ihardetsi zion:

—Nik ez, faraoi jauna; Jainkoak berak emango dizu erantzuna zeure onerako.

17 Faraoiak kontatu zion: «Nire amets-ean, Nilo bazterrean nengoela, **18** zazpi behi guri eta eder ibaitik atera eta larrean hasi ziren. **19** Ondoren, beste zazpi behi itxura txarreko eta argal atera ziren. Haiek bezain

eskasik ez zen inoiz ordurarte ikusi Egipto lurraldean. **20** Behi argal eta eskas hauek, ordea, lehengo zazpi behi guriak irentsi zituzten. **21** Eta, sabelean eduki arren, ez zitzaizen igartzen, lehen bezain itxura txarra baitzuten. Une horretan esnatu nintzen.

22 «Amets egin nuen berriro: gariaren gerri beretik zazpi galburu aletsu eta eder erne ziren. **23** Ondoren, beste zazpi galburu erne ziren: zimel, mehar eta haize-erreak ihartuak. **24** Zazpi galburu mehar hauek irentsi egin zituzten beste zazpi eder haiek. Azaldu dizkiet aztiei ametsok, baina ezin izan dit inork berorien esanahia adierazi».

25 Josek esan zion faraoiari: «Bat bera dira, faraoi jauna, zure ametsak: Jainkoak zer egingo duen jakinarazten dizu. **26** Zazpi behi ederrak zazpi urte dira, zazpi galburu ederrak bezalaxe, bat bera baita bi ametsen esanahia. **27** Hauen ondoren etorritako zazpi behi eskas eta argalak ere zazpi urte dira, eta zazpi galburu mehar eta haize-erreak ihartuak beste zazpi urte: zazpi gose-urte. **28** Esaten dizudan honetan, faraoi jauna, Jainkoak zer egingo duen jakinarazi dizu. **29** Begira, zazpi urtetan asetasun handia izango da Egipto lurralde osoan. **30** Ondoren, beste zazpi urte etorriko dira: aurreko asetasunaren aztarnarik ere ez da geldituko, goseak jota utziko baitu lurraldea. **31** Aurrerantzean, asetasuna zer denik ere ez da jakingo ondoren etorriko den gose-teagatik, hain larria izango baita. **32** Eta amets bat bera behin eta birritan egiteak, Jaunak erabakia duela eta betetzeko prest dagoela adierazten du. **33** Orain, beraz, faraoi jauna, hauta ezazu gizon argi eta jakintsua, eta emaiozu aginpidea Egipto guztiaren gain. **34** Ezar itzazu gainbegiraleak, zazpi urteko asealdian lurreko emaitzetatik bosteko baten zerga bil dezaten. **35** Etorzeko diren urte on horietan, janari ugari jaso eta bil dezatela zure ardura-pean, eta hirietan gorde. **36** Horrela, janari hori gorderik geldituko da Egipto lurraldean izango diren zazpi gose-urteetarako, eta gose-teak ez du lurralde hau hondatuko».

Jose Egiptoko erregeorde

37 Ongi iruditu zitzaion proposamena faraoiari, bai eta honen funtzionarioei ere. **38** Beraz, faraoiak esan zion: «Aurki ote genezake Jainkoaren espiritua honek bezala izango duen gizonik?».

39 Eta Joseri esan zion: «Ez daiteke inor zu baino gizon argi eta zuhurragorik izan, Jainkoak gauza guztietan aditua izatea eman dizunez gero. **40** Zeu izango zara, bada, nire jauregiko buru, eta zuk esana egingo du herri osoak. Neu bakarrik izango nauzu gainetik, errege naizenez. **41** Hara, Egipto osoaren gain ematen dizut agintea».

42 Hau esanik, faraoiak bere behatzetik eraztuna atera eta Joserenean ezarri zuen; liho finezko arropak jantzarazi zizkion eta urrezko lepoko katea ipini. **43** Gero, bere bigarren zalgurdira igoarazi zuen, aurretik oihuka zihoazkiolarik: «Kontuz!».

Honela eman zion faraoiak Joseri agintea Egipto osoaren gain.

44 Esan zion era berean: «Neu nauzu faraoia, baina zure baimenik gabe ezin izango du inork behatz txikia ere altxatu Egipto lurralde guztian».

45 Faraoiak Tzafnat-Panea izena ezarri zion Joseri, eta Asenat, On hiriko apaiz Poti-Feraren alaba, eman zion emaztetzat. Beraz, Egiptoko agintari gertatu zen Jose. **46** Hogeita hamar urte zituen faraoiaren, Egiptoko erregearen, aurrera eraman zutenean.

Faraoiarengandik alde egin eta berehala, Egipto lurralde guztiaren itzulua egin zuen. **47** Zazpi urte oparo haietan uzta ugaria eman zuen lurrak. **48** Eta zazpi urte oparo haietan jangai ugari bildu zuen Josek, eta hirietan gorde, hiri bakoitzean inguruko soroetan bildutakoa. **49** Erruz pilatu zuen garia, itsas hondarra bezain ugari. Hain ugaria zenez, kontatzeari ere utzi egin behar izan zion.

Joserren semeak

50 Gosete-urteak iritsi aurretik, bi seme sortu zizkion Joseri Asenatek, On hiriko apaiz Poti-Feraren alabak. **51** Lehen-semea-ri Manases eman zion izen, esanez: «Jainkoak ahantzarazi dizkit neure atsekabe eta ahaide guztiak». **52** Bigarrenari Efrain eman zion izen, esanez: «Jainkoak fruitua emanarazi dit neure atsekabeen lurralde honetan».

Jakobek bere semeak Egiptora bidali

53 Amaitu ziren Egipton ugaritasunezko zazpi urteak, **54** eta urritasunezko zazpi urteak hasi ziren, Josek esan bezala. Gosetea nagusitu zen lurralde guztietan; Egipto osoan, ordea, ez zen giririk falta.

55 Gerora, Egipto lurralde guztira ere hedatu zen gosetea, eta herria faraoiari joan zitzaion oihuka ogi eske. Faraoiak esan zien: «Zoazte Joserengana eta egizue berak esandakoa».

56 Gosetea lurralde osora zabaltzean, Josek aletegi guztiak ireki eta alea egiptoarrei saldu zien. Gosetea gero eta latzagoa zen Egipto aldean.

57 Beste lurraldeetatik ere jende asko zetorren Egiptora Joseri alea erostera, latza baitzen gosetea alde guztietan.

42 ¹ Jakin zuen Jakobek bazela Egipton garia, eta honela mintzatu zitzairen semeei: «Zertan zaudete elkarri begira? ² Egipton garia badela jakin dut. Jaitsi, bada, garia erostera, bizi ahal gaitezen eta ez goseak hil».

³ Jaitsi ziren, bada, Joserren hamar senideak Egiptora garia erostera. ⁴ Jakobek ez zuen Benjamin, Joserren anaia, beste senide-

ekin bidali nahi izan, zorigaitzen bat gertatuko ote zitzaion beldurrez.

5 Besteak bezala, beraz, Israelen semeak ere Egiptora joan ziren garia erostera, Kanaan lurraldean gosete handia zenez gero.

Senideek Jose ezagutu ez

6 Jose zen lurralde hartako nagusia; berak saltzen zion garia jende guztiari. Heldu ziren, bada, Joserren senideak eta ahuspeztu egin zitzaizkion. **7** Ikusi orduko ezagutu zituen Josek bere senideak. Baina ez zien bere burua ezagutarazi; gainera, zakar mintzatu zitzaien:

—Nondik zatozte?

Haiek erantzun:

—Kanaan lurraldetik, garia erostera.

8 Ezagutu zituen, bai, Josek bere senideak, baina hauek ez bera. **9** Jose haietaz izandako ametsez oroitu zen, eta honela hitz egin zien:

—Zelatariak zarete zuek, lurralde honetako alderdi zaindugabeak miatzera etorriak.

10 Haiek erantzun:

—Ez, jauna; zure zerbitzariok garia erostera etorri gara. **11** Aita bat beraren semeak gaituzu; gizon zintzoak gara eta ez zelatariak.

12 Josek esan zien:

—Ez horixe! Zuek lurralde honetako alderdi zaindugabeak miatzera etorri zarete.

13 Haiek, ordea:

—Zure zerbitzariok hamabi ginen, aita bat beraren semeak, Kanaan lurraldekoak; gazteena aitarekin da orain eta bestea ez da gure artean.

14 Josek, berriro:

—Horixe zelatariak zaretela! **15** Eta besterik frogatu nahi baduzue, ekatzue hona zeuen anaia gazteena. Bien bitartean, ala faraoia!, ez zarete hemendik aterako. **16** Bidali

zeuetariko bat anaiaren bila; gainerakoak preso geldituko zarete; honela frogatuko duzue egia diozuela. Bestela, ala faraoia!, zelatariak zarete.

17 Eta kartzelara sartu zituen hiru egunerako.

Josek beste proba bat ezarri anaiei

18 Hirugarren egunean Josek esan zien: «Egizue nire esana eta bizirik aterako zarete, nik neuk ere begirune baitiot Jainkoari. **19** Egia baldin badiozue, geldi bedi zuetariko bat preso, guztiok egon zareten kartzela horretan. Gainerakook joan zintezkete garia eramatera etxekoen gosea asetzeko. **20** Gero, ekarri zeuen anaia gazteena. Orduan frogatuko duzue egia diozuela eta ez zarete hilko».

Onartu zuten proposamena. **21** Bien bitartean honela ziotsoten elkarri: «Ai ene! Geure anaiari eginikoa ari gara ordaintzen. Estuasunean ikusi eta erreguka ari zitzaigunean, ez genion jaramonik egin. Hara nondik datorkigun oraingo larrialdi hau!».

22 Rubenek esan zien: «Esan nizuen nik mutikoari kalterik ez egiteko, baina ez zenidaten jaramonik egin. Orain, haren heriotzaren kontua eskatzen zaigu».

23 Ez zekiten Josek ulertzen ziela, itzul-tzaile baten bitartez mintzatzen baitzitzaien.

24 Josek, haiengandik urrunduz, negarri eman zion. Gero, berriro etorri eta beraiekin mintzatzen jarraitu zuen. Azkenik, Simeon hartu eta beraien aurrean atxilotu zuen. **25** Gero, haien zakuak gariz bete, bakoitzari bere dirua itzuli eta biderako jan-edariak emateko agindu zuen. Eta hala egin zieten.

26 Zakuak asto gainean kargatu eta alde egin zuten.

27 Gaua igarotzeko gelditu zirenean, batek, astoari pentsua emateko zakua ireki

zuelarik, dirua zaku-muturrean aurkitu zuen. **28** Anaiei esan zien:

—Dirua itzuli egin didate. Begira nire gari-zakua.

Asaldaturik eta zur eta lur eginik, honela ziotsoten elkarri:

—Zergatik egin ote digu hau Jainkoak?

Anaiak etxera itzuli

29 Kanaan lurraldera iristean, beren aita Jakobi kontatu zioten gertatutako guztia, esanez: **30** «Lurralde hartako jaun den gizonak zakar hitz egin digu, eta zelataritzat hartu gaitu. **31** Guk, gizon zintzoak garela eta ez zelatariak esan diogu. **32** Hamabi anaia ginela, aita bat beraren seme; anaia bat ez zegoela jadanik gurekin eta gazteena aitarekin zela Kanaanen. **33** Orduan, lurralde hartako jaun den gizonak esan digu: “Honela jakingo dut gizon zintzoak zaretela: zuetako bat nirekin geldituko da; besteok hartu etxekoen gosea asetzeko garia eta joan. **34** Ekardazue gero zeuen anaia gazteena, eta orduan jakingo dut zelatariak ez, baizik gizon zintzoak zaretela. Ondoren itzuliko dizuet anaia, eta lurralde honetan ibili ahal izango zarete”».

35 Zakuak hustutzerakoan, nor bere diru-zorroa zaku-muturrean zeukan. Diru-zorroak ikustean, beldurtu egin ziren aita-emeak. **36** Orduan, Jakobek esan zien:

—Semerik gabe utzi behar nauzue: Jose falta dut, Simeon ere bai eta, orain, Benjamin kendu nahi didazue. Zoritxarra zoritxarraren gain niretzat!

37 Rubenek esan zion aitari:

—Utzi Benjamin nire kontu, eta neuk itzuliko dizut. Itzuliko ez banizu, hil nire bi semeak!

38 Jakobek, orduan:

—Ez da jaitsiko nire semea zuekin, hila baitu bere anaia eta bera bakarrik gelditzen zait Rakelengandik. Bidean zoritxarren bat

gertatuko balitzaio, agure hau Hilan Egoitzara jaitzaraziko zenukete atsekabez.

Jakobek joaten utzi Benjamini

43 ¹ Gosetea latza zen Kanaan lurraldean. ² Egiptotik ekarritako garia ahitu zenean, Jakobek bere semeei esan zien:

—Zoazte berriro garia erostera.

³ Judak erantzun zion:

—Gizon hark argi eta garbi esan zigun bere aurrera ez agertzeko, anaia gurekin eraman gabe. ⁴ Beraz, anaia bidali nahi baduzu, jaitisiko gara garia erostera. ⁵ Baina nahi ez baduzu, ez gara jaitisiko, gizon hark bere aurrera ez agertzeko esan baitzigun, anaia gurekin eraman gabe.

⁶ Israelek esan zuen:

—Eta zergatik esan behar zenioten gizon hari beste anaia bat zenutela? Jota utzi nauzue.

⁷ Haiek erantzun:

—Gizon hura galde eta galde ari izan zitzaigun gutaz eta gure etxekoez: «Bizi al duzue oraindik aita? Beste anaiarik ba al duzue?». Eta galderei erantzun besterik ez genuen egin. Burutik pasako al zitzaigun, bada, anaia eramateko esango zigunik?

⁸ Judak bere aita Israeli esan zion:

—Bidali mutikoa nirekin. Abia gaitezen. Bestela denok hilko gara: zu, gu eta gure umeak. ⁹ Neure gain hartzen dut zure semearen erantzukizuna; neuri eskatu kontuak. Itzultzen ez badizut eta aurrera ekartzen ez, errudun izango nauzu betirako! ¹⁰ Hainbeste luzatu ez bagina, honezkero egina genukeen birritan ere joan-etorria.

¹¹ Aita Israelek esan zien:

—Beharrezkoa baldin bada, joan, hartu zorroetan lurreko fruiturik hoberenak eta eskaini oparia gizon hari: ukendu, ezti,

usaingarri, mirra, intxaur eta almendrak, denetik pixka bat. ¹² Hartu dirua ere eta itzuli zeuen zaku-muturrean ekarritakoa, okerren bat izan da eta. ¹³ Eraman zeuen anaia eta itzuli gizon harengana. ¹⁴ Jainko ahalsua lagun, aurki dezazuela gupida gizon haren aurrean, eta Benjaminekin eta beste anaiarekin, Simeonekin, itzuli etxera. Niri dagokidanez, semerik gabe gelditu behar badut, geldi nadila.

Josek bere senideak onartu

¹⁵ Oparia, dirua eta Benjamin berekin harturik, Egiptora jaitsi ziren Jakobek semeak eta Joseren aurrera aurkeztu.

¹⁶ Ikusi zuen Josek Benjamin ere haiekin zela, eta jauregiko arduradunari esan zion: «Eramatzazu gizon hauek etxera; hil abere bat eta atondu, nirekin bazkalduko baitute gaur».

¹⁷ Bete zuen etxeko arduradunak Josek agindua, eta etxera eraman zituen. ¹⁸ Beldurtu ziren Joseren senideak haren etxera eraman zituztenean. Pentsatu zuten: «Gari-zakuetan aurreko txandan itzulitako dirua-rengatik eramaten gaituzte. Orain, gainera oldartuko zaizkigu, esklabotzat hartzeko, geure asto eta guzti».

¹⁹ Beraz, etxean sartzean, Joseren etxeko arduradunari hurbildu eta esan zioten: ²⁰ «Entzun, jauna. Aurreko txandan jaitsi ginen hona garia erostera. ²¹ Gaua igarotzeko geldialdia egitean, gari-zakuak ireki genituen eta nork bere dirua aurkitu zuen zaku-muturrean. Hemen itzultzen dizugu orain, ²² eta beste horrenbeste dakargu janaria erosteko. Ez dakigu nork ezarri zuen dirua gari-zakuetan».

²³ Etxeko arduradunak honela esan zien: «Zaudete lasai! Ez kezkatu! Zeuen Jainkoak, zeuen aitaren Jainkoak, ezarriko

zizuen altxor hori gari-zakuetan, nik jasoa baitut zuen dirua».

Simeon aske utzi eta **24** denak Joseren etxean sarrarazi zituen. Gero, ura ekarri zien oinak garbitzeko eta belarra astoei jaten emateko.

Jose bere senideekin bazkaltzen

25 Otordua han egingo zutela jakitean, senideek opariak prestatu zituzten, Jose eguerdirako etorri zain zeuden bitartean.

26 Jose etxera iristean, opariak eskaini zizkioten eta lurreraino ahuspeztu zitzaizkion. **27** Agurtu ondoren, Josek galdetu zien:

—Eta ongi al da aipatu zenidaten aita zaharra? Bizi al da oraindik?

28 —Zure zerbitzari den gure aita bizi da, bai, oraindik, eta ongi dago —erantzun zioten, berriro makurtuz eta ahuspeztuz.

29 Gero, Josek, ama berarengandiko senide zuen Benjaminengan begiak jarririk, esan zuen:

—Hori al da zuek aipatu zenidaten anaia gazteena? Bejondaiala, seme!

30 Anaiatz bihotz-hunkiturik, negargurak eman zion eta, presaka bere gelara joanez, negar egin zuen. **31** Gero, aurpegia garbituz, gelatik atera eta, adore harturik, bazkaria zerbitzatzeko agindu zuen.

32 Aparte eman zioten jaten Joseri, aparte bere anaiei eta aparte Joseren gonbidatu egiptoarrei. Izan ere, egiptoarrei ez zaie zilegi hebertarrekin batera jatea; beren erlijio-ohiturek galarazten diete. **33** Anaiak Joseren aurrez aurre zeuden eseriak, zaharretetik gazteenera, eta harriturik elkarri begira.

34 Bere aurrean zituen janariatatik zerbitzari zien Josek; Benjamini eman zion zatia besteena baino bost aldiz handiagoa zen. Alai-alai jartzerraino edan zuten elkarrekin.

Edalontziaren proba

44 ¹ Josek agindu hau eman zion etxeko arduradunari: «Bete leporaino janariz gizon hauen zakuak, ezarri bakoitzari bere dirua zaku-muturrean, ² eta diruarekin batera nire edalontzia, zilarrezkoa, gazteenaren zaku-muturrean».

Hark Joseren esana bete zuen.

3 Biharamun goizean bidali zituzten Joseren senideak beren astoekin.

4 Oraindik hiritik urrutira gabe zeudela, Josek etxeko arduradunari esan zion: «Zoz gizon horien atzetik eta, atzemandakoan, esaiezu: Zergatik itzuli duzue gaizkia ongia-
ren truke? ⁵ Zergatik ostu diozue nire nagusiari, edateko eta etorkizuna igartzeko erabiltzen duen edalontzia? Benetan oso gaizki jokatu duzue!».

6 Harrapatu zituen etxeko arduradunak, eta agindu bezala mintzatu zitzairen. **7** Haiek erantzun:

—Ez zaitez horrela mintza, jauna! Zure zerbitzariok ez gara horrelakorik egiteko gauza! **8** Aurrekoan gure zaku-muturrean aurkitutako dirua ere Kanaandik ekarri dizugu. Nola ostuko genuen, bada, zilar edo urrerik zure nagusiaren etxean? **9** Beraz, gutariko bati edalontzia aurkitzen bazaio, hila bedi; eta gu geu, jauna, zure esklabo bihurtuko gara.

10 Etxeko arduradunak, orduan:

—Ongi da! Baina edalontzia aurkitzen zaion hura bakarrik bihurtuko da nire esklabo; besteok errugabe izango zarete.

11 Berehala, nork bere zakua lurrera eraitsi eta ireki egin zuen. **12** Gizonak anaia guztien zakuak ikertu zituen. Benjaminen zakuan aurkitu zuten edalontzia.

13 Orduan, anaiak beren jantziak urratu zituzten eta, nork bere astoa kargaturik, hirira itzuli ziren. **14** Juda eta beste anaiak Joseren etxean sartu —hantxe baitzegoen oraindik Jose— eta lurreraino ahuspeztu zitzaizkion.

15 Josek esan zien:

—Baina, zer egin duzue? Ez al zenekiten ni bezalako batek den-dena igar dezakeela?

16 Judak erantzun zion:

—Zer esan diezazukegu, jauna? Zein aitzakia jarri? Nola zuritu geure burua? Jainkoak berak nabarmen jarri du gure bekatua. Zeure esklabo gaituzu, jauna, gu denok eta bai edalontzia aurkitu zaiona ere.

17 Josek erantzun zuen:

—Ez dut inola ere horrelakorik egingo! Edalontzia aurkitu zaion hura bakarrik izango da nire esklabo; gainerako guztiok zoazte bakean zeuen aitarengana.

Juda Benjaminen alde atera

18 Judak, Joserengana hurbilduz, esan zion:

—Arren, jauna, utziozu zeure zerbitzari honi bi hitz esaten; faraoiaren pareko zara zu eta ez zakizkit haserre! **19** Aurreko txandan zuk, jauna, aitarik nahiz beste anaiarik ba ote genuen galdetu zenigun. **20** Baietz erantzun genizun: bagenuela oraindik aita zaharra, eta zahartzaroan jaio zitzaion seme bat ere bai. Gure aitak oso maite zuela, berau zelako bere emazte kuttunarengandik gelditzen zitzaion bakarra, bestea hila zuenez.

21 Anaia hura hona ekartzeko esan zenigun zure zerbitzarioi, ikusi nahi zenuela eta.

22 Guk, aldiz, adierazi genizun, jauna, mutikoak ezin zuela aita utzi, aita hilko ez bazen.

23 Zuk, hala ere, gure anaia gurekin ez bazetorren, ez azaltzeko berriro zure aurrera esan zenigun. **24** Gure aitarengana itzulirik, zuk esandakoa adierazi genion. **25** Handik aldi batera, garia erostera berriro itzultzeko agindu zigun, **26** eta guk erantzun genion ez gintezkeela etor geure anaia gazteena geurekin ez bagenekarren, hura gabe ezin ginela zure aurrera agertu. **27** Orduan, zure zerbitzari

den gure aita honela mintzatu zitzaigun: «Dakizuenez, neure emazte Rakelek bi seme sortu zizkidan. **28** Batak alde egin zidan eta ez dut berriro ikusi: piztiaren batek irentsi duelakoan nago. **29** Beste hau eraman eta zoritxarren bat gertatuko balitzaio, ni, agure hau, atsekabez hilko nintzateke». **30** Orain, bada, ez naiteke joan zure zerbitzari den gure aitarengana hain berea duen mutikoa gabe. **31** Gurekin ez doala ohartu orduko, hilko litzateke; geure aita zaharra atsekabez hilobiratuko genuke. **32** Gainera, nik, zure zerbitzari honek, neure gain hartua dut mutikoaren erantzukizuna; hitza eman nion aitari; berekiko errudun izango nintzateke betirako, itzuliko ez banio. **33** Horregatik, bada, har nazazu esklabotzat mutikoaren orde, eta doala hau anaiekin. **34** Ez naiteke aitarengana itzul neure anaia Benjamin gabe. Ez nuke ikusi ere nahi gure aitak hartuko lukeen atsekabea.

Josek bere burua ezagutzera eman anaiei

45 ¹ Josek, bere sentipenei gehiago eutsezinik, inguruan zituen egiptoarrei agindu zien: «Atera denok hemendik!».

Hala, ez zen Joserekin inor gelditu, anaiei bere burua ezagutzera eman zienean. **2** Orduan, negarrari eman zion ozenki. Entzun zioten egiptoarrek, eta faraoiaren jauregian ere honen berri izan zuten. **3** Josek bere senideei esan zien: «Jose nauzue! Bizi al da oraindik aita?».

Anaiek, izuaren izuz, ez zuten erantzuten asmatzen.

4 Orduan, Josek: «Tira, hurbildu niregana!».

Hurbildu zitzaizkionean, honela jarraitu zuen: «Bai, Jose nauzue, zeuen anaia, Egiptora ekartzeko saldu zenuena. **5** Baina ez

izan orain atsekaberik, ez damurik, hona saldu ninduzuelako. Jainkoak zuen aurretik etorrarazi nau, bizia izan dezazuen. **6** Bi urte dirau goseteak lurralde osoan eta datozen bost urtetan ere ez da hazirik ereingo, ez uztarik bilduko. **7** Jainkoak zuen aurretik bidali nau, zuentzat behar adina janari gordetzeko eta zuek harrigarriro salbatzeko. **8** Beraz, ez nauzue zuek bidali, Jainkoak baizik. Berak jarri nau faraoiaren ordezeko, bere etxeke buru eta Egipto osoko agintari.

9 «Ea, bada, itzuli arin aitarengana eta esaiozue: Hau dio zure seme Josek: Jainkoak Egipto osoko buru jarri nau. Zatoz niregana! Ez luzatu! **10** Goxen lurraldean biziko zarete, niregandik hurbil, zeu, zure seme-alabak eta bilobak, zure artalde eta behi-taldeak eta daukazuen guztia. **11** Han hornituko zaituztet janariz zeu, zure etxekeak eta zure abere-taldeak. Ez zaizu ezer faltako, beste bost gose-urte gelditzen diren arren».

12 Beste hau ere esan zien Josek: «Bai zuek, bai Benjaminek, zeuen begiz egiazta dezakezue ni neu naizela hitz egiten ari naitzaizuen. **13** Kontaiozue aitari ikusitako guztia eta azaldu berari zein aginpide handia dudan Egipton. Zoazte arin eta ekarri lehenbailehen hona aita».

14 Josek Benjamine lepotik heldu, eta negar batean aritu ziren biak besarkaturik. **15** Eta, negarrez jarraiki, beste anaiak ere besarkatu zituen.

Orduan, anaiak hitz egiten hasi zitzaizkion.

Faraoiak Jakob gonbidatu Egiptora

16 Honen guztiaren berri izan zuten faraoiaren jauregian; «Joseren anaiak etorri dira Egiptora», zioten.

Atseginez jaso zuten albistea faraoiak eta honen funtzionarioek.

17 Faraoiak esan zion Joseri: «Esaiezu anaiei astoak prestatu eta Kanaanera itzultzeko, **18** aita eta etxekeak hartu eta nire ondora etor daitezten. Egiptoko eskualderik joriena emango diet, eta lurraldeko emaitzarik hoberenak izango dituzte janari. **19** Agindu, orobat, hartzeko zenbait gurdi ere Egipton beren emazte eta seme-alabentzat, eta, aita harturik, etortzeko. **20** Ez daitezela ardua han uzten dutenaz, Egiptoko eskualderik emankorrena izango baitute».

21 Hala egin zuten Israelen semeek. Faraoiak agindu bezala, gurdiak eman zizkien Josek bere anaiei, bai eta biderako jan-ediariak ere. **22** Bakoitzari aldatzeko jantziak eman zizkion. Benjamine, gainera, bost jantzi eta zilarrezko hirurehun txanpon. **23** Aitari hamar asto bidali zizkion, Egiptoko emaitzarik hoberenez kargaturik, eta hamar asteme gari-alez, ogiz eta jakiz kargaturik. **24** Anaiei, bidean beren arteko liskarrik ez izateko erre-gutu ondoren, agur egin zien.

25 Irten ziren, bada, Egiptotik eta, Kanaanera, beren aita Jakobengana, heldu zirenean, **26** berria eman zioten: «Bizi da Jose oraindik eta bera da agintari Egipto lurralde osoan».

Jakobek, halaz guztiz, ez zuen zirkinik ere egin, ezin sinetsirik. **27** Baina Josek esandako guztia kontatu ziotenean eta bera eramateko bidali zizkion gurdiak ikusi, piztu zitzaion bihotza **28** eta esan zuen: «Bizi da nire seme Jose! Ez dut besteren beharrik! Noan ikustera, hil baino lehen!».

Jakob Egiptora

46 **1** Zeukan guztiarekin abiatu zen Jakob. Beer-Xebara heldurik, sakrifizioa egin zion bere aita Isaaken Jainkoari. **2** Gau-ikuskarri batean, Jainkoak dei egin zion Jakobi:

—Jakob! Jakob!

Jakobek erantzun:

—Hemen nauzu.

3 Jaunak esan zion:

—Jainkoa naiz ni, zure aitaren Jainkoa. Ez beldur izan Egiptora joateko, han herri handi bihurtuko baitzaitut. **4** Egiptora bidean zurekin izango nauzu eta neuk itzulartziko zaitut berriro. Eta hiltzean, Josek itxiko dizkizu begiak.

5 Beer-Xebatik abiatzean, Jakobek semeek faraoiak bidalitako gurdietara igoarazi zituzten aita, haurrak eta emazteak. **6** Beren abereak eta Kanaan lurraldean pilatutako ondasunak ere eramane zituzten. **7** Bere seme-alabak eta bilobak, bere ondareta guztia, eramane zituen Jakobek Egiptora.

Jakoben familia

8 Hona Egiptora etorri ziren Jakobek ondorengoak: Ruben, Jakobek lehen-semea, **9** eta beronen semeok: Henok, Palu, Hetzron eta Karmi.

10 Simeon eta beronen semeok: Jemuel, Jamin, Ohad, Jakin, Tzohar eta Xaul, emakume kanaandarraren semea.

11 Lebi eta beronen semeok: Gerson, Kehat eta Merari.

12 Juda eta beronen semeok: Er, Onan, Xela, Peretz eta Zerah. Baina Er eta Onan Kanaan lurraldean hil ziren. Peretzek semeak Hetzron eta Hamul izan ziren.

13 Isakar eta beronen semeok: Tola, Puba, Job eta Ximron.

14 Zabulon eta beronen semeok: Sered, Elon eta Jahleel.

15 Horiek dira Leak Jakobi Mesopotamian sortu zizkion semeak, Dina bere alabaz gainera; hogeita hamahiru guztira, seme-alaba eta biloben artean.

16 Gad eta beronen semeok: Tzifion, Hagi, Xuni, Etbzon, Eri, Arodi eta Areli.

17 Axer eta beronen semeok: Jimna, Jixba, Jixbi, Beria eta hauen arreba Serah. Beriaren semeak Heber eta Malkiel izan ziren.

18 Horiek dira, Labanek bere alaba Leari eman zion Zilpa neskameak Jakobi sortu zizkion semeak; hamasei guztira, seme eta biloben artean.

19 Jakobek emazte Rakelen semeak: Jose eta Benjamin.

20 Joseri, Egipto lurraldean, On hiriko apaiz Poti-Feraren alaba Asenatek bi seme sortu zizkion: Manases eta Efrain.

21 Benjaminen semeak Bela, Beker, Axbel, Gera, Naaman, Ehi, Rox, Mupin, Hupin eta Ard izan ziren.

22 Horiek dira Rakelek Jakobi sortu zizkion semeak; hamalau guztira, seme eta biloben artean.

23 Dan eta beronen semea: Huxin.

24 Neftali eta beronen semeok: Jahtzeel, Guni, Jetzer eta Xilen.

25 Horiek dira, Labanek Rakel bere alabari eman zion Bilha neskameak Jakobi sortu zizkion semeak; zazpi guztira, seme eta biloben artean.

26 Beraz, Jakobekin Egiptora joandako guztiak, beraren jatorrikoak, errainak kon-tuan hartu gabe, hirurogeita sei izan ziren.

27 Joseren bi semeak Egipton jaiok zirenez, Egiptora joandako Jakobek ondorengoak hirurogeita hamar izan ziren guztira.

Jakoben familia Egipton

28 Jakobek Juda bere semea bidali zuen aurretik Joserengana, Goxen eskualdean lekua prestatzeko. Hara iritsi zirenean, **29** Jose, bere zalgardia prestatzeko eta bere aita Jakobi bidera atera zitzaion. Honen aurrean aurkitzean, lepotik heldu eta besarkaturik, negarri eman zion.

30 Jakobek esan zion Joseri: «Orain bai hil naitekeela zure aurpegia ikusi ondoren, oraindik bizirik zaude eta».

31 Josek esan zien bere senide eta etxeko-
ei: «Berri ematera noakio faraoiari. Hau esan-go diot: "Kanaan bizi ziren nire senide eta

ahaideak etorri zaizkit. **32** Gizon horiek, artzain eta abeltzain direnez, beren ardi, behi eta zeukaten guztia ekarri dute”. **33** Beraz, faraoiak deitu eta zein lanbide duzuen galde-tuko dizuenean, **34** erantzun honela: “Abeltzain gaituzu zure zerbitzariok gatzetandik, bai gu eta bai gure gurasoak”. Horrela, Goxen eskualdean bizi izaten utziko dizue. Izan ere, erlijio-ohiturek galarazi egiten diete egiptoarrei artzainekin harremanak izatea».

Faraoiak Jakobi

abegi ona

47 **1** Josek faraoiari berri ematera joan eta esan zion: «Nire aita eta senideak etorri dira Kanaandik ardi eta behiekin eta daukaten guztiarekin. Orain Goxen eskualdean aurkitzen dira».

2 Anaietariko bost berekin hartu eta faraoiari aurkeztu zizkion. **3** Honek esan zion:

—Zein da zuen lanbidea?

Haiek erantzun:

—Gu eta gure gurasoak artzain izan gara betidanik.

4 Eta jarraitu zuten:

—Oso larria da gosetea Kanaan aldean, eta larrerik ere ez dago gure artaldeentzat. Horregatik etorri gara lurralde honetara, atzerritar gisa bizitzera. Utzi, beraz, Goxen eskualdean bizitzen.

5 Faraoiak Joseri esan zion:

—Aita eta senideak etorri zaizkizu. **6** Hor duzu Egipto osoa; jar itzazu hoberen derit-zozun eskualdean; Goxenen, esate baterako. Eta zure anaia horien artean gizon treberik baduzu, jarri nire abereen arduradun.

7 Ondoren, Josek bere aita eraman zuen faraoiari aurkezteko. Jakobek faraoia bedeinkatu zuen. **8** Honela galdetu zion faraoiak:

—Zenbat urte dituzu?

9 Jakobek erantzun:

—Ehun eta hogeita hamar urtez ibili naiz harat-honat. Urte latzak izan ditut, baina nolana ere nire gurasoenak baino laburra-goak.

10 Jakobek faraoia berriro bedeinkatu eta alde egin zuen.

11 Josek, faraoiak agindu bezala, aita eta senideak Egiptoko eskualderik hoberenean jarri zituen, Ramses faraoiaren eskualdean, ematen zien luraren jabe eginez. **12** Gainera, aitaren, senideen eta familia guztiaren mantenuaz arduratu zen.

Joseren nekazaritza- -politika

13 Ez zen janaririk lurralde osoan gosete larriarengatik. Goseak jota utzi zituen Egipto eta Kanaan lurraldeak. **14** Josek Egipto eta Kanaaneko diru guztia bildu zuen gari truke, eta faraoiaren jauregiko altxortegian sartu. **15** Diru guztia gastatu zute-nean, egiptoarrak Joseri joan zitzaizkion, esanez:

—Emaguzu jatekoa. Dirua amaitu zaigulako, hiltzen utzi behar ote gaituzu?

16 Josek erantzun zion:

—Diru gehiago ez baduzue, emazkida-zue zeuen abereak jatekoaren truke.

17 Ekarki zizkioten, bada, Joseri beren abereak: ardi, behi eta astoak; hauen truke janariz hornitu zituen urte osoan.

18 Urte hura igarorik, ordea, han joan zitzaizkion berriro ere eta esan: «Ez dizugu ukatuko, jauna, gastatu dugula dirua eta zureak direla gure abere-taldeak; ez zaizkigu, jauna, gure besoak eta lurra besterik gelditzen. **19** Zergatik utzi behar gaituzu hiltzen geure lur eta guzti? Eros gaitzazu gu geu eta gure lurrak janari truke, eta faraoiaren esklabo bihurtuko gara, geure lurrekin batera. Emaguzu hazia bizirik iraun dezagun eta gure lurrak eremu bihur ez daitezen».

20 Honela erosi zituen Josek Egiptoko lur guztiak faraoiarentzat. Egiptoarrek nork bere lurra saldu zuten, gainean zuten gosete latzarengatik; hala, lurralde osoaren jabe bilakatu zen faraoia. **21** Jendea hiri handietara aldarazi zuen lurraldearen ertz batetik bestera. **22** Apaizen lurrak bakarrik utzi zituen erosi gabe, haien alde lege bat baitzuen faraoiak emana; honek ematen zien jateko behar zutena. Honengatik, ez zuten beren lurrak saldu beharrik izan.

23 Josek esan zion herriari:

—Hara, gaur erosi zaituztet zuek eta zuen lurrak faraoiarentzat. Hemen duzue hazia; erein zeuen lurretan. **24** Uzta-aroan, bostetik bat faraoiari emango diozue eta beste laurak zuentzat izango dituzue, ereiteko eta zeuek, zuen haurrak eta etxeoak mantentzeko.

25 Herriak erantzun:

—Bizia zor dizugu! Hau mesedea egin diguzuna! Faraoiak bere esklabo izango gaitu!

26 Honela ezarri zuen Josek Egiptoko lurretan bildutako bostetik bat faraoiari emateko legea. Lege honek gaurdaino dirau. Apaizen lurrak bakarrik gelditu ziren faraoiarenak bihurtu gabe.

Jakoben azken nahia

27 Israeldarrak Egiptoko Goxen eskualdean bizi ziren. Han lurrak erosi zituzten, seme-alabak sortu eta erruz ugaltu ziren. **28** Egiptora iritsi ondoren, beste hamazazpi urtez bizi izan zen Jakob, ehun eta berrogeita zazpi urte betetzeraino.

29 Azken eguna zetorkiolarik, bere seme Joseri deitu eta esan zion:

—Maite banauzu, izan nirekin onbera eta leiala: ezarri eskua nire izterpean eta hitz emaidazu ez nauzula Egipton ehortziko. **30** Hil eta neure arbasoekin elkar nadinean, Egiptotik atera eta haien hilobian ehortziko nauzu. Josek erantzun zion:

—Beteko dut zuk esana.

31 Eta Jakobek:

—Egidazu zin!

Josek zin egin zion. Orduan, Jakob oheburura makurtu zen.

Jakobek Joseren semeak bedeinkatu

48 **1** Handik aldi batera, esan zioten Joseri aita gaixo zuela. Jose bere bi semeekin, Manases eta Efrainekin, joan zitzaien. **2** Jakob, Jose zetorkiola esan ziotenean, ahalegin handiz ohe gainean eseri zen.

3 Jakobek esan zion Joseri: «Luz-en, Kanaan lurraldean, agertu zitzaidan Jainko ahalsua eta bedeinkatu egin ninduen, **4** esanez: “Ondorengo ugari emango dizut eta herri askoren sortzaile bihurtuko zaitut. Zure ondorengoei lurralde honen jabetza emango diet betirako”. **5** Orain semetzat hartzen ditut, ni Egiptora etorri aurretik, hemen sortu zaizkizun Manases eta Efrain bi semeak, Ruben eta Simeon nire seme diren bezala. **6** Hauen ondoren izango dituzunak, berriz, zureak izango dira, eta Efraini eta Manasesi utziko diedan ondarean izango dute parte. **7** Mesopotamiatik nentorrela hil zitzaidan Rakel, zure ama, Kanaan lurraldean, Efratara iritsi aurretik, eta han, Efratara, hots, Belenera bidean ehortzi nuen».

8 Joseren semeak ikustean, Jakobek galdetu zuen:

—Nortzuk dira hauek?

9 Josek erantzun:

—Jainkoak Egipton eman dizkidan semeak dituzu. Jakobek esan zuen:

—Ekarzkitzazu, arren, bedeinkatzeko.

10 Jakobek, zahardadez begi-lausoturik, ezin zuen ikusi. Josek bere semeak aurrera eramane zizkionean, laztandu eta besarkatu egin zituen. **11** Gero, Joseri esan zion:

—Ez nuen espero zure aurpegia berriro

ikustea, eta hara, zu ez ezik, zure ondorengoak ere ikusarazi dizkit Jainkoak.

12 Orduan, Jose, bere semeak aitaren belaun artetik atera eta lurreraino makurtu zitzaion. **13** Gero, bere bi semeak harturik, hurbildu egin zizkion: Efrain bere eskuinean, Jakobek ezkerretatik, eta Manases bere ezkerrean, Jakobek eskuinertatik, jarri zituen. **14** Jakobek bere eskuak luzatu eta eskuina Efrain seme gazteenaren buru gainean ezarri zuen eta ezkerrean Manases lehen-semearen buru gainean, eskuak gurutzatuz. **15** Eta honela bedeinkatu zuen Jose:

*«Ene guraso Abrahamek eta Isaakek
zerbitzatu duten Jainkoak,
jaio nintzenetik gaurdaino
artzain gisa gidatu nauen Jainkoak,*

16 gaitz guztietatik
libratu nauen aingeruak,
bedeinka ditzala mutiko hauek!
Hauen bitartez oroituak bitez
nire izena
eta Abraham eta Isaak
nire gurasoen izenak.
Izan bezate munduan ondorengo ugari».

17 Ohartu zen Jose aitak bere eskuineko eskua Efrainen buru gainean ezarria zuela, eta ez zion ongi iritzi. Hartu zion, bada, eskua Efrainen buru gainetik Manasesen gainera aldatzeko, **18** esanez:

—Hau ez, aita; bestea da lehen-semea; ezarri eskuina horren buru gainean.

19 Baina aitak, ezezkoa emanaz, esan zion:

—Badakit, bai, seme. Manasesen ondorengoak ere herri handi izanen dira; baina anaia gazteena handiagoa izanen da, eta honen ondorengoek herri asko sortuko dituzte.

20 Egun hartan, hain zuzen, bedeinkatu zituen Jakobek, esanez:

*«Zuen izena aipatuko da
Israelen norbait bedeinkatzean.*

*Honela esango dute:
Egin dezala Jainkoak zurekin
Efrain eta Manasesekin egindakoa».*

Efrain jarri zuen, beraz, Manasesen aurretik.

21 Gero, Jakobek Joseri esan zion: «Hara, laster hilko naiz ni. Baina Jainkoa zeuekin izango duzue eta zeuen arbasoen lurraldera itzularaziko zaituzte. **22** Zure ondarea zure anaia bano hobea izango da: Siken emango dizut, ezpataz eta uztaiaz amortarrei kendu nien hiria».

Jakobek hamabi semeak bedeinkatu

49 **1** Jakobek bere semeei deitu eta esan zien: «Bildu nire inguruan, gerora gertatuko zaizuen iragar diezazue-dan. **2** Zatozte eta entzun, ene semeok; entzun arretaz zeuen aita Israeli:

3 «Ruben, nire lehen-seme, nire indar,
nire gizatasunaren lehen emaitza;
zein ausart zaren eta indartsu!

4 Uholdea bezain oldarkoi,
aitaren ezkon-gelara sartu zara,
zeure aitaren ohea lohituz.

5 Simeon eta Lebi anaiak
indarkeria erabiltzeko bat datoz.

6 Ez dut horien bilkuretan parte hartuko,
ez naiz halakoekin elkartuko;
haserre egonik gizonak hil dituzte,
gogoak emanik zezenak txikitu.

7 Madarikatua hauen haserre,
benetan garratza!
Madarikatua beren sumindura,
benetan ankerra!

Jakobek leinuen artean ditut banatuko,
Israel osoan barreiatuko.

8 Juda, zeure senideek
goretsiko zaituzte,
etsaiei eskua erantsiko diezu lepoan,
zeure aitaren semeak
ahuspeztuko zaizkizu.

9 Lehoi gaztea zu, Juda!
Ehizatik heldu zara, seme!
Makurtu eta luze etzaten da
lehoiaren antzera,
lehoi-emearen antzera.

Nor ausartu aurre egitera?
10 Ez da Judarengandik aldenduko
errege-makila,
ezta haren belaun artetik
aginte-makila ere,
hauen jabe dena etorri arte:
herri guztiek diote honi obedituko.

11 Mahastian lotzen du bere astotxoa,
mahatsondoan bere astakumea;
ardotan garbitzen du soinekoa,
mahats-zukuan soingainekoa.

12 Ardoak iluntzen ditu haren begiak,
esneak txuritzen haren hortzak!

13 Zabulon itsas hegian biziko da,
itsas ontzientzat portu;
Sidoneraino hedatuko da.

14 Isakarrek ikuiluan etzanik dagoen
asto zamaria dirudi.

15 Atsedena gozoa
eta lurraldea ederra zela ikustean,
bizkarra makurtu du, zamak eramateko;
esklabo-lanetara jarri da.

16 Danek bere herria du gobernatuko,
Israelgo beste leinuek bezala.

17 Dan, sugea bidean,
sugegorria bidezidorrean;
zaldiari orpotik heldu,
eta zalduna hankaz gora doa.

18 Jauna, zuk salbatu zain nauzu!

19 Gad, lapurrek lapurtua,
eta bera haien lapur.

20 Axer, oparoa haren janaria,
errege-jakien emale.

21 Neftali, orein-eme aske eta arina,
ume ederren sortzaile.

22 Jose, ubide ondoan landare emankor,
honen adarrak harresian gora.

23 Arkulariek haserrearazten dute,
aurka jaikitzen, eraso egiten.

24 Baina uztaia tente,
beso-eskuak lasaituak uzten dizkie
Jakoben Jainko indartsuak,
Israelen artzain eta harkaitz denak.

25 Lagun izango duzu
zeure aitaren Jainkoa;
Jainko Ahaltsuak bedeinkatuko zaitu,
zeru goreneko bedeinkapenez,
itsas barreneko bedeinkapenez,
bular-sabelen bedeinkapenez.

26 Zure aitaren bedeinkazioak
antzinako mendienak baino hobeak,
betidaniko muinoen irrika.
Betoz Joseren buru gainera,
senide artean aukeratuarengana.

27 Benjamin, otso odolzale,
harrapakina du irensten goizean,
hondarrak banatzen arratsean».

Jakoben azken nahia

28 Horiek dira Israelgo hamabi leinuak
eta horixe aitak bere semeei esan ziena, nori
bere bedeinkazioa ematean.

29 Gero, agindu hau eman zien Jakobek:
«Laster hil eta neure arbasoekin elkartuko
naiz. Ehortz nazazue neure gurasoen ondo-
an Kanaan lurraldean, Efron hititaren soro-
ko harpean. **30** Harpe hau Makpela soroan
dago, Mamre parean. Abrahamek hilobitara-
ko erosia zion, soro eta guzti, Efron hititari.
31 Han ehortzi zituzten Abraham eta honen
emazte Sara; han Isaak eta beronen emazte

ere. Eta hantxe ehortzi nuen Lea. **32** Soroa eta bertako harpearen jabetza hititengandik lortu zuten».

33 Jakob, bere semeei agindu hauek emanik, berriro etzan zen ohean. Eta, azken arnasa emanenez, bere arbasoekin elkartu zen.

Jakobengatiko dolua

50 **1** Josek bere burua aitaren gainera bota zuen eta negarrez musukatu. **2** Gero, bere zerbitzuko sendagileei aitaren gorpua baltsamatzeko agindu zien. Hala egin zuten haiek. **3** Berrogei egun eman zituzten zeregin horretan, horrenbeste egun behar baitira gantzuketarako.

Egiptoarrek dolu egin zuten hirurogeita hamar egunez.

4 Dolu-egunak amaitu zirenean, honela mintzatu zitzaien Jose faraoiaren jauregiko-
ei: «Gogoko banauzue, esaiozue, arren, faraoiari: **5** Aitak zin eragin dit, bera hiltzean, Kanaan lurraldean duen hilobian ehortziko dudala. Emaidazu orain aita ehorztera joateko baimena; itzuliko naiz gero».

6 Faraoiak erantzun zion: «Zoaz eta ehortzi aita, zin egin diozun bezala».

Jakoben hiletak

7 Jose bere aita ehorztera joan zen. Harekin batera joan ziren faraoiaren funtzionario guztiak, jauregiko eta Egipto osoko handiki guztiak; **8** bai eta Joseren etxeko guztiak ere, senideak eta aitaren familiakoak. Haurrak eta abereak besterik ez zuten utzi Goxen eskualdean. **9** Gurdi eta zaldunak ere bazihoazen. Berealdiko multzoa osatzen zuten!

10 Jordanez bestaldera dagoen Goren-Atadera iristean, hileta handi eta ospetsuak

egin zituzten. Josek zazpi eguneko dolua egin zion aitari.

11 Goren-Atadeko dolua ikustean, bertakoek, kanaandarrek, esaten zuten: «Egiptoarren dolu hau bai dela ospetsua!». Horregatik, Jordanez bestaldeko leku hari Abel-Mitzraim —hau da, «Egiptoarren dolu»— eman zioten izen.

12 Jakoben semeek aitak agindu bezala egin zuten. **13** Kanaanera eraman eta Makpela soroko harpean ehortzi zuten, Abrahamek Efron hititari, soroarekin batera, hilobitarako erosi zion harpean, Mamre parean.

14 Aita ehortzi ondoren, Egiptora itzuli zen Jose, bere anaiekin eta aita ehorztera joan ziren guztiekin.

Josek bere anaiaek lasaitu

15 Aita hil ondoren, honela ziotsoten elkarri Joseren anaiek: «Beharbada, Josek begitan hartuko gaitu eta egin genion kaltearen ordaina itzuliko digu».

16 Beraz, mandatu hau helarazi zioten: «Gure aitak hil aurretik agindu digu, **17** zuri hau esateko: «Barkatu, mesedez, zure senideen hobena eta bekatua; kalte egin dizute, bai, baina orain barkatu beraien hobena zure aitaren Jainkoaren zerbitzari hauei».

Hau entzutean, negar egin zuen Josek.

18 Gero, anaiek, berarengana joan eta lurreraino ahuspezturik, esan zioten:

—Zure esklabo gaituzu.

19 Josek erantzun zien:

—Ez izan beldur! Jainkoa ote naiz, bada, ni? **20** Egin nahi izan zenidaten kaltea Jainkoak on bihurtu du, jende asko salbatuz, gaur egun gertatzen den bezala. **21** Beraz, ez izan beldur! Neuk emango dizuet jaten zeuei eta zuen seme-alabei.

Honela lasaitu zituen Josek, hunkigarriro mintzatuz.

Joserren zahartzaroa eta heriotza

22 Josek eta bere aitaren familiakoek Egipton bizitzen jarraitu zuten. Ehun eta hamar urte bizi izan zen Jose, **23** eta Efrainen semeen semeak ezagutzera iritsi zen. Manasesen seme Makirren semeak ere bere semetzat hartu ahal izan zituen.

24 Azkenik, honela mintzatu zitzaion Jose bere senideei: «Laster hilko naiz ni; baina Jainkoak zuen alde esku hartuko du eta lurralde honetatik eramango zaituzte, Abrahani, Isaaki eta Jakobi zin eginez hitz emandako lurraldera».

25 Era berean, zin eragin zien, esanez: «Jainkoak zuen alde esku hartuko duenean, eraman hemendik nire hezurrak».

26 Ehun eta hamar urte zituela hil zen Jose. Baltsamatu eta hilkutxan ezarri zuten Egipton.

Irteera



70

Grekozko itzulpenak «Exodo», hau da, Irteera, izena ematen dio liburuari, kontatzen duen gertakari nagusiaren arabera. Hebraierazkoan «Izenak» deitzen zaio, liburuako lehen hitzaren arabera. Israeldarrak bere izatearen sustraietara jotzen duenean, lehen-lehenik Egiptoko irteera eta Sinaiko ituna dakartza gogora.

Israeldarrak ugaldu

1 Hauek dira, nork bere senideak eramanez, beren aita Jakobekin batera Egiptora joan ziren israeldarren izenak: **2** Ruben, Simeon, Lebi, Juda, **3** Isakar, Zabulon, Benjamin, **4** Dan, Neftali, Gad eta Axer. **5** Jakoben ondorengoak, guztira, hirurogeita hamar lagun ziren. Ordurako, Jose Egipton zegoen.

6 Jose, beronen senideak eta belaunaldi hura guztia hil eta gero, **7** israeldarrek seme-alaba asko izan zuten; erruz ugaltu ziren eta, hain indartsu egin zirenez gero, lurralde osoan zabaltu ziren.

Faraoiak esklabo bihurtu israeldarrak

8 Jose ezagutu ez zuen errege berri bat izan zen Egipton, **9** eta bere herriari esan zion: «Hara, israeldar herria gu baino ugariago eta indartsuago bihurtzen ari da. **10** Beraz, zuhur jokatu beharrean gaude, areago ugal ez daitezten; bestela, guduren bat sortuko balitz, gure etsaiekin elkartu eta gure aurka egingo lukete borroka, eta gero Egiptotik alde egingo ligukete».

11 Horregatik, egiptoarrek lan-arduradunak ezarri zizkieten israeldarrei lan neketsuetara makurrarazteko. Honela, Pitom eta Ramses eraiki zituzten, faraoia-

ren gudarostearantzat hornigaiak biltzeko hiriak. **12** Baina zenbat eta zanpatuago, orduan eta ugariago eta hedatuago egin ziren. Israeldarrez gogaiturik, egiptoarrek **13** esklabotza gogorra ezarri zieten **14** eta bizimodu garratza eginarazi, lan astunetara behartuz: buztinez adreiluak egin behar zituzten eta era guztietako sorolanak. Lan guztiok gogorkeriaz ezarri zizkieten.

Faraoiak israeldar jaioberrien hilketa agindu

15 Hebertarrek bi emagin zituzten, Xifra eta Pua. Egiptoko erregeak **16** esan zien:

—Israeldar emakumeei haurgintzan laguntzean, ohar zaitetze arra ala emea den umea: mutikoa bada, hil; neska bada, utzi bizirik.

17 Baina emaginek Jainkoari begirune izan eta ez zuten erregeak agindua bete, baizik eta mutikoak ere bizirik uzten zituzten.

18 Orduan, erregeak deitu eta esan zien:

—Zer dela-eta uzten dituzue mutikoak bizirik?

19 Emaginek erantzun zioten:

—Hebertar emakumeak ez dira egiptoarrek bezalakoak; oso dira azkarrak eta, emagina joan orduko, izana dute haurra.

20 Jainkoak lagundu egin zien emaginei beren lanean: herria ugaltu egin zen eta biziki indartu. **21** Eta emaginei beraiei, Jainkoari begirune izan ziotenez gero, ondorengoak eman zizkien.

22 Orduan, faraoiak agindu hau eman zion herri osoari: «Bota Nilo ibaira hebertar mutiko guztiak! Neskak, berriz, utzi bizirik!».

Moises jaioberria salbatu

2 **1** Lebiren leinuko gizaseme bat leinu bereko emakume batekin ezkondu zen. **2** Haurdun gelditu zen emaztea eta semea izan zuen. Haurra ederra zela ikusirik, gordeta eduki zuen hiru hilabetez; **3** baina, luzaroago gordeta edukiezinik, zumitzezko saski bat hartu eta, zirrikituak galipotez eta bikez estalirik, haurra bertan sartu zuen eta Nilo ibai-ertzean utzi kanaberen artean. **4** Haurraren arreba urruti gelditu zen, zer gertatuko begira.

5 Geroxeago, faraoiaren alaba ibaira etorri zen bainatzera; bitartean, neskameak ibai ondoan zebiltzan. Faraoiaren alabak saskia ikusi zuen kanabera artean, eta neskameetako bat bidali zuen haren bila. **6** Ireki eta mutikoa ikusi zuen negarrez. Faraoiaren alabak, errukiturik, esan zuen:

—Hebertarren haurra da, noski.

7 Orduan, haurraren arrebak esan zion:

—Nahi al duzu hebertar inude baten bila joatea, haurra hazteko?

8—Zoaz —erantzun zion faraoiaren alabak. Neskakak haurraren amari deitu zion.

9 Heldu zenean, faraoiaren alabak esan zion:

—Hartzazu haurra eta hazi, eta neuk ordainduko dizut.

Emakumeak haurra hartu eta hazi egin zuen.

10 Handi egin zenean, faraoiaren alabari eraman zion. Honek semetzat hartu eta Moises ezarri zion izen, esanez: «Uretatik atera dut».

Moises ihes egin beharrean

11 Behinola, jadanik heldua zelarik, bere anaia hebertarregana joan zen Moises eta

lan neketsuetan aurkitu zituen. Eta han ikusi zuen egiptoar bat hebertar anaia bat jipoitzen. **12** Alde batera eta bestera begiratu eta inor ez zegoela ikusirik, egiptoarra hil eta hondarpean ezkutatu zuen.

13 Biharamunean berriro atera zen, eta bi hebertar ikusi zituen elkar joka. Orduan, joka ari zenari galdegin zion:

—Zergatik jotzen duk herritarra?

14 Hark erantzun zion:

—Nork jarri hau hi gure arteko buruzagi eta epaile? Ala hil egin behar ote nauk ni ere, egiptoarra bezala?

Beldurtu egin zen Moises, arazoa ezaguna zela pentsatuz.

15 Hain zuzen, faraoia, gertatuaren berri jakin zuelarik, Moises hil nahian zebilen, baina honek faraoiagandik ihes egin zuen eta Madian eskualdera joan zen bizitzera. Han, putzu baten ondoan eseri zen.

izan zuen eta Moisesek Gerxom —hau da, «Etorkin hemen»— eman zion izen, esanez: «Etorkin bilakatu naiz lurralde arrotzean».

Jainkoak Moises hautatu Israel askatzeko

23 Aldi luze baten ondoren, hil egin zen Egiptoko erregea. Israeldarrek, bitartean, in-tziri eta deiadarka ziharduten esklabotzapean. Haiek esklabotzaren barrendik laguntza eske eginiko garrasia Jainkoarenganaino iritsi zen. **24** Aditu zuen Jainkoak haien negar-zotina, Abraham, Isaak eta Jakobekin egindako ituna gogora ekarriz. **25** Begiratu zien israel-darrei eta haienganako ardura hartu zuen.

3 **1** Moisesek Madiango apaiz Jetro bere aitaginarrebaren artaldea zaintzen zuen. Behin batean, basamortuan barrena artaldea eramán zuen eta Jainkoaren mendiraino, Horeberaino, iritsi zen. **2** Han, Jaunaren aingerua agertu zitzaion sasi artean pizturiko sugarretan. Moises begira jarri zen: sasia, sutan egon arren, ez zen erretzen. **3** Moisesek bere buruari ziotson: «Hurbil nadin gauza harrigarri hori ikustera: nola liteke sasia ez erretzea?».

4 Begiratzera zetorrela ikustean, Jaunak dei egin zion sasi artetik:

—Moises! Moises!

Hark erantzun:

—Hemen nauzu!

5—Ez hurbildu —esan zion Jaunak—. Erantzi oinetakoak, zauden lekua lur santua baita. **6** Ni zure arbaso Abraham, Isaak eta Jakobén Jainkoa naiz.

Moisesek aurpegia estali zuen, Jainkoari begiratzeko beldur baitzen.

7 Jaunak esan zion, gainera:

—Ongi ikusia dut zure herriaren atsekabea Egipton eta entzuna haien oihua zapaltzaileen zigorpean; bai, ohartu naiz haien

Moises erbestean, Madian eskualdean

16 Bazen Madianen zazpi alaba zituen apaiz bat. Hauek putzura joan ziren, aska bete eta aitaren ardiei edaten ematera. **17** Etorri ziren, ordea, artzain batzuk eta bota egin zituzten handik. Moises, orduan, nesken alde atera zen eta ardiei edaten eman zien.

18 Alabak beren aita Reuelengana itzuli zirenean, honek galdegin zien:

—Nolatan zatozte gaur hain goiz?

19 Haiek erantzun:

—Egiptoar batek defendatu gaitu artzainen kontra. Gainera, berak atera digu putzutik ura eta ardiei edaten eman.

20 Aitak esan zien:

—Eta non da bera? Nola utzi diozue joaten? Dei egiozue zerbait jan dezan.

21 Orduz gero, Moises Reuelen etxean gelditu zen bizitzen. Reuelek bere alaba Tzipora eman zion emaztetzat. **22** Emazteak semea

oinazeaz. **8** Egiptoarren eskuetatik libratzera etorri naiz eta lurralde honetatik, esnea eta ezia darizkion lurralde zabal eta jori batera igoaraztera, hots, orain kanaandar, hitita, amortar, periztar, hibiarrak eta jebustarren den lurraldera. **9** Hara, nireganaino heldu da israeldarren deiadarra, eta ikusi dut zeinen gogor erabiltzen dituzten egiptoarrek. **10** Zoaz, bada; faraoiarengana bidaltzen zaitut, ene herria, israeldarrak, Egiptotik atera ditzazun.

11 Moisesek esan zion, orduan:

—Nor naiz ni faraoiarengana joateko, nor israeldarrak Egiptotik ateratzeko?

12 Jainkoak erantzun zion:

—Zeurekin izango nauzu. Eta hona zertan ezagutuko den nik bidaltzen zaitudala: ene herria Egiptotik aterako duzunean, mendi honetan gurtuko nauzue.

Jainkoak bere izena ezagutarazi Moisesi

13 Baina Moisesek ihardetsi zion:

—Hara, ni israeldarrengana joan eta «Zuen arbasoen Jainkoak bidali nau zuengana» esango diedanean, «Nola du izena?» galdetuko didate haiek. Zer erantzun behar diet orduan?

14 Jainkoak erantzun zion:

—Izango naizena naiz. Beraz, honela esango diezu israeldarrei: «Izango naizena naiz» deritzanak bidali nau zuengana.

15 Jainkoak Moisesi esan zion, gainera:

—Esan israeldarrei: Jaunak, zuen arbaso Abraham, Isaak eta Jakobena Jainkoak, zuengana bidali nau. Horixe izango da nire izena betirako; hala deituko naute belaunez belauen.

16 «Ea, zoaz, bildu Israelgo herri-arduradunak eta esaiezu: Jauna, zuen arbaso Abraham, Isaak eta Jakobena Jainkoa, agertu zait eta Egipton egiten dizuetena ikusi duela esan dit eta zuen alde eskuhartzea erabaki duela. **17** Beste hau ere esan dit: Egiptoko

atsekabeetatik aterako zaituztela eta esnea eta ezia darizkion lurraldera igoaraziko, kanaandar, hitita, amortar, periztar, hibiarrak eta jebustarren lurraldera.

18 «Herri-arduradunek adituko dizute eta haiekin batera Egiptoko erregeagana joango zara eta esango diozue: «Jauna, hebertarren Jainkoa, agertu zaigu; beraz, hiru eguneko bidea egin behar dugu basamortuan barrena, gure Jainko Jaunari sakrifizioak eskaintzeko». **19** Badakit Egiptoko erregeak ez dizuela joaten utziko, beharturik ez bada. **20** Orduan, ahalmen handiz jokatuko dut eta egiptoarrak joko ditut beraien artean egingo ditudan egintza harrigarriez; ondoren, utziko dizuete irteten. **21** Gainera, egiptoarren abegi ona irabaziko duzue, irtetean esku-hutsik joan ez zaitezten. **22** Emakume israeldarrek nork bere auzokoari eta aldamenekoari zilar eta urrezko bitxiak eta seme-alabentzat jantziak eskatuko dizkiote; honela, egiptoarrei beren ondasunak kenduko dizkiezue».

73

Jainkoak bere ahalmena agertu Moisesi

4 **1** Moisesek ihardetsi zion:

—Baina ez didate sinetsiko, ez jaramonik egingo; Jauna ez zaidala agertu esango didate.

2 —Zer duzu eskuan? —galdegin zion Jaunak.

—Makila —Moisesek erantzun.

3 Jaunak agindu zion:

—Jaurtiki lurrera.

Moisesek lurrera jaurtiki eta, bat-batean, suge bihurtu zen. Moises ihesi joan zen sugearengandik.

4 Baina Jaunak esan zion:

—Luzatu eskua eta heldu isatsetik!

Eskua luzatu eta heldu egin zion, eta sugea makila bihurtu zen berriro eskuan.

5 Jaunak jarraitu zuen:

—Ea horrela sinesten duten Jauna, zuen arbaso Abraham, Isaak eta Jakoben Jainkoa, agertu zaizula.

6—Orain sartu eskua golkoan —esan zion Jaunak.

Sartu zuen Moisesek eta, berriro ateratzen, eskua elurra bezain zuri zeukan legenaz.

7 Orduan, Jaunak esan zion:

—Sartu berriro eskua golkoan.

Hala egin zuen Moisesek eta, ateratzean, beste gorputz-atal guztiak bezain ongi zeukan.

8 Gero, Jaunak esan zuen:

—Lehenengo miraria egitean ez badizute sinesten, ez jaramonik egiten, bigarrena egitean sinetsiko dizute; 9 baina ez badizute sinesten, ez jaramonik egiten, atera ura ibaitik eta isuri lurrean: ura odol bihurtuko da.

Jainkoak Aaron izendatu Moisesen bozeramaile

10 Moisesek esan zion Jaunari:

—Ai Jauna! Ni ez naiz hizketan trebea; ez naiz sekula izan, ezta orain ere, zuk niri hitz egin ondoren. Hizmotela nauzu, hizketarako traketsa.

11 Jaunak erantzun zion:

—Nork eman dio mihia gizakiari? Nork egiten du gizakia mutu ala gor, itsu ala ikus-tun, nik, Jaun honek, izan ezik? 12 Zoaz, bada; zeurekin izango nauzu hitz egin behar duzunean, zer esan adierazteko.

13 Moisesek, orde, esan zion:

—Arren, Jauna, ni ez, bidali besteren bat.

14 Haserretu zen Jauna Moisesen aurka eta esan zion:

—Hor duzu Aaron zeure anaia, lebitarra. Badakit ongi hitz egiten duela. Gainera, bidera datorkizu bera, eta asko poztuko da zu ikustean. 15 Berari adieraziko diozu zer esan behar duen; ni, berriz, zeuekin biokin izango nauzue, hitz egin behar duzen

bakoitzean. Eta zer egin eta zer esan ere irakatsiko dizuet. 16 Zuk nire mezua Aaroni adieraziko diozu eta bera mintzatuko zaio zure orde herriari. 17 Hartu eskuan makila, beronen bidez egingo baitituzu mirariak.

Jainkoak Moisesi Egiptora itzultzeko agindu

18-19 Moises bere aitagarreba Jetroren-gana itzuli zen. Madianen zegoela, Jaunak esan zion: «Itzuli Egiptora, hilak baitira zu hil nahian zebiltzanak». Orduan, Moisesek Jetrori esan zion:

—Uztazu joaten. Egipton diren neure anaiengana itzuli behar dut, oraindik bizirik dirauten ikusteko. Jetrok erantzun zion:

—Zoaz bakean.

20 Emaztea eta semea hartu eta asto gainera igoaraziz, Egiptora itzuli zen Moises; Jainkoaren makila zeraman berekin.

21 Jaunak beste hau ere esan zion: «Egiptora bidean, ez ahaztu zure esku utzi ditudan egintza harrigarri guztiak, faraoiaren aurrean burutu behar dituzu eta. Halaz guztiz ere, setatsu bihurtuko dut faraoia eta ez dio herriari joaten utziko. 22 Orduan, faraoiari esango diozu: Honela dio Jaunak: Ene lehen-semea dut Israel. 23 Nire semeari irte-ten uzteko esan dizut, gurtzera joan dakidan, baina ez duzu nahi izan; beraz, nik zure lehen-semea hilaraziko dut».

Moisesen semea erdaindu

24 Bidean, gaua igaro behar zuten lekuan, Jauna Moisesi bidera atera zitzaion eta hil

egin nahi zuen. **25** Tziporak sukarrizko aizto bat hartu, bere semeari zakil-muturra moztu eta beronekin Moisesi sexua ukitu zion, esanez: «Odol-senarra zaitut». **26** Semea erdaindu zuelako esan zion hori.

Orduan, Jaunak joaten utzi zion.

Aaronekin topo egin eta Egiptora iritsi

27 Bien bitartean, honela agindu zion Jaunak Aaroni: «Zoaz Moisesengana, basamortura». Joan eta, Jainkoaren mendian aurkiturik, besarkatu egin zuen. **28** Orduan, Jaunak emaniko mezua eta egiteko aginduriko mirariak adierazi zizkion Moisesek bere anaiari. **29** Ondoren, elkarrekin joan ziren Israelgo herri-arduradunak biltzera. **30** Jaunak Moisesi esandako guztia kontatu zien Aaronek, eta Moisesek mirariak egin zituen herriaren aurrean. **31** Sinetsi zuen herriak, eta Jauna alde jarri zitzaizela eta beren atsekabeen begiak jarriak zituela jakitean, ahozpeztu eta gurtu egin zuten.

Moises eta Aaron faraoiarengana

5 **1** Ondoren, Moises eta Aaron faraoiarengana joan eta esan zioten:

—Hau esan du Jaunak, Israelgo Jainkoak: Utzizu nire herriari basamortura joaten, ene ohorez festa ospatzera.

2 Baina faraoiak erantzun zien:

—Eta nor da Jaun hori, nik haren esana bete eta israeldarrei joaten uzteko? Ez dut halako Jaunik ezagutzen, eta israeldarrei ez diet joaten utziko.

3 Haiek, berriro:

—Hebertarren Jainkoa agertu zaigu; utziezaguzu basamortura hiru eguneko bidean joaten, geure Jainko Jaunari sakrifizioak eskaintzera, izurriz edo ezpataz zigor ez gaitzan.

4 Baina Egiptoko erregeak erantzun zien:

—Moises eta Aaron, zer ari zarete herria bere lanetik saihestu nahirik? Zoazte zeuen lanera!

5 Eta gainera esan zien:

—Gaur egun, lurralde honetan israeldarrek hain ugari direnean, lana utzarazi nahi al diezue?

Faraoiak are astunago bihurtu israeldarren lana

6 Egun hartan bertan, faraoiak honela agindu zien lan-arduradunei eta langilezainei: **7** «Ez eman aurrerantzean israeldarrei adreiluak egiteko lastorik, orain arte bezala; doazela beraiek lasto bila. **8** Baina orain arte bezainbat adreilu egitera behartuko dituzue, ezta bakar bat ere gutxiago. Alfer batzuk besterik ez dira! Horregatik ari dira beren Jainkoari sakrifizioak eskaintzera joan behar dutela esaten. **9** Ezar iezaiezue lan astunagoa eta beude lanpeturik, eta ez diezaietela kontu horiei jaramonik egin».

10 Lan-arduradunek eta langilezainek herriari esan zioten: «Faraoiaren aginduz, ez zaizue lastorik emango aurrerantzean; **11** zeuek joan beharko duzue bila, dagoen lekura. Baina lana ez zaizue inola ere gutxituko».

12 Israeldarrak Egipto osoan sakabanatu ziren soroetan lasto bila.

13 Lan-arduradunek estutu egiten zituzten, esanez: «Burutu zeuen egitekoa, egunean eguneko, lastoa zeneukatenean bezala».

14 Faraoiaren lan-arduradunek, beraiek izendaturiko langilezain israeldarrak zigortzen zituzten, esanez: «Zergatik ez duzue atzo eta gaur osotu ezarritako adreilu-kopurua, orain arte bezala?».

15 Hala, langilezain israeldarrak faraoiari joan zitzaizkion oihuka:

—Jauna, zergatik erabiltzen gaituzu honela zeure zerbitzariok? 16 Lastorik ematen ezta adreiluak egiteko agintzen digute eta jo egiten gaituzte, errua zure herriarena izanik.

17 Faraoiak erantzun zien:

—Alfer hutsak zarete! Horrexegatik diharduzue Jaunari sakrifizioak eskaintzera joan behar duzuela esaten. 18 Zoazte lanera! Ez zaizue lastorik emango, baina adreilu-kopuru bera egin beharko duzue.

19 Langilezain israeldarrak estu eta larri zebiltzan eguneroko adreilu-kopurua ez zietela gutxituko jakitean.

20 Faraoiaren etxetik ateratzean, beraien zain zeuden Moises eta Aaronekin topo egin zuten. 21 Langilezainek esan zieten: «Jaunak kontu hartu eta epai zaitzatela, zuen erruz hartu baikaituzte begitan faraoiak eta beronen funtzionarioek: "ezpata eman diezue eskura, hil gaitzaten».

Moisesek

Jaunarengana jo

22 Orduan, Moisesek, Jaunarengana itzulirik, esan zion:

—Jauna, zergatik erabiltzen duzu hain gaizki herri hau? Zertarako bidali nauzu?

23 Faraoiak, zure izenean mintzatzera etorri nattaionetik, are gaizkiago erabili du zure herria eta zuk ez duzu deus ere egin libratzeko.

6¹ Jaunak erantzun zion:

—Orain ikusiko duzu faraoiari egingo diodana: indarrez beharturik, utziko dizue

joaten; are gehiago, berak ateraraziko zaituzte lurralde honetatik.

Jainkoak Pazkoa ospatzeko agindu

12¹ Honela mintzatu zitzaien Jauna Moisesi eta Aaroni Egipton: 2 «Hilabete hau izango duzue hil nagusia, urte guztiko lehenengoa. 3 Horrela aginduko diozu israeldarren elkarteari: Hil honen hamarrean har beza bakoitzak familia eta etxe bakoitzeko abere xehe bana. 4 Abere osoa jateko familia aski ez bada, aldameneko bizilagunekin elkartuko da, bakoitzak jan dezakeenaren arabera zenbat jende behar den kontuan harturik. 5 Abereak urte batekoa beharko du izan, arra eta akasgabea, arkume nahiz antxume. 6 Hilaren hamalaura arte gordeko duzue, eta egun horretan, ilunabarrean, israeldarren elkartekide guztiek hilko dute. 7 Gero, abere-odola hartu eta aberea jango duzuen etxeko ategainak eta alboak odolizatuko dituzue. 8 Gau horretan sutan erreta jango duzue okela, legamigabeko ogiz eta belar mingotsez lagundurik. 9 Ez duzue ezer gordinik edo egosirik jango, dena sutan errea baizik: buru, hanka eta tripaki. 10 Ez utzi ezer biharamunerako; erre geldituko diren kondarrak. 11 Honela jango duzue: gerrikoa loturik, oinetakoak jantzirik eta makila eskuan, abiatzeko prest; presaka jango duzue, Jaunaren Pazkoa baita. 12 Gau horretan Egipto osoan zehar igaroko naiz, eta hil egingo ditut Egiptoko lehen- seme eta lehen aberekumeak oro eta neure epaia emango diet Egiptoko jainkoei. Ala ni Jauna!

13 «Odola izango duzue ezaugarri etxeretan. Odola ikustean, aurrera egingo dut; horrela, nik egiptoarrak jotzean, izurriak ez zaituzte zuek suntsituko.

14 «Egun hau gogoangarri izango duzue eta, Jaunaren ohorez, festa nagusiz ospatuko. Festa hau lege-indarrez ezarriko duzue belanez belaur.

Legamigabeko Ogien Jaia

15 «Zazpi egunez legamigabeko ogia jango duzue; beraz, lehenengo egunetik ez duzue legamirik izango etxean. Zazpi egun horietan legamidun ogia jango duen oro Israel herritik bota egingo dute. 16 Lehenengo egunean bezala azkenengoan batzar sakratua izango duzue. Egun horietan ez duzue lanik egingo, bazkaria prestatzeko ez bada. 17 Gorde, bada, Legamigabeko Ogien Jai hau, egun horretantxe aterako baitzaituztet Egipto lurraldetik gudaroste baten gisan. Lege-indarrez gordearaziko duzue jai hau belanez belaur betirako. 18 Lehen hilaren hamalauko arratsaldetik hogeita bateko arratsaldera arte legamigabeko ogia jango duzue. 19 Zazpi egun horietan ez duzue legamirik izango etxean, zeren legamidun ogia jango duen oro, etorkina nahiz bertakoa izan, israelarren elkartetik bota egingo baitute. 20 Ez ezazue, beraz, ezer legamidunik jan. Nonahi bizi zaretelarik, legamigabeko ogia jango duzue».

Moisesek Pazkoa ospatzeko agindua adierazi

21 Dei egin zien Moisesek Israelgo herri-arduradunei eta esan: «Hartzazue zeuen familietarako abere xehe bana eta hil, Pazkoa ospatzeko. 22 Bildu odola ontzi

batean eta, ixipu-sorta bertan bustirik, zirtatu zeuen etxeko ategainak eta alboak. Ez bedi inor etxetik irten hurrengo goizera arte.

23 «Jauna igaroko da egiptoarrak hilez; baina, zuen ateen gain-alboetan odola ikustean, aurrera egingo du. Horrela, ez dio suntsitzaileari zuen etxeetan sartzen utziko, zuek hiltzera. 24 Hau guztia lege-indarrez gordeko duzue beti, bai zeuek, bai zuen ondorengoek. 25 Ohikune hau ospatzen jarraituko duzue, Jaunak, bere hitza betez, emango dizuen lurraldean sartzen zaretenean. 26 Orduan, seme-alabek ohikune horren esanahiaz galdegitean, 27 hau erantzungo diezue: Jaunaren omenez dagigun Pazko sakrifizioa da, zeren, egiptoarrak hil zituen hartan, Egipton bizi ziren israelarren etxe parean aurrera igaro baitzen Jauna, gure familiak libratuz».

Orduan, israeldarrak ahozpeztu egin ziren, Jauna gurtzeko. 28 Gero, joan eta Jaunak agindutako dena zehatz-mehatz bete zuten Moisesek eta Aaronek.

Hamargarren izurria: lehen-semeen hilketa

29 Gauerdian Jaunak egiptoar lehen-semeak oro hil zituen, errege-aulkian esertzen den faraoiaren lehen-semetik hasi eta kartzelan preso dagoenaren lehen-semeraino, bai eta lehen aberekumeak oro ere. 30 Gaua zelarik altxa ziren ohetik faraoia, funtzionarioak eta egiptoar guztiak. Garrasi latzak izan ziren Egipto osoan, ez baitzen hildakorik gabeko etxerik. 31 Gau berean faraoiak Moisesi eta Aaroni dei egin eta esan zien:

—Irten nire herritik zuek biok eta israeldar guztiak. Zoazte Jauna gurtzera, esan duzuen bezala. 32 Eraman abere-taldeak, zeuek esan bezala, eta alde egizue. Agur nazazue eta zoazte.

33 Denak hilko zirelakoaren beldurrez, presa eman zieten egiptoarrek israeldarrei, ahalik eta lasterren abia zitezen beren lurraldetik.

Israeldarrak abiabidean

34 Israeldarrek oraindik legamiz altxagabeko oreka hartu eta, oramahai eta guzti estalkietan bildurik, bizkarrean hartu zituzten. 35 Gainera, Moisesen esanera, urrezko eta zilarrezko bitxiak eta arropak eskatu zituzkien egiptoarrei. 36 Jaunari esker, egiptoarren abegi ona irabazi zuten eta eskatu guztia eman zieten egiptoarrek. Honela kendu zituzkien egiptoarrei beren ondasunak.

37 Israeldarrek Ramsesetik Sukoterako bidea egin zuten. Seiehun milaren bat gizon oinezko ziren, emakumeak eta haurrak kontuan hartu gabe. 38 Haiekin batera, berealdiko jende-multzoa zihoan, bai eta abere-talde handiak ere. 39 Egiptotik bota zituztenez gero, ez zuten biderakoak prestatzeko betarik izan; beraz, Egiptotik atera zuten altxagabeko orez legamigabeko opilak egin zituzten.

40 Laurehun eta hogeita hamar urtez bizi izan ziren israeldarrak Egipton; 41 aldi hau bete zen egun berean, hain zuzen, atera zen lurralde hartatik Jaunaren herria, gudaroste baten gisa. 42 Gau horretan jagole egon zen Jauna haiek Egiptotik ateratzeko. Horregatik, Jaunaren omenez, israeldarrek erne egon behar dute gau horretan, beila eginez, belaunez belau.

Israeldarrak Egiptotik atera

13 17 Faraoiak israeldar herriari irte-
ten utzi zionean, Jainkoak ez zuen

filistearren lurralderako bidetik eraman, nahiz eta motzena hura izan, borroka egin beharrean aurkituz gero, herriak Egiptora itzuli nahiko zuela uste baitzuen. 18 Horregatik, Itsaso Gorrira daraman basamortuko bidetik itzulia eginarazi zien. Israeldarrak gudaroste baten gisa irten ziren Egiptotik.

19 Moisesek Joseren hezurak jaso zituen, Josek Israelen semeei zin-hitz hau eginarazi baitzuen: «Egiaz, esku hartuko du Jainkoak zuen alde; orduan, eramaitzazue nire hezurak hemendik».

20 Israeldarrak Sukotetik irten eta Etamen, basamortu ertzean, kokatu ziren. 21 Jauna aurretik zihoakien: eguargiz laino-adarrean, bidean gidatzeko; gauez su-adarrean, argi egiteko. Honela, egunez zein gauez ibili ahal izan ziren. 22 Ez ziren alden-du haiengandik, ez laino-adarra egunez, ezta su-adarra gauez.

Egiptoarrak israeldarren atzetik

14 1 Honela mintzatu zitzaion Jauna Moisesi: 2 «Agindu israeldarrei itzultzeko eta Pi-Hiroten aurrean kokatzeko, Migdol eta itsasoaren artean, hau da, Baal-Tzefonen parean, itsasertzean. 3 Faraoiak uste izango du basamortuak bidea ixten diela eta israeldarrak nora-ezean dabiltzala. 4 Nik setatsu bihurtuko dut faraoia eta eraso egingo dizue; orduan erakutsiko dut neure ahalmen handia faraoiaren eta beraren gudarostearen kontura, eta horrela jakingo dute egiptoarrek ni naizela Jauna».

Hala egin zuten israeldarrek.

5 Bitartean, israeldarrek ihes egin zutela Egiptoko erregeari jakinarazi ziotenean, faraoiak eta funtzionarioek, israeldarrekiko erabakiaz damaturik, honela ziotzoten elkarri: «Baina zer egin dugu? Nola utzi diegu geure esklabo israeldarrei alde egiten?».

6 Berehala, faraoiak bere gudu-gardia prestatu zuen eta gudarostea bildu: 7 sei-ehun gudu-gurdi berezi eta Egiptoko gudu-gurdi guztiak eraman zituen, bakoitzean gudarostea bat zihola. 8 Jaunak setatsu bihurtu zuen faraoia eta honek eraso egin zien israeldarrei, hauek libre ateratzen ziren bitartean. 9 Egiptoarrak israeldarrei erasotzera atera ziren beren zaldi, gurdi, zaldun eta gudaroste osoaz, eta itsasbaterrean harrapatu zituzten, Pi-Hirotan ondoan, Baal-Tzefonon parean.

Israeldarrak egiptoarren beldur

10 Faraoia hurbil zen. Israeldarrak, egiptoarrak atzean zituztela ohartzean, izutu eta oihuka hasi zitzaizkion Jaunari. 11 Moisesi esan zioten:

—Ez ote zegoen hilobirik aski Egipton, gu handik atera eta basamortuan hiltzera ekartzeko? Zergatik atera gaituzu Egiptotik? 12 Hain zuzen, hauxe eskatu genizun Egipton geundela: «Utzi egiptoarrentzat lanean jarraitzen. Hobe dugu hemen esklabo izan, basamortuan hil baino».

13 Baina Moisesek erantzun zien:

—Ez izan beldur! Eutsi eta ikusiko duzue nola salbatzen gaituen gaur Jaunak: zeren orain ikusten dituzuen egiptoarrak ez dituzue gaurgero ikusiko. 14 Jauna borrokatuko da zuen alde. Zuek egon lasai!

Jainkoak israeldarrak salbatu

15 Orduan, Jaunak esan zion Moisesi: «Zergatik ari zatzaizkit oihuka? Agindu israeldarrei egiteko aurrera. 16 Eta zuk altxa

makila eta luzatu eskua itsaso gainera: banatu egingo da itsasoa eta herriak oinak busti gabe zeharkatuko du. 17 Nik setatsu bihurtuko ditut egiptoarrak eta atzetik segituko dizuete; orduan agertuko dut neure ahalmen handia faroiaren eta beraren gudarostearen kontura, haien gurdi eta zaldunen kontura. 18 Hori gertatzean, jakingo dute egiptoarrek ni naizela Jauna».

19 Israeldarren kanpamendu aurretik ziholan Jaunaren aingerua atzealdera pasa zen; laino-adarra ere lekuz aldatu eta atzealdean kokatu zen, 20 israeldarren eta egiptoarren kanpamenduen tartean jarriz. Lainoa ilunpe bihurtu zen egiptoarrentzat, israeldarrei gaua argitzen zien bitartean; hala, ez ziren bata bestearengana hurbildu.

21 Luzatu zuen Moisesek eskua itsaso gainera eta, Jaunak eraginda, ekialdeko haize indartsuak jo zuen gau osoan. Haizeak itsasoa lehortu egin zuen, urak bi multzotan banatuz. 22 Itsasoan zabaldutako lehor-bidetik igaro ziren israeldarrak, urak ezker-eskuin zituztela harresi gisa. 23 Egiptoarrak, faroiaren zaldi, gurdi eta zaldun guztiak, israeldarrei erasoka itsas erdiraino sartu ziren.

24 Goizaldera, su- eta laino-adarretik Jaunak egiptoarren kanpamendura begiratu eta nahasmendua sortarazi zuen haien artean. 25 Gurdien gurpilak trabatu zituen, nekez mugitzen zirela utziz. Orduan, egiptoarrek esan zuten: «Goazen ihesi israeldarrendik, Jauna ari baita haien alde eta gure aurka».

26 Baina Jaunak esan zion Moisesi: «Luzatu eskua itsaso gainera, urak egiptoarren gainera, gurdi eta zaldunen gainera, eror daitezen».

27 Luzatu zuen Moisesek eskua itsaso gainera. Eguna zabaltzean, urak ohiko lekura itzuli ziren eta egiptoarrek, ihesian, urekin tupustu egin zuten: Jaunak itsas hondora amildu zituen egiptoarrak. 28 Beren lekura itzultzean, urek estali egin zituzten, israeldarrei erasoka itsasoan sartu ziren faroiaren

gurdi eta zaldunak, gudaroste osoa: ez zen bakar bat ere bizirik atera. **29** Israeldarrak, ordea, itsas erditik oinik busti gabe igaro ziren, urak ezker-eskuin zituztela harresi gisa.

30 Egun hartan Jaunak egiptoarren eskuetatik salbatu zituen israeldarrak eta hauek egiptoarren gorpuak ikusi zituzten itsasbazerrean. **31** Jaunak Egiptoren aurka erabili zuen ahalmen handia ikusirik, israeldarrek begirune izan zioten Jaunari, eta haren gan eta haren zerbitzari Moisesengan beren uste ona jarri zuten.

Moisesen gorazarrea

15 ¹ Orduan, Moisesek eta israeldarrek kanta hau abestu zuten Jaunaren omenez:

«Jaunaren omenez abestuko dut,
egundoko garaipena lortu baitu,
nola zaldiak hala zaldunak
itsas hondora amilduz.

2 Jaunari diot abesten,
bera dut indar, bera salbatzaile.
Neure Jainkoa dut: gorespen hari!
Neure aitaren Jainkoa:
goraipatua bedi!

3 Gudari da Jauna,
Jauna du izena.

4 Jaunak itsasoan hondoratu ditu
faraoiaren gurdi eta gudarostea,
Itsaso Gorrian murgildu
gudalbururik bikainenak.

5 Itsasoak ditu azpiratu,
hondora jaitsi dira
harrizarraren antzera.

6 Zure eskuina, Jauna,
izugarri indartsu!
Etsaia desegin du.

7 Zeure ahalmen handiaz dituzu
arerioak zanpatu;
haserre-sua piztu
eta lastoa bezala erre.

8 Zuk haserrez haize eman
eta urak metatu dira;
uhinak harresi gisa zutitu,
itsas urak tinko gelditu.

9 Etsaiak pentsatu zuen:
“Pertsegitu eta harrapatuko ditut,
lapurtu eta harrapakina banatuko,
aseko dut neure gutizia.
Ezpata zorrotik atera
eta haietaz jabetuko naiz”.

10 Baina zuk haize eman
eta itsasoak irentsi ditu;
ekaitz-uretan hondoratu dira
berunaren antzera.

11 Nor zu adinakorik, Jauna,
jainkoen artean?
Nor zu adinakorik,
zure santutasunak dirdai egitean?
Nor zu adinakorik
gauza harrigarri
eta izugarriak egiten?

12 Zuk eskua luzatu
eta lurra etsaiak irentsi!
13 Maitasunez gidatzen duzu
askatu duzun herria.
Indarrez daramazu
zeure egoitza santura.

14 Hau entzutean,
herriak larri dira
filistearrak beldur-ikaraz,
15 Edomgo buruzagiak dardaraz;
Moabeko handikiak izaturik,
kanaandar guztiak asalaturik.

16 Jauna,
zure beso indartsuaren eraginez,
hor daude herriak harri eta zur,
izuak eta beldur-ikarak harturik,
zuk eskuratu duzun herria
igaro bitartean!

17 Jauna,
 zuk sarrarazten duzu zeure herria
 eta zeure mendian landatzen,
 zeure ondarean,
 zeure egoitza egin duzun lekuan,
 zeure eskuz eraiki duzun santutegian.
 18 Jauna errege da betierean!».

19 Faraoiaren zaldi, gurdi eta zaldunak
 itsasoan sartu zirenean, Jaunak itsas urak
 gainera erorarazi zizkien; israeldarrak,
 ordea, itsas erditik igaro ziren oinik busti
 gabe.

20 Miriam profetesak, Aaronen arrebak,
 danbolina hartu zuen eta emakume guztiak
 atzetik joan zitzaizkion, dantzan eta danbo-
 lina joz. 21 Miriamek honela eman zion
 hasiera kantuari:

«Kanta Jaunaren omenez,
 garaipen harrigarria lortu baitu,
 nola zaldiak hala zaldunak
 itsas hondora amilduz».

Jaunak israeldarrak janariz hornitu basamortuan

16 ¹ Israeldarren elkarte osoa Elindik
 irten eta Elin eta Sinai artean dago-
 en Sin basamortura heldu zen. Bigarren
 hilaren hamabosta zen Egiptotik irtenez
 gero.

2 Han, basamortuan, elkarte osoa mar-
 marrean hasi zen Moises eta Aaronen aurka,
 3 esanez: «Hobe genukeen Jaunak Egipton
 hilarazi bagintu, haragi-eltze inguruan eseri
 eta ase arte jaten genuenean! Zuek, ordea,
 gu denok goseak hiltzera ekarri gaituzue
 basamortu honetara».

4 Orduan, Jaunak esan zion Moisesi:
 «Janaria eroraraziko dizuet euri gisa zerutik.

Herria egunean egunekoa biltzera aterako
 da. Probatu egin nahi dut, ea nire esanera
 dabilen ala ez. 5 Seigarren egunean, bilduta-
 koa prestatzean, beste egunetakoa halako bi
 izango da».

6 Honela mintzatu zitzaizkien Moises
 eta Aaron israeldarrei: «Gaur arratsaldean
 jakingo duzue Jaunak atera zaituztela
 Egiptotik, 7 eta bihar goizean ikusiko
 haren ahalmena. Aditu du beraren aurka
 egin duzuen marmarra. Aaronek eta nik ez
 dugu zerikusirik, gure aurka marmar egi-
 teko».

8 Gainera, esan zien Moisesek: «Gaur
 arratsaldean Jaunak okela emango dizue
 jateko, eta bihar goizean asetzeko adina ogi,
 aditu baitzikizue bere aurkako marmarrak.
 Izan ere, guk ez dugu zerikusirik. Gure
 aurka ez, baina Jaunaren aurka jardun
 duzue marmarrean».

9 Ondoren, Moisesek esan zion Aaroni:
 «Esaiozu israeldarren elkarte osoari Jau-
 naren aurrera hurbiltzeko, aditu baitu haien
 marmarra».

10 Aaron mintzatzen ari zitzaieela, denek
 basamorturantz begiratu zuten, eta hara
 non ikusten duten Jauna, aintzaz beterik,
 hodei batean agertzen. 11 Jaunak esan zion
 Moisesi: 12 «Aditu dut israeldarren marma-
 rra. Esaiezu: Ilunabarrean okela jango
 duzue, eta bihar goizean ogiz aseko zarete.
 Honela jakingo duzue ni naizela Jauna,
 zuen Jainkoa».

13 Arratsaldean, galeperrak heldu ziren
 eta kanpaleku osoa estali zuten; biharamun
 goizean, ihintz-geruza azaldu zen kanpale-
 ku inguruan. 14 Ihintza desagertu zenean,
 antzigarraren itxurako zerbait, xehea eta
 garautsua, gelditu zen lur gainean. 15 Hura
 ikustean, israeldarrek honela ziotsoten elka-
 rri: «Zer da hau?» Ez baitzekiten zer zen.

Moisesek esan zien: «Jaunak janarizat
 ematen dizuen ogia da. 16 Hara zer agindu
 didan Jaunak: Bakoitzak bil dezala jateko
 behar adina, lau litro bakoitzeko, nor bere
 etxolan dituen lagunen arabera».

17 Hala egin zuten israeldarrek, batak asko eta besteak gutxi bilduz. **18** Neurria hartzerakoan, ordea, ez zuen sobera asko bildu zuenak, ezta eskas gutxi bildu zuenak ere. Bakoitzak jateko behar adina zuen.

19 Gero, Moisesek esan zien: «Ez dezala inork biharamunerako ezer gorde».

20 Hala ere, zenbaitek ez zion Moisesi jaramonik egin eta hurrengo egunerako gorde zuen; baina harrak jo eta usteldu egin zitzairen. Haserretu egin zen Moises haien aurka.

21 Goizero biltzen zuen bakoitzak jateko behar zuena, eguzkiak berotzean desagertu egiten baitzen.

22 Seigarren egunean bi halako bildu ohi zuten, bederatzi bat litro lagun bakoitzeko; orduan, elkarte-arduradunak horren berri ematera joan zitzaizkion Moisesi. **23** Honek erantzun zien: «Hori da Jaunak esana: Bihar larunbata da, Jaunari sagaraturiko atsedeen-eguna. Erre gaur erre beharrekoa eta egosi egosi beharrekoa, eta gorde biharko gelditzen zaizuen».

24 Moisesek agindu bezala, biharamunerako gorde zuten gelditu zitzaiena eta ez zitzairen usteldu, ezta harrik sortu ere. **25** Orduan, Moisesek esan zien: «Jan ezazue gaur, Jaunari sagaraturiko atsedeen-eguna da eta; gaur ez duzue kanpoan ezer aurkituko. **26** Sei egunez bilduko duzue; zazpigarren eguna atsedeen-eguna da eta ez da ezer izango».

27 Herritar zenbait, ordea, zazpigarren egunean ere biltzera atera zen, baina ez zuen ezer aurkitu. **28** Orduan, Jaunak esan zion Moisesi: «Noiz arte ibili behar duzue nire agindu eta legeak bete nahi ezta? **29** Begira: neuk, Jaun honek, eman dizuet larunbata, atsedeen hartzeko; horregatik, seigarren egunean bi egunerako janaria ematen dizuet. Beraz, zazpigarren egunean zaudete nor bere tokian, kanpora atera gabe».

30 Herriak, bada, atsedeen hartu zuen zazpigarren egunean.

31 Israeldarrek biltzen zutenari «Mana» eman zioten izen. Zuria zen, txarrangil-haziarren itxurakoa eta ezti-opilaren gustukoa.

32 Moisesek esan zien: «Hau agindu du Jaunak: Lau litroko neurria manaz bete eta gorde ondorengo belaunaldientzat, Egiptotik atera zaituztedanean basamortuan eman dizuedan janaria ikus dezaten».

33 Eta Aaroni esan zion: «Hartu ontzi bat, bete lau litro manaz eta ezarri Jaunaren aurrean, ondorengo belaunaldientzat gordez».

34 Jaunak Moisesi agindu bezala, Aaronek itun-agiriaren aurrean gorde zuen gerorako.

35 Berrogei urtez jan zuten mana israeldarrek, jendedun lurraldeetara, Kanaango lur-mugetara, iritsi arte alegia.

36 (Omer —mana neurtzeko erabilitako neurria— efa baten hamarrena zen).

Masa eta Meribakourak

17¹ Israeldarren elkarte osoa, Jaunaren agindura, Sin basamortutik abiatu zen, geldiuneak eginez. Refidimen ezarri zuten kanpalekua, baina ez zen han urik herriak edateko. **2** Orduan, aurpegi eman zioten Moisesi, esanez:

—Emaguzu ura edateko!

Moisesek erantzun zien:

—Zer dela eta ematen didazue aurpegi niri? Zergatik tentatzen duzue Jauna?

3 Baina egarri zen herria bazter hartan, eta marmarrean hasi zen Moisesen aurka, esanez:

—Honetarako atera al gaituzu Egiptotik, geu, gure seme-alabak eta abereak egarriak hilarazteko?

4 Moisesek deiadar egin zion Jaunari:

—Zer egin diezaioket herri honi? Ia-ia harrika egin didate!

5 Jaunak erantzun zion:

—Pasa herriaren aurrealdera, eta hartu zeurekin zenbait herri-arduradun. Hartu eskuan Nilo ibaia jotzeko erabili zenuen makila, eta zoaz. **6** Han izango nauzu ni, Horeb mendiko

harkaitzean. Harkaitza jo eta ura sortuko da, herriak edan dezan. Hala egin zuen Moisesek, Israelgo arduradunen aurrean. **7** Leku hari Masa eta Meriba —hau da, «Tentalekua» eta «Auzilekua»— eman zion izen, han berari aurpegi eman eta Jauna tentatu zutelako, esanez: «Jauna geurekin dugu, bai ala ez?».

Amalektarren aurkako gudua

8 Refidimen amalektarrek eraso zieten israeldarrei. **9** Orduan, Moisesek esan zion Josueri: «Aukeratu zenbait gizon eta atera amalektarren aurka borrokara. Bihar muinoaren gainean zutik egongo naiz ni, Jainkoaren makila eskuan».

10 Moisesek esan bezala egin zuen Josuek eta amalektarren aurka guduari ekin zion. Bitartean, Moises, Aaron eta Hur muinoaren gainera igo ziren. **11** Moisesek besoei goian eusten zienean, israeldarrak ziren garaile; behera erortzen zitzaizkionean, berriz, amalektarrak.

12 Moisesi besoak nekatu zitzaizkionean, harri bat hãrtu eta lurrean ipini zuten, bertan eser zedin. Gero, Aaronek eta Hurrek haren besoei eutsi zieten, alde banatatik. Honela, tinko iraun zuten Moisesen besoek, eguzkia sartu arte. **13** Eta Josuek amalektarrak garaitu zituen eta ezpataz garbitu.

14 Orduan, Jaunak esan zion Moisesi: «Idatzi hau liburuan oroigarri gisa, eta jakinarazi Josueri zeharo ezereztuko ditudala amalektarrak, ez dela munduan haien oroitzapenik ere geldituko».

15 Moisesek aldarea eraiki zuen eta «Jauna, nire bandera» ezarri zion izen, **16** esanez:

*«Jaunaren errege-aulkiari
eraso diotelako,
menderen mendetan borrokatuko da Jauna
amalektarren aurka».*

Jaunak ituna proposatu israeldarrei

19¹ Egiptotik atera eta hirugarren hila bete zen egunean iritsi ziren israeldarrak Sinai basamortura. **2** Refidindik abiaturik, Sinai basamortura heldu ziren, eta han ezarri zuten kanpalekua, mendiaren aurrez aurre.

3 Moises mendira igo zen Jainkoarengana.

Jaunak menditik dei egin eta esan zion: «Mintza zakizkie Jakoberen ondorengoei, israeldarrei, eta adierazi hau: **4** Ikusi duzue zer egin diedan egiptoarrei, eta nola, arranoak bere kumeak hegaletan bezala hartuz, niregana ekarri zaituztedan. **5** Beraz, nire esana betetzen baduzue eta nire ituna gordetzen, zuek izango zaituztet herri guztien artean neure jabego berezia, nirea baita lur osoa; **6** apaiz-erreinu izango zaituztet, niri sagaraturiko herri. Hau da israeldarrei esango diezuna».

7 Joan zen Moises eta, herri-arduradunei dei eginik, Jaunak agindu guztia adierazi zien. **8** Orduan, herriak aho batez erantzun zuten: «Jaunak agindu guztia beteko dugu».

Herriaren erantzuna Jaunari eramatera joan zen Moises. **9** Jaunak esan zion: «Hara, laino itxi batean aurkeztuko natzaizu, herriak zurekin mintzatzen entzun diezadan eta aurrerantzean zuregan ere sinets dezan».

Moisesek Jaunari jakinarazi zion herriaren erantzuna.

Jainkoa Sinai mendian agertu

10 Jaunak esan zion Moisesi: «Zoaz eta garbikuntza egin dezala herriak gaur eta bihar: garbi ditzatela arropak **11** eta egon daitezela prest etzirako, orduan jaitsiko bainaiz ni, Jaun hau, Sinai mendira, herri osoaren

aurrean. **12** Ezarri mugak mendi inguruan eta esaiozu herriari ez igotzeko mendira, ezta hurbildu ere maldara: mendira hurbiltzen denak heriotza-zigorra izango du. **13** Gizaki nahiz abere, ez da inor bizirik geldituko. Baina ez dio inork errudunari eskua erantsiko, baizik eta harriz edo geziz hilko dute. Turuta jotzean soilik igo ahal izango dira batzuk mendira».

14 Jaitsi zen Moises menditik, eta garbikuntza eginarazi eta arropa garbiarazi zien israeldarrei. **15** Eta esan zien: «Egon zaitezte gertu etzirako. Bitartean ez zaitezte hurbil zeuen emazteengana».

16 Hirugarren eguna argitzean, trumoiak eta tximista, laino itxia eta turuta-hots ozena izan ziren mendi gainean. Beldur-ikaraz gelditu zen herri osoa kanpalekuan.

17 Orduan, Moisesek herria kanpalekutik aterarazi zuen Jainkoarekin aurkitzeko, eta mendi barranean gelditu ziren. **18** Sinai mendi osoa ketan zegoen, su artean jaitsia baitzen Jauna. Labetik bezala igotzen zen kea eta mendi guztia zegoen dardara batean. **19** Gero eta ozenagoa zen turuta-hotsa: Moises mintzatu eta Jainkoak trumoi-hotsez erantzuten zion.

20 Jauna Sinai mendiaren gailurrera jaitsi eta bertara dei egin zion Moisesi. Igo zen Moises, **21** eta Jaunak esan zion:

—Jaitsi eta ohartarazi herriari, ez dadila ni ikusten ahalegindu, asko eta asko hilik eror ez daitezen. **22** Niregana hurbil daitezkeen apaizek beraiek ere egin dezatela garbikuntza, haien artean sarraskirik egin ez dezadan.

23 Moisesek esan zion Jaunari:

—Herria ez da ausartuko Sinai mendira igotzera, zuk zeuk ohartarazi baitiguzu eta agindu mendiari mugak ezartzeko eta sakratutzat hartzeko.

24 Baina Jaunak esan zion:

—Jaits zaitez eta igo berriro Aaronekin. Baina apaizak eta herria ez daitezela ahalegin niregana igotzen, haien artean sarraskirik egin ez dezadan.

25 Jaitsi zen Moises eta israeldarrei hitz egin zien.

Hamar aginduak

20 ¹ Jainkoak hitz hauek esan zituen: ² «Neu nauzu Jauna, zeure Jainkoa, Egiptotik, esklabotzatik, atera zintuena.

³ Ez izan ni beste jainkorik.

⁴ Ez egin idolorik, ez irudirik, goian zeruian, behean lurrian nahiz lurpeko uretan dagoenetik. ⁵ Ez ahozpeztu haien aurrean, ezta gurtzarik eman ere, ni, Jauna, zure Jainkoa, Jainko jeloskorra bainaiz: gorroto didaten gurasoen gaiztakeria ondorengoengan zigortzen dut hirugarren eta laugarren belaunaldiraino ere; ⁶ baina mila belaunaldiz agertzen diet onginahia maite nautenei eta nire aginduak betetzen dituztenei.

⁷ Ez erabili alferrik Jaunaren, zeure Jainkoaren, izena, ez baitut hori egingo denik zigorrik gabe utziko.

⁸ Gogoan izan larunbata, Jaunari sagartzeko. ⁹ Sei egunez egingo duzu lan eta zeure eginbehar guztiak burutuko; ¹⁰ baina zazpigarrena atsedeen-eguna duzu, Jaunari, zeure Jainkoari, sagaratua. Ez egin inolako lanik egun horretan, ez zuk, ez zure seme-alabek, ez zure morroi-mirabeek, ez zure abereek, ezta zure herrian bizi den etorkinak ere. ¹¹ Zeren sei egunetan egin baitzituen Jaunak zeru-lurrak, itsasoa eta berorietan bizi den guztia, eta zazpigarren egunean atsedean hartu baitzuen. Horregatik, larunbata bedeinkatu egin zuen Jaunak eta egun sakratutzat ezarri.

¹² Ohoratu aitamak, luzaro bizi zaitezten, Jaunak, zeure Jainkoak, ematen dizun lurraldean.

¹³ Ez hil inor.

¹⁴ Ez egin adulteriorik.

¹⁵ Ez ostu.

¹⁶ Ez egin gezurrezko testigantzarik lagun hurkoaren aurka.

17 Ez gutziatu lagun hurkoarenik ezer: ez haren emazterik, ez morroi-miraberik, ez idirik, ez astorik, eta ez beste ezertxo ere».

Israeldarrak

Jainkoaren beldur

18 Herri osoak sumatzen zituen trumoi eta tximistak, turuta-hotsak eta mendia ketan,

eta, beldurrez dardar, urrutian zeuden geldi.

19 Esan zioten, bada, Moisesi:

—Hitz egizu zuk eta adituko dizugu; baina ez diezagula Jainkoak hitz egin, hil ez gaitzen.

20 Moisesek erantzun zien:

—Ez izan beldur! Jauna zuek probatzera etorri da, berari begirune izanik, bekatu egin ez dezazuen.

21 Herria urruti gelditu zen, eta Moises Jainkoa zegoen laino beltzera hurbildu zen.

Josue



Josue liburuak Kanaan lurraldea nola konkistatu eta leinuen artean nola banatu zuten kontazen du. Liburuaren sorrera eta eraketa historia luzearen emaitza da. Liburuak dakarrenaren arabera, israeldar hamabi leinuak, gorputz bat osatuz eta Josue buruzagi bakarraren gidaritzapean, lurraldean sartu eta hartaz jabetzen dira.

86

Josuek ikerlariak bidali Jerikora

2 ¹ Josuek, Nunen semeak, bi gizon bidali zituen Xitimgo kanpalekutik lurraldea isilean ikertzera, esanez: «Zoazte Jeriko hiria eta inguruak ikertzera».

Haiek joan eta Rahab izeneko emagalduren etxera sartu ziren eta bertan gelditu lotarako.

² Jakinarazi zioten Jerikoko erregeari israeldar batzuk sartu zirela hirian gau hartan eta lurraldea ikertzera zetozela. ³ Orduan, mandatu hau bidali zion erregeak Rahabi:

—Irtendarazi etxean sartu zaizkizun gizon horiek, gure lurraldea ikertzera etorri baitira.

⁴ Emakumeak, ordea, gorde egin zituen gizonak, eta erantzun zien guardei:

—Bai, etorri zaizkit gizon horiek etxera, baina nik ez nekien nongoak ziren. ⁵ Arratsan, hiriko atea itxi baino lehen, alde egin

dute eta ez dakit nora joan diren. Haien ondoren berehala joaten bazarete, harrapatuko dituzue.

⁶ Emakumeak, ordurako, etxe gainera eramank eta bertan metaturik zituen liho-sorta artean ezkatatuak zituen gizonak. ⁷ Guardak Jordanerako bidera, igarolekuetara, joan ziren haien bila. Hiritik atera zirenean, itxi egin zuten atea.

Ikerlariak Rahabekin hitzarmena egin

⁸ Israeldar haiek artean lotarako etzan gabe zeudela, Rahabek etxe gainera igo ⁹ eta esan zien:

—Badakit Jaunak lurralde hau eman dizuela. Hemen, hirian, izaturik gaude eta herrialdeko jende guztia ere ikaraz dago zuen aurrean, ¹⁰ jakin baitugu Jaunak

lehortu egin zituela Itsaso Gorriko urak, zuek Egiptotik irteteen. Jakin dugu, orobat, nola suntsitu dituzuen Jordanez bestaldean amortarren bi erregeak, Sihon eta Og. **11** Hori guztia jakitean, adoregabeturik, arnasa ere galduta gelditu gara zuen aurrean. Izan ere, Jauna, zuen Jainkoa, Jainko da goian zeruan eta behean lurrean. **12** Nik leial jokatu dut zuekin. Zin egidazue Jaunarengatik, zuek ere leial jokatuko duzuela nire senitartearekin. Emaidazue ezaugarri segurua, **13** eta hitz emaidazue bizirik utziko dituzuela gure aitamak, gure nebak eta ahizpak eta ahaide guztiak, eta ez gaituzuela hilko.

14 Gizonek erantzun zioten:

—Geure bizia zuenaren ordain, baldin eta salatzen ez bagaituzu. Jaunak lurralde hau emango digunean, zintzo eta leial jokatuko dugu zurekin.

15 Orduan, emakumeak soka batez leihotik behera eraitsi zituen, haren etxea harresiko hormari atxikia baitzegoen. **16** Eta esan zien:

—Zoazte mendira, zuen bila dabilzanek harrapa ez zaitzaten. Egon bertan hiru egun ezkutaturik, zuen pertsegizailleak hirira itzuli arte. Gero, jarraitu zeuen bideari.

17 Gizonek erantzun zioten:

—Guk eutsiko diogu eginarazi diguzun zinari, zuk honako baldintza hauek betetzen badituzu: **18** gu herrialde honetan sartzean, lotu hari gorrizko lokarri hau gu eraitsi gaituzuneko leihoan, eta bildu zeurekin etxean zeure gurasoak, senideak eta ahaide guztiak. **19** Zuetariko norbait etxetik atera eta hiltzen badute, berarena izango da errua eta gu errugabe izanen gara. Baina, etxean egonik, norbaitek zuetakoren bat hiltzen badu, gurea izango da errua. **20** Baina salatzen bagaituzu, aske geldituko gara eginarazi diguzun zinetik.

21 Emakumeak erantzun zien:

—Ongi. Hala bedi!

Eta agur egin zien. Alde egin zutenean, emakumeak lokarri gorria lotu zuen leihoan.

Jherlariak itzuli

22 Bi gizonak mendira joan eta bertan gelditu ziren hiru egunez, pertsegizailleak, alde guztietan bila ibili ondoren aurkitu ez zituztelarik, hirira itzuli ziren arte.

23 Orduan, bi gizonek menditik jaitsi eta ibaia igaro zuten. Eta, Nunen seme Josue-rengana itzulirik, gertatu zitzairen guztiaren berri eman zioten, **24** esanez: «Benetan, gure eskuetan jarri du Jaunak lurralde osoa. Herrialde horretako jende guztia ikaraz dago gure aurrean».

Jordan ibaia igarotzeko prestaketak

3 **1** Josue goizean goiz jaiki zen. Berak eta israeldar guztiek, Xitimdik abiatu eta Jordan ibairaino heldurik, bertan eman zuten gaua, ibaia igaro gabe. **2** Handik hiru egunera, funtzionarioak kanpalekuan zehar ibili ziren, **3** herriari agindu hau emanez: «Apaiz lebitarrek Jaunaren, zuen Jainkoaren, itun-kutxa hartu eta badaramatela ikustean, abiatu zuek ere orain zaudeten tokitik eta jarraitu kutxari, **4** nondik joan jakin dezazuen, lehen inoiz ere bide horretan ibili gabeak baitzarete; baina ez hurbildu kutxaren ondora, utzi kilometro inguruko tartea zuen eta beraren artean».

5 Ondoren, Josuek esan zion herriari: «Egizue garbikuntza, Jaunak bihar gaua harrigarriak egingo baititu zuen artean».

6 Eta apaizei esan zien: «Hartu itun-kutxa eta jar zaitezte herriaren aurrean». Apaizak itun-kutxa hartu eta herriaren aurretik abiatu ziren. **7** Jaunak, orduan, esan zion Josue-ri: «Gaurtik aurrera goratu egingen zaitut israeldar guztien aurrean; horrela jakingo dute ni zurekin naizela, Moisesekin izan nintzen bezala. **8** Eman agindu hau itun-kutxa

daramaten apaizei: Jordan ibai-ertzeraz hel-
tzean, gelditu bertan».

9 Josuek esan zien israeldarrei: «Hurbil
zaitezte eta entzun Jaunaren, zeuen Jain-
koaren, hitzak». **10** Eta gehitu zuen: «Horra
zertan igarriko diozuen Jainko bizia duzuela
zeuen artean, eta kanaandarrak, hititak,
hibiarrak, periztarrak, girgaxtarrak, amorta-
rrak eta jebustarrak zuen aurretik erabat
botako dituela: **11** lur osoko Jaunaren itun-
-kutxa zuen aurretik igaroko da Jordan ibaian
zehar. **12** (Aukera itzazue hamabi gizon,
Israelgo leinu bakoitzeko bat). **13** Jaunaren,
lur osoko Jainkoaren, itun-kutxa daramaten
apaizen oinek Jordan ibaiko urak ukitu
bezain laster, ur-korrontea eten eta urak gel-
ditu egingo dira, harresia bailiran».

Ibaian barna igaro

14 Herria ibaia igarotzeko kanpalekutik
abiatu zenean, apaizak itun-kutxa hartu eta
jendearen aurrean jarri ziren. **15** Uzta-aroa
zen, eta urte-saso horretan Jordan ibaia gai-
nezka etorri ohi da. Kutxa zeramaten apaiz-
ak Jordanera heldu eta haien oinek ur-ertza
ukitu bezain laster, **16** goitik zetozen urak
gelditu egin ziren, harresia bezala tente
jarriz, eta urak urrutira, Tzartan ondoan
dagoen Adam hiriraino, heldu ziren; Araba
itsaso edo Itsaso Hileraz zihuan ur-korrontea,
berriaz, erabat eten zen. Eta herria igaro egin
zen Jeriko parean. **17** Israel herri osoa lehor-
-bidetik igaro bitartean, Jaunaren itun-kutxa
zeramaten apaizak lehorrean egon ziren
ibaia erdian, denak igaro arte.

Josuek Jeriko hartu

6.**1** Jeriko hiria zeharo itxia zegoen isra-
eldarren beldurrez. Ez zen inor sartzen,

ez ateratzen. **2** Jaunak esan zion Josueri:
«Begira, eskura ematen dizkizut Jeriko eta
bertako erregea eta gudariak. **3** Zuek hiria
inguratuko duzue: sei egunez, egunero
itzuli bat egingen duzue guda-gizon guztiok
hiriaren inguruan. **4** Zazpi apaiz
aurretik joango dira, ahari-adar bana hartu-
rik. Zazpigarren egunean, zazpi aldiz egin-
go duzue itzulia hiriaren inguruan eta apaiz-
zek adarrak joko dituzte. **5** Adar-hots luzea
entzun bezain laster, herri osoak irrintzi
handia egingo du eta hiriko harresia behera
etorriko da. Orduan, eraso diezaiola jende
guztiak, nor bere aurrean izango duen tar-
tetik».

6 Nunen seme Josuek apaizei dei egin eta
esan zien: «Hartzazue itun-kutxa eta zueta-
riko zazpik eramanez dezatela adar bana
Jaunaren kutxa aurretik». **7** Gero, herri oso-
ari esan zion: «Zoazte eta inguratu hiria;
gizon armatuak doazela Jaunaren kutxa
aurretik».

8 Josuek agindua egin zuen jendeak:
zazpi adarrak zeramatzen zazpi apaizak
Jaunaren aurrean jarri eta jotzen hasi ziren.
Ondoren, Jaunaren itun-kutxa zetorren.
9 Adarrak jotzen zituzten apaizen aurrean
gizon armatuak jarri ziren eta kutxaren
atzean gainerako gudariak. Adar-hotsera
zihoazen denak aurrera.

10 Josuek agindu hau emana zion herria-
ri: «Ez egin irrintzirik, ez dadila hizketa-
-hotsik entzun; ez egin hitzik ere, nik irrin-
tzi egiteko esan arte. Orduan egingo
duzue». **11** Kutxak itzuli bat egin zuen
hiriaren inguruan eta, ondoren, kanpaleku-
ra itzuli ziren gaua igarotzeko. **12** Bihara-
munean, goizean goiz jaiki zen Josue.
Apaizek kutxa hartu zuten, **13** eta zazpi
adarrak zeramatzen zazpi apaizak Jau-
naren kutxa aurrean zihozten adarrak joz.
Denen aurrean gizon armatuak zihozten
eta kutxaren atzean gainerako gudariak.
Adar-hotsera zihozten denak aurrera. **14** Bi-
garren egunean ere, hiriaren inguruan itzuli

bat egin eta kanpalekura joan ziren. Halaxe egin zuten sei egunez.

15 Zazpigarren egunean, egunsentian jaiki eta itzulia egin zuten hiriaren inguruan, aurreko egunetakoaren arabera, baina egun hartan zazpi itzuli egin zizkioten hiriari. **16** Zazpigarrenean, apaizek adarra jotzean, Josuek esan zion herriari: «Egin orain irrintzi, Jaunak zuen mende jarri baitu hiria! **17** Hiria eta bertan den guztia erabat suntsitu behar da Jaunaren ohorez. Rahab emagaldua eta beronen etxean direnak bakarrik geldituko dira bizirik, guk bidalitako mandatariak gorde zituelako. **18** Baina kontu! Erabat suntsitu behar da guztia. Zeuentzat zerbait hartuko bazenute, suntsipena eta ezbeharra ekarriko zenukete israeldarren kanpalekura. **19** Urrezilar guztia eta brontzezko eta burdinazko ontzi guztiak Jaunarentzat dira eta beronen altxortegira sartuko ditugu».

20 Jo zituzten apaizek adarrak. Adar-hotsa entzutean, herriak izugarritzko irrintzia egin zuen, eta harresiak behea jo zuen. Orduan, gudariak eraso egin zioten hiriari, nork bere aurrean zuen tartetik, eta hartu. **21** Hirian ziren guztiak hil zituzten ezpataz, gizon eta emakume, gazte eta zahar, idi, ardi eta asto.

Josuek Rahab salbatu

22 Lurralde ikertu zuten bi gizonei esan zien Josuek: «Zoazte emagalduren etxera eta atera bera eta beraren ahaideak, zin egin zenioten bezala».

23 Joan ziren ikertzen ibilitako bi gazteak, eta Rahab, beronen aitamak, neba-ahizpak eta ahaide guztiak etxetik atera eta israeldarren kanpalekutik kanpora utzi zituzten.

24 Jeriko hiriari eta bertako guztiari su eman zioten; zilar-urreak eta brontzezko eta burdinazko ontziak, berriz, Jaunaren etxeko altxortegira eramane zituzten. **25** Josuek bizirik utzi zituen Rahab emagaldua eta beronen senitarteko eta ahaide guztiak. Israeldarren artean bizi izan zen Rahab, eta haren ondorengoak ere hala bizi dira gaurdaino, Jeriko ikertzera Josuek bidaliak gorde zituelako.

26 Aldi hartan, zin hau egin zuen Josuek: «Madarika beza Jaunak Jeriko hiri hau berre-raiki nahi izango duena! Oinarriak botatzea bere seme zaharrenaren biziaz ordainduko du eta ateak ipintzea gazteenarenaz».

27 Jauna Josuerekin izan zen eta haren entzutea herrialde osoan zabaldu zen.

Epaileak



I. Zeko gainerako liburuak bezala, Epaileak liburua ere ez da idazle bakarrak idatzia, ezta aldi bakarrean idatzia ere. Historia deuteronomistaren eraginpean idatzia den liburu honi hebraieraz «Xofetim» deritza, hots, «Epaileak» edo «buruzagiak». Hamabi pertsonaia dira liburu honetan protagonista: sei epaile edo buruzagi handi (Otniel, Ehud, Debora eta Barak, Gedeon, Jefte eta Sanson) eta sei epaile txiki (Xamgar, Tola, Jair, Ibtzan, Elon eta Abdon).

90

Madianek Israel menderatu

6 ¹ Jaunari atsegin ez zaiona egin zuten israeldarrek, eta hark madiandarren mende eduki zituen zazpi urtez. ² Madiandarren agintea gogorra izan zen israeldarrentzat. Haiengandik babesteko, mendietako haitzarte, leize eta toki hurbilgaitzetan gorde ziren. ³ Israeldarrek ereiten zutenean, madiandarrek nahiz amalektarrek nahiz ekialdeko basamortuko jendeak eraso egin ohi zieten; ⁴ israeldarrendik hurbil kanpatu eta uztak hondatu ohi zituzten Gazako sarrerraraino, israeldarrak deus gabe utziz, janaririk, ardirik, behirik eta astorik gabe. ⁵ Beren abere, oihaletxola eta guzti etorri, lurralde hartan sartu eta dena hondatu ohi zuten madiandarrek. Larrapoteak bezain ugari ziren, eta beraien gameluak zenbatuezin beste. ⁶ Horrela, madiandarrengatik, erabat pobretu ziren israeldarrak; orduan, dei egin zioten Jaunari.

⁷ Madiandarrak zirela-eta, israeldarrek Jaunari oihu egin ziotenean, ⁸ profeta bat bidali zien Jaunak, esatera: «Hau dio Jaunak, Israelen Jainkoak: Nik ekarri zaituztet Egiptotik eta nik atera esklabotzatik. ⁹ Nik askatu zaituztet egiptoarren eta gainerako zapaltzaile guztien mendetik; bota egin ditut etsaiak zuen aurretik eta berauen lurraldea eman dizuet. ¹⁰ Esan nizuen neu ninduzuela Jauna, zeuen Jainkoa, eta ez izateko amorraren jainkoen beldurrik, beraien lurraldean bizi zareten arren. Baina ez duzue aditu nire esana».

Jaunak Gedeon aukeratu Israel askatzeko

¹¹ Aldi hartan, Jaunaren aingerua Ofra herrixkara etorri eta arteondo baten azpian jarri zen. Arteondo hura Abiezerren senitar-teko Joaxena zen. Honen seme Gedeon garia

dolarean jotzen ari zen, madiandarrek ikus ez zezaten. **12** Orduan, Jaunaren aingerua agertu eta esan zion:

—Jauna zurekin, gizon ausart hori!

13 Gedeonek erantzun:

—Barkatu, ene jauna, baina Jauna gurekin baldin bada, zergatik ari zaigu gertatzen hau guztia? Zertan dira gurasoek kontatzen zizkiguten gertaera harrigarri haiek, Jaunak Egiptotik ekarri gintuela esaten zigutenean? Orain, izan ere, eskutik utzi gaitu Jaunak eta madiandarren mende jarri.

14 Jaunak esan zion:

—Zoaz eta salba ezazu Israel zeure indarraz madiandarren mendetik. Nik bidaltzen zaitut!

15 Gedeonek, ordea, ihardetsi zion:

—Barkatu, Jauna; nola salbatuko dut Israel? Nire senitartea Manasesen leinuko ahulena da eta ni gazteena gure aitaren etxean. **16** Jaunak esan zion:

—Zeurekin izango nauzu; horrela, madiandar guztiak batera hondatuko dituzu.

17 Gedeonek berriro:

—Egiaz begiko baldin banauzu, ageriezadazu, zantzu baten bidez, zeu zarela hizketan ari zaidana. **18** Otoi, ez joan hemen-dik nik eskaintza zure aurrera ekarri arte. Berehala itzuliko naiz.

Jaunak erantzun zion:

—Hementxe egongo naiz zu etorri arte.

19 Joan zen Gedeon eta antxume bat prestatu zuen eta, hogeit hamar kilo-edo irinez, legamigabeko ogiak egin. Gero, okela otarrean eta salda eltzean harturik, arteondo azpira eramanean eta Jaunari eskaini zion dena.

20 Jaunaren aingeruak esan zion:

—Hartu okela eta legamigabeko ogiak eta ezarri haitz horren gainean, eta isuri salda.

Halaxe egin zuen Gedeonek. **21** Orduan, Jaunaren aingeruak, eskuan zuen makila luzatuz, muturraz okela eta legamigabeko ogiak ukitu zituenean, sugarra atera zen haitzetik, okela eta legamigabeko ogiak kiskaliz. Gero, desagertu egin zen Jaunaren aingerua Gedeonen aurretik.

22 Jaunaren aingerua izan zela ohartzean, Gedeonek esan zuen:

—Ai, ene Jainko Jauna! Jaunaren aingerua ikusi dut aurrez aurre!

23 Jaunak esan zion:

—Bakea zurekin! Ez izan beldurrik, ez zara hilko.

24 Gedeonek aldarea eraiki zuen bertan Jaunaren omenez, eta «Jauna bakea» izena eman zion. Han dago gaur ere oraindik, Ofran, Abiezerren senitartekoen hirixkan.

Gedeon eta Baalen aldarea

25 Gau hartan bertan, Jaunak esan zion Gedeoni:

—Hartzazu aitaren idixkoa, zazpi urtekoa. Eraitsi gero aitak zaintzen duen Baalen aldarea eta puskatu haren ondoan dagoen zutoin sakratua. **26** Ondoren, eraiki arreta handiz aldarea Jaunari, zeure Jainkoari, babesleku honen gailurrean eta, zezena harturik, eskaini ezazu erre-oparizat, puskatuko duzun zutoin sakratuaren egurren gainean.

27 Gedeonek, beraz, bere morroien arte-tik hamar gizon harturik, Jaunak agindu bezala egin zuen; alabaina, bere senitartekoen eta hiriko jendearen beldur baitzen, egunez egin beharrean, gauetz egin zuen.

28 Biharamun goizean jaikitzean, hiriko jendeak Baalen aldarea norbaitek hautsi eta haren ondoko zutoin sakratua puskatu zuela ikusi zuen, eta idixkoa erre-oparizat eskaini zuela aldare berrian. **29** Eta elkarri galde-tu zioten: «Nork egin ote du hori?» Ikertu eta aztertu ondoren, Joaxen seme Gedeonek egin zuela jakin zuten. **30** Orduan, hiriko jendeak esan zion Joaxi:

—Atera ezazu semea! Hil egin behar dugu, Baalen aldarea hautsi eta haren ondoran zegoen zutoin sakratua puskatu duelako.

31 Joaxek, ordea, erantzun zien inguruan zituenei:

—Nor eta zuek Baal jainkoa defendatzen? Zuek bera salbatzen? Norbaitek defendatzen badu, halakoa bihar goizerako hila izanen da. Baal jainko baldin bada, defenda beza bere burua, berea baitzuen hautsitako aldarea.

32 Egun hartan Gedeoni Jerubaal goitizena eman zioten, esanez: «Defenda bedi Baal, beraren aldarea hautsi duenaren kontra!».

Gedeonek Jainkoari seinalea eskatu

33 Madiandarrek, amalektarrek eta ekialdeko basamortuko jendeak, denek elkar harturik, Jordan ibaia igaro eta Izreel lautadan ezarri zuten kanpalekua.

34 Jaunaren espirituz jantzirik, Gedeonek adarra jo eta bere ondoan bildu zituen Abiezerren senitartekoak. 35 Eta Manasesen lurralde osora mezulariak bidalirik, bere ondoan bildu zuen hango jendea ere. Gero Axer, Zabulon eta Neftaliren leinuetakoen-gana ere bidali zituen mezulariak, eta leinu haietakoak ere bildu zituen.

36 Orduan, Gedeonek esan zion Jaunari: «Israel salbatzeko nitaz baliatuko omen zara. 37 Hara, ardi-larru bat zabalduko dut larrainean; ihintza ardi-larru gainean bakarrik egin eta inguruko lurra lehor gelditzen bada, jakingo dut nitaz baliatuko zarela Israel salbatzeko».

38 Halaxe izan zen. Biharamun goizean jaiki, ardi-larrua hartu eta, ihintza ateratzeko bihurritu zuenean, antosin bat bete zuen urez. 39 Gero, esan zion berriro Gedeonek Jainkoari: «Ez zakizkit haserretu, berriro ere ardi-larruarekin beste proba bat egin ahal izatea eskatzen badizut: geldi dadila lehor

ardi-larrua eta egin beza ihintza inguruko lur gainean».

40 Gau hartan horixe egin zuen Jainkoak: ardi-larrua bakarrik gelditu zen lehor eta inguruko lur osoan ihintza egin zuen.

Hirurehun gizon garaipenerako

7¹ Jerubaalek —hots, Gedeonek— eta harekin zen jende guztiak, goizean goiz jaiki eta Harod iturri ondoan jarri zituzten oihal-etxolak. Madiandarrek iparraldera zuten kanpalekua, lautadan, More mendixkaren oinetan.

2 Jaunak esan zion Gedeoni: «Gudaroste handiegia dakarzu, madiandarrak zuri eskura nik emateko. Harrotu egingo litzaidake Israel, garaipena bere eskuz lortu duela pentsatuz. 3 Esaiozu jendeari: “Beldur-ikaraz dagoenak alde egin beza Galaad menditik eta itzul bedi etxera”».

Hogeita bi mila gizon etxera itzuli eta hamar mila gelditu ziren.

4 Jaunak, ordea, esan zion Gedeoni: «Oraindik ere gehiegi dira. Jaitsarazi gizonak erre kara eta han probatuko ditut. Neuk esanen dizut zeintzuk jarraituko duten zurekin eta zeintzuk alde egin beharko duten».

5 Gedeonek jendea erre kara jaitsarazi zuenean, Jaunak esan zion: «Bereiz itzazu ura eskuan hartu eta zakurrek bezala miazkatuz edango dutenak, edateko belauniko jarriko direnengandik».

6 Hirurehun gizonek eraman zuten ura ahora eskuetan harturik; beste guztiak belaunikatu egin ziren ura edateko. 7 Jaunak esan zion Gedeoni: «Ura eskutik edan duten hirurehun gizon horien bidez salbatuko zaituztet, madiandarrak eskura eman ez. Gainerako jendea doala nor bere etxera».

8 Gedeonek Israelgo gizon gehienak bidali zituen nor bere etxera, hirurehun haiekin bakarrik geldituz; hauek beren lagunen jakiak eta adarrak hartu zituzten. Madiandarren kanpalekua israeldarrena baino beherago zegoen, lautadan.

Seinale batek garaipena iragarri

9 Gau hartan Jaunak esan zion Gedeoni: «Jaiki eta jaits zaitez etsaien kanpalekura; eskura emanen dizkizut. **10** Joateko beldur bazara, hartu Pura zeure morroia eta joan biok kanpalekura. **11** Entzun han esaten ari direna, eta kemena hartuko duzu etsaiei erasotzeko».

Jaitsi zen, beraz, Gedeon Pura bere morroiarekin kanpalekuko lehen gudari-taldeak zeuden ingurura. **12** Madiandarrak, amalektarrak eta basamortuko jendea, larra-poteak bezain ugari, lurtean etzanak zeuden; haien gameluak ere zenbatuezin hainbat ziren, itsasertzeko hondarra bezain ugari. **13** Gedeon etsaien kanpalekura hurbildu zenean, gudari bat bere ametsa konatzen ari zitzaion lagunari:

—Amets egin dut, garagar-ogi bat biribilka zihoala madiandarren kanpalekuan barrena; oihal-etxola batera heltzean, jo eta irauli egin du, eta oihal-etxola azpikoz gora erori da.

14 Lagunak erantzun zion:

—Joaxen seme Gedeon israeldarren ezpata da hori. Madiandarrok eta gure kanpaleku osoa horren esku utzi ditu Jainkoak.

15 Ametsa eta esanahia entzun zituenean, Gedeonek, makurtuz, Jainkoa gurtu zuen. Gero, israeldarren kanpalekura itzuli zen oihuka:

—Jaiki! Gure esku utzi du Jaunak madiandarren kanpalekua!

Gedeonen amarrua edo engainabidea

16 Gedeonek hiru taldetan banatu zituen hirurehun gizonak eta, adarrak eta barruan lastargiak zeuzkaten pegar hutsak emanik, **17** esan zien:

—Ni kanpaleku-ertzera heltzean, begira niri eta egin nik egingo dudana. **18** Nik eta nire taldeak adarrak jotzean, jo zuek ere kanpalekuaren inguru guztian eta egin oihu: «Jaunarengatik! Gedeonengatik!».

19 Gauerdian inguruan, zaintzaileak aldatu berri zirelarik, heldu zen Gedeon bere ehun gizonekin kanpaleku ondora, eta adarrak jotzen eta eskuetan zeramatzaten pegarrak hausten hasi ziren. **20** Orduan, hiru gudari-taldeek ere adarrak jo eta pegarrak hautsi zituzten. Gero, lastargia ezkerrean eta adarra eskuinean zeramatzatela, oihu egin zuten: «Eraso! Jaunarengatik eta Gedeonengatik!».

21 Israeldarrak kanpaleku inguruan nor bere tokian zeudelarik, kanpalekukoak lasterka, garrasika eta iheska hasi ziren. **22** Hirurehun haiek adarrak jotzen ari ziren bitartean, elkarren kontra borrokarazi zituen Jaunak madiandarrak. Orduan, kanpalekuko guztiek ihes egin zuten Bet-Xitara, Tzereda aldera, eta Abel-Mehola erreka bazterrera, Tabat ondora.

Sansonen sortzea

13 **1** Jaunari atsegina ez zaiona egin zuten berriro israeldarrek, eta Jaunak filistearren mende utzi zituen berrogei urtez.

2 Bazen Tzoran Manoah izeneko gizon bat, Danen leinukoa. Haren emazteak ez zuen haurrik izan, agorra baitzen. **3** Behinola, emakume hari Jaunaren aingerua agertu eta

esan zion: «Agorra zara eta ez duzu haurrik izan; hala ere, sabelean sortu eta semea izanen duzu. **4** Baina ez edan ardorik, ez beste edari mozkorgarrik, eta ez jan ezer kutsaturik, **5** zeren eta sabelean sortu eta semea izanen baituzu. Ez diote ilerik moztu behar, amaren sabeletik “nazireu” izan behar baitu, hau da, Jaunarentzat sagaratua. Hura hasiko da israeldarrak filistearren mendetik askatzen».

6 Emakumeak senarrarengana joan eta esan zion: «Jainkoaren gizon bat etorri zait; Jainkoaren aingeru-itxura zuen, zinez izugarria. Ez diot galdetu nongoa den, berak ere ez dit bere izenik esan. **7** Baina esan dit: “Sabelean sortu eta semea izanen duzu. Ez edan ardorik, ez beste edari mozkorgarrik, eta ez jan ezer kutsaturik; amaren sabelean sortu eta hil arte, “nazireu” izan behar baitu haurrak, hau da, Jaunarentzat sagaratua».

8 Orduan, Manoahek otoitz hau egin zion Jaunari: «Otoi, ene Jauna, betorkigu berriro lehen bidali duzun Jainkoaren gizona eta esan diezagula zer egin behar dugun jaioko den haurrarekin».

9 Entzün zuen Jaunak Manoahen oihua eta etorri zen berriro Jainkoaren aingerua emakumearengana. Zelaian eseria zegoen emakumea, baina haren senar Manoah ez zen harekin. **10** Orduan, emakumeak lasterka joan eta esan zion senarrari: «Lehengoa etorri zitzaidan gizona agertu zait berriro». **11** Emaztearen ondoren joan zen Manoah. Gizonarenganaino heltzean, esan zion Manoahek:

—Zu al zara nire emazteari mintzatu ziztaiona?

Gizonak erantzun zuen:

—Neu naiz.

12 Orduan, Manoahek:

—Zuk hitz emana betetzean, zein arau eta zein jokabide hartu beharko du haurrak?

13 Jaunaren aingeruak Manoahi:

—Zure emazteak bete dezala esan nion guztia. **14** Ez dezala hartu mahatsez eginiko ezer, ez edan ardorik, ez edari mozkorgarrik, eta ez dezala jan ezer kutsaturik. Bete dezala agindu nion guztia.

15 Orduan, Manoahek Jaunaren aingeruari:

—Geldi zaitetz gurekin; antxume bat prestatuko dizugu.

16 Jaunaren aingeruak erantzun zion:

—Geldiaraziko baninduzu ere, ez nuke zuk emandakorik jango; erre-oparia egin nahi baduzu, eskaini Jaunari.

Manoahek, Jaunaren aingerua zela ohartu gabe, **17** galdetu zion:

—Nola duzu izena, zuk hitz emana betetzean, ohora zaitzagun?

18 Eta Jaunaren aingeruak:

—Zertarako jakin nahi duzu nire izena? Misteriotsua da.

19 Manoahek, antxumea eta labore-eskaintza harturik, erre-oparia eskaini zion haitz baten gainean bere egintzetan misteriotsua den Jaunari. Manoah eta emaztea begira gelditu ziren. **20** Aldaretik sugarra zerurantz igotzean, Jaunaren aingerua ere igo egin zen aldarekougarrekin batera. Hori ikustean, Manoah eta emaztea ahuspeztu egin ziren lurreraino. **21** Aurrerantzean ez zitzaien agertu Jaunaren aingerua Manoahi eta emazteari. Orduan, Manoahek, Jaunaren aingerua izan zela oharturik, **22** esan zion emazteari:

—Seguru hilko garela, Jainkoa ikusi baitugu.

23 Emazteak, ordea, esan zion:

—Hil nahi izan bagintu, ez zigukeen onartuko egin dizkiogun erre-oparia eta labore-eskaintza, eta ez zigukeen ikus eta entzunaraziko horrelako gauzarik.

24 Emazteak haurra izan eta Sanson izena eman zion. Hazi zen haurra eta bedeinkatu zuen Jaunak. **25** Tzora eta Extaol hirien arteko Danen kanpalekuan zegoen batean, Jaunaren espiritua Sansoni eragiten hasi zen.

Sansonen ezteiak

14 ¹ Behinola, Timnara jaitsi eta begiz jo zuen Sansonek emakume filistear bat. ² Etxera itzuli zenean, berria eman zien aitamei, esanez:

—Emakume filistear bat jo dut begiz Timnan. Hariezadazue emaztetarako.

3 Gurasoek galdetu zioten:

—Ez al da gure ahaideen artean eta gure herrian emakumerik, filistear jentil arrotz horiengana emazte bila joan gabe?

Sansonek ihardetsi zion aitari:

—Huraxe dut, baina, atsegin. Hartzazu niretzat.

4 Gurasoek ez zekiten Jaunaren gauza zenik. Aldi hartan filistearrek menderatua zuten Israel eta Jauna egokiera bila zebilen filistearrak zigortzeko.

5 Horrela, bada, Sanson Timnara abiatu zen bere aitamekin. Timnako mahastietara heldu zirelarik, lehoi gazte bat atera zitzaion Sansoni orroaka. **6** Jaunaren espirituak harturik, Sansonek, eskuetan deus ere ez zuen arren, zatikatu egin zuen lehoia, antxumea zatikatu ohi den bezala. Baina ez zien esan gurasoei zer egin zuen. **7** Ondoren, neskarekin mintzatzena joan zen eta oso atsegin gertatu zitzaion.

8 Egun batzuen buruan, emaztea hartzeko Timnara itzultzean, bidea utzi eta lehoiaren gorpua ikustera joan zen. Eta hara non ikusten duen erle-multzo bat lehoiaren hezur tartean, bere ezti eta guzti. **9** Eztia eskuan hartu eta bidean janez joan zen aita-menengana; eman zien eztia eta jan zuten haiek ere. Baina ez zien esan ezti hura lehoiaren hezur artetik hartua zuenik.

10 Sansonen aita neskaren etxera joan zen, eta Sansonek eztei-otordua eman zuen, gazteek ohi dutenez. **11** Filistearrek, Sanson ikustean, hogeita hamar gazte bidali zizkio ten lagun egitera. **12** Sansonek esan zien:

—Igarkizun bat esan behar dizuet. Eztei-otorduko zazpi egunen barruan asmatu eta

aditzera ematen badidazue, soineko eta soingaineko bana emango dizkizuet. **13** Bestela, zuek eman beharko dizkidazue hogeita hamar soineko eta beste horrenbeste soingaineko.

Haiek erantzun zioten:

—Esan igarkizuna, entzungo dizugu.

14 Sansonek, orduan:

«*Jaten duenarengandik jatekoa, indartsuarengandik gozoa*».

Hiru egun igaro eta asmaezinik zebiltzan.

15 Laugarren egunean, esan zioten Sansonen emazteari:

—Atera iezaiozu azpikeriaz senarrari igarkizunak zer esan nahi duen; bestela, su emango dizugu, bai eta zuen aitaren etxeari ere. Guri lapurtzeko asmoz gonbidatu al gaituzue?

16 Emaztea negarrez hasi zitzaion Sansoni, esanez:

—Ez nauzu batere maite! Gorrotoa didazu! Nire herritarrei igarkizuna ipini eta niri ez didazu adierazi zer esan nahi duen. Sansonek ihardetsi zion:

—Ez diet adierazi neure gurasoei ere eta zuri adieraziko dizut!

17 Eztei-otorduko zazpi egunetan emaztea negarrez ari izan zitzaion. Azkenean, nazkatu zuen eta Sansonek aditzera eman behar izan zion. Emazteak berehala bere herritarrei jakinarazi zien. **18** Eta hiriko jendeak, zazpigarren egun hartan, ilunabarra baino lehen, esan zion Sansoni:

«*Zer eztia baino gozoagorik?*

Zer lehoia baino indartsuagorik?».

Sansonek erantzun zien:

«*Nire bigantxarekin goldatu ez bazenute, ez zenuketen inoiz ere asmatuko*».

19 Orduan, Jaunaren spirituak eraginik, Axkelon hirira joan, hogeita hamar gizon hil

eta haien hondakinak harturik, igarkizuna asmatu zutenei eman zizkien soingainekokak. Gero, aitaren etxera itzuli zen haserre bizitan.

20 Sansonon emaztea, berriz, eztei-otordua antolatu zuen lagunari eman zioten emaztetzat.

Sansonen mendekua

15 **1** Aldi baten buruan, gariak igitaitzeko aroan, Sanson bere emaztea bisitatzerara joan zen, antxume bat eramanez. Hau zioen:

—Neure emaztearengana noa logelara.

Aitaginarrebak, ordea, ez zion sartzen utzi, **2** esanez:

—Benetan gorroto zeniola uste nuen eta zure adiskideari eman nion emaztetzat. Hori baino hobea duzu ahizpa gaztea. Hartzazu zeuretzat, bestearen orde.

3 Sansonek ihardetsi zion:

—Oraingoan errugabea izango naiz filistearrei egingo diedan kalteaz.

4 Orduan, hirurehun azeri harrapatu eta isatsak bata bestearekin korapilaturik, lastargiak ezarri zizkien Sansonek korapilo bakoitzean. **5** Eman zien su eta bota zituen azeriak filistearren gari-soroetara. Denak hartu zuen su: gari-bala, gari-soro, mahasti eta olibadiek.

6 Orduan, filistearrek galdetu zuten:

—Nork egin du hori?

Erantzun zieten:

—Sansonek, timnarraren suhinak, zeren eta hark Sansonon emaztea hartu eta beraren lagunari eman baitio. Orduan, filistearrek joan eta erre egin zituzten aita-alabak. **7** Sansonek esan zien:

—Hori egin al duzue? Ba, nik ez dut etsiko zuei mendeku egin arte.

8 Astindu ederra eman zien eta sarraski handia egin. Ondoren, Etamgo haitzarteko leize-zulo batera jaitsi zen bizitzera.

Sanson eta asto-matrailezurra

9 Filistearrek Judan jarri zuten kanpalekua. Gero, Lehi hiriarri erasotzeko zabaldu egin ziren. **10** Judaren leinuko gizonek galdetu zuten:

—Zer dela-eta erasotzen diguzue?

Filistearrek erantzun zieten:

—Sanson atxilotzera etorri gara; egin diguna ordainaraztera.

11 Orduan, Judako hiru mila gizonek, Etamgo haitzarteko leize-zulora joan eta esan zioten Sansoni:

—Ez al dakizu filistearren mende gaude-la? Zergatik jarri gaituzu egoera honetan?

Sansonek erantzun zien:

—Beraiek egin didatena egin diet nik.

12 Judakoek esan zioten:

—Zu lotu eta filistearren esku uzteko asmoz etorri gatzaizkizu.

Sansonek, orduan:

—Egidazue zin ez nauzuela hilko.

13 Judakoek erantzun zioten:

—Hil, ez zaitugu hilko; baina ongi lotu eta filistearren esku utzi, bai.

Orduan, bi soka berriz lotu eta atera egin zuten haitzartetik. **14** Lehira heldu zenean, filistearrak bidera atera zitzaizkion, pozez oihuka. Baina Jaunaren espirituak Sanson hartu zuelarik, suak erretako liho-hariak bezalako bihurtu ziren Sansoni besoak lotzen zizkieten sokak eta eten egin zitzaizkion eskuetako lokarriak. **15** Aurkitu zuen, orduan, hil berria zen asto baten matrailezurra, hartu eta mila gizon hil zituen Sansonek matrailezurraz. **16** Eta esan zuen:

«Asto-matrailezurraz
ederki astindu ditut,
asto-matrailezurraz
mila gizon hil ditut».

17 Hori esanik, jaurtiki egin zuen matrai-lezurra, eta toki hari Ramat-Lehi izena ezarri zion.

18 Sansonek egarri handia sumatu zuen; Jaunari dei egin eta esan zion: «Garaipen handi hau eman ondoren, egarriak hiltzen utziko ote nauzu eta jentil arrotz horien esku erortzen?».

19 Orduan, Jainkoak Lehin dagoen zuloa ebaki zuen eta ura atera zen. Edan ondoren, arnasberritu eta indartu egin zen Sanson. Iturri hari En-Kore izena ezarri zioten. Han dago Lehin gaur arte.

20 Sansonek hogeitaz urtez gobernatu zuen Israel, filistearren garaian.

Sansonek Gazako atearaman

16 ¹ Behinola, Sanson, Gazara joan zelarik, emagalduta bat ikusi eta beraren etxera sartu zen. ² Gazakoek, Sanson han zela jakitean, inguratu zuten eta gau osoan zelatan egon zitzaizkion hiriko sarrean. Gau osoan geldi egon ziren, eguna argitzean hiltzeko asmotan. ³ Sanson, ordea, gauerdian baizik ez zen egon ohean; gauerdian jaiki eta hiri-sarrerako bi atearak beren zango, ataga eta guzti orpotik atera eta bizkarrean harturik, Hebronon aurrean dagoen mendi-gailurreraino jaso zituen.

Sanson eta Dalila

⁴ Aldi baten buruan, Sorek ibarrean bizi zen emakume batez maitemindu zen Sanson; emakumeak Dalila zuen izena.

⁵ Filistearren buruzagiek emakumearengana joan eta esan zioten: —Atera iezaiozu azpikeriaz Sansoni nondik duen halako

indarra eta nola harrapa dezakegun, lotu eta menderatzeko. Bakoitzak mila eta ehun zilarrezko txanpon emango dizkizugu.

⁶ Dalilak esan zion Sansoni:

—Esadazu nondik duzun horrelako indarra eta nola lotu zaitzaketen zu menderatzeko.

⁷ Sansonek erantzun:

—Lehortu gabeko zazpi soka berriz lotuko banindute, ahuldua geldituko nintzateke eta beste edozein gizon bezalakoa izango.

⁸ Eraman zizkioten filistearren buruzagiek emakumeari lehortu gabeko zazpi soka berri eta lotu zuen emakumeak Sanson. ⁹ Gelan gizon batzuk zelatan zeudelarik, Dalilak esan zion Sansoni: «Horra! Filistearrak!». Sansonek, ordea, eten egin zituen sokak, iztupa-haria suak ukitzean eten ohi den bezala. Eta ez zuten jakin nondik zuen halako indarra.

¹⁰ Dalilak, orduan, Sansoni:

—Barre egin duzu nire lepotik; gezurra esan didazu. Esadazu nola lot zaitzaketen.

¹¹ Sansonek erantzun zion:

—Behin ere erabili gabeko lokarri berriz lotuko banindute, ahuldua geldituko nintzateke eta beste edozein bezalakoa izango.

¹² Gela batean gizon batzuk zelatan zeudelarik, lokarri berriak hartu, Sanson lotu eta esan zion Dalilak: «Horra! Filistearrak, Sanson!». Baina Sansonek lokarri berriak ere eten egin zituen, hariak bailiran.

¹³ Dalilak esan zion:

—Barre egin duzu berriro ere nire lepotik; gezurra esan didazu. Esadazu nola lot zaitzaketen. Sansonek erantzun:

—Nire buruko zazpi ile-mototsak ehuna egiteko hariaz batera eho eta ehulearen ziriaz lotuko bazenitu, ahuldua geldituko nintzateke eta beste edozein bezalakoa izango. ¹⁴ Orduan, lo harrarazi eta buruko zazpi ile-mototsak ehuna egiteko hariaz batera eho eta ziriaz lotu ondoren, esan zion Dalilak: «Horra! Filistearrak, Sanson!». Sansonek, ordea, esnatu eta eten egin zituen

ziria, ehulearen ardatza eta ehundura ere.
15 Dalilak, orduan:

—Maite nauzula diozu eta ez zara nitaz fidatzen. Hiru aldiz egin duzu barre nire lepotik, eta oraindik ez didazu esan nondik duzun horrelako indarra.

16 Dalila, egunero, nazkatzeraino galdezka ari zitzaionez, bizitzaz ere asperturik, **17** adiztera eman zion Sansonek bere baitan zerman isilpekoa: «Ez dit labanak inoiz ere ilea moztu; "nazireu" bainaiz, hau da, Jaunaren tzat sagaratua, neure amaren sabeletik. Ilea moztuko balidate, indarra galdu eta ahuldua geldituko nintzateke eta beste edozein bezalako izango».

18 Dalilak, egi-egia esan ziola oharturik, filistearren buruzagiei dei egin eta esan zien:

—Zatozte, oraingoan azaldu baitit bere barrua.

Hala, etorri ziren filistearren buruzagiak emakumearengana, dirua eskuan zekartela.

19 Eta Dalilak, Sansoni bere belaunetan loharrarazirik, gizon bati dei egin zion buruko zazpi ile-mototsak mozteko. Sansoni indarrak alde egin zionean, Dalila astintzen hasi zitzaion, **20** esanez: «Horra! Filistearrak, Sanson!». Esnatu zen Sanson eta aurrekoetan bezala libratuko zela uste izan zuen; baina ez zekien Jaunak zapuztua zuela. **21** Hartu zuten, beraz, filistearrek, begiak atera, Gazara eraman eta brontzeko bi katez lotu zuten, eta errotari bati eragin behar izan zion presondegian. **22** Hala ere, berriro luzatzen hasi zitzaion moztua zioten ilea.

Sansonen heriotza

23 Behinola, beren jainko Dagoni opari handi bat eskaintzeko eta jai alai egiteko bildu ziren filistearren buruzagiak. Hau zioten:

«Gure jainkoak eskura eman digu Sanson gure etsaia!».

24 Herriak, Sanson ikustean, bere jainkoa goretsi zuen, esanez:

«Gure jainkoak eskura eman digu Sanson gure etsaia,
gure lurraldea hondatu
eta hainbeste guretar hil zuena!».

25 Izan ere, pozaren pozez, Sanson ateratzeko eskatua zuten, beraren kontura barre egiteko gogoz. Atera zuten, beraz, Sanson espetxetik eta beraren bizkar egin zuten barre. Gero, bi zutaberen erdian utzi zuten. **26** Orduan, Sansonek esan zion eskutik zeraman itsumutilari:

—Eraman nazak jauretxeari eusten dioten zutabeak ukitzeraino, haietan sostenga nadin.

27 Jauretxea gizon eta emakumez bete zegoen; bertan ziren filistearren buruzagiak etxe gainean eta beste hiru bat mila gizon eta emakume ere bai, Sansonek eginiko jostaketei begira egonak. **28** Sansonek dei egin zion Jaunari, esanez: «Ene Jainko Jauna, oroit zaitetz nitaz eta egin nazazu indartsu beste behin berederen, kendu dizkidaten bi begiengatik filistear horietaz kolpe bakarraz mendeka nadin».

29 Ukitu zituen, orduan, Sansonek jauretxeari erdi-erdian eusten zioten bi zutabeak, bataren kontra eskuina eta bestearen kontra ezkerre ipiniz, **30** eta esan zuen: «Hil nadila filistearrekin batera!». Egin zuen bultza indarrez, eta bertan zeuden buruzagi eta jendearen gainera etorri zen jauretxea. Horrela, bere bizitza osoan baino jende gehiago hilez hil zen Sanson.

31 Gero, bere senide eta ahaideek etorri, Sansonen gorpua hartu eta beraren aita Manoahen hilobian ehortzi zuten, Tzora eta Extaol artean. Hogei urtez gobernatua zuen Israel.

Samuel

lehen liburua



Esan bezala, Israel herriaren historian gertaturiko aldaketa handi baten berri ematen digu Samuel Lehen Liburu honek: Epaila edo buruzagien garaia bukatu eta erregeen garaia, monarkia, hasi zenekoa. Haurtzarotik Jainkoak deitua zuen Samuelen buruzagialdeia kontatuz hasten da liburua. Samuel zahartu zelarik, erregea izendatzeko eskatu zioten israeldarrek.

Ana Xiloko santutegia

1 Bazen Efraingo mendialdean Elkana zeritzan Ramako gizaseme bat, Tzufen ondorengoetakoa. Jerohamen semea zen, eta hau Elihurena, eta hau Tohurena, eta hau Tzufena. Elkana efratar leinukoa zen. **2** Bi emazte zituen: Ana zeritzan batari, eta Penina besteari. Peninak bazuen seme-alabarik; Anak, berriz, ez.

3 Urtero igo ohi zen Elkana bere herritik Xilora, Jaun ahalguztidunari gurtza egin eta opariak eskaintzera. Santutegi hartan Hofni eta Pinhas Eliren bi semeak ziren Jaunaren apaiz. **4** Oparia eskaintzen zuen egunean, Elkanak bere emazte Peninari eta honen seme-alaba guztiei oparigaiaren zati bana eman ohi zien. **5** Anari, berriz, puska berezia eskuratzen zion, oso maitea baitzuen, nahiz eta Jaunak haurrik ematen ez zion. **6** Peninak, arerioak, gogorki iraindu eta nahigabetu

99

ohi zuen Ana, Jaunak haurrik ematen ez ziolako. **7** Eta halaxe urte oroz: Jaunaren etxera igotzeko zen aldi bakoitzeko iraindu ohi zuen. Anak negarrari eman eta jan ere ez zuen egiten.

8 Hortan, honela mintzatu zitzaion Elkana bere senarra:

—Ana, zergatik ari zara negarrez eta ez duzu jaten? Zergatik zaude goibel? Ez al naiz, bada, ni zuretzat hamar seme baino hobe?

9 Xilon otordu sakratua egin ondoren, jaiki zen Ana. Eli apaiza bere aulkian eseria zegoen, Jaunaren etxeko atari aurrean. **10** Ana oso nahigabetua zegoen, eta negar-malkotan otoitz egin zion Jaunari. **11** Promes hau egin zion: «Jaun ahalguztiduna, begira zeure mirabe honen atsekabeari. Oroit zaitetz nitaz. Ez ahaztu zeure mirabe hau. Jauna, semea ematen badidazu, zeuri eskainiko dizut bizitza osorako. Labainak ez du haren ile-adatsa moztuko».

12 Luze ari izan zitzaion Ana otoitzean Jaunari. Elik, bitartean, ahora begiratzen zion. **13** Ana, ordea, berekiko mintzo zen; ezpainak erabiltzen zituen, bai, baina ez zitzaion ahotsa aditzen. Horregatik, mozkortzat hartu zuen Elik, **14** eta esan zion:

—Noiz arte egon behar duzu mozkor? Bota ezazu barruko ardo hori!

15 Anak ihardetsi zion:

—Ez, ene jauna. Erabat nahigabetua nauzu. Ez dut ardorik edan, ezta inolako edari mozkorgarririk ere. Neure barrua ustu dut Jaunaren aurrean. **16** Ez nazazu har emakume txartzat. Neure atsekabe handiaz, neure nahigabeaz, mintzatu natzaio Jaunari orain arte.

17 Orduan, esan zion Elik:

—Zoaz bakean, eta eman diezazula Israelen Jainkoak eskatutakoa.

18 Anak, orduan:

—Izan dezadala neurekin zure onginahia. Joan zen emakumea bere bidetik, eta jan zuen; haren begitarteak ez zirudien lehengo.

Samuelen jaiotza eta haurtzaroa

19 Biharamunean goizean jaiki eta, Jaunaren aurrean ahuspeztu ondoren, Ramara itzuli ziren, beren etxera. Elkartu zitzaion Elkana bere emazte Anari, eta oroi-tu zen honetaz Jauna. **20** Haurdun gertatu zen Ana eta, garaia betetzean, semeaz erdi zen. Samuel eman zion izena, esanez: «Jaunarengandik dut hartua».

21 Elkana, bere etxekoekin, Jaunari urteroko oparia eskaintzera eta promesa bete-tzera igo zen hurrengo urtean ere; **22** Ana ez zen igo eta esan zion senarrari:

—Ez naiz joango haurrari bularra kendu arte; orduan, eraman eta Jaunari aurkeztuko diot, eta han geldituko da betirako.

23 Elkanak, senarrak, erantzun zion:

—Egizu egokien iruditzen zaizuna. Geldi zaitetz haurrari titia kendu arte. Bete beza Jaunak bere hitza!

Horrela bada, gelditu egin zen emakumea eta bere haurra hazi zuen, bularra kendu arte.

24 Bularra kendu ziolarik, berekin eraman zuen Anak haurra, txikia oraino, Xilora, Jaunaren etxera. Haurrarekin batera, hiru urteko zekorra, anega bat ogi-irin eta zahagi bat ardo eraman zituen. **25** Hil zuten zekorra opari eskaintzeko, eta haurra Eliri eraman zioten. **26** Honela ziotson Anak: «Barka, ene Jauna! Neu nauzu zure aurrean Jaunari otoizka ari izan zitzaion emakumea. **27** Haur hauxe eskatzen nion Jaunari eta eman dit eskatzen niona. **28** Horregatik, Jaunari uzten diot haurra, bizitza osorako Jaunari eskainia izanen da».

Orduan, Jauna gurtu zuen bertan.

Jaunak Samueli dei egin

3¹ Samuel mutikoa Jaunaren zerbitzuan ari zen Eliren ardurapean. Jainkoa garai hartan ez zen maiz mintzatzen, eta ikuskaririk ere ez zuen inork sarritan izaten. **2** Gau batez bere gelan zetzan Eli; begiak lausotzen ari zitzaizkion eta ezin zuen ikusi. **3** Jaunaren zuzia ez zen oraino itzalia. Samuel ere lo zegoen Jainkoaren kutxa zegoen Jaunaren santutegian. **4** Jaunak dei egin zion Samueli, eta honek erantzun:

—Hemen nauzu.

5 Lasterka Elirengana joan eta esan zion Samuelek:

—Hemen nauzu, dei egin baitidazu.

Elik ihardetsi zion:

—Ez dizut nik dei egin. Itzul zaitetz eta egizu lo.

Joan eta etzan zen lotarako.

6 Jaunak berriro dei egin zion Samueli. Hau jaiki eta Elirengana joan zen, esanez:

—Hemen nauzu, dei egin baitidazu.

Elik erantzun:

—Ez dizut nik dei egin, ene seme. Itzul zaitez eta egizu lo.

7 Samuelek ez zuen oraindik Jauna ezagutzen, honek ez baitzion bere hitza inoiz ere adierazi. **8** Hirugarren aldiz egin zion dei Jainkoak Samueli. Jaiki eta Elirengana joan zen, esanez:

—Hemen nauzu, dei egin baitidazu.

Antzeman zion Elik Jauna ari zitziola deika, **9** eta esan zion mutikoari:

—Zoaz eta egizu lo. Norbaitek berriro dei egiten dizula entzuten baduzu, esan: «Mintza, Jauna, adi duzu zeure morroi hau».

Itzuli eta lotarako etzan zen Samuel bere tokian. **10** Jaunak, hurbildurik, dei egin zion, lehengoetan bezala:

—Samuel, Samuel!

Samuelek erantzun:

—Mintza zaitez, Jauna, adi duzu zeure morroia!

11 Eta honela mintzatu zitzaion Jauna Samueli: «Hara, zerbait egin behar dut Israelen. Entzungo duten guztiei durundi egingo diete bi belarriek. **12** Eliren etxearen kontra esan dudan guztia beteko dut egun horretan, hasi eta bukatu. **13** Jakinarazi nion bere etxea betirako zigortuko nuela, egin dituzten gaiztakeriengatik. Bazekien bere semeak Jainkoa iraintzen ari zirena, eta ez zituen zuzenarazi. **14** Horregatik, zin egin diot Eliren senitarteari, ezin izango duela sekula bere gaiztakeria garbitu, ez opariak eginez, ez eskaintzak ekariz».

15 Samuelek lo egin zuen egunsentiarate. Goizean ireki zuen Jaunaren etxeko atea. Baina beldur zen ikuskaria Eliri adierazteko.

16 Eta Elik dei egin zion Samueli:

—Samuel, ene seme.

Samuelek erantzun:

—Hemen nauzu.

17 Eta galdetu zion Elik:

—Zer esan dizu? Ez gorde, arren, deus ere. Zigor zaitzala gogor Jainkoak, esan dizkizun hitzetarik bat ere isiltzen badidazu.

18 Samuelek, beraz, Jaunak esandako guztia jakinarazi zion, deus ere gorde gabe. Elik erantzun zuen:

—Jauna da bera. Egin beza egoki iruditzen zaiona.

19 Hazi zen Samuel, eta berekin zuen Jauna. Ez zen gelditu bete gabe Jaunaren hitz bakar bat ere. **20** Dandik Beer-Xebaraino, Israel osoak jakin zuen Jaunak bere profeta egina zuela Samuel. **21** Xilon agertuz jarraitu zuen Jaunak, han baitzion hitz egiten Samueli.

Herriak erregea nahi

8 **1** Samuelek, zahartu zenean, bere semeak jarri zituen Israelen buruzagi.

2 Lehen semeari Joel zeritzan, eta bigarrenari Abias; Beer-Xebatik gidatu ohi zuten herria.

3 Semeak, ordea, ez zebiltzan aitaren bidetik; diruzalekeriari emanak, eskupekoak onartzen zituzten eta epai okerrak egiten. **4** Bildu ziren, orduan, Israelgo zahar guztiak eta Ramara etorri ziren Samuelengana, **5** esatera:

—Zahartua zaude, eta zure semeak ez dabilta zure bidetik. Izenda iezaguzu, bada, errege bat, gida gaitzan; horixe egiten dute herrialde guztietan.

6 Nahigabetu egin zen Samuel «izenda iezaguzu errege bat, gida gaitzan» esan ziotenean. Eta otoitz egin zion Jaunari. **7** Jaunak erantzun zion: «Onartzazu herriak eskatzen dizun guztia. Ez zaituzte zu gutxiesten; ni naute gutxiesten, ez binaute errege nahi beren gain. **8** Egiptotik atera nituenetik zapuztu egin naute, jainko arrotzak gurtzeko. Niri egin didatena bera egiten dizute orain zuri. **9** Onartzazu, beraz, haien eskaria; baina jakinarazi argi eta garbi, nolako esku-bideak izanen dituen beraien gain aginduko duen erregeak».

10 Adierazi zion, beraz, Samuelek errege eske ari zitzaion herriari Jaunak esandako guztia, **11** eta erantsi zuen: «Hona hemen

zuen gain aginduko duen erregearen esku-bideak: semeak kenduko dizkizue, bere gurdizain eta zaldizko egiteko; erregearen gurdiairen aurretik ibili beharko dute lasterka. **12** Batzuk mila gizonen buru ipiniko ditu, beste batzuk berrogeita hamar gizonen buru. Batzuek erregearen alorrak goldatu beharko dituzte, beste batzuek uztak igitaitu; beste batzuek, berriz, armak eta gudugurdiak egin beharko dizkiote. **13** Alabak ere kenduko dizkizue, bere lurringile, sukaldari eta okin bihurtzeko. **14** Lur-sailik, mahastirik eta olibadirik ederrenak kenduko dizkizue, bere zerbitzarietako. **15** Uzta eta mahatsen hamarrenak hartuko dizkizue, bere funtzionario eta zerbitzarietako. **16** Zeuen morroi-neskameak, zeuen gazterik bikainenak eta astorik hobereenak eramango dizkizue, beraren sailetan lan egin dezaten. **17** Artaldean hamarrenak hartuko dizkizue; zeuok ere bere morroi eginen zaituzte. **18** Egun hartan, oihu egingo duzue, hautatu duzuen erregea dela-eta; baina Jaunak ez dizue entzungo.

19 Hala ere, herriak ez zion kasurik egin nahi izan Samueli, eta honela ihardetsi zion: «Utikan! Erregea behar dugu; **20** beste herri guztiak bezalakoak izan nahi dugu. Gida gaitzala erregeak, joan dadila gure aurretik gure alde borrokatzera».

21 Aditu zuen Samuelek herriak eskatzen zion guztia eta Jaunari adierazi zion. **22** Jaunak erantzun zion Samueli: «Onar iezaezu eskaria eta eman erregea».

Orduan, Samuelek esan zien israeldarrei: «Zoazte nor bere herrira».

Saul, asto galduen bila

9 **1** Bazen, aldi hartan, Kix zeritzan gizon handiki bat, Abielen semea, Tzeror, Bekorat eta Afiasen ondorengoetarikoa. Benjaminen leinukoa zen. **2** Bazuen seme bat, Saul izenekoa, mutil aukerakoa eta

bikaina; ez zen Israel herrian hura baino lirainagorik: sorbaldaraino heltzen zitzaion beste jende guztia.

3 Aita Kixek, asteme batzuk galdu zitzaizkiolarik, esan zion Saul semeari:

—Hartzak morroi bat eta hoa astemeen bila.

4 Efraingo mendi eta Xalixako lurretan barrena ibili ziren, baina ez zituzten aurkitu. Arakatu zuten Xaalingo lurraldea, baina astoak ez zeuden han. Begiratu zuten Jemin lurraldean, baina han ere ez zituzten aurkitu. **5** Tzuf-en lurretan zebiltzala, esan zion Saulek berarekin zihoan morroiari:

—Itzul gaitezen; honezkero, astoez ahaztua eta gutaz kezkatua izanen da aita.

6 Morroiak erantzun zion:

—Adizu! Bada hiri honetan Jainkoaren gizon ospetsu bat. Horrek dioen bezalaxe gertatu ohi dira gauzak. Goazen berorregana, ea esaten digun nondik nora ibili.

7 Saulek, orduan, morroiari:

—Goazen, bada. Baina zer emango diogu gizon horri? Ez dugu ogirik geure zorrotan, ezta eskuerakutsirik ere Jainkoaren gizon horri emateko. Ba al dugu ezer?

8 Morroiak erantzun zion Sauli:

—Nik badut zilarrezko txanpon laurdena; horixe emanen diogu Jainkoaren gizonari, bidea erakuts diezagun.

9 (Antzina, Israelen, Jainkoari kontsulta egitera zihoanak honela esan ohi zuen: «Goazen ikuslearengana». Izan ere, orain profeta deritzanari, lehen ikusle zeritzan).

10 Saulek esan zion morroiari:

—Ederki esana. Goazen bada!

Eta Jainkoaren gizona bizi zen hirira jo zuten. **11** Hirirantz aldapan gora zihoazela, hara non ikusten dituzten ur-bila irten ziren neska batzuk. Honela galdegin zieten:

—Hemen al da ikuslea?

12 Neskek erantzun zieten:

—Bai, hemen da. Hortxe aurrean duzue. Zabiltzate, beraz, bizkor; muinoan herriaren alde oparia eskaini behar duelako etorri da gaur hirira. **13** Hirian sartu eta berehala

aurkituko duzue, opari-otordurako muinorra igo dadin baino lehen. Ez da inor jaten hasiko, bera heldu arte, berak bedeinkatu behar baititu opariak, gero gonbidatuek jateko. Igo zaitetze, bada, eta berehala aurkituko duzue.

Samuelek Saul aurkitu

14 Igo ziren, bada, hiriraino eta, hiriko atetik sartzearekin batera, Samuel agertu zitzaien, muinorantz zihoala. **15** Saul etorri aurreko egunean, jakinarazia zion Jaunak Samueli: **16** «Bihar ordu honetan, Benjamin go gizon bat bidaliko dizut. Horixe gantzutuko duzu, ene herri Israelen buruzagi izateko. Horrek salbatuko du nire herria filistearren mendetik. Ikusi dut, izan ere, ene herriaren atsekabea, eta heldu zait egin didaten oihua».

17 Samuelek Saul ikusi orduko, esan zion Jaunak: «Hona hemen aipatu nizun gizona. Hau izanen da nire herriaren agintaria».

18 Hurbildu zitzaion Saul Samueli hiriko atera, eta esan zion:

—Otoi, esadazu non den ikuslearen etxea.

19 Samuelek erantzun zion Sauli:

—Neu nauzu ikuslea. Igo nire aurretik muinora eta nirekin jango duzue gaur. Bihar goizean utziko dizut joaten, jakin nahi duzun guztia esan ondoren. **20** Ez kezkatu herenegun galdutako astoez, aurkitu baitituzte. Hara, noren irrikaz dago Israel osoa? Zure eta zure aitaren etxe osoaren irrikaz.

21 Saulek ihardetsi zion:

—Zer diozu? Israelgo txikiena den Benjaminen leinukoa baino ez nauzu, eta nire senitartea Benjamin go senitarteetan azkena.

22 Hartu zituen, orduan, Samuelek Saul eta honen mutila, jangelan sarrarazi eta mahaiburuan jarri zituen, bazkaldarren aurrean. Hogeita hamarren bat ziren gonbidatuak. **23** Gero, agindu zion Samuelek sukaldariari:

—Ekarri bereiz ipintzeko eta gordetzeko eman nizun zatia.

24 Sukaldariak izterra eta isatsa ekarri eta Saulen aurrean jarri zituen. Samuelek, orduan:

—Hona hemen gordea zutena, jan. Zuretzat zegoen gordea, abagune honetarako. Horrela, «Nik gonbidatu dut jendea» esan dezakezu.

Beraz, egun hartan Samuelekin jan zuen Saulek. **25** Gero, jaitsi ziren muinotik hirira, eta Samuel hizketan aritu zen Saulekin etxe gainean.

Samuelek errege sagaratu Saul

26 Biharamunean goizean goiz jaiki eta, egunsentian, Samuelek dei egin zion etxe gainera Sauli, esanez:

—Jaiki zaitetz, agurtu egin behar zaitut eta.

Jaiki zen Saul eta kanpora irten ziren Samuel eta biak. **27** Hiriaren bukaerara jaitsi zirenean, agindu zion Samuelek Sauli:

—Esaiozu morroiari aurrerago joateko.

Morroia aurrerago joan zen. Orduan, Samuelek:

—Zu geldi zaitetz hemen pixka batez, Jaunaren esana adierazi behar dizut.

10 **1** Hartu zuen, orduan, Samuelek oliontzia eta Sauli burura isuri zion; gero, besarkatuz, esan zion: «Hara, Jaunak bere herri Israelen buruzagi gantzutu zaitu. **2** Gaur, nire ondotik joan ondoren, bi gizon aurkituko dituzu Rakelen hilobi ondoan, Benjaminen mugetan, Tzeltzehen. Honela mintzatuko zaizkizu: "Agertu dira bila zabiltzan astoak; aita astoez ahaztu eta zuetaz kezkatua dago, bere semea aurkitzeko zer egin ez dakiela"».

Eta Samuelek jarraitu zuen: **3** «Jo aurrerantz eta, Taborreko arte-arbolaren

aldamenera heltzean, Betelera bidean gora, Jainkoarengana doazen hiru gizaseme aurkituko dituzue: batak hiru antxume eramango ditu, besteak hiru opil eta hirugarrenak ardo-zahagia. **4** Agurtu eta bi opil emango dizkiuzete; hartu. **5** Joan gero Jainkoaren Gibeara, han baitaude filistearren agintariak. Hirira sartu orduko, muinotik beherantz datorren profeta-taldea ikusiko duzu; profeta-trantzean aztoraturik etorriko dira, psalteri- eta dambolin-joleak, txirula- eta zitara-joleak aurretik dituztela. **6** Jaunaren espirituak hartuko zaitu zu ere; beste gizon bat bihurtuko zara. **7** Zantzu hauek gertatzean, egin eskura datorkizukeena, zeurekin izanen baituzu Jauna. **8** Jaitsi gero nire aurretik Gilgalera. Ni ere jaitsiko naiz zure ondoren, erre-opariak eta bake-opariak eskaintzera. Egon nire zain zazpi egunez, harik eta nik, etorririk, zer egin behar duzun adierazi arte».

9 Samuelen ondotik abiatzeko, bizkarra eman orduko, Jainkoak aldatu egin zuen Saulen bihotza, eta aurreikusitako zantzu haiek guztiak gertatu ziren egun hartan. **10** Handik Gibeara zihoazelarik, hara non datorkien profeta-taldea. Hartu zuen Saul Jaunaren espirituak eta, besteekin batera, profeta-trantzean jarri zen bera ere. **11** Aspal-ditik ezagutzen zutenek, profetekin batera profeta-trantzean ikusi zutenean, honela ziotsoen elkarri:

—Zer gertatzen ote zaio Kixen semeari? Saul ere profeta artean?

12 Bertako batek zioen:

—Nor ote dute buru?

Ordutik dator esaera hau: «Saul ere profeta artean?».

13 Profeta-trantzetik atera zenean, muino sakratura joan zen. **14** Saulen osabak galdegin zien:

—Nora joan zarete?

Saulek erantzun zion:

—Astoen bila. Baina ez genituen aurkitzen eta Samuelengana jo genuen.

15 Osabak Sauli:

—Eta zer esan zizuen Samuelek?

16 Saulek osabari:

—Astoak agertuak zirela jakinarazi zigun. Erreinuaz Samuelek esandakoari buruz, ordea, ez zion deus ere adierazi.

Saul, errege izendatua herriaren aurrean

17 Deitu zuen Samuelek jendea Mitzpan Jaunaren aurrean bil zedin, **18** eta honela mintzatu zitzaien israeldarrei: «Hona zer dioen Jaunak, Israelen Jainkoak: Nik atera nuen Israel Egiptotik, eta nik askatu zintuztedan, zapaltzen zintuzteten egiptoar eta gainerako erreinu guztien mendetik. **19** Zuek, aldiz, gutxietsi egin duzue orain zeuen Jainkoa, berak gaitz eta atsekabe orotatik salbatu zaituzten arren. Honela diozue: “Utikan! Emaguzu erregea!” Jar zaitezte, bada, Jaunaren aurrean leinuka eta senitarteka».

20 Hurbilarazi zituen orduan Samuelek israeldar leinu guztiak eta, zotz eginik, Benjaminen leinuari atera zitzaion. **21** Hurbilarazi zuen Benjaminen leinua senitarteka eta, zotz eginik, Matriren senitarteari atera zitzaion, eta, hauen artean, Kixen seme Sauli. Hasi ziren Saulen bila, baina ez zuten aurkitzen.

22 Honela galdetu zioten berriro Jaunari:

—Etorri al da gizon hori?

Jaunak erantzun zien:

—Tresneria artean dago gordea.

23 Joan ziren lasterka eta atera egin zuten handik. Jendearen artean zutiarazi eta dene-tan garaiena zen Saul, sorbaldaraino heltzen zitzaion beste jende guztia. **24** Samuel, orduan, honela mintzatu zitzaion herri osoari:

—Ikusten al duzue nor aukeratu duen Jaunak? Herri osoan ez da hau bezalakorik.

Herri osoak, aho batez, oihukatu zuen:

—Gora erregea!

25 Samuelek, orduan, erregetzaren esku-bideak zein ziren adierazi zion herriari; idatzi zituen liburuan eta toki sakratu batean

Jaunaren aurrean utzi zuen liburua. Ondoren, Samuelek bidali egin zuen herri osoa, nor bere etxera.

26 Saul ere Gibeako bere etxera itzuli zen. Jainkoak bihotza ukitu zien gizon indartsu batzuk Saulekin joan ziren. **27** Baina beste maltzur-gaizto batzuek honela zioten: «Zera salbatuko gaitu horrek!». Eta muzin egin zioten; ez zioten eskuerakutsirik batere eraman. Saulek, berriz, ezentzuna egin zien.

Jaunak Saul baztertu

15¹⁰ Orduan, Jauna honela mintzatu zitzaion Samueli: **11** «Damutu zait Saul errege egina, aldendu egin baita niregandik eta ez ditu bete nire esanak».

Goibeldu egin zen Samuel eta gau osoz Jaunari oihuka ari izan zitzaion. **12** Biharamunean, goizean goiz jaiki zen Samuel, Saulengana joateko. Baina Saul Karmel hirira joan zela jakinarazi zioten, han beretzat oroitarrria eraiki zuela eta, aurrerantz jarraituz, Gilgalera jaitsi zela. **13** Samuel Saulengana heldu zenean, esan zion honek:

—Bedeinka zaitzala Jaunak. Bete dut Jaunaren esana.

14 Samuelek ihardetsi zion:

—Eta zer dira, bada, belarrietara datozkidan ardi-marraka eta behi-marru horiek?

15 Saulek erantzun:

—Amalektarrei kenduak dira. Bizirik utzi zituen jendeak ardi eta idirik hoberenak, Jaunari, zure Jainkoari, eskaintzeko asmoz. Gainerakoak suntsitu egin genituen.

16 Samuelek Sauli:

—Aski da! Gaur gauean Jaunak adierazi didana jakinarazi behar dizut.

Saulek:

—Mintza zaitetz.

17 Samuelek, orduan:

—Zeure burua txikitzat duzun arren, ez al zara zu Israelgo leinuen buruzagia? Ez al zaitu Jaunak Israelen errege gantzutu?

18 Amalektar bekatari horiek suntsitzera bidali zaitu, denak birrindu arte borrokatzera. **19** Zergatik ez duzu aditu Jaunaren esana? Zergatik hartu dituzu harrapakinak, Jaunaren begietan gaizki dagoena eginez?

20 Saulek erantzun zion Samueli:

—Ez al dut, bada, egin Jaunaren esana. Berak bidali ninduen bidetik ibili naiz. Ekarrri dut Agag, amalektarren erregea, eta suntsitu ditut amalektarrak. **21** Jendeak, hala ere, birrindu beharrekoak ziren harrapakinetatik ardi eta idirik hoberenak hartu ditu Jaunari, zure Jainkoari, Gilgalen eskaintzeko.

22 Samuelek esan zuen:

—*Atseginago ote ditu, bada, Jaunak erre-opariak eta sakrifizioak beraren esana egitea baino? Opariak egitea baino hobe haren esana egitea; ahari-gantzak eskaintzea baino hobe hari esaneko izatea.*

23 *Aztikeria adinako bekatua da desleial izatea, sasijainkokeria bezain hutsala setakeria. Jaunaren esana baztertu duzulako, berak baztertzen zaitu orain erregetzatik.*

24 Saulek, orduan, Samueli:

—Bekatu egin dut, bai; hautsi egin dut Jaunaren esana, bai eta zure hitza ere. Jendearen beldur nintzen eta haien esana aditu nuen. **25** Otoi, barka iezadazu bekatua, eta zatoz nirekin Jauna gurtzera.

26 Samuelek, ordea, Sauli:

—Ez naiz joango zurekin, Jaunaren esana baztertu duzulako. Orain, Jaunak zu baztertzen zaitu; ez zara gehiago Israelen errege izango.

27 Itzuli zen Samuel alde egiteko asmoz; baina Saulek soingainekoaren ertzetik heldu eta puska bat kendu zion. **28** Samuelek esan zion:

—Horrelaxe kendu dizu gaur Jaunak Israelen errege izatea, zu baino hobea izan den beste bati emateko. **29** Ez du gezurrik

esaten Israelen ospea denak, eta ez da damutuko, bera ez baita gizakumea, damutzen ibiltzeko.

30 Saulek berriro:

—Bekatu egin dut, bai. Baina, otoi, ohora nazazu buruzagien eta Israel herriaren aurrean. Zatoz nirekin; Jauna, zure Jainkoa, gurtu behar dut.

31 Joan zen, bada, Samuel Saulen ondoren eta honek gurtu egin zuen Jauna.

Jainkoak Dabid errege izendatu

16 ¹ Behin batean, honela mintzatu zitzaion Jauna Samueli:

—Noiz arte ari behar duzu negarrez Saulengatik? Baztertu egin dut, Israelen errege izan ez dadin. Bete ezazu olio adarra eta zoaz, Belengo Jeserengana bidaltzen zaitut. Honen semeen artean begiztatu dut errege egingen dudana.

2 Samuelek galdetu zion:

—Nola joango naiz baina? Saulek jakiten badu, hilko nau.

Jaunak berriro:

—Hartzazu zeurekin bigantxa bat eta esan: «Jaunari oparia eskaintzera nator».

3 Dei ezazu Jese oparirako. Adieraziko dizut orduan zer egin behar duzun. Nik erakutsiko dizudana behar didazu gantzutu.

4 Egin zuen, beraz, Samuelek Jaunak esandakoa, eta Belenera joan zen. Hiri hartako zaharrak bidera irten zitzaizkion arduratsu, eta galdetu zioten:

—Bake onean al zatoz?

5 Samuelek:

—Bai, bake onean nator. Jaunari oparia eskaintzeko asmoz nator. Egin garbikuntzak eta zatozte nirekin oparia eskaintzera.

Egin zizkien garbikuntzak Samuelek Jeseri eta beronen semeei, eta oparia eskaintzera gonbidatu zituen. **6** Heldu zirenean,

Samuelek begiz jo zuen Eliab, eta esan zuen berekiko: «Zalantzarik gabe, aurrean du Jaunak bere gantzutua».

7 Jaunak, aldiz, esan zion Samueli:

—Ez begiratu horren itxura eta luzerari. Alde batera utzia dut hori. Kontua ez da gizakiak zeri begiratzen dion, gizakiak itxurari begiratzen baitio; Jaunak, berriz, bihotzari.

8 Deitu zuen Jese Abinadab eta Samuelen aurrera eraman zuen. Samuelek esan zuen:

—Hau ere ez du hautatu Jaunak.

9 Ondoren, Jese Xama eraman zuen. Samuelek, orduan:

—Hau ere ez du, bada, hautatu Jaunak.

10 Jese bere semeetarik zazpi eraman zituen Samuelen aurrera, baina Samuelek esan zion Jeseri:

—Hauetako inor ez du aukeratu Jaunak.

11 Gero, galdetu zuen:

—Hemen al dituzu zeure seme guztiak?

Jese erantzun:

—Txikiena gelditzen da. Artzain dabil. Samuelek Jeseri:

—Agindu ekar dezaten; ez gara mahaiari jarriko bera etorri arte.

12 Agindu zuen, beraz, ekartzeko. Ile horia zuen, begi ederrak, itxura bikaina. Jaunak esan zion Samueli:

—Jaiki eta gantzutu ezazu; horixe da.

13 Hartu zuen, bada, Samuelek oliontzia eta anaien aurrean gantzutu zuen. Jaunaren espirituak hartu zuen Dabid egun hartaz gerroztik. Bukatzean, Samuel Ramara itzuli zen.

Goliatek israeldarrei erronka

17 ¹ Filistearrak, beren gudarostea borrokarako bildurik, Judako Sokon batzartu ziren eta Efes-Daminen ezarri zituzten guduexolak, Soko eta Azeka artean. **2** Saulek eta israeldarrek ere bildu eta Terebinto haranean ezarri zituzten

gudu-etxolak, filistearren aurrean, gudu-lerroak antolatuz. **3** Filistearrak alde bateko mendian zeuden eta israeldarrak beste aldekoan, harana bitarte zutela.

4 Filistearren lerro artetik gizon adoretsu bat atera zen; Gat-ekoa zen eta Goliat zeritzan; ia hiru metroko gizona zen. **5** Bronztzeko buru-babesa zeraman eta ezkamadun bularrekoa soinean; berrogeita hamar kilo baino gehiago zuen bularrekoak. **6** Zangoetan ere brontzeko babesak zeramatzan, eta bizkarrean brontzeko azkona. **7** Haren lantzamakilak ehulearen gakoa zirudien, eta lantzaren burdinmuturra sei kilo baino gehiago zen. Aurretik ezkutaria zihoakion. **8** Tinko gelditu eta deiadar egin zien israeldar gudu-lerrokoiei, esanez:

—Zergatik zatozte gudurako prestatuak? Filistearra nauzue ni, eta zuek Saulen morroiak. Aukera ezazue gizon bat eta jaitsi bedi niregana. **9** Nire aurka borrokatzeko gauza bada eta hiltzen banau, zuen morroi izanen gara. Baina ni berorren aurka borrokatzeko gauza izan eta hiltzen badut, zuek izanen zarete gure morroi, eta zerbitzatu egin beharko gaituzue.

10 Gero, esan zuen filistearrak:

—Erronka hau botatzen dizuet gaur, israeldar gudu-lerroetakooi! Bidaliezadazue gizon bat, eta ekin diezaiogun borrokari!

11 Aditu zituzten Saulek eta israeldar guztiek filistearren hitz hauek, eta beldurak eta dardar gelditu ziren.

Dabid Saulen kanpalekura

12 Dabid, lehen ere aipatua den efratar baten semea zen, Judako Belengo Jeserena, alegia. Zortzi seme zituen honek, Saulen garaian zaharra zen eta urtetan aurreratua. **13** Hiru seme zaharrenak Saulekin joanak ziren gudura. Hona gudura joanak ziren hiru

semeen izenak: Eliab zaharrena, Abinadab bigarrena eta Xama hirugarrena. **14** Dabid gazteena zen. Hiru zaharrenak Saulekin ziren bitartean, **15** Dabid Saulengana joaten zen eta Belenera etortzen, aitaren artaldea zaintzera.

16 Filistear hura egunero, goiz eta arratsalde, hurbiltzen zitzaien israeldarrei eta aurrean jartzen, eta horrela berrogei egunez.

17 Jesek esan zion bere seme Dabidi:

—Har itzazu zaku bat gari xigortu eta hamar ogi hauek, eta eraman bizkor zeure anaiei kanpalekura. **18** Hamar gazta hauek mila gizonen buruzagiari eramango dizkiozu. Galdegizu anaia ongi diren, eta eskura ezazu haien hartu-agiria. **19** Saul eta zure anaia eta israeldar guztiak Terebinto haranean daude filistearren aurka borrokan.

20 Jaiki zen goizean goiz Dabid, utzi zuen artaldea zaintzailearen ardurapean eta, zama harturik, abiatu zen, Jesek agindu bezala. Kanpalekura heldu zenean, gudarostea borrokara ateratzen ari zen, gudu-deiadarrek eginez. **21** Israeldarrak eta filistearrak aurrez aurre jarri ziren lerroka. **22** Dabid, ekarri zituen zamak tresneri zaintzaileen esku utzirik, gudu-tokiraino joan zen bizkor, eta ongi ziren galdetu zien anaiei. **23** Haiekin hizketan ari zelarik, han agertu zen filistearren lerro artetik Goliat izeneko gizon adoretsu hura, Gateko filistearra, lehengo erronka bera eginez. Dabidek entzun egin zion. **24** Israeldar guztiek, gizon hura ikustean, ihes egin zuten haren aurretik, arras izuturik. **25** Israeldar batek zioen:

—Ikusten al duzue hor gora datorren gizon hori? Israeli erronka eginez dator. Gizon hori hilko duenari ondasun franko emango dio erregeak, bere alaba ere bai. Zergak ordaintzetik ere libratuko du halakoaren etxea Israelen.

26 Dabidek, orduan, galdetu zien bere inguruan zituen gudariei:

—Zer egingo diotela filistear hori hil eta Israelen lotsa kenduko duenari? Nor da, baina, filistear jentil arrotz hori, Jainko biziaren gudarosteari gaur erronka egiteko?

27 Jendeak gauza bera erantzun zion:

—Hau eta hau egingo diote hori hilko duenari.

28 Aditu zuen Eliab anaia zaharrenak Dabid gizonekin hizketan ari zela eta, biziki haserreturik, esan zion:

—Zertara etorri haiz? Nori utzi diok gure artalde koxkorra basamortuan? Bazekiat harroa haizena eta asmo txarrak dituana. Borroka ikustera etorri haiz hi!

29 Dabidek ihardetsi zion:

—Zer egin dut, bada? Hizketan ari nintzen, besterik ez.

30 Aldendu zen Dabid eta beste batengana jo zuen, lehengo galdera bera eginez. Jendeak lehengo erantzun bera eman zion.

31 Dabidek esandako hitzak aditu zituztelarik, Sauli jakinarazi zioten. Saulek etorrarazi 32 eta Dabidek esan zion Sauli:

—Ez bedi inor kokildu gizon horrengatik. Neu, zure zerbitzari hau, joango naiz filistear hori borrokatzera.

33 Saulek Dabidi:

—Ezin izango haiz joan filistear hori borrokatzera. Mutil koskor bat baino ez haiz hi; hori, berriz, gaztetandik duk gudari.

34 Dabidek Sauli:

—Nik, zure zerbitzari honek, gure aitaren artaldea zaintzen nuenean, lehoi nahiz hartzen batek etorri eta artaldetik ardiren bat harrapatzen zidanean, 35 ondoren joaten nintzaion, jo eta hagin arteuk kentzen nion. Eta erasotzen bazidan, kokospeko bizarretatik heldu eta joka akabatzen nuen.

36 Akabatua dut nik lehoi eta hartz bat baino gehiago. Filistear jentil arrotz hori ere haietako bat bezala izango da, gaur Jainko biziaren gudarosteari erronka egin diolako.

37 Gero, esan zuen:

—Lehoi eta hartzen hatzaparretatik atera izan nauen Jaunak aterako nau, oraingoan ere, filistear horren hatzaparretatik.

Saulek, orduan, Dabidi:

—Hoa, bada. Eta izan bedi Jauna hirekin!

38 Saulek bere jantziak ipini zizkion Dabidi soinean; bai eta brontzezko buru-babesa

eta bularrekoa ere. 39 Jantzien gainetik Dabidek ezpata gerrian lotu zuenean, abiatu nahi izan zuen, baina alferrik, ez baitzegoen ohitua. Orduan, esan zion Sauli:

—Honela ezin naiz ibili, ez nago ohitua. Eta erantzi egin zituen soinetik. 40 Hartu zuen eskuan bere makila, bost errekarri leun-leun aukeratu eta artzain-zorroko sakela batean gorde zituen. Hartu zuen habaila beste eskuan eta filistearrenganantz hurbildu zen.

Dabidek Goliat hil

41 Filistearra ere bazetorren eta Dabidengana hurbiltzen ari zen, ezkutaria aurretik zuela. 42 Filistearrak, begiratu eta Dabid ikusi zuenean, gutxietsi egin zuen, mutil koskor ilehori eta apaina baitzen. 43 Filistearrak esan zion Dabidi:

—Zakurra ote nauk ni, makila harturik niregana etortzeko?

Madarikatu egin zuen Goliatek Dabid bere jainko guztien izenean, 44 eta esan zion:

—Etor hakit, bai. Zeruko hegaztiei eta lurreko piztiei emango zieat hire haragia.

45 Dabidek ihardetsi zion filistearrari:

—Ezpataz, lantzaz eta azkonaz armatua zatozkit. Ba, ni Jaun ahalguztidunaren izenean natorkizu, zuk desafiatu dituzun israeldar gudarosteen Jainkoaren izenean. 46 Nire esku jarriko zaitu Jaunak gaur bertan. Hilko zaitut eta burua moztuko. Zeruko hegaztiei eta lurreko piztiei emango dizkiet gaur bertan filistear gudarien gorpuk. Honela, lur osoak jakinen du baduela Israelek Jainkoa. 47 Eta hemen bilduak diren guztiek jakinen dute, Jaunak ez duela behar ezpararik, ez lantzarik gu salbatzeko, Jaunak baitu gudua erabakitzen. Gure esku jarriko zaituzte berak.

48 Filistearra abiatu eta Dabidengana hurbiltzen hasi zenean, Dabid bizkor eta lasterka joan zen borroka-tokira, filistearrari

aurre egitera. **49** Eskua zorroan sartuz harri bat atera, habailaz jaurtiki, eta bekokian jo zuen filistearra; harria bekokian sartu zitzaion eta ahuspez jausi zen lurrera. **50** Hala xe nagusitu zitzaion Dabid filistearrari, habaila eta harri batez. Horrela jo eta hil zuen filistearra. Dabidek, ez baitzuen ezpatarik eskuetan, **51** lasterka joan, filistearraren ezpata hartu, zorrotik atera eta lepoa moztu zion, filistearra bertan akabatuz.

Filistearrak, beren gizon adorea hila zela ikustean, ihesi joan ziren. **52** Orduan, Israel eta Judako gizonak jaiki, irrintzia egin eta filistearren ondoren abiatu ziren haraneko sarreraraino eta Ekrongo ateetaraino. Filistear asko erori zen hilik Xaaraim bidean, Gat eta Ekroneraino. **53** Filistearrei erasotzetik itzultzean, beraien kanpalekuko guztia ostu zuten israeldarrek. **54** Dabidek filistearraren burua hartu eta Jerusalemenera eramane zuen; haren armak, berriz, bere etxolan utzi zituen.

Jonatan eta Dabid adiskide

18 **1** Dabidek Saulekin mintzatzen bukatu zuenean, Jonatan eta Dabid adiskide min egin ziren; Jonatanek bere burua bezain maite izan zuen Dabid. **2** Berekin hartu zuen egun hartan Saulek Dabid, eta ez zion bere aitaren etxera itzultzen utzi. **3** Jonatan eta Dabiden artean elkartasun handia sortu zen; izan ere, bere burua bezain maite zuen Jonatanek. **4** Soinean zeraman soingainekoa erantzi eta Dabidi eman zion Jonatanek, bai eta bere jantziak ere; ezpata, uztaia eta gerrikoa ere bai.

5 Saulek bidaltzen zuen gudu-irtenaldi guztietan ongi ateratzen zen Dabid; horregatik, Saulek guda-buru egin zuen. Jende guztiak ontzat hartu zuen hori, bai eta Saulen zerbitzariak ere.

Saulek Dabid hil nahi

6 Dabidek Goliat filistearra hil ondoren, gudutik zetozelarik, Israelgo herrixka guztietatik bidera atera zitzaizkion emakumeak Saul erregeari, bozkarioz kantari eta dantzari, danbolinak eta txilinak joz. **7** Emakumeak, alai dantzatzuz, honela kantatzen zuten, batzuek besteei erantzunez:

«Saulek mila hil,
Dabidek hamar mila!».

8 Saulek ez zuen kobla hori pozez entzun. Biziki haserretu zen, eta honela zioen: «Hamar mila Dabidi eta mila niri! Erregetza besterik ez du falta!».

9 Handik aurrera begitan hartu zuen Saulek Dabid. **10** Biharamunean, Jainkoak bidalitako espiritu gaiztoak jo zuen Saul, eta han zebilen eroa bezala bere etxe osoan barrena; Dabid zitara jotzen ari zitzaion, egunero bezala. Saulek, ordea, eskuan zerabilen lantza **11** jaurtiki zuen, Dabid hormari josteko asmoz. Eta Dabid birritan saihestu zen.

12 Geroztik, Dabiden beldur izan zen Saul, harekin baitzen Jauna; berarengandik, berriz, aldendua zela ikusten zuen. **13** Orduan, Saulek, Dabid bere ondotik urruntzearren, mila gizonen buruzagi egin zuen. Dabidek gidatzen zuen jende hura gudurako joan-etorrietan. **14** Garaile atera ohi zen Dabid egintza guztietan, Jaunak laguntzen baitzion. **15** Denetan ongi ateratzen zela ikusiz, Saulek beldurra hartu zion Dabidi. **16** Israel eta Juda osoak, aldiz, maite zuten Dabid, gudurako joan-etorrietan gidatzen zituelako.

Jonatan Dabiden alde

19 **1** Dabid hiltzeko asmotan zebilela esan zien Saulek bere seme Jonatani eta bere zerbitzari guztiei. Saulen seme

Jonatanek oso maitea zuen Dabid eta **2** asmo horren berri eman zion Dabidi, esanez: «Gure aita Saulek zu hiltzeko asmoa du. Zabiltza erne bihar goizean; gorde zaitetz toki ezkuturen batean. **3** Atera eta aitaren ondoan jarriko naiz, zu egongo zaren landan. Zutaz mintzatuko natzaio eta ikusiko dut zer den asmo horretaz eta jakinaraziko dizut».

4 Jonatan, beraz, Dabiden alde mintzatu zitzaion bere aita Sauli, esanez: «Errege jauna, ez zenioke gaitzik egin behar zeure zerbitzari Dabidi, berak ere ez baitizu gaitzik egin. Beraren egintzak zure onerako izan dira guztiz. **5** Arriskuan jarri zuen bere bizia Goliat filistearra hil zuenean; horrela, garaipen handia eman zion Jaunak Israel osoari; zeuk ikusi zenuen eta poztu zinen. Zergatik egin behar duzu gaiztakeria hori, odol errugabea isuriz, Dabid arrazoirik gabe hilez?».

6 Entzun zuen Saulek Jonatanen esana eta zin egin zuen: «Ez da hilko, ez, ala Jauna!».

7 Deitu zuen Jonatanek Dabid eta hitz hauek guztiak eman zizkion aditzera. Gero, eraman zuen Dabid Saulengana eta, lehen bezalaxe, honen zerbitzuan gelditu zen Dabid.

Jonatanek Dabidi ihes egiten lagundu

20 **1** Dabidek ihes egin zuen Ramako Naiotetik ere, eta Jonatanengana jo zuen hitz egitera:

—Zer egin dut? Zein gaitz, zein bekatu egin diot zuen aitari, ni hil nahian ibiltzeko?

2 Jonatanek erantzun:

—Ez horixe, ez zara hilko! Gure aitak ez du egiten deus ere, ez handirik, ez txikirik, aurrez niri adierazi gabe. Horixe ezkutatuko ote dit, hain zuzen, aitak? Ezinezkoa da.

3 Dabidek zin ere egin zuen, esanez:

—Ongi daki zuen aitak begiko nauzula. Hau esango zuen bere baitan: «Ez dezala jakin honetaz deus ere Jonatanek, atsekabe ez dadin». Hara, Jauna bizi dela eta zu bizi zarela bezain egia da, heriotzaren eta nire artean pauso bat baizik ez dagoela.

4 Jonatanek, orduan, Dabidi:

—Zuk esana egingo dut zure alde!

5 Dabidek Jonatani:

—Bihar ilberri da, eta egun horretan erregearen ondoan eseri beharko nuke bazkaltzeko. Utzidazu joaten; landan gordea egongo naiz arratsaldera arte. **6** Zuen aitak nire galdera egiten badu, esaiozu: «Bere sorterri Belenera ahalbailehen joaten uzteko eskatu zidan Dabidek, urteroko oparia bere ahaide guztiekin egiteko». **7** «Ongi da» erantzungo balu, lasai nintzateke; haserretuko balitz, ordea, gauza jakina litzateke erabakia duela ni hondatzea. **8** Egidazu mesede hau zeure morroi honi; izan ere, ituna eginarazi didazu zeurekin Jaunaren izenean. Niregan inolako gaiztakeriarik baldin bada, hil nazazu zeuk; zertarako eraman ni zuen aitaren aurrera?

9 Jonatanek erantzun zion:

—Inola ere ez! Gure aitak zu hondatzea erabakia duela ziur jakiten badut, adieraziko dizut.

10 Dabidek galdetu zion Jonatani:

—Nork adieraziko dit, zuen aitak haserre erantzuten badizu? **11** Jonatanek Dabidi:

—Zatoz, goazen landara.

Eta biak landara atera ziren.

12 Jonatan honela mintzatu zitzaion Dabidi: «Israelen Jainko Jaunarengatik esaten dizut, bihar edo etzi, garai honetan, ikertuko ditudala gure aitaren asmoak. Zurekiko asmo onak baditu eta norbait berehala bidali eta adierazten ez badizut, **13** zigor nazala Jaunak gogor. Gure aitak zu hondatzeko asmotan irauten badu, berriz, adieraziko dizut eta ihes egiten utziko, bakean joan zaitezten. Izan bedi Jauna zurekin, gure aitarekin izan zen bezala. **14** Egund

hartan, bizi baldin banaiz, har nazazu onez, Jaunak nahi bezala. Hila baldin banaiz, berriz, **15** ez ukatu inoiz zeure onginahia nire senitarteari, Jaunak Dabiden etsai guztiak banan-banan lurretik suntsiaraziko dituenean».

16 Honela, Jonatanek ituna egin zuen Dabiden etxearekin, esanez: «Eska biezaizkio Jaunak kontuak Dabidi; hobeki esan, beronen etsaiei».

17 Jonatanek zin egin zion berriro Dabidi, elkarri zioten maitasunagatik, bere burua bezain maite baitzuen. **18** Jonatanek esan zion gero Dabidi: «Bihar ilberri-jai da eta han ez zaudela nabarituko dute, zure jarlekua hutsik egonen baita. **19** Etzi, jaitsi zaitetz eta gorde, lehengo hartan ezkutatu zinen toki berean. Egon jarririk Etzel harriaren ondoan. **20** Hiru gezi jaurtikiko ditut alde horretarantz, jo-puntura botatzen ariko banintz bezala, **21** eta morroia bidaliko dut, esanez: "Hoa eta bila itzak geziak". Morroiari "Hi baino honantzago dituk geziak, har itzak" esango banio, orduan etor zaitetzke, dena bakean izango baita. Ez da arriskurik izango, ala Jauna! **22** Baina mutilari "Hi baino harantzago dituk geziak" esango banio, zoaz ihesi, Jaunak bidaltzen zaitu eta. **23** Biok elkarri eman diogun hitzaz, berriz, izan bedi Jauna gu bion artean testigu betierean».

24 Ezkutatu zen, bada, Dabid landan. Ilberri-jai heldzean, jarri zen erregea otordurako, bazkaltzeko. **25** Ohi zuen tokian jarri zen erregea, horma ondoko jarlekuan. Jonatan jaiki egin zen. Abner Saulen aldamenean eseri zen. Dabiden tokia, berriz, hutsik zegoen. **26** Egun hartan Saulek ez zuen deus ere esan, berekiko pentsatuz: «Ustekaberen bat izango zuen. Ez zen garbi egongo, ez zituen garbikuntzak egingo».

27 Biharamunean, ilberri ondoko bigarren egunean, berriro ere Dabiden tokia hutsik zegoen. Saulek esan zion bere seme Jonatani:

—Zergatik ez da etorri bazkaltzera Jeseren semea ez atzo eta ez gaur?

28 Jonatanek erantzun zion:

—Belenera joateko baimena eskatu zidan arren eta arren. **29** Honela esan zidan: «Utzidazu joaten, otoi; senitartekoon oparia eskaini behar baitugu herrian, eta anaiak joateko agindu dit. Orain, beraz, begiko baldin banauzu, utzidazu, arren, anaia ikustera joaten». Horregatik, ez da etorri erregearen mahaira.

30 Haserretu zitzaion Saul Jonatani, eta esan zion:

—Sasikumea halakoa! Banekian, bai, Jeseren seme hori maite huela, heure buruarantz eta heure amarentzat lotsagarri haiz horrek! **31** Jeseren seme hori lurrean bizi dadin arte, ez haiz seguru izango, ez hi, ez hire erregetza. Bilarazi eta ekardak oraintxe bertan, hil beharra dik eta!

32 Jonatanek ihardetsi zion bere aita Sauli:

—Zergatik du hil beharra? Zer egin du, bada?

33 Saulek lantza hartu zuen, semea jotzeko asmoz. Jonatanek ikusi zuen, beraz, erabakia zuela aitak Dabid hiltzea, **34** eta haserre bizitan jaiki zen mahaitik, eta ez zuen deus ere jan ilberri-jaietako bigarren egun hartan. Oso atsekabetua zegoen, aitak Dabid iraindu zuelako.

35 Biharamun goizean landara joan zen Jonatan, Dabidekin aurrez erabaki bezala. Mutil koskor bat zeraman berekin. **36** Jonatanek diotso mutilari:

—Hoa bizkor; bilatu jaurtikiko ditudan geziak!

Mutikoa lasterka zihoalarik, jaurtiki zuen Jonatanek gezia, mutikoa baino harantzago joateko eran. **37** Jonatanek, botatako gezi-raino mutikoa heltzen ari zenean, oihu egin zion atzetik, esanez:

—Hi baino harantzago zegok gezia!

38 Berriz ere oihu egin zion Jonatanek atzetik mutikoari:

—Bizkor! Habil agudo! Ez hadi geldi!

Hartu zuen Jonatanen morroiak gezia eta bere nagusiarengana itzuli zen. **39** Morroiak

ez zekien zer gertatzen zen; Jonatanek eta Dabidek bakarrik zekiten. **40** Jonatanek eman zizkion mutikoari bere izkiluak eta esan zion:

—Hoa, eraman hirira.

41 Mutikoa joatean, atera zen Dabid hegaldetik eta lurreraino makurtu zen, hiru bider ahuspeztuz. Besarkatu zuten elkar, eta negar egin zuten elkarrekin. **42** Jonatanek esan zion Dabidi: «Zoaz bakean. Jaunaren izenean egin diogu zin elkarri. Izan bedi Jauna betierean gu bion artean, eta gu bion ondorengoan artean».

Dabidek bizia barkatu *Sauli*

24 **1** Dabid handik igo eta En-Gediko haitzarteetan gelditu zen. **2** Filistearrak borrokatzetik itzultzean, esan zioten Sauli: «En-Gediko eremuan duzu Dabid».

3 Hartu zituen Saulek hiru mila gizon, Israel osoan aukeratuak, eta Dabid eta honen gizonen bila joan zen Tzure-Jeelinera, hau da, «Basahuntzen Harkaitzetara». **4** Bide ondoan zegoen ardi-eskorta batera heltzean, leize-zulo batean sartu zen Saul sabela hustutzera. Leize hartantxe zeuden, hain zuzen, barru-barruan gorderik, Dabid eta beronen gizonak. **5** Hauek esan zioten Dabidi:

—Gaur bete da Jaunak esan zizun hura: «Zure esku uzten dut zure etsaia; egiozu egokien iruditzen zaizuna».

Jaiki zen Dabid eta, isil-isilik, Saulen soingainekoaren ertza ebaki zuen. **6** Bihotzeko harra sentitu zuen orduan, Saulen soingainekoaren ertza ebaki zuelako. **7** Eta esan zien bere gizoni:

—ezta inola ere! Ezin diot halakorik egin ene jaunari, Jaunak gantzutu duenari. Ezin diot eskurik erantsi, Jaunaren gantzutua baita.

8 Hitz hauez geldiarazi zituen Dabidek bere gizonak eta debekatu egin zien Sauli erasotzea. Jaiki zen Saul, leize-zulotik atera eta bere bideari lotu zitzaion berriro. **9** Ondoren, jaiki zen Dabid ere, leizetik atera eta oihu egin zuen Saulen atzean:

—Ene errege jauna!

Saulek atzera begiratu zuen. Dabid, lurreraino makurtuz, ahuspeztu egin zitzaion. **10** Esan zion, orduan, Dabidek Sauli:

—Zergatik entzuten diozu Dabid zu hondatu nahian dabilela diotsun jendeari?

11 Une honetan zeure begiz ikus dezakezunez, nire esku utzi zaitu gaur Jaunak leize-zuloan. Zu hiltzeko esaten zidaten, baina errukitu egin natzaizu, neure buruari hau esanez: «Ez diot erantsiko eskurik nire jaunari, Jaunak gantzutua baita». **12** Hona hemen, ene aita, hona zure soingainekoaren ertza nire eskuan. Soingainekoaren ertza ebaki, bai, baina zu ez zaitut hil. Ohar zaitetz eta jakizu, ez dudala asmo txarrik, ez maltzurkeriarik, eta ez dizudala kalterik egin. Zu, aldiz, nire bila zabilta bizia kentzeko.

13 Izan bedi Jauna gu bion artean epaile! Mendeka nazala Jaunak zure bidez! Baina nik ez dizut eskurik erantsiko. **14** Esaera zaharrak dioena: «Gaiztoek gaiztakeria». Nik, ordea, ez dizut eskurik erantsiko. **15** Noren bila zabilta, zu, Israelgo errege hori? Noren atzetik zoaz? Zakur akabatua-ren atzetik? Arkakusoren baten atzetik? **16** Izan bedi Jauna gu bion artean epaile, erabaki beza berak zure eta nire artean; azter eta zain beza nire auzia, eta aska nazala zure eskuetatik!

17 Dabidek hitz hauek bukatzean, esan zion Saulek:

—Zure ahotsa al dut hori, Dabid, ene seme?

Eta oihuka, negarrari eman zion Saulek.

18 Gero, esan zion Dabidi:

—Ni baino zuzenagoa zara. On baizik ez didazu egin; nik, berriz, gaitza itzuli dizut.

19 Gaur bertan, agerian utzi duzu on baizik ez didazula egin, Jaunak zure esku utzi

nauen arren, ez bainauzu hil. **20** Gizon batek bere etsaia aurkitu eta utziko ote lioke bere bidetik joaten? Ordain diezazula Jaunak zuk gaur niri egindako ongia. **21** Orain, badakit zu izanen zarela errege, eta Israelgo errege-zak zure eskuetan iraungo duela. **22** Egidazu zin, Jaunaren izenean, ez dituzula nire ondorengoak suntsituko, ezta nire izena ezabatuko ere nire aitaren senitartetik.

23 Zin egin zion Dabidek Sauli. Ondoren, Saul etxera joan zen, eta Dabid bere gizonekin haitzarteetara igo.

Saulek emakume hilazti bati kontsulta egin

28 ³ Hila zen Samuel; eginak zizkion Israel osoak hiletak eta ehortzia zuten bere hiri Raman. Saulek, bestalde, uxatuak zituen hilaztiak eta igarleak.

⁴ Filistearrek bildu eta Xunemen ezarri zituzten guduexolak. Saulek ere bildu zuen Israel osoa eta Gilboan ezarri zituen guduetxolak. ⁵ Saul, filistearren kanpalekua ikustean, beldurtu egin zen eta bihotza dardaratu zitzaion. ⁶ Kontsulta egin zion Saulek Jaunari; honek, ordea, ez zion erantzun, ez ametsetan, ez Urin-en bidez, ezta profeten bidez ere. ⁷ Orduan, esan zien Saulek bere laguntzaileei:

—Bilatu hilazti-ahalmena dukeen emakumeren bat, berarengana joan eta kontsulta egiteko.

Laguntzaileek erantzun zioten:

—Bada Endor-en hilazti-ahalmena duen emakume bat.

⁸ Aldatu zuen Saulek bere itxura beste soineko batzuk jantziz eta bi gizonekin joan zen. Gauzez emakumearengana heldu eta esan zion Saulek:

—Igariezadazu etorkizuna, hilei dei egin ez. Agerrarazi esango dizudan hildakoa.

⁹ Emakumeak erantzun zion:

—Badakizu zer egin zuen Saulek: desagerarazi egin zituen igarleak eta hilaztiak. Ni hil nahian al zabilta?

¹⁰ Zin egin zuen Saulek Jainkoarengatik, esanez:

—Jauna badela bezain egia da ez zaizula inolako gaitzik etorriko hori egiteagatik.

¹¹ Emakumeak, orduan:

—Nor nahi duzu agerraraztea?

Saulek erantzun:

—Agerrarazi Samuel.

¹² Emakumeak, Samuel ikusi zuelarik, garrasi handia egin eta esan zion Sauli:

—Zergatik engainatu nauzu? Saul zara zu!

¹³ Erregeak erantzun zion:

—Ez izan beldur. Zer ikusten duzu?

Emakumeak Sauli:

—Espiritu bat dakusat lurpetik igotzen.

¹⁴ Saulek:

—Nolakoa da?

Emakumeak:

—Gizon zaharra, soingainekoz jantzia.

Antzeman zion Saulek Samuel zela, eta lurreraino makurtuz ahuspeztu egin zitzaion.

¹⁵ Samuelek esan zion Sauli:

—Zergatik asaldatu nauzu igoaraziz?

Saulek erantzun:

—Oso larri nago. Filistearrak borrokan ari zaizkit, eta Jainkoa urrundu egin zait; ez dit erantzun nahi, ez profeten bidez, ez ametsen bidez. Zer egin behar dudan erakuts diezadazu egin dizut dei.

¹⁶ Samuelek erantzun zion:

—Jauna urrundu baldin bazaizu eta kontra jarri, zertarako egin niri kontsulta?

¹⁷ Nire bitartez esan zuena bete du Jaunak: zure eskuetatik erregetza kendu eta beste bati eman dio, Dabidi. ¹⁸ Ez zenuen bete Jaunaren esana, ez zenion erakutsi Amaleki Jaunaren haserre gorria. Horregatik egin du orain hau Jaunak. ¹⁹ Israel ere filistearren eskuetara emango du Jaunak zurekin batera. Bihar zure semea eta biok nirekin izanen zarete, eta Israelen gudarostea ere filistearren eskuetara emango du Jaunak. ²⁰ Bat-batean,

Samuel lehen liburua 28,21

Saul luze erori zen lurrera, Samuelen hitzek izaturik. Indarrik gabe zegoen, ez baitzuen deus ere jan egun osoan eta gau osoan.

21 Hurbildu zitzaion Sauli emakumea eta, hain larritua ikusirik, esan zion:

—Nik, zure mirabe honek, entzun dut zure hitza eta arriskuan jarri dut neure bizia, zure esana betetzearren. **22** Orain, otoi, entzun zuk ere mirabe honen hitza. Ogi-puska bat ekarriko dizut; jan ezazu, indarrak hartzeko eta bideari ekin ahal izateko.

23 Saulek ezetz zioen:

—Ez dut jango!

Zerbitzariak eta emakumea, ordea, esan eta esan ari zitzaizkionez, makurtu egin zen haien esanetara. Lurretik jaiki eta etzaulkian jarri zen. **24** Bazuen emakumeak etxean zekor gizendua; hil zuen berehala; ogi-irina hartu eta egin zuen oreka eta erre zituen opil batzuk. **25** Atera zizkien Sauli eta honen zerbitzariari. Jan zuten, bada, jaiki ziren eta gau hartan bertan alde egin zuten.

Samuel

bigarren liburua



Samuel izeneko bigarren liburu honek Dabiden erregealdia kontatzen digu. Dabidek Sauli eta Jonatani egin zien hileta-kantua bilduz hasten da. Berehala, Judaren leinuko —bere leinuko— errege izendatu zuten Dabid Hebron hirian. Saulen seme Ix-Boxet, aldiz, Israelgo errege egin zuten Mahanaim hirian; baina hau hil zutenean, Dabid gertatuko zen Israel osoko errege (1-4 kap.).

Dabid eta Betsabe

11 ¹ Hurrengo urtean, erregeek guduari ekin ohi dioten garaian, Dabidek Joab bidali zuen bere ofizialekin eta Israelgo gudari guztiekin. Amondarrak hondatu zituzten eta Raba hiria inguratu. Bitartean Dabid Jerusalemen gelditu zen.

² Arratsalde batez, ohetik jaikirik eta jau-regiko etxe gainean harat-honat zebilen Dabid. Etxe gainetik emakume bat ikusi zuen bainatzen. Oso ederra zen, ³ eta nor zen jakitera bidali zituen batzuk. Erantzun hau ekarri zioten:

—Betsabe da, Eliamen alaba eta Urias hititaren emaztea.

⁴ Orduan, Dabidek mandatariak bidali zituen, emakume hura ekar ziezaioten. Etortzean, Dabid berarekin etzan zen; hilerokoaren garbikuntza eginberria zen emakumea. Ondoren, bere etxera itzuli zen

Betsabe. ⁵ Haurdun gertatu zelarik, Dabidi jakinarazi zion, esanez:

—Haurdun nago.

⁶ Orduan, mandatu hau bidali zion Dabidek Joabi:

—Bidaliezazu Urias hitita.

Eta Joabek Dabidengana bidali zuen Urias. ⁷ Hau etortzean, Joab eta gudarostea ongi al zebiltzan eta gudua nola zihoan galdetu zion Dabidek. ⁸ Gero, esan zion:

—Jaitsi zeure etxera eta garbitu oinak.

Urias jauregitik atera zenean, erregaldea bidali zioten. ⁹ Uriasek, ordea, jauregiko ate ondoan egin zuen lo, bere jaunaren gaineko morroiekin batera, bere etxeraino jaitsi gabe. ¹⁰ Etxera ez zela joan jakinarazi ziotenean, esan zion Dabidek Uriasi:

—Ez al duzu bide luzea egin? Zergatik ez zara, bada, etxeraino jaitsi?

¹¹ Uriasek Dabidi:

—Bai Jaunaren kutxa, bai Israel eta Judako gudariak oihal-txaboletan daude;

Joab ene jauna ere bere zerbitzariekin lur gorrian etzaten da. Neure etxean sartuko ote naiz, bada, ni, jan-edanean aritzeko eta emaztearekin etzateko? Ez, alajaina! Ez dut behin ere horrelakorik egingo!

12 Dabidek, orduan, Uriasi:

—Geldi zaitez gaur hemen. Bihar utziko dizut joaten.

Egun hartan, beraz, Jerusalemengelditu zen Urias; biharamunean, **13** berekin jatera eta edatera deitu eta mozkorrazo egin zuen Dabidek. Arratsean atera eta bere jaunaren morroiekin lotaratu zen Urias, etxera joan gabe. **14** Eguna argitu zuenean, Dabidek gutuna idatzi zion Joabi eta Uriasekin bidali. **15** Hau zioen gutunean: «Ipin ezazue Urias aurreneko lerroan, borroka gogorrenik dagoen tokian eta zuek egin atzera, jo eta hil dezaten».

Urias hila

116

16 Hala, hiria inguratzen ari zelarik, bai baitzekien non ziren etsairik gogorrenak, hantxe ipini zuen Joabek Urias. **17** Hiriko gizonak irten eta eraso egin zioten Joabi. Han erori ziren Dabiden gudari eta gudalburu batzuk, bai eta Urias hitita ere. **18** Albisteak bidali zizkion Joabek Dabidi, guduan gertatuaren berri emanez. **19** Eta hau agindu zion mezulariari: «Guduari buruzko berri guztiak eman ondoren, **20** behar bada, haserretu egingo da erregea eta esango dizu: “Zertarako hurbildu zarete hiriraino borrokara?” **21** Ez al dakizue harresi gainetik jaurtika egiten dutela? Ez al zarete oroitzen nola hil zuen emakume batek Tebetz hirian Jerubexeten seme Abimelek, harresi gainetik errotarri bat jaurtikiz? Zergatik hurbildu zarete harresiraino?” Orduan, zuk erantzun: “Zure zerbitzari Urias hitita ere hila da».

22 Abiatu zen mezularia eta, heldu zenean, Joaben agindua adierazi zion Dabidi.

23 Esan zion mezulariak Dabidi:

—Hango gizonak gu baino gogorragoak ziren. Irtenaldia egin zuten gure kontra zelai zabalera. Guk, aldiz, kontraerasoa egin genien hiri-sarreraraino. **24** Arkulariek jaurtiki zituzten geziak zure gudarien aurka harresi gainetik eta zure gudarietariko batzuk hil zituzten. Zure zerbitzari Urias hitita ere hil zuten.

25 Dabidek esan zion mezulariari:

—Esaiok Joabi: «Ez kezkatu horregatik, ezpatak batean bata eta bestean bestea irensuten baitu. Areagotu eraso hiriaren kontra eta mendera ezazue». Emaiok horrela adore Joabi.

26 Jakin zuen Uriasen emazteak bere senarra hil zela eta negar egin zuen haren-gatik. **27** Dolualdia buruturik, Dabidek emakumea etxera etorrarazi, jauregian hartu eta bere emazte egin zuen; eta semea sortu zion. Jaunak, ordea, ez zuen atsegin izan Dabidek egina.

Gabaondarrak eta Saulen senitartekoak

21 **1** Dabiden garaian, hiru urtez iraun zuen gosetea izan zen. Dabidek Jaunari kontsulta egin zion eta Jaunak erantzun:

—Odola zor dute oraino Saulek eta beronen senitartekoe, gabaondarrak hil zituztelako.

2 Erregeak gabaondarrei dei egin zien, beraiekin mintzatzeko. Gabaondarrak ez ziren israeldar, amortarren artetik bizirik geldituak baizik. Egina zuten hitzarmena israeldarrekin; baina Saulek, Israel eta Judakoenganako gehiegizko axolaz, galdu egin nahi izan zituen haiek. **3** Dabidek esan zien gabaondarrei:

—Zer egin dezaket zuen alde? Zerez ordain diezazueket, Jaunaren ondarea bedeinka dezazuen?

4 Gabaondarrak erantzun zioten:

—Saulekin eta beronen senitartekoekin duguna, ez da zilar, ez urre-kontua; ezta Israelgo inor hilaraztea ere.

Erregeak berriro:

—Nahi duzuen a eginen dizuet.

5 Haiek esan zioten:

—Gizon hark hondatu egin gintuen; hala uste izan zuen bederen: suntsituak ginela Israelen lurralde osoan bizi direnen artetik.

6 Emazkiguzu orain haren ondorengoetako zazpi gizon, eta hil egingo ditugu Jaunaren aurrean, Saulen hiria den Gibean, Jaunak hautatu zuenaren hirian.

Erregeak esan zien:

—Emango dizkizuet, bada.

7 Mefi-Boxeti, ordea, Saulen seme Jonatanen semeari, barkatu egin zion, Jonatanek eta Dabidek Jaunaren aurrean egina zuten zinarengatik. **8** Hartu zituen, aldiz, Aiaren alaba Ritzpak Sauli eman zizkion bi semeak, Armoni eta Mefi-Boxet, eta Saulen alaba Mikalek Adrieli, Meholako Bartzilairen semeari, eman zizkion bost semeak, **9** eta gabaondarren esku utzi zituen. Hauek urkatu egin zituzten mendian, Jaunaren aitzinean. Zazpiak batera hil ziren, uzta-aroaren lehen egunetan, garagarra biltzen has-tean.

10 Aiaren alaba Ritzpa zaku bat hartu eta harkaitzaren gainean gelditu zen, uzta-aroaren hasieratik gorpuen gainera euria egin zuen arte. Egunez ez zien uzten zeruko hegaztiei haien gainean kokatzen, ezta basapiztiei ere gauez.

11 Aiaren alaba eta Saulen ohaide Ritzpak egin zuena Dabidi adierazi ziotenean, **12** joan eta Saulen eta beronen seme Jonatanen hezurak Galaadeko Jabexeko bizilagunen eskuetatik hartu egin zituen; izan ere, ostuak zituzten hauek Bet-Xango plazatik, Saul Gilboan hil ondoren filistearrek zintzilikatu zituzten tokitik. **13** Gero, Saulen eta beronen seme Jonatanen hezurak handik eraman zituen Dabidek eta urkatutako haien hezurrekin bildu zituen.

14 Azkenik, Saulen eta beronen seme Jonatanen hezurrekin batera ehortzi zituzten Tzelan, Saulen aita Kixen hilobian, Benjaminen lurraldean. Erregeak agindu guztia egin zuten. Honen ondoren, Jainkoa errukitu egin zen herrialdeaz.

Gatazkak filistearren aurka

(1 Kro 20,4-8)

15 Hasi ziren berriro borrokan filistearrak israeldarren aurka. Jaitsi zen Dabid bere gizonekin filistearren kontra gudukatzer a, baina nekatu egin zen. **16** Refatarren ondorengoetarikoa zen Ixbi-Benobek Dabid hilko zuela esan zuen; gudu-jantzi berria zeraman; lantzaren punta hiru kilo baino gehiago zen. **17** Tzeruiaren seme Abixaik, ordea, erregeari laguntzera etorri, filistearra jo eta hil egin zuen. Orduan, zin eragin zioten bere gizonak Dabidi:

—Ez zara aurrerantzean gudura aterako gurekin, Israelen zuzia itzal ez dadin.

18 Gerora, beste gatazka bat izan zen God hirian filistearren kontra. Huxako Sibekaik hil egin zuen Saf, refatarren ondorengoa hau ere.

19 God hirian filistearren kontra izan zen beste gatazka batean, Belengo Jairren seme Elhananek Gateko Goliat hil zuen; honen lantza-kirtena ehuleen ardatza adinakoa zen.

20 Izan zen gero beste gatazka bat ere Gat hirian. Bazen han gizon erraldoi bat eskuoinetan sein a behatz, orotara hogeita lau behatz zituena, refatarren ondorengoa.

21 Erronka egin zien israeldarrei; baina Jonatanek, Dabiden anaia Ximearen semeak, hil egin zuen.

22 Lau erraldoi haiek refatarren ondorengoak ziren, Gat hirikoak. Dabidek eta beronen gizonak hil zituzten.

Erregeak I



Lehen liburua, 2 Sm 9-20ko kontraera burutuz, Dabiden azken urteak eta heriotza kontatuz hasten da (1-2 kap.). Hil aurretik, Dabidek bere seme Salomon utzi zuen ondorengo errege. Salomonek erreinuaren antolakuntzari eta tenpluaren eta jauregien eraiketari ekin zien (3-11 kap.).

118

Salomon, faraoiaren alaba batekin ezkondu

3 ¹ Egiptoko errege faraoiaren senitarte-ko egin zen Salomon, haren alaba emaztetzat hartuz. Dabiden Hirira eraman zuen, harik eta bere jauregia, Jaunaren etxea eta Jerusalem inguruko harresiak eraiki arte.

² Herriak muinoetan eskaini ohi zituen opariak, artean ez baitzuten Jaunari eginiko tenplurik. ³ Maite zuen Salomonek Jauna eta betetzen zituen bere aita Dabiden arauak; alabaina, berak ere muinoetan eskaini ohi zituen opariak eta erretzen intsentsua.

Salomonek Jainkoari jakinduria eskatu

⁴ Behinola, Gabaonera joan zen erregea opariak eskaintzera, huraxe baitzen kultu-

lekurik nagusiena. Mila erre-opari eskaini zituen Salomonek aldare gainean. ⁵ Gau hartan Jauna agertu zitzaion ametsetan Gabaonen, eta esan zion:

—Eskatu nahi duzuna, eta emanen dizut.

⁶ Salomonek erantzun zion:

—Onginahi handia izan zenuen zeure zerbitzari Dabid gure aitarentzat, berak zure aurrean leial, zuzen eta bihotz zintzoz jokatu zuelako. Eta onginahi hori gorde egin diozu, gaur haren aulkian jarria dagoen seme hau berari emanaz. ⁷ Ene Jainko Jauna, gure aita Dabiden ordeztu ni, zeure zerbitzari hau, egin nauzu errege. Ni, berriz, mutil gaztea nauzu eta gobernatzen ikasi gabea. ⁸ Zehazki zenbatuezin ahala-ko herri ugaria hautatu zenuen, eta neu egin nauzu herri horren buru. ⁹ Emaidazu adimen argia zure herria gobernatzeko, eta ona eta txarra bereizteko. Bestela, nola izan zure herri handi hau gobernatzeko gauza?

¹⁰ Atsegin izan zuen Jaunak Salomonen eskari hau. ¹¹ Orduan, Jainkoak esan zion Salomoni:

—Halako eskaria egin didazulako eta zeuretzat urte asko, aberastasuna edota zeure etsaien heriotza eskatu orde, zuzen gobernatzeko adimena eskatu didazulako, **12** emango dizut eskatu duzuna. Begira, zure aurretik inork izan ez dituen eta zure ondoren ere inork izango ez dituen bezainbateko jakinduria eta adimena damazkizut. **13** Gainera, eskatu ez duzuna ere emango dizut: aberastasuna eta ospea, zure egunetan inongo erregek izango ez duen neurrian. **14** Zuen aita Dabid ibili zen bezala zu ere nire bideetan zintzo eta nire arau eta aginduak betez ibiltzen bazara, bizitza luzea emanen dizut.

15 Esmatzean, Salomon ohartu zen Jauna ametsetan agertu zitzaiola. Jerusalemenera itzuli eta Jaunaren itun-kutxaren aurrera sarturik, erre-opariak eta elkertasun-opariak eskaini zituen. Gero, otordua egin zuen bere zerbitzari guztiekin.

Salomon epaile zuhurra

16 Aldi hartan, bi emagaldutxo etorri ziren erregearen aurrera. **17** Hau zioen haietarik batek:

—Otoi, ene jauna! Hara, emakume hau eta biok etxe berean bizi gara, eta hau etxean zela haurra izan nuen nik. **18** Ni haurraz erdi eta handik hiru egunera, emakume honek ere haurra izan zuen. Biok batera geunden; ez zen beste inor gurekin etxean, gu biok izan ezik. **19** Gau batez hil egin zen emakume honen semea, berak ohean azpian hartu zuelako. **20** Gauerdian jaiki eta, ni lo nengoen bitartean, nire ondotik nire haurra hartu eta bere ondoan etzan zuen; bere seme hila, berriz, nire ondoan ezarri. **21** Goizean, nire semeari bularra emateko jaiki nintzenean, hila zegoen. Eguna argitzean, ordea, begiratu nion ongi eta ikusi nuen ez zela nik izandako semea.

22 Beste emakumeak, aldiz, hau zioen:

—Ez! Nire semea dun bizi dena, eta hirea hildakoa!

Besteak, berriz:

—Ez! Hildakoa dun hirea; bizi dena nirea.

Horrela ari ziren ezbaian, erregearen aurrean.

23 Orduan, erregeak esan zuen:

—Beraz, batak dio berea duela bizi dena eta bestearena hildakoa; besteak, berriz, alderantziz.

24 Eta hau agindu zuen erregeak:

—Ekardazue ezpata!

Ekarri zioten ezpata erregeari eta **25** erabaki hau eman zuen: —Erdibi ezazue bizi den haurra, eta emaezue erdibana.

26 Orduan, haur biziaren amari hunkitu zitzaion barrua bere semearengatik eta esan zion erregeari:

—Otoi, ene jauna! Emaiozu horri haur bizi; baina ez hil inola ere.

27 Orduan, erregeak esan zuen:

—Ez hil haurra. Emaiozue lehenengoari; horixe da haurraren ama.

28 Israel osoak jakin zuen erregearen erabakiaren berri, eta ordudunik begirune handia izan zioten, zuzen epai zezan Jainkoak nolako jakinduria eman zion ikusirik.

Tenpluaren eraikuntza

(2 Kro 3,1-14)

6 **1** Israeldarrak Egiptotik irten eta handik lauhun eta laurogei urtera, Salomonek Israelgo erregetzan lau urte zermatzala, bigarren hilabetean, Ziu hilean, hasi zen Salomon Jaunaren etxea eraikitzen. **2** Salomonek Jaunari eraiki zion etxe hura hogeita hamar metro zen luze, hamar metro zabal eta hamabost metro gora. **3** Tenpluko sala handiaren aurreko atalondoa hamar metro zabal zen —tenpluaren zabalera bera—, eta bost metro luze tenplu barnerantz. **4** Saredun leihoak eginarazi zituen

Salomonek tenplurako. **5** Tenpluaren inguru guztian, sala handiaren eta santutegiaren hornei atxikia, eraikuntza bat egin zuen, hiru solairukoa. **6** Beheko solairua bi metro eta erdi zabal zen, erdikoa hiru metro eta hirugarrena hiru metro erdi. Solairu bakoitzean tenpluko horma kanpoaldetik meheagoa zen, maila moduko batzuk eginez, eta maila hauen gainean ezarri zituzten habeak, tenpluko hormak zulatu beharrik gabe.

7 Jaunaren etxea eraikitzeke, harrobian bertan landuriko harriak ezarri zituzten; horrela, ez zen mailu, pikatxoi edota burdinazko beste tresna-hotsik entzun tenplua eraikitzean. **8** Erdiko solairurako sarrera tenpluaren eskuinaldeko saihetsean zegoen; eskailera biribil batetik igo zitekeen erdiko solairura eta hemendik gorenakora. **9** Tenplua eraikitzen bukatu zutenean, sabaia zedrozko habez eta oholez jantzi zuen. **10** Tenpluari inguru guztian erantsi zion eraikuntza hartako solairu bakoitzak bi metro eta erdiko altuera zuen; zedrozko habez zeuden tenpluko hormari atxikiak.

11 Orduan, honela mintzatu zitzaion Jauna Salomoni: **12** «Etxe hau egiten ari zaitzaizkit. Hara, nire legee dagokienez ibiltzen bazara, nire erabakiak bete eta nire aginduak gordetzen badituzu, beraiei dagokienez jokatzuz, beteko dizut zuen aita Dabidi eman nion hitza. **13** Israeldarren artean biziko naiz eta ez dut utziko Israel neure herria».

Jaunaren etxe-barrua

(2 Kro 3,8-14)

14 Salomonek, Jaunaren etxea eraikitzen bukatu zuenean, **15** zedrozko oholez estali zituen tenplu barneko hormak, behetik hasi eta goiko habeetaraino, barne osoa zurez jantziz. Tenpluaren behea ziprez-oholez estali zuen. **16** Tenpluaren barneneko azken

hamar metroak, berriz, zedrozko oholez estali zituen, behetik hasi eta goiko habeetaraino, eta toki hori santutegia, hots, toki santu-santua izateko antolatu zuen. **17** Santutegi honen aurreko sala handia hogeita metro luze zen. **18** Tenplu barruko zedrozko oholtza hura fruitu- eta lore-xorta-irudiz apaindua zegoen. Dena zedrozkoa zen; ez zen harririk ikusten. **19** Tenplu barne-barneko toki hura, santutegia, Jaunaren itun-kutxa ezartzeko antolatu zuen Salomonek. **20** Santutegia hamar metro zen luze, hamar metro zabal eta metro bat gora, eta erre garbiz jantzi zuen Salomonek. Santutegiaren aurrez aurre zegoen aldarea, berriz, zedroz jantzi zuen. **21** Jaunaren etxe barnea ere erre garbiz estali zuen Salomonek, santutegia bezala, eta honen aurrean urrezko kateak ipini zituen. **22** Etxe oso-oso jantzi zuen urrez, bai eta santutegiaren aurrean zegoen aldarea ere.

23 Santutegirako olibo-zurezko hegadun izaki bi egin zituen, bosna metro luzekoak. **24** Lehenengo hegadun izakiaren hegoak, zein bata zein bestea, bina metro eta erdi ziren; hego-mutur batetik besteraino bost metro. **25** Beste hegadun izakia ere bost metro zen. Neurri eta tankera bera zuten bi izakiek. **26** Izaki biak bosna metro ziren gora. **27** Jaunaren etxeko santutegian ezarri zituen Salomonek hegadun izakiak, hegoak zabalik: bataren kanpoaldeko hegoak alde bateko horma ukitzen zuen eta bestearnak beste aldekoa; erdi aldeko bi hegalek, berriz, elkar ukitzen zuten tenpluaren erdialdean. **28** Hegadun izaki haiek ere urrez jantzi zituen.

29 Nola barruko hala kanpoko hormetan, inguru guztian, hegadun izaki-irudiak, palmondo eta lore-xorta-irudiak zizelkatu zituen. **30** Tenpluaren behea ere, nahiz barnean nahiz kanpoan, urrez estali zuen.

31 Santutegiaren sarrerarako olibo-zurezko ateak egin zituen. Ateburuak eta ate-zangoek bosna koska zituzten. **32** Bi ate-orriak olibo-zurezkoak ziren; haietan ere hegadun

izaki-irudiak, palmondo eta lore-xorta-irudiak zizelkatu zituen, guztiak urrez estaliz. **33** Sala handiko sarrerarako ere olibo-zurezko ate-zangoak egin zituen, baina lau alderdidunak; **34** ate-orriak zipres-zurezkoak ziren eta bina ate jiragarri zituzten. **35** Hauetan ere hegadun izakiak, palmondoak eta lore-xortak zizelkatu zituen, eta guztiak urrez estali.

36 Azkenean, harlanduzko hiru lerroko eta zedrozko habe-lerro bateko horma eraikiz, barneko ataria egin zuen.

37 Salomonen erregealdiko laugarren urteko Ziu hilean ezarri zituzten Jaunaren etxeko oinarriak, **38** eta hamaikagarren urteko Bul hilean, hots, zortzigarren hilabetean bukatu zuten oso-osorik, egitamu guztien arabera. Beraz, zazpi urtetan eraiki zuen tenplua Salomonek.

Akab, Israelgo errege

16 **29** Judako Asaren erregealdiko hogeita hemezortzigarren urtean hasi zen Omriren seme Akab Israelgo errege izaten. Hogeita bi urtez izan zen errege Samarian. **30** Omriren seme Akabek bere aurreko guztiek baino okerrago jokatu zuen Jaunaren begietan. **31** Nebaten seme Jeroboanen bekatu berak egitea aski ezta, Sidongo errege Etbaalen alaba Jezabel-ekin ezkondu zen. Baal sasijainkoa adoratu zuen eta beraren aitzinean ahozpeztu zen. **32** Jaurretxea eraiki zion Baali Samarian eta aldea ezarri bertan. **33** Axera jainkosaren ohorezko zutoin sakratua ere ezarri zuen. Honela jokatu, bere aurretik Israelgo errege izan ziren beste guztiek baino gehiago haserrearazi zuen Jauna, Israelen Jainkoa.

34 Aldi hartan berean, Betelgo Hiel-ek Jeriko berreraiki zuen; oinarriak bota zituen bere seme zaharrena, Abiran, galdu zuen, eta atea ezarri zituen bere seme gazteena, Segub. Honela bete zuen Jaunak Nun-en seme Josueren bitartez esana.

Eliasek lehortea iragarri

17 **1** Galaad eskualdean zegoen Tixbe herriko Eliasek esan zion Akab erregeari: «Ala Jauna, Israelen Jainkoa! Haren zerbitzari nauzu ni. Horra, ez du ihintzik, ez euririk egingo hurrengo urteetan, nik agintzean baizik».

Elias Kerit errekarara

joan

2 Jaunak honela hitz egin zion Eliasi: **3** «Abia zaitez hemendik, zoaz ekialderantz eta gorde zaitez Jordan ibaiatz bestaldera dagoen Kerit erreka inguruan. **4** Errekatik edango duzu, eta zuri bertan jaten emateko agindu diet beleei».

5 Beraz, Elias abiatu eta, Jaunak agindu bezala, Jordan ibaiatz bestaldera dagoen Kerit errekan gelditu zen. **6** Beleek goizean ogia eta haragia ekarri ohi zioten, eta orobat arratsean ere, eta errekatik edaten zuen ura. **7** Aldi baten buruan, ordea, agortu egin zen erreka, lurralde hartan ez baitzuen euririk egin.

Elias eta Sareptako

alarguna

8 Jaunak honela hitz egin zion Eliasi: **9** «Ea, zoaz Sidongo Sareptara eta geldi zaitez bertan bizitzen. Zuri jaten emateko agindu diot hango emakume alargun bati».

10 Elias Sareptara joan zen. Hiriko ateetatik sartzean, emakume alargun bat ikusi zuen egurra biltzen. Dei egin eta esan zion:

—Ekardazu, arren, antosinean ur-pixka bat, edan dezadan.

11 Emakumea ur bila zihoanean, Eliasek dei egin eta esan zion:

—Ekardazu, arren, ogi-puska bat ere.

12 Emakumeak ihardetsi zion:

—Ala Jauna, zure Jainkoa! Ez dut batere ogirik; eskutada bat ogi-irin baizik ez dut katiluan, eta olio pittin bat pitxerrear. Zotzak biltzen ari nintzen, neure semearentzat eta biontzat ogi-pixka bat egin, jan eta gero hil gaitzen.

13 Eliasek esan zion:

—Ez izan beldurrik. Joan eta egin esan duzuna; baina egidazu aurrena niri sutopil-txo bat eta ekarri. Gero, egingo duzu semearentzat eta biontzat. **14** Hau baitio Jaunak, Israelen Jainkoak: «Ogi-irinaren katilua ez da hustuko, ezta oliontzia agortuko ere, Jaunak lur gainera euria egin dezan arte».

15 Joan zen, bada, emakumea eta egin zuen Eliasek esana. Eta luzaroan jan ahal izan zuten Eliasek, emakumeak eta beronen semeak. **16** Ogi-irinaren katilua ez zen hustu, ezta oliontzia agortu ere, Jaunak Eliasen bidez esana zuen bezala.

Elias eta alargunaren semea

17 Aldi baten buruan, etxekoandre haren semea gaixotu egin zen, oso larriki gaixotu ere, arnasarik gabe gelditzeraino. **18** Emakumeak esan zion Eliasi:

—Ez dut zurekin deus ere nahi, Jainkoaren gizon! Nire errua oroitaraztera eta nire semea hilaraztera etorri al zara?

19 Eliasek erantzun:

—Emadazu semea.

Hartu zion haurra magaletik, eraman zuen gora, bera bizi zen gelara, eta bere ohean etzan zuen. **20** Ondoren, honela egin zion dei Jaunari: «Jauna, ene Jainkoa, ni bere etxean hartu nauen alargun hau ere atseka-betu egin behar al duzu, semea hilaraziz?».

21 Gero, etzan zen hiru aldiz haurraren gainean eta dei egin zion Jaunari, esanez: «Jauna, ene Jainkoa, otoi, etor dakiola bizi-arnasa haur honi». **22** Entzun zuen Jaunak Eliasen deia eta etorri zitzaion bizi-arnasa haurrari eta birpiztu egin zen. **23** Eliasek, orduan, haurra hartu, etxe goiko gelatik jaitsi eta amari eman zion. Eliasek esan zuen:

—Hona! Bizi da zure semea!

24 Emakumeak erantzun zion Eliasi:

—Orain badakit Jainkoaren gizona zarena, eta zuk diozuna egiaz Jaunaren hitza dena.

Elias eta Baalen profetak

18 **1** Handik luzarora, lehortearen hirugarren urtean, honela hitz egin zion Jaunak Eliasi: «Zoaz Akab erregearengana; euria eginarazi behar dut lur gainera».

2 Elias Akabengana joan zen. Gosete handia zen Samarian.

3 Akabek Obadiasi, jauregizain nagusiar, dei egin zion. Obadias honek begirune handia zion Jaunari. **4** Jezabel erregina Jaunaren profetak suntsitzen ari izan zenean, Obadiasek ehun profeta hartu eta leizeetan gorde zituen berrogeita hamarnako taldetan, ura eta ogia eramanez.

5 Behin batez, Akabek esan zion Obadiasi:

—Ibil zaitez lurraldean zehar, iturri eta erreka guztiak ikusiz, ea larrerik aurkitzen dugun geure zaldi eta mandoei bizirik eusteko. Bestela, kito gure abereak!

6 Erdibanatu zuten lurraldea, ikustera joateko. Akab bide batetik joan zen eta Obadias beste batetik, nor bere aldetik. **7** Obadias bere bidetik zihoalarik, Elias atera zitzaion. Ezagutu zuen Obadiasek eta, lurre-raino ahozpeztuz, esan zion:

—Ene jauna, ez al zara zu Elias?

8 Eliasek erantzun:

—Bai, Elias naiz. Zoaz eta esan zeure nagusiari: «Hemen da Elias».

9 Obadiasek ihardetsi zuen:

—Zein oker egin dizut, ni Akaben eskuetara emateko? Hil nazan nahi al duzu?

10 Ala Jauna, zure Jainkoa! Hamaika lurralde eta erreinutara bidali izan du Akabek jendea zure bila. Eta nonbait bertan ez zinela esaten ziotenean, zin eginez baieztatu behar izaten zion lurralde edo erreinu hark ez zintuela aurkitu. **11** Eta orain, joan eta nire nagusiari: «Hemen da Elias» adierazteko esango didazu, bada? **12** Izan ere, ni zuregandik aldendu orduko Jaunaren espirituak eramanez egingo zaitu ez dakit nora eta ikusi zaitudala Akabi esan eta aurkitzen ez bazaitu, hil egingo nau. Izan gogoan gaztetandik diodala begirune Jaunari. **13** Ez al dizute zuri, ene jaun horri, adierazi Jezabel erregina Jaunaren profetak suntsitzen ari izan zenean zer egin nuen? Jaunaren ehun profeta gorde nituen leizeetan, berrogeita hamar nako taldetan, ogiz eta urez janaritutuz. **14** Eta orain, joan eta nire nagusiari «Hemen da Elias» adierazteko esango didazu, bada? Hil egingo nau!

15 Eliasek erantzun:

—Bere zerbitzari nauen Jaun ahalguztiduna bizi dela bezain egia da, ni gaur bertan agertuko naizela Akaben aurrera.

16 Obadiasek joan eta dena jakinarazi zion Akabi. Orduan, Akab Eliasengana joan zen. **17** Elias ikusi zuenean, esan zion Akabek:

—Hona hemen Israeli zorigaitza dakarkiona!

18 Eliasek ihardetsi:

—Ez naiz ni Israeli zorigaitza dakarkiona. Zu eta zure senitartekoak bai zaretela, Jaunaren aginduak baztertu dituzuelako, Baal idoloen ondoren joateko. **19** Bil itzazu israeldar guztiak niregana Karmel mendian, bai eta Jezabelen mahaian jaten duten Baal sasijainkoaren laurhun eta berrogeita hamar profetak eta Axera jainkosaren laurhunak ere.

20 Bilarazi zituen Akabek bai israeldar guztiak, bai profetak Karmel mendian. **21** Orduan, Eliasek herri osoarengana hurbildu eta esan zion:

—Noiz arte ibili behar duzue bi doinutara dantzan? Jauna Jainko baldin bada, jarraitu Jaunari, eta Baal Jainko baldin bada, jarraitu Baali!

Herriak ez zuen hitzik ere erantzun.

22 Eliasek, orduan:

—Jaunaren profeten artetik ni bakarra gelditu naiz; Baalen profetak, berriz, laurhun eta berrogeita hamar dira. **23** Bekarzikigute bi zekor. Aukera bezate horiek bat, zatikatu eta ezar bezate egur-sortaren gainean, baina surik eman gabe. Nik ere horixe bera egingen dut beste zekorrarekin: egur-sortaren gainean ezarri, baina surik eman gabe. **24** Orduan, zuek zeuen jainkoari dei egingo diozue; nik, berriz, Jaunari egingo diot dei. Sua bidaliz erantzungo duen Jainkoa izanen da egiazko Jainkoa.

Herri osoak erantzun zuen:

—Ederki esana!

25 Orduan, Eliasek esan zien Baalen profetei:

—Aukera ezazue zekorra eta prestatu zuek aurrena, zuek baitzarete ugarien. Egin dei zeuen jainkoari, baina ez eman su. **26** Hartu zuten, bada, eman zieten zekorra, prestatu zuten eta goizetik eguerdiraino Baali deika ari izan ziren, esanez: «Baal, erantzun!». Han ez zen, ordea, inolako ahotsik, ezta erantzungo zuenik. Dantzan ari izan ziren, egina zuten aldarearen inguruan.

27 Eguerdian iseka egiten hasi zitzairen Elias, esanez:

—Egizue dei ozenkiago! Jainkoa duk, eta oso lanpetua egongo duk, edo alde egin beharra izango zian edota bidaiari izango duk. Behar bada, lo egongo duk eta iratzarri beharra izanen dik.

28 Haiek, orduan, deidak handiagoak egiten zituzten eta, ohi zuten bezala, ebakiak egiten zizkioten beren buruari ezpataz eta zulakariz, gorputzean behera odola zeruela

gelditzeraino. **29** Eguerdi ostean, beren profetagintzan jarraitu zuten arratsaldeko oparia eskaintzeko ordurarte; han ez zen, ordea, inolako ahotsik izan, ezta erantzun-arrastorik ere.

30 Orduan, esan zion Eliasek herri osoari:

—Hurbil zakizkidade!

Herri osoa hurbildu zitzaion. Desegina zegoen Jaunaren aldarea berreraiki zuen Eliasek. **31** Hartu zituen hamabi harri, Jakobena —Jaunak «Israel izango duzu izena» esan zion haren— ondorengo leinu bakoitzeko bana, **32** eta harri haiez aldarea eraiki zuen Jaunarentzat. Aldarearen inguru guztian hogeita hamarren bat litro har zezakeen erretena egin ondoren, **33** antolatu zuen egurra, zatikatu zuen zekorria eta gainean ezarri. **34** Orduan, agindu zuen:

—Bete urez lau ontzi eta isuri erre-oparigai eta egurraren gainera.

Eta gero:

—Berriz ere bai!

Halaxe egin zuten berriro ere. Gero, esan zuen:

—Hirugarren aldiz!

Eta hirugarren aldiz egin zuten. **35** Han zihonan ura aldare inguru guztian, erretena betetzeraino.

36 Arratsaldeko oparia eskaintzeko orduan, Elias profetak aurreratu eta esan zuen: «Jauna, Abrahamen, Isaakena eta Israelen Jainkoa, adieraz ezazu gaur zu zarela Israelen Jainkoa, ni zure zerbitzaria naizela eta zure aginduz egin ditudala gauza hauek guztiak. **37** Erantzun iezadazu, Jauna, erantzun! Ikus dezala herri honek, Jauna, zu zarela Jainkoa, eta zuk itzularaziko diozula bihotza zeuregana».

38 Orduan, Jaunak sua bidali zuen eta dena kiskali: erre-oparigai, egurra, bai eta harriak eta errautsa ere, eta erreteneko ura idortu egin zuen. **39** Hau ikustean, herri osoa lurreraino ahozpeztu zen, esanez: «Jauna da Jainkoa! Jauna da Jainkoa!».

40 Eliasek esan zuen:

—Harrapa itzazue Baalen profetak! Ez dezala batek ere ihes egin!

Harrapatu zituztenean, Kixon errekarara jaitsarazi eta lepoa moztu zion Eliasek.

Behortearen bukaera

41 Gero, Eliasek esan zion Akabi:

—Zoaz jatera eta edatera, zaparrada handi baten hotsa sumatzen da.

42 Hala, Akab jatera eta edatera joan zen; bitartean, Karmel mendiaren gailurrera igo zen Elias eta ahozpeztu, aurpegia belaurtean jarriz. **43** Orduan, agindu zion bere mutilari:

—Igo eta begira itsasaldera.

Igo zen mutila eta esan zuen:

—Ez dago ezer.

Eliasek zazpi bider esan zion itzultzeko.

44 Zazpigarrenean morroiak esan zuen:

—Esku-arra beteko laino kokkor bat dator itsasaldetik.

Eliasek esan zion:

—Igo eta esaiok Akabi atontzeko gudu-gurdia eta jaisteko, zaparradak bidea itxi baino lehen.

45 Zerua geroz eta ilunago jarri zen, hodei eta aldagoi-haizearen eraginez, eta izugarrizko erauntsia egin zuen. Akab gudu-gurdira igo eta Izreelera joan zen. **46** Jaunaren indarrak eraginik, Elias jantzia gerrian lotu eta lasterka joan zen Akaben aurretik Izreeleraino.

Elias Horeb mendirantz

19¹ Akabek Jezabeli adierazi zion Eliasek egin zuen guztia eta Baalen profetak oro ezpataz hilarazi zituela. **2** Orduan, Jezabelek mezularia igorri zion Eliasi, esatera: «Zigor nazatela gogor jainkoek, bihar ordu berean bizia kentzen ez badizut, zuk profeta haiei kendu diezun bezala».

3 Beldurtu zen Elias eta ihesi joan, bere bizia salbatzeko. Judako Beer-Xebara heltzean, bertan utzi zuen bere mutila. **4** Bera, berriz, basamortuan aurrera joan zen eta egun osoan ibili. Azkenean, ipuru baten azpian eseri zen. Heriotza opa zion bere buruari. Hau zioen: «Aski da! Orain, Jauna, hartazazu ene bizia, ez bainaiz ni neure gurasoak baino hobea».

5 Gero, etzan zen eta loak hartu zuen ipuru haren azpian. Hortan, aingeru batek ukitu eta esan zion: «Jaiki eta jan!».

6 Begiratu zuen Eliasek eta horra non ikusten dituen, bere buru aldean, harri goritu baten gainean erretako sutopila eta antosin bat ur. Jan eta edan ondoren, etzan egin zen berriro. **7** Itzuli zen bigarren aldiz Jaunaren aingerua, ukitu eta esan zion: «Jaiki eta jan, oso bide luzea baituzu».

8 Jaiki zen Elias, jan eta edan zuen, eta janari haren indarrez berrogei egun eta berrogei gau ibili zen, Horeb-eraino, Jaunaren mendiraino. **9** Hara heltzean, leize-zulo batera sartu eta bertan eman zuen gaua.

Jaunak honela egin zion hitz:

—Zertan zaude hemen, Elias?

10 Eliasek erantzun:

—Jauna, Jainko ahalguztiduna, zureganako maiteminak erretzen nau, israeldarrek zurekiko ituna hautsi dutelako, zure aldareak hondatu eta zure profetak ezpataz hil dituztelako. Ni bakarra gelditu naiz, eta nire bila ere badabiltza bizia kentzeko.

11 Jaunak, orduan:

—Irtzen eta egon zutik mendian, Jaunaren aitzinean; Jauna igaroko da.

Jaunaren aurretik haize zakar indartsuak jo zuen; mendiak urratu eta haitzak zartatzen zituen. Jauna, ordea, ez zen haize hartan. Haizearen ondoren lurrikara izan zen; Jauna, ordea, ez zen lurrikara hartan. **12** Lurrikararen ondoren, sua; Jauna, ordea, ez zen su hartan ere. Suaren ondoren, zuzmur apal baten hotsa. **13** Entzun zuenean, Eliasek aurpegia estali zuen bere soingainekoaz; gero,

irten eta zutik gelditu zen leizearen ahoan, eta ahots batek galdegin zion:

—Zertan zaude hemen, Elias?

14 Eliasek erantzun:

—Jauna, Jainko ahalguztiduna, zureganako maiteminak erretzen nau, israeldarrek zurekiko ituna hautsi dutelako, zure aldareak hondatu eta zure profetak ezpataz hil dituztelako. Ni bakarra gelditu naiz, eta nire bila ere badabiltza bizia kentzeko.

15 Jaunak esan zion:

—Tira, itzul zaitez zeure bidetik, basamortuan barrena, Damaskoraino. Hara heltzean, gantzutu Hazael Siriako erregetzat.

16 Gantzutu Nimxiren seme Jehu Israelgo erregetarako. Gantzutu Abel-Meholako Xafaten seme Eliseo, zure ondorengo profeta izan dadin. **17** Hazaelen ezpatari ihes egin diezaiona Jehuk hilko du, eta Jehuren ezpatari ihes egin diezaiona Eliseok hilko du.

18 Hala ere, utziko ditut batzuen batzuk neuretzat Israelen: zazpi mila gizon, Baalen aurrean belaunikatu ez diren guztiak, musu eman ez dioten guztiak.

125

Eliseori deia

19 Joan zen handik Elias eta Xafaten seme Eliseo aurkitu zuen goldean; hamabi idi-pare zituen aurretik, Eliseok hamabigarrena zeramalarik. Ondotik igarotzean, Eliasek bere soingainekoa boia zion Eliseori gainera.

20 Eliseo, orduan, idi-parea utzirik, Eliasen ondoren joan zen lasterka, eta esan zion:

—Uztazu, arren, aitamei agur esaten, eta joango naiz zure ondoren.

Eliasek erantzun:

—Zoaz, baina itzul zaitez. Oroitu zer egin zaitudan.

21 Aldendu zen Eliseo Eliasengandik, hartu zuen idi-parea eta oparizat eskaini zuen; idien uztarriaz sua egin eta erre zuen okela eta jaten eman zion jendeari. Jaiki zen gero eta Eliasi jarraitu zion morroi bezala.

Naboten mahastia

21 ¹ Hona zer gertatu zen hurrengo batean. Bazuen Yizreelgo Nabotek mahasti bat Yizreelen, Samariako errege Akaben jauregi ondoan. ² Akab honela mintzatu zitzaion Naboti:

—Emadazu zeure mahastia, neuretzat baratze bat egin dezadan, nire etxe ondoan baitago. Ordainetan, mahasti hobea emanen dizut; nahiago baduzu, berriz, zilarretan ordainduko dizut.

³ Nabotek erantzun zion Akabi:

—Ez diezadala Jaunak utzi gure arbasoengandiko ondarea zuri ematen!

⁴ Akab etxera goibel eta haserre joan zen, Yizreelgo Nabotek arbasoengandiko ondarea eman nahi izan ez ziolako. Eta ohean etzan zen, aurpegia gorderik, deus ere jan gabe.

⁵ Jezabel emaztea etorri zitzaion, esanez:

—Zer duzu goibel egoteko? Zergatik ez duzu ezer ere jan nahi?

⁶ Erregeak erantzun:

—Yizreelgo Naboti esan diot bere mahastia diru truk niri saltzeko edota, nahiago bazuen, beste mahasti bat emango niola berearen orde. Baina ez didala emango bere mahastia erantzun dit.

⁷ Jezabel emazteak, orduan:

—Ez ote zara, bada, zu Israelgo erregea? Jaiki zaitetz, jan, poztu barru hori. Nik emanen dizut Yizreelgo Naboten mahastia.

⁸ Jezabelek Akaben izenean gutun batzuk idatzi, erregearen zigiluz jo eta Naboten hiri berean bizi ziren arduradun eta handikiei igorri zizkien. ⁹ Hau idatzi zuen gutunetan: «Agindu ezazue baraualdia egiteko. Eserarazi Nabot biltzarraren aurrean; ¹⁰ bai eta bi gizon maltzur-gaizto ere Naboten aurrean, eta egin dezatela testigantza hau Naboten aurka: «Jainkoa eta erregea madarikatu dituzu!» Gero, atera ezazue Nabot eta emaziozue harrika hil arte».

¹¹ Hiri hartako jendeak eta bertan bizi ziren arduradun eta handikiek bete zuten

Jezabelek bidalitako gutunetan idatzi zien agindua. ¹² Agindu zuten baraualdia egiteko eta eserarazi zuten Nabot biltzarraren aurrean; ¹³ gero, bi gizon maltzur-gaizto etorri eta Naboten aurrean jarri ziren. Maltzur-gaizto haiek testigantza hau egin zuten Naboten kontra herriaren aurrean: «Jainkoa eta erregea madarikatu ditu Nabotek!». Hiritik kanpora atera eta harrikatu egin zuten hil arte. ¹⁴ Orduan, oharra bidali zioten Jezabeli: «Harrikatu dugu Nabot, eta hil da».

¹⁵ Nabot harrikatu eta hil zutela jakitean, Jezabelek esan zion Akabi:

—Jaiki eta egin zaitetz Yizreelgo Nabotek diru truk ere eman nahi izan ez zizun mahastiaren jabe. Ez da bizi Nabot, hil da.

¹⁶ Hala, Nabot hila zela jakin zuelarik, jaiki eta Yizreelgo Naboten mahastira jaitsi zen Akab, haren jabe egiteko.

Akab eta Jezabelentzat zigorra iragarri Eliasek

¹⁷ Orduan, Jauna honela mintzatu zitzaion Tixbeko Eliasi: ¹⁸ «Jaitsi zaitetz Samarian Israelgo errege den Akabengana. Naboten mahastian dago, beronen jabe egiteko jaitsi baita bertara. ¹⁹ Mintza zakizkio honela: “Hau dio Jaunak: Gizon bat hil eta, gainera, harenaz jabetu? Hara, bada: Zakurrek Naboten odola miaztatu duten toki berean miaztatuko dute zure odola ere”».

²⁰ Akabek esan zion Eliasi:

—Orain ere harrapatu al nauzu, etsai halako horrek?

Eliasek erantzun:

—Bai, harrapatu zaitut, bada; egon ere beti prest baitzaude Jaunari atsegin ez zaiona egiteko. Horregatik, hau dio Jaunak: ²¹ «Hara, zoritxarra bidaliko dizut; desageraraziko ditut zure ondorengoak eta sunsituko Akaben etxeko gizasemeak oro, libre nahiz esklabo, Israel osoan. ²² Nebaten seme Jeroboanen eta Ahiasen seme Baxaren senitartekoei egin niena bera eginen diet zure senitartekoei ere, haserrearazi nauzulako eta Israeli bekatu eginarazi diozulako». ²³ Eta Jezabeli buruz hau dio Jaunak: «Zakurrek

irentsiko dute Jezabel Yizreelgo landan. **24** Akaben etxekoren bat hirian hiltzen delarik, zakurrek jango dute, eta landan hiltzen delarik, zeruko hegaztiak jango dute».

25 (Egiaz ez zen inor egon Akab bezain prest Jaunari atsegin ez zaiona egiteko; izan ere, bere emazte Jezabelek okerrera bultzatu zuen. **26** Sasijainkoen ondoren joanez, likiskeria izugarriak egin zituen, Jaunak israel-darren aurretik egotziak zituen amortarrenak adinakoak).

27 Akabek, hitz hauek aditzean, urratu zituen bere jantziak, hartu zuen soinean zakua eta barau egin zuen. Zakua erantzi gabe etzaten zen eta buru-apal zebilen.

28 Orduan, honela mintzatu zitzaion Jauna Tixbeko Eliasi: **29** «Ikusi al duzu nola apaldu den Akab nire aurrean? Hara, nire aurrean apaldu denez gero, zoritxarra ez diot bera bizi den artean bidaliko, bere semearen egunetan bidali diot zoritxarra haren senitarteari».

Erregeak II



Erregeak izeneko bigarren liburu hau lehenengoaren jarraipena da. Judako eta Israelgo erregeen historia dakar.

128

Elias zerura eramana. *Eliseo profeta*

2 ¹ Jaunak haize-zurrunbiloan eramane zuen Elias zerura. Hona nola gertatu zen: Elias eta Eliseo Gilgaldik abiatuak zirelarik, ² Eliasek esan zion Eliseori:

—Gelditu hemen, Jaunak ni Betelera bidaltzen bainau.

Eliseok erantzun:

—Ala Jauna, ala zu! Ez zaitut bakarrik utziko!

Eta biak jaitsi ziren Betelera.

³ Betelen zegoen profeta-taldea bidera atera eta honela mintzatu zitzaion Eliseori:

—Ba al dakizu maisua gaur airean eramango dizula Jaunak?

Eliseok erantzun:

—Bai, badakit, baina egon isilik!

⁴ Eliasek, orduan, Eliseori:

—Gelditu hemen, Jaunak ni Jerikora bidaltzen bainau.

Eliseok erantzun:

—Ala Jauna, ala zu! Ez zaitut bakarrik utziko!

Eta Jerikora joan ziren. ⁵ Jerikon zegoen profeta-taldea Eliseorengana hurbildu eta honela mintzatu zitzaion:

—Ba al dakizu gaur maisua airean eramango dizula Jaunak?

Eliseok erantzun:

—Bai, badakit, baina egon isilik!

⁶ Eliasek berriro Eliseori:

—Gelditu hemen; Jaunak ni Jordanera bidaltzen nau.

Eliseok erantzun:

—Ala Jauna, ala zu! Ez zaitut bakarrik utziko.

Eta biak joan ziren. ⁷ Profeta-taldeko berrogeita hamar lagun ere joan eta urrutian gelditu ziren begira; Elias eta Eliseo, berriz, Jordan ibai ondoan gelditu ziren. ⁸ Eliasek bere soingainekoa hartu, biribilkatu eta urak jo zituen harekin. Urak erdiz erdi banandurik, biak lehorrean igaro ziren. ⁹ Igaro zirenean, esan zion Eliasek Eliseori:

—Esadazu zer nahi duzun nik zure alde egitea, Jaunak zure ondotik eramán nazan baino lehen.

Eliseok erantzun:

—Ízan nadila, otoi, zure profeta-espirtuaren oinordeko.

10 Eliasek ihardetsi zion:

—Gauza zaila eskatzen duzu. Jaunak zure ondotik eramango nauenean ikusten banauzu, hala izango zara; bestela, ez.

11 Biak bidean aurrera hizketan zihozelarik, suzko zaldiek zeramaten suzko gudu-gurdi batek bereizi egin zituen bat-batean bata bestearengandik. Elias zerurantz igo zen haize-zurrumbilóan. **12** Eliseo begira zegoen, eta oihuka zioen:

—Ene aita! Ene aita! Israelen zaintzaile indartsua!

Ez zuen gehiago ikusi. Orduan, bere jantziak hartu eta erdibi egin zituen. **13** Gero, Eliasi soinetik jausi zitzaion soingainekoa jaso, Jordanera itzuli eta ibai ondoan gelditu zen.

14 Ondoren, Eliasi soinetik jausia zitzaion soingainekoa hartu eta urak jo zituen, esanez:

—Jauna, Eliasen Jainkoa, non zara?

Eliseok urak jo orduko, erdiz erdi banandu ziren eta Eliseo bestaldera igaro zen.

15 Jerikoko profeta-taldea aurrez aurre zegoen eta, hori ikusirik, esan zuten: «Eliasen espirtua Eliseorengan kokatu da!». Bila joan, aurrean ahuspeztu eta **16** esan zioten:

—Badira zure zerbitzarion artean berrogeita hamar gizon kementsu. Utziezu zure nagusiaren bila joaten. Baliteke Jaunaren espirtuak eramán eta mendi nahiz haranaren batean hura bota izatea.

Eliseok erantzun zion:

—Ez bidali inor ere!

17 Haiek, ordea, baietz eta baietz ari zitzaizkionez, azkenean esan zien:

—Bidal itzazue, bada.

Bidali zituzten, beraz, berrogeita hamar gizonak; baina, hiru egunez Eliasen bila ibili arren, ez zuten aurkitu. **18** Orduan, Jerikora Eliseorengana itzuli ziren. Honek esan zien:

—Ez al nizuen esan ez joateko?

Eliseo eta Xunengo emakumea

4 **8** Egun batez, Eliseo Xunendik igaro zen. Bazen han etxeoandre ospetsu bat, eta bere etxean bazkaltzera sarrarazi zuen Eliseo. Harrezkero, handik igarotzen zen bakoitzean, bertan gelditu ohi zen bazkaltzera.

9 Behinola, esan zion emakumeak senarrari:

—Hara, badakit gure etxera etorri ohi den hori Jainkoaren gizon santu bat dela. **10** Egin diezaiogun goian gelatxo bat, horma batzuk jasoz; ohea, mahaia, aulkia eta argiontzia ipiniko dizkiogu bertan. Horrela, etxera etortzean, geldi dadila bertan.

11 Heldu zen, bada, behin Eliseo eta, goiko gelara sarturik, oheratu egin zen. **12** Gero agindu zion Gehazi bere morroiari:

—Deitu emakume xunendar horri.

Egin zion dei eta etorri zen emakumea morroiarengana. **13** Eliseok agindua zion hau esateko: «Honenbeste lan hartu duzu guregatik! Zer egin dezakegu zure alde? Nahi al duzu erregeari nahiz gudaiburuari zure alde hitz egitea?».

Emakumeak erantzun zuen:

—Ez! Ongi bizi naiz neure herritarren artean.

14 Eliseok berriro morroiari:

—Zer egin beraren alde?

Gehazik erantzun zion:

—Hara, ez du haurrik eta senarra zahartua du.

15 Eliseok morroiari:

—Dei egiozu.

Egin zion dei eta emakumea ate ondora etorri zen. **16** Eliseok esan zion:

—Datorren urtean garai honetan semea izanen duzu altzoan.

Emakumeak ihardetsi:

—Ez, ene jauna, Jainkoaren gizon hori, ez esan gezurrik zeure mirabe honi.

17 Alabaina, emakumea haurdun gertatu zen eta hurrengo urtean, garai berean, semea izan zuen, Eliseok esana zionez.

Xunengo emakumearen semea hil

18 Hazi zen haurra. Baina egun batez, bere aita igitariekin ari zen tokira joan eta 19 honela hasi zitzaion aitari:

—Hau buruko mina! Hau buruko mina!

Aitak agindu zion morroi bati:

—Eramazu amarengana!

20 Morroiak eramán zion mutikoa amari eta honek magalean hartu zuen haurra; baina eguerdian hil egin zitzaion. 21 Amak gora eramán eta Jainkoaren gizonaren ohean etzan zuen; gero, gelatik irten eta atea itxi zuen. 22 Eta bere senarrari dei egin eta esan zion:

—Bidaliezazkidazu, arren, morroi bat eta asto bat. Jainkoaren gizonarengana joan behar dut bizkor. Berehala nator.

23 Senarrak, orduan:

—Zer dela-eta joan behar duzu gaur bertan? Ez da ilberri-jaiá, ezta larunbat-jaiá ere.

Emazteak erantzun:

—Ez axolatu!

24 Txalmatu zuen astoa eta esan zion morroiari:

—Eramán astoa uhaletik eta ez gelditu bidean nik esan arte.

25 Abiatu eta heldu zen Karmel mendira, Jainkoaren gizonarengana. Jainkoaren gizonak, emakumea urrutitik ikusi zuenean, esan zion Gehazi bere mutilari:

—Hara, emakume xunendarra! 26 Irten agudo bidera eta galdetu ongi den, eta senarra eta semea ere ongi dituen.

Emakumeak erantzun zuen:

—Bai, ongi.

27 Emakumeak, mendira Jainkoaren gizonarengana heldu zenean, oinak besarkatu

zizkion Eliseori. Hurbildu zen Gehazi emakumea apartatzeko, baina Jainkoaren gizonak esan zion:

—Utzi, atsekabetua baitago. Hala ere, Jaunak ez dit agertu zergatik; ez dit deus ere jakinarazi.

28 Emakumeak, orduan, Eliseori:

—Eskatu al nizun nik semerik? Ez al nizun esan ez engainatzeko?

29 Eliseok agindu zion Gehaziri:

—Lotu gerrikoa, hartu nire makila eskuan eta zoaz! Norbait ikusten baduzu, ez agurtu; eta norbaitek agurtzen bazaitu, ez erantzun. Ipini haurrari nire makila aurpegi gainean.

30 Haurraren amak, ordea, esan zuen:

—Ala Jauna, ala zu! Ez dut alde egingo zu gabe!

Eliseok, orduan, emakumeari jarraitu zion. 31 Aurretik joana zen Gehazi. Ipini zuen makila haurraren aurpegi gainean, baina haurrak ez zuen hitzik egin, ezta zirkinik ere. Itzuli zen orduan Gehazi Eliseoren bila eta esan zion:

—Haurra ez da esnatu.

32 Eliseok, etxera heltzean, haurra hila aurkitu zuen bere ohe gainean. 33 Gelara sartu, atea itxi eta otoitz egin zion Jaunari.

34 Gero, haurraren gainean etzan zen, bere ahoa haurraren aho gainean, begiak begi gainean eta eskuak esku gainean ezarriz. Horrela, haurraren gainean etzana zegoelarik, berotzen hasi zen haurraren gorputza.

35 Eliseo jaiki eta harat-honat ibili zen etxean barrena. Gero, berriro etzan zen haurraren gainean. Mutikoak ez tul egin zuen zazpi aldiz eta begiak ireki zituen. 36 Eliseok Gehaziri dei egin eta agindu zion:

—Esan emakume xunendarri etortzeko.

Deitu eta etorri zenean, Eliseok esan zion emakumeari:

—Tori semea!

37 Emakumea Eliseoren oinetaraino ahuspeztu zen. Gero, semea hartu eta alde egin zuen.

Naaman sendatu

5 **1** Naaman Siriako erregearen gudaiburu nagusia zen. Gizon handizat zuen bere nagusiak eta oso begiko, haren bidez Jaunak aramearrei garaipena eman zielako. Baina gizon kementsu eta adoretzu hark gaitz bat zuen: legena.

2 Siriarrek, eraso egin zuten batean, Israelgo neskato bat eraman zuten gatibu. Naamanen emazteak bere mirabe egin zuen.

3 Egun batez esan zion neskak etxeokandreari:

—Nire nagusiari, Samariako profetarengana joango balitz, hark sendatuko lioke legena.

4 Naamanek bere jaunari adierazi zion hori:

—Hau eta hau dio Israelgo neskato hark.

5 Siriako erregeak erantzun zion:

—Tira, zoaz, bada! Gutuna emango dizut Israelgo erregearentzat.

Abiatu zen, beraz, Naaman hirurehun eta berrogeita hamarren bat kilo zilar, urrezko sei mila txanpon eta hamar jantzi-sorta berekin zeramatzala. **6** Naamanek Israelgo erregeari eman zion gutunak hau zioen: «Gutun hau eramanez Naaman neure gudaiburua bidaltzen dizut, legena senda diezaiozun».

7 Israelgo erregeak, gutuna irakurtzean, jantziak urratu eta esan zuen:

—Jainkoa ote naiz, bada, ni, heriotza nahiz bizia emateko? Legenarra senda diezaiodan igorri omen dit gizon hau. Ikusazue nola dabilen aitzakia bila nire kontra oldartzeko.

8 Eliseok, Jainkoaren gizonak, jakin zuen Israelgo erregeak jantziak urratu zituela eta mandatu hau bidali zion: «Zergatik urratu dituzu jantziak? Datorrela niregana gizon hori eta jakinen du badela profetarik Israelen».

9 Joan zen, beraz, Naaman bere zaldi, gudu-gurdi eta guzti, eta Eliseoren etxeko ate aurrean gelditu zen. **10** Eliseok mandataria bidali zion esatera: «Zoaz eta busti zaitetz

zazpi aldiz Jordan ibaian, gaitza sendatu eta garbi geldituko zara».

11 Naamanek, haserreturik, alde egiteko asmoz esan zuen:

—Uste nuen bera aterako zela eta, zutik, Jaunari, bere Jainkoari, otoitz egingo ziola, gaixorik dudan alderdia eskuz igurtzi eta sendatuko zidala legena. **12** Damaskoko Abana eta Parpar ibaiak ez ote dira, bada, Israelgo ur guztiak baino hobek? Ez ote nintekeen horietan busti, gaitza sendatzeko?

Eta alde egin zuen handik haserre. **13** Morroiak, ordea, hurbildu eta honela mintzatu zitzaizkion:

—Ene aita, profetak gauza zailen bat agindu izan balizu ere, ez al zenukeen egingo? «Busti zaitetz eta garbi geldituko zara» besterik ez dizu esan. Zergatik ez egin?

14 Horrela, beraz, murgildu zen Naaman Jordan ibaian zazpi aldiz, Jainkoaren gizonak agindu bezala. Azala haur txikiarena bezalako bihurtu zitzaion. Erabat sendatu zen Naaman. **15** Orduan, Jainkoaren gizonarengana itzuli zen bere talde osoarekin; profetarengana heltzean, zutik gelditu eta esan zion:

—Orain badakit ez dela lur osoan Jainkorik Israelena baizik. Otoi, onar ezazu zerbitzari honen eskuerakutsia.

16 Eliseok ihardetsi zion:

—Ala Jauna, bere zerbitzari nauena! Ez dut ezer ere hartuko.

Naamanek hartzeko eta hartzeko esan arren, Eliseok ez zuen hartu nahi izan.

17 Naamanek, orduan:

—Deus ere hartu nahi ez duzunez, emaidazu bederen bi mandok eraman dezaketen bezainbat lur; ez baitiot erre-oparirik, ez sakrifiziorik inolako jainkori eskainiko Jaunari baizik. **18** Baina barkatuko al dit hauxe Jaunak: nire nagusia, niri besotik heldurik, Rimon jainkoa bere jauretxean gurtzera sartzean, nik ere harekin batera ahuspeztu beharra izatea. Barkatuko al dit Jaunak ekintza hori!

19 Eliseok erantzun:

—Zoaz bakean.

Eliseoren morroiak

Naaman engainatu

Naaman Eliseorengandik puska bat urrundu zelarik, **20** Gehazik, Jainkoaren gizon zen Eliseoren morroiak, hau zioen bere baitan: «Bigunegia izan da nire jauna Naaman siriar horrekin. Ez dio deus ere hartu nahi izan. Ala Jauna! Noan bizkor beraren atzetik, ea ematen didan zerbait».

21 Abiatu zen, beraz, bizkor Gehazi Naamanen ondoren eta hau, atzetik zetorkiola ikustean, gurditik salto batez jaitsi eta bila joan zitzaion, esanez:

—Zer dugu?

22 Gehazik:

—Hara, neure jaunak bidali nau zuregana esatera, oraintxe etorri zaizkiola Efraingo menditik profeten taldeko bi mutil gazte, eta haientzat hogeita hamabost kilo zilar eta bi soineko berri emateko, mesedez.

23 Naamanek erantzun:

—Har itzazu, bai, hirurogeita hamar kilo zilar.

Eta hartzeko esaten zion behin eta berriro. Sartu zituen Naamanek bi zakutan hirurogeita hamar kilo zilar haiek eta bi soineko berri, eta bere bi morroi eman zizkien Gehaziri eramateko. **24** Ofel zeritzan muinora heltzean, hartu zien dena Gehazik eta etxean gorde zuen. Gero, agur egin eta gizon haiek alde egin zuten. **25** Bera, berriz, Eliseorengana joan zen. Orduan, Eliseok esan zion:

—Nondik hator, Gehazi?

Honek erantzun:

—Ez naiz inora joan.

26 Eliseok berriro:

—Zer uste duk, gizon hori gurditik jaitsi eta hiregana etortzean, ez nintzela ni han espirituz? Zilarra nahiz soinekoak, olibadiak, mahastiak, artalde eta behitaldeak eta neskame-morroiak hartzeko garaia dela uste al duk? **27** Hi heu eta hire ondorengoak Naamanen legenaz kutsatuko zarete.

Hala, legenaz kutsatua, elurra bezain zuri, joan zen Gehazi Eliseorengandik.

Isaias



Profeten artean eta I. Z. osoan ez ezik, literatura unibertsalean ere goren mailako emaitza dugu Isaiasena. Honen mezuak eta idazkerak ez dute parekorik profeta idazleen artean. Honen orakulu mesianikoak, kontsolazio-poemak eta irteera berriari buruzko poemak, zerbitzariaren kantikak, Sionen gorazarreak e.a., berriz, I. Z.eko idazkirik mamitsuenetakoak eta I. B.an aipatuena ditugu, salmoekin batera. Hizkuntzaren maisutasunak eta irudimen poetikoak, azkenik, garai guztietako literaturan klasiko bihurtzen dute Isaias.

Mahastiaren maite-kanta

5¹ Neure adiskidearen izenean
nator kantatzera
adiskidearen
eta beraren mahastiaren kanta.
Nire adiskideak bazuen mahasti bat
malda jori batean.
2 Lurra harrotu, harriak kendu
eta landarerik onenak landatu zituen.
Erdian talaia eraiki zuen,
eta dolarea egin.
Mahats gozoa espero,
eta sasi-mahatsa eman zion.
3 Orain, bada,
Jerusalengo bizilagunok,
Judako gizon-emakumeok,
zuek erabaki nire
eta nire mahastiaren arteko auzia.
4 Zer egin niezaiokeen

neure mahastiari
egin diodanaz gainera?
Mahats gozoa espero nuen:
zergatik eman dit sasi-mahatsa?
5 Esango dizuet, bai,
zer egingo diodan neure mahastiari:
itxitura kenduko diot,
larre bihur dadin;
harresia zulatuko, zapal dezaten;
6 lugorri bihurtuko dut:
ez dute inausiko, ez jorratuko,
eta sasiek eta laharrek hartuko dute;
bertan euririk ez egiteko
aginduko diet hodeiei.
7 Israel da
Jaun ahalguztidunaren mahastia;
Judako herria,
haren landare-sail kuttuna.
Zuzenbidea espero zuen
harengandik,
eta horra: zuzengabekeria!
Justizia espero zuen,
eta horra: aieneak!

Bakezko garaia

- 11** ¹ Kimu bat aterako da
Jeseren zuhaitz-ondotik,
adaxka bat erneko haren sustraietatik.
- ² Beraren gainean kokatuko da
Jaunaren Espiritua:
jakinduriaraz eta adimenez beteko du,
kontseilari zuhur egingo
eta kemenez jantziko,
Jainkoa ezagutzen
eta haren esaneko izaten
irakatsiko dio.
- ³ Jainkoarenganako begirunea
izango du pozbide.
Ez du itxuratik bakarrik epaituko,
ez du entzundako hutsetik erabakiko.
- ⁴ Jende xehea zuzenbidez epaituko du,
lurraldeko dohakabeen eskubideak
defendatuko.
Makilaz bezala zigortu eta hilko ditu
bere hitzez herriko gaiztoak.
- ⁵ Justiziak eta leialtasunak
inguratuko dute,
gerrikoak gerria bezala.
- ⁶ Orduan, otsoa eta bildotsa
elkarrekin biziko dira,
lehoiabarra eta antxumea
elkarren ondoan etzango;
zekorra eta lehoikumea
batera haziko dira,
eta haurtxo batek zainduko ditu.
- ⁷ Behia eta hartz emea
elkarrekin larratuko dira
eta haien umeak batera etzango.
Lehoiak lastoa jango du,
idiaren antzera.
- ⁸ Bularreko haurra
suge-zuloetan jolastuko da,
sugegorri-habian sartuko du eskua.
- ⁹ Nire mendi santu osoan
ez du inork kalterik,
ez hondamendirik egingo,
Jaunaren ezagupenak beteko baitu
lurralde osoa, urak itsasoa bezala.

Kontsolatu nire herria

- 40** ¹ Hau dio zuen Jainkoak:
«Kontsola ezazue,
kontsolatu nire herria!
² Mintza bihotzera Jerusalem;
hots egiozue
burutu duela bere morrontza,
ordaindu bere erruen zorra,
gogor ordainarazi baitizkio Jaunak
bere bekatuak».
- ³ Ahots bat oihuka:
«Prestatu basamortuan bidea Jaunari,
berdindu eremuan galtzada
gure Jainkoari.
- ⁴ Bete daitezela sakanak,
beheratu mendi-muinoak;
bihur bitez zelai eta lautada
paraje latz eta malkarrak.
- ⁵ Orduan, Jaunak bere ospea agertuko du
eta gizaki guztiek batera ikusiko dute.
Jaunak berak esan du».
- ⁶ Ahots batek dio: «Hots egin!».
Eta nik: «Zer behar dut hots egin?».
«Gizaki oro belarraren pareko da,
landako lorea bezain sendo:
- ⁷ ihartzen da belarra, zimeltzen lorea,
Jaunak haizeari joaraztean.
Bai, belarraren pareko da gizateria:
- ⁸ ihartzen da belarra, zimeltzen lorea;
gure Jainkoaren hitzak, ordea,
betirako dirau».
- ⁹ Igo mendi garai batera, Sion,
albiste pozgarria hots egitera;
goratu indarrez ahotsa, Jerusalem,
goratu beldurgabe ahotsa,
esan Judako hiriei:
«Hemen da zuen Jainkoa!
- ¹⁰ Hara, ahalmen osoz dator Jainko Jauna,
bere nagusigoa indartsu ezarriz.
Hara, berekin dakar garaipen-agiria,
berak askaturiko herria.
- ¹¹ Artzainak bezala zaintzen du artaldea:

arkumea besoan hartu
eta altzoan eramaten du,
ama-berria arduraz gidatzen».

Jaunak atsegin duen baraua

58¹ Jaunak esan zidan:
«Egin oihu eztarria betean,
beldurrik gabe,
goratu ahotsa turutaren pare,
aurpegiratu Israeli bere errebeldiak,
nire herriari bere bekatuak.
2 Egunero jotzen dute niregana
eta atsegin dute
nire nahiaren berri jakitea;
zuzen jokatzeko duen herria dirudi,
bere Jainkoaren legeak
zintzo betetzen dituen herria.
Erabaki zuzenak eskatzen dizkizate
eta ni hurbil edukitzea maite dute.
3 “Zertarako egin barau,
zuk ez ikustekotan? —diote—.
Zertarako zigortu geure buruak,
zu ez konturatzekotan?”
Hara, barau-eguneko ere
negoziotan zabiltzate,
zeuen langileak lanera behartuz.
4 Liskar eta haserre artean
egiten duzue barau,
gupidarik gabe ukabilka.
Ez egin barau horrela,
zeuen garrasiak
zeru goian entzunaraziz.
5 Hori ote da gogoko dudako baraua
gizakiak bere burua
zigortzen duen egunean,
hau da, zumeak bezala burua kulunkatu
eta dolu-jantziz hautsetan etzatea?
Horri esaten al diozue baraua,
Jainkoak atsegin duen eguna?

6 Ez ote beste hau gogoko dudako baraua:
injustiziak kateak hautsi
eta uzta-herdeak etetea,
zapalduak libratu
eta uzta-oro apurtzea,
7 gose denari zeure ogitik eman
eta aterperik ez duen behartsua
etxean hartzea,
biluzik dagoena jantzi
eta zeure gizakideari
laguntzarik ez ukatzea?».

8 Orduan, goiz-argiak bezala
egingo duzu distira
eta zure gaitzak berehala
sendatuko dira.
Justizia izango duzu aurretik gidari
eta Jaunaren presentzia
atzetik babesgarri.
9 Zuk dei egin
eta hark erantzun egingo dizu,
zuk laguntza eskatu
eta hark esango: «Hemen nauzu!».
Uztari-oro baztertzen
eta salaketak eta gaizki-esateak
uxatzen badituzu,
10 gose denari zeure ogia ematen
eta behartsuaren premiari
erantzuten badiozu,
orduan, ilunpetan distira
egingo du zure argiak,
zure gau beltza eguerdi bihurtuko da.
11 Jaunak gidatuko zaitu beti,
basamorturik gorrienean ere asebeteko
eta zure gorputza indarberrituko.
Ongi bustiriko baratzea izango zara,
agortzen ez den iturburu.
12 Antzinako etxe-hondakinak
berreraikiko dituzu,
menderik mende ahaztuta zeuden
oinarrien gainean jasoko.
«Harresi zulatuaren konpontzaile»
eta «Etxe hondatuaren berritzaile»
deituko dizute.

Jeremias



Jeremias Jerusalemetik gertu zegoen Anatot herriskan jaio zen apaiz-familia batean, VII. mendearen erdi aldera. K. a. 626an hasi zuen profetagintza eta K. a. 587. urtea baino geroxeago bukatu. Egipton hil zen seguruenik (ikus 43-44 kap.).
Liburuan Jeremiasen 609tik 587ra arteko egintzaren berri asko ematen zaizkigu.

136

Joiakin erregeari

22 ¹³ «Zoritxarrekoa zu, justizia mesprezaturaz baitituzue eraiki

zeure jauregia eta bizilekuak, lansaria ordaindu gabe langileak lanera behartuz!

14 Honela diozu:

“Jauregi handi-ederra eraikiko dut neuretzat, sala aireztatuz hornitua; leihoak irekiko dizkiot, hormak zedro-zurez estaliko eta margo gorritz apainduko”.

15 Zer uste duzu?

Zeure erregetza sendotuko duzula zeure jauregia zedroz janzteagatik? Zure aita bizitzaz gozatu bazen, jokatu ere

zuzenbidez eta justiziaz jokatu zuen, eta horregatik atera zitzaion dena ongi.

16 Behartsuen eta dohakabeen eskubideak

babestu zituen, eta zorion-garaia izan zen. Ez al da hori ni benetan ezagutzea? Hala diot nik, Jaunak.

17 Zuk, ordea, irabazteari besterik ez diozu begiratzen, errugabea hil eta herria zapaldu eta esplotatzeari besterik ez.

18 Horregatik, begira zer dioen Jaunak Josiasen seme Joiakin, Judako erregeaz:

Ez diote hileta joko, esanez:

“Hau zoritxarra, anaiak! Hau zoritxarra, arreba!”.

Ez diote hileta joko, esanez:

“Ai gure jauna!

Ai gure jaun agurgarria!”

19 Astoa bezala lurperatuko dute:

arrastaka eramango gorpua eta Jerusalemgo harriz kanpora botako».

Jaunaren agintzari berriak

33 **1** Jaunak beste mezu hau eman zion Jeremiasi, artean kartzela-atarian atxiloturik zegoela: **2** «Nik, Jaun honek, egin dut lurra eta eratu, sendo iraun dezan. Jauna dut izena. **3** Dei egidazu eta erantzungo dizut, gauza handiak agertuko dizkizut, zure esku ez daudenak eta inoiz ere ezagutu ez dituzunak. **4** Nik, Jaunak, Israelen Jainkoak, hau diot, eraso-tresnen eta guduaren eraginez orain irauliak dauden Jerusalemgo etxeei eta Judako errege-jauregiei buruz: **5** Babiloniarren kontrako borrokari eusteak etxe-jauregiok giza gorpuz betetzeko baizik ez du balioko. Neuk jo ditut neure haserre-suminean, ez baitut gehiago hiri honen ardurarik hartzen, egin dituen gaiztakerien-gatik».

6 «Baina jarraian osasuna emango diot hiriari, zauriak sendatuko dizkiet bertako bizilagunei, eta egiazko bake iraunkorra nola lortu erakutsiko. **7** Judaren eta Israelen zoria aldatuko dut, eta behinolako egoeran ezarriko ditut berriro; **8** nire aurka egin dituzten bekatu guztietatik garbituko ditut eta nire aurka altxatuz egin dizkidaten bidegabekeria guztiak barkatuko dizkiet. **9** Jerusalemen pozbide izango da niretzat; munduko nazio guztiek goretsiko naute eta ospetsu aitortuko, hari emango diodan ongizatea ikustean. Harri eta zur geldituko dira Jerusalemni emango dizkiodan ongizate eta bakearengatik».

10 Honela dio Jaunak: «Gizaki eta abererik gabe, eremu bihurtua dagoela diozuen toki honetan, guztiz hondatuak daudela diozuen Judako hiri eta Jerusalemgo kaleetan, **11** berriro entzungo dira poz-alaitasunezko oihuak eta senar-emaztegaien kantutak, berriro entzungo tenplura gorespentariak ekarriz kantatuko duten hau:

«Goretsazue Jaun ahalguztiduna, ona baita, haren maitasuna betirakoa baita».

«Izan ere, herrialde honen zoria aldatuko dut, lehengo egoerara ekarriko. Nik, Jaunak, esana».

12 Honela dio Jaun ahalguztidunak: «Orain gizaki eta abererik gabe, eremu bihurtua dagoen lurralde honetan, bertako hiri guztietan, ardiak biltzeko artegiak egingo dira berriro. **13** Mendialdeko, Xefela lautadako eta Negeveko hirietan, Benjaminen herrialdean, Jerusalemgo inguruetan eta Judako hirietan ikusiko dira oraindik artzainak ardiak zenbatzen. Nik, Jaunak, esana».

14 Jaunak dio: «Badator Israel herriari eta Juda herriari egin diedan promesa beteko dudana garaia.

15 «Garai hartan, legezko ondorengoa ernearaziko diot Dabidi: zuzenbidea eta justizia ezarriko ditu herrialdean.

16 Garai hartan, Juda salbatua izango da, Jerusalem seguru biziko. «Jauna gure salbamena» emango diote izen».

17 Honela dio Jaunak: «Ez zaio inoiz ere faltako Dabidi Israelgo tronuan eseriko den ondorengorik. **18** Inoiz ere ez zaizkie faltako apaiz eta lebitarrei, egunero nire aurrean erre-opariak eskaini, intsentsua erre eta beste sakrifizioak eskainiko dituzten ondorengoak».

19 Gainera, Jaunak esan zion Jeremiasi: **20** «Hala diot nik, Jaunak: Eguna eta gaua jakineko arauz gerta daitezten eman dudana hitza hautsezina den bezala, **21** neure zerbitzari Dabidi emandakoa ere hautsezina da: ez zaio faltako inoiz ere bere tronuan eseriko den ondorengorik. Ez da inoiz hautsiko

Jeremias 33,22

ere apaiz eta lebitarrei, nire zerbitzariei, emandako hitza. **22** Konta ahala baino ugariago diren zeruko izarrak eta itsas hondarra bezala ugalduko ditut neure zerbitzari Dabiden eta neure zerbitzari lebitarren ondorengoak».

23 Jaunak Jeremiasi beste mezu hau eman zion: **24** «Entzun duzu zer esaten ari den jendea? Aukeratu nituen bi familiak, Israel eta Juda, baztertu egin ditudala! Horrela, mesprezatu egiten dute nire herria,

ez baitute naziotzat hartzen. **25** Bada, hone-la diot nik, Jaunak: Ez al nituen nik eguna eta gaua ezarri eta zeru-lurren legeak xedatu? **26** Bada, hori bezain egia da ez ditudala baztertuko Jakob en ondorengoak eta Dabid neure zerbitzaria. Nola ez ditut, bada, horien jatorritik aukeratuko Abraham, Isaak eta Jakob en ondorengo en buruzagiak? Bai, aldatu egingo dut haien zoria, errukitu egin naiz eta».

Ezekiel



Buzi delako baten seme, Jerusalemgo apaiz-familia batekoa zen Ezekiel. Liburuan kontaturiko gertaera historikoengatik, K. a. VII. mendearen bigarren erdialdean jaio zela pentsa dezakegu. Bera ere apaiz, profetagintzarako deia hartu zuen momentutik egiten zaigu ezagun, eta Israelgo historiako aldirik latzena bizi behar izan zuen: erbestaldia, alegia. Historiari dagokionez, K. a. 605. urteaz geroztik, babiloniarrek bilakatu ziren Ertekialde osoaren jaun eta jabe, Nabukodonosor erregea (K. a. 605-562) buru zutela.

Ezertarako ez den mahatsondoaren parabola

15 ¹ Honela mintzatu zitzaidan Jauna:

² «Gizaseme, zertan da mahatsondoa basoko beste zuhaitzak baino hobea?

³ Ematen al du egurrik ezer egiteko? Egiten al da beraren zuraz gakorik ezer zintzilikatzeko?

⁴ Ez, sutara botatzen da erregai: suak irensten du bi muturretatik, eta erdia ere suak hartzen dio; balioko ote du ezertarako?

⁵ Osorik zegoenean ere ezin bazen harekin ezer egin, are gutxiago balioko du ezertarako, suak irentsi eta erre ondoren.

⁶ Beraz, hau diot nik, Jainko Jaunak:

Mahatsondoa,
basoko beste zuhaitzen antzera,
sutara botatzen dudana bezala,
horrelaxe botako ditut
Jerusalengo biztanleak.

⁷ Aurpegi emango diet;
sutatik ihes egin dute orain arte,
baina suak irentsiko ditu laster;
orduak jakingo dute ni naizela Jauna,
aurpegi emango diedanean.

⁸ Herrialde hau hondamendi
bihurtuko dut,
desleial izan zaidalako.
Nik, Jainko Jaunak, esana».

Arranoa eta mahatsondoa

17 ¹ Honela mintzatu zitzaidan Jauna:
² «Gizaseme, proposatu alegia edo

Ezekiel 17,3

parabola bat Israel herriari, **3** nire, Jainko Jaun honen, mezua adierazteko:

«Bazen arrano handi bat,
hegatzar luzekoa,
lumaia trinko eta koloretsua zuena;
arranoa Libanora etorri zen
eta zedroaren adaburua moztu:

4 adar-punta ebaki,
merkatari-herrialdera eraman
eta tratularien hiri batean
landatu zuen.

5 Gero, hartu Israel lurraldeko hazia
eta soroan erein zuen,
ur ugariaren ondoan.

6 Erne zen hazia
eta mahatsondo mardul egin,
altuera txikikoa izan arren;
arranoarengana zuzentzen zituen adarrak,
sustraiak ere haren mendean zituen.

Mahatsondo egin zen,
aihenak bota zituen
eta abartsu egin.

7 Bazen beste arrano handi bat ere,

hegatzar luzekoa
eta lumaia ugarikoa.
Eta mahatsondoak
beronengana zuzendu zituen sustraiak
eta adarrak luzatu zizkion,
zegoen sailean baino oparoago
urezta zezan.

8 Soro jorian, ur ugariaren ondoan,
zegoen landatua,
adarrak garatu eta fruitua emateko,
mahatsondo bikain izateko.

9 Nik, Jainko Jaunak, galdetzen dut:
Garatuko ote da?

Ez ote dizkio lehenengo arranoak
sustraiak atera,

fruituak bota
eta kimu berriak ihartaraziko?

Ez da ahalmen
edo jendetza handirik beharko
sustraitik ateratzeko!

10 Horra hor, landatua: garatuko ote da?

Ekialdeko haizeak jotzean,
ez ote da guztiz ihartuko?

Ernamuindu den sailean ihartuko da».

JONAS



Biblian Jonas izeneko profeta bat aipatzen zaigu: Amitairen semea, Jeroboanen garaikoa (K. a. 787tik 747ra izan zen Jeroboan Israelgo errege) (ikus 2 Erg 14,25). Baina liburuaren idazkerak eta edukiak babiloniar erbestaldiaz geroztik idatzia dela ematen dute aditzera, K. a. v. mendean seguraski. Antzinako profetaren izenaz baliatuz, ipuin edo parabola gisako bat asmatu du idazleak, garai horretan jentilekin harreman estuan bizi diren israeldarrentzako argibide eta ikasbide.

Jonas Jaunarengandik ihesi

1 Honela hitz egin zion Jaunak Jonasi, Amitairen semeari: **2** «Ea, zoaz Ninibera, hiri handi horretara, eta hots egin nire mezua berorren aurka, bururaino egina bainauka bere gaiztakeriaz».

3 Abiatu zen, bai, Jonas, baina Tarsisera ihes egiteko asmotan, Jaunarengandik urrun. Jafara jaitsi eta Tarsisera zihoan ontzi bat aurkitu zuen; bidesaria ordaindunik, ontziratu egin zen, ontzikoekin batera Tarsisera joateko, Jaunarengandik urrun.

4 Baina Jaunak haize erauntsia aterarazi zuen eta itsasoa biziki haserretu zen, ontzia lehertzeko zorian jarriz. **5** Marinelak erabat beldurtu eta nor bere jainkoari oihuka hasi ziren. Ontziaren zama arintzeko, hornigaiak itsasora jaurtiki zituzten.

Bitartean, Jonas ontzi barrenera jaitsia zen eta etzanik lozorroan zegoen. **6** Kapitainak

hurbildu eta esan zion: «Zer egiten duzu hor lotan? Altxa eta egiozu otoitz zeure jainkoari, ea gutaz arduratzen den eta ez garen galtzen».

7 Marinelek honela ziotsaten elkarri: «Zotz egin dezagun, zoritxar honen erruduna nor den jakiteko».

Zozketa eginik, Jonasi atera zitzaion. **8** Honela galdetu zioten, beraz:

—Esaiguzu: zergatik datorkigu zoritxar hau? Zer egiten duzu hemen eta nondik zatoz? Nongoa zara? Zein herritakoa?

9 Jonasek erantzun zien:

—Hebertarra naiz eta Jauna gurtzen dut, zeruko Jainkoa, itsasoa eta lehorra egin zituena.

10 Eta gertatuaren berri eman zien. Jaunarengandik ihesi zebilela jakitean, beldur-ikarak hartu zituen.

—Zergatik egin duzu hori? —galdetu zioten—. **11** Zer egin behar dizugu, itsasoa baretzeko?

Izan ere, itsasoa gero eta haserreago baitzegoen.

12 Jonasek erantzun zien:

—Hartu eta bota nazazue uretara eta baretuko da itsasoa. Jakin badakit-eta ekaitza nire erruz gertatu zaizuela.

13 Hala ere, lehorrera nahian ziharduten arraunean marinelek; baina alferrik, itsasoa haserreagotuz baitzihoan.

14 Orduan, Jaunari erreguka hasi zitzaizkion: «Ai ene, Jauna! Ez gaitezela gizon honen-gatik gal, ez dezagula ere errugabe bat hil. Jauna, zeuk hala nahita egin duzu hau guztia».

15 Hartu eta itsasora bota zuten Jonas, eta une berean baretu zen itsasoa.

16 Gizon haiek beldur handia hartu zioten Jaunari, eta sakrifizio bat eskaini eta promesak egin zizkioten.

Jonasek arrain- -sabeletik otoitz

142

2 ¹ Jaunak arrain handi bat bidali zuen Jonas irensteko. Eta hiru egun eta hiru gau igaro zituen Jonasek arrainaren sabelean.

2 Arrainaren sabeletik otoitz egin zion Jaunari, bere Jainkoari:

3 «Larri nengoela,
Jaunari oihu egin nion,
eta erantzun zidan;
Hilen Egoitzatik laguntza eskatu,
eta entzun zidan.

4 Itsas sakonera bota ninduzun,
hondo-hondoraino:
zurrunbiloak inguratu ninduen,
zure uholde eta uhinek azpian hartu.

5 Hau nioen:
Begien aurretik urrun bota nauzu.
Ai zure tenplu santua
berriz ikusterik banu!

6 Ura leporaino heldu zitzaidan,
itsas leizeak inguratu ninduen,
itsas belarrak buruan
bildu zitzaizkidan.

7 Mendi-erroetaraino jaitsi nintzen,
lur azpiraino.

Itxiak nituen bertako ateak
gainean betirako.

Baina zuk, Jauna, ene Jainkoa,
bizirik atera ninduzun leizetik.

8 Hilzoriar nengoela,
zu ekarri zintudan, Jauna, gogora,
eta nire otoitza

zureganaino iritsi zen,
zure tenplu santuraino.

9 Sasijainkoen gurtzaileek
jainkozaletasuna
bertan behera uzten dute.

10 Baina nik, esker ona kantatuz,
sakrifizioa eskainiko dizut,
promesak beteko.
Jauna da salbatzailea!».

11 Orduan, Jonas lehorrera botatzeko agindu zion Jaunak arrainari.

Jonasek Niniben mezua aldarrikatu. Ninibearren konbertsioa

3 ¹ Honela hitz egin zion berriro Jaunak Jonasi: ² «Ea, zoaz Ninibera, hiri handi horretara, eta aldarrikatu bertan eman dizudan mezua».

³ Ninibera joan zen Jonas, Jaunak agindu bezala. Ninibe hiria izugarri handia zen; hiru egun behar ziren alde batetik bestera zeharkatzeko. ⁴ Sartu zen Jonas hirian barrena eta egun osoan ibili zen mezu hau aldarrikatuz: «Berrogei egun barru erraustua izango da Ninibe».

⁵ Ninibearrek sinetsi egin zioten Jainkoari. Hala, baraualdi bat egitea erabaki zuten eta dolu-jantziz estali ziren, zahar eta gazte.

6 Ninibeko erregea, gertatzen zenaren berri jakin zuenean, tronutik jaiki, errege-jantziak kendu eta, dolu-jantziz estalirik, errautsetan eseri zen. 7 Gero, hau aldarrikarazi zuen hirian: «Erregearen eta beronen gobernarien aginduz, gizaki eta abere, behi eta ardi, inork ez beza ezertxo ere dasta, ez bitez larra, ez bezate edan; 8 gizaki eta abere, estal bitez dolu-jantziz; egin biezaiote dei Jainkoari gartsuki; utz bitzate denek beren jokabide gaiztoak, bortxakeriazko beren egintzak. 9 Agian, Jainkoak ere atzera egingo du eta damutuko egin da, agian itzaliko da haren sumina, eta ez gara galduko».

10 Ikusi zuen Jainkoak beren jokabide gaiztoetatik atzera egin zutena, eta damutu egin zen haiei egindako mehatxuaz eta ez zuen bete.

Jonasek Jaunaren errukiaren berri ikasi

4 1 Jonasek oso gaizki hartu zuen Jaunaren erabakia eta sumindu egin zen. 2 Eta honela egin zion otoitz Jaunari: «Ai ene, Jauna! Neure herrian nengoenean, iruditu zitzaidan, bai, horrela gertatuko zela! Horregatik, hain zuzen, nahi izan nuen Tarsisera ihes egin. Banekien nik Jainko bihozbera eta errukiorra zarena, haserregaitza eta onginahiz betea, bere mehatxuez

damutzen dena. 3 Beraz, Jauna, kendu niri bizia! Hobe dut hil, bizi baino!

4 «Ba al duzu zertan horrela sumindurik?», galdetu zion Jaunak.

5 Hiritik irten eta Niniberen ekialdean gelditu zen Jonas. Han etxola bat eraiki eta itzalean eseri zen, hiriari zer gertatuko begira.

6 Orduan, Jainko Jaunak landare bat hazarazi zuen, Jonas baino handiagoa, buruan itzala eman ziezaiotzen eta bere sukarretik libra zezan. Jonas bizirotu zuen landarearekin.

7 Baina biharamun egunsentian har bat bidali zuen Jainkoak; harrak jo eta landarea ihartu egin zen. 8 Eguzkia atera zenean, Jaunak hegohaize sargoritsua bidali zuen; eguzkiak Jonas buruan jo zuen, ia kordegabe uzteraino. Eta heriotza opa izan zuen: «Hobe dut hil, bizi baino!».

9 Orduan, Jainkoak esan zion:

—Ba al duzu zertan horrela sumindurik, landarea dela eta?

—Bai horixe, badut zertan sumindurik, heriotza opa izateraino sumindu ere —erantzun zion Jonasek.

10 Jaunak, orduan:

—Landare honek ez dizu lanik eman, ez da zuk zaindurik hazi. Egun batetik bestera sortu eta ihartu da. Hala ere, zuk erruki diozu. 11 Eta nik ez ote diot erruki izango Ninibe hiri handi horri, bertan ongia eta gaizkia bereizten ez dakiten ehun eta hoge mila gizakitik gora eta ezin konta ahala abere bizi delarik?

Salmoak



Otoitzean ageri ditu batipat gizakiak Jainkoarekin dituen harremanak. Negar, damu, eskerron, erregu, harridura, aitorten...: Jainkoaren aurrean giza bihotzari darizkion hainbat sentipen. Sentipenok jaulkitzeko hitzaren dohaina duenak otoitza poesia bihurtzen du. Eta poemari doinua ezarriz, otoitza kantu. Otoitz, poema eta kantu: horra zer ditugun Salmoak. «Salmo» hitzak horixe esan nahi du: soinuz eta kantuz egiteko otoitza.

144

1. salmoa. Bi bideak

1 Zorionekoa gaiztoen egitasmoei jarraitzen ez diena, bekatarien bidetik ez dabilena, lotsagabeekin batera esertzen ez dena, **2** baizik eta Jainkoaren hitza atsegin duena eta hitz hori gau eta egun gogoan darabilena!

3 Ur-xirripen ondoan landaturiko zuhaitzaren antzeko da: bere sasoiari fruitua dakar, eta ez zaio hostorik ihartzen; egiten duen guztia ongi zaio ateratzen.

4 Ez da hori, ez, gaiztoen zoria: haizeak daraman orbelaren antzeko dira.

5 Auzi-egunean gaiztoek ez dute zutik iraungo; zintzoen batzarrean ez da bekataririk izango.

6 Jaunak zaintzen du zintzoen bidea; gaiztoena, berriz, hutsean galtzen da.

8. salmoa. Jainkoaren handitasuna eta gizakiaren duintasuna

8 **1** Koru-zuzendariarentzat. «Dolareak» doinuan. Dabiden salmoa.

2 Jauna, gure Jauna, bai harrigarria zure izena mundu osoan!

Zeruak baino garaiago den zure ospea kantatuko dut,

3 umetxoan eta bularreko haurtxoan hizkeraz.

Sendo oinarritu duzu zeure gaztelua etsaien aurka, etsai mendekuzaleak isilarazteko.

4 Zeure behatzez eratu duzun ortzia
eta ezarri dituzun ilargi-izarrak ikusita,
5 zer da gizona, zu hartaz oroitzeko?
Zer gizakia, zu hartaz arduratzeko?

6 Ia jainko baten pareko egin duzu,
ohorez eta aintzaz koroatu;
7 zeure eskulan guztien buru egin duzu,
denak haren mendean jarri:
8 ardi eta idiak,
bai eta basapiztiak ere;
9 zeruko hegaztiak
eta itsasoko arrainak,
itsasoan zehar dabilen guztia.

10 Jauna, gure Jauna,
bai harrigarria zure izena
mundu osoan!

14. salmoa. Tenpluan sartzeko baldintzak

15 ¹ Dabiden salmoa.

Jauna, nor egon daiteke zure etxean?
Nor bizi zure mendi santuan?

2 Jokaera prestua duena,
justiziaren arabera ari dena,
bihotz barrutik egia dioena;
3 mihiluze ez dena,
lagun hurkoari kalterik
egiten ez diona,
auzokoa iraintzen ez duena;
4 mesprezagarria bere aurretik bota
eta jainkozaleak ohoratzen dituena;
bere kaltetan izanik ere,
emandako hitzari eusten diona;
5 mailegu-dirua lukurreriaz ematen ez
eta errugabearen kaltetan eskupekorik
hartzen ez duena.
Horrela jokatzen duena ez da sekula
kolokatuko.

22. salmoa. Uste onezko otoitza

23 ¹ Dabiden salmoa.

Jauna dut artzain:
ez zait ezer falta.

2 Larre guritan etzanarazten nau,
ur baretara eramaten,
3 eta indarrak berritzen;
bide egokitik narama, leiala delako.

4 Ibar beltz-ilunetan banabil ere,
ez dut inolako gaitzen beldurrik,
zu nirekin baitzaude:
zure artzain-makilak lasaitzen nau.

5 Zuk atontzen didazu mahaia etsaien
begi aurrean,
ukenduz gantzutzen didazu burua;
gainezka dut kopa.

6 Bai, zorionak eta leialtasunak
inguratuko naute
bizitzako egun guztietan;
Jaunaren etxean biziko naiz
amaigabeko egunetan.

120. salmoa. Israelen zaintzailea

121 ¹ Erromes-kanta.

Begiak mendietara ditut jasotzen:
nondik etorriko ote zait laguntza?
2 Jaunarengadik datorkit laguntza,
zeru-lurrak egin zituenarengandik.

3 Jaunak ez zaitu erortzen utziko,
zure zaintzailea ez dago lo.

4 Ez, ez du sekula lorik egiten Israelen
zaintzaileak.

Salmoak 121,5

5 Jauna duzu zaintzaile, Jauna gerizpe:
alboan duzu beti.

6 Ez dizu kalterik egingo
eguzkiak egunez, ez ilargiak ere gauez.

7 Jaunak zainduko zaitu gaitz orotatik,
berak zuri bizia zainduko.

8 Jaunak zainduko ditu zure ibilera
guztiak oraindanik eta betirako.

122. salmoa. Herri mesprezatuaren erruki-eskea

123 ¹ Erromes-kanta.

Begiak zuregana jasoak ditut,
zeruan errege zaren horregana.

2 Nola morroien begiak nagusien
eskuetara, nola neskamearen begiak
etxeakoandarearen eskuetara,
halaxe daude gure begiak
Jaunarengana, gure Jainkoarengana,
haren errukia iritsi zain.

3 Erruki, Jauna, erruki! Buruz gain
gaude mesprezios,

4 buruz gain ustetsuen burlaz,
harroen mesprezios.

130. salmoa. Jaunaren eskuetan bakean

131 ¹ Erromes-kanta. Dabidena.

Jauna, nire bihotza ez da handi-min,
ez nire begiak gorazale;
ez nabil gauza handien atzetik,
ez neurritz gainekoen atzetik.

2 Isil eta bare dut barne-gogoa;
haurtxoa amaren altzoan bezala,
haurtxoa bezala dut barnean gogoa.

3 Israel, izan Jaunarengan itxaropen
oraindanik eta betirako!

138. salmoa.

Meditazioa. Jaunak dena ikusi eta jakin

139 ¹ Koru-zuzendariarentzat. Dabidena.

Jauna, zuk ikertzen nauzu eta ezagutzen:

2 badakizu noiz esertzen naizen
eta noiz jaikitzen.

Urrutitik sumatzen dituzu
nire burutapenak.

3 Ohartzen zara noiz nabilen
eta noiz nagoen geldi.

Zehatz dakizu nire pauso guztien berri.

4 Oraindik ez dut hitza mihian
eta zuk, Jauna, badakizu esango dudana.

5 Atze eta aurre, estu bildua naukazu,
zeure eskua nire gain ezarrita.

6 Miragarria zure ezagutza,
nitaz gaindikoa,
nik atzemateko garaiegia.

7 Nora joan zure espiritutik urruti?

Nora ihes egin zure aurretik?

8 Zerura igota ere, zu hantxe!

Hilen Egoitzara jaitsita ere, zu bertan!

9 Nahiz argiaren sorlekurantz hegaldatu,
nahiz mendebaldeko itsas mugetan
kokatu,

10 han ere zure ezkerre gainean izango
dut, zure eskuinak helduko dit.

11 Nahiz nik esan:

«Ilunpeak estaliko ahal nau,
eguartzia gau bihurtuko ahal zait
inguruan!»,

12 ilunpea ere ez da zuretzat ilun,
gaua ere eguna bezain argi:
ilunpea eta argia zuretzat berdin!

13 Zuk eratu didazu gorputza,
zuk zaindu nauzu amaren sabeletik.

14 Eskerrak zuri, hain izugarria zarelako,
zeure egintza miragarrietan nabarmena!

Barru-barruraino ezagutzen ninduzun,

15 nire hezur-mamiak
ez ziren zuretzat ezkutu,
isilpean eratzen ari nintzela,
lurraren barruan ehunduz nindoala.

16 Zure begiek nire bizi-aroak
ikusten zituzten,
idatziak zeuden denak zure liburuan;
eratuak zenituen nire egunak,
bat bakarra ere izatera
iritsi baino lehen.

17 Oi Jainko, bai paregabeak niretzat
zure burutapenak,

bai sakona haien barne-muina!

18 Kontatzen hasten banaiz, hondarra
baino ugariago dira.
Berpiztu nadila eta jarrai dezadala beti
zurekin!

Job



Jakinduriazko liburuen artean nagusi da Job, eta berezia da, gainera, hebraierazko Bibliako beste liburuekiko, hiztegi, sintaxi nahiz forma literarioaren aldetik.

148

Job izeneko gizon bat

1 Bazen Utz herrialdean Job izeneko gizon bat. Zintzoa eta zuzena zen, Jainkoa errespetatu eta gaiztakeriatik urruti zebilena. **2** Zazpi seme eta hiru alaba zituen. **3** Zazpi mila ardi, hiru mila gamelu, bostehun idi-pare, bostehun asteme eta zerbitzari ugari ere bazituen. Ekialdean bizi zen gizonik aberatsena zen.

4 Semeek oturuntzak antolatzen zituzten txandaka beren etxeetan, eta arrebak ere gonbidatzen zituzten jan-edan haietara. **5** Jaialdi bakoitzaren amaieran, Jobek semeei dei egiten zien haien garbikuntza egiteko; egunsentian jaiki eta erre-oparia eskaintzen zuen bakoitzarengatik, semeek beharbada bekatu egin eta beren barnean Jainkoa madarikatu izango zutelakoan. Hauxe egiten zuen Jobek aldi bakoitzean.

Satanen lehenengo erronka

6 Behin batean, Jaunaren aurrera aurkeztu ziren beraren zeruko zerbitzariak, eta han zen Satan ere. **7** Jaunak Satani esan zion:

—Nondik hator?

Hark erantzun:

—Harat-honat ibili naiz munduan zehar.

8 Jaunak galdetu zion:

—Ohartu al haiz Job ene zerbitzariaz? Ez dik parekorik munduan: gizon zintzo eta zuzena duk, Jainkoa errespetatu eta gaiztakeriatik urruti dabilena.

9 Satanek erantzun zion:

—Hutsaren truke errespetatzen zaituelakoan ala? **10** Ez al duzu, bada, zeuk ongi babesten bera, beraren etxea eta daukan guttia? Egiten duen guttia bedeinkatzen diozu,

eta aziendak ugaritzen ari zaizkio herrialde osoan. **11** Baina luzatu eskua eta uki iezaiozu daukan guztia; baietz madarikatu aurpegira!

12 Jaunak esan zion:

—Konforme! Heure esku dituk haren ondasun guztiak, baina ez gero bera ukitu! Orduan, alde egin zuen Satanez.

Satanek Job lehenengoz probatu

13 Egun batez, Joben seme-alabak bazkaltzen ari ziren anaia zaharrenaren etxean.

14 Etorri zitzaion mezulari bat Jobi eta esan zion:

—Idiak goldean ari ziren eta astemeak inguruan larrean. **15** Sabear-talde batek, bat-batean etorri, morroiak sarraskitu eta ganadua eraman du. Neuk bakarrik ihes egin ahal izan dut zuri berria emateko.

16 Artean hizketan ari zela, beste batek etorri eta esan zion:

—Tximista sartu da eta ardiak eta artzainak kiskali ditu. Neuk bakarrik ihes egin ahal izan dut zuri berria emateko.

17 Hark amaitu baino lehen, beste batek iritsi eta esan zuen:

—Kaldear batzuek, hiru taldetan, zure gameluarengana oldartu eta eraman egin dituzte, eta morroiak sarraskitu. Neuk bakarrik ihes egin ahal izan dut zuri berria emateko.

18 Oraindik hizketan ari zela, beste batek etorri eta esan zuen:

—Zure seme-alabak anaia zaharrenaren etxean bazkaltzen ari zirela, **19** basamortutik etorritako haize-eraso bortitzak lau aldeetatik astindu du etxea. Eta lurrera erortzean, guztiak hil ditu. Neuk bakarrik ihes egin ahal izan dut zuri berria emateko.

20 Orduan, jaiki, bere jantzia urratu eta ilea zeharo moztu zuen Jobek. Gero, lurreraino ahuspeztuz, otoitz egin zuen, **21** esanez:

«Biluzik irten nintzen amaren sabeletik, biluzik itzuliko naiz lurraren sabelera. Jaunak eman dit eta Jaunak kendu. Bedeinkatua Jaunaren izena!».

22 Halaz guztiz, Jobek ez zuen bekatu egin eta ez zion Jainkoari bidegabekeriarik egotzi.

Satanen bigarren erronka

2 **1** Behin batean, Jaunaren aurrera aurkeztu ziren beraren zeruko zerbitzariak, eta han zen Satan ere. **2** Jaunak Satani esan zion:

—Nondik hator?

Hark erantzun:

—Harat-honat ibili naiz munduan zehar.

3 Jaunak galdetu zion:

—Ohartu al haiz Job ene zerbitzariaz? Ez dik parekorik munduan: gizon zintzo eta zuzena duk, Jainkoa errespetatu eta gaiztakeriatik urruti dabilena. Arrazoirik gabe berari kalte egitera bultzatu ninduan arren, bere zintzotasunean tinko irauten dik.

4 Satanez erantzun:

—Daukan guztia ematen du gizakiak, larrugorri gelditzeraino, bere bizia salbatzearen. **5** Baina luzatu eskua eta ukitu haren hezur-haragiak. Baietz madarikatu aurpegira!

6 Orduan, Jaunak esan zion:

—Konforme! Heure esku duk, baina errespeta iezaioz bizia.

Satanek Job bigarrenez probatu

7 Jaunaren aurretik alde egin ondoren, Satanez zauri gaitoz bete zuen Job,

oinazpitik burugaineraino. **8** Orduan, hazka egiteko teila-puska bat harturik, zabor arte-ra joan zen Job.

9 Emazteak esan zion:

—Zeure zintzotasunean irauin behar al duzu? Madarikatu Jauna, eta hil zaitetz!

10 Jobek erantzun:

—Txoroak bezala hitz egiten duzu. Zoriona Jaunaren dohaintzat hartzen dugu. Eta zoritxarra, zergatik ez?

Halaz guztiz, Jobek ez zuen bere ahoaz bekatu egin.

Bagunak gaitzetsiak

42 **7** Jobi hitz egin ondoren, Temango Elifazi esan zion Jaunak: «Sumin-
dua nago zure eta zure bi lagunen aurka, ez baituzue nitaz zuzen hitz egin, nire zerbitzari Jobek egin duen bezala. **8** Beraz, hartu orain zazpi zekor eta zazpi ahari, joan Joberengana eta eskaini erre-oparia zeuen alde. Nire zerbitzari Jobek zuen alde erregutuko du. Nik haren erregua onartu egingo dut, eta ez zaituztet zeuen zentzugabekeriaren arabera zigortuko, nitaz zuzen hitz egin ez duzuen arren, nire zerbitzari Jobek egin duen bezala». **9** Jaunak esana egitera joan ziren Temango Elifaz, Xuaheko Bildad eta

Naamako Tzofar, eta Jaunak Joben erregua onartu egin zuen.

Job lehengoratu

10 Jobek bere lagunen alde erregu egin ondoren, Jaunak egoera aldatu egin zion eta lehengo ondasunak bikoiztu. **11** anaia-arrebak eta lehengo ezagunak etorri zitzaizkion ikustera, berarekin otordua egin zuten etxean eta Jaunak bidalitako atsekabe guztiarengatik dolua agertu zioten eta kontsolatu. Bakoitzak dirua eta urrezko eraztun bana eman zizkieten.

12 Aurrekoetan baino ere oparago bedeinkatu zuen Jaunak Job bere ondorengo urteetan: hamalau mila ardi, sei mila gamelu, mila idi-pare eta mila asteme izan zituen.

13 Zazpi seme eta hiru alaba ere izan zituen.

14 Hauetako lehenari Usoa jarri zion izena, bigarrenari Kanela Lorea eta hirugarrenari Lurrinontzi. **15** Ez zegoen herrialde osoan Joben alabak baino emakume ederragorik; eta nebak bezalaxe, oinordeko egin zituen Jobek.

16 Geroztik, ehun eta berrogei urtez bizi izan zen Job, eta bere semeak eta semeen semeak laugarren belaunaldira arte ikusi ahal izan zituen. **17** Zaharturik eta urtetsu hil zen Job.

Esaera zaharrak



Jakinduriazko literatura oso hedatua zegoen antzinako Ekialde osoan (Egipton, Mesopotamian...); ez zen, beraz, Israeli bakarrik zegokion zerbait. Behaketaz eta esperientziaz lortutako jakintza eta irakaspenak belaunaldiz belaunaldi eskualdatzen ziren esaera laburren bidez. Liburu honek ez du ez data, ez idazle jakinik. Izan ere, jatorri eta garai ezberdinetako esaera-multzoen bilduma da.

151

Salomonen esaerak: lehen bilduma

10 ¹ Salomonen esaera zaharrak.

Seme zuhurra aitaren pozbide,
seme zentzugabea amaren atsekabe.

2 Bidegabeki pilaturiko altxorrek
probetxurik ez, baina zuzentasunak
heriotzatik libratzen du.

3 Jaunak ez du zintzoa goseak uzten;
bai, ordea, gaiztoen irrika asegabe.

4 Esku alferrak txirotu,
beso langileak aberastu.

5 Burutsuak bildu egiten du udaldian,
uzta-garaian lokartzen dena
gaitzesgarri da.

6 Zintzoak bedeinkazioa bereganatzen du,
gaiztoaren mihiak indarkeria gordetzen.

7 Zintzoa oroitua izango da eta onetsia,
gaiztoen izena bera ere usteldu egingo.

8 Bihotz zuhurrekoak onartzen ditu
aginduak, mihi txorokoa
hondamendirantz abiatzen.

9 Zuzen dabilena seguru dabil, bide
okerretik doana nabarmen geratzen.

10 Azpikeriaz dabilenak
atsekabea dakar,

aurrez aurre zentzarazten duenak
konponbidea.

11 Zintzoaren mihia bizi-iturri da, baina
gaiztoarenak indarkeria gordetzen.

12 Gorrotoak haserreak sortzen ditu,
maitasunak akats guztiak ezkututzen.

13 Burutsuaren ezpainetan hitz
zuhurrak; burugabearen bizkarrari,
eman egurra!

14 Zuhurrak jakinduria biltzen du,
mihi txorokoak
berehalako hondamendia ekartzen.

15 Aberatsak bere ondasunetan du babesa, behartsuak bere gabezia hondamendia.

16 Zintzoaren lansaria bizia da, gaiztoaren irabazia porrota.

17 Heziketa onartzen duena bizirako bidetik doa, zentzarazpena bazterten duena okerbideetik.

18 Mihi maltzurrekoak gorrotoa estaltzen du, iraina zabaltzen duena zentzugabea galanta.

19 Hizketa ugari, huts egitea sarri; mihiari eusten dakiena, hori bai zuhurra!

20 Zintzoaren mihia zilar garbi-garbia, gaiztoaren bihotza hutsaren parekoa.

21 Zintzoaren hitzak askoren bizigarri, baina txoroak burugabekeriaz hiltzen dira.

22 Jaunaren bedeinkazioak aberasten du, eta ezer ez gure nekeak gehitzen.

23 Izen-belzten aritzea da zentzugabearen gozamina, zuhur jokatzea pertsona burutsuarena.

24 Zeren beldur, huraxe gertatzen zaio gaiztoari; zeren irrika, huraxe ematen zintzoari.

25 Ekaitza pasa, eta kito gaiztoa! Baina betirako oinarriak ditu zintzoak.

26 Nola ozpina ahorako eta kea begietarako, hala alferra lanean hartzen duenarentzako.

27 Jauna errespetatzeak bizia luzatzen du; gaiztoaren urteak, ordea, labur egiten.

28 Zintzoak bizitza pozgarria espero du, gaiztoaren itxaropenak porrot egiten.

29 Jauna babesgarri da zuzen dabilenarentzat, hondamendi gaizkilearentzat.

30 Zintzoa ez da inoiz koloka ibiliko; gaiztoak, ordea, ez du lurrean iraungo.

31 Zintzoaren ahotik zuhurtzia sortzen da, moztu egingo dute mihi maltzurra.

32 Atsegingarri dira zintzoaren hitzak, maltzurkeria huts gaiztoarenak.

Jakintsuen hogeita hamar esaerak

22 17 Entzun arretaz jakintsuen esanak, gogoan hartu nire irakaspenak;

18 atsegingarri izango zaizkizu barru-barruan gordeak, mintzatzerakoan denak prest izango ezpainetan.

19 Zuri ere irakasten dizkizut gaur, zure konfiantza Jaunarengan jar dezazun.

20 Hogeita hamar esaera idatzi ditut zuretzat, irakaspen eta aholkuak dituztenak,

21 egia ezagut dezazun eta hartu duzun mandatuari leialki erantzun.

1

22 Ez ustiatu behartsua, behartsu dela eta, ez zanpatu gizarajoa auzitegian,

23 Jaunak defendatuko baitu haien auzia eta bizia kenduko haiei kentzen dienari.

2

24 Ez zaitez haserrekorraren lagun egin, ezta suminkorrarekin elkartu ere,

25 ez zaitezen haien jokabideetara ohitu eta zeure bizia arriskuan jarri.

3

26 Ez ezazu eskua eman, zordunaren fidatzaile bihurtuz;

27 zerez ordaindurik ez baduzu, etzateko duzun ohea ere kenduko baitizute.

4

28 Ez aldatu lekuz antzinako mugarririk, zure arbasoek jarritakoak dira eta.

5

29 Aurkitu duzu bere lanean trebea den norbait? Erregeen zerbitzura egongo da eta ez edonolako jendearenera.

23**6**

1 Handiki baten mahaiian
zaudenean eserita, ez ahaztu
noren aurrean zauden.

2 Jatun handia bazara,
eutsi zeure jangurari.

3 Ez egon haren jaki gozoen irrikaz,
zu harrapatzeko izan litezke eta.

7

4 Ez ibili ahaleginetan aberastasunaren
atzetik, utzi horretan pentsatzeari.

5 Begien hertsu-ireki batean desagertu
da! Hegoak hartu eta han doa airean
arranoaren antzera.

8

6 Ez zaitez eseri xuhurraren mahaira,
ezta haren jakien irrikaz egon ere,
7 eginak baititu bere kalkuluak: «Jan eta
edan» diotsu, baina ez zaitu gogoko.

8 Jandakoa bota egin beharko duzu
eta zure hitz atseginak alferrikakoak
izango lirakeke.

9

9 Ez hitz egin zentzugabearen belarrira,
mesprezatu egingo baititu
zure zentzuzko arrazoiak.

10

10 Ez aldatu lekuz antzinako mugarririk,
ezta sartu ere umezurtzen lur-sailetara,

11 ahaltsua baita haien eskubideen
babeslea eta berak defendatuko du haien
aizia zure kontra.

11

12 Egin jaramon heziketari eta entzun
arretaz irakaspenak.

12

13 Ez izan beldur gaztea zigortzeko,
makilakada batzuegatik ez da hilko eta;

14 aitzitik, zigorraren bidez
Hilen Egoitzatik libratuko duzu.

13

15 Ene seme, zuhur bihurtzen bazara,
ni bihotz-bihotzez poztuko naiz;

16 barru-barrutik alaituko naiz,
zuzen mintzatzen zarela ikustean.

14

17 Ez izan bekatariekiko inbidiarik;
izan, ordea, Jaunarenganako begirunea
beti;

18 segurua baita etorkizuna dagoela, eta
ez du zure itxaropenak porrot egingo.

15

19 Entzun, seme, eta izan zuhur,
bideratu zuzen zeure bizia.

20 Ez zaitez elkartu zurruteroekin,
ezta tripazainekin ibili ere;

21 izan ere, mozkorrek eta jatunek
gabezian amaitzen dute
eta nagiak zarpailez jantzen.

16

22 Entzun sortarazi zintuen aitari,
ez mesprezatu ama,
zahartu egin dela eta.

23 Erosi eta ez saldu benetan baliotsu
direnak:
zuhurtzia, heziketa eta adimena.

24 Seme zintzoaren aita
pozez betetzen da,
zuhurra mundura ekarri duena alaitu
egiten.

25 Zure gurasoak ere alai daitezela
zuregatik,
eta poz dadila mundura
ekarri zintuen ama!

17

26 Ene seme, egidazu jaramon,
zeureganatu gogo onez nire ikasbideak.

27 Leize-zulo sakona da emagaldua,
putzu estua emakume arrotza.

28 Zelatan egoten da lapurra bezala
eta desleialtasun asko sortarazten
gizonen artean.

18

29 Nor ari da aieneka? Nor zotinka?
Nor liskarretan? Nor kexuz?
Nor da arrazoirik gabe kolpatua?
Nork du begirada lausotua?

30 Ardoa edaten akaberarik ez duenak,
edarien dastaketara emanak.

31 Ez begiratu ardoari, gorri-gorri
kopan distiratsu dagoenean,
goxo-goxo sartzen da eta.

32 Azkenean, ordea, sugeak bezala
egiten du kosk,
sugegorriak bezala zizta.

33 Gauza bitxiak ikusiko dituzu,
zentzugabekeria handiak pentsatu eta
esango;

34 itsaso zabalean bazeunde bezala
sentituko zara,
mastaren puntan kulunka.

35 «Jo naute, baina ez dut minik
—esango duzu—, gogor zigortu naute,
baina ez naiz konturatu.

Noiz esnatuko ote naiz?
Gehiago eskatuko dut berriro!».

19

24 ¹ Ez zaitetz gaiztoen inbidiatan
egon, ezta haiekin elkartzeko
gogoz ere,

² indarkeria bakarrik baitute gogoan
eta kalte egiteaz baizik
ez dira mintzo.

20

3 Zuhurtziaz eraikitzen da etxea,
zentzuaz sendotu egiten,

4 jakintzaz janzten dira gelak
mota guztietako ondasun baliotsu
eta atseginez.

21

5 Hobe gizon zuhurra indartsua baino,
eta gizon ikasia ahaltsua baino.

6 Estrategiaz egiten da gerra,
aholku egokien poderioz
lortzen garaipena.

22

7 Zuhurtzia eskuraezina da
burugabearentzat, ez da gauza
jendaurrean ahoa zabaltzeko.

23

8 Beti gaizkia nola egin pentsatzen ari
denari, «azpisuge» deitzen diote.

9 Burugabeak bekatua bakarrik du
gogoan; lotsabakoari higuin diote guztiek.

24

10 Larrialdian adorea galdu baduzu,
larri zabilta indarrez!

25

11 Salba itzazu heriotzara kondenatuak,
askatu hiltzera dardaraz doazenak.

12 Zeuk zerikusirik ez zenuela esan arren,
adi dago kontzientziak aztertzen dituen,
badaki zuri begira dagoenak:
nori bere egintzen arabera
ordaintzen dio hark.

26

13 Jan ezia, ene seme, ona da eta,
gozoa da abaraska ahoarentzat:

14 hala bedi maitagarri zuretzat
zuhurtzia; aurkitzen baduzu,
geroko etorkizunean
ez du zure itxaropenak porrot egingo.

27

15 Gaizto hori, ez egin egitasmo txarrik
zintzoaren etxearen aurka,
ezta hondatu ere haren egoitzarik,

16 zazpi aldiz erori arren, jaikiko baita
zintzoa; gaiztoa, berriz,
zoritxarrean murgilduko.

28

17 Ez poztu zeure arerioaren erorketaz,
ezta gozatu ere behaztopa egiten badu,

18 Jaunak, hori ikusi eta oker iritzirik,
ez dezan bere haserrea harengandik
desbidera.

29

19 Ez odolberotu gaizkileengatik,
ezta gaiztoen inbidiatan egon ere,
20 ez baitu etorkizun onik gaizkileak:
itzali egingo zaio biziaren kriseilua.

30

21 Ene seme, errespetatu Jauna eta
erregea, ez zaitez nahastariekin elkartu:
22 bat-batean irits daiteke hauen
hondamendia, eta nork daki nolako
zigorra eman liezaieketen!

Jakintsuen beste zenbait esaera

23 *Hauek ere jakintsuen esaerak dira:*

Ez da bidezko epaiketan alderdikeriaz
jokatzea.

24 Erruduna errugabetzat aitortzen
duena jendeak madarikatu egiten du,
herriak gaitzetsi;

25 erruduna salatzen duena onetsia
izaten da, jendeak zoriondu egingo du.

26 Ezpainetan musu ematea bezala da
erantzun egokia ematea.

27 Ziurtatu zeure ogibidea,
lortu eta hasi lantzen zeure soroak,
eta gero eraikiko duzu etxea.

28 Ez egin testigantzarik lagun
hurkoaren aurka arrazoirik gabe,
ezta gezurrez mintzatu ere.

29 Ez ezazu esan: «Neuri egin didana
egingo diot.

Nori bere egintzen arabera
ordainduko diot».

30 Alferraren landa ondotik pasatu
nintzen, burugabeko gizonaren
mahasti albotik:

31 dena laharrez eta sasiz josia ikusi
nuen, harresia ere behera botata.

32 Hura ikustean, gogoeta egin nuen;
hari begiratu eta eskarmentu hartu
nuen.

33 Aldika lozorroan, aldika erdilo,
aldika besoak uztartu eta atsedenean:

34 arlotea bezala iritsiko zaizu gabezia,
eskalea bezala etorriko miseria.

Zenbaki-esaerak

30 15 Izainak bi alaba ditu: «Eman»
eta «Eman».

Hiru gauza dira asegaiztak,
bai eta laugarren bat ere «Aski!» esaten
ez duena:

16 Herio Leizea, sabel agorra,
urez asetzen ez den lurra,
eta sua, «Aski!» sekula esaten ez duena.

17 Aitari isekaz begiratu eta amari esana
egiten ez dionari beleek begiak aterako
dizkiote eta arranoek irentsiko.

18 Badira hiru gauza gaingaitzen
nautenak, bai eta laugarren
bat ere ulertzen ez dudana:

19 arranoaren bidea ortzian,
sugearen bidea haitzean,
ontziaren bidea itsaso zabalean,
gizonaren bidea emakumearen baitan.

20 Honela jokutzen du emakume
adulteriogileak:
jan, ahoa garbitu eta
«Ez dut ezer txarrik egin» esaten du.

21 Hiru gauza dira herrialde bat
dardarazten dutenak,
bai eta laugarren bat ere jasanezin
duena:

22 errege bilakatzen den esklaboa,
jakia sobera duen txorrea,

Esaera zaharrak 30,23

23 ezkontzea lortzen duen emakume zarpaila eta etxeoandre bihurtzen den neskamea.

24 Badira munduan lau izaki txiki-txiki, jakintsuak baino jakintsuagoak:

25 inurriak, herri ahula izan arren, udan beren ogia ziurtatzen dutenak;

26 azkonarrak, indar gabeko herria izan arren, bizilekua harkaitzetan dutenak;

27 matxinsaltoak, erregerik izan gabe ere, denak sailkatuta txukun ibiltzen direnak;

28 sugandilak, eskuaz harrapa daitezkeen arren, errege-jauregietara sartzen direnak.

29 Hiru dira ibilera ederrekoak, bai eta laugarren bat ere dotore ibiltzen dena:

30 lehoia, animalien arteko ausartena, inoren aurrean atzera egiten ez duena;

31 bizkar sendoko zaldia, akerra, eta erregea gudarostearen buruan.

32 Harropuzkeriaz txoratu egin bazara eta asmo txarrik gogoan izan baduzu, kontu egizu:

33 esnegaina irabiatuz gurina ateratzen da, sudurra jota odola, haserreari eraginez liskarra.

Rut



Grekozko eta latinezko itzulpenek Epaileak Liburuaren ondoren dakarte Rut, liburuaren hasieran azaltzen den denbora-adierazpenagatik noski (1,1). Egilea ezezaguna zaigu eta ez dago noiz idatzia izan zen zehatz jakiterik ere. Oso garai ezberdinak proposatu izan dira, Dabid eta Salomonen garaitik Esdras eta Nehemiasen garaira arte; azken hau litzateke agian liburuaren kokagune egokiena, gari horretan lege zorrotzak aldarrikatu baitziren atzerritarrekin ezkontzearen aurka (ikus Esd 9 eta En 13).

157

Elimelek eta bere familia Moaben

I ¹ Epaileen garaian gosetea izan zen Israel herrian. Gauzak honela, han joan zen bizitzera Moab lurraldera, aldi baterako, Judako Belengo gizon bat bere emazte eta bi semeekin. ² Gizon hari Elimelek zeritzan, emazteari Noemi eta semeei Mahlon eta Kilion. Efratar leinukoak ziren, Judako Belengoak. Moaben bizi zirelarik, ³ hil zitzaion Noemiri Elimelek bere senarra, eta bi semeekin bakarrik gelditu zen. ⁴ Hauek emakume moabdarrak hartu zituzten emazte: batak Orpa zuen izena eta besteak Rut. Hamarren bat urtez han bizi ondoren, ⁵ hil ziren Mahlon eta Kilion ere. Noemi, ez senar ez seme, bakarrik gelditu zen.

Noemi Belenera itzuli Rutekin

⁶ Gerora, Moab lurraldean zegoelarik, entzun zuen Noemik Jauna bere herriari aldeko agertu zitzaiola uzta ugaria emanez. ⁷ Hala, bere bi errainekin, Moab uzteko prestatu eta Judarantz abiatu ziren. ⁸ Baina, bidean, honela mintzatu zitzaion Noemi:

—Tira, itzul zaitezte zeuen etxera, nor bere amarenera. On bekizue Jauna, zuek niretzat eta hildakoentzat on izan zareten bezala. ⁹ Jaunak eman biezakizue beste senar eta etxe bana.

Orduan, Noemik besarkatu egin zituen bere errainak, agurtzeko. Baina hauek, garrasika, negarrari eman zioten, ¹⁰ eta esan:

—Ez! Zurekin joan nahi dugu zure herria.

11 Noemik erantzun zien:

—Itzul zaitezte, ene kuttunok. Zergatik nahi duzue nirekin etorri? Honezkero izan ote dezaket nik beste semerik zuei senartzat emateko? **12** Itzul zaitezte, enetxook, zaharregia bainaiz ni berriro ezkontzeko; baina oraindik itxaropena izan eta, gaur gauean haurdun gelditurik, semerik izango banu ere, **13** haiek gizondu zain egon behar ote zenukete? Besteren batekin ezkontzeari uko egingo al zenioke? Ez, ene kuttunok, horrelakorik ez. Aurka jarri zait Jauna, eta zuei gertatuak nahigabeturik nauka.

14 Haiek berriz ere negarrari eman zioten garrasika. Orduan, Orpak bere amaginarreba besarkatu zuen, eta bere herrira itzuli zen. Rut, ordea, amaginarrebarekin gelditu zen. **15** Noemik esan zion, orduan:

—Hara, Rut, zure koinata bere herrira eta bere jainkoengana itzuli da. Zoaz zu ere herrekin.

16 Baina Rutek erantzun zion:

—Ez eskatu horrelakorik. Utzi zurekin joaten. Zeren zu nora joan, hara joango bainaiz ni ere; zu non jarri bizitzen, hantxe jarriko naiz ni ere; zure herria zein, huraxe izango da nirea ere; zure Jainkoa zein, huraxe nirea ere; **17** zu non hil, hantxe hilko naiz ni ere, eta hantxe ehortziko naute. Betorkit Jaunarengandik zigorrik latzena, heriotzak ez bestek zuregandik aldenduko banindu!

18 Rutek bere erabakia harturik zeukala ikusirik, amore eman zuen Noemik. **19** Eta Belenerantz abiatu ziren. Iristean, herri osoa asaldatu zen eta emakumeek hau zioten:

—Noemi bera ote da hau?

20 Noemik erantzuten zien:

—Ez deitu niri gehiago Noemi —zorioneko—, Mara —zoritxarreko— baizik, Jainko Ahaltzuak zoritxarrez bete bainau. **21** Asebeterik alde egin nuen hemendik; Jaunak, ordea, esku-hutsik itzularazi nau. Zergatik

deitzen didazue oraindik ere Noemi, Jaun ahalguztiduna aurka jarri zaidanean eta honelako zoritzarra erakarri didanean?

22 Honela itzuli zen Noemi Moabetik Rut bere errain moabdarrarekin. Garagarra igitaitzen hasteko garaian iritsi ziren Belenera.

Rut Boozen soroetan

2 **1** Noemik bazuen bere senar Elimeleken aldetik ahaide bat, aberatsa eta itzal handiko gizona, Booz zeritzana. **2** Rutek esan zion Noemiri:

—Joan al naiteke sorora igitariak uzten dituzten garagarburuak biltzera? Aurkituko ahal dut bere ondoren biltzen utziko didanen bat!

Noemik erantzun:

—Zoaz, alaba.

3 Hala, sorora joan eta igitarien atzetik garagarburuak biltzen hasi zen Rut. Hain zuzen ere, Elimeleken ahaide Boozen sailean suertatu zen.

4 Handik laster, Booz berbera etorri zen Belendik eta esan zien igitariei:

—Jauna zuekin.

Haiek erantzun:

—Jaunak bedeinka zaitzala.

5 Boozek galdegin zion igitari-buruari:

—Nor dugu neska hau?

6 Hark erantzun:

—Noemirekin Moabetik etorritako neska atzerritar hura. **7** Igitarien atzetik garagarburuak biltzeko baimena eskatu dit. Goizetik oraintsu arte aritu da lanean eta utzi berria du, itzalean atsedean hartzeko.

8 Orduan, esan zion Boozek Ruti:

—Aizu! Ez zaitez joan soro honetatik beste inora garagarburuak biltzera. Jarrai hemen lanean nire morroiekin. **9** Begira zein sailetara doazen biltzera eta joan beraien atzetik. Nire morroiei zuri bakean uzteko

eskatu diet. Egarrri zarenean, edan haiek betetako ur-ontzietatik.

10 Rutek, lurreraino ahuspezturik, esan zion Booz:

—Zer dela-eta arduratzen zara nitaz, eta hartzen duzu hain bihotz onez atzerritar hau?

11 Boozek erantzun:

—Senarra hil zitzaizunetz gero, amaginarrebarekin nola jokatu duzun kontatu didate: nola zeure aitamak eta sorterria utzi eta aurrez ezagutzen ez zenuen herri batera etorri zaren. **12** Jaunak ordain diezazula egin duzun guztia eta eman diezazula saria luzaroan Israelgo Jainko Jaunak, honen babesera etorri baitzara.

13 Rutek ihardetsi zion:

—Bai ona zarela nirekin, jauna! Zure mirabeetako edozein baino gutxiago nauzun honi bihotzera mintzatu zaitzaizkio.

14 Bazkal orduan Boozek esan zion Ruti: «Zatoz, hartzazu ogi-puska bat, busti saltsatan eta jan».

Eseri zen, bada, Rut igitarien ondoan eta Boozek xigortutako ale eskutada bat eskaini zion. Hark asetzeraino jan zuen eta, halere, sobera geratu zitzaion. **15** Gero, garagarburuak biltzera joan zenean, Boozek agindu hau eman zien morroiei: «Utz iezaziozue garagar-sortetatik ere biltzen, eragozpenik gabe. **16** Are gehiago, sortetatik garagarburuak aterako dituzue eta apropos erortzen utziko, berak jaso ditzan. Ez egin errietarik».

17 Arratserarte garagarburu biltzen aritu zen soroan, eta garagarra jo ondoren, hogei-ta hamar bat kilo atera zituen. **18** Gainean harturik, herrira itzuli eta amaginarrebari erakutsi zion bildutako guztia. Bazkaritik geratua ere eman zion. **19** Noemik galdegin zion:

—Non aritu zara gaur garagar biltzen? Noren soroan egin duzu lan? Jaunak bedein-ka beza zutaz arduratu den hori.

Rutek, orduan, Booz izeneko baten soroan lan egin zuela kontatu zion Noemiri.

20 Honek esan zion:

—Jaunak bedeinka dezala gizon hori, Jaunak bere onginahia agertzen baitie biziei nahiz hilei. Booz —erantsi zuen— hurbileko ahaide dugu, legez gu zaintzeko ardura dutenatarikoa.

21 Rutek, orduan:

—Zera esan dit gainera: bere igitariekin garagarburuak biltzeko, uzta osoa amaitu arte.

22 Noemik esan zion Ruti:

—Bai, alaba, askoz hobe duzu Boozen soroan beraren morroiekin lan egin, beste inoren sorotan gogaitaraz ez zaitzaten.

23 Beraz, Boozen morroiekin lan eginez eta garagarburuak bilduz aritu zen Rut, garagar eta gariaren uzta-biltzea bukatu arte. Eta amaginarrebarekin jarraitu zuen bizitzen.

Rutek senarra aurkitu

3 **1** Egun batez esan zion Noemik Ruti: —Ez ote dizut egokitu behar bizitzan zorioneko egingo zaituen etxerik? **2** Aizu, bere morroiekin lan egiten utzi dizun gizon hori, Booz delakoa, hurbileko ahaide dugu. Gaur arratsean garagarra garbitzen arituko da. **3** Txukundu, usain-gozatu eta soinekorik ederrenaz jantzi zaitetz. Zoaz gero, garagarra garbitzen ari den lekura. Ez bedi, ordea, zutaz ohartu jate-edatea bukatu arte. **4** Jakizu ongi non etzaten den lotarako. Eta lotara doanean, hurbil zakizkio, altxatu haren estalkia eta etzan haren oinetan. Hortik aurrera, berak adieraziko dizu zer egin.

5 Rutek erantzun:

—Zuk esan guztia egingo dut.

6 Larrainera jaitsi zen Rut eta amaginarrebak gomendatua zehatz-mehatz egin zuen.

7 Booz, jan eta edan ondoren, umoretsu jarri zen, eta jarraian garagar-pila baten ondoan etzan zen lotarako. Rut isilka hurbildu, haren

estalkia altxatu eta haren oinetan etzan zen. **8** Gauzez, hotzak esnatu zen Booz; burua jaso eta horra non ikusten duen emakumea bere oinetan etzanik.

9—Nor zaitut?— galdegin zion. Emakumeak erantzun:

—Rut nauzu, zeure mirabea. Hurbileko ahaide zaitudanez, legez nitaz arduratu beharra duzu. Har nazazu, arren, emazteztat. **10** Boozek, orduan:

—Jaunak bedeinka zaitzala. Oraingoan lehen baino leialtasun handiagoa agertu diozu zeure amaginarrebaren familiari. Ez zara mutil gazte, txiro nahiz aberats, baten atzetik joan. **11** Ea, bada, ez izan beldur. Eskatuko didazun guztia egingen dut. Herrian jende guztiak daki emakume jatorra zarena. **12** Egiaz hurbileko ahaide nauzu eta legez zurekiko erantzukizuna dut. Baina bada hemen ni baino hurbilagokoa duzun ahaiderik. **13** Zaude hemen gaur gauean. Bihar goizean ikusiko dugu zurekiko ardura bere gain hartzen duen. Hala egingen balu, bejondeiola! Bestela, zin dagit Jaun biziarengatik, neure gain hartuko dudala zurekiko erantzukizuna. Etzan zaitez eta egizu lo egunsentirarte.

14 Hala, haren oinetan etzan zen egunsentirarte. Baina eguna zabaldu aurretik jaiki zen, inork ez ikusteko. Izan ere, Boozek ez zuen nahi, Rut han egona zela inork jakiterik.

15 Honela esan zion Boozek:

—Ekarri zeure soingainekoa eta zabaldu.

Hala egin zuen Rutek, eta Boozek hogeiren bat kilo garagar bota zizkion eta bizkarrean hartzen lagundu. Honela, herrira itzuli zen Rut bere zamarekin.

16 Amaginarrebaren etxera heldu zenean, honek galdegin zion: —Zer berri, alaba?

Boozek beraren alde egindako guztia kontatu zion Rutek. **17** Eta beste hau ere esan zion:

—Gainera, zuregana esku-hutsik ez itzultzeko esanez, garagar hau guztia eman dit.

18 Eta Noemik erantzun:

—Orain, Rut, zaude lasai arazoa zer-nola bukatuko den jakin arte. Boozek ez du etsiko gaur bertan auzia erabaki arte.

Booz Rutekin ezkondu

4 **1** Booz herri-sarrerako plazara joan zen eta bertan eseri. Hain zuzen, orduantxe pasatu zen handik Elimeleken ahaiderik hurbilena, Boozek Ruti aipaturikoa. Dei egin zion Boozek:

—Aizu, adiskide, zatoz hona eta eseri!

Joan zen hura eta eseri. **2** Boozek, orduan, herriko hamar nagusi hartu zituen lekuko eta han esertzeko erregutu zien. Eseri zirenean, **3** esan zion Boozek bere ahaideari:

—Noemi Moab lurraldetik etorria da eta gure ahaide Elimelekena zen soroa saldu nahi du. **4** Honen guztiaren berri jakinarazi nahi nizun. Beraz, soroa zeuretzat nahi baduzu, erostazu hemen herriko nagusi eta gainerako guztien aurrean. Nahi ez baduzu, esan, zuk baituzu lehentasuna erosteko, eta ondoren nik.

—Erosiko nuke, bai— esan zuen hark.

5 Boozek, orduan:

—Ongi! Baina Noemiri soroa erosten badiozu, Rut moabdar alarguntsarekin ezkondu ere egin beharko duzu. Honela, berarengandik jaiotako seme-alabek hildakoaren jatorria iraunaraz dezakete eta haren oinordea gorde.

6 Hark erantzun zuen:

—Horrela bada, uko egiten diot soroa erosteko eskubideari. Ez diet neure seme-alabei neure oinordea hondatu nahi. Erostazu zeuk, nik ez dut erosi nahi.

7 Israelen, antzina, jabegoa erosi edota jabego-eskubidea eskuz aldatzen zenean, honela egin ohi zen: saltzaileak oinetako bat erantzi eta erosleari ematen zion. Hala jokatu ohi zuten israeldarrek, auzia erabakia

zegoela adierazteko. **8** Beraz, gizon hark, Boozi «Erostazu zeuk» esan zionean, oinetako bat erantzi eta Boozi eman zion.

9 Orduan, Boozek herriko nagusiei eta han zeuden guztiei esan zien:

—Gaur lekuko zaituztet, nola erosten diodan Noemiri Elimelekena eta Kilion eta Mahlonena zen guztia. **10** Halaber, emaztetzat hartzen dut Rut moabdarra, Mahlonen alarguntsa; honela, Mahlonen familian iraungo du jabegoak eta Elimeleken izenak bere senideen artean eta herri honetan jarraituko du. Zuek zarete, gaur, honen guztiaren lekuko.

11 Herriko nagusiek eta han zeuden guztiek esan zuten:

—Bai, lekuko gara. Zure etxera datorren emakume hau egin beza Jaunak Jakobi seme-alaba ugari eman zioten Rakel eta Lea bezalakoa. Izan zaitez aberats Efratan eta ospetsu Belenen! **12** Emakume honengandik Jaunak emango dizkizun seme-alabek egin bezate zure familia, Juda eta Tamarren seme Peretzen familia bezain handi.

Boozen ondorengoak

13 Booz Rutekin ezkondu zen eta Jaunak bedeinkatu egin zuen Rut: haurdu gelditu eta semea izan zuen. **14** Emakumeek honela ziotsoten Noemiri: «Gora Jauna! Berak eman baitizu gaur zainduko zaituen biloba. Izan bedi hau Israel herrian ospetsu. **15** Bizitza suspertuko dizu eta zahartzaroa atseginenez beteko, maite zaituen errainak biloba eman baitizu: zazpi seme baino hobea duzu bera». **16** Noemik haurra semetzat hartu zuen eta zaindu. **17** Auzo-lagunek honela zioten: «Semea jaio zaio Noemiri».

Eta Obed deitu zioten. Obed Jeseren aita izan zen; Jese, berriz, Dabidena.

18-22 Hona hemen Peretzengandik Dabidenganainoko arbaso-zerrenda: Peretzek Hetzron sortu zuen, honek Ram, honek Aminadab, honek Nahxon, honek Salmon, honek Booz, honek Obed, honek Jese eta honek Dabid.

Kantarik ederrena



Kantarik ederrena maitasunezko kanta-bilduma, amodio-poema, da. Ez dugu egilea ezagutzen, ezta noiz idatzia izan zen ere. Baina hori ez da hain garrantzitsua maitasunaren betirako gai eta hizkera erabiltzen baititu liburu honek. Munduan izan diren eta izango diren maitemindu guztiek har dezakete ahotan. Tradizioak Salomonen izenpean jarri du, zenbait jakinduri liburu bezala; baina hori literatur baliabide hutsa da (ikus 1 Erg 5,12an horren oinarria).

162

Mahastizaina eta artzaina

Emakumeak

1 **5** Beltzarana naiz, baina ederra,
oi Jerusalemgo neskatxok;
beduinoen oihal-etxolak bezain
beltzaran, Salomonen jauregiko kortinak
bezain eder.

6 Ez begira nire azal ilunari,
eguzkiak bainau kiskali:
neure anaiek, nirekin haserre,
mahastiak zaintzen jarri naute.
Eta neure mahastia utzi dut zaindu gabe!

7 Esadazu, ene bihotzeko kuttuna,
non duzun larratzen artaldea,
non abaroan uzten eguerdian.

Ez nadin isil-gorderik ibil,
zure lagunen artaldean atzetik.

Gizasemeak

8 Ez badakizu, oi emakumerik ederren,
zoaz ardién oinatzen ondoren
eta larratu zeure antxumeak
artzainen txabola ondoan.

Nire nardoari usaingo zo darío

Gizasemeak

9 Ene laztana, errege-karroza daraman
behorra dirudizu.

10 Zeinen politik zure bi masailak,
belarritako horiekin!

Zeinen polita zure lepoa,
urrezko kate horiekin!

11 Urezko belarritakoak egingo
dizkizugu, zilarrez tarteka apainduak.

Emakumeak

12 Ene erregea etzanik dagoela,
nire nardoari usain gozo dario.

13 Ene maitea niretzat mirra-zorrotxoak:
nire bularren artean ematen du gaua.

14 Ene maitea niretzat xuandor-loresorta,
En-Gediko mahastietan hazia.

Gizasemeak

15 Bai ederra zarela, ene laztana,
bai ederra!
Zure begiak uso bi!

Emakumeak

16 Zu bai ederra, ene maitea,
bai zoragarria!

Belardia da gure ohe,

17 zedroak gure etxe-habe,
nekostak etxe gain.

Maitasuna ezaugarri

Emakumeak

2 **1** Xaron zelaiko lore naiz ni,
ibarretako lili.

Gizasemeak

2 Nola lilia arantza artean,
hala ene laztana neskatxen artean.

Emakumeak

3 Nola sagarrondoa basazuhaitz artean,
hala ene maitea mutilen artean.

Zein atsegin haren itzalean esertzea,
zein gozo haren fruituak jatea!

4 Bere jangelara nau eraman,
eta ezaugarri hau jarri dit gainean:
«Maitasuna».

5 —Susper nazazue mahats-opilez,
indartu sagarrez,
gaixo bainago maitasunez.

6 Ezker besoaz dit lepotik heltzen
eta eskuinekoaz nau besarkatzen.

Gizasemeak

7 Jerusalemgo neskatxok,
basoetako orein eta gazelen izenean, otoi,
ez iratzarri ene maitea,
utzi lo egiten,
nahi duen arte.

Udaberria

Emakumeak

8 Ene maitearen ahotsa!

Horra, hor dator bera,
mendiz mendi saltari,
muinoz muino jauzika;

9 ene maitea gazela bezalako,
oreinkumearen antzeko.

Gure hormaren atzean gelditu da,
leihoetatik zelatan,
leiho-sareetatik kirika.

10 Honela mintzo zait maitea:

Gizasemeak

Jaiki zaitetz, ene ederra,
ene laztana,
zatoz nirekin.

11 Horra! Joan da negua,
atertu du euria.

12 Erne dira zelaietan loreak,
heldu da kanturako garaia,
entzun daiteke gure zelaietan
usapalen urruma.

13 Hasia da muskiltzen pikuondoa,
usaina zabaltzen mahats-kimuak.

Jaiki zaitetz, ene ederra,
ene laztana,
zatoz nirekin.

14 Ene uso,
gordeleku haitzuloak,
labarreko zirrikituak dituzun hori,
ikus dezadala zure irudia,
entzun dezadala zure ahotsa!
Gozoa baita zure ahotsa,
ederra zure irudia!

Honelakoa da ene lastana

Gizasemeak

- 4 **1** Bai ederra zu, ene lastana,
bai ederra!
Zure begiak uso bi,
musu-estalkipean.
Zure adats-kizkurrak
ahuntz-taldea dirudi,
Galaad mendian behera bilin-balan.
- 2** Zure hortzak
ardi moztu eta garbitu berriak.
Denak dituzu biritxiak,
bat bera ere ez lagunik gabea.
- 3** Zure ezpainak, zinta gorrimin,
mintzaira gozokoak.
Zure masailak
granada ebaki baten bi erdiak,
musu-estalkipean.
- 4** Zure lepoa
harlanduz eraikitako Dabiden dorrea.
Milaka babeski daude han zintzilik,
gizon ospetsuen babeskiak.
- 5** Zure bi bularrak
bi gazelakume biritxi,
lili artean bazkatzen.
- 6** Arrats behean,
haizeak jo eta itzala ihesi joatean,
banoa neure mirra-mendira,
neure intsentsu-muinora.
- 7** Guztiz ederra zara, ene lastana,
ederra eta akatsik gabea!

Zatoz!

Gizasemeak

8 Zatoz Libanotik, ene emaztegaia, zatoz!
Jaitsi zaitez Libanotik,
jaitsi Amanako gailurretik,
Senir eta Hermon tontorretatik.
Utzi lehoien eta panteren mendizuloak.

9 Maitemindua nauzu,
ene arreba, ene emaztegaia!
Maitemindua nauzu zeure begirada
bakar batez,
bihotz-lotua zeure lepoko kate-bira batez.

10 Zeinen ederrak zure maite-lastanak,
ene arreba, ene emaztegaia!
Ardoa baino gozoago dira!
Zure ukenduen usaina lurrin guztiak
baino gozoago!

11 Zure ezpainei ezta darie,
ene emaztegaia;
zure mihipean, ezta eta esnea.
Zure jantzien lurrina
Libanoko basoen lurrina da.

Baratzea

Gizasemeak

12 Baratze itxia zara,
ene arreba, ene emaztegaia!
Baratze itxia eta iturri zigilatua!

13 Paradisu jori zara zu,
granadondoak dituzu ematen,
emaitzarik zoragarrienak sortzen:

14 nardoa, ipurua eta azafrana,
kanela eta ereinotza;
intsentsu, mirra, aloe,
mota guztietako
lurrin bereziak.

15 Zu nire baratzekeko iturri,
urbizien iturri,
Libano menditik datorren urjario!

Emakumeak

16 Iratzar, ipar-haize! Hator, hegohaize!
Zabaldu airean nire baratzeke lurrinak.
Eta zu, ene maitea, sar zeure baratzean,
jan bertako fruitu zoragarriak.

Gizakumeak

5 **1** Banator neure baratzean,
ene arreba, ene emaztegaia,
neure mirra eta lurrinak biltzera,
neure abaraskako ezitia jatera,
neure ardo eta esnea edatera.

Koruak

Maiteok, jan eta edan,
mozkor zaitzete maite-laztanez.

Hurbil eta urruti

Emakumeak

2 Lotan nengoen, baina bihotza erne.
Horra ene maitea atean deika:
—Ireki, ene arreba, ene lastana,
ene uso zuriño horrek!
Buruia ihintzez betea daramat,
ile-kizkurrak gaueko tantaz bustiak.

3 Erantzia dut soinekoa;
nolatan jantzi berriro?
Garbituak ditut oinak;
nolatan zikindu berriro?

4 Ate-krisketan jarri du eskua
ene maiteak:
dardar degit barruak.

5 Jaiki naiz ene maiteari irekitzera:
mirra-ukendua darie nire eskuei,
hatzetan behera, ate-sarraileraino.

6 Ireki diot,
eta joana zen nire maitea.
Arnasa ihesi doakit, konturatzean.

Atera naiz bila, baina aurkitu ez;
deika ari natzaio, baina erantzunik ez.

7 Hirian zehar dabiltzan zaindarien
aurkitu naute,
kolpatu eta zauriz bete;
harresietakoek mantua kendu didate.

8 Jerusalemgo neskatxok, otoi;
ene maitea aurkitzen baduzue...,
zer esango diozue?
Esan, gaixo nagoela maitasunez.

Honelakoa da ene maitea

Neskatxek

9 Zer du, bada, zure maiteak
bestek ez duenik, oi emakumerik ederren?
Zer, guri horrela otoizka jarduteko?

Emakumeak

10 Nire maitea gorrimin bizia da,
hamar milaren artean nabarmena.
11 Haren burua urrea, urrerik garbiena;
haren ile-kizkurrak palmondoaren luku,
beleak baino beltzago.

12 Haren begiak uso bi ur ondoan,
esnetan bustiak,
uraska-ertzean egonean.

13 Haren masailak
lurrinkaiz landaturiko alor.
Haren ezpainak, mirra darien lili.

14 Haren eskuak urretan biribilduak,
topazioz tarteka apainduak.

Haren bularra
marfilez landua, zafiroz estalia.

15 Haren zangoak marmolezko zutabe,
urre gorritzko oin gainean jasoak.
Libano mendia bezain eder,
zedroak bezain lerdin.

16 Haren ahoa, gozo-gozo.
Dena da xarmagarria!

Honelakoa da ene maitea,
honelakoa ene lastana,
Jerusalengo neskatxok!

Kantarik ederrena 6,1

Neskatxek
6 ¹ Oi emakumerik ederren,
nora joan zaizu maitea?
Norantz abiatu da?
Zurekin nahi dugu bila joan.

Nirea da maitea

Emakumeak
2 Ene maitea bere baratzera jaitsi da,
lurrinkai-alorretara,
baratzea zaintzera, liliak biltzera.
3 Nirea da maitea
eta ni harena,
lilizainarena.

Bat bakarra ene laztana

Gizakumeak
4 Bai ederra zu, ene laztana,
Tirtza hiria bezain ederra,
Jerusalen bezain zoragarria,
izartegia bezain izugarria!
5 Ken niregandik begi horiek,
zoratu egiten naute.
Zure adats-kizkurak
ahuntz-taldea dirudi,
Galaad mendian behera bilin-balan.
6 Zure hortzak
ardi moztu eta garbitu berriak.

Denak dituzu biritxiak,
bat bera ere ez lagunik gabea.
7 Zure masailak
granada ebaki baten bi erdiak,
musu-estalkipean.

8 Izan ditzala erregeak
hirurogei emazte,
laurogei ohaide,
nahi beste neska gazte.
9 Bat bakarra da nire usoa,
bakarra eta akatsik gabea,
amaren kuttuna.
Zoriontsu diotse neskatxek ikustean,
erreginek eta ohaideek
honela goraiatzten:
10 —Nor da emazteki hori?
Nor egunsentia bezala sortzen den hori,
ilargia bezain eder,
eguzkia bezain argi,
izartegia bezain izugarri?

Antzaldaketa

Emakumeak
11 Neure intxaurdira jaitsi naiz,
ibarretako landaretza ikustera,
mahastiak kimuberritzen,
granadondoak loratzen ikustera.

12 Baina ni ez naiz jadanik lehengoa,
ohorezko tokian jarri nauzu eta.

Kohelet



Ez dakigu deus ere idazleari buruz. Kohelet izena hebraierazko kahal (biltzarrea) hitzetik dator eta biltzarrean eginkizunen bat duena adierazi nahi du: biltzailea edo hizlaria. Grekozko eta latinezko itzulpenek Eklesiastes titulua ezarri zioten (grekozko ekklesia hitzak ere biltzarrea esan nahi baitu).

Deus ez berririk eguzkipean

- 1** **3** Zertarako du gizonak
lur honetan leher egitea?
4 Belaunaldiak joan,
belaunaldiak etorri,
munduak mundu dirau.
5 Sortzen da eguzkia
eta sartzen,
eta bere tokira lehiatzen,
handik berriro sortzeko.
6 Jotzen du haizeak hegoalderantz,
jotzen iparralderantz,
batera jo, bestera jo,
eta jira-biraka hasten da berriro.
7 Ibaiak oro itsasora doaz
eta itsasoak ez du gainez egiten;
ibaiak, nora doazen,
harantz dira behin eta berriro joaten,
bide bera eginez.

- 8** Ezin inork aski esan
zeinen aspergarri den guztia.
Ez da begia ikustez nekatzen,
ez belarria entzutez asetzen.
9 Gertatu zena gertatuko da berriro,
lehen egina egingen da gero ere.
Deus ez berririk eguzkipean.
10 Zerbaitetaz hau esan baledi:
«Horra, hori bai berria!»,
horrelakoa ere gertatua da
aurreko mendeetan.
11 Ez gara oroitzen geure antzinakoez;
halaxe gure ondokoez ere,
ez dira oroituko hurrengo izanen direnak.

Elkartasuna

- 4** **9** Hobe, bi elkarrekin ari izatea
bakarka baino,
elkartze horretatik
etekin hobe aterako baitute.

10 Bietarik bat ereriko balitz,
besteak jasoko luke;
baina urrikalgarri bakarrik dagoena;
ereriko balitz,

ez bailuke izango nork jaso.

11 Orobat, bik, batera lotaratuz,
elkar dute berotuko;
bakarrik dagoena nola berotu?

12 Bati erasotzen diotelarik,
biek eginen dute aurre.

Hiru hariko soka etetea gaitz.

Diruzalekeria

5⁹ Diruzalea ez da inola asetzen,
aberastasuna maite duenak
ez du onurarik.

Hori ere, beraz, huskeria da.

10 Zenbat eta ondasun gehiago,
hainbat eta irense ugariago;
zertarako, hortaz,

aberastasunak jabeak
begien aurrean ikusteko izan ezik?

11 Asko jan, gutxi jan,
langileak lo egiten du gozoki;
aberatsak, aldiz,

bere asean ezin egin lorik.

12 Ikusia dut
beste gaitz handi bat ere eguzkipean:
aberastasunak pilatzea

berorien jabearen kaltetan dela;

13 izan ere, une txar batean
gal ditzake denak;
jaioko zaio semea
eta esku-hutsik geldituko da.

14 Bere amaren sabeletik
biluzik irten zen,
halaxe da itzuliko,
bere lanaren saririk batere
ez du berekin eramango.

15 Hau bai gaitz negargarria:
etorri bezalaxe joan behar.
Eta zein fruitu atera dio
egin duen lanari?

16 Bere bizitza osoa
goibel eta atsekabeturik,
neke, oinaze eta haserre artean
eman du.

17 Ikusi dudanez,
hauxe dute gizon-emakumeek hoberena:
eguzkipean egiten duten lanetik
jan, edan eta alai gozatu,
Jainkoak eman

bizitzako egunetan zehar;
horixe dute beren zoria.

18 Aberastasunak eta ondasunak
eman dizkion gizon orori,
berorietatik jateko,
dagokion zatia hartzeko
eta lanaz pozteko eskubidea ere
eman dio Jainkoak;
Jainkoaren dohaina da hori.

19 Ez du bere bizitzako egunetan
buruhausterik izango
Jainkoak bihotza atseginez
betetzen dionak.

Indarra ala jakinduria

9¹³ Ikusia dut eguzkipean
beste gauza oso jakingarri bat

14 Ba omen zen herri txiki bat
bizilagun gutxikoa.
Errege handi batek eraso omen zion,
setiatu eta inguruan
erasogailu handiak eraiki omen zituen.

15 Ba omen zen hiri hartan
gizon behartsu baina jakintsu bat,
eta bere jakinduriaz
libratu omen zuen hiria.

Ondoren, ordea,
ez zen inor ere oroitu
gizon behartsu hartaz.

16 Hobe da jakinduria indarra baino,
diot nik;
behartsuaren jakinduria, ordea,
arbuia egin ohi da
eta ez dira haren hitzak aditzen.

17 Jakintsuaren hitz eztiak
errazago aditzen dira
ergelen buruzagiaren deiadarrak baino.

18 Hobe jakinduria armak baino.
Aski da, ordea,
batek huts egitea
on guztiak hondatzeko.

Bizitza ederra da

11 **7** Bai ezti eguargia,
eta bai atsegina begientzat
eguzkia ikustea!

8 Gizonak, urte luzez bizi baledi ere,
bizi bitza denak alai;
baina oroit bedi

aldi ilunak ere ugari direla.

Gertatzen den guztia huskeria da.

9 Alai hadi, mutil, gazte haizen bitartean,
izan zoriontsu heure gaztaroan,
jarrai hake heure bihotzari
eta heure begien grinari.

Ez ahaztu, ordea, horien guztien kontua
eskatuko dimala Jainkoak auzian.

10 Bota heure bihotzetik kezka,
uxa heure gorputzetik gaitza,
gaztetasuna eta gaztaroa
agudo joaten baitituk.

Daniel



Liburuak bere protagonistaren izena hartzen du. Daniel —izenak «Jaunak epaitzen du» esan nahi du— Babilonian erbesteraturiko judu gaztea da, eta liburua babiloniar inperioaren bukaeran eta pertsiarraren hasieran girotua dago.

Daniel eta lagunak Babilonian

170

1 Judako errege Joiakinen erregealdiko hirugarren urtean, Babiloniako errege Nabukodonosorrek setiatu egin zuen Jerusalem. **2** Jaunak honen eskuetara eman zituen Joiakin Judako erregea eta Jaunaren etxeko ontzi asko, eta Nabukodonosorrek Babiloniara eraman zituen, bere jainkoen jauretxeko altxortegian gordetzeko.

3 Gero, errege edo handikien familietako israeldar gazte batzuk aukeratzeko agindu zion jauregiko funtzionarioburu zen Axpenazi. **4** Akatsik gabeak izan behar zuten, itxura ederrekoak, jakinduriaz, adimenez eta zuhurtasunez beteak, erregearen jauregian zerbitzatzeko modukoak. Babiloniarren hizkera eta idazkera irakatsiko zizkieten. **5** Gainera, bere janari eta edari beretik emateko agindu zuen erregeak. Hiru urtez horrela hezi ondoren, erregearen zerbitzari izango ziren.

6 Aukeratuen artean, Judaren leinuko lau gazteok zeuden: Daniel, Hananias, Mixael eta Azarias. **7** Jauregiko funtzionarioburuak izen berriak eman zizkien: Danieli Beltxatzar izena eman zion, Hananiasi Xadrak, Mixaeli Mexak eta Azarias Abed-Nego. **8** Baina Danielek, bere burua erregearen jan-edariz ez kutsatzea erabakia zuenez, janari kutsatu haietara ez behartzeko eskatu zion jauregiko funtzionarioburuari. **9** Jainkoaren eraginez, funtzionarioburuaren onginahia bereganatu zuen Danielek; **10** hala ere, hau erantzun zion hark: «Erregeak berak erabaki du zuek zer jan behar duzuen; horregatik naiz beldur, zeren eta, beste gazteei baino itxura txarragoa ikusiko balizue, nire bizia jarriko baitzenukete arriskuan».

11 Funtzionarioburuak Daniel, Hananias, Mixael eta Azarias zaintzaile baten ardurapean jarriak zituen, eta Danielek proposamen hau egin zion zaintzaileari: **12** «Egizu aproba gurekin hamar egunez: ez eman jaten eta edaten barazkiak eta ura besterik. **13** Epe horren ondoren konparatu gure itxura eta erregearen janaritik jaten duten

gazteena, eta jokatu orduan gurekin ikusita-koaren arabera».

14 Morroiak onartu zuen proposamena, eta hamar eguneko aproba egin zuen haiekin. **15** Hamar egunen buruan, erregearen janaritik jan zuten beste gazteak baino ederrago eta mardulago aurkitu zituen. **16** Ordu-danik, aginduriko janaria eta edaria baztertuz, barazkiak bakarrik ematen zizkien. **17** Jainkoak lau gazte haiei idazki eta jakintza oro ulertzeko adimena eta buru argia eman zizkien. Bazuen Danielek ametsak eta ikuskarien esanahia argitzeko gaitasuna ere.

18 Aukeraturiko gazteak prestatzeko erregeak ezarri zuen epea betetzean, funtzionarioburuak Nabukodonosorri aurkeztu zizkion. **19** Haiekin hitz egiten jardun zuen erregeak, eta Daniel, Hananias, Mixael eta Azarias adinakorik ez zuen aurkitu. Harrezkero, beraz, bere zerbitzurako hartu zituen. **20** Jakinduria eta buru argia eskatzen zuten arazoetan erregeak iritzia eskatzen zienean, haien erantzunak erreinuko azti eta igarle guztienak baino hamar aldiz hobeak iruditzen zitzaizkion. **21** Daniel han gelditu zen Ziro erregearen lehenengo urtera arte.

Nabukodonosorren lehen ametsa

2 **1** Gau batez, bere erregealdiko bigarren urtean, amets egin zuen Nabukodonosorrek. Erabat urduri utzi zuen ametsak, eta ezin izan zuen loak hartu. **2** Orduan, azti, igarle eta astrologoei dei egin zien, ametsaren esanahia azal diezaioten. **3** Erregearengana aurkeztu zirenean, honek esan zien:

—Amets egin dut, eta oso urduri nago esanahia jakin nahiz.

4 Erantzun zioten aztiak erregeari:

—Bizi zaitez luzaroan, errege jauna! Kontaguzu ametsa zeure zerbitzarioi eta azalduko dizugu esanahia.

5 Erregeak esan zien:

—Erabaki hau hartu dut: ametsa eta beronen esanahia argitzen eta azaltzen ez badizkidazue, txiki-txiki egingo zaituztet eta zuen etxeak zabortegi bihurtuko. **6** Argitzen eta azaltzen badizkidazue, ordea, emaitzez, erre-galoz eta ohorez beteko zaituztet. Azaldu, beraz, ametsa eta beronen esanahia.

7 Aztiak berriro ere erregeari:

—Errege jauna, kontaguzu zer amets egin duzun eta azalduko dizugu esanahia.

8 Baina erregeak:

—Badakit luzatu nahirik zabiltzatela, nire erabakien berri badakizuelako. **9** Ametsa argitzen ez badidazue, zori bera izango duzue guztiok. Bat etorri zarete niri hitz zuri eta gezurrezkoak esateko, egoera aldatu zain. Esadazue berehala zein izan den ametsa. Horrela jakingo dut ametsaren esanahia ere azaltzeko gai zareten ala ez.

10 Aztiak erantzun zioten:

—Errege jauna, ez dago munduan gizonik eskatzen duzuna egin dezakeenik. Inongo erregek, handiena eta ahaltsuena izanik ere, ez dio inoiz antzeko gauzarik eskatu igarle edo azti bati. **11** Gehiegizkoa da eskatzen duzuna: ezin dizu inork erantzunik eman, jainkoek izan ezik; baina jainkoak ez dira gizonen artean bizi.

12 Orduan, erregea haserre gorritan jarri zen, eta Babiloniako jakitun guztiak hiltzeko agindu zuen. **13** Agindua aldarrikatu zelarik, Danielen eta honen lagunenez bila ere joan ziren.

Jainkoak Danieli erregearen ametsa adierazi

14 Ariok, erregearen guardaburua, prest zegoen jakitunak hiltzen hasteko. Orduan, Danielek Ariokerengana jo eta zentzuz hitz egin zion. **15** Erregeak hain epai gogorra

zergatik eman zuen galdetzean, arrazoia azaldu zion Ariokek. **16** Daniel berehala joan zen erregearengana, eta denbora pixka bat emateko erregutu zion, ametsaren esanahia azaldu ahal izateko.

17 Gero, etxera itzuli eta gertatuaren berri eman zien bere lagun Hananias, Mixael eta Azariasi; **18** zeruko Jainkoari laguntza eskatzeko esan zien misterioa argitu ahal izateko, Babiloniako beste jakitunekin batera hil ez zitzaten. **19** Gau hartan, ordea, ikuskari baten bidez misterioa argitu zion Jainkoak Danieli. Orduan, honela goretzi zuen Danielek Jainkoa:

20 «Bedeinkatua Jainkoa betierean,
berek baititu jakinduria eta ahalmena!

21 Berak aldatzen ditu
urtaroak eta garaiak;
berak jartzen eta kentzen erregeak;
berak ematen jakinduria jakintsuei,
eta ezaguera burutsuei.

22 Berak azaltzen ditu
gauza sakon eta gordeak;
berak ezagutzen ilunpetan dagoena,
argiz inguratua baitago.

23 Eskerrak zuri, gorespen zuri,
gure arbasoen aita,
jakinduria eta ahalmena
eman baitizkidazu!
Entzun duzu gure eskabidea
eta ezagutarazi diguzu
erregearen kezka».

Danielek erregearen ametsa azaldu

24 Ondoren, Daniel, Babiloniako jakitunak hiltzeko erregearen agindua hartua zuen Ariokerengana joan zen, esanez: «Ez hil Babiloniako jakitunik! Aurkez nazazu erregearengana, neuk argituko baitiot ametsa».

25 Ariokek berehala eraman zuen Daniel erregearengana, eta esan zion honi: «Jauna,

ametsaren esanahia azalduko omen dizun gizon bat aurkitu dut Judatik erbesteratuen artean».

26 Orduan, galdetu zion erregeak Danieli, Beltxatzar ere deituari:

—Egia al da ametsa argitu eta esanahia azalduko didazula?

27 Danielek erantzun:

—Errege jauna, ez dago jakitunik, ez aztirik, ez igarlerik edo astrologorik ametsaren misterioa azal diezazukeenik. **28** Bada, ostera, zeruan misterioak azaltzen dituen Jainkoa. Honexek jakinaraziko dizu, Nabukodonosor errege, gerora gertatuko dena. Hona, bada, lo zeundela ametsetan ikusi zenuena: **29** Ohean etorkizunaz pentsatzen hasi zinen, eta misterioak argitzen dituen Jainkoak zer gertatuko den eman dizu aditzera. **30** Niri dagokidanez, ez zait misterioa adierazi beste inor baino jakitunago naizelako, errege jaunari ametsaren esanahia azaltzeko baizik, eta bere barne-gogoetak argitzeko.

31 «Hauxe da ikusi duzuna, errege jauna: Irudi erraldoi bat zegoen, guztiz distiratsua eta itxura beldurgarrikoa. **32** Irudiaren burua urre finezkoa zen; bularra eta besoak zilarrezkoak; sabela eta izterrak brontzezkoak; **33** hankak burdinazkoak; oinak, berriz, burdinazko eta buztinezkoak. **34** Zu hari begira zeundela, harri bat atera zen menditik, inork ere bultzatu gabe, eta irudiaren burdinazko eta buztinezko oinak jo eta txiki-txiki egin zituen. **35** Une berean, burdina eta buztina ez ezik, brontzea, zilarra eta urrea ere hauts eginda gelditu ziren, eta haizeak eraman zituen, udan larraineko lastoa bezala, arrastorik ere utzi gabe. Bitartean, irudia jo zuen harria mendi handi bilakatu zen, eta mundu osoa bete zuen. **36** Horixe izan da zure ametsa, errege jauna. Orain, ametsaren esanahia azalduko dizut.

37 Zeu zara denetan erregerik handiena. Zeuri eman dizkizu zeruko Jainkoak erregetza, agintea, ahalmena eta ohorea; **38** zure mende utzi ditu gizon-emakumeak, piztiak eta hegaztiak, nonahi bizi direla ere; guztien nagusi egin zaitu. Urrezko burua zeu zara!

39 Zure ondoren, beste erreinu bat sortuko da, zurea baino txikiagoa. Gero hirugarren bat, brontzezkoa, mundu osoa menderatuko duena. 40 Laugarren erreinu bat ere izango da, burdina bezain gogorra; nola burdinak dena puskatu eta apurtzen duen, hala puskatu eta apurtuko ditu hark beste erreinuak.

41 Ikusi duzunez, oinak eta behatzak burdinazkoak eta zeramika-buztinezkoak ziren; erreinua zatitua izango dela esan nahi du horrek. Izango du, bai, burdinaren gogortasunik ere, burdina buztinarekin nahasia baitago, ikusi duzun bezala. 42 Burdinaz eta buztinez egindako oinetako behatzek hauxe esan nahi dute: aldi berean indartsua eta ahula izango dela erreinua. 43 Eta burdina buztinarekin nahasia ikusteak beste hau ere adierazten du: ezkontzaz batuko direla erreinu horietako erregeak, baina ez dutela batasun iraunkorrik lortuko, burdinak eta buztinak elkarrekin bat egiten ez duten bezala.

44 Errege horien garaian, erreinu bat ezarriko du zeruko Jainkoak: ez dute inoiz ere hondatuko eta haren agintea ez da beste herri baten eskuetara aldatuko. Beste guztiak suntsitu eta desagerturik ere, erreinu horrek betirako iraungo du. 45 Horixe esan nahi du, inork ere bultzatu gabe, menditik atera eta buztina, burdina, brontzea, zilarra eta urrea txikitzen ikusi duzun harriak. Horrela, errege, gerora gertatuko dena jakinarazi dizu Jainko handiak. Egia da ametsa, eta sinesgarria eman dizudan azalpena».

46 Orduan, Nabukodonosor erregeak, lurreraino ahuspezturik, ohore eman zion Danieli, eta opariak eta intsentsua eskaintzeko agindu zuen. 47 Gero, esan zion:

—Egiaz jainko guztietan handiena da zuen Jainkoa; erregeen jaun da eta misterioen agertzaille, gauza izan baitzara zu misterioa niri agertzeko.

48 Berehala, ohore handiz eta erregalo ederrez bete zuen erregeak Daniel; Babilonia eskualdeko gobernari egin zuen eta erreinuko jakitun guztien buru goren.

49 Danielek eskaturik, Xadrak, Mexak eta Abed-Nego Babilonia eskualdeko administrazioaile egin zituen erregeak. Daniel, aldiz, erregearen jauregian geratu zen.

Urrezko irudia gurtzeko agindua

3 ¹ Nabukodonosor erregeak urrezko irudi bat egiteko agindu zuen, hogeita hamar metro gora eta hiru metro zabal, eta Babilonia eskualdeko Dura lautadan ipini zuen. ² Gero, erregeak mandatariak bidali zituen eskualdeko funtzionario guztiak biltzeko: eskualdeburu, gudalburu, gobernari, kontseilari, diruzain, epaile, legegizon eta agintariak. Berak eraikitako urrezko irudiaren sagarapen-festarako deitzen zituen. ³ Etorri ziren, beraz, goi-funtzionario guztiok, eta irudiaren aurrean bildu ziren sagarapen-festa egiteko.

4 Bozeramaileak honela aldarrikatu zuen: «Entzun agindu hau, herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeok: ⁵Turuta, txirula, zitarra, alboka, harpa eta beste musika-tresnen hotsa entzun orduko, lurreraino ahuspeztuz, Nabukodonosor erregeak eraiki duen urrezko irudia gurtuko duzue. ⁶ Ahuspezturik gurtzen ez duena, labeko su bizira jaurtikiko dute».

7 Horrela, bada, herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak, turuta, txirula, zitarra, alboka, harpa eta beste musika-tresnen hotsa entzun zueneko, lurreraino ahuspeztuz, Nabukodonosor erregeak eraikitako irudia gurtu zuen.

Danielen lagunak Jainkoarekiko leial

8 Handik laster, babiloniar batzuk juduak salatzeraz joan ziren Nabukodonosor

erregearengana. **9** Esan zioten: «Luzaro bizi zaitez, errege jauna! **10** Zeuk, errege, agindu duzu, turuta, txirula, zitara, alboka, harpa eta beste musika-tresnen hotsa entzun orduko, denek, lurreraino ahuspeztuz, irudia gurtzeko, **11** eta ahuspezturik gurtzen ez duena, labeko su bizira jaurtikitzeko. **12** Ba, judu batzuek, Xadrak, Mexak eta Abed-Negok, Babilonia eskualdean administratzaile jarri dituzunok hain zuzen, ez dute zure agindua bete nahi: ez dituzte gure jainkoak zerbitzatzen, eta ez dute gurtzen eraiki duzun irudia».

13 Nabukodonosor sutan jarri zen, eta Xadrak, Mexak eta Abed-Nego bere aurrera ekartzeko agindu zuen. Etorri zirenean, **14** honela galdetu zien erregeak:

—Egia al da, Xadrak, Mexak eta Abed-Nego, ez duzuela nire jainkoak zerbitzatu eta nik eraiki dudan irudia gurtu nahi? **15** Prest al zaudete orain, turuta, txirula, zitara, alboka, harpa eta beste musika-tresnen hotsa entzutean, lurreraino ahuspeztuz, nik eraikitako irudia gurtzeko? Gurtu nahi ez baduzue, berehala labeko su bizira jaurtiara-ziko zaituztet. Eta orduan, zein jainkok libratuko zaituzte nire mendetik?

16 Xadrak, Mexak eta Abed-Negok erantzun zioten:

—Errege jauna, ez daukagu gai horretan zertan erantzunik. **17** Zerbitzatzen dugun Jainkoak libra gaitzake labeko sutatik eta zure mendetik. **18** Eta hala ez balitz ere, jakin ezazu, errege jauna, ez ditugula zerbitzatuko zure jainkoak, ezta gurtuko ere zuk eraiki duzun urrezko irudia.

19 Hitz horiek entzutean, haserre gorritan jarri zen Nabukodonosor Xadrak, Mexak eta Abed-Negoren kontra, eta labea besteetan halako zazpi berotzeko agindu zuen. **20** Ondoren, Xadrak, Mexak eta Abed-Nego lotzeko agindu zien bere gudaririk indartsuenei, eta labeko su bizira botatzeko. **21** Eta loturik, beren jantzi eta guzti, praka, soingaineko eta burukoekin, labeko su bizira jaurtiki zituzten. **22** Erregearen agindu zorrotzaren

arabera labea bizi-bizi piztu baitzuten, Xadrak, Mexak eta Abed-Nego jaurtikitzeko labera hurbildu ziren gudariak berak suak kiskalita hil ziren. **23** Eta Xadrak, Mexak eta Abed-Nego, hirurak, su bizitan zegoen labera erori ziren lotuta.

Hiru lagunak labetik atera

24 Nabukodonosor erregea jauzi batez zutitu zen eta, harriturik, bere kontseilarietara galdetu zien:

—Ez al ziren hiru, lotu eta sutara botatuko gizonak?

—Halaxe da, errege jauna —erantzun zioten.

25 Eta erregeak:

—Ba, nik lau gizon ikusten ditut, suaren erdian libre dabilzala; ez die suak kalterik egin, eta laugarrenak aingerua dirudi.

26 Nabukodonosorrek, sutan zegoen labera hurbildurik, oiuhu egin zuen: «Xadrak, Mexak eta Abed-Nego, goi-goiko Jainkoaren zerbitzariok, atera kanpora!».

Berehala irten ziren labe barrutik. **27** Eskualdeburu, ministrari, gobernari eta kontseilari guztiak bildu ziren gizon haiek ikusteko: suak ez zien ezer egin gorputzean, ileak ere ez zitzaizkien kiskali, jantziak ukitu gabe zeuzkaten eta ez zerien erre-usainik.

28 Orduan, oiuhu egin zuen erregeak: «Bedeinkatua Xadrak, Mexak eta Abed-Negoren Jainkoa! Aingerua bidali du berarengan uste osoa zuten zerbitzariak libratzera. Nahiago izan baitute erregearen agindua hautsi eta beren bizia arriskatu, berena ez duten jainko bat zerbitzatu eta gurtu baino. **29** Horregatik, hauxe agintzen dut: Xadrak, Mexak eta Abed-Negoren Jainkoaren kontra gaizki hitz egiten duena, edozein herri, nazio edo hizkuntzatakoa delarik ere, txiki-txiki egina izango da, eta halakoaren etxea

zabortegi bihurtua. Ez baita gizona horrela libra dezakeen beste jainkorik».

30 Ondoren, erregeak kargu handiagoak eman zizkien Xadrak, Mexak eta Abed-Negori Babilonia eskualdean.

Erregearen bigarren ametsa

4 **1** «Ni, Nabukodonosor, lasai eta zorionsu bizi nintzen neure errege-jauregian. **2** Baina, gau batez, ohean nengoela, amets bat egin nuen, zeharo izutu ninduen, eta erabat beldurtu ninduten amesgaizto eta ikuskariak izan nituen. **3** Orduan, Babilonia-ko jakitun guztiak bilarazi nituen, ametsaren esanahia azaltzeko. **4** Etorri ziren, bada, aztiak, igarleak eta astrologoak, eta ametsa kontatu nien; baina ez ziren esanahia azaltzeko gauza izan. **5** Azkenean, Daniel aurkeztu zen. Gizon hau, nire jainkoaren ohorez Beltxatzar ere deitua, jainko santuen espirituz beterik dago. Kontatu nion ametsa, esanez: **6** Beltxatzar, aztien buru zaren hori, badakit jainko santuen espirituak gidatzen zaituela eta misterio zailik ez dagoela zuretzat. Azaliezadazu, bada, ametsaren esanahia. **7** Ohean nengoela, ikuskari hau izan dut:

*Zuhaitz guztiz garaia
zegoen munduaren erdian.*

8 *Zuhaitza handia eta sendoa egin zen:
zeruraino iristen zen,
munduaren azken ertzetik ere
ikus zitekeen.*

9 *Haren hostoak ederrak ziren,
eta fruituak ugari,
sorkari guztiak asetzeko adina.
Basapiztiek haren itzalean
egiten zuten abaro
eta hegaztiek haren adarretan habia.
Bizidun ororen janari zen.*

10 *Oraindik ohean nengoela, zerutik zertorren aingeru zaindari bat ikusi nuen ikuskarian. **11** Ozenki egin zuen oihu, esanez:*

*Bota zuhaitza,
moztu adarrak,
kendu hostoak,
jaurtiki behera fruituak!
Ihes egin bezate honen azpitik piztiek,
bai eta adarretatik hegaztiek ere.*

12 *Utzi lurrean, ostera,
zuhaitzondoa bere erroekin,
lotu burdinazko eta brontzezko kateez,
eta geldi bedi zelaiko belarretan.*

*Busti beza ortziko ihintzak,
janaritu bedi belarrez, abereak bezala.*

13 *Ez du giza adimenik izango,
abereen sena baizik.*

Zazpi urtez biziko da horrela!

14 *Aingeru santuak erabakia da hau,
bizidun guztiek jakin dezaten*

Goi-goikoa dela

giza erreinu guztien jabea:

*nahi duenari ematen dio berak erregetza
eta gizakietan apalena
errege-aulkira jasotzen.*

15 *Hauxe da nik, Nabukodonosor erregeak, izan dudana ametsa. Orain zuk, Beltxatzar, azaldu ametsaren esanahia. Erreinu-ko jakitun guztiak ez dira gai izan hori azaltzeko; zuk, ordea, egin dezakezu, jainko santuen spirituak gidatzen baitzaitu».*

Danielek erregeari ametsa adierazi

16 *Daniel, Beltxatzar ere deitua, harri eta zur gelditu zen une batez, bere burutazioek beldurtuta. Erregeak esan zion:*

—Beltxatzar, ez izutu ametsa eta beronen esanahia direla eta.

Beltxatzarrek erantzun zion:

—Izan bedi zure etsaientzat amets honek adierazten duena. **17** Zuhaitz handia eta sendoa ikusi duzu, garaieraz zerurainokoa, munduaren azken ertzetik ikus zitekeena. **18** Haren hostoak ederrak ziren eta sorkari guztiak asetzeko adina fruitu zuen. Basapiztiek abaro egiten zuten haren itzalean eta hegaztiek habia adarretan. **19** Errege jauna, zeu zara zuhaitz hori! Handi eta sendo egin zara zeu ere; zeruraino iritsi da zure handitasuna, lurraren ertzerraino zabaldu zure boterea. **20** Gero, aingeru zaindaria ikusi duzu zerutik jaisten; honela zioen: «Bota zuhaitza eta txikitu! Zuhaitzondoa, ostera, utzi lurrean bere erroekin eta lotu burdinazko eta brontzezko kateez zelaiko belarretan. Busti beza zeruko ihintzak eta bizi bedi horrela zazpi urtez basapiztien antzera». **21** Errege jauna, hara esanahia, hara Goi-goikoak zuri buruz hartu duen erabakia: **22** Gizartetik botako zaituzte, basapiztien artean biziko zara, belarra jango duzu idiek bezala eta ortziko ihintzak bustiko zaitu. Zazpi urtez egongo zara horrela, Goi-goikoa giza erreinu guztien jabea dela eta berak nahi duena ezartzen duela errege aitortuko duzun arte. **23** Zuhaitzondoa eta erroak uzteko aginduak, berriz, hauxe esan nahi du: denen jabea zeruko Jainkoa dela aitortuko duzunean, errege izango zarela berriro. **24** Beraz, errege jauna, onar ezazu nire aholkua: Utzi zeure bekatuak zuzenbide eginez, uko egin gaiztakeriari, behartsuekin errukitsu izanez. Agian, luzaroan eta zoriontsu biziko zara.

Ametsa bete

25 Esandako guztia gertatu zitzaion Nabukodonosor erregeari. **26** Handik urtebetera, Babiloniako jauregian egurasten zebilela, **27** esan zuen erregeak:

«Hona hemen Babilonia handia, erregeen bizileku izateko eraikia, nire boterearen eta aintza paregabearen ezaugarri!».

28 Hitz hauek esatearekin batera, mintzo hau entzun zen zerutik: «Nabukodonosor errege, entzun: Galdua duzu zeure erregetza! **29** Bota egingo zaituzte gizartetik! Basapiztien artean biziko zara, belarra jango duzu idiek bezala! Zazpi urtez biziko zara horrela, Goi-goikoa dela erreinu guztien jabea eta berak nahi duena ezartzen duela errege aitortuko duzun arte».

30 Berehala bete ziren hitzok: bota egin zuten Nabukodonosor gizartetik, belarra jaten hasi zen idiek bezala eta haren gorputza ortziko ihintzak bustitzen zuen. Ilea arranoaren lumak bezain luze egin zitzaion eta atzazalak hegazti harraparienak bezalako.

Nabukodonosor sendatu

31 Erregeak esan zuen: «Zazpi urteak bete zirenean, nik, Nabukodonosorrek, begiak zerurantz jaso nituen eta berriro giza adimena eman zitzaidan. Goi-goikoari eskerrak eman nizkion eta beti bizi denari gorespena eta aintza:

*Haren aginteak beti iraungo du,
haren erreinuak menderen mendetan.*

32 *Haren aurrean ezdeus dira
lurrean bizi diren guztiak;
nahi bezala darabiltza
zeru-lurretako izakiak.*

*Ez da inor
haren ahalmenari aurka egingo dionik;
ez da inor
egiten duenaz ezer esango dionik.*

33 Une berean, adimena eman zitzaidan berriro, eta neure erregetzaren aintzarako,

neure ohore eta ospe guztiaz jabetu nintzen. Bila etorri zitzaizkidan kontseilari eta handiak. Errege-aulkian jarri ninduten berriro eta lehen baino ohore handiagoa izan nuen. **34** Horregatik, nik, Nabukodonosorrek, handietsi, goretsi eta ospatu egiten dut orain zeruko Erregea:

*Haren egintza guztiak egiazkoak dira,
haren jokabideak zuzenak!
Badaki harro dabiltzanak beheratzen!».*

Belxatzar erregearen otordua

5 **1** Belxatzar erregeak mila goi-funtzionario gonbidatu zituen otordu handi baterako, eta haiekin batera ardoa edaten hasi zen. **2-3** Ardoak beroturik, bere aita Nabukodonosorrek Jerusalemgo tenplutik hartu zituen urre eta zilarrezko ontziak ekartzeko agindu zuen, bere funtzionario, emazte eta ohaideekin batera beraietatik edateko asmoz. Ekarri zituzten, bada, Jerusalemgo Jainkoaren etxetik hartutako urre eta zilarrezko ontziak eta guztiak beraietatik edan zuten. **4** Ardoa edaten zuten bitartean, urre, zilar, brontze, burdina, zur eta harrizko jainko-irudiak goresten hasi ziren.

5 Bat-batean, giza esku bat agertu zen eta aretoko paretan, argimutilaren atzean, behatzez idazten hasi zen. Idazten ari zen eskua ikustean, **6** zuri-zuri jarri zen erregea eta, bere burutazioek beldurturik, indarririk gabe eta belaunak dardaraz gelditu zen. **7** Deiadarka hasi zen, aztiak, astrologoak eta igarleak ekartzeko aginduz. Honela esan zien: «Hor idatzia eta berorren esanahia azalduko didana purpuraz jantziko dut, lepoan urrezko katea jarriko diot eta agintez hirugarrena izango da nire erreinuan».

8 Aurkeztu ziren, bada, erregearen zerbitzura zeuden jakitun guztiak; baina ez ziren idatzia irakurtzeko gauza izan, ezta haren esanahia erregeari azaltzeko ere. **9** Izu-ikaraturik zegoen Belxatzar eta erabat zurbildurik. Funtzionarioak ere guztiz izuturik zeuden, zer egin ez zekitela.

Idatzia Danielek azaldu

10 Ama erreginak entzun zituen erregearen eta funtzionarioen deiadarrak eta, otorduko aretoan sarturik, esan zuen: «Bizi zaitetz luzaro, jauna! Ez zaitzatela zeure burutazioek izutu; ez daukazu zertan zurbildurik. **11** Badago zure erreinuan jainko santuen espiritua duen gizon bat. Zure aitaren garaian, jainkoek bakarrik dauzkaten buru argia, trebetasuna eta jakinduria aurkitu genituen delako horrengan. Hain zuzen, zure aita Nabukodonosorrek aztien, igarleen eta astrologoen buru izendatu zuen bera. **12** Berebiziko espiritua, ezaguera eta trebetasuna ditu ametsen esanahia argitzeko, asmakizunak igartzeko eta gauza korapilotsuak erabakitzeke. Daniel da, erregeak Belxatzar izena ezarri ziona. Ekar ezazu, bada, gizon hori: berak azalduko dizu idatziaren esanahia».

13 Ekarri zuten, bada, Daniel erregearengana eta honek galdetu zion:

—Zu al zaitugu Daniel, nire aitak Judatik gatibu ekarri zituen juduetakoa? **14** Jainkoen espiritua duzula eta berebiziko buru-argitasun, trebetasun eta jakinduriaren jabe zarela entzun dut. **15** Arestian ekarri ditut jakitun eta aztiak, hor idatzirik dagoena irakurri eta esanahia azal diezadaten; baina ez dira gauza izan. **16** Zuk ba omen dakizu honelako asmakizunak igartzen eta gauza korapilotsuak erabakitzen. Hor idatzia irakurri eta esanahia azaltzen badidazu, purpuraz jantziko zaitut, lepoan urrezko katea jarriko, eta agintez hirugarrena izango zara nire erreinuan.

17 Danielek erantzun zion:

—Errege jauna, ez dut erregalo edo sari beharrik, gorde zeuretzat edo eman besteren bati. Baina hor idatzia irakurriko dizut eta esanahia azalduko. **18** Goi-goiko Jainkoak errege handi egin zuen Nabukodonosor zure aita, ohore eta aintzaz jantzia. **19** Eta Jainkoak emaniko handitasun horrengatik, herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendea beldur zen haren aurrean. Izan ere, bere nahierara ematen zuen heriotza edo bizia, bere nahierara jasotzen edo beheratzen. **20** Baina harrokeriaz eta handiustez bete zen, eta erregetzatik eraitsi egin zuten eta bere aintza galdu zuen. **21** Gizartetik bota egin zuten eta basapiztien antzeko bihurtu zen: basastoekein bizi izan zen, belarra jaten zuen idiek bezala eta haren gorputza ihintzak bustitzen. Horrela bizi izan zen, goi-goiko Jainkoa dela giza erreinu guztien jabea eta berak nahi duena ezartzen duela errege aitortu zuen arte. **22** Eta zuk, Belxatzar, haren semeak, hori guztia jakin arren, ez duzu zeure burua apaldu nahi izan. **23** Zeruko Jauna mesprezatu duzu, haren tenpluko ontziak ekarri eta zeure funtzionario, emazte eta ohaideekin ardoa edateko erabiliz. Bitartean, zilar, urre, brontze, burdina, zur eta harriz eginiko jainko-irudiak, ezer ikusten, entzuten eta ulertzen ez dutenak, goretsi dituzu; baina ez duzu goretsi zure bizia eta etorkizuna bere esku dituen Jainkoa, diren guztiak egin dituen. **24** Horrengatik bidali du Jainkoak esku hori hitzok idaztera. **25** Idatzirik dagoena hauxe da: MENE, MENE, TEKEL, PARSIN. **26** Hitzzen esanahia, berriz, hauxe: MENEk «zenbatua» esan nahi du, hau da, zenbatu ditu Jainkoak zure erregetzako egunak eta muga ipini die; **27** TEKELEk «pisatua» esan nahi du, hau da, pisuan pisatu zaituzte eta urri aurkitu; **28** PARSINEk «zatitua» esan nahi du, hau da, zure erreinua zatitua izan da eta mediarrei eta pertsiarrei emana.

29 Orduan, Daniel purpuraz jantzeko eta lepoan urrezko katea jartzeko agindu zuen

Belxatzarrek, eta agintez hirugarren zela erreinuan aldarrikatu zuen.

30 Gau hartan bertan hil zuten Belxatzar Babiloniako erregea.

6 ¹ Eta Dario mediarra egin zen hango errege, hirurogeita bi urte zituela.

Etsaiek Danieli tranpa jarri

2 Bere erreinuan ehun eta hogeitau eskualdeburu jartzea erabaki zuen Dariok, eskualde bakoitzean ordezkari bat izateko. **3** Haien buru hiru ministrari ezarri zituen; hauei eman behar zieten eskualdeburuek beren administrazioaren kontua, erregearen kaltean ibil ez zitezten. Daniel zen hiru ministrari horietako bat **4** eta, berebiziko gaitasunak zituelako, beste ministrari eta eskualdeburuen artean nabarmendu egiten zen; horrengatik, erreinu guztiko gobernu-erantzukizuna berari emateko asmotan zebilen erregea. **5** Hargatik, beste bi ministrariak eta eskualdeburuak, erreinuaren administrazioan Danieli erruren bat nola aurkitu zebiltzan; baina ezin zuten lortu, leiala baitzen, zabarkeriarik gabea. **6** Beraz, hau ziotsoten elkarri: «Ezin izango diogu aurkitu zertan salatirik, bere erlijioari buruzko zerbaitetan izan ezik».

7 Horrela, bada, ministrariak eta eskualdeburuek zalapartaka erregearengana jo zuten, esanez: «Bizi zaitetz luzaro, Dario errege! **8** Erreinuko ministrari, eskualdeburu, kontseilari eta gobernariak aho batez eskatzen dizute errege-agindu hau eman eta aldarrika dezazun: Errege jauna, hogeita hamar egun hauetan, zuri ez beste jainko nahiz gizonen bati otoitz egingo diona, jaurtiki dezatela lehoien zulora. **9** Beraz, eman agindu hori eta sinatu, aldatua izan ez dadin, mediarren eta pertsiarren aldaezineko beste legeak bezala».

10 Hala, Dario erregeak sinatu egin zuen agindua.

Daniel lehoien zuloan

11 Agindua sinatua zegoela jakitean, Daniel bere etxera erretiratu zen. Goiko gela-ko leihoak Jerusalem aldera ematen zuen eta han belaunikatzen zen, egunean hiru aldiz otoitz egin eta Jainkoa gorestekoa. Hala egin ohi zuen beti. **12** Orduan, Danielen etsaiak zalapartaka sartu ziren haren etxean, eta bere Jainkoari otoitzean aurkitu zuten. **13** Orduan, erregearengana joan eta esan zioten:

—Errege jauna, ez al duzu agindu, hogeita hamar egun hauetan, zuri ez beste jainko nahiz gizonen bati otoitz egingo diona, jaurtiki dezatela lehoien zuloa?

Erregeak erantzun zuen:

—Halaxe da! Mediarren eta pertsiarren legeen arabera, emandako agindua aldaezina da.

14 Orduan, haiek erregeari:

—Ba, errege jauna, Judatik gatibu ekarritako Daniel horrek ez dizue batere begirunerik, ez zuri, ez zure aginduei: bere Jainkoari hiru aldiz egiten dio otoitz egunean.

15 Hau entzutean, erregea biziki nahigabetu zen eta Daniel libratzea erabaki zuen. Iluntzera arte ibili zen hura salbatu nahian.

16 Baina etorri ziren berriro ere gizon haiek eta esan zioten:

—Errege jauna, ondo dakizu, mediarren eta pertsiarren legeen arabera, erregeak sinaturiko debekuak nahiz aginduak aldaezinak direla.

17 Orduan, Daniel ekarri eta lehoien zuloa jaurtikitzeko agindu zuen. Erregeak esan zion: «Halako iraupen handiz zerbitzatzen duzun Jainkoak bakarrik salba zaitzake!».

18 Harri bat ekarriz, lehoi-zuloaren sarrean jarri zuten, eta erregeak bere errege-zigiluz eta funtzionarioen zigiluz seilatu zuen,

Danieli buruz erabakitakoa inork alda ez zezan. **19** Gero, erregeak bere jauregira itzuli eta emakumerik gabe eta baraurik igaro zuen gaua. Ezin izan zuen gau osoan lorik egin.

Daniel lehoi-zulotik onik atera

20 Eguna argitu orduko, jaiki zen erregea eta lehoi-zuloa joan zen lasterka batean.

21 Lehoi-zuloa hurbiltzean, Danieli hots egin zion ahots saminez:

—Daniel, Jainko biziaren zerbitzaria! Hain iraupen handiz zerbitzatzen duzun Jainkoak libratu al zaitu lehoiengandik?

22 Danielek erantzun zion:

—Bizi zaitetz luzaro, errege jauna! **23** Nire Jainkoak aingerua bidali du lehoien ahoak ixtera, eta ez didate kalterik egin. Izan ere, badaki nire Jainkoak errugabe naizela eta zure aurka, errege jauna, ez dudala hobenik egin.

24 Orduan, erregeak, pozaren pozez, Daniel zulotik ateratzeko agindu zuen. Atera zutenean, ez zuen urratu bat ere, Jainkoarengan jarri baitzuen bere uste ona. **25** Gero, Danielen salatzaileak ekartzeko agindu zuen erregeak, eta lehoi-zuloa jaurtiki zituzten beren emazte eta seme-alabekin batera. Eta zulo barrenera heldu baino lehen, lehoiek beren atzaparretan hartu eta txiki-txiki egin zituzten.

26 Dario erregeak, orduan, herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeari mezu hau bidali zion:

«Bake osoa!

27 Hauxe agintzen dizuet: Nire erreinu guztian Danielen Jainkoari begirune osoa izan diezaiotela guztiek.

*Hura Jainko bizia baita,
hura betirako dirauena.*

Haren erregetza ez da hondatuko,
haren ahalmenak ez du azkenik.

28 Hura da askatzaile,
hura salbatzaile;
egintza harrigarriak eta mirariak
egiten ditu zeru-lurretan.
Hark askatu du Daniel
lehoien atzaparretatik».

29 Danielek, berriz, kargu handiak izan zituen Dario eta Ziro pertsiarren erregealdietan.

Danielen lehen

ikuskaria:

lau piztitzarrak

7 ¹ Babiloniako errege Belxatzarren erregealdiko lehen urtean, ametsa eta ikuskariak izan zituen Danielek ohean zegoela. Gero, idatzi egin zuen ametsa. ² Hona Danielen kontakizuna: «Ikuskari bat izan nuen gauetz: Ortziko lau ertzetatik haize indartsu batek itsaso handia harrotzen zuen. ³ Eta lau piztitzar, laurak ezberdinak, atera ziren itsasotik. ⁴ Lehenengoak lehoia zirudien, baina arranoaren hegalak zituen; hari begira nengoela, kendu egin zizkieten hegoak eta, lurretik altzaraziz, bi hanken gainean jarrarazi zuten, gizakia bezala, eta giza adimena eman zioten. ⁵ Bigarren piztiak hartza zirudien: erdi jaikita zegoen eta ahoan, hortz artean, hiru saiheits-hezur zituen. Honela esan zioten: "Jaiki eta jan haragia ugari!" ⁶ Gero, begira nengoela, beste piztia bat ikusi nuen, lehoiabarraren antzekoa: bizkarraldean lau hego zituen eta lau buru, eta boterea eman zioten. ⁷ Nire gau-ikuskarrietan laugarren piztia bat ikusi nuen: beldurgarria zen, izugarria eta gutziz indartsua; burdinazko hagin handiak zituen; dena irensten eta txikitzen zuen, jan gabe uzten

zuen hankapean apurtzen zuelarik. Beste piztiak ez bezalakoa zen; hamar adar zituen.

⁸ Adarrei begira nengoela, adar txikiago bat atera zitzaion beste adarren artean, eta hauetako hiru erauzi zizkion. Adar berri hark gizakiarenak bezalako begiak eta harrokeriaz hitz egiten zuen ahoa zituen.

Jainkoaren epaia

⁹ Begira nengoela, hona hemen zer ikusi nuen: Errege-aulki batzuk jarri zituzten eta gizon zahar bat jazarri zen.

Haren jantzia elurra bezain zuri,
buruko ileak artilea bezain garbi!

Haren aulkia eta gurpilak
sugar kiskalgarri!

¹⁰ Suzko ibai bat
ateratzen zen haren aurretik.

Jendetza izugarria zuen zerbitzari,
milaka eta milaka zeuden

haren aurrean zutik.

Auzia hasi

eta zabaldu ziren liburuak.

¹¹ Oraindik begira nengoen, adar txiki hark esaten zituen hitz harroengatik harriturik. Honetan, akabatu egin zuten laugarren piztitzarra; haren gorpua txikitu eta sutara bota zuten. ¹² Beste piztiei agintea kendu zieten, baina bizirik utzi zituzten aldi baterako.

¹³ Nire gau-ikuskarrietan, gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruetako hodeietan etortzen. Gizon zaharrarengana hurbildu zenean, honi aurkeztu zioten. ¹⁴ Agintea, aintza eta erregetza eman zizkieten: herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak zerbitzatzen zuen.

Haren aginteak beti iraungo du,
ez du azkenik izango,
haren erregetza ez da inoiz hondatuko.

Behenengo ikuskariaren azalpena

15 Ikara larrian nengoen ni, Daniel, neure barruan, ikusten ari nintzen guztien-gatik. **16** Zutik zeuden haietako batengana hurbildu eta ikusi nuen guztiaren egiazko esanahia azaltzeko eskatu nion. Guztiaren argitasuna eman zidan hark: **17** Lau piztitzar horiek munduan sortuko diren lau erreinu dira. **18** Baina horien ondoren, Goi-goikoaren herri santuari emango zaio erreinua, eta harena izango da betierean.

19 Gero, laugarren piztitzar hura zer izan zitekeen jakin nahi nuen, hain baitzen besteak ez bezalakoa: guztiz ikaragarria zen, burdinazko haginak eta brontzezko atzaparrak zituena; dena irensten eta txikitzen zuen, jan gabe uzten zuena hankapean apurtzen zuelarik. **20** Jakin nahi nuen orobat zer esan nahi ote zuten haren buruko hamar adarrek, bai eta besteen artean atera eta hauetariko hiru erauzi zizkion adar txikiak ere; bai eta zergatik zituen adar txikiak begiak eta harrokeriazko hitzak zerizkion ahoa, eta zergatik agertzen zen besteak baino handiago.

21 Begira nengoela, adar hura Jainkoaren herri santuaren kontra borrokan ari zen eta ia menderaturik zeukan; **22** baina etorri zen gizon zaharra eta goi-goiko Jainkoaren herri santuaren alde atera zen, heldua baitzen herri santua erreinuaren jabe egiteko garaia.

23 Ondoren, honela hitz egin zidan: Laugarren piztia lur gainean izango den laugarren erreinua da, beste hirurak ez bezalakoa. Mundu osoa irentsiko du, hanka azpian hartuko eta txikituko. **24** Hamar adarrak, erreinu honetan izango diren hamar errege dira. Ondoren, beste bat etorriko da, aurrekoak ez bezalakoa, haietako hiru errege menderatu eta gero. **25** Goi-goikoaren aurka biraoka arituko da eta herri santua gaizki erabiliko du: jaiak eta legea aldatu nahi izango ditu. Hiru urte eta erdiz egongo

da herri santua haren mendean. **26** Baina etorriko zaio auzi-garaia, eta kendu egingo diote agintea, eta erabat hondatua eta ezeztua utziko dute.

27 Orduan, Goi-goikoaren herri santuari emango zaizkio zerupean dauden erreinu guztietako erregetza, agintea eta handitasuna. Beti iraungo du herri horren erregetzak, eta munduko botere guztiek obedituko diote eta zerbitzatuko.

28 Hemen amaitzen da kontaera. Ni, Daniel, neure burutazioak zirela eta, oso beldurturik gelditu nintzen, aurpegia zurbil; baina hauek guztiak barruan gorde nituen.

Bigarren ikuskaria: aharia eta akerra

8 **1** Belxatzar erregearen hirugarren urtean, nik, Danielek, beste ikuskari bat izan nuen, lehen izandakoaz gainera. **2** Hona zer ikusi nuen: Elam eskualdean dagoen Susa gotorlekuan aurkitzen nintzen, Ulai ibai ondoan. **3** Ikuskarian ahari bat ikusi nuen zutik ibai ondoan. Bi adar luze zituen, baina bat beranduago atera zitzaion eta luzeagoa zen. **4** Aharia mendebalderantz, iparralderantz eta hegoalderantz adarka ari zela ikusi nuen. Eta ez zegoen hari aurre egingo zion piztiarik, ezta haren mendetik aterako zenik ere. Nahi zuena egiten zuen eta gero eta indartsuagoa egiten ari zen.

5 Ikusi nuenaz gogoetaka ari nintzela, aker bat ikusi nuen: lurgaina ukitu gabe mundu guztia zeharkatuz, mendebaldetik zetorren. Akerrak adar handi bat zeukan begien artean. **6** Ibai ondoan zutik ikusi nuen adar biko ahariarengana hurbildu eta lasterka batean haren aurka joan zen bere indar guztiaz. **7** Ahariarengana hurbiltzen ikusi nuen: ahariari eraso eta bi adarrak hautsi zizkion. Ahariak ez zuen indarririk akerrari kontra egiteko. Gero, lurrera bota

eta hankazpian zapaldu zuen. Ez zen haren mendetik hura aterako zuenik. **8** Baina bere boterearen hoberenean zegoela, hautsi egin zitzaion adar handia eta haren tokian beste lau adar handi atera zitzaizkion ortziaren lau ertzetara begira.

9 Haietako batetik beste adar txiki bat sortu zen; izugarri hazi zen hegoalderantz, ekialderantz eta Guztiz Ederra den Lurralderantz. **10** Zeruko izakietaraino ere heldu zen, eta haietako zenbait eta izar batzuk lurrera bota eta zapaldu egin zituen. **11** Zeruko izakien buruzagiarenganaino ere heldu zen: egunero eskaintzen zitzaion oparia kendu eta haren santutegia profanatu zuen. **12** Lehen oparia eskaintzen zen tokian bere gudarostea kokatu zuen maltzurkeriaz. Egiazko kultua oinperatu zuen. Nahi zuen guztia egin eta ongi atera zen adarra bere egintza guztietan.

13 Orduan, bi aingeru elkarri hitz egiten ikusi nituen. Batak besteari galdetu zion: "Noiz arte iraungo ote dute ikuskari hone-tan iragarritako gertakariak? Noiz arte egongo ote da bazterturik eguneroko oparia, noiz arte gaiztakeria izugarri hau, noiz arte santutegia profanatua eta zeruko izakiak hankapean?". **14** Beste aingeruak ihardetsi zion: "Bi mila eta hirurehun arratsalde eta goiz igaro beharko dira. Gero, santutegia berriro sagaratua izango da".

Bigarren ikuskariaren azalpena

15 Nik, Danielek, ikuskariari begira eta haren esanahia ulertu nahian nenbilela, gizon antzeko bat ikusi nuen zutik neure aurrean. **16** Eta Ulai ibaitik zetorren giza ahots bat entzun nuen deiadarka: "Gabriel, argi iezaiozu gizon horri ikuskaria".

17 Orduan, Gabriel ondora hurbildu zitzaidan. Izaturik ahuspez erori nintzen;

baina hark esan zidan: "Gizona, uler ezazu ikuskaria azken aldiari buruz ari dela".

18 Hitz egiten ari zitzaidan bitartean, zorabiatu-rik ahuspez erori nintzen. Hark ukitu eta altxarazi egin ninduen. **19** Gero, esan zidan: "Jainkoaren haserrea bere betera iristean gertatuko dena agertuko dizut, azkena erabakia baitago. **20** Ikusi duzun ahariaren bi adarrak mediarren eta pertsia- rren erreinuak dira. **21** Akerra, aldiz, grezia- rren erreinua da, eta begi arteko adar handia erreinu horren lehen erregea. **22** Adar hura haustean, haren orde- z atera zitzaizkion beste lau adarrek haren jatorritik sorturiko lau erreinuak adierazten dituzte. Haren tokia hartuko dute, baina ez dute izango haren indarririk. **23** Haien erregetzaren amaieran, gaiztakeriak gainezka egitean, errege lotsa- gabe eta maltzur bat sortuko da. **24** Indar handia izango du eta izugarritzko hondame- na egingo. Ongi aterako da bere egintza guz- tietan, jende ahaltsua eta herri santua bera ere suntsitu arte. **25** Denak engainatuko ditu bere maltzurkeriaz. Harropuztu egingo da eta lasai zeuden herri asko suntsituko ditu. Printzeen Printzearen beraren aurka jaikiko da. Baina desegina izango da, giza laguntza- rik gabe. **26** Arratsaldeko eta goizeko oparia- ri buruz izandako ikuskaria egiazkoa da. Zuk, orde- a, gorde isilpean ikusi duzuna, hemendik denbora askora gertatuko baita!".

27 Orduan, ni, Daniel, zorabiatu egin nintzen eta egunetan egon nintzen gaixo. Ongi jarri nintzenean, erregearen arazo- en ardura berriro hartu nuen neure gain. Baina artean oso txunditurik nengoen ikuskaria- gatik, ez bainuen ulertzen haren esanahia.

Hirugarren ikuskaria: lihoz jantzitako gizona

10 ¹ Pertsia-ko errege Ziroren hiruga- rren urtean, mezu bat bidali zion

Jainkoak Danieli, Beltxatar ere deituari; mezu fidagarria zen, baina zailtasun handiak iragartzen zituen. Ikuskari batean ulertu zuen Danielek horren esanahia.

2 Aldi hartan, ni, Daniel, atsekabeturik egon nintzen hiru astez. **3** Ez nuen hartu janari goxorik, ez haragirik, ez ardorik, eta ez nuen erabili usain-gozoko lurrinik ere, hiru asteak amaitu arte. **4** Lehenengo hilaren hogeita lauan, Tigris ibai handiaren ertzean nengoan. **5** Halako batean, gizon bat ikusi nuen, lihozko soinekoz eta urre hutsezko gerrikoz jantzia.

6 Haren gorputzak harribitxia zirudien, aurpegiak tximistaren distira zuen; begiak suzko zuziak bezalakoak zituen, beso eta zangoak brontze leundua bezain distiratsuak. Haren ahotsak jendetza handi baten zarata-hotsa zirudien.

7 Ikuskaria neuk bakarrik ikusi nuen. Nirekin zeudenek ez zuten ezer ikusi; baizik eta, ikara handiak harturik, ihesi joan ziren eta ezkutatu. **8** Neu bakarrik gelditu nintzen aparteko ikuskari hari begira. Indargabe gelditu nintzen, aurpegia zurbil. **9** Haren hitzotsa entzutean, konortegabe gelditu nintzen eta ahuspez lurrera erori.

10 Orduan, esku batek ukitu eta dardaraz lauoinka jarri ninduen. **11** Honela esan zidan: "Daniel, bereziki maite zaitu Jainkoak! Adi ongi esango dizudana. Zuti zaitez, zuregana bidali binaute!". Hitzok esan zizkidanean zutik jarri nintzen, ikaraz dardar. **12** Honela jarraitu zuen: "Ez beldurtu, Daniel!

Gertatzen zena ulertu eta Jainkoaren aurrean apaltzeko gogoia izan zenuen egun beretik entzun du hark zure otoitza. Horregatik etorri natzaizu. **13** Baina Pertsia erreinuko aingeru zaindaria aurka jarri zait hogeita bat egunez, Mikael, aingeru nagusietako bat, laguntzera etorri zaidan arte. Horregatik, han egon beharra izan dut, Pertsia erregearen ondoan. **14** Eta orain, zure herriari azken egunetan gertatuko zaiona azaltzera etorri natzaizu, egun horietarako baita ikuskaria".

15 Horrela hitz egin zidanean, burumakur eta hitzik gabe gelditu nintzen. **16** Baina gizon antzeko batek ezpainak ukitu zizkidan, eta berriro ere ahoa ireki eta hitz egin ahal izan nuen. Aurrean neukanari esan nion: "Nire jauna, zeharo larriturik nago ikuskari honengatik eta indargabe gelditu naiz. **17** Nola hitz egin dezaket zurekin, ene jauna, indarra ez ezik arnasa bera ere galdu dudalarik?". **18** Orduan, gizon antzeko hark berriro ukitu ninduen eta indar berriak eman zizkidan. **19** Eta esan zidan: "Ez beldurtu, Jainkoak bereziki maite zaitu! Egon lasai! Izan bihotz eta indarberritu!". Haren hitzak bizkortu egin ninduen. Orduan, honela esan nion: "Ene Jauna, mintza zaitez, indarberritu nauzu eta". **20-21** Hark esan zidan: "Ba al dakizu zergatik etorri naizen zuregana? Egiaren liburuan idatzia dagoena iragartzera etorri natzaizu. Orain, berriro Pertsia aingeru zaindarekin borrokatu behar dut; harekiko borroka bukatzean, Greziako aingeru zaindaria etorriko da. Mikaelek, zuen aingeru zaindaria baizik ez dit laguntzen etsai horien aurkako borrokan"».

Nehemias



Nehemias liburuak Esdras liburuarekin bat bera egiten zuenez, Idazlea eta ingurugiro historikoa atalburuari dagokionean, ikus Esdras liburuaren sarrera.

Babilonia konkistatu ondoren, K. a. 538an Ziro errege pertsiarrek herrira itzultzeko baimena eman zien israeldar erbesteratuei. Esd eta Ne liburuek Palestinara itzuli ondoren judu-herriak bizi izan zituen gertakariak kontatzen dizkigute.

184

Nehemiasek Jerusalemgo berriak jakin

1 Hau da Hakaliasen seme Nehemiasen historia.

Artaxerxesen erregealdiko hogeigarren urtean, Kisleu hilean, Susa hiri-gotorrean nengoela, **2** Hanani, neure anaietako bat, etorri zitzaidan Judatik, gizon-talde batekin. Erbestealditik libre gelditu ziren juduen eta Jerusalem hiriko berriak eskatu nizkien. **3** Eta erantzun zidaten: «Erbestealditik libre gelditu direnak zoritxar handian eta egoera lotsagarrian daude Juda eskualdean; Jerusalemgo harresiak, berriz, zuloz beteak daude, eta hiriko ateak suak kiskaliak».

4 Berri hauek entzutean, jarri eta negarrari eman nion, dolu egin nuen egun batzuetan, baraurik eta zeruko Jainkoaren aurrean otoitzean.

5 Honela egin nuen otoitz: «Jauna, zeruetako Jainkoa, Jainko handi eta ikaragarria, zuk itunari eusten diozu eta leiala zara maite zaituztenekin eta zure aginduak betetzen dituztenekin. **6** Beude zabalik zure begiak eta adi zure belarriak zerbitzari honen otoitzera, gau eta egun ari bainaiz zure zerbitzari israel-darren alde otoitzean. Aitortzen ditut israel-darrok zure aurka egin ditugun bekatuak: bai, ni neu eta nire aitaren senitartea ere bekatari gara. **7** Benetan, oso gaizki jokatu dugu zurekin, ez baititugu bete zure zerbitzari Moisesi eman zenizkion agindu, lege eta erabakiak. **8** Hala ere, gogora ezazu zeure zerbitzari Moisesi esan zeniona: "Nirekin zintzo jokatzeko ez baduzue, atzerriko nazioen artean sakabanatuko zaituztet. **9** Baina niregana itzultzen bazarete eta nire aginduak gorde eta betetzen badituzue, zeruko azken muturreraino jaurtikiko bazintuztete ere, bildu egingo zintuzketet eta bizileku eta kulturekutat aukeratu dudana tokira ekarriko".

10 Zeure zerbitzari eta zeure herri dituzu israeldarrak, zeure ahalmen handiz eta esku bizkorrez askatuak. 11 Jauna, beude adi zure belarriak nire eta zure zerbitzari guztien otoitzera. Leial izan nahi genuke zurekin. Lagundu zure zerbitzari honen asmoak ongi atera daitezen, eta erregeak onginahiz har nazan».

Erregearen edari-emaile nintzen ni orduan.

Nehemiasek Jerusalenera itzultzeko baimena sortu

2 1 Behinola, Artaxerxesen erregealdiko hogeigarren urtean, Nisan hilean, erregeari ardoa zerbitzatzan ari nintzaiolarik, besteetan ez bezala triste nengoela ohartu zen. 2 Erregeak galdegin zidan:

—Zergatik aurpegi ilun hori? Ez duzu gaixo-itxurarik; zerk nahigabetzen zaitu?

Izugarri beldurtu nintzen, 3 eta erantzün nion:

—Bizi bedi erregea! Nola ez egon nahigabeturik, nire gurasoak hilobiraturik dauden hiria hondatua dagoelarik, eta hango atek suak kiskaliak?

4 Orduan, erregeak:

—Zer eskatzen didazu, bada?

Zeruetako Jainkoari otoitz egin ondoren, 5 erantzün nion:

—Errege jauna, ongi baderitzozu eta begiko baldin banauzu, bidal nazazu Judara, nire gurasoak hilobiratuak dauden hirira, berriro eraiki dezadan.

6 Erregeak, erregina aldamenean eseria zuelarik, galdetu zidan:

—Zenbat iraungo du zure joan-etorriak? Noiz itzuliko zara?

Ontzat eman zuen erregeak jarri nion epea eta joaten utzi zidan. 7 Gero, esan nion:

—Errege jauna, ongi baderitzozu, eman iezazkidazu agiriak Eufrates ibaiaren mendebaldeko gobernarietzat, Judarainoko bidea libre utz diezadaten, 8 eta beste agiri bat Asafentzat, erregearen basazainarentzat, zura eman diezadan, tenpluaren ondoko gotorlekuko eta hiriko harresietako atek egin eta neure etxebizitza jasotzeko.

Eskatutako guztia eman zidan erregeak, Jainkoa lagun bainuen. 9 Biderako gudari-eta zaldizko-talde bat ere eman zidan.

Eufrates ibaiaren mendebaldeko gobernariengana iritsi nintzenean, erregearen agiriak aurkeztu nizkien. 10 Baina Sanbalat horondarrak eta Tobias amondar funtzionarioak, zertara nentorren jakitean, oso gaizki hartu zuten israeldarren egoera ontzeko norbait etortzea.

Nehemias hiriko harresiak ikusten

11 Heldu nintzen, bada, Jerusalenera eta hiru egunez atsedan hartu nuen. 12 Ez nion inortxori ere adierazi Jainkoaren eraginez Jerusalemengana egin nahi nuena. Gaez atera nintzen gizon banaka batzuekin, neu ninderaman astoa beste abererik hartu gabe. 13 Atera nintzen, bada, gaez Haraneko atetik eta Herensugearen iturri aldera eta Zabortegiko ate aldera hartu nuen. Harresien alde hura arakatu nuen: harresiak zulatuak zeuden eta atek suak kiskaliak. 14 Handik Iturriko ate aldera eta Erregearen urtegirantz jo nuen, baina gainean ninderaman abereak ez zuen handik igarotzeko lekurik. 15 Artean gaua zen; igo nintzen erreka-bidean gora, eta harresiak arakatu nituen. Gero, Haraneko atetik sartuz, hirira itzuli nintzen berriro.

16 Agintariak ez zekiten nondik nora ibili nintzen, ezta zer egin nuen ere; ez bainien juduei beraiei ere deus agertu. Apaizak, handikiak, agintariak eta lan-arduradun izango

zirenak ezjakinean zeuden. **17** Esan nien, bada: «Ikusten duzue nolako atsekabetan gabiltzan: Jerusalem hondatua dago eta bertako ateak kiskaliak. Ea, eraiki ditzagun Jerusalemgo harresiak, atera gaitezen egoera lotsagarri honetatik!».

18 Eta Jainkoak nola lagundu zidan eta erregeak zer esan zidan agertu nien. Orduan, esan zuten: «Goazen, bada, eta eraiki dezagun!».

Eta kementsu prestatu ziren lan eder hori egiteko.

19 Sanbalat horondarrak, Tobias funtzionario amondarrak eta Gexem arabiarrek, gure asmoen berri jakin zutenean, barre egin ziguten eta mesprezioka hasi zitzaizkigun:

—Zertan ari zarete hor? Erregearen aurka altxatu nahi duzue ala?

20 Honela erantzun nien:

—Zeruko Jainkoak berak emanen digu gure egitekoa ongi burutu ahal izatea; guk, haren zerbitzariok, lanari ekingo diogu. Zuek, aldiz, ez duzue ondarerik, ez eskubiderik, ez oroitzapenik izango Jerusalemen.

Nehemiasek usadioak zaharberritu

13 **1** Garai hartan, Moisesen liburua herriaren aurrean irakurri eta hauxe aurkitu zuten idatzirik: amondarrek eta moabdarrek ez zutela inoiz Jainkoaren batzarrean parterik izango. **2** Izan ere, ez zieten israeldarrei lagundu ogia eta ura eman ez. Moabdarrek Balaam erosi zuten, israeldarrek madarika zitzan; baina gure Jainkoak madarikazioa bedeinkapen bihurtu zuen. **3** Lege hau entzutean, atzerritarrak oro batzarretik botatzea erabaki zuten.

4 Lehenxeago, gure Jainkoaren etxeko gelen arduraduna zen Eliaxib apaizak hurbileko ahaidea zuen Tobiasi **5** gela handi bat

atundu zion; lehen, gela honetan gorde ohi ziren oparigaiak, intsentsua, tenplurako tresnak eta gari, ardo eta olioaren hamarrenak, hau da, lebitarrei, kantariei eta atezainei zegokien partea eta apaizentzat izendatua zegoena.

6 Hori guztia gertatu zenean, ni ez nintzen Jerusalemen, Artaxerxes Babiloniako erregearen hogeita hamabigarren urtean erregearengana joana bainintzen. Handik pixka batera, erregeari baimena eskatu nion **7** eta Jerusalemera itzuli nintzen; orduan jakin nuen Eliaxibek Jainkoaren etxeko atarian Tobiasi gela bat prestatuz egindako gaiztakeria. **8** Asko nahigabetu ninduen honek eta gelatik kanpora jaurtiki nituen Tobiasen gauza guztiak. **9** Gero, gelaren garbikuntza egiteko agindu nuen, eta Jainkoaren etxeko tresnak, oparigaiak eta intsentsua berriro bertara ekarrazazi nituen.

10 Jakin nuen, gainera, lebitarrei ez zitzaiela ematen zegokien partea eta horregatik lebitarrek eta kantariek, beren zerbitzua bete beharrean, beren herrietara alde egin zutela.

11 Agintariei errieta egin nien Jainkoaren etxea bazter utzi zutelako. Gero, lebitarrak eta kantariak bildu eta beren lekuetan jarri nituen berriro. **12** Orduan, judu guztiak gari, ardo eta olioaren hamarrenak biltegietara berriro ekartzen hasi ziren. **13** Eta biltegiak Xelemias apaizaren, Tzadok lege-maisuaren eta Pedaias lebitarraren ardurapean jartzeko agindu nuen, Zakurren seme eta Mataniasen iloba zen Hanan lagun zutela, jendeak gizon zintzotzat baitzeuzkan. Horiek banatzen zieten beren ahaideei zegokien partea.

14 «Ene Jainko, gogoan izan hau guztia, ez ahaztu nire Jainkoaren etxearen alde eta horko zerbitzuaren alde egin dudan guztia!».

15 Egun haietan gizon batzuk ikusi nituen larunbatez dolarean mahatsa zapaltzen. Beste batzuek gari-balak asto gainean ezartzen zituzten, bai eta ardoa, mahatsa,

pikuak eta era guztietako zamak ere, eta larunbatean Jerusalemenera eramaten zituzten. Zorrotz hartu nituen salerosketak egun horretan egiten zituztelako. **16** Jerusalem bizi ziren tirotarrek ere arraina eta beste era guztietako salgaiak ekarri eta larunbatean saltzen zizkioten Jerusalemengo eta Judako jendeari. **17** Judako handikiei errieta egin nien, esanez: «Gaiztakerian ari zarete, ez baituzue egun sagaratu aintzakotzat hartzen. **18** Horrela egin zuten zuen gurasoek ere, eta horregatik bidali zigun gure Jainkoak zorigaitz hau, guri eta hiri honi. Eta zuek, larunbata profanatu, areagotu egiten duzue Israelen kontrako Jainkoaren sumina».

19 Orduz geroztik, larunbat-bezperan, iluntzen hasi bezain laster, Jerusalemgo ateak ixteko agindu nuen, eta larunbat-biharamunera arte ez irekitzeko. Eta nire gizonetako batzuk jarri nituen atean, larunbatean inolako zamarik sar ez zedin. **20** Merkatariek eta zermahi saltzera zetozenek larunbat-gau bat edo beste Jerusalemendik kanpo igaro behar izan zuten. **21** Baina honela adierazi nien: «Zergatik igarotzen duzue gaua hor harresiaren aurrean? Berrero hori egiten baduzue atxilotu egingo zaituztet!». Harrezkero, ez ziren gehiago larunbatez agertu. **22** Orduan, beren garbikuntza egin eta ateak zaintzera joateko agindu nien lebitarrei, larunbataren santutasuna errespetatua izan zedin.

«Izan gogoan hau ere, ene Jainko; erruki nitaz, hain onbera baitzara!».

23 Judu batzuk emakume axdodtar, amondar eta moabdarrekin ezkondu zirela

ere jakin nuen egun haietan. **24** Haien seme-alabetatik erdiak edo axdoderaz mintzatzen ziren; beste batzuk bateko edo besteko herri arrotzen hizkeraz, baina inork ere ez zekien judu-hizkuntza. **25** Nik aurpegira bota nien hori eta madarikatu egin nituen; jo ere egin nituen batzuk eta ileak atera nizkien; gero, herri haietako jendearekin ez zirela ezkonduko zin eragin nien Jainkoaren izenean. **26** Eta esan nien: «Ez al zuen, bada, horregatik bekatu egin Salomonek, Israelgo erregeak? Ez zen atzerriko nazio guztietan hura bezalako erregerik; maite zuen bere Jainkoak eta Israel osoaren errege ezarri zuen. Hala ere, emakume arrotzek bekatura eramane zuten hura ere! **27** Horregatik, ez dut entzun ere nahi, emakume arrotzekin ezkonduz, Jainkoarekin hain desleial izango zaretenik!».

28 Eliaxib apaiz nagusiaren seme zen Joiadaren seme bat Sanbalat horondarraren alabarekin ezkondua zegoen; horregatik, bota egin nuen neure ondotik.

29 «Ez ahaztu, Jauna, apaizgoa edo apaiz eta lebitarrekin duzun ituna kutsatu duten horietaz!».

30 Beraz, garbitu nuen arrotz-kutsu oro, eta apaiz eta lebitarren eginkizunak zehazten zituzten arauak ezarri nituen. **31** Berrero ezarri nituen epe jakinetan egin behar ziren egur-eskaintzak, bai eta lurraren lehen fruituen eskaintzak ere.

«Oi ene Jainko, gogora zaitetz nitaz, eta har nazazu onez!».

Ester grekoa



Esterren istorioa pertsiar inperioan girotua dago, Artaxerxes I.ak (hebraierazko testuan Asuero deituak) Susa hirian zuen jauregian (K. a. 486-465). Hala ere, idazleak ez du benetan izandako gertakaria kontatzen, judu-herriaren egoera larria aditzera ematen zuen istorio asmatua baizik.

188

Astin erreginak erregea iraindu

1 Hemen kontatzen dena Artaxerxes erregearen garaian gertatu zen. Artaxerxesen erresuma Indiatik Etiopiaraino zabaltzen zen, ehun eta hogeita zazpi eskualde zituelarik.

2 Aldi hartan, Susa zeritzan hiriburuan zuen Artaxerxesek bere errege-aulkia. **3** Bere erregealdiko hirugarren urtean otordu handia eman zien bere adiskideei, atzerritar herrialdeetako eta Pertsia eta Mediako handikiei eta eskualdeetako gobernariari. **4** Bere erreinuko aberastasunak eta atsegin ugarien edertasuna erakutsi nahi izan zizkien sei hilabetez. **5** Jaialdiaren bukaeran, hirian zen jende guztiarentzat sei egunez luzatuko zen otordua antolatu zuen erregeak bere jauregiko atarian. **6** Ataria liho eta muselinazko oiha-lez apaindua zegoen; liho eta purpurazko

lokarriz zeuden lotuak urrezko eta zilarrezko eraztunetara, eta marmolezko eta hartzurizko zutabeetatik esekiak. Urrezko eta zilarrezko etzaulki asko zegoen han; zolua esmeraldaz, nakarrez eta marmolez egina zen. Mahai-zapiak bordadura distiratsuz eta biribilean ipinitako larrosez apainduak zeuden. **7** Edalontziak urrezkoak eta zilarrezkoak ziren. Bazen han harribitxiz apainduriko beste kopa txiki bat ere; balio izugarria zuen. Ardo on ugari zegoen, erregeak edan ohi zuena bera. **8** Ez zegoen neurririk otordu hartan, hala nahi izan baitzuen erregeak. Honek mahaizainei agindua zien berak eta bazkaldar bakoitzak nahi zuena egiteko. **9** Era berean, Astin erreginak ere beste otordu bat antolatu zuen emakumeentzat Artaxerxesen jauregian bertan.

10 Zazpigarren egunean, erregeak, ardoak alaiturik, bere zerbitzura zituen zazpi funtzionarioei —Haman, Bazan, Tarra, Boraze, Zatoita, Abataza eta Tarabari—

11 Astin erregina bere aurrera ekar zezatela

agindu zien, tronuan eserarazi, koroa jantzi eta beraren edertasuna ministrariei eta herrialdeetako agintariei erakusteko, oso ederra baitzen. **12** Baina Astin erreginak ez zuen funtzionarioekin joan nahi izan. Orduan, atsekabaturik, erregea biziki haserretu zen. **13** Eta esan zien bere adiskideei: «Horrela erantzun al du Astinek? Iker ezazue arazoa legearen arabera eta epaitu».

14 Hurbildu zitzaizkion erregeari pertsiarren eta mediarren buruzagi ziren Arkesaios, Sarsataios eta Malesear. Erregearen ondoan egon ohi ziren eta berak haien aholkuak entzuten zituen. **15** Haiiek aditzera eman zioten erregeari zer egin behar zitzaion legearen arabera Astin erreginari, funtzionarioek eramandako errege-agindua bete ez zuelako. **16** Mukaios zeritzan batek esan zien erregeari eta buruzagiei: «Erregea ez ezik, beronen ministrari eta gobernariak ere iraindu ditu Astin erreginak. **17** Kontatu digu erregeak nolako erantzuna eman dion erreginak eta ez duela bete beraren esana. **18** Erreginak Artaxerxesi horrela erantzun badio, pertsiar eta mediar buruzagien emazteek ere, erreginak erregeari nolako erantzuna eman dion jakinik, beren senarrak gutxiesteko ausardia izango dute. **19** Erregeari ongi iruditzen bazaio, hau da egin beharrekoa: idatzi eta ezarri Media eta Pertiako legeen artean erregearen agindu hau: Astin erregina ez dadila aurrerantzean erregearengana inoiz agertu, eta hura baino hobea izanen den emakumeren bati eman diezaiola berorrek erregina izatea. **20** Zabal bedi eta bete erregearen agindu hori erreinu osoan. Horrela, emazte guztiek beren senarrei, nola behartsuenei hala aberatsenei, begirune izanen diete».

21 Erregeak eta buruzagiek ongi iritzi zioten aholku honi, eta erregeak Mukaiosen esana egin zuen. **22** Gutunak igorri zituen erreinuko eskualde guztietara, nori bere hizkuntzan, horrela jende guztiaren etxean begirunea nagusi izan zedin.

Ester, erregina izendatu

2 **1** Aldi baten buruan, baretu zitzaion haserrea erregeari, baina Astin ez zuen beregana deitu ere egin, gogoan baitzituen haren erantzuna eta beraren kontra hartutako erabakia. **2** Orduan, bere zerbitzura zituen funtzionarioek esan zioten erregeari: «Bil ditzatela erregearentzat neskak gazteak, birjinak eta politak. **3** Errege jauna, izenda itzazu zeure erresumako eskualde guztietan mandataria, neskak birjinak eta politak aukeratu eta Susa hiriko harem-era ekar ditzaten. Utz ditzatela emazteki horiek zaintzeko kargua duen erregearen irenaren ardurapean, apaingarriak eta behar dituzten gainerako gauzak ematen zaizkielarik. **4** Eta emazteki haien artetik erregearen gogoko gertatzen dena izan bedi erregina, Astinen ordeztu».

Ongi iruditu zitzaion erregeari, eta horrela egin zuen.

5 Bazen Susa hirian Mardoqueo zeritzan judu bat, Jairo, Semaias eta Kisaiasen ondorengoa, Benjaminen leinukoa; **6** erbesteratua zen, Babiloniako errege Nabukodonosorrek Jerusalemik erbesteratu ekarri zituenetakoa. **7** Neskato bat zuen bere ardurapean, bere osaba Aminadaben alaba, Ester izenekoa. Aitamak hil zitzaizkiolarik, Mardokeok hazi zuen, bere emazte egiteko asmoz. Neska biziki ederra zen.

8 Erregearen erabakia zabaldu zutenean, anitz neskak bildu zen Susa hirira, Gai-ren ardurapean jarrit. Ester ere ekarri zuten emakume-zain zen Gairengana. **9** Begiz jo zuen honek neska, oso atsegina gertatu baitzitzaion; behar zituen apaingarriak eta janaria eskuratu zizkion berehala; gainera, jauregiko zazpi neskame bereziki aukeratuak ekarri zizkion. Gaik oso ongi hartu zituen haremean, bai Ester, bai neskame laguntzaileak. **10** Esterrek ez zuen adierazi zein jatorri eta zein herritakoa zen, ez esateko agindu baitzion Mardokeok. **11** Bestalde, Mardoqueo emakumeen ataritik hurbil

ibili ohi zen egunero, Esterri nola zihoakion ikusteko.

12 Hamabi hilabeteren buruan, erregearen aitzinera agertzeko txanda etortzen zitzaion neskatxa bakoitzari. Prestatzeko aldia honela joan ohi zen: sei hilabetez mirra-olioz eta hurrengo seieta emakumeek erabili ohi dituzten lurrin eta usain-gozoz igurtzi ohi ziren. **13** Orduan azaltzen zen emakumea erregearen aurrera; honek esandako batek laguntzen zion emakumeari haremetik jauregira. **14** Ilunabarrean sartzen zen emakumea jauregian eta biharamun goizean beste harem batera joaten; lehenengo zaintzailea Gai zen, erregearen irena. Emakumea ez zen erregearen aurrera berriro agertuko, erregeak beraren izenaz deitu ezik.

15 Esterrek, Mardokeoren osaba Aminadaben alabak, erregearen aurrera agertzeko txanda etorri zitzaionean, ez zuen bete gabe utzi emakume-zain zen irenaren agindu bat ere. Ikusten zuten guztien onginahia bereganatua zuen Esterrek. **16** Artaxerxesen erregealdiko zazpigarren urteko hamabigarren hilabetean, hots, Adar hilean, azaldu zen Ester erregearen aurrera. **17** Erregea maitemindu egin zen Esterrez; honek beste neskatxek baino gehiago bereganatu zuen erregearen onginahia. Beraz, berari ezarri zion erregina-koroa. **18** Esterrekin ezkontzea ospatzeko, otordu handia eman zien erregeak adiskide eta handiki guztiei zazpi egunez, eta erreinuko jende guztiari zergak arindu zizkion.

Mardokeok azpikeria salatu

19 Mardoeko jauregiko zerbitzarietakoa zen. **20** Esterrek ez zuen adierazi zein jatorritakoa zen; Mardokeok esana zion betetze-ko begirunez Jainkoaren aginduak, beraren

ardurapean zegoenean bezalaxe, eta Esterrek ez zuen aldatu bere jokaera.

21 Mardoeko gortean gorantz zihoalako, erregearen zaintzaile-taldeko buru ziren funtzionarioak minduak zeuden, eta Artaxerxes erregea hiltzeko asmotan zebiltzan. **22** Mardoekoek, asmo horien berri izan zuelarik, Esterri jakinarazi zion azpikeria, eta Esterrek erregeari salatu. **23** Erregeak, bi funtzionarioei galdeketak egin ondoren, urkatu egin zituen. Eta, goraipamen bezala, egintza hauen berri errege-liburutegian idatzita gordetzeko agindu zuen erregeak, Mardokeoren zerbitzu onaren oroigarri.

Hamanek juduak suntsiarazi nahi

3 **1** Ondoren, Haman, Bugaios deitua, Hamadatoren semea, goi-mailara jaso zuen Artaxerxes erregeak, adiskide guztien gainetik goratu eta eseraraziz. **2** Jauregiko funtzionario guztiak ahuspeztu egiten ziren beraren aurrean, erregeak horrela baitzuen agindua. Mardoeko, aldiz, ez zen ahuspezten. **3** Jauregiko funtzionarioek esan zioten Mardoekori: «Zergatik ez duzu betetzen erregearen agindua?».

4 Egunero esaten zioten arren, ez zien kasunik egiten. Haiiek, orduan, Hamani adierazi zioten Mardoekoek ez zuela erregearen agindua onartzen. Ordurako, bera judua zela jakinarazia zien Mardoekoek. **5** Hau ahuspezten ez zitzaiola jakitean, biziki haserretu zen Haman, **6** eta Artaxerxesen erresumako judu guztiak desagerraraztea erabaki zuen. **7** Eta Artaxerxesen erregealdiko hamabigarren urtean hau erabaki zuen: zotz egitea zein egunetan eta zein hilabetetan suntsitu Mardokeoren arrazakoak, denak egun berean. Zotz egin eta Adar hilaren hamalagarren eguna atera zen.

8 Orduan, esan zion Hamanek Artaxerxes erregeari: «Bada zure erresuman beste nazio guztien artean sakabanatua dagoen nazio bat. Horien legeak ez dira inola ere beste nazioenak bezalakoak eta ez dituzte betetzen erregearen legeak. Ez zaio erregeari komeni horrelakoak bakean uztea. 9 Ego-ki iruditzen bazaio, erabaki beza horrelako horiek suntsiaraztea. Hirurehun eta berrogei tonelada zilar sartuko ditut nik erregearen gordailura».

10 Orduan, erregeak bere eraztuna kendu eta Hamani eman zion, juduen kontrako gutunei zigilua ezartzeko. 11 Eta esan zion: «Zilarra zuretzat. Eta egiozu herri horri nahi duzuna».

12 Lehen hilaren hamahiruan, erregearen idazkariak deitu eta agindu hau eman zien Hamanek: gudalburuei, Indiatik Etiopiarainoko ehun eta hogeita zazpi eskualdeetako gobernariei eta herrialdeetako buruzagiei, nori bere hizkuntzan, Artaxerxes erregearen izenean idazteko. 13 Ondoren, mezu-eramailak bidali zituzten Artaxerxesen erresuma osora, judu guztiak hamabigarren hilaren, hots, Adar hilaren, egun berean suntsitzeko eta beraien ondasunak harrapatzeko aginduarekin.

Suntsipen-agindua

13a Hona hemen gutunak zioena: «Artaxerxes errege handiak hau idazten die Indiatik Etiopiarainoko ehun eta hogeita zazpi eskualdeetako gobernariei eta beraien mendeko agintariei: 13b Anitz naziotako errege naiz eta lur osoko agintari. Onginahiz eta neurribidez gobernatzen saiatu naiz, agintearen gehiegikerietara makurtu gabe. Neure mendekoei istilurik gabeko bitzita eskaintzen saiatu naiz beti, erresumari aurrerapena eta segurtasuna azken mugetaraino ematen eta denok gogoko dugun bakeari eusten. 13c Neure aholkulariei

galdetu diet nola bete daitezkeen asmo hauek. Aholkulari horietako bat, Haman, nabarmena da bere zuhurtziaz, eta bere zerbitzu on eta leialtasun sendoagatik erreinuko bigarrena izatea lortu du. 13d Berak jakinarazi dit, badela, erreinuko leinu guztien artean sakabanatua, kaltegarri gertatzen den herri bat, beste herrienak ez bezalako legeak dituen. Erregearen erabakiak arbuiatu egiten omen ditu beti, horrela guk zuzen eta akatsik gabe daramagun denekiko gobernu-bidea eragotziz. 13e Jakin dut, izan ere, herri hori etengabe denen kontra dagoen bakarra dela, lege arrotzen arabera besteengandik bereizirik dabilela eta, gure interesen kontra jokatuz, gaiztakeriarik okerrenak egiten dituela, erreinuaren tinkotasunari eragozpenak jarritz. 13f Neure arazoan arduradun nagusi eta errege-orde dudan Hamanek idatziz adierazi dizue nortzuk diren horiek. Beraz, hau agintzen dut: Aurtengo hamabigarren hilaren, Adar hilaren, hamalauan, berorien etsaiek erabat suntsi ditzatela ezpataz, emazte eta seme-alabekin, errukirik eta begiramenik gabe. 13g Horrela, lehengo eta oraingo kontrarioak egun berean hilaraziz, geroan geure arazoak tinkotasunez eta istilurik gabe eramaten utziko digute».

14 Gutun hau eskualde guztietan oihukatu zuten eta esandako egunerako prest egoteko agindu zieten herri guztiei. 15 Bizkor zabaldu zuten agindua, bai eta Susa hirian ere. Eta erregea eta Haman mozkortzen ari ziren bitartean, hiri osoa larri zegoen.

Mardoqueo Esterri laguntza eske

4 1 Gertatzen ari zena jakitean, Mardo-keok urratu egin zituen bere soinekoak, dolu-jantziz estali, burura hautsa bota eta hiriko plazan barrena ibili zen oihu handiz

garrasika: «Herri errugabea suntsitu nahi dute!». **2** Erregearen jauregi aurrera heldu zelarik, gelditu egin zen, ezin baitzen jauregi-ko atarian dolu-jantziz eta errautsez estalia sartu. **3** Gutuna oihukatu zen eskualde guztietan aieneka eta bular-joka ari ziren juduak, eta izugarritzko atsekabea zegoen hauen artean. Hauetariko asko zaku eta errauts gainean etzan zen.

4 Mirabeek eta irenek dena jakinarazi zioten Ester erreginari. Gertatzen zena entzutean, larritu egin zen Ester. Eta jantzi arruntak bidali zizkion Mardokeori, soinean har ziztzen, dolu-jantzia erantzirik. Mardokeok, ordea, ez zuen nahi izan. **5** Orduan, Esterrek Akrateori, bere zerbitzura zuen irenari, dei egin eta Mardokeorengana igorri zuen, zer gertatzen zen zehatz jakitera.

7 Orduan, gertatuaren berri eman zion Mardokeok. Juduak suntsitzearen ordain, Hamanek erregearen gordailura hirurehun eta berrogei tonelada zilar eramateko hitza eman zuela ere esan zion. **8** Susa hirian oihukatua zen suntsipen-aginduaren kopia ere eman zion, Esterri erakuts ziezaion. Gainera, Esterri erregearengana joateko agintzen ziola esan zion, erregearen onginahia eskuratu eta bere herriaren alde erregu egiteko. Hau esan behar zion irenak Esterri: «Oroit zaitez behe-mailan zeundenean neure eskuz hazi zintudala. Erregearen hurrengo den Haman gure kontra mintzatu zaio erregeari, gu hilarazteko. Dei egiozu Jaunari eta hitz egin gutaz erregeari. Salba gaitzazu heriotzatik!».

9 Itzuli zen Akrateo eta adierazi zion guztia Esterri. **10** Orduan, esan zion Esterrek: «Zoaz eta esan Mardokeori: **11** Erreinuko nazio guztiek dakite, deitua izan gabe, erregearengana, jauregi barneko atarira, sartzen denak, gizaseme nahiz emakume, ez duela salbamenik; erregeak urrezko bere makila luzatzen diona bakarrik geldituko dela bizirik. Niri dagokidanez, bada hilabete bat erregeak ez nauela beregana deitu».

12 Esterrek esana Akrateok adieraztean, **13** Mardokeok erantzun zion: «Zoaz eta esan

Esterri: Ez uste izan erreinuko judu guztietatik zu bakarrik salbatuko zarenik. **14** Une honetan ezentzun egiten baduzu, etorriko zaizkie beste nonbaitetik laguntza eta babesa juduei; orduan, zu eta zeure etxeok galdu egingo zarete. Gainera, batek daki ez ote zaren erregina izatera heldu, hain zuzen ere, honelako une larrirako!».

15 Esterrek berriro bidali zuen mezularia, Mardokeori esatera: **16** «Bil itzazu Susan bizi diren juduak eta egizue barau nire alde. Ez jan, ez edan, hiru egun eta hiru gauetz. Neuk ere, neure mirabeekin, barau eginen dut. Ondoren, erregearen aitzinera joango naiz, legearen kontrakoa izan arren, bai eta hil behar badut ere».

17 Alde egin zuen Mardokeok, eta Esterrek esana egin zuen.

Erregea eta Haman otordura gonbidatu Esterrek

5 **3** Erregeak galde egin zion:
—Zer nahi duzu, Ester? Zer eskatu nahi didazu? Nire erreinuaren erdia bada ere, izanen duzu!

4 Esterrek erantzun zion:
—Egun handia dut gaurkoa. Ongi baderitzo, betor erregea Hamanekin, gaur prestatuko diodan otordura.

5 Erregeak agindu zuen:
—Etorrarazi bizkor Haman, Esterren gonbidapenari erantzun diezaiogun.

Eta biak joan ziren Esterrek prestatutako otordura. **6** Otordua bukatzean, erregeak galdetu zion Esterri:

—Zer duzu, Ester erregina? Eskatu nahi duzuna eta izanen duzu.

7 Esterrek erantzun zion:
—Zer eskatzen dudan? Zer nahi dudan?
8 Begiko baldin banau, betor berriro bihar

erregea Hamanekin, prestatuko diedan otordura eta orduan erantzungo diot.

Hamanek Mardoqueo suntsiarazi nahi

9 Pozik eta alai atera zen Haman erregearenetik. Baina atarian Mardoqueo judua ikustean, amorru biziz bete zen. **10** Etxera joan eta dei egin zien adiskideei eta Zosara bere emazteari. **11** Bere aberastasunak erakutsi zizkien, bai eta erregeak ohore emanez ministrari nagusi egin zuela eta erreinuaren zuzendaritza eman ziola adierazi ere. **12** Eta erantsi zuen:

—Gainera, Ester erreginak neu bakarrik gonbidatu nau erregearekin batera otordura, bai eta biharko ere. **13** Baina galdu egiten dut poz guztia, Mardoqueo judua atarian ikusten dudanean.

14 Orduan, bere emazte Zosarak eta adiskideek esan zioten:

—Presta dezatela hogeita bost metroko urkabea eta bihar goizean eska iezaiozu erregeari Mardoqueo bertan zintzilikatzeko. Horrela, bazoazke otordura erreginarekin, gogotik dibertitzera.

Pozik entzun zuen hori Hamanek, eta urkabea prestatu zuen.

Erregeak Mardoqueo ohoratu nahi

6 **1** Gau hartan Jaunak ez zion lo egiten utzi erregeari. Orduan, Erreinuko Gertakari Liburua ekarri eta irakurtzeko agindu zion idazkariari. **2** Mardokeori buruzko pasartea aurkitu zuen: nola jakinarazi zion Mardokeok erregeari bi funtzionario haiek, beren guardaaldia egin bitartean,

Artaxerxes erregea hiltzeko asmotan ibili zirela. **3** Erregeak galde egin zuen:

—Zein ohore, zein sari eman genion Mardokeori?

Zerbitzariak erantzun zioten:

—Ez zenion deus ere eman.

4 Erregea Mardokeoren zerbitzuaren berri jakiten ari zen unean, Haman atarian agertu zen. Erregeak galdetu zuen:

—Nor da atarian?

Haman zen, prestatua zuen urkabeen Mardoqueo zintzilikatzeko erregeari eskatzen etorria. **5** Zerbitzariak erantzun zioten:

—Haman da atarian dagoena.

Eta erregeak:

—Dei egiozue!

6 Orduan, erregeak galde egin zion Hamani:

—Zer egin diezaioket ohoratu nahi duan bati?

Hamanek berekiko: «Nor ohoratu nahi ote du erregeak, ni neu izan ezik?».

7 Eta erantzun zion erregeari:

—Erregeak ohoratu nahi duenari? **8** Ba, ekar diezazkiotela morroiek erregeak soinean eramaten dituen lihozko jantziak eta erregeak erabiltzen duen zaldia. **9** Gero, erregearen adiskide ospetsuenetakoko batek soinekoak hartu eta jantzi diezazkiola erregeak ohoratu nahi duen gizonari eta zaldi gainera igo; gero, hiriko kale nagusian barrena erabil dezala honela oihukatuz: «Hona hemen zer egingo zaion erregeak ohoratu nahi duen gizon orori!».

Haman Mardoqueo ohoratzera behartua

10 Erregeak, orduan, Hamani:

—Ongi esan duzu. Egiozu horixe Mardokeori, gortean zerbitzatzen duen juduari. Ez utzi bete gabe esan duzun ezer txo ere.

11 Hartu zituen, bada, Hamanek soinekoak eta jantzi zizkion Mardokeori; hartu zuen zaldia eta, beraren gainera igoarazirik, hiriko kale nagusian barrena erabili zuen honela oihukatuz: «Hona hemen zer egingo zaion erregeak ohoratu nahi duen gizon orori!».

12 Mardoqueo jauregira itzuli zen; Haman, berriz, bere etxera joan zen, atsekabetua eta burumakur. **13** Bere emazte Zosarari eta adiskideei adierazi zien gertatu zitzaiona. Adiskideek eta emazteak esan zioten: «Mardoqueo judu izanik, beraren aurrean gainbehera hasi baldin bazara, geroz eta beherago egingen duzu. Ezin izango diozu aurre egin, Jainko bizia baitu berekin».

14 Artean solasean ari zirelarik, zerbitzari batzuek agertu eta bizkor eramane zuten Haman, Esterrek prestatua zuen otordura.

Hamanen azkena

194

7 **1** Joan ziren, bada, erreginaren otordura erregea eta Haman. **2** Bigarren egun hartan ere, otordua bukatzean, erregeak esan zion Esterri:

—Zer duzu, Ester erregina? Zer eskatzen duzu? Nire erreinuaren erdia bada ere, zeurea izanen duzu.

3 Esterrek erantzun zion:

—Zeure begiko baldin banauzu, errege jauna, hona hemen zer nahi dudan: bizitzen uztea. Hona hemen zer eskatzen dudan: nire herritarrei bizitzen uztea. **4** Saldu egin baikaituzte ni eta nire herritarrak, suntsitu eta lapurtzeko, esklabotzara menderatu eta gu eta gure haurrak morroi izatera behartzeko. Isilik egon naiz orain arte, baina honelako salatzailea ez da gai erregearen gorterako.

5 Erregeak galdetu zion:

—Nor da horrelakoak egitera ausartu dena?

6 Esterrek erantzun:

—Gure etsaia Haman duzu, maltzur-gaizto hau!

Haman izutua gelditu zen errege-erreginen aurrean.

7 Erregea mahaitik jaiki eta lorategira atera zen. Haman erregeuka hasi zitzaion erreginari, egoera larrian ikusi baitzuen bere burua.

8 Erregea lorategitik itzuli zenean, erreginaren etzaulkira makurtua zegoen Haman, erreginari erregeuka. Bat-batean, erregeak esan zuen:

—Gainera, neure emaztea bortxatu nahi duk, neure etxean!

Hori entzutean, larriturik, burua itzuli zuen Hamanek.

9 Orduan, Bugatanek, zerbitzarietako batek, esan zion erregeari:

—Hamanek prestatua du, hain zuzen, urkabea Mardoqueoentzat, erregearen bizia salbatzeko salakuntza egin zuenarentzat. Hogeita bost metro ditu urkabeak eta Hamanen etxean dago eraikia.

Erregeak esan zuen:

—Zintzilika bezate Haman bertan!

10 Eta Mardoqueoentzat prestatua zuen urkabea zintzilikatu zuten Haman. Orduan baretu zen erregearen haserre.

Esterrek mendekatu nahi

8 **1** Egun berean, Artaxerxes erregeak Esterri eman zizkion Haman salatzailearen ondasun guztiak. Bestalde, Mardoqueo bere ahaide zuela agertu zion Esterrek erregeari. Orduan, Mardokeori dei egin eta **2** Hamani kendutako eraztuna eman zion. Esterrek, berriz, Hamanen ondasunen arduradun jarri zuen Mardoqueo.

3 Berriro hitz egin zion Esterrek erregeari. Haren oinetara ahuspezturik, Hamanek juduei egin nahi izan zien kaltea aldentzeko eskatu zion. **4** Erregeak luzatu zuen Esterrengana urrezko errege-makila; orduan, Ester jaiki eta erregearen aurrean gelditu zen zutik. **5** Honela mintzatu zen Ester:

—Ongi iruditzen bazaizu eta ni begiko baldin banauzu, agindu ezazu, zure erreinuko juduak hondatzearen, Hamanek bidali zituen gutunak deuseztatzeko. **6** Nola jasan dezaket nik neure herritarrak hondatuko dituen zorigaiztoa ikustea? Nola salba naiteke ni, nire herritarrak suntsitzean?

7 Erregeak erantzun zion:

—Hara, zuri atsegin ematearren, Hamanen ondasun guztiak eman dizkizut, eta juduak hondatu nahi izan zituelako urkarazi egin dut. Beste zer nahi duzu? **8** Idatzi zeuek nire izenean juduen alde egokien deritzazue-na eta zigilatu nire eraztunaz. Izan ere, ezin da eztabaidatu erregearen aginduz idatzia eta beraren eraztunaz zigilatua.

9 Urte hartako lehen hilaren, Nisan hilaren, hogeita hiruan deitu zituzten idazkariak. Hauek, Indiatik Etiopiarainoko ehun eta hogeita zazpi eskualdeetako ministari eta gobernarietara, nori bere hizkuntzan, bidalitako aginduak idatzi zizkieten juduei. **10** Mezu-eramaileen bidez bidali zizkieten gutunak, erregearen izenean idatziak eta beraren eraztunaz zigilatuak. **11** Hiri guztietan beren legeei eusteko agintzen zitzairen juduei, bai eta baimena ematen ere elkarri laguntzeko eta beren etsai eta kontrarioei nahi zutena egiteko; **12** Artaxerxesen erreinu osoan egun bakar batean egin behar zuten hori, hamabigarren hilaren, hots, Adar hilaren, hamahiruan.

Judit



Ez dakigu nork idatzi zuen liburua. Agian, aramaieraz edota, ziurrago, hebraieraz idatzia zen; baina guri grekozko itzulpena heldu zaigu, jatorrizko testua galdua delarik.

Asiriako inperioko indarrak gainera etorri zitzaizkionean, Israel herria nolako arriskuan egon zen kontzatzten digu Judit liburuak, eta nola salbatu zuen Jainkoak Judit izeneko emakume eder, kementsu eta fedetsuaren bidez.

196

Judit

8 ¹ Egundua haieran, jakin zuen Juditek gertatuaren berri. Judit Merariren alaba zen, Merari Oks-en semea, hau Joserena, hau Ozielena, hau Helkiasena, hau Ananiasena, hau Gedeonena, hau Rafainena, hau Akitobena, hau Eliasena, hau Khelkiasena, hau Eliabena, hau Natanaelena, hau Salamielena, hau Sarasadairena eta hau Israelena.

² Juditen senarra, Manases, beraren leinu eta senitarte berekoa, garagarren uzta-aroan hila zen. ³ Izan ere, soroan garagar-balak lotzen zituztenak zaintzen ari zela, eguzki beroak jo eta oheratu egin behar izan zuen eta bere hirian, Betulian, hil zen. Bere gurasoen ondoan ehortzi zuten, Dotaim eta Balamon artean dagoen landan. ⁴ Baziren hiru urte eta lau hilabete Judit alargundu zela, eta bere etxean bizi zen, ⁵ etxe gainean

eraikia zuen etxola batean. Zakukia zeraman soinean eta gainetik alargun-jantzia. ⁶ Alargunduz gero, egunero egin ohi zuen barau, larunbat eta larunbat-bezperetan izan ezik, ilberri-egun eta bezperetan, jaietan eta israeldarren egun alaietan izan ezik. ⁷ Emakume oso eder eta xarmangarria zen. Manasesek, beraren senarrak, urrea eta zilarra, morroi-neskameak, abereak eta lurrak utzi zizkion, eta berak zeraman hori guztia. ⁸ Ez zezakeen inork ere hartaz ezer txarririk esan, Jainkoari begirune handia baitzion.

Juditek hiriko arduradunei dei egin

⁹ Entzun zituen, bada, Juditek hiriko arduradunen kontra jendeak esandako hitz

gogorrek, urik ezak lur jota utziak baitzuten. Jakin zuen, orobat, Oziasek erantzun ziena, bost egunen buruan hiria asiriarren esku utziko zuela zin eginez. **10** Orduan, bere ondasun guztien arduradun zen mirabea bidali eta dei egin zien Ozias, Kabris eta Karmis hiriko arduradunei. **11** Etorri zitzaizkionean, esan zien: «Entzudazue, Betuliako buruzagiok. Ez da zuzena gaur herriaren aurrean esan duzuen. Ez zenuten Jainkoaren izenean zin egin behar hiria etsaien esku utziko zenutela, baldin eta bost egunen buruan Jaunak laguntzarik bidaltzen ez bazizuen. **12** Nortzuk zarete zuek Jainkoari gaur baldintzarik jartzeko? Jendearen erdian Jainkoaren orde zaudetela uste al duzue? **13** Jaun ahalguztiduna tentatu nahi izan duzue, baina ez duzue inoiz ere beraren asmorik ulertuko. **14** Gizonaren bihotz barruan zer dagoen eta buruan zein gogoeta egiten duen jakiteko gauza ez bazarete, nola antzeman guztia egin duen Jainkoaren asmoei, nola jakin beraren burutapenak, nola ulertu beraren erabakiak? Ez, ene senideok, ez haserrarazi Jauna, gure Jainkoa. **15** Izan ere, bost egun horietan lagundu nahi ez badigu ere, nahi duenean lagun diezaguke edota, bestela, gu suntsiarazi ere bai etsaien eskuz. **16** Ez ipini baldintzarik Jaunaren, gure Jainkoaren, erabakiei; Jainkoa ez baita gizakumea bezalakoa mehatxuka ibiltzeko edota nola jokatu behar duen agintzeko. **17** Beraz, eska diezaiozun laguntzeko, beraren salbamenaren zain gaudelarik. Eta entzungo du gure eskaria, hala nahi badu.

18 Gure belaunaldi honetan, gure egunotan ez da gure artean idolorik adoratzen duen leinurik, ez familia, ez senitarte, ez hiririk, antzina egin ohi zuten bezala. **19** Horregatik utzi zien Jainkoak etsaiei gure arbasoak ezpataz hiltzen eta dena lapurtzen. Horra zergatik jasan zuten halako hondamena. **20** Guk, ordea, ez dugu geurea beste Jainkorik ezagutzen. Horregatik espero dugu ez gaituela arbuiatuko, ez gu, ezta gure herriko inor ere.

21 Izan ere, gu harrapatzen bagaituzte, Judea osoa eta gure tenplua ere harrapatuko dituzte eta profanazio hori geure biziak ordainaraziko digu Jainkoak. **22** Esklabo eramango gaituzten nazioen erdian, gure gainera botako du gure senideen heriotza, gure herriaren gatibualdia eta gure ondarea suntsitzearen erantzukizuna. Eta harrapatuko gaituztenek irain eta iseka egingo digute. **23** Eta esklaboaldian geure jabeak ez zaizkigu gupidatuko, baizik eta lotsabide bihurtuko digu Jainko Jaunak esklaboaldia.

24 Beraz, senideok, erakuts diezaiogun anai-arrebei geure esku dugula beraien bizia, bai eta toki santua, tenplua eta aldarea ere. **25** Eta, gainera, eman diezazkiogun eskerrak Jaunari, geure Jainkoari, gu ere, arbasoak bezala, probatzen gaituelako. **26** Oroit zaitzete Abrahami egin zionaz eta nola probatu zuen Isaak. Oroitu Jakobi Siriako Mesopotamian gertatu zitzaionaz, bere amaren anaia Labanen artaldeak zaintzen ari zelarik. **27** Haien bihotzak suz probatu zituen bezala, gu ere, berarengana hurbiltzen garenek, zigortu egiten gaitu Jaunak; ez, ordea, gutaz mendekatzeko, zuzenarazteko baizik».

28 Oziasek erantzun zion Juditi: «Arrazoia duzu. Esan duzun guztia zentzuzkoa da, hori ezin du inork ukatu. **29** Gainera, ez duzu lehen aldia horrelako zuhurtzia agertzen duzula; herri guztiak daki txikitandik zarela buru argiko eta bihotz oneko. **30** Herria, ordea, egarriak hila dago, eta esan duguna betetzera eta bazterrezin dugun zina egitera behartu gaitu. **31** Emakume jainkozalea zarenez, egizu otoitz gure alde. Jaunak bidaliko digu euria gure urtegiak betetzeko eta, horrela, ez gara lur joak geldituko».

32 Juditek erantzun zien hiriko arduradunei: «Entzuidazue. Gure herriak gizaldiz gizaldi gogoan izanen duen zerbait egin behar dut. **33** Gaur gauean egon zaitzete hiriko atean. Ni neure mirabearekin atera egingo naiz. Eta hiria etsaiei emateko hitz eman duzuen epea bete baino lehen, salbatuko du Jaunak Israel nire bitartez. **34** Zuek

ez ibili nire asmoak zein diren jakin nahian, ez baitut deus ere esango dena bukatu arte».

35 Oziasek eta buruzagiek esan zioten: «Zoaz bakean! Eta gida zaitzala Jainko Jaunak gure etsaiez mendekatzer!».

36 Etxolatik irten eta beren tokietara joan ziren buruzagiak.

Juditena otoitza

9 **1** Juditek, ahuspeztu, buru gainera errautsa bota eta soinean zeraman zakukia agerian jarri zuen. Eta Jerusalem, Jainkoaren etxean, arratsaldeko intentsu-etsaintza egin ohi zen ordu berean, Juditek deiadar egin zion ahots handiz Jaunari, esanez:

2 «Jauna, gure arbaso Simeonen Jainkoa! Zeuk jarri zenion Simeoni eskuan ezpata, atzerritar batzuez mendeka zedin. Izan ere, atzerritar haiek neskatxa birjina bati gerrikoa askatu, gerritik behera biluztu eta bortxatu egin zuten, neska lohituz, lotsaraziz eta desohoraturaz. Esana zenuen zuk: "Ez egin horrelakorik". Haiek, ordea, egin egin zuten. **3** Horregatik hilarazi zenituen haien buruzagiak, eta haiek beren makurkeria lotsagarri-rako erabili zuten ohea beraien odolaz gorritu zenuen. Esklaboak eta jauntxoak batera hil zenituen, bai eta handikiak ere beren tronuetan. **4** Haien emazteak harrapakin eta alabak gatibu eramatea eta haien ondasun guztiak zeure seme-alaba israeldar maiteen artean banatzea nahi izan zenuen; hauek, izan ere, zure maiteminez sutan eta beren odoleko bati eginiko lohikeria hartaz higuindurik, laguntza eskatu zizuten.

Oi Jainko, ene Jainko, entzun alargun honi. **5** Zuk eginak dira lehen gertatuak, oraingoak eta gerokoak; zeuk erabakitzen duzu oraingoa eta gerokoa, eta gogoan duzuna gertatzen da. **6** Zuk erabakitako gertakizunek etorri eta esaten dute: "Hemen gaituz". Zeure bideak oro prest baitituzu eta alde zurretatik ikusia zeure erabakia.

7 Hona non etorri diren asiriarrak indarrean, beren zaldi eta zaldunengatik harro, beren oinezkoen indarrarengatik hanpurutsu, eta konfiantza beren babeski, lantza, arku eta habailetan jarririk. Ez dakite gerrak desegiten dituen Jauna zarela zu. **8** Jauna duzu izena. Desegizu horien ahalmena zeure kemenaz eta horien indarra zeure haserreaz! Zure tenplua profanatu nahi dute asiriarrak horiek; zu, Jainko aintzatsu hori, bizi zaren egoitza kutsatu nahi dute eta burdinaz desegin zure aldarea. **9** Begira zeinen harro diren! Jo itzazu zeure haserreaz eta emaidazu niri, alargun honi, pentsatu dudana neure eskuz betetzeko ahalmena. **10** Nire hitzez liluratu eta zigor ezazu esklaboa buruzagiarekin batera eta buruzagia bere zerbitzariarekin batera. Makurrarazi horien harrokeria emakume baten bitartez. **11** Zure indarra ez baitago gudari-kopuru handiaren baitan, ezta ahalmena ere gizon indartsuen baitan. Baizik eta apalen Jainko zara zu, txikien laguntzaile, ahulen babesle, ezezagunen zaintzaile, etsaien salbatzaile. **12** Bai, bai, gure arbasoen Jainko, zure ondare den Israelen Jainko, zeru-lurren Jabe, itsasoen Egile, diren guztien Errege, entzun nire eskaria. **13** Egizu nire hitz liluragarriak jo eta hil ditzala zure itunaren, zure etxe santuaren, Sion mendia- ren eta zure seme-alaben bizileku den lurraldearen kontra halako erabaki gogorrak hartu dituztenak. **14** Erakutsi zeure herri osoari eta leinu guztiei zu zarela Jainko ahalguztiduna eta indarguztiduna, eta zu beste babeslerik ez duela Israel herriak!».

Judit etsaien kanpalekura

10 **1** Israelen Jainkoari egindako oihua eta otoitza bukaturik, **2** jaiki, bere mirabeari dei egin, eta larunbatak eta jaiegunak igarotzen zitueneko geletara

jaitsi zen Judit. **3** Erantzi zituen soinean zeramatzan zakukia eta alargun-jantzia, bainatu, gorputza usain-gozo bikainez igurtzi, ile-adatsa apaindu eta xingolaz lotu eta beraren senar Manases bizi zelarik eraman ohi zuen jaietako soinekoa jantzi zuen. **4** Jantzi zituen sandaliak, lepokoak, eskumuturretakoak, eraztunak eta belarritakoak ere: bere bitxi guztiak. Apain-apain jarri zen, ikusiko zuten gizonak liluratzeko eran. **5** Gero, ardo-zahagia eta olio z betetako pegarra eman zizkion Juditek mirabea-ri; bide-zorroan garagar-irina, piku-opilak, ogia eta gazta sartu eta, gauza guztiak ongi bildu ondoren, mirabea-ri eman zizkion horiek ere. **6** Eta Betuliako atera abiatu ziren. Han aurkitu zituzten zain Ozias eta hiriko arduradun ziren Kabris eta Karmis. **7** Judit itxuraldaturik eta soineko bikainez jantzia ikustean, erabat harriturik gelditu ziren Juditen edertasunaz eta esan zioten: **8** «Gure arbasoen Jainkoak izan zaitzala begiko eta lagun diezazula zeure asmoak betetzen, israeldarron osperako eta Jerusalemenean aintzarako!».

9 Juditek, Jainkoa gurtu ondoren, esan zien: «Agindu atea irekitzeko, eta esan dida-zuen horixe egitera aterako naiz».

Eta Juditek eskatu bezala, atea irekitzeko agindu zieten arduradunek gazteei. **10** Ireki zutenean, atera zen Judit bere mirabearekin. Hiriko gizonak begira egon zitzaizkion, maldan behera joan eta harana igaro bitartean. Handik aurrera ez zuten ikusi.

11 Haranean aurrera zuzen zihoala, asiriarrak aurretalde bat atera zitzaion bidera. **12** Juditi heldu eta galdetu zioten:

—Zein herritakoa zara?

Juditek erantzun zien:

—Hebertarra naiz, eta ihesi noa beraien artetik, zuek laster irentsiko dituzuelako. **13** Zuen gudarostearen buru den Holofernesengana noa egiazko berriak ematera; gizon bakar baten bizia ere galdu gabe, lurralde menditsu honen jabe egiteko bidea adierazi nahi nioke.

14 Gizon haiek, Juditen hitzak entzun eta hain ederra iruditu zitzaaien aurpegia ikusirik, esan zioten:

15 —Bizia salbatu duzu, gure jaunarengana berehala jaitea erabakiz. Zoaz, bada, beraren oihal-etxolara; gutariko batzuek lagunduko dizute berarenganaino. **16** Beraren aurrera heltzean, ez izan beldurrik eta adierazi esan diguzuna, ongi hartuko baitzaitu.

17 Beren arteko ehun gizon hautatu zituzten, Judit eta mirabea-ri lagun egin eta Holofernesen oihal-etxolara eraman zitzaizten. **18** Emakumea zetorrela zabaldu zenean, istilua sortu zen kanpaleku osoan. Gudariak emakumearen inguruan bildu ziren, Judit Holofernesen oihal-etxolaren aurrean zegoen bitartean, gudalburuari beraren berri eman zain. **19** Harrituak zeuden emakumearen edertasunaz eta, berarengatik, miretsi egiten zituzten israeldarrak, elkarriz esanez: «Gutxiets ote daiteke honelako emakumeak dituen herria? Huts ederra izango litzateke horietako gizon bakar bat ere bizirik uztea! Mundu osoa liluratuko lukete bizirik geldituek!».

20 Atera ziren Holofernesen oihal-etxolako zaintzaileak eta ofizialak, eta sartu zuten barrura Judit. **21** Sabaidun ohean zegoen etzana Holofernes; ohe-sabaia purpura eta urrez egina zen, esmeraldaz eta harribitxiz apaindua. **22** Juditen berri eman ziotenean, atera zen Holofernes sarreraraino, zilarrezko kriseiluz aurretik argi egiten ziotela. **23** Judit Holofernesen eta ofizialen aitzinera heldu zenean, harrituak gelditu ziren denak haren aurpegi ederra ikusirik. Judit ahuspeztu egin zen Holofernesen aurrean, baina zerbitzariak zutiarazi egin zuten.

Judit Holofernesen oihal-etxolan

11 **1** Holofernesek esan zion Juditi: «Izan adore, emakume; ez izan

beldurrik, nik ez baitiot kalterik egiten mundu osoko errege den Nabukodonosor zerbitzatu nahi duenari. **2** Lurralde menditsu horretan bizi diren zure herritarrek arbuaiatu izan ez banindute, ez niekeen nik erasoko. Baina beraiek nahi izan dute hori. **3** Esadazu zergatik egin duzun ihes haien artetik eta guregana etorri. Egia esan, horrexek salbatu zaitu. Izan uste on. Zure bizia ez dago arriskuan, ez gaur gauean, ezta gerora ere. **4** Inork ere ez dizu kalterik egingo; alderantziz, ongi hartuko zaitugu, Nabukodonosor erregearen, ene jaunaren, zerbitzariari dagoen bezala».

5 Juditek erantzun zion: «Entzun zure mirabe honek zure aurrean esango dituen hitzak. Gau honetan ez diot ene jaunari inolako gezurrik esango. **6** Zeure mirabe honen aholkuei kasu egiten badiezu, beteko du Jainkoak zuretzat duen asmoa eta ene jaunak ez du huts egingo bere egintzetan. **7** Gora Nabukodonosor, mundu guztiko erregea, eta gora beraren agintea! Berak bidali zaitu bizidun guztiak zentzarazteko. Zuri esker zerbitzatzen dute gizon-emakumeek eta, hori ez ezik, basapiztiak, abereak eta zeruko txoriak ere, zure indarrari esker, Nabukodonosoren eta beronen errege-etxearen mendean biziko dira. **8** Aditu izan dugu zure jakituriak eta iaioetasunaz mintzatzen, eta toki guztietan esan ohi da hoberena zarela erreinu osoan, jakintza handikoa eta guduetan miresgarria. **9** Guk ere entzun dugu Akiorrek zure kontseiluaren aurrean esandakoa; izan ere, Betuliakoek jaso egin zuten eta zure aurrean esandakoa adierazi zigun berak. **10** Ene jaun eta jabea, ez gutxietsi haren hitzak; izan itzazu gogoan, egia zioen eta. Ezin baitu gure herria inork zigortu, ezta ezpataz menderatu ere, baldin eta beraiek Jainkoaren kontra bekaturik egiten ez badute. **11** Baina, oraingo honetan ez diote nire jaunari atzera eragingo eta esku-hutsik geldiaraziko; gainera etorriko zaie heriotza, zerengaitzakeria egiten duten bakoitzean, Jainkoa haserrea-razten baitute; eta, hain zuzen ere, bekatuak

mendean hartuak ditu orain: **12** janaririk gabe gelditzean eta ur guztia ahitzean, beren abereak jaten hasteko asmoa dute, bai eta Jainkoaren legeak debekatuak dituen janiariak ere. **13** Jerusalemene gure Jainkoaren tenpluan zerbitzatzen duten apaizentzat arretaz gorde dituzten gari-hasikinak eta ardo eta olioaren hamarrenak ere jatea erabaki dute, nahiz eta herriko inork ez duen eskubiderik gauza horiek eskuz ukitzeko ere. **14** Jerusalemeko jendeak hori egin duenez, Betuliakoek mandataria bidali dituzte hara, hango arduradun-biltzarrak baimena eman diezaien gauza bera egiteko. **15** Eta, baimena harturik, hori egingo duten egunean zure eskura emango ditu Jainkoak, suntsi ditzazun. **16** Horregatik nik, zure mirabe honek, hori guztia jakitean, ihes egin dut haien artetik. Zurekin egintza handiak egitera bidali nau Jainkoak eta, egintza horien berri aditzean, txunditua geldituko da mundu osoa. **17** Zure mirabe hau jainkozalea da. Gau eta egun zerbitzatzen dut zeruko Jainkoa. Orain, ene jauna, zurekin geldituko naiz; baina gauez sakanera joango naiz eta Betuliakoek bekatua noiz egin duten adieraz diezadala eskatuko diot Jainkoari. **18** Orduan, etorriko naiz zuri esatera eta zuk zeure gudaroste osoarekin eraso egingo diezu. Inork ere ez dizu aurre egingo. **19** Ondoren, Judean barrena, Jerusalemeneraino gidatuko zaitut eta beraren erdian ezarriko dizut errege-aulkia. Artzainik gabeko ardiak bailiran gidatuko dituzu Jerusalemendarrak eta zakur batek ere ez dizu zaunka egingo. Hau guztia aurretiaz ikusi eta jakinarazi dit Jainkoak, eta zuri adieraztera bidali nau».

20 Atseginenez hartu zituzten hitz hauek Holofernesek eta beronen ofizial guztiek eta, Juditen jakinduriak harriturik, zioten: **21** «Lurraren bazter batetik besteraino ez da honek bezain aurpegi ederra duen emakumerik, ezta honelako hitz zuhurrik esango duenik ere».

22 Holofernesek esan zion Juditi: «Ongi egin du Jainkoak zuri herritarren artetik

ihes eraginez, nik indarra har dezadan eta nire jauna gutxietsi dutenek, aldiz, hondamena. **23** Ederra zara, benetan, eta zuhurra zeure hitzetan. Esan duzuna egiten baduzu, zure Jainkoa izanen dut nik ere Jainko, eta zu Nabukodonosor erregearen jauregian biziko zara eta ospetsu izango mundu osoan».

Judit Jaunarekiko leial

12 ¹ Judit zilarrezko ontziak zeuden gelara eramateko agindu zuen Holofernesek eta bere janari-edariatatik emateko. ² Juditek, ordea, esan zuen:

—Ezin dut hori jan, Jainkoaren legearen kontra huts egin nezake eta. Neuk ekarritakoa jango dut.

³ Holofernesek galde egin zion:

—Eta zuk ekarri dituzun janariak ahitzean, non bila ditzakegu horrelakoak? Ez baitugu zure herritarrik gure artean.

⁴ Juditek erantzun zion:

—Zure biziarengatik, ene jauna! Zure mirabe honek ekarritako guztia jan baino lehen beteko du Jaunak nire eskuz, berak erabakia.

⁵ Holofernesen ofizialek oihal-etxolara eramán zuten eta Juditek lo egin zuen gauerdia arte. Egunsentiko guarda aldaketaren orduan jaiki ⁶ eta mandatu hau bidali zion Holofernesi: «Agindu ezazu utz diezaiotela zure mirabe honi otoitz egitera ateratzen». ⁷ Eta ateratzen uzteko agindu zion Holofernesek bere zaintzaileei.

Hiru egun egin zituen Juditek asiriarren kanpalekuan. Gauero Betuliako sakanera jaisten zen eta kanpaleku ondoko iturrian bainatzen. ⁸ Berrito igotzean, otoitz egiten zion Jaunari, Israelen Jainkoari, bidean gida zezan, israeldarrei garaipena emateko. ⁹ Garbikuntza eginik, oihal-etxolara itzuli eta bertan egoten zen arratsaldeko janaria ekartzen zioten arte.

Judit Holofernesen otorduan

10 Laugarren egunean afora eman zion Holofernesek bere zerbitzariei, baina ez zuen funtzionario bat ere gonbidatu. **11** Eta beraren arazo guztiak zeramatzan arduradunari, Bagoari, esan zion: «Zoaz zeure ardurapean duzun emakume hebertarrarengana eta komentzi ezazu gurekin jan eta edatera etor dadin. **12** Lotsagarri izango bailitzateke halako emakumeari joaten uztea berarekin harremanik izan gabe. Amore emanarazten ez badiogu, iseka egingo digu».

13 Holofernesen aurretik alde egin, Juditengana joan eta esan zion Bagoak:

—Ez izan zalantzarik, emakume eder horrek, nire jaunarengana joateko. Ohoratu egin nahi zaitu. Gurekin jan eta edango duzu alaikiro; horrela, Nabukodonosorren jauregian bizi diren emakume asiriarren antzera biziko zara.

14 Juditek erantzun zion:

—Nor naiz ni neure jaunari ezetza emateko? Atsegin duen guztia egiten lehiatuko naiz eta pozgarri izango dut hori bizitza guztian.

15 Jaiki zen Judit eta soineko eta emakume-apaindura guztiak jantzi zituen. Beraren mirabeak, aurrez sarturik, ardi-larrua zabaldu zuen lurtean Holofernesen aitzinean. Ardi-larrua Bagoak Juditi emana zen, beraren gainean etzanik jateko egunero erabil zezan.

16 Sartu zen Judit eta etzan zen lurtean. Bihotza taupaka hasi eta barrua dardaratu egin zitzaion Holofernesi, eta berarekin elkartzeko irrika sutu zitzaion. Izan ere, ikusi zuen egun beretik, emakume hura beregana erakartzeko egokiera bila zebilen.

17 Holofernesek esan zion:

—Edan ezazu eta poztu gurekin.

18 Juditek erantzun zion:

—Edango dut, bai, ene jauna; hauxe baitut neure bizitzako egunik handiena.

19 Eta mirabeak prestatu ziona harturik, Holofernesen aitzinean jan eta edan zuen.

20 Holofernes pozez gainezka zegoen Juditengatik eta izugarri edan zuen, bere bizitza osoan inoiz edan zuen baino gehiago.

Juditek Holofernes hil

13 ¹ Gau beranduan, zerbitzariak lasterka atera ziren. Bagoak itxi egin zuen oihal-etxola kanpoaldetik, laguntzaileak jaunaren aurretik irtenarazi ondoren. Eta denak ohera joan ziren, gehiegi edateagatik leher eginak baitzeuden. ² Judit eta Holofernes bakarrik gelditu ziren oihal-etxolan. Holofernes bere ohean etzana zegoen, ardotan blai. ³ Juditek esana zion mirabeari logelaz kanpora egoteko bera irten zain, egunero bezala, otoitz egitera aterako zela eta. Gauza bera esana zion Bagoari ere.

4 Denak alde eginak ziren, beraz, handik; ez zen inor ere gelditu logelan, ez handirik, ez txikirik. Juditek, Holofernesen ohe ondoan zutik, otoitz hau egin zuen bere baitan: «Jauna, Jainko ahalguztiduna, une honetan begira onez Jerusalemen aintzarako egingo dudanari. ⁵ Hauxe baita zure herri aukeratuaren alde egiteko, nire asmoa betetzeko eta gure aurka jaiki diren etsaiok hondatzeko ordua». ⁶ Ondoren, Holofernesen burualdean zegoen ohe-zutaberaino joan, beraren ezpata hartu, ⁷ ohera hurbildu, Holofernesi buruko ileetatik heldu eta esan zuen: «Jauna, Israelen Jainkoa, emaidazu indarra une honetan!». ⁸ Eta bere indar guztiaz Holofernesi lepoan bi zartada eman eta burua moztu zion. ⁹ Gero, gorpua biraka ohetik kanpora bota, zutabeetako oihalak kendu eta atera egin zen berehala. Juditek mirabeari eman zion burua ¹⁰ eta honek janari-zorroan sartu zuen. Eta bi emakumeak batera atera ziren oihal-etxolatik, ohi zuten bezala, otoitz egitera. Kanpalekua zeharkatu, sakana inguratu eta, maldan gora igoz, Betulia hiriko ateetara heldu ziren.

Judit Betuliara itzuli

11 Urrutitik, Juditek oihu egin zien ate-zain zeudenei: «Ireki, ireki atea! Geurekin dugu Jainkoa, eta erakusten du oraindik ere bere kemena Israelen alde eta bere indarra etsaien aurka, gaur bertan egin duen bezala».

12 Hiriko gizonek, Juditen ahotsa entzutean, ateetara lasterka jaitsi eta dei egin zieten hiriko arduradunei. **13** Denak etorri ziren lasterka, txikienak eta handienak, sinestezi-na iruditzen baitzitzaien Judit itzuli izana. Ireki zuten atea, hartu zituzten bi emakumeak eta, argi egiteko sua pizturik, inguratu egin zituzten.

14 Juditek esan zien ahots handiz: «Goretsazue Jainkoa, goretsi! Goretsazue Jainkoa, ez baitio ukatu bere errukia Israeli. Gaur gauean, nire eskuz, hondatu egin ditu etsaiak». **15** Gero, burua zorrotik atera, denei erakutsi eta esan zien: «Hona hemen, asiriarrak gudarostearen gudarburu nagusia zen Holofernesen burua! Eta hona beraren ohe-sabaiako oihalak: hauexen azpian zetzan, erabat mozkortua. Emakume baten eskuz jo eta hil du Jaunak. **16** Neure bidean zaindu nauen Jaun biziarengatik diotsuet nire aurpegiak liluratu duela Holofernes, bere kalterako; baina ez duela nirekin ni lohitu eta lotsaraz nazakeen bekaturik egin». **17** Jende guztia zeharo txunditua gelditu zen eta, makurturik, Jainkoa gurtu zuten, denek batera esanez: «Goretsia zu, gure Jainko hori, zuk suntsitu baitituzu gaur zeure herriaren etsaiak!».

18 Oziasek esan zion Juditi: «Bedeinka zaitzala, ene alaba, goi-goiko Jainkoak lurreko emakume guztien gaisetetik; goretsia zeru-lurrak egin zituen Jainko Jauna, berak gidatu baitzaitu gure etsaien nagusiaren burua moztera. **19** Jainkoaren indarraz oroituko den herriari ez zaio inoiz ere ahaztuko zuk Jainkoaren izandako itxaropena. **20** Eman biezazu Jainkoak beti goraldia izatea eta beraren ondasunak hartzea, zeure bizia arriskuan jarri baituzu, gure herria zeinen zanpatua zegoen

ikusirik. Gure Jainkoaren aurrean zuzen jokatu, gure hondamendia eragotzi duzu».

Eta herri osoak esan zuten: «Hala bedi! Hala bedi!».

Juditek erasorako deia egin

14 ¹ Juditek esan zion jendeari: «Entzun, senideok! Hartu buru hau eta eseki harresi gainean. ² Eta, eguna argitzen hasi eta eguzkia lur gainera ateratzean, har ditzala nork bere armak. Indarrean zaudeten gizon guztiok atera zaitezte hiritik kanpora. Zuetarik bat buruzagi harturik, egin asiriarrak aurretaldearen kontra lautadara jaisteko itxura. Baina ez jaitsi. ³ Horiek, armak harturik, beren kanpalekura joango dira eta asiriarrak gudarosteko guda-buruak esnatuko dituzte. Guda-buruok Holofernesen oihal-etxolara joango dira lasterka, baina ez dute aurkituko. Orduan, izutu egingo dira eta ihesi joango zuten aurretik. ⁴ Zuek eta Israelen lurraldeko bizilagun guztiak jarraitu beroriei eta beren ihesbidean hilko dituzue. ⁵ Hori guztia egin aurretik, ordea, deitu Akior amondarrari, Israel herria gutxietsi eta bera gure artera hiltzera bidali zuena ikusi eta bera dela aitortu dezan».

⁶ Etorrarazi zuten, bada, Akior Oziasen etxetik. Heldu eta jendarteko gizon baten eskuan Holofernesen burua ikustean, zora-biatu eta lurrera erori zen. ⁷ Jaso zutenean, makurtu egin zen Juditen oinetaraino eta, beraren aurrean ahuspezturik, esan zuten: «Goretsia zu Judako oihal-etxola guztietan! Zure entzutea izango duten atzerri guztiak ikaratu egingo dira! ⁸ Baina esadazu egun hauetan egin duzun guztia».

Jende guztiaren erdian kontatu zion Juditek atera zen egunetik mintzatzen ari zen unera arte egindako guztia. ⁹ Juditek hitzaldia bukatzean, herriak oihu handiak egin zituen

eta hiri osoa poz-deiadarrez bete zen. ¹⁰ Israelen Jainkoak egin zuena ikusirik, Akiorrek benetan sinetsi zuen Jainkoarengan, erdaintzuntza egin eta Israel herriko kide bihurtu zen, bera eta ondorengoak gaurdaino.

Asiriarrak menderatu

¹¹ Eguna argitzean, eseki zuten harresian Holofernesen burua. Gizon bakoitzak bere armak hartu eta, taldetan antolatuz, irten ziren denak mendi-maldetara. ¹² Asiriarrak, ikusi zituztenean, horren berri bidali zieten beren guda-buruei, mila gizoneko taldeen buruei eta gainerako taldeburuei. ¹³ Hauek Holofernesen oihal-etxolara joan eta esan zioten Bagoari, Holofernesen arazoen arduradun nagusiari: «Iratzar ezazu gure jauna. Esklabo horiek gure kontra borrokatzera jaisteko ausardia izan dute. Denak garbi ditzagun nahi dute nonbait».

¹⁴ Sartu zen Bagoa eta barruko atea jo zuen, Holofernes Juditekin lo egongo zelakoan. ¹⁵ Baina, inork erantzuten ez zionez, atea ireki eta logelara sartu zen. Eta oinaultki gainean hilotz eta burua mozturik aurkitu zuen Holofernes. ¹⁶ Bagoak deiadar egin zuen oiuhu handiz, hasperenka, zotinka eta garrasika, eta bere jantziak urratu zituen. ¹⁷ Sartu zen gero Judit egondako oihal-etxolan eta, emakumea ez aurkitzean, guda-riengana atera zen lasterka eta deiadarka: ¹⁸ «Errebelatu egin dira esklaboak! Emakume hebertar batek barregarri utzi du Nabukodonosor erregearen etxea! Horra, burua mozturik datza Holofernes lurrean!».

¹⁹ Hitz hauek entzutean, asiriarrak gudarostearen buruzagiek, erabat izaturik, jantziak urratu eta kanpalekuaren erdian oiuhu eta garrasi handiak egin zituzten.

15 ¹ Oihuak entzutean, gertatu zenaz txundituak gelditu ziren kanpalekukoak. ² Erabat ikaratu eta izaturik, elkarri

itxaron gabe, denak batera sakabanatu eta ihesi joan ziren lautada- eta mendibideetan barrena. **3** Betulia inguruko mendietan zeudenek ere ihes egin zuten. Orduan, borrokarako gai ziren israeldar guztiak gainera etorri zitzaizkien. **4** Betomestaim, Bebai, Khoba, Kola hirietara eta Israelen lurralde osora mandatariak bidali zituen Oziasek, gertatuaren berri ematera eta etsaien kontra irten eta suntsi zitzatela eskatzera. **5** Hori entzutean, israeldar guztiak aldi berean atera ziren etsaien kontra eta Khobaraino eraso zieten. Jerusalengo bizilagunak eta mendialdekoak ere, etsaien kanpalekuan gertatuaren berri eman zietenean, etorri ziren erasotzera. Galaad eta Galileakoek ere eraso zieten saihetsetik eta jipoi handia eman, etsaiak Damaskora eta inguruetara heldu ziren arte.

6 Betuliako beste bizilagunek asiriarren kanpalekura jaitsi eta ahal zuten guztia harrrapatu zuten; ondasun askoren jabe egin ziren. **7** Israeldar gudariak, sarraskia egitetik itzultzean, kanpalekuan gelditu zenaz jabetu ziren; mendialde eta lautadako herrixka eta baserrietakoek ere harrrapakin ugari hartu zuten, izugarritzko multzoa baitzegoen.

Garaipena ospatu

8 Joakin apaiz nagusia eta Jerusalem bizi ziren israeldarren arduradun-biltzarrekoak

Betuliara etorri ziren, Jaunak Israelen alde egina ikustera; bai eta Judit ikusi eta agurtzera ere. **9** Juditen etxean sartu, denek batera zorionak eman eta esan zioten: «Zu zara Jerusalem aintza, Israelen harrotasunik handiena, gure herriaren ohore bikaina. **10** Hori guztia zeure eskuz egitean, zoriona ekarri diozu Israeli eta atsegin eman Jainkoari. Bedeinka zaitzala Jaun ahalguztidunak betierean!». Eta jende guztiak esan zuten: «Hala bedi!».

11 Hogeita hamar egunez jendeak kanpalekuko harrrapakinak hartzen jardun zuen. Juditi Holofernesen oihal-etxola eman zioten, bertan zeuden zilarrezko ontziteria, etzaulki, antosin eta altzari guztiakin. Juditek hartu eta bere mando gainean ipini zuen eta, gurdiak antolaturik, gainean metatu zuen dena. **12** Israelgo emakume guztiak bera ikustera eta goastera etorri ziren lasterka. Batzuek kantuan eta dantzan jardun zuten beraren omenez. Juditek makila apainduak hartu eta berarekin zeuden emakumeei eman zizkien. **13** Judit eta berarekin zeuden emakumeak olibo-adarrez koroatu ziren. Judit jende guztiaren aurrean zihoan, emakume-taldea gidatuz. Atzean israeldar giza-semeak zihoazen, armak eskuan eta koroak buruan, gorazarreak ezpainetan. **14** Orduan, Israel herriaren erdian, esker onezko kantu hau kantatu zuen Juditek, eta herri osoak ahots handiz erantzuten zion haren gorespinari.

Makabearrak



Makabearrak Bigarren Liburuak hamabost urteko aldia besterik ez du hartzen: Antioko iv.ak K. a. 175ean pertsekuzioa hasi eta Judasek 160an Nikanor garaitu zuen artekoa.

Zazpi anaien martiritza

7 ¹ Beste batean, zazpi anaia atxilotu zituzten beren amarekin. Legeak debekatua duen zerrikia jatera behartu nahirik, idiaren zainez egindako zartailuz zigorkatu zituen erregeak. ² Haietarik batek, denen izenean mintzatuz, zioen: «Zer galdetzen diguzu? Zer jakin nahi duzu guregandik? Nahiago dugu hil, gure arbasoen legeak hautsi baino». ³ Erabat amorraturik, zartaginak eta pertzak sutan jartzeko agindu zuen erregeak. ⁴ Ontziak sutan jarri zituztelarik, denen izenean mintzatu zenari, anaien eta amaren aurrean, mihia moztu, burua larrutu eta esku-oinak mozteko agindu zuen. ⁵ Mutila ezertarako gauza ez zela gelditu zenean, artean bizirik, sutara hurbildu eta zartaginara botatzeko agindu zuen erregeak. Zartaginatik lurruna ugari zabaltzen zen bitartean, ama-seeek elkarri adore ematen zioten kementsu hiltzeko. Hau zioten:

⁶ «Begira dugu Jainko Jauna eta zinez errukitzen zaigu, Moisesek bere kantuan argi aitortu zuen bezala: «Errukituko zaie bere zerbitzariei»».

⁷ Lehenengoa horrela hil zenean, bigarrena eraman zuten zigorkatzera. Buruko larrua ile eta guzti kendu ondoren, galdetu zioten: «Jango al duk okela hau, hire gorputza atalez atal torturatu baino lehen?».

⁸ Hark, bere arbasoen hizkuntzan, erantzun zien: «Ez!».

Orduan, hura ere lehenengoa bezala torturatu zuten. ⁹ Azken arnasa ematerakoan, esan zuen: «Zuk, gaizkile maltzur horrek, oraingo bizia kentzen diguzu; baina munduaren Erregeak betirako bizirako piztuko gaitu, beraren legeengatik hiltzen garenok».

¹⁰ Honen ondoren, irainka eta iseka hasi ziren hirugarrenarekin. Mihia ateratzeko agindu ziotenean, berehala atera eta besoak ere luzatu egin zituen ausarki. ¹¹ Eta esan zien gizonki: «Jainkoak eman zizkidan gorputz-atal hauek, beraren legeengatik

gutxiesten ditut. Eta badakit, berarengandik hartuko ditudala berriro». **12** Erregea eta beronekin zeudenak harrituak gelditu ziren gazte haren ausardiaz, huskeriatzat baitzitu-tuen oinaze-minak.

13 Hirugarrena hil zenean, oinaze berberaz torturatu zuten laugarrena. **14** Hiltzear zegoela, esan zuen: «Merezi du giza eskuz hiltzeak, Jainkoak berpizteko itxaropena ematen digunean. Zuk, ordea, ez duzu bizerako berpizterik izango».

15 Ondoren, bosgarrena ekarri eta torturatu zuten. **16** Erregeari so eginez, esan zion: «Zuk, hilkorra izan arren, nahi duzuna egin ohi duzu, gizon-emakumeen gain aginpidea duzulako. Baina ez uste izan Jainkoak gure herria eskutik utzi duenik. **17** Itxaron eta ikusiko duzu beraren indar handia. Berak torturatuko zaituzte zu eta zure ondorengoak».

18 Gero, seigarrena ekarri zuten. Hiltzear zegoela, hau zioen: «Ez engainatu zoro-zoro zeure burua. Gu geure erruz ari gara hau guztia jasaten, geure Jainkoaren kontra bekatu egin dugulako. Horregatik gertatu zaizkigu gauza harrigarri hauek. **19** Baina ez uste izan zu ere zigorrik gabe geldituko zarenik, Jainkoari gerra egiteko ausardia izan duzu eta».

Seme gazteenaren eta amaren martiritza

20 Zinez miresgarria eta gogoangarria, ama izan zen. Egun berean zazpi semeak hiltzen ikusi eta bihotz handiz jasan zuen dena, bere itxaropena Jaunarengan jarria zuelako. **21** Seme bakoitzari indarra ematen zion bere hizkuntzan. Sentipen bikainez betea eta gizonezkoarena bezalako indarrez, emakume hark ziotsen: **22** «Nik ez dakit nola agertu zineten nire errailetan; ez nizuen nik arnasa eman, ez bizia ere, eta zuetako bakoitzaren gorputza ez nuen nik eratu.

23 Diren guztien Egileak egin du gizon-ema-kumeen izatea eta sortarazi ditu gauza guztiak. Berak itzuliko dizkizue bere erruki-arnasa eta bizia, zeuen buruak ematen baitituzue orain beraren legeengatik».

24 Emakumea isekaz ari zitzaiola eta hitz haiek irainak zirela uste izan zuen Antiokok. Oraindik bizirik zegoen txikiena. Berari mintzatuz, komentzitu egin nahi zuen Antiokok, eta zin egin zion aberats eta guztiz zoriontsu bihurtuko zuela, bere adiskidetzat hartu eta kargu handiak emango zizkiola, baldin eta bere arbasoen ohiturei uko egiten bazien. **25** Mutikoak kasurik ere egiten ez zionez, amari dei egin eta mutikoa iritziz aldarazteko eskatu zion erregeak, horrela salba zedin. **26** Luze hitz egin ondoren, amak onartu zuen semeari aholkuak ematea. **27** Berarengana makurtu eta, errege anker hura engainatuz, esan zion amak semeari bere hizkuntzan: «Ene seme, erruki nitaz. Bederatzi hilabetez eraman zintudan sabelean, hiru urtez eman nizun bularra, neuk hazi eta hezi zaitut gaurdaino, neuk eman nizun jaten. **28** Ene seme, otoi, begira zeru-lurretara eta ikus horietan dagoen guztia. Jakin Jainkoak hori guztia ezerezetik egin duela eta gizon-emakumeok ere era berean egin gaituela. **29** Ez izan, beraz, borrero horren beldurrik; ager zaitetz anaien pareko, onartu heriotza, errukialdia etortzean zu ere anaiekin batera berriro aurki zaitzadan».

30 Ama hizketan ari zela, gazteak esan zuen: «Zeren zain zaudete? Nik ez dut egingo erregearen esana, Jainkoak Moisesen bidez gure arbasoei eman zien legearen esana baizik. **31** Baina zuk, hebertarro hainbeste kalte egin diguzun horrek, ez duzu ihes egingo Jainkoaren eskutik. **32** Gu, egiaz, geure bekatuengatik ari gara sufritzen. **33** Gu zigortzeko eta zuzenarazteko haserretu da une batez Jauna; hala ere, adiskidetu da berriro bere zerbitzariokin. **34** Baina zu, zital hori, gizonetan maltzurrena zaren hori, ez zaitetz itxaropen hutsalez alferrik harrotu, Jainkoaren zerbitzarien

kontra eskua jaso. **35** Oraindik ez diozu ihes egin guztia ikusten duen Jainko ahalguztidunaren epaiari. **36** Une honetan, oinazealdi laburra jasan ondoren, Jainkoak hitz eman duen bukaerarik gabeko bizian parte dute nire anaiek. Zuk, aldiz, zure harrokeriak merezi duen zigorra jasan beharko duzu, Jainkoaren erabakiz. **37** Neure gorputza eta bizia ematen ditut, nire anaiek bezala, gure arbasoen legeengatik. Eta Jainkoari hau eskatzen diot: ager diezaiola lehenbailehen bere onginahia gure herriari eta zuk ere, oinaze eta zigorren eraginez, aitortu beharra

izan dezazula bera dela Jainko bakarra. **38** Nire eta anaien heriotzaz, bare bedi gure herriaren kontra, ongi merezirik, Ahalguztidunak izan duen haserrea!».

39 Bere onetik irten eta iseka hura jasan ezinik, askoz ankerragoa izan zen erregea mutil harekin besteekin baino. **40** Hala, gazte hura ere legea hautsi gabe hil zen, uste osoa Jaunarengan ipinirik. **41** Azkenik, ama hil zuten semeen ondoren.

42 Aski bedi esan duguna, sakrifizioetan eskainitako okela janarazteko zigorrak zeinen neurrigabeak izan ziren adierazteko.

Jakinduria



Jakinduria liburua, aditu askoren arabera, ez da hain zaharra, Itun Zaharreko berrienetakoa baizik. Autoreak grekoz idatzi zuen, Egipton K. a. 150-30 urteen bitartean. Badirudi Egipton —zehatzago esanda, Alexandrian— zegoen judu-komunitatea dagoela liburuaren ikusmiran, eta mundu hartan bere espazio politikoa nahi duen komunitateari zuzendua dago (19,16). Ikuspegi honetatik, liburuak helburu bikoitza izan lezake: batetik, arbasoen fedeari zintzo eusteko dei egitea; eta bestetik, greziar kultura juduen tradizioarekin lotzea.

208

Zuzentasuna, Jakinduria, Espiritua

gogoeta zentzugabeen aurrean;
bidegabekeria agertzean,
salatu egiten dute.

- 1** Maitatu zuzentasuna, mundua gobernatzen duzuenok;
pentsa ezazue ongi Jaunari buruz eta bilatu hura bihotz osoz,
2 bera aurkitzen uzten baitie tentatzen ez dutenei, eta bere burua agertzen, mesfidatzen ez direnei.
3 Gogoeta bihurriek Jainkoarengandik aldentzen dute, eta haren ahalmenak, proban jarriz gero, nahastarazi egiten ditu zentzugabeak.
4 Jakinduria ez da sartzen asmo txarreko bihotzean, ezta bizi ere bekatuaren mende dagoenaren gorputzean.
5 Espiritu santu hezitzaileak ihes egiten dio engainuari, urrundu egiten da

Espiritua eta hitza

- 6** Jakinduria gizakia maite duen espiritua da, baina ez du zigorgabe uzten gaizki-esalea;
Jainkoak ikertzen du gizakiaren barrua, zehatz aztertzen du beronen pentsamendua eta esaten duen guztia entzuten.
7 Jaunaren espirituak lurra betetzen du eta, gauza guztiak elkarbiltzen dituen bezala, hots guztiak ezagutzen ditu.
8 Horregatik, zuzengabe mintzo den inor ez da oharkabean geldituko, justizia salatzaileak ez dio barkatuko.

9 Zorrotz aztertuko dira fedegabearen asmoak, beronen hitzen berri Jaunarenganaino iritsiko da eta beronen egintza gaiztoen froga izango.

10 Izan ere, jeloskorraren belarriak den-dena entzuten du, marmarren xuxurleek ere ez diote ihes eginen.

11 Gorde zaitezte alferrikako marmarretik, eutsi mihiari eta ez jardun gaizki-esaka, ez baita ondoriogabea izaten ezkutuan esandakoa ere, eta kalumniatzen duen ahoak hil egiten du.

Bizia eta heriotza

12 Ez erakarri heriotza zeuen bizitza okerbideratuz, ez zeuenganatu hondamendia zeuek egindakoaz.

13 Jakin ez duela Jainkoak heriotza egin, bizidunak galtzea ez duela atsegin.

14 Izan eta irauteko egin ditu hark gauza guztiak; munduko izakiak osasunez beteak daude, ez dute beren baitan pozoi hilgarriak

eta Heriok ere ez du munduan aginterik,

15 hilezkorra baita zuzentasuna.

Entzun, erregeok

6 ¹ Entzun, beraz, erregeok, eta ulertu; ikasi, munduko bazter guztietako agintariok.

2 Jarri arreta, zuek, jendetza handiak gobernatzen dituzuenok eta herri ugari mendean izateaz harrotzen zaretenok.

3 Jaunarengandik datorkizue boterea, Goi-goikoarengandik agintea, eta berak aztertuko ditu zuen egintzak eta ikertuko zuen egitasmoak;

4 zeren eta haren erregetzaren ministrari izanik, ez baituzue zuzen epaitu, ez legea bete, ezta jokatu ere Jainkoaren borondatearen arabera.

5 Bat-batean eta beldurgarriro aurkeztuko zaizue, bereziki zorrotz epaitzen baititu goi-mailakoak:

6 txikienei errukia zor zaie, ahaltzuak gogor izango dira zigortuak.

7 Gizaki guztien Jaunak ez du inoren aurrean atzera eginen, handitasunak ez du kikiltzen; handikia nahiz txikia berak egin zituen eta era berean arduratzen da guztiez.

8 Halere, azterketa zorrotzagoa izango dute boterean daudenek.

9 Beraz, zuei, erregeoi, zuzentzen dizkizuet hitzok, jakintsu izaten ikasi eta huts egin ez dezazuen.

10 Haren nahi santua zintzo betetzen dutenak izango dira santutzat hartuak, eta hartan ikasiek izango dute babeslerik.

11 Beraz, izan nire hitzen egarri, bila itzazue irrikaz eta hartuko duzue heziketa.

209

Jakinduriak erregetzara darama

12 Argitsua da jakinduria, itzalezina haren distira. Nekerik gabe ikusten dute maite dutenek, bai eta aurkitzen ere bilatzen dutenek.

13 Beraren irrikaz daudenei aurrea hartzen die eta bere burua ezagutarazten.

14 Haren bila goiz-goizetik doanak ez du nekatu beharrik izango, ate ondoan aurkituko baitu eseria.

15 Zuhurtziaz handiena da hartaz gogoeta egitea, hargatik gauak beilan ematen dituen laster izango da kezkarik gabe,

Jakinduria 6,16

16 zeren eta jakinduria bera ibiltzen baita harat-honat beraren duin direnen bila; onginahiz agertzen zaie bidean eta beren gogoeta bakoitzean aurkezten.

17 Jakinduriaren hasiera haren irakaspenaren egarrían datza;

18 heziketaz arduratzea hura maitatzea da; hura maitatzea beraren legeak gordetzea; haren legeak betetzea hilezkortasuna ziurtatzea,

19 eta hilezkortasunak Jainkoarengana hurbilarazten du.

20 Honela, jakinduriaren egarriak erregetzara darama.

21 Beraz, zuek, herrietako erregeok, errege-aulki eta aginte-makilak atsegin badituzue, ohoratu jakinduria, eta betirako izango zarete errege.

Adanengandik

Noerenganaino

10 **1** Jakinduriak babestu zuen munduaren aita, sortua izan eta

bakarrik zegoenean; gero, bekatutik atera zuen

2 eta gauza guztiak menderatzeko ahalmena eman.

3 Gaizkilea, bere suminean, aldendu egin zen jakinduriatik eta, amorruz anaia hilez, bere burua hondatu zuen.

4 Haren erruz, uholdeak estali zuen lurra, baina jakinduriak salbatu zuen berriro, zintzoa zurezko ontzitxo kaxkarrean gidatuz.

Abrahan eta Lot

5 Nazioak gaizkian bat etorri eta nahastu zirenean, jakinduriak begiz jo zuen

zintzoa, akasgabe gorde zuen Jainkoaren aurrean eta tinko etsi zion, semearenganako maitasunagatik desobedi ez zezan.

6 Fedegabeen hondamendikoan, jakinduriak libratu zuen zintzoa, bost hirien gainera eroritako sutik ihesi zebilela.

7 Haien gaiztakeriaren lekuko, hor da oraindik lur idorra ketan, garaiz aurretik fruitua galtzen duten arbolekin, bai eta gatzezko zutabea ere, arima sinesgabearen oroigarri.

8 Jende hark, jakinduria baztertu zuelako, ongia bereizteko gaitasuna galtzeaz gainera, bere burugabekeriaren oroigarria utzi zien gerokoei, beraien hutsegiteak ez zitezen ezkutuan geldí.

9 Bere zerbitzariak, ordea, estualdi guztietatik libratu zituen jakinduriak.

Jakob eta Jose

10 Anaiaren suminetik ihesi zebilen zintzoa bide erosotik gidatu zuen jakinduriak;

Jainkoaren erregetza erakutsi zion eta errealitate santuak ezagutzera eman; arrakasta eman zion bere nekeetan eta lanaren emaitzak ugaldú;

11 zapaltzaileen gutzietatik zaindu eta aberastasunez bete zuen jakinduriak;

12 etsaiengandik gorde eta tranpak jartzen zizkietenengandik babestu zuen;

borroka gogorrean garaipena eman zion, jainkozaletasuna beste ezer baino ahaltsuagoa dela jakin zezan.

13 Saldua zuten gizon zintzoa ez zuen bertan behera utzi jakinduriak, baizik eta bekatuan erortzetik libratu zuen;

14 berarekin jaitsi zen putzura
eta ez zuen ahaztuta utzi presondegian;
azkenik, errege-makila eskuratu zion
eta mendean eduki zutenen gain
agintea eman;
argira atera zituen iraindu zutenen
gezurrak eta betirako ospea eman zion
berari.

Israel herria eta Moises

15 Herri santua, askazi akasgabea,
nazio zapaltzailearengandik askatu zuen
jakinduriak.

16 Jaunaren zerbitzariaren barnera sartu
eta errege beldurgarriei aurre egin zien
mirari eta egintza harrigarrien bidez.

17 Beren nekeen saria eman zien santuei
eta bide miresgarrian zehar gidatu zituen;
haien gerizpe izan zen egunez
eta izarren distira gauetz.

18 Itsaso Gorria zeharkarazi zien,
ur handien artetik eramanez;

19 etsaiak, ordea, urperatu egin zituen
eta, gero, hondotik ur gainera atera.

20 Horrela, zintzoek fedegabeak bipildu
zituzten, eta zure izen santuari, Jauna,
gorazarrea kantatu zioten,
zure indar garailea aho batez ospatuz.

21 Izan ere, jakinduriak hitz eragin zien
mutuei, argi eta garbi mintzarazi
hautxoei ere.

Ben Sirak



Antzina, greziar giroan, Jesus, Siraken semearen Jakinduria deitzen zitzaion liburuari;
latindar giroan, berriz, Eklesiastikoa.

Garbi ezagutzen dugu liburu honen egilea: "Jesus, Siraken seme" delakoa, K. a. 180. urte aldera Jerusalem bizi zena. Bertako handikietako, eskriba jakintzazale izan zela pentsa daiteke. Jakinduriaren ikertzaile, gaztetandik, atzerrian ere ibili zen. Moisesen Legearen ikertzaile, badirudi irakasle ere izan zela eskolaren batean, azkenean liburu hau idatziz.

212

Jauna jakinduriaren iturri

- 1** Jaunarengandik dator jakinduria guztia, harekin dago beti.
2 Itsas hondarra, euri-tantak, mendez mendeko egunak, nork zenbatu?
3 Zeruaren garaiera, lurraren zabalera, leizearen sakonera, nork arakatu?
4 Gauza guztien aurretik sortu zen jakinduria, betidanik adimena eta zuhurtzia.
6 Jakinduriaren sustraia, nori errebelatu zaio? Haren ekintza trebeak, nork ezagutzen?
8 Bat bakarra da jakintsua: guztiz beldurgarria, Jauna, bere tronuan eserita dagoena.

- 9** Berak sortu zuen jakinduria, hark ikusi eta neurtu ere, hark banatu berak egindako guztien gain;
10 gizaki guztiei eman die bere eskuzabaltasunez, are esku zabalagoz maite dutenei.

Jaunarenganako begirunea

- 11** Jaunarenganako begirunea ospe eta harrobide da, pozbide eta alaitasunezko koroa.
12 Bihotza gozatzen du Jaunarenganako begiruneak; poza, alaitasuna eta bizitza luzea ematen ditu.
13 Jaunari begirune dionak amaiera ona izango du, bedeinkatua izango heriotza-egunean.

14 Jauna errespetatzea da jakinduriaren hasiera; fededunekin dago, amaren sabelean sortu zirenetik.

15 Gizakien artean finkatu da eta betirako oinarritu, hala iraungo ondorengoekin ere.

16 Jaunarenganako begirunea da jakinduriaren betetasuna, honek bere fruituz asebetetzen gizakiak;

17 gogoko dutenaz gainbetetzen die etxe osoa, eta bere emaitzez aletegiak.

18 Jaunarenganako begirunea da jakinduriaren koroa, bakea eta osasuna lorarazten dituena.

19 Euria bezala isurtzen ditu jakintza eta ezagutza argia, beraren jabe direnen ospea areagotzen.

20 Jauna errespetatzea da jakinduriaren sustraia, beronen adarrak bizitza luzea.

26 Jakinduriaren irrikan zauden horrek, bete aginduak eta erruz emango dizu Jaunak;

27 izan ere, Jaunarenganako begiruneak egiten du gizakia jakintsu eta ondo hezia; atsegin ditu Jaunak zintzotasuna eta otzantasuna.

28 Ez uko egin Jaunarenganako begiruneari, ez joan harengana bihotz bikoitzaz.

29 Ez izan itxurazale gizakien aurrean, zaindu esaten duzuna.

30 Ez goratu zeure burua, erori eta desohorea zeuregana ez dezazun: Jaunak zure isilpekoak azalduko ditu eta zu batzarraren aurrean apalaraziko, ez zarelako hurbildu harengana begirunez eta bihotza maltzurkeriaz bete duzulako.

Nor bere buruaren jabe

22 Ez dago zuritzerik neurrigabeko grina, grina horren bulkadak erorraraziko du pertsona.

23 Behar bezain luze jasaten du eramanpen handikoak, eta gero alaitasuna itzultzen zaio berriro.

24 Une egokira arte gordeko ditu gogoetak barruan; gero, askok hitz egingo dute beraren zentzu onaz.

Zuzen jokatu Jainkoarekin

25 Jakinduriaren altxor artean daude esaera zahar argigarriak, baina nardagarri zaizkio bekatariari, jainkozale ez delako.

Jakinduriaren goraipamena

215

24 ¹ Jakinduria bere burua goraipatzen du, bere herriaren erdian aintzaz beterik agertzen.

2 Goi-goikoaren batzarrean zabaltzen du ahoa, Ahaltzuaren aurrean aintzaz beterik agertzen.

3 «Goi-goikoaren ahotik irten nintzen eta lainoak bezala estali lurra.

4 Zeru goietan nuen egoitza eta laino-adarraren gainean neure tronua.

5 Neuk bakarrik egin dut zeruaren itzulingurua, neu bakarrik ibili leize-zulo sakonean.

6 Itsasoko uhinen eta lur osoaren gain, herri eta nazio guztien gain hedatzen zen nire ahala.

7 Alde guztietan ibili nintzen atsedean bila, zein lurraldetan aurkituko ote bizilekua.

- 8 Orduan, gauza guztien sortzaileak agindua eman zidan, sortu ninduenak egoitza finkatu, esanez: "Ezarri zeure egoitza Jakobek herrian, hartu Israel zeure ondaretzat".
- 9 Denbora hasi aurretik sortu ninduen Jainkoak eta izateari ez diot sekula utziko.
- 10 Haren aurrean jardun izan dut egoitza santuan kultugintzan eta horrela finkatu naiz Sion mendian.
- 11 Hiri maitean eman dit atsedeen-leku eta Jerusalemen dut neure aginpidea.
- 12 Herri ospetsuan bota ditut sustraiak, Jaunaren sailean dago nire ondarea.
- 13 Libanoko zedroa bezala luzatu naiz, Hermon mendietako zipresa bezala.
- 14 En-Gedikoko palmondoa bezala hazi naiz, Jerikoko larrosondoa bezala; lautadako olibondo mardula bezala, platanoa bezala luzatu naiz.
- 15 Kanela eta balsamo usaintsuak bezala, mirrarik finenak bezala zabaldu dut lurrina, galbano, onize eta estaktearen erretxinak bezala, intsentsu-keak egoitza santuan bezala.
- 16 Arteak bezala zabaldu ditut adarrak, adar bikain eta ikusgarriak.
- 17 Kimu ederrak eman ditut mahatsondoak bezala, lore eta fruitu bikain eta joriak.
- 19 Etorri niregana irrikatzen nauzuenok, eta ase ene emaitzez.
- 20 Eztia baino gozoago da nitaz oroitzea, abaraska baino gozoago ni ondaretzat hartzea.
- 21 Jaten nautenak are goseago izaten dira nitaz, edaten nautenak are egarriago.
- 22 Nik esana egiten duenak ez du porrot egingo, nirekin diharduenak ez du bekatu egingo».

Jakinduria eta legea

- 23 Jakinduria bat dator Goi-goiko Jainkoaren ituna dakarren liburuarekin,

Moisesek agindutako legearekin, israeldarren elkarteei ondaretzat emandakoarekin.

- 25 Legeak jakinduria dakar gainezka Pixon ibaiak ura bezala, fruitu berrien garaian Tigrisek bezala;
- 26 buru-argitasunez betetzen Eufratesek bezala, Jordanek uzta-aroan bezala;
- 27 irakaspena uholdeka dakar Nilok bezala, mahasbiltze-egunetan Gihonek bezala.
- 28 Ezin du inork jakinduria erabat ezagutu, ez da sortu hura barreneraino aztertuko duenik.
- 29 Haren pentsamendua itsaso zabala baino zabalago, asmoak leize handia baino sakonago.
- 30 Eta ni ubidea naiz, ibaitik ura hartu eta baratzera daramana.
- 31 Hau nioen: «Neure lorategia ureztatu behar dut, neure loresaila urez bete». Eta horra nire ubidea ibai bihurtua eta ibaia itsaso.
- 32 Nire irakaspenak egunsentiak bezala egingo du argi, oso urrutira iritsaraziko dut haren distira.
- 33 Profeta gisa isuriko ditut neure irakatsiak eta ondorengo belaunaldiei utziko.
- 34 Begira, ez naiz neuretzat bakarrik nekatu, jakinduriaren bila dabiltzan guztientzat baizik.

Jainkoaren ahalmena izadian

- 42 ¹⁵ Orain Jaunaren egintzak gogoratuko ditut, ikusi dudana kontatuko. Bere hitzaren bidez egin du Jaunak dena.
- 16 Gauza guztiak argitzen ditu eguzki distiratsuak eta Jaunaren aintzaz betea dago berak egin duena.

17 Jaunaren aingeruek ere ezin dituzte haren egintza harrigarri guztiak kontatu. Jaun ahalguztidunak sendo ezarri du mundua, beraren aintzaz tinko irauteko.

18 Leize sakonak eta giza bihotzak arakutzen ditu, ongi ezagutzen berauetan gertatzen dena, dena baitaki Goi-goikoak eta bere begiak tinko ditu etorkizunaren zantzetan.

19 Iragana eta etorkizuna iragartzen ditu, ezkutuko gauzen aztarnak azaltzen.

20 Giza gogoeta batek ere ez dio ihes egiten, hitz bakar bat ere ez zaio ezkututzen.

21 Jakintzaz antolatu ditu bere egintza guztiak, betidanikoa eta betirartekoa baita bera. Ezin zaio ezer erantsi, ez kendu hark egindakoari, eta ez du inolako aholkulariren beharrrik izan.

22 Bai maitagarria dela hark egindako guztia! Miresgarria ikus daitekeen gauzarik txikiena ere!

23 Guztiak bizirik daude eta betirako diraute, behar den guztian, esana egiten.

24 Binaka doaz gauza guztiak, bata bestearen aurrez aurre, eta ezer ez du akastunik egin.

25 Batak bestearen balioa sendotzen du. Nor aspertuko da beraren aintza ikusteaz?

Eguzkia

43 ¹ Zeru goien edertasuna, ortziaren gardentasuna eta zeru-sabaiaren itxura, zer ikuskizun distiratsua!

2 Eguzkiak aldarrikatzen du, agertzen denean, benetan miresgarria dela Goi-goikoak egindakoa.

3 Eguerdian lurra lehortzen du: nork jasan lezake haren berotasuna?

4 Labea suspertu ohi da galda-lanetarako: hiru aldiz kiskalgarriago eguzkia mendietan. Lurrun sutsuak botatzen ditu eta bere errainuen distiraz begiak itsutzen.

5 Handia da eguzkia egin duen Jauna, honen esanetara egiten du ibilaldia.

Ilargia

6 Ilargia ere bere garaian irteten da, aroak finkatu eta aldiak adieraziz.

7 Ilargiak erakusten du jai egiteko garaia, murriztu egiten delarik ilargi betearen ondoren.

8 Sustrai bereko hitzak dira «ilargi» eta «hilabete»; miresgarriro hazten da, bai eta aldatzen ere; zeru-sabaiaren distiratsua dagoen hori ortziko astro guztien ikur da.

215

Izarrak

9 Izarren distirak edertzen du zerua, argizko apaingailu Jaunaren goialdeetan.

10 Santuaren aginduz beren lekuan daude tinko, ez dute alde egiten beren zaintza-postuetatik.

Ortzadarra

11 Ikusi ortzadarra eta bedeinkatu egin duena; begira zein ikusgarria den beraren distira!

12 Zubi distiratsua marrazten du zeruaren biran, Goi-goikoaren eskuek zabaldu dute hor.

Naturako gertakariak

13 Bere aginduz botarazten du elurra, berak erabakia betetzeko aregiten tximistei.

14 Horregatik zabaltzen dira haren gordailuak eta txoriak bezala hegan abiatzen hodeiak.

15 Bere indar handiaz trinkatzen ditu eta kazkabarra sortuz apurtzen.

16-17 Haren trumoi-hotsak dardar eragiten dio lurrari eta mendiak ikaraz jartzen. Hark nahi duenean hegohaizeak jotzen du, bai eta ipar bortitzak eta haize erauntsiek ere.

Hegaldaka dabilzan txoriak bailiran, elur-malutak botatzen ditu, eta matxinsalto-piloak bezala estaltzen lurra.

18 Begia liluratzen du haren zuritasunaren ederrak, eta bihotza txunditzen jausten denean.

19 Gatza bezala zabaltzen du izotz zuria lur gainean, jelatu eta belar-puntak arantzak bezala zorrotzuz.

20 Iparraldeko haize hotzak jotzean izotza eratzen da ur-azalean; ur-multzo guztien gain kokatzen da eta oskolez bezala gainjanzten ura.

21 Haize sargoriak mendiak irentsi eta basamortua erretzen du, suak bezala suntsitzen belar hezea.

22 Hau dena bizkor erremediatzen du behe-lainoak, sargoriaren ondorengo ihintzak bizitasuna ekartzen.

23 Bere egitasmoaren arabera ozeanoa menderatu du eta uharteak landatu bertan.

24 Itsasgizonek bertako arriskuen berri ematen dute, eta harri eta zur uzten gaitu entzuten dugunak.

25 Izaki bitxi eta miresgarriak daude han, mota guztietako bizidunak eta itsas munstroak.

26 Jainkoari esker du haren mezulariak arrakasta, haren hitzak du dena arautzen.

27 Beste gauza asko esango genuke gaia agortu gabe, baina hona azken hitza: «Jainkoa da dena».

28 Non aurkitu hura gorestekoko indarra? Handia baita bera, handia berak egindako guztiaren aldean.

29 Beldurgarria da Jauna, biziki handia, eta miresgarria haren ahalmena.

30 Goratu Jauna, goretsazue ahal duzuen guztia, are gorago egongo baita bera. Hura goratzean, bildu zeuen indar guztiak, ez etsi, ez duzue inoiz aski goratuko eta.

31 Nork ikusi du, nolakoa den esateko? Nork goratuko du bere izateari dagokion neurrian?

32 Gauza asko daude ezkutuan hauek baino handiagoak, beraren egintza gutxi batzuk baino ez baititugu ikusi.

33 Izan ere, Jauna da dena egin duena, eta berak eman die zintzoei jakinduria.

Arbasoen goraipamena

44 ¹ Egin dezagun gizon ospetsuen goraipamena, gure arbasoena, belaunez belaun.

2 Ospe izugarria banatu du Jaunak, bere handitasuna aspaldidanik erakutsi:

3 badira beren erresumetan nagusi izan direnak, edo beren aginteagatik ospetsuak, beren buru-argitasunagatik kontseilariak, profezien iragarleak;

4 badira erabakitze gaitasunagatik herri-buruzagi izan direnak, herria eskolatzen burutsu izan eta jakinduriaz hezi dutenak.

5 Abesti-soinu ederrak asmatu zituzten, olerkiak idatzi.

6 Izan ziren gizon aberatsak, ahaltsuak, bakean bizi zirenak beren etxeetan.

7 Hauek guztiak ohoratuak izan ziren beren garaian eta harrogarri beren bizi-denboran.

8 Haietako batzuek izen ahaztezina utzi dute, beraietaz gorespenez hitz egin dadin.

9 Beste batzuek ez dute arrastorik ere utzi, izan ez balira bezala desagertuz; izatera iritsi ez balira bezala dira beraiek eta beraien ondorengoak.

10 Ez, ordea, gure arbasoak, gizon zintzoak; beraien egintza zuzenak ez dira ahaztu.

11 Haien ondasunak ondorengoengana pasatzen dira, beraien ondarea seme-alabengana.

12 Haien seme-alabek leial gorde dituzte itunak, ondorengoek ere bai beraiei esker.

13 Betirako iraungo du haien ondorengotzak eta beraien ospea ez da desagertuko.

14 Haien gorpuak bakean daude hilobiratuta, eta gizaldiz gizaldi bizi da beraien izena.

15 Haien jakinduriaz mintzatuko dira nazioak eta beraien gorespena aldarrikatuko herri-batzarrak.

18 Betirako ituna egin zuen Jaunak berarekin, uholdeak berriro ez zuela bizidunik suntsituko hitz emanez.

Abraham

19 Abraham handia herri askoren sorburu izan zen, ez da izan haren parekorik ospean.

20 Goi-goikoaren legea bete zuen eta ituna egin zuten elkarrekin.

Bere haragian ezarri zuen itunaren ezaugarria eta zintzo zela erakutsi zuen probaldian.

21 Horregatik, zin eginez agindu zion Jaunak haren ondorengo bidez bedeinkatuko zituela herriak;

lurreko hautsa bezain ugaria emango ziola ondorengotza

eta izarrak bezala goratuko; ondare gisa hartuko zutela herrialdea, itsasotik itsasora,

Eufrates ibaitik lurraren bazterteraino.

217

Henok

16 Jaunak atsegin izan zuen Henok eta eraman egin zuen; bihozberritzearen eredu da ondorengo belaunaldientzat.

Noe

17 Noe gizon zuzen eta akasgabea izan zen, zigor-garaian berak ziurtatu zuen iraupena. Berari esker gelditu ziren batzuk bizirik munduan uholdea gertatu zenean.

Isaak

22 Isaaki agintzari bera berretsi zion aita Abrahamenganako begirunez.

Jakob

Gero, gizaki guztientzako bedeinkazioa eta ituna

23 Jakobi eskualdatu zizkion. Bere bedeinkazioak berretsi zizkion eta herrialdea eman ondare; Jakobek zatiak egin zituen eta hamabi leinuen artean banatu.

Moises

Gizon zintzo bat sortarazi zuen Jaunak
Jakoben ondorengotzatik:
Moises, guztiak begiko izan zutena,

- 45** **1** Jainkoak eta gizakiek maitatua,
beti onespenez gogoratua.
2 Aingeruenaren pareko aintza eman zion
eta handi egin, etsaiei beldurra sartzeko.
3 Bere hitzez mirariak sortarazi zituen,
erregeen aurrean goretsi zuen,
aginduak eman zizkion bere herriarentzat
eta bere aintzaren zerbaitek erakutsi.
4 Bere leialtasun eta otzantasunagatik
sagaratu zuen,
gizaki guztien artetik aukeratu.
5 Bere ahotsa entzunarazi zion
eta lainoan sarrarazi.
Aurrez aurre eman zizkion aginduak,
bizia eta ezaguera dakarren legea,
Israeli, Jakoben herriari,
bere ituna eta erabakiak irakasteko.

218

Aaron

- 6** Lebiren leinutik Jainkoak Aaron
aukeratu zuen, gizon santua,
bere anaia Moisesen antzera.
7 Betirako konpromezua hartu zuen
Jainkoak harekin
eta herriarentzako apaiz izendatu.
Ohoratu egin zuen apaingarri ederrez,
soingaineko zoragarria
jantzarazi zion.
8 Duintasun paregabe estali zuen
eta aginte-ezaugarri koroatu:
galtzaz, soingainekoz eta efodaz.
9 Granada-fruituz apaindu zion jantzia,
eta urrezko txilin ugariz,
ibiltzerakoan tintin egin
eta hotsa tenplu osoan entzun zedin,
israeldarrentzat oroigarri gisa.

- 10** Jantzi sakratua ere eman zion,
urrez, purpura more eta gorriz egina,
apain bordinaturiko lana;
bai eta epaiketarako bularrekoa ere,
«Urin» eta «Tumin» epaigailuekin:
11 lihozariz josia, artelanez egina,
harribitxiak zituen zigiluen erara
zizelkatuak, urrezko begietan sartuak,
—benetako zilargin-lana—,
eta oroigarri gisa hamabi inskripzio
grabaturik Israelgo leinuen izenekin;
12 urrezko diadema zeraman
buru-zapiaren gainean,
«Jaunari sagaratua» hitzak zituelarik
zizelkatuta: ohore-ikur, goi-mailako lan,
begien atsegingarri, apaingarri paregabea.
13 Haren aurretik
ez zen ezer hain ederrik izan;
arrotzek ez dute inoiz halakorik jantzi,
ez jantziko ere, haren semeek
eta ondorengoek baizik.
14 Hark eskainiriko sakrifizioak erabat
erretzen ziren bi aldiz egunean etengabe.
15 Moisesek eman zion apaizgoa Aaroni,
olio sakratuz gantzutuz.
Hau betirako konpromezu bihurtu zen
harentzat eta haren ondorengozat,
zeruak iraun bitartean,
kultua egin eta apaiz-zerbitzua betetzeko
eta Jaunaren izenean herria
bedeinkatzeko.
16 Gizaki guztien artetik aukeratu zuen
Jaunari oparia eskaintzeko,
bai eta intsentsua eta lurrina ere,
oroigarri gisa, eta herriaren aldeko
barkamen-ohikunea egiteko.
17 Bere aginduak interpretatzeko
eta lege-arazoak erabakitzeko ahalmena
eman zion, Jaunarenganako betebeharrak
Jakoben herriari irakatsi eta legeari
buruzko argibideak Israeli emateko.
18 Basamortuan, harenganako jelsiaz,
aurka altxatu zitzaizkion beretar
ez zirenak: Datan eta Abirani
elkarturiko jendea eta Koreren taldea,
haserre-suminez beterik.

19 Hori ikusirik, Jaunak ez zuen atsegin izan, eta haserre-suminaz suntsitu zituen; mirariak egin zituen haien aurka, bere suaren garretan irentsiz.

20 Areagotu egin zuen Aaronen ospea eta ondareztat eman zizkion lehen fruituen hasikinak; batez ere, asebetetzeko adina janari ziurtatu zion:

21 Jaunari eskainitako oparigaiak dituzte elikagai, Jaunak eman baitzizkien berari eta ondorengoei.

22 Halere, herriari emandako lurraldean ez du ondarerik, ez du lurzatirik beste herritarrek bezala, Jaunak esan baitzion:

«Neu izango nauzu ondare eta mantenu».

Pinhas

23 Pinhas, Eleazar-en semea, da ospean hirugarrena, Jaunaren begiruneaz arduratsu agertu zelako; herriak huts egitean, zintzo iraun zuen bere barruko adore eta indarrez, Israelentzat barkamena lortuz.

24 Horregatik, bake-ituna egin zuen Jaunak berarekin, eta santutegiaren eta herriaren buru jarri zuen; horrela, berarena eta ondorengoena izango zen apaizgo nagusia betirako.

25 Dabidekin, Judaren leinuko Jeseren semearekin ere, egin zuen Jaunak ituna, baina errege-ondarea semeetako bati bakarrik pasatzen zaio; Aaronen ondarea, ordea, ondorengo guztiei.

26 Jar dezala Jaunak jakinduria Aaronen ondorengoen bihotzean, herria zuzenbidez gidatzeko, aurrekoen ondasunak desager ez daitezen, ezta haien ospea ere gizaldiz gizaldi.

Josue eta Kaleb

46 **1** Josue, Nun-en semea, gerlari ausarta izan zen eta Moisesen hurrengo profeta; izenak adierazten duenez, Jaunaren aukeratuen salbatzaile handi izan zen; haren aurka altxaturiko etsaiak zigortu zituen; horrela, Israelek bere ondarea berreskuratu zuen.

2 Zer ospea bereganatu zuen eskua altxatu eta hirien aurka bere ezpata astintzean!

3 Nor izan zen hain sendo bere aurretik? Izan ere, berak zuzentzen zituen Jaunaren borrokak.

4 Ez al zen haren aginduz eguzkia gelditu eta egun bakar bat bi bezain luze bihurtu?

5 Dei egin zion Goi-goikoari, Ahaltsuari, etsaiak alde guztietatik erasotzen ziotenean,

eta Jaun handiak entzun egin zion kazkabarra bidaliz izugarritzko indarrez.

6 Nazio etsaiaren aurka oldartu eta suntsitu egin zuen maldan beherakoan, nazioek haren arma guztiak ezagut zitzaten, Jaunaren aurka ari baitziren gerran.

Josuek Ahaltsuari jarraitu zion beti **7** eta Moisesen egunetan zintzo jokatu zuen, Kalebek, Jefuneren semeak, bezalaxe: batzarrari aurpegi emanek, herriak bekatu egin zezan eragotzi zuten eta marmar gaiztoak isilarazi.

8 Eta bi hauek bakarrik atera ziren onik seiehun mila oinezkoren artean, aginduriko lurraldean sartu ahal izateko, esnea eta eztia zerizkion lurraldean.

9 Jaunak indarra eman zion Kalebi, eta zahartzarora arte iraun zion: lurraldeko alderdi menditsura igoarazi zuen eta hura hartu zuten ondorengoek herentzian.

10 Jakin bezate, beraz, Israelgo seme-alaba guztiek on dela Jaunari jarraitzea.

Epaileak

11 Epaileak ere ospetsu izan ziren,
nor bere erara; haiiek guztiak ez ziren
desleialkerian erori,
ezta Jaunarengandik aldendu ere.

Izan bitez beti onespenez gogoratuak!

12 Biziberri daitezela haien hezurak
hilobian eta berrizta dadila
gizon ospetsu haien izena
beraien ondorengoengan!

Samuel

13 Jaunak maitatua izan zen Samuel.
Jaunaren profeta izanik,
erregetza ezarri zuen eta herriaren
buruzagiak gantzutu zituen.

14 Jaunaren legearen arabera gobernatu
zuen batzarra eta Jaunak
Jakoben herriaren alde esku hartu zuen.

15 Bere leialtasunagatik benetako profeta
agertu zen, bere hitzen bidez argi gelditu
zen egiazko ikusle zela.

16 Etsaiek alde guztietatik erasotzean,
Jaun Ahaltzuari dei egin zion,
arkume bat oparitan eskainiz.

17 Orro egin zuen Jaunak zerutik
eta, burrunbada handiz,
bere ahotsa entzunarazi;

18 buruzagi etsaiak, filistearren printze
guztiak, suntsitu zituen.

19 Betirako loaldiaren aurretik
testigantza egin zuen Jaunaren eta honek
gantzututako erregearen aurrean:

«Sekula ez dut inoren ondasunik hartu,
ezta sandalia pare bat ere»,
eta inork ez zuen salatu.

20 Eta hil ondoren ere, egin zioten
galderari erantzunez, erregeari amaiera
iragarri zion, lurpetik ere bere
profeta-ahotsa entzunarazi zuen
herriaren gaiztakeria ezabatzeko.

Natan

47 ¹ Haren ondoren
Natan etorri zen,
Dabiden egunetan profeta izan zena.

Dabid

2 Sakrifizioetan zatirik aukeratuena
gantza den bezala,
halaxe Dabid israeldarren artean.

3 Lehoiekin jolas egin zuen
antxumeekin bezala,
hartzeekin arkumeekin bezala.

4 Ez al zuen gaztetan erraldoia hil
eta herriaren gainetik iraina kendu,
habailan harria zuela besoa astindu
eta Goliaten harropuzkeria
eraitsi zuenean?

5 Izan ere, Jaunari dei egin zion,
Goi-goikoari, eta honek besoa indartu
zion; horrela, gerlari trebe hura
menderatu zuen
eta herriaren indarra sendotu.

6 Horregatik, hamar milaren garaile
bezala ospatu zuten Dabid
eta Jaunak haren bidez bedeinkatu
zituelako goretsi,

errege-koroa distiratsua eskainiz.

7 Inguru guztiko etsaiak zanpatu zituen
eta aurka zituen filistearrak suntsitu,
haien indarra behin betirako hautsiz.

8 Bere egintza guztiengatik eskerrak
eman eta goretsi egiten zuen Goi-goiko
Santua; bihotz-bihotzez abesten zituen
gorazarreak eta bere Egilea maitatzen.

9 Abeslariak jarri zituen aldare aurrean,
doinu eztiz kantatzen zutelarik.

10 Handitasuna eman zien jaiei,
ezin ederrago bihurtu ospakizunak:
Jaunaren izen santua goresten zen,
santutegia egunsentitik
kantuz betetzen zelarik.

11 Barkatu egin zizkion Jaunak
hutsegiteak eta betirako sendotu haren
indarra; erregetza agindu zion,
ospez beteriko tronua izango zuela
Israelen.

Salomon

12 Haren ondoren seme jakintsua sortu
zen, aitari esker eroso bizi izan zena.

13 Bake-garaian izan zen Salomon errege,
Jainkoak lasaitasuna eman baitzion
lurralde osoan,

haren izenean tenplua eraiki
eta betirako santutegia presta zezan.

14 Zein jakintsua izan zinen gaztaroan,
Salomon, argitasunez betea
ibaia urez bezala!

15 Zure eraginak lurra estali zuen,
esaera zahar eta gogoeta sakonez bete;

16 urrutiko uharteetaraino iritsi zen zure
izena eta maitatua izan zinen zeure
bakearengatik.

17 Zure kantu, esaera zahar, alegia eta
erantzunek munduaren miresmena
sortu zuten.

18 Jainko Jaunaren izenean,
Israelgo Jainko deituaren izenean,
urra pilatu zenuen eztainua bezala,
zilarra metatu beruna bezala.

19 Emakumeekin etzan zinen
eta haien morroi bihurtu zeure
gorputzaren grinaz.

20 Zeure izen ona belztu zenuen
eta askazia laidoztatu,
seme-alaben gain sumina erakarritz
eta zeure zorakeriaren ondorenak
jasanaraziz.

21 Bitan zatitu zen erresuma eta
Efrainen leinutik erreinu errebeldea sortu.

22 Baina Jaunak ez zion bere errukiari
uko egin eta ez zituen bere agintzariak
bartzertu; ez zituen, bada,
bere aukeratuaren ondorengoak

desagertzen utzi,
ez zuen ezabatu bera maitatu zuen
Dabiden askazia;
Jakoben herriari irauteko bidea
eman zion, eta Dabidi beronen sustraitik
sortutako kimua.

Roboan

23 Salomonek, hil eta bere gurasoekin
ehortzi zutenean, bere askaziko bat utzi
zuen ondoren, Roboan, herriko zoroena,
burugabe itzela, bere erabakiez
herria bere kontra altxarazi zuena.

Jeroboan

Jeroboanek, Nabaten semeak, bekatu
eragin zion Israeli eta bekaturako bidean
jarri Efrain herria.

24 Eta haien bekatuak hainbestearaino
ugaritu zirenez, beren herrialdetik
kanpora eraman zituzten.

25 Era guztietako gaitzakeriak egin
zituzten zigorra etorri zitzaien arte.

Elias

48 ¹ Elias sortu zen, sua bezalako
profeta: haren hitzak
zuziak bezala erretzen zuen.

2 Gosetea ekarri zuen israeldarren gain,
eta asko gutxitu zituen
bere jainkozaletasun gartsuaz.

3 Jaunaren aginduz euria egitea eragotzi
zuen eta hiru aldiz zerutik sua jaitsarazi
ere bai.

4 Elias, zer ospea izan zenuen zeure
mirariengatik! Nor harrotuko da
zu adinakoa delakoan?

- 5 Zuk ekarri zenuen hildako bat bizitzara, Hilen Egoitzatik Goi-goikoaren hitzaz ateraz;
- 6 zuk erregeen hondamendia ekarri eta handikiak agintetik bota zenituen;
- 7 zuri Jaunak agiraka egin zizun Sinain eta zigortzeko bere erabakia azaldu Horeb mendian;
- 8 zuk erregeak gantzutu zenituen sinesgabeen aurka mendekatzeko; eta profetak ere gantzutu zenituen zeure ondorengo izateko;
- 9 su-zurrunbiloan eraman zintuzten suzko zaldien gurdian.
- 10 Idatzirik dago ezarrirako garaian etortzekoa zarela Jaunaren sumina, lehertu baino lehen, baretzera, gurasoa eta semea elkarrekin bakearazteko eta Jakobean leinuak indarberritzeko.
- 11 Zorionekoak ikusi zintuztenak eta maitasunean lokarturik daudenak; gu ere biziko gara, bai.

222

Eliseo

- 12 Elias zurrunbiloan desagertu zenean, haren espirituz bete zen Eliseo. Bere bizitzan zehar, ez zuten buruzagiek ikaratu, inork ere ez mendean hartu.
- 13 Ezer ez zen ezinezko harentzat, heriotzako loaldian ere profetagintzan jardun zuen.
- 14 Bere bizitzan mirariak egin zituen; hil eta gero ere, miresgarriak izan ziren haren egintzak.
- 15 Hala eta guztiz ere, herria ez zen bihozberritu, ez zen bere bekatuetatik aldendu, bere herrialdetik kanpora eraman eta mundu osoan sakabanatu zuten arte. Herri murriztua baizik ez zen gelditu eta Dabiden ondorengo buruzagi bat.
- 16 Hauetako batzuek Jainkoari atsegin zitzaiona egin zuten; beste batzuek, berriz, bekatuak ugaltu.

Ezekias eta Isaias

- 17 Ezekiasék bere hiria gotortu zuen eta ura eraman barrura. Harkaitza zulatu burdinazko tresnaz eta urtegiak egin zituen.
- 18 Haren garaian egin zuen eraso Senakeribek: Rabsakes bidali zuen eta honek Sionez jabetu nahi izan zuen, eta harro eta lotsagabe jokatu zuen.
- 19 Jerusalemgo biztanleek dardar egin zuten izu-ikara handiz eta emakumeak erdiminetan bezalako oinazeak jasan zituzten.
- 20 Baina Jaun errukiarrari dei egin zioten eskuak harengana luzatuz; eta Santuak berehala erantzun zien zerutik, eta Isaiasen bidez askatu.
- 21 Asiriarren kanpalekuei eraso zien Jaunak eta suntsitu egin zituen haren aingeruak,
- 22 Ezekiasék Jaunari atsegin zitzaiona egin baitzuen; tinko iraun zuen Dabid arbasoaren jokabidean, Isaiasék, profeta handi eta bere azalpenetan fidagarri zenak, agindu zionaren arabera.
- 23 Isaiasen garaian egin zuen eguzkiak atzera, profetak erregearen bizitza luzarazi zuelarik.
- 24 Espirituaren eragin indartsuz etorkizuna ikusi zuen eta Siongo atsekabetuak kontsolatu.
- 25 Azkenera arte iragarri zuen etorkizuna eta ezkutuko gauzak ere bai, gertatu baino lehen.

Josias

- 49¹ Josiasen oroitzapena zoragarria da, lurrinkaiak nahastuz lurringileak prestaturiko intsentsua bezala, eztia ahoan bezain gozo, ardo ugariko oturuntzetan soinua bezain atsegin.

2 Herria Jainkoarengana itzularaztea lortu zuen eta sasiainkoren kultu higuigarriak deuseztea.

3 Bere bihotza Jainkoarengana zuzendu zuen, legegabeen egunetan zintzotasuna sendotu.

Judako azken erregeak. *Jeremias.*

4 Dabid, Ezekias eta Josiasek izan ezik, hutsegite asko egin zuten beste erregeek, Goi-goikoaren legea baztertuz.

Judako erregeak desagertu egin ziren,

5 beste batzuei eman baitzieten beren indarra eta atzerriko nazio bati beren ospea.

6 Etsaiek su eman zioten santutegia zegoeneko hiri aukeratuari eta kaleak huts-hutsik utzi, Jeremiasek iragarri bezala.

7 Tratu txarra eman zioten Jeremiasi; Jaunak amaren sabelean profeta sagaratu zuen hau, erauzi, suntsitu eta hondatzeko bai, baina bai eta eraiki eta landatzeko ere.

Ezekiel

8 Ezekielek Jainkoaren aintzaren ikuskaria izan zuen, kerubinen gurdi gainean azaldu zitzaiona;

9 etsaiez gogoratu zen ekaitza iragartzean eta on egin zien bide zuzenetik zebiltzanei.

Profeta txikiak

10 Hamabi profetei dagokienez, biziberri daitezela haien hezurak

hilobian, adore berria eman baitzioten Israel herriari eta onik atera, leialtasuna eta itzaropena suspertuz.

Zorobabel eta Josue

11 Nola ez handietsi Zorobabel, Jainkoaren eskuan zigilu-eraztun bezala izan zena!

12 Bai eta Josue ere, Jotzadaken semea: beraien garaian eraiki zen tenplua eta Jaunari sagaraturiko santutegia jaso, betirako ospetsua izango dena.

Nehemias

13 Handia da Nehemiasen oroitzapena ere: hark berreraiki zituen gure harresi hondatuak, ateak eta morroiloak jarri eta gure bizilekuak berregin.

223

Henok

14 Ez da munduan Henoken parekorik sortu, lurretik eramana izan baitzen bera ere.

Jose

15 Ez da Jose bezalako gizasemerik ere izan, bere anaien buru eta herriaren euskarri. Begirunez erabili zituzten haren hezurak.

Behen arbasoak

16 Sen eta Set ospetsuak izan ziren gizakien artean,

baina kreazioko bizidun ororen gainetik
Adan dago.

Simon apaiz nagusia

- 50** ¹ Simon apaiz nagusiak, Oniasen semeak, bere bizitzan Jaunaren etxea berriztatu zuen eta santutegia sendotu.
- ² Haren egunetan harresia berreraiki zuten eta errege-tenpluari babesdorreak jarri.
- ³ Haren garaian egin zen urtegia, itsasoa bezain urtegi zabala.
- ⁴ Herria hondamenditik babesteko arduraz, hiria gotortu zuen setiaketari aurre egiteko.
- ⁵ Zein handikiro egiten zuen santutegiko itzulia, toki santu-santuko kortina atzetik irteten zenean!
- ⁶ Artizarra hodeiaren erdian bezala zen, ilargia bete-betea dagoenean bezala,
- ⁷ Goi-goikoaren santutegi gainean dirdir dagien eguzkia eta distirazko hodeitan argitsu agertzen den ortzadarra bezala;
- ⁸ arrosoaren lorea udaberrian, lilia iturburu inguruan eta Libanoko landaretza udan bezala;
- ⁹ intsentsu-ontzian erretzen den intsentsua eta urre hutsezko ontzia mota guztietako harribitxiz apaindua bezala;
- ¹⁰ fruituz abaildutako olibondoa eta hodeietaraino luzatzen den zipresa bezala.
- ¹¹ Bere soineko zoragarria jantzi eta apaingarri paregabez hornituz aldare santura igotzen zenean, distiraz betetzen zuen santutegiko esparrua.
- ¹² Oparigaien zatiak apaizen eskuetatik hartzen zituenean, bera aldareko sutondoan zutik egoten zen, anaiak inguruan koroa gisa zituela,

Libanoko zedro-kimuak edo palmondoak bezala.

¹³ Aaronen ondorengo guztiak apaindura ederrez azaltzen ziren Israelgo batzar osoaren aurrean, Jaunarentzako opariak eskuetan zituztela.

¹⁴ Aldareko liturgi zerbitzua betetzen zuen eta Goi-goikoaren, Ahalguztidunaren, oparia prestatzen;

¹⁵ edalontzirantz eskua luzatuz, mahats-zukuaren isurketa egin eta aldare-barrenean zabaltzen zuen, lurrin gozo gisa Goi-goikoarentzat, gauza guztien Erregearentzat.

¹⁶ Orduan, oihu egiten zuten Aaronen ondorengoek; metal landuzko turutak joz egundoko hotsa ateratzen zuten, Goi-goikoa israeldarrez oroit zedin.

¹⁷ Orduan, herri osoa batera lurreraino ahuspezten zen, bere Jaunari, Ahalguztidunari, Goi-goiko Jainkoari, gurtza emateko.

¹⁸ Abesbatzek beren kantuz gorensten zuten, ezti-eztia zelarik haien kanta-hots indartsua.

¹⁹ Herriak Goi-goiko Jaunari erregutzen zion, Errukiorraren aurrean otoitz eginez, Jaunaren ospakizuna amaitu eta liturgia bukatu arte.

²⁰ Orduan, Simonek, aldaretik jaitsi eta eskuak altxatzen zituen israeldarren batzar osoaren gain, bere ahoz Jaunaren bedeinkazioa emateko, eta harro hots egiten zuen Jaunaren izena.

²¹ Denak ahuspez jartzen ziren bigarren aldiz Goi-goikoaren bedeinkazioa hartzeko.

Deia

²² Orain, bedeinka ezazue gauza guztien Jainkoa, alde guztietan gauza handiak egiten dituen,

amaren sabeletik hasita gizakia garatu
eta bere errukiaren arabera gurekin
diharduen.

23 Eman diezagula bihotzeko poza,
lagun diezagula Israelen bakean bizitzen
geure egunotan eta beti-betirako.

24 Haren errukiak tinko iraun dezala
gurekin eta aska gaitzala geure egunotan.

Nazio gorrotatuak

25 Badira bi nazio barru-barrutik
gorrotatzen ditudanak,

eta hirugarren bat nazio ere ez dena:

26 Seir mendian bizi direnak, filistearrak
eta Sikenen bizi den herri burugabea.

Amaiera

27 Zentzu onez eta
jakintzaz beteriko irakaspena
eman du liburu honetan
Jerusalengo Jesusek,
Siraken seme eta Eleazarren bilobak;
euria bezala isuri du honetan
bere bihotzeko jakinduria.

28 Zorionekoa hau guztia
gogoan erabil dezana! Bere bihotz
barruan ezartzen duena
jakintsu bihurtuko da;

29 betetzen duena
edo zertarako izango da gai,
Jaunarenganako begiruneak gidatuko
baitizkio urratsak.

Daniel grekoa



Daniel liburuaren grekozko antzinako itzulpenek hiru pasarte luze dakartzate, hebraieraz eta aramaieraz idatzitako Danielen jatorrizko testuan ageri ez direnak.

226

Susanaren historia

13 ¹ Behinola, Joakin izeneko gizon bat bizi zen Babilonian. ² Helkiasen alaba Susanarekin ezkondua zegoen. Oso emakume ederra zen Susana eta Jainkoari begirune ziona; ³ haren gurasoak israeldar zintzoak ziren eta Moisesen legean hazia zuten alaba. ⁴ Joakin oso aberatsa zen eta parke bat zuen etxe ondoan. Eta denetan agurgarriena zenez, haren etxean bildu ohi ziren juduak.

⁵ Urte hartan, herriko bi zahar izendatu zituzten epaile; ondo baino hobeto zetorkien haiet, Jaunak esandako hura: «Herri-gidari behar luketen epaile zaharrendik sortu da gaiztakeria Babilonian». ⁶ Epaile haiek sarritan izaten ziren Joakinen etxean, eta auziren bat zutenek han aurkitzen zituzten.

⁷ Eguerdi aldera, jendeak alde egiten zueanean, Susana bere senarraren parkera joaten zen paseatzera. ⁸ Bi epaile zaharrek egunero ikusten zuten parkean paseatzen, eta

harenganako irrika gaiztoa piztu zitzaien. ⁹ Burua galdu eta Jainkoaz eta beren epaile-erantzukizunaz ahaztu egin ziren. ¹⁰ Biak Susanaren irrikaz erretzen bazeuden ere, ez zioten beren bihotz-mina elkarri adierazten: ¹¹ lotsa ematen zien harekin elkartzeko irrikan zeudela aitortzeak. ¹² Egunero hura ikusteko eginahalak egiten zituzten.

¹³ Egun batez, etxera bazkaltzera joateko ordua zela eta, irten eta nor bere aldetik joan zen. ¹⁴ Baina biak atzera itzuli eta elkarrekin topo egin zuten toki berean. Orduan, horren arrazoia jakin nahirik, beren grina aitortu zioten elkarri. Eta, elkar harturik, Susana bakarrik aurkitzeko egokieraren bila hasi ziren.

¹⁵ Hartan, une aproposaren zain zeudela, Susana atera zen, ohi bezala, bi neskame bakarrik lagun zituela, eta parkean bainatze-ko gogoia etorri zitzaion, bero egiten baitzuen. ¹⁶ Ez zegoen han inor, gordeta zelatan zeuden bi zaharrak besterik. ¹⁷ Susanak neskameei esan zien: «Elkarri gantzugailu eta usaingarriak eta itxi parkeko atea, baina nadin». ¹⁸ Esana egin zuten neskameek:

parkeko atearak itxi eta aldameneko atetik irten ziren eskatu ziena ekartzera; ez zituzten zaharrak ikusi, gordeta baitzeuden. **19** Neskameak irten bezain laster, atera ziren gordelekutik bi zaharrak, Susanarengana lasterka joan **20** eta esan zioten:

—Adizu, parkeko atearak itxiak daude eta ez gaitu inork ikusten. Zure irrikaz gaudede; emazu amore eta etzan zaitez gurekin. **21** Bestela, salatu egingo zaitugu, zurekin mutil bat zegoela esanez eta horregatik bidali dituzula neskameak.

22 Susana aieneka hasi zen:

—Ez dut irtenbiderik! Zuek esana egiten badut, heriotza-zigorra dut adulterioz gile izateagatik; egiten ez badut, berriz, ezin ihes egin zuen eskuetatik. **23** Nahiago dut, hala ere, ezezkoa eman eta zuen eskuetan erori, Jaunaren aurka bekatu egin baino.

24 Eta oihuka hasi zen Susana. Oihu egin zuten zaharrek ere, **25** eta bietako bat parkeko atea irekitzera joan zen lasterka. **26** Etxeko morroiak, parkeko oihuak entzutean, aldameneko atetik arrapaladan sartu ziren, zer gertatzen ote zen ikustera. **27** Zaharrek beren istorioa kontatu zutenean, erabat lotsaturik gelditu ziren morroiak, ez baitzuten Susanaz halakorik inoiz entzun.

28 Biharamunean, herria Susanaren senar Joakinen etxean bildu zenean, etorri ziren bi zaharrak ere: Susanaren kontra asmo gaiztoz beterik zetozen, hura hilarazteko prest. **29** Herriaren aurrean esan zuten: «Ekarri Susana, Helkiasen alaba, Joakinen emaztea!». Joan ziren haren bila, **30** eta Susana bere guraso, seme-alaba eta ahaide guztiarekin etorri zen. **31** Susana xarma handiko emakumea zen, ikusgarria benetan. **32** Aurpegia estalia zuen, baina bi zital haiek estalkia ken ziezaiotela agindu zuten, artean ere haren edertasunaz gozatzeko. **33** Etxekoak eta ikusten zeuden guztiak negarrez ari ziren.

34 Bi zaharrek, herriaren aurrean zutituz, eskuak Susanaren buruan ezarri zituzten. **35** Hark, negarrez, zerura jaso zituen begiak, haren bihotzak Jaunarengan baitzuen

konfiantza. **36** Zaharrek esan zuten: «Parkean biok bakarrik paseatzen genbiltzala, hau sartu zen bi neskamerekin, baina parkeko atearak itxi eta neskameak bidali egin zituen. **37** Orduan, gorderik zegoen mutil bat etorri eta honekin etzan zen. **38** Gu parkeko txoko batean geunden eta, gaiztakeria hura ikustean, lasterka joan ginen beraiengana. **39** Besar-katurik ikusi genituen, baina mutila ezin izan genuen harrapatu, gu baino indartsuagoa baitzen eta, atea irekirik, ihes egin baitzuen. **40** Hau, bai, atzeman genuen eta mutila nor zen galdegin genion; **41** baina ez zigun esan nahi izan. Geu gara horren lekuko».

Zahar haiei, herriko arduradun eta epaile zirenez, batzarrak sinetsi egin zien, eta Susana heriotzara kondenatu zuten.

42 Orduan, Susanak oihu handiz esan zuen: «Jainko betirakoa, ezkutukoak ikusten eta gauza guztiak gertatu aurretik eza gutzen dituzuna! **43** Zuk ongi dakizu gezurrezko testigantza egin dutela nire aurka; baina, horien gaiztakeriak nire aurka asmatu duen horretan errugabe izan arren, hil egin behar dut».

44 Entzun zuen Jaunak Susanaren otoitza **45** eta, hiltzera zeramatela, Daniel izeneko gaztetxo bati barrua argitu zion Jainkoak.

46 Danielek, oihu handia eginez, esan zuen: —Ez dut nik erantzukizunik honen heriotzan.

47 Herri guztiak, harengana itzulirik, esan zion:

—Zer ari zara esaten?

48 Hark, jendearen artean zutik, esan zuen: —Israeldarrok, hain zentzugabeak al zarete? Auzia aztertzeke eta frogarik gabe kondenatu duzue israeldar emakume hau. **49** Itzuli auzitegira, horiek Susanaren kontra gezurrezko testigantza egin dute eta.

50 Jende guztia berehala itzuli zen eta herri-arduradunek esan zioten Danieli:

—Eser zaitez gure artean eta mintza, Jainkoak zaharrei dagokien zentzua eman baitzizu.

51 Orduan, Danielek:

—Bereizi bata bestearengandik, eta neuk galdegingo diet.

52 Bereiz jarri zituztenean, bati dei egin eta esan zion:

—Gaiztakerian zahartu zaren hori! Orain datoz argitara gaurdaino egin dituzun bekatuak. **53** Epai zuzengabeak eman dituzu, errugabeak kondenatuz eta errudunak askatuz, Jaunak esanaren kontra: «Ez eman heriotzara errugabea eta zintzoa». **54** Ea bada, emakume hau mutilarekin egiaz ikusi duzunez gero, esan zein zuhaitzen azpian ikusi dituzun elkarrekin.

Hark erantzun zion:

—Arkazia baten azpian.

55 Danielek, orduan:

—Ederki! Gezur horrekin zeure burua galdu duzu. Jainkoaren aingeruak hartu du zigor-agindua eta erdi-erditik ebakiko zaitu.

56 Hura bidali ondoren, bestea ekarrarazi eta esan zion:

—Kanaandar arrazakoa zara zu, ez israel-darra! Edertasunak liluratu zaitu eta irrikak bihotza okertu. **57** Horrela jokatzan zenuten emakume israeldarrekin eta haiek, beldurrez, zuekin etzaten ziren; baina oraingoan Judako emakume batek ez du jasan zuen gaiztakeria. **58** Ea bada, esadazu zein zuhaitzen azpian aurkitu dituzun elkarturik.

Hark erantzun zion:

—Haritz baten azpian.

59 Danielek, orduan:

—Ederki! Gezur horrekin zeure burua galdu duzu zuk ere. Jainkoaren aingerua zain dago ezpatarekin, zu erdi-erditik ebakitzeko. Biok garbituko zaituzte horrela!

60 Orduan, batzar osoa oihuka hasi zen eta Jainkoa bedeinkatu zuen, berarengan itxaropen dutenak salbatzen dituelako. **61** Gero, bi zaharren kontra altxatu ziren, beraien aitortenez frogatu baitzuen Danielek gezurrezko testigantza egin zutela, eta lagun hurkoari egitea pentsaturik zutena egin zieten beraietara: **62** Moisesen legea betez, hil egin zituzten. Egun hartan pertsona errugabea sal

batu zen. **63** Susanaren aitak —Helkiasek— eta amak, Joakin senarra eta ahaide guztiakin batera, eskerrak eman zizkioten Jaunari, beraien alabaren errugabetasuna garbi gelditu zelako.

64 Ordutik aurrera, Daniel oso estimatua izan zuen herriak.

Daniel eta herensugea

14 **23** Bazen herensuge handi bat ere, babiloniarrek gurtzen zutena.

24 Behinola, erregeak esan zion Danieli:

—Ez didazu, bada, esango hau jainko bizia ez dela! Beraz, gurtu ezazu!

25 Danielek erantzun zion:

—Nik Jauna, neure Jainkoa, gurtzen dut, hura bakarrik baita Jainko bizia. Emaidazu baimena, errege, eta ezpata eta makilarik gabe hilko dut herensugea.

26 Erregeak erantzun zion:

—Baduzu baimena.

27 Danielek, orduan, bikea, koipea eta ileak hartu eta denak batera egosi zituen; guztiaz opiltxoak eginik, herensugeari ahora bota zizkion, eta, irentsi zitueneko, lehertu egin zen herensugea. Orduan, Danielek esan zuen: «Begira zer gurtzen du-zuen!».

28 Horren berri jakitean, haserre bizian jarri ziren babiloniarrek, eta erregearen aurka manifestazioa egin zuten. Honela zioten: «Erregea judu egin zaigu! Bel hondatu, herensugea akabatu eta apaizak hil ditu!».

29 Erregearengana heldurik, esan zioten: «Emaiguzu Daniel; bestela, zeu eta zure etxeakoak hilko zaituztegu!».

30 Erregeak, gogor oldartzen zitzaizkiola ikusirik, haien esku utzi behar izan zuen Daniel. **31** Haiek lehoi-zuloan sartu zuten eta hantxe utzi sei egunez. **32** Zuloan zazpi lehoi zeuden, eta urkatutako bi gizonen gorpuak eta bi ardi ematen zitzaizkien jaten egunero;

orduak, ostera, ez zitzairen ezer eman, Daniel irents zezaten.

33 Aldi hartan bertan, Habakuk profeta Judean zegoen. Orduantxe, eltzekoa egosi eta ontzi batean ogi-apurrak prestatu berriak zituen, eta sorora zihoan igitariei eramatera.

34 Jaunaren aingeruak esan zion Habakuki:

—Jateko hori eramaiozu Babiloniara lehoi-zuloan dagoen Danieli.

35 Habakukkek erantzun zion:

—Jauna, ez naiz inoiz izan Babilonian, eta ez dakit lehoi-zuloa non dagoen.

36 Orduan, Jaunaren aingeruak buruko ileetatik hartu eta haizearen bultzadaz Babiloniara eraman zuen, lehoi-zuloaren ahora.

37 Habakukkek deiadar egin zuen:


—Daniel! Daniel! Hartu Jaunak bidaltzen dizun jatekoa.

38 Danielek esan zuen:


—Oi Jainkoa, gogoratu zara nitaz! Zuk ez dituzu inoiz baztertzen maite zaituztenak.

39 Gero, jaiki eta jaten hasi zen Daniel. Habakuk, berriz, Jaunaren aingeruak berehala eraman zuen bere etxera.

40 Zazpigarren egunean, Danielengatik negar egitera etorri zen erregea. Baina, lehoi-zulora hurbildu eta barrura begiratzean, eserita ikusi zuen Daniel. **41** Orduan, erregeak oihuka esan zuen: «Jauna, Danielen Jainkoa, handia zara benetan! Ez da zeu beste jainkorik!». **42** Gero, Daniel lehoi-zulotik ateratzeko agindu eta Daniel hil nahi izan zutenak botarazi zituen zulora, eta lehoiek bat-batean irentsi zituzten erregearen aurrean.



MUNIBERRIA



Mateo



Antzina-antzinako tradizioaren arabera, ebanjelio hau hamabietariko ikasle batek idatzia litzateke, Mateo (ikus 9,9) edo Lebi (ikus Mk 2,14) zergabiltzaileak, alegia.

Halere, seguraski, bigarren belaunaldiko eta judu-jatorriko kristau bat du egilea, grekoa zekiena eta I. Z.ari buruzko irakaspenetan ongi aditua.

Ereilearen parabola

(Mk 4,1-9; Lk 8,4-8)

13 ¹ Egun batez, Jesus etxetik atera eta aintzira-ertzean eseri zen. ² Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion ondora, txalupa batera igo eta eseri egin zen. Jendetaldea, berriz, hondartzan zegoen. ³ Eta luze hitz egin zien parabola bidez. Honela mintzatu zitzaion: «Atera zen behin ereilea hazia ereitera. ⁴ Ereitean, zenbait ale bidebakterean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten. ⁵ Beste zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen tokian, eta axaleko lurra izanik, berehala erne zen; ⁶ baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu. ⁷ Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, haztean, ito egin zuten hazia. ⁸ Gainerakoak lur onean erori ziren, eta fruitua eman zuten: bateko ehun edo hirurogei edo hogeita hamar. ⁹ Ulertzeko gauza denak uler beza».

Gari arteko

olo gaiztoaren parabola

²⁴ Beste parabola bat proposatu zien Jesusek: «Jainkoaren erregetzarekin, gizon batek soroan hazi ona erein zuenean bezala gertatzen da. ²⁵ Etxeko denak lo zeudela, etsaiak soroan sartu eta gari artean olo gaiztoa erein zuen eta alde egin. ²⁶ Garia hazi eta burutu zenean, olo gaiztoa ere agertu zen. ²⁷ Joan ziren, orduan, morroiak etxeko nagusiari esatera: «Jauna, ez al zenuen hazi ona erein soroan? Nondik du, bada, olo gaiztoa?». ²⁸ Hark erantzun zien: «Etsaiaren lana da hori». Eta morroiak: «Joango al gara olo gaiztoa biltzera?». ²⁹ Baina nagusiak: «Ez, ez dadila gerta olo gaiztoa biltzean garia ere ateratzea. ³⁰ Utzi biak batera hazten uzta-aroa iritsi bitartean; orduan, igitariei esango diet: Bildu lehenik olo gaiztoa, lotu eta erre; garia, berriz, jaso nire mandiora».

Mostaza-haziaren eta legamiaren parabolak

(Mk 4,30-32; Lk 13,18-21)

31 Jesusek beste parabola hau kontatu zien: «Jainkoaren erregetza gizon batek sorotan ereiten duen mostaza-haziaren antzekoa da. 32 Hazi guztietan txikiena da; baina, hazten denean, beste barazki guztiak baino handiago bihurtzen da, eta zuhaitz egiten, txoriek etorri eta adarretan habiak egiteko moduko zuhaitza».

33 Beste parabola bat ere esan zien: «Jainkoaren erregetza legamiaren antzekoa da: emakume batek anega bat irinetan nahasten du, eta oraldi guztia harrotzen da».

Altxorraren eta harribitxiaren parabolak

44 «Jainkoaren erregetzarekin, landan ezkutatua dagoen altxorrarekin bezala gertatzen da. Norbaitek, aurkitzen duelarik, berriro ezkutatu egiten du, eta pozaren pozez joan, dituen guztiak saldu eta landa hura erosten du.

45 Era berean, Jainkoaren erregetzarekin, harribitxi bila dabilen tratulariarekin bezala gertatzen da. 46 Balio handiko bat aurkitzen duenean, joan, bere gauza guztiak saldu eta hura erosten du.

Sarearen parabola

47 Jainkoaren erregetzarekin, uretara botatzen den eta mota guztietako arrainak

biltzen dituen sarearekin bezala gertatzen da. 48 Betea denean, bazterrera ateratzen dute; gero, eseri eta onak saskira biltzen dituzte eta txarrak kanpora botatzen. 49 Berdin izango da munduaren azkenean: aingeruek etorri eta gaiztoak zintzoen artetik bereiziko dituzte, 50 eta su-labera botako. Negarra eta hortz-karraska izango dira han».

Parabolen konklusioa

51— Ulertu al duzue hau guztia? —galdetu zien Jesusek ikasleei.

—Bai —erantzun zioten.

52 Hark esan zien:

—Beraz, Jainkoaren erregetzaren jakinduriaz jantzia dagoen lege-maisua, bere altxorretik zahar eta berriak ateratzen dituen etxeko jaunaren antzekoa da.

Barkatu ez zuen zerbitzariaren parabola

18²¹ Orduan, hurbildu zitzaion Pedro Jesusi eta galdetu zion:

—Jauna, senide batek bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?

22 Jesusek erantzun zion:

—Zazpi aldiz ez, zazpi mila zazpi aldiz.

23 «Hain zuzen, zerbitzariekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da Jainkoaren erregetzarekin. 24 Kontuak garbitzen hasi orduko, milioi asko zor zizkion zerbitzari bat eramán zioten. 25 Honek ez zuen zerez ordaindu, eta nagusiak, zerbitzaria bera, emaztea, seme-alabak eta ondasun guztiak saltzeko agindu zuen, zorrak ordainarazteko. 26 Zerbitzariak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, eskatu zion: "Emaidazu astia, eta dena

ordainduko dizut”. **27** Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen zerbitzaria.

28 Baina zerbitzari hark, irten orduko, diru pixka bat zor zion zerbitzu-lagun batekin egin zuen topo eta, lepotik heldurik eta ito beharrean, esaten zion: “Emadak zor duana”. **29** Laguna oinetara erori zitzaion, erreguka: “Emadak astia, eta dena ordainduko diat”. **30** Baina hark ezetz. Eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte.

31 Gertatua ikusirik, beste zerbitzariak biziki nahigabetu ziren, eta guztiaren berri nagusiari ematera joan ziren. **32** Orduan, nagusiak zerbitzari hari berriro dei egin eta esan zion: “Zerbitzari gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, erregutu didaalako. **33** Ez al huen hik ere heure lagunaz errukitu behar, ni hitaz errukitu nintzen bezala?”. **34** Eta, haserre bizitan, zigorpean utzi zuen nagusiak, zor guztia ordaindu arte».

Mahasti-langileen parabola

20 ¹ «Izan ere, Jainkoaren erregetzarekin mahasti-nagusiarekin bezala gertatzen da. Goizean goiz bere mahastirako langile bila atera zen. ² Egunekeo lanaren ordainetan zilarrezko txanpon bana emateko tratua egin ondoren, mahastira bidali zituen langileak.

³ Goizeko bederatziak aldera berriro atera zen eta, beste batzuk enparantzan lan-zain ikusirik, ⁴ esan zien: “Zoazte zuek ere nire mahastira, eta ordainduko dizuet bidezko dena”. ⁵ Eta haiek ere joan egin ziren.

Atera zen berriro hamabiak aldera eta hirurak aldera, eta gauza bera egin zuen.

⁶ Arratsaldeko bostak aldera ere atera zen eta, bertan batzuk gelditu aurkiturik, esan zien: “Zertan zaudete hemen egun osoan

lanik egin gabe?”. ⁷ Erantzun zioten: “Ez gaitu inork lanerako hartu”. Hark, orduan: “Zoazte zuek ere nire mahastira”.

⁸ Iluntzean, nagusiak mahastiko ardura-dunari esan zion: “Deitu langileei, eta emaiozu bakoitzari bere soldata, azkenengotik hasi eta lehenengora”.

⁹ Etorri ziren, bada, arratsaldeko bostetakoak, eta zilarrezko txanpon bana jaso zuten. ¹⁰ Lehenengo ordukoek, txanda iritsi zitzaientean, besteek baino gehiago jasoko zutela uste zuten; baina haiek ere zilarrezko txanpon bana jaso zuten.

¹¹ Orduan, nagusiagatik gaizki-esaka hasi ziren; eta esan zioten berari: ¹² “Azkenengo hauek ez dute ordu bete besterik lan egin eta guri adina ordaindu diezu, egun osoko nekea eta beroa jasan ditugunoi adina!”. ¹³ Baina nagusiak erantzun zion haietako bati: “Adiskide, ez dizut bidegabekierarik egiten; ez al dugu tratua zilarrezko txanpon batean egin? ¹⁴ Tori dagokizuna eta zoaz; zuri adina eman nahi diot azkenengo honi ere. ¹⁵ Ezin ote dut neure diruaz nahi dudana egin? Ala ni ona naizelako ezinikusia didazu?”

¹⁶ Horrela, azkenengoak lehenengo izango dira eta lehenengoak azkenengo».

Seme bien parabola

²⁸ Jesusek esan zien: «Ea zer iruditzen zaizuen. Gizon batek bi seme zituen. Bata-rengana joan eta esan zion: “Seme, hoa gaur mahastira lanera”. ²⁹ Hark erantzun zion: “Ez dut nahi”; baina handik berehala damutu eta joan egin zen. ³⁰ Bestearengana ere joan zen aita eta gauza bera esan zion. Eta hark erantzun: “Banoa, jauna”; baina ez zen joan. ³¹ Zuen ustez, bietatik zeinek egin zuen aitaren nahia?». «Lehenengoak», erantzun zioten.

Jesusek esan zien: «Benetan diotsuet: Zergalariak eta emagalduek zuek baino lehenago

sartuko dira Jainkoaren erreinuan. **32** Izan ere, etorri zitzaizuen Joan Bataiatzailea Jainkoaren nahiari dagokion jokabidea azalduz, eta ez zenioten sinetsi; zergalariek eta emagalduek, ordea, sinetsi zioten. Eta zuek, hori ikusita ere, ez zarete aldatu: oraindik ez diozue sinetsi.

Nekazari hiltzaileen parabola

(Mk 12,1-12; Lk 20,9-19)

33 «Entzun beste parabola hau: Behin batean, nagusi batek mahastia landatu zuen eta harresiz inguratu; lurrean dolarea egin eta mahastizainaren dorrea eraiki zuen. Gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen. **34** Mahatsa biltzeko garaia iritsi zenean, bere morroiak bidali zizkien nekazariei, fruitutik zegokion partea jasotzera. **35** Baina nekazariak morroiak hartu eta bata jo, bestea hil eta bestea harrikatu egin zituzten. **36** Berrito beste morroi batzuk bidali zituen, aurrekoan baino gehiago, eta haiei ere beste hainbeste egin zieten. **37** Azkenik, bere semea bidali zien, honela pentsatuz: “Neure semeari bederen izango diote begirune”. **38** Nekazariak, ordea, semea ikustean, esan zuten beren artean: “Oinordekoa duk! Hil dezagun eta egin gaitezen mahastiaren jabe”. **39** Hartu, mahastitik kanpora bota eta hil egin zuten».

40 Jesusek galdetu zien:

—Zer egingo ote die nekazari horiei mahasti-jabeak itzultzean?

41 Erantzun zioten:

—Gupidarik gabe hilko ditu eta bere garaian fruitua emango dioten beste nekazari batzuen esku utziko du mahastia.

42 Jesusek esan zien:

—Ez al duzue irakurri Liburu Santuak dioena:

*Etzegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da.
Jaunak egin du hori,
gure begien harrigarri?*

43 «Horregatik diotsuet: Jainkoaren erreinua zuei kendu eta fruitua aterako dion herri bati emango zaio. **44** Eta harri honen gainera erortzen dena lehertu egingo da, eta harri hau inoren gainera erortzen bada, txikitu egingo du».

45 Parabola hauek entzutean, Jesus beraiengatik ari zela jabetu ziren apaizburuak eta fariseuak. **46** Hargatik, hura atxilotu nahian zebiltzan, baina jendearen beldur ziren, denek profetatzat zeukaten eta.

Ezteien parabola

(Lk 14,15-24)

22 **1** Jesus berrito parabola-bidez hitz egiten hasi zitzaien: **2** «Jainkoaren erregetzarekin, bere semearen ezteiak ospatzen zituen erregearekin bezala gertatzen da. **3** Bidali zituen morroiak gonbidatuei dei egitera. Baina haiek ez zuten etorri nahi izan. **4** Berrito beste morroi batzuk bidali zituen, mandatu honekin: “Esaiezue gonbidatuei: Hara, gertu daukat bazkaria; hilak ditut zezenak eta zekor gizenduak, dena dago prest. Zatozte ezteietara”. **5** Baina gonbidatuek ez zuten jaramonik egin: bata bere sorora joan zen, bestea bere negoziotara, **6** eta gainerakoek, morroiei heldurik, irainez bete eta hil egin zituzten. **7** Sumindu egin zen erregea eta, soldaduak bidaliz, hil egin zituen giza hiltzaile haiek eta su eman herriari. **8** Gero, bere morroiei esan zien: “Ezteiak prest daude, baina gonbidatuak ez ziren gai. **9** Zoazte, bada, bidegurutzetara eta deitu ezteietara aurkitu ahala guztiak”. **10** Atera ziren morroiak bideetara eta aurkituriko guztiak bildu zituzten, on nahiz gaizto. Eztei-gela

bazkaltiarrez bete zen. **11** Erregeak, bazkaltiarrek ikustera sartu zenean, eztei-jantzirik gabe zegoen bat ikusi zuen, **12** eta esan zion: "Adiskidea, nola sartu zara hemen eztei-jantzirik gabe?". Hark hitzik ez. **13** Erregeak mahai-zerbitzariari esan zien orduan: "Lot ezazue hanka eta esku, eta bota kanpora, ilunpetara. Negarra eta hortz-karraska izango dira han". **14** Zeren gehiago baitira deituak aukeratuak baino».

Hamar neskatxen parabola

25 **1** «Jainkoaren erregetzarekin, kriseiluak hartu eta senar ezkonberriri bidera irten zitzaizkion hamar neskatxekin bezala gertatzen da. **2** Neskatxetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak. **3** Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez

zuten oliorik hartu; **4** zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olio ere hartu zuten ontzietan. **5** Senarrak luzatzen zuenez, logaletu egin ziren denak eta loak hartu zituen.

6 Gauerdian oihu bat izan zen: "Hemen da senarra! Irten bidera!" **7** Jaiki ziren denak eta beren kriseiluak prestatu zituzten. **8** Orduan, zentzugabeek zentzudunei esan zieten: "Emaguzue olio-pixka bat, kriseiluak itzaltzera doazkigu eta". **9** Zentzudunek erantzun zieten: "Ea ez dugun nahikoa denontzat; hobe duzue badaezpada dendara joan eta erosi".

10 Baina, eroatera joanak zirelarik, senarra iritsi zen, eta prest zeudenak ezteietara sartu ziren berarekin. Eta atea itxi egin zen.

11 Iritsi ziren, azkenik, beste neskatxak ere eta dei egin zuten: "Jauna, jauna! Zabaldu!". **12** Baina jaunak erantzun zien: "Benetan diotsuet, ez dakit nor zareten".

13 Zain egon, beraz, ez baitakizue, ez egunik, ez ordurik».

Lukas



Antzina-antzinatik uste izan denez, Lukas da hirugarren ebanjelioaren egilea, eta Lukas delako hori Pauloren ikaslea dugu, sendagilea (Kol 4,14; 2 Tm 4,11; Flm 24). Ebanjelioaren egilea eta Apostoluen Eginak liburuaren egilea, berriz, bat bera dira, bi liburuen hitzaurreek eta hizkuntza-naiz pentsaera-antzak erakusten dutenez; halaxe uste izan da beti, bestalde. Baina egilea Pauloren ikaslea ote? Ez da segurua. Batetik, ebanjelioan ez da Pauloren ideia nagusirik nabarmen ageri eta, bestetik, Pauloren gutunen eta Apostoluen Eginak liburuaren arteko desberdintasunak nabarmenak dira. Nolanahi ere, giro helenistan hezitako kristaua dugu egilea, bere garaiko literatura ongi ezagutzen eta grekoz bikain idazten duena. Palestinako geografia eta usadioak, aldiz, ez ditu batere zehatz ezagutzen. Halere, Itun Zaharra aise darabil eta Israeli egindako agintzarien oinordekotzat dauka bere burua (Lk 1,46-55.68-79).

238

Samariar ona

(Mt 22.34-40; Mk 12.28-31)

10 ²⁵ Orduan, lege-maisu batek jaiki eta azpikeriaz galdetu zion:

—Maisu, zer egin behar dut ondareztat betirako bizia jasotzeko?

²⁶ Jesusek esan zion:

—Zer dago idatzia Moisesen legean? Zer irakurtzen duzu?

²⁷ Hark erantzun:

—Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz, indar guztiz eta adimen guztiz. Eta lagun hurkoa zeure burua bezala.

²⁸ Jesusek erantzun zion:

—Ederki erantzun duzu. Bete hori eta bizia izango duzu.

²⁹ Baina lege-maisuak, bere galdera bidezkoa zela adierazi nahirik, galdetu zion Jesusi:

—Eta nor da nire lagun hurkoa?

³⁰ Jesusek erantzun zion:

—Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalemetik behera Jerikorantz eta lapurren eskuetan erori zen; zeuzkanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz.

³¹ Apaiz bat gertatu zen, hain zuzen, bide hartan behera, eta, gizona ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo zuen. ³² Gauza bera egin zuen handik igaro zen tenpluko lebitar batek ere: ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo

zuen. **33** Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion. **34** Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olioiz eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean ezarri, ostatura eraman eta bere ardurapean hartu zuen. **35** Biharamunean, zilarrezko bi txanpon atera eta ostalariari eman zizkion, esanez: «Zain ezazu eta, gehiago gastatzen baduzu, hurrena natorrenean ordainduko dizut». **36** Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagun hurko bezala lapurren esku eroritako gizonarekin?

37 Lege-maisuak erantzun zion:

—Hartaz errukitu zenak.

Jesusek esan zion, orduan:

—Zoaz eta egin zuk ere beste horrenbeste.

Aberats ergelaren parabola

12 **13** Behin batean, jendarteko batek esan zion Jesusi:

—Maisu, esaiozu nire anaiari senipartea nirekin erdibanatzeko.

14 Jesusek erantzun zion:

—Gizon, nork egin nau ni zuen artean epaile edo ondasun-banatzaile?

15 Orduan, guztiei esan zion:

—Kontuz! Gorde diru-gosetik, ondasunek ez baitiote inori bizia segurtatzen, ugari izanda ere.

16 Gero, parabola hau kontatu zien: «Gizon aberats bati lurrak uzta handia eman zion. **17** Eta honela hasi zen berekiko pentsatzen: “Zer egin, ez baitut uzta non jasorik?”. **18** Eta beretzat esan zuen: “Badakit zer egin: mandio zaharrak bota eta handiagoak egingo ditut eta hauetan jasoko neure garia eta gainerakoak. **19** Gero, esango diot neure buruari: Ea, mutil, baduk hor gordeta urtetarako ondasunik aski; hartu atsedean, jan, edan eta bizi hadi lasai”. **20** Baina Jainkoak esan zion: “Burugabea halakoa! Gaur gauean

bertan hil behar duzu. Norentzat izango da pilatu duzuna?».

21 Eta honela amaitu zuen: «Horra zer gertatzen zaion, Jainkoarentzat aberats izan beharrean, beretzat ondasunak pilatzen dituenari».

Pikuondo agorraren parabola

13 **6** Gero, parabola hau esan zien Jesusek: «Gizon batek pikuondo bat zuen bere mahastian aldatua. Joan zen piku bila eta ez zuen aurkitu. **7** Orduan, mahastizainari esan zion: “Begira, badira hiru urte pikuondo honetara piku bila natorrela, eta ez dut aurkitzen. Moztu ezazu. Zertarako egongo da hor lurra alferrik jaten?”. **8** Baina mahastizainak erantzun zion: “Jauna, utz ezazu aurtengoz; bitartean, ondoa aitzurtu eta ongarrria botako diot, **9** ea aurrerakoan fruiturik ematen duen; eta bestela, moztu”».

239

Gatz gezatuaren parabola

(Mt 5,13; Mk 9,50)

14 **34** «Bai, gauza ona da gatz; baina gatz gezatzen bada, nola gazitu berriro? **35** Ez litzateke gauza ez lurrerako, ez ongarritarako; kanpora botako litzateke. Ulertzeko gauza denak uler beza».

Ardi galduaren parabola

(Mt 18,12-14)

15 **1** Zergalari eta bekatari guztiak Jesusengana bildu ohi ziren hari

entzutera, **2** eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean ari ziren esanez: «Horrek harrera ona egiten die bekatariei, baita beraiekin jan ere!».

3 Jesusek parabola hau esan zien: **4** «Zuetako nor, ehun ardi izan eta bat galtzen bazaio, ez da, beste lauogeita hemeretziak larrean utzirik, galduaren bila joaten aurkitu arte? **5** Eta aurkitzen duenean, lepoan hartzen du poz-pozik **6** eta, etxeratzean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: "Egin festa nirekin, aurkitu baitut galdutako ardia!". **7** Egia esan, Jainkoak ere poz handiago hartzen du bihozberritzen den bekatari batengatik, bihozberritu beharrik ez duten lauogeita hemeretzi zintzoengatik baino».

Txanpon galduaren parabola

240

8 «Edota zein emakumek, zilarrezko hamar txanpon izan eta bat galtzen bazaio, ez du, kriseilua pizturik, etxea garbitu eta galdu zaion txanpona ardura guztiaz bilatzen aurkitu arte? **9** Eta, aurkitzean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: "Egin festa nirekin, aurkitu baitut galdua nuen txanpona!". **10** Egia esan, berdin pozten da Jainkoa ere bere aingeruekin bihozberritzen den bekatari batengatik».

Aita errukitsuaren eta bi semeen parabola

11 Gainera, esan zien: «Gizon batek bi seme zituen. **12** Gazteenak esan zion aitari: "Aita, emaidazu dagokidan senipartea". Eta aitak ondasunak banatu zizkien.

13 Handik egun gutxira, seme gazteenak, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde

batera alde egin zuen eta han, galdukerian biziz, ondasun guztiak jan. **14** Dena xahutu zuenean, gosete ikaragarria gertatu zen inguru hartan eta estu aurkitzen hasi zen. **15** Orduan, herrialde hartako gizon batengana joan zen morroi, eta hark bere sailalara bidali zuen txerrizain. **16** Txerriek jaten zuten ezkurrez asetzeko gogoa ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen. **17** Orduan, pentsatzen jarririk, bere baitan esan zuen: "Zenbat langile gure aitarenean nahi adina ogi eta gehiago dutela, eta ni hemen goseak hiltzen! **18** Jaiki, aitarengana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. **19** Ez dut gehiago seme-izenik merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala".

20 Jaiki eta aitaren etxera abiatu zen. Oraindik urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta errukitu egin zen; eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. **21** Semeak esan zion: "Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. Ez dut gehiago zure seme-izenik merezi...". **22** Aitak, ordea, esan zien morroiei: "Ekarri bizkor jantzirik onena eta jantziozue, ipiniozue eratzuna eta jantzi oinetakoak; **23** ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festa-otordua; **24** zeren seme hau hilda bainuen eta piztu egin zait, galdua nuen eta aurkitu egin dut". Eta festa hasi zuten.

25 Seme zaharrena soroan zen. Etxerakoan, hurbildu ahala, soinua eta dantzak sumatu zituen. **26** Eta, morroi bati deiturik, zer gertatzen zen galdetu zion. **27** Hark erantzun: "Zure anaia etorri da eta zekor gizendua hiltzeko agindu du zuen aitak, semea onik bereganatu duelako". **28** Biziki haserretu zen anaia eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. **29** Baina hark erantzun zion aitari: "Hainbeste urte da zure agindu bat ere sekula huts egin gabe zerbitzatzen zaitudala, eta ez didazu egundaino antxume bat ere eman, lagunekin festa egiteko; **30** eta, horrako zure seme hori, zure ondasunak emagalduekin jan dituen hori, etorri dela eta, zekor gizendua hil duzu". **31** Aitak erantzun zion: "Seme, zu beti nirekin zaude, eta nire

guztia zeurea duzu!». **32** Baina egoki zen poztu eta festa egitea, zure anaia hau hilda baikenuen eta piztu egin zaigu, galdua genuen eta aurkitu egin dugu!».

Etkezain argiaren parabola

16 ¹ Jesusek esan zien ikasleei: «Gizon aberats batek etkezain bat zuen, eta hau ondasunak alferrik galtzen ari zitzaiola salatu zioten.

² Deitu zion eta esan: “Zer da zutaz entzun dudan hori? Emaidazu etkezaintzaren kontu, kargutik bota egiten zaitut eta”.

³ Honela zioen, orduan, etkezainak bere baitan: “Zer egin behar dut orain, nagusiak kargua kentzen didanez gero? Aitzurrerako ez naiz gauza, eta eskerako lotsa naiz. ⁴ Badakit zer egin, kargutik botatzen nauten honetan etxean nork hartua izan dezadan”.

⁵ Deitu zituen bere nagusiaren zordunak banan-banan, eta lehenengoari galdetu zion: “Zenbat zor diozu nire nagusiar?”.

⁶ Hark erantzun: “Ehun upel olio”. Etkezainak esan zion: “Hona zure ordain-agiria; agudo, eseri eta idatzi berrogeita hamar”.

⁷ Gero, hurrengoari galdetu zion: “Zuk zenbat zor diozu?”. Hark erantzun: “Ehun anega gari”. Eta besteak, orduan: “Hona zure ordain-agiria; idatzi laurogei”.

⁸ Eta nagusiak txalotu egin zuen etkezain zuzengabe hura, zuhurki jokatu zuelako. Izan ere, mundukoak zuhurrago dira beren arteko arazoetan, argitakoak berenetan baino».

Aberatsa eta Lazaro

19 «Bazen gizon aberats bat, purpuraz eta liho finez janzten zena eta egunero festa

ederrak egiten zituena. **20** Bazen Lazaro ize-neko eskale bat ere, haren ate ondoan egoten zena; zauriz josia zegoen. **21** Pozik asko jango zukeen aberatsaren mahaitik lurrera botatzen zutena. Txakurrek ere etorri eta zauriak miatzatzen zizkieten.

22 Hil zen eskalea, eta Abrahamen ondora eramán zuten aingeruek; hil zen aberatsa ere, eta lur eman zioten. **23** Hilén Egoitzan oinazez zegoela, begiak jaso eta Abraham ikusi zuen urruti, eta Lazaro haren ondoan.

24 Orduan, deiadar egin zion: “Aita Abraham, erruki nitaz; bidal ezazu Lazaro atzamar-muturra uretan busti eta niri mihia freskatzera, kiskaltzen bainago sugar haue-tan”. **25** Baina, Abrahamek erantzun zion: “Seme, gogoratu zuk zorion franko izan zenuela bizitzan; Lazarok, berriz, zoritxar-rak; orain, hark atsegina aurkitu du hemen, eta zuk oinazeak. **26** Horrez gainera, leize handi bat dago zuen eta gure artean; nahita ere, ez dauka inork hemendik zuengana iga-rotzerik, ezta hortik guregana ere”.

27 Aberatsak, berriro: “Orduan, aita Abraham, bidal ezazu, arren, Lazaro gure aita-ren etxera, **28** bost anaia ditut eta; jar ditzala jakinaren gainean, beraiek ere oinaze-toki honetara etor ez daitezén”. **29** Abrahamek erantzun zion: “Hor dituzte Moises eta profeta-k: entzun diezaietela”. **30** Hark, oraíndik: “Ez, aita Abraham; hildakoren bat joaten bazaie, orduan bai bihozberrituko direla”. **31** Baina Abrahamek erantzun zion: “Moisesi eta profetei entzuten ez badiete, hildakoren bat piztuta ere, ez dute kasurik egingo».

Fariseuaren eta zergalariaren parabola

18 ⁹ Honako parabola hau esan zien Jesusek beren buruak zintzotzat hartzen eta besteak gutxiesten zituzten batzuei: **10** «Bi gizon tenplura igo ziren otoitz

egitera; bata fariseua eta bestea zergalaria. **11** Fariseuak, zutik, honela ziharduen otoitzean bere baitan: “Ene Jainkoa, eskerrak zuri besteak bezalakoa ez naizelako: lapur, gaizkile edota adulteriogile; ezta horrako zergalari hori bezalakoa ere. **12** Astean bi bider egiten dut barau, eta ondasun guztien hamarrenak ordaintzen ditut”.

13 Zergalaria, berriz, urruti gelditurik, ez zen begiak lurretik altxatzera ere ausartzen, baizik eta bular-joka ari zen esanez: “Ene Jainkoa, erruki zaitez bekatari honetaz”.

14 Benetan diotsuet, azkenengo hau Jainkoarekin bakean itzuli zela etxera; fariseua, berriz, ez. Zeren eta bere burua goratzen duena beheratu egingo baitu Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena, goratu».

Ontzako urreen parabola

(Mt 25,14-30)

19 **11** Jendea entzuten ari zitzaioa, Jesusek beste parabola bat kontatu zien, Jerusalemik hurbil baitzen eta jendeak Jainkoaren erregetza une batetik bestera azalduko zela uste baitzuen: **12** «Handiki bat urrutiko herrialde batera joan zen, errege-izendapena hartzera, gero itzultzekotan. **13** Bere zerbitzarietako hamarri dei egin eta hamar ontzako urre banatu zizkien, esanez: “Jarri irabazian, ni itzuli bitartean”.

14 Baina herritarrek, gorroto zioten eta mandatariak bidali zituzten atzetik, esatera: “Ez dugu hori errege nahi”.

15 Errege-izendapena harturik itzuli zenean, dirua banatu zien morroiak beregana deitu zituen, bakoitzak zer irabazi ote zuen jakiteko. **16** Aurkeztu zen lehenengoa eta esan zion: “Jauna, zure ontzakoak hamar halako eman du”. **17** Nagusiak erantzun: “Ederki, morroi ona! Gauza gutxian leial izan haizenez gero, hartzak hamar hirietako agintea”. **18** Joan zen, gero, bigarrena eta esan zion: “Jauna, zure ontzakoak bost halako eman du”. **19** Honi ere nagusiak esan zion: “Izan hadi bost hiriren buru”. **20** Joan zen beste bat eta esan zion: “Jauna, hemen duzu zeure ontzakoak; zapi batean bildua eduki dut. **21** Beldur nizun, gizon gogorra zarelako, eman gabea eskatzen eta erein gabea biltzen duzuna”. **22** Nagusiak, orduan: “Heure esanez kondenatuko haut, morroi gaizto hori! Bahekien gizon gogorra naizena, eman gabea eskatzen eta erein gabea biltzen dudana. **23** Nolatan ez huen, bada, nire dirua bankuan ipini? Horrela, itzultzean, korrituekin jasokotan”. **24** Eta bertan zeudenei esan zien: “Ken iezaiozue ontzakoak eta eman hamar dituenari”. **25** Haiak erantzun zioten: “Jauna, lehendik hamar ontzako ez ditu, bada?”. **26** Nagusiak erantzun zien: “Fruitua dakarrenari eman egingo zaio; fruiturik ez dakarrenari, ordea, daukan apurra ere kendu egingo zaio. **27** Eta errege nahi ez ninduten etsai horiek, berriz, ekarri hona eta hil itzazue nire aurrean”».

JOAN



Ebanjelio honen sorburuan dagoen komunitateak Jesusek «gehien maite zuen» ikaslearekin identifikatzen du autorea, 21,24eko konklusioan ikus daitekeenez. Ikasle hau behin eta berriro agertzen da Pazko-kontakizunetan (13,23; 19,26; 20,2); hau 1,35-39 eta 18,15ean agertzen den «beste ikaslea» bera da.

Ebanjelioak ez du ikasle honen izenik ematen.

ii. mendetik aurrera kristau-tradizioak Joanekin, Zebedeoren semearekin, identifikatzen du ikasle hori eta ebanjelioaren idazletzat jotzen. Baina ez dakigu ziur ez non, ez nork idatzi zuen ebanjelioa. Seguraski, ebanjelio honek eraketa-prozesu luze samarra izan zuen. Azken moldaketa lehenengo mendearen azken urteetan burutu zen, beste hiru ebanjelioena baino beranduago.

245

Erzteiak Galileako Kanan

2 ¹ Hiru egunera, ezteiak izan ziren Galileako Kanan, eta han zen Jesusen ama. ² Jesus eta beronen ikasleak ere gonbidatu zituzten ezteietara. ³ Eta ardoa amaitu baitzen, esan zion amak Jesusi:

—Ez dute ardorik.

⁴ Jesusek erantzun zion:

—Utz nazazu bakean, emakume. Oraino ez da etorri nire ordua.

⁵ Jesusen amak honela esan zien zerbitzariari: «Egin horrek esango dizuen».

⁶ Baziren han harrizko sei ur-ontzi, juduek beren garbikuntzetarako erabili ohi zituztenak, ehunen bat litrokoa bakoitza.

⁷ Jesusek esan zien zerbitzariari:

—Bete ontziak urez.

Haiek goraino bete zituzten. ⁸ Orduan, esan zien:

—Atera pixka bat eta eraman mahaizainari.

Hala egin zuten haiek.

⁹ Mahaizainak ardo bihurtutako ura dastatu zuen, nongoa zen jakin gabe; zerbitzariari, bai, bazekiten, beraiek atera baitzuten ura. Ardo berria dastatu zueneko, senarrari dei egin ¹⁰ eta esan zion: «Jende guztiak ardorik onena atera ohi du lehenik eta,

jendea aski edanda dagoenean, arruntagoa; zuk, berriz, orain arte gorde duzu ardorik onena».

11 Bere lehen mirarizko seinale hau Galileako Kanan egin zuen Jesusek; honela, bere Jainko-aintza agertu zuen, eta ikasleek sinetsi egin zuten harengan. **12** Ondoren, Kafarnau-nera joan zen bere ama, anaia-arreba eta ikasleekin, eta han egon ziren zenbait egunez.

Jesus eta emakume samariarra

4 **1** Jakin zuten fariseuek Joaneke baino ikasle gehiago egin eta jende gehiago bataiatzen zuela Jesusek, **2** nahiz eta bataiatu, ez zuen Jesusek berak bataiatzen, haren ikasleek baino. **3** Jesus, hori jakitean, Judea utzi eta Galileara joan zen berriro.

4 Bere ibilbidean Samarian zehar iragan beharra zuen. **5** Iritsi zen, bada, Sikar izeneko Samariako hirira, antzina Jakobek bere seme Joseri ondareztat emaniko lur-sailetik hurbil. **6** Han zegoen Jakobek putzua delakoa. Jesus, bidez nekaturik, putzu-ertzean eseri zen. Eguerdi ingurua zen. **7-8** Ikasleak hirira joanak ziren janaria erostera. Hortan, Samariako emakume bat etorri zen putzura ur bila. Jesusek esan zion:

—Emaidazu edaten.

9 Orduan, emakume samariarrak esan zion:

—Nola zuk, judu izanik, eskatzen didazu edatekoa niri, samariar naitzen honi? (Jakin behar da juduek eta samariarrek ez dutela elkarrekin harremanik).

10 Jesusek erantzun zion:

—Jainkoak ematen duena ezagutuko eta edatekoa nork eskatzen dizun jakingo bazenu, zeuk eskatuko zenioke berari, eta hark ur bizia emango lizuke.

11 Emakumeak esan zion:

—Jauna, ez daukazu ura zerez atera, eta putzua sakona da. Nondik aterako duzu,

beraz, ur bizi hori? **12** Geure aita Jakobek utzi zigun putzu hau eta bertatik edan zuten berak, beraren seme-alabek eta abereek. Hura baino handiagoa al zara zu?

13 Jesusek ihardetsi zion:

—Ur honetatik edaten duena berriro ere egarri izango da; **14** nik emango diodan uretik edango duena, ordea, ez da sekula egarri izango; zeren nik emango diodan ura betiko bizia darion iturburu bihurtuko baitzaio barruan.

15 Orduan, emakumeak:

—Jauna, emaidazu ur horretatik, berriro egarri ez nadin, eta hona uretara etorri beharrik izan ez dezadan.

16 Jesusek esan zion:

—Zoaz etxera, dei egiozu zeure senarrari eta itzuli hona.

17 Emakumeak erantzun:

—Ez dut senarrik.

Eta Jesusek:

—Ongi diozu ez duzula senarrik; **18** bost izan dituzu, eta oraingoa ez duzu senarra; horretan egia diozu.

19 Emakumeak esan zion:

—Jauna, profeta zarela ikusten dut.

20 Gure gurasoek mendi honetan eman zioten kultu Jainkoari; zuek, juduok, berriz, Jerusalemenean eman behar zaiola diozue.

21 Jesusek esan zion:

—Sinetsiezadazu, emakume, badator ordua, ez mendi honetan, ez Jerusalemenean, Aita adoratuko ez duzuen. **22** Zuek, samariarrok, ez dakizue zer adoratzan duzuen; guk badakigu zer adoratzan dugun, salbamentu juduogandik baitator. **23** Baina badator ordua —hobeto esan, heldua da—, egiazko adoratzaileek Aita egiaren arabera eta Espirituak eraginda adoratuko dutena; horrela adora dezaten nahi du Aitak. **24** Jainkoa Espiritu da, eta hura adoratzan dutenek egiaren arabera eta Espirituak eraginda adoratu behar dute.

25 Emakumeak esan zion:

—Badakit Mesias, Kristo alegia, etortzeko dena, eta hark, etortzean, gauza guztiak agertuko dizkiguna.

26 Jesusek esan zion:

—Neu naiz, zurekin mintzo naizen hau.

27 Une hartan ikasleak iritsi eta harritu egin ziren Jesus emakume batekin hizketan ari zela ikustean; halere, inor ez zen ausartu galdetzeraz zer nahi zuen edo zertaz zihar-
duen emakumearekin.

28 Emakumeak suila utzi, hirira itzuli eta esan zion jendeari: **29** «Zatozte egin dudan guztia esan didan gizon bat ikustera. Ez ote da bera Mesias?».

30 Jendea hiritik irten eta Jesusengana joan zen.

31 Bien bitartean, erreguka ari zitzaizkion ikasleak, esanez:

—Maisu, jan zerbait.

32 Baina berak esan zion:

—Badut nik beste janari bat, zuek ez daki-
zuena.

33 Ikasleek galdetu zioten elkarri:

—Norbaitek ekarri ote dio jatekoa?

34 Jesusek esan zion:

—Nire janaria, bidali nauenaren nahia egitea da, haren salbamen-egintza burutu arte. **35** Ez al duzue esaten zuek: «Lau hila-
bete barru uzta-aroa dugu?». Horra, bada, nik esan: Jaso begiak eta ikusi gari-soroak, uztarako horituak. **36** Dagoeneko igitaria bere saria hartzen ari da, eta betirako bizirako fruitua jasotzen, nola ereilea, hala igitaria, biak poz daitezten. **37** Honetan bai bete-
tzen dela esaera: «Batek erein, bestek uzta bildu». **38** Zeuek landu ez duzuen biltzera bidali zaituztet nik; besteak nekatu dira lanean, eta zuek jasotzen duzue haien neke-
aren fruitua.

Emakume adulterioegilea

8 **1** Jesus Oliamendira joan zen. **2** Biharamunean, egunsentian, tenplura itzuli zen, eta herri guztia etorri zitzaion. Jesus, eseririk, irakasten hasi zen.

3 Orduan, lege-maisu eta fariseuek emakume bat, adulterioan harrapatua, ekarri zioten. Erdi-erdian ipiniz, **4** esan zioten Jesusi:

—Maisu, emakume hau adulterioan ari zela harrapatu dute. **5** Moisesek legean honelakoak harrika hiltzeko agindu zigun; zuk zer diozu?

6 Galdera azpikeriaz egin zioten, hura salatzeke aitzakiaren baten bila baitzebiltzan. Jesus, alabaina, makurturik, atzamarrez lurrean idazten hasi zen. **7** Haiek, ordea, galde eta galde ari baitzitzaizkion, zutitu zen Jesus eta honela esan zion:

—Zuetan bekatuak gabe dagoenak jaurtiki diezaiola lehen harria.

8 Eta berriro makurturik, lurrean idazten jarraitu zuen. **9** Haiek, ordea, hori entzutean, banan-banan alde egiten hasi ziren, zaharrenetatik hasita. Jesus bakarrik gelditu zen, emakumea aurrean zuela. **10** Jesusek zutitu eta esan zion:

—Emakume, non dira salatzaileak? Ez al zaitu inork ere gaitzetsi?

11 Hark erantzun:

—Inork ere ez, Jauna.

Orduan, Jesusek:

—Nik ere ez zaitut gaitzesten; zoaz, eta ez egin berriro bekatuak.

Eginak



Hirugarren ebanjelioaren egile bera du Apostoluen Eginak liburuak. Hala erakusten du bi hitzaurreen konparaketak, baita hizkuntzaren eta pentsaeraren konparaketak ere.

Baina nor dugu egile hori? Antzinako tradizioak Lukas dela dio, eta hau Paulok aipatzen duen «sendagile maitea» bera dela (Kol 4,14; 2 Tm 4,11; Flm 24).

Baina azken puntu hau ez dago batere argi. Egia da, Pauloren ibilaldien berri kontatzean, egileak inoiz “gu” esanez idazten duela (ikus 16,10-17; 20,5-15; 21,1-18; 27,1-28,16); baina gure liburuan eta Pauloren gutunetan ageri den pentsaerak ez datoz bat zenbait puntu garrantzitsutan, hala nola apostulutzaren ideian edo legearen garrantzia ulertzeko moduan.

246

Sauloren konbertsioa eta deia

9 ¹ Saulok, oraindik Jaunaren ikasleen aurka heriotza-mehatxua zeriola, apaiz nagusiarengana joan eta ² Damaskoko sinagogetarako gutunak eskatu zizkion, aurkitzen zituen kristau-bidearen jarraitzaileak, gizaseme nahiz emakume, Jerusalemara preso eramanez ahal izateko.

³ Damaskorantz zihoala, bertatik hurbil, bat-batean zerutiko argi batek distiraz inguratu zuen. ⁴ Lurrera erori zen eta mintzo hau entzun zuen:

—Saulo, Saulo, zergatik pertsegitzen nauzu?

⁵—Nor zaitut, Jauna? —galdetu zuen Saulok.

—Jesus naiz, zuk pertsegitzen duzuna.

⁶ Orain, jaiki eta sartu hirian; han esango dizute zer egin behar duzun.

⁷ Haren bidelagunak ikaraz mutu gelditu ziren, hotsa entzuten baitzuten, baina inor ikusten ez. ⁸ Saulo lurretik altxatu zen eta, begiak zabalik zituen arren, ez zuen deus ere ikusten. Eskutik hartuta eramanez zuten Damaskora, ⁹ eta hiru egun eman zituen han itsu, ezer jan eta edan gabe.

¹⁰ Bazen Damaskon Ananias zeritzan ikasle bat. Jaunak ikuskari batean dei egin zion:

—Ananias!

—Hemen nauzu, Jauna —erantzun zion hark.

11 Jaunak esan zion:

—Zoaz berehala Kale Zuzenera, Judasen etxera, eta galdegizu Tarsoko Saulo delakoz; otoitzean ari da **12** eta ikuskari batean Ananias izeneko gizon bat ikusi du etxean sartzen eta eskuak gainean ezartzen, berriro ikusi ahal izan dezan.

13 Ananiasek erantzun zion:

—Jauna, askori entzuna diot gizon horrek zenbat kalte egin dien zure fededunei Jerusalemenean. **14** Eta hemen bertan ere badu aginpide, apaiz nagusiak emanik, zuri dei egiten dizuten guztiak atxilotzeko.

15 Jaunak, ordea, esan zion:

—Zoaz, neure zerbitzurako hautatua baitut gizon hori, bai jentilei eta haien erregeei, bai israeldarrei, nire izena ezagutaraz diezaien. **16** Neuk agertuko diot zenbat sufritu beharko duen niregatik.

17 Joan zen Ananias eta, etxean sarturik, eskuak ezarri zizkion Saulori, esanez: «Anaia Saulo, Jaunak, bidean zentozela agertu zitzaizun Jesusek, bidali nau, berriro ikus dezazun eta Espiritu Santuaz bete zaitezenean».

18 Bat-batean, begietatik ezkata bezalako batzuk erori zitzaizkion eta ikusten hasi zen berriro; berehala, bataiatu egin zen. **19** Gero, jan eta indarrak berriro zitzaizkion.

Apokalipsia



Apokalipsi hitzak agerpen esan nahi du, estalkia kendu eta zerbaiten atzean dagoen misterioa azaltzea; apokalipsia errebelazioa da, ezkutuko zerbaiten azalpena.

K. a. II. mendetik K. o. II. era garatu zen pentsamolde eta literatura apokaliptikoa, lehenik juduen eta gero kristauen artean. Literatura honen ordezkari nagusia I. Z. ean

Daniel Liburua da, baina tankera honetako idazki asko sortu zen kristau-aroaren hasiera inguruan. Lotura handia du literatura profetikoarekin, baina apokaliptika historiaren azkenari dagokio; orduan Jainkoarren salbamen-asmoa garaile aterako da, kontrako etsai guztiak suntsitu ondoren. Forma aldetik, beronen bereizgarri nagusiak sinbolismoaren ugaritasuna eta garrantzia izan litezke; honelako idazkietan dena sinbolo bidez adierazten da (zenbakiak, koloreak, piztiak...) eta hauen esanahia argitu beharra dago mezua ulertzeko.

248

Jesus piztua ikusi

1⁹ Ni, Joan, zuen anaia eta Jesusen maisunagatik atsekabeen eta erreinuaren itxaropen iraunkorrean zuen kideko naizen hau, Patmos izeneko uhartean nengoen erbesteratua Jainkoaren hitzarengatik eta Jesusen testigantza egiteagatik. **10** Jaunaren egunean Espirituak hartu ninduen, eta neure ostean ahots handia entzun nuen turutahotsa bezalakoa. **11** Hau zioen: «Idatz ezazu liburu batean ikusiko duzuna, eta bidali zazpi eliz elkarte hauei: Efeso, Esmirna, Pergamo, Tiatira, Sardes, Filadelfia eta Laodizeako eliz elkarteei».

12 Atzera begiratu nuen, mintzo zitzaidan ahots hura norena ote zen ikusteko eta,

itzultzean, urrezko zazpi argimutil ikusi nituen, **13** eta argimutilen erdian gizaseme antzeko bat, soineko luzez jantzia, bularpea urrezko gerrikoz lotua. **14** Haren buruko ilea zuria zen, artilea eta elurra bezalakoa, begiakugarra bezalakoak, **15** oinak labeen garbituriko brontze goriaren antzekoak, haren ahotsa ur handiena bezalako burrunba. **16** Zazpi izar zituen eskuineko eskuan eta aho-biko ezpata zorrotza ateratzen zitzaion ahotik; aurpegia eguzkia indarririk handienez bezain argitsu zuen.

17 Hura ikustean, hila bezala erori nintzaion oinetan. Berak eskuineko eskua gainean jarri zidan, esanez: «Ez izan beldur! Neu naiz lehena eta azkena, **18** bizi dena; hilik egon nintzen, baina orain bizirik nago menderen mendetan, eta neure mende ditut

Herio eta Hilen Egoitza. **19** Idatz ezazu, beraz, ikusi duzuna: orain dena eta gero izango dena. **20** Hona nire eskuineko eskuan ikusi dituzun zazpi izarren eta urrezko zazpi argimutilen esanahia: zazpi izarrek zazpi eliz elkarteen aingeruak dira, eta zazpi argimutirik zazpi eliz elkarteak».

Efesoko eliz elkarteari

2 **1** Idatz iezaiozu Efesoko eliz elkartearen aingeruari: Hona zer dioen zazpi izarrek bere eskuineko eskuan dauzkanak, urrezko zazpi argimutilen erdian dabilenak: **2** Ezagun-ezagunak ditut zure egintzak, zure lanbide neketsua eta eramanpena. Badakit ezin duzula jende gaiztoa jasan, eta, benetan apostolu izan gabe, beren buruak apostolutzat zituztenak aztertu eta gezurtizat utzi dituzula. **3** Baduzu eramanpenik eta niregatik nekeak jasan dituzu, etsi gabe. **4** Baina zure aurka badut zerbait: galdu egin duzula hasierako maitasuna. **5** Hartu gogoan, beraz, nondik erori zaren; damu zaitez, eta itzuli lehengo jokabidera. Bestela, zuregana joan eta bere lekutik kendu egingo dut zure argimutilla. **6** Halere, hau duzu zeure alde: nik ere gorroto ditudan nikolaiten egintzak gorroto dituzula.

7 Ulertzeko gauza denak uler beza Espirituak eliz elkarteei esaten diena. Garai-leari, Jainkoaren paradisuari dagoen bizi-arbolako fruituetatik emango diot jaten.

Esmirnako eliz elkarteari

8 Idatz iezaiozu Esmirnako eliz elkartearen aingeruari: Hona zer dioen lehenak eta azkenak, hila zegoenak eta bizira itzuli zenak: **9** Ezagun-ezagunak ditut zure

atsekabea eta pobretasuna; halere, aberats zara. Badakit nola iraintzen zaituzten, judu direla esan arren Satanasen elkarre besterik ez diren horiek. **10** Ez izan beldur jasan behar izango duzunaz; hara, zuetariko batzuk kartzelara botako ditu deabruak, zuek probatzeko, eta apur batez atsekabetuak izango zarete. Izan zaitezte leial heriotzaraino eta garaipen-koroa, betirako bizia, eman-go dizuet.

11 Ulertzeko gauza denak uler beza Espirituak eliz elkarteei esaten diena. Garai-leari ez du bigarren heriotzaren zigorrik jasango.

Pergamoko eliz elkarteari

12 Idatz iezaiozu Pergamoko eliz elkartearen aingeruari: Hona zer dioen aho-biko ezpata zorrotza duenak: **13** Badakit ongi non bizi zaren: Satanasek bere tronua duen lekuan. Nirekiko leial irau duzu, eta ez duzu ukatu nireganako fedea, ezta Antipas nire lekuko leiala zuen artean, Satanasek bizi den toki horretan, hil zuten egunetan ere.

14 Badut, ordea, zertxobait zure aurka: hor dituzula zeurekin Balaanen irakatsiei jarraitzen dieten batzuk; hark irakasten zion Balak-i israeldarrak nola erorarazi bekatuan, sasijainkoei eskainiriko haragia jatera eta Jainkoarekiko desleial izatera bultzatuz. **15** Era berean, zuk ere badituzu nikolaiten irakatsiei jarraitzen dieten batzuk. **16** Damu zaitez, beraz; bestela, zuregana joango naiz laster eta horien aurka borroka egingo dut neure ahoko ezpataz.

17 Ulertzeko gauza denak uler beza Espirituak eliz elkarteei esaten diena. Garai-leari mana ezkutua emanen diot, eta harritxo txuri bat ere bai, eta harritxoan izen berri bat idatzia, hartzen duenak bakarrik ezagutuko duena.

Tiatirako eliz elkarteari

18 Idatz iezaiozu Tiatirako eliz elkartearen aingeruari: Hona zer dioen Jainkoaren Semeak, begiakugarra bezalako eta oinak brontze goriaren antzeko dituenak: **19** Ezagun-ezagunak ditut zure egintzak, zure maitasuna, fedea, zerbitzugintza eta eramanpena; zure azken egintzak lehenengoak baino ere bikainagoak dira.

20 Baina badut zerbait zure aurka: bere burua profetesatzat duen Jezabel horri utzi egiten diozula bere irakatsiekin nire zerbitzariak engainatzen, Jainkoarekiko desleial izan eta sasijainkoei eskainiriko haragia jatera bultzatuz. **21** Astia eman diot damu dadin, baina ez dio bere desleialkeriari uko egin nahi izan. **22** Hara, gaixotasun larria bidaliko diot berari, eta atsekabe handia berarekin desleialkerian bat egin dutenei, jokabidez aldatzen ez badira. **23** Haren jarraitzaileak heriotzaz joko ditut, eta jakingo dute eliz elkarte guztiek ni naizela buru-bihotzak ikertzen dituen eta zuetako bakoitzari bere egintzen arabera emango diena.

24 Zuek, ordea, Tiatirako besteok, ez duzue onartu doktrina hori eta ez duzue ezagutu «Satanasen barrunbeak» deitzen duten hori. Zuei ez dizuet beste zamarik leporatzen; **25** eutsi kementsu orain duzuenari, ni itzuli arte. **26** Garaileari, nire nahia egiten azkenearaino irauten duenari, agintea emango diot nazioen gain, **27-28** nik neure Aitarengandik hartu dudan agintea; burdinazko makilaz gobernatuko ditu, buztinezko ontzia bezala puskatuko. Gainera, goizeko artizarra emango diot.

29 Ulertzeko gauza denak uler beza Espirituak eliz elkarteei esaten diena.

Sardesko eliz elkarteari

3 **1** Idatz iezaiozu Sardesko eliz elkartearen aingeruari: Hona zer dioen

Jainkoaren zazpi espirituak eta zazpi izarrak dituenak: Ezagun-ezagunak ditut zure egintzak; bizi denaren itxura duzu, baina hilik zaude. **2** Zaude erne, eta indarberri ezazu oraindik bizirik daukazuna, erabat hil baino lehen. Zure jokabidea nire Jainkoaren aurrean behar bezain ona ez dela ikusi dut. **3** Oroit zaitez nola entzun eta onartu duzun mezua: euts iezaiozu, aldatu jokabidea. Zeren, erne ez bazaude, lapurra bezala etorriko bainaiz, gutxien espero duzun orduan etorriko ere. **4** Baina badituzu Sardesen beren jantziak zikindu ez dituzten batzuk. Nirekin ibiliko dira zuriz jantzirik, merezi baitute. **5** Garailea zuriz jantziko dute, eta ez dut kenduko haren izena biziaren liburutik; eta haren alde aterako naiz neure Aitaren eta honen aingeruen aurrean.

6 Ulertzeko gauza denak uler beza Espirituak eliz elkarteei esaten diena.

Filadelfiako eliz elkarteari

7 Idatz iezaiozu Filadelfiako eliz elkartearen aingeruari: Hona zer dioen santuak, egiazkoak, Dabiden erreinuko giltza duenak —hark irekia ezin du inork itxi, eta hark itxia ezin inork ireki—: **8** Ezagun-ezagunak ditut zure egintzak, eta inork itxi ezin duen atea utzi dut zure aurrean zabalik. Indar handirik ez duzun arren, onartu duzu nire mezua eta ez duzu ukatu nire izena. **9** Horra, Satanasen elkarteko batzuk emango dizkizut nik eskura, judu direla esan arren gezurrontzi huts direnetariko batzuk; zure oinetan ahuspez jartzera behartuko ditut, maite zaitudala jakin dezaten. **10** Iraunkor izateko nire agindua gorde duzulako, nik ere gordeko zaitut, lurreko bizilagunak probatzeko mundu osora iristear dagoen probaldikoan. **11** Laster nator. Eutsi daukazunari, zeure garaipen-koroa inork ere ken ez diezazun.

12 Garailea neure Jainkoaren tenpluko zutabe egingo dut, eta ez da gehiago handik irtengo; neure Jainkoaren izena eta neure izen berria idatziko ditut harengan; bai eta neure Jainkoaren hiriaren izena ere, zerutik, nire Jainkoarengandik, jaisten den Jerusalem berriaren izena.

13 Ulertzeko gauza denak uler beza Espirituak eliz elkarteei esaten diena.

Laodizeako eliz elkarteari

14 Idatz iezaiozu Laodizeako eliz elkar-
tearen aingeruari. Hona zer dioen Amen-
ek, testigu leial eta egiazkoak, Jainkoak
egindakoen sorburuak: **15** Ezagun-ezagu-
nak ditut zure egintzak. Ez zara hotz, ez
bero. Ai hotz edo bero bazina! **16** Baina epel
zarela eta ez bero, ez hotz, botagura ema-
teraino nazkatzen nauzu. **17** Hau diozu:
«Aberats naiz, oso aberats, ez dut ezeren
beharririk»; eta ez dakizu gizarajoa zarena,
errukarri eta behartsua, itsu eta biluzik zau-
dena. **18** Aholku hau ematen dizut: eros
iezadazu zeuretzat sutan garbituriko urrea,
aberats zaitezen, eta soineko zuriak zeure
burua janzteko, larrugorri lotsagarritan ager
ez zaitezen; erosi kolirioa begietan emate-
ko, ikus dezazun.

19 Maite ditudanei egiten diet agiraka nik
eta horiek zentzarazten ditut; izan, beraz,
sutsu eta aldatu jokabidez. **20** Hara, atean
nauzu deika; norbaitek nire ahotsa entzuten
badu eta atea ireki, harenean sartuko naiz
eta elkarrekin afalduko dugu.

21 Garailea neurekin eseraraziko dut
neure tronuan, neu ere garaile izan eta neu-
re Aitarekin beronen tronuan eseri naizen
bezala.

22 Ulertzeko gauza denak uler beza Espi-
rituak eliz elkarteei esaten diena.

Emakumea eta herensuge gorria

12 ¹ Seinale handi bat agertu zen
zeruan: emakume bat, eguzkiz
jantzia, ilargia oinazpian eta hamabi izarre-
ko koroa buruan. **2** Haurdun zegoen, eta
erdiminez eta haurgintzako oinazez garrasi-
ka ari zen.

3 Beste seinale bat agertu zen zeruan:
herensuge gorri handi bat, zazpi buru eta
hamar adar zituena, eta buruetan koroa
bana. **4** Bere isatsez zeruko izarren herena
herrestan hartu eta lurrera jaurtiki zuen.

Herensugea, haurra izateko zegoen ema-
kumearen aitzinean gelditu zen, jaio bezain
laster semea irensteko. **5** Emakumeak semea
izan zuen, herri guztiak burdinazko makilaz
governatuko zituena. Semea hartu eta Jain-
koaren tronuraino eramane zuten. **6** Emaku-
meak, berriz, basamortura egin zuen ihes;
han bazter bat prestatua zion Jainkoak, mila
berrehun eta hirurogei egunez bertan bizi
zedin.

7 Ondoren, gudua izan zen zeruan: Mikel
eta beronen aingeruak herensugearen aurka.
Herensugea eta beronen aingeruak gogor
borrokatu ziren, **8** baina ezin izan zuten
garaitu, eta aurrerantzean zeruan ez zen
tokirik izan haientzat. **9** Bota egin zuten,
beraz, herensuge handia, antzinako sugea,
deabru eta Satanas deritzana, mundu guztia
engainatzen duena; lurrera bota zuten bere
aingeruekin batera. **10** Orduan, ahots handia
entzun nuen zeruan esaten:

*«Orain etorri dira
gure Jainkoaren salbamena,
indarra eta erregetza,
eta beraren Mesiasen agintea;
bota baitute gure senideen salatzailea,
gau eta egun Jainkoaren aurrean
salatzen zituena.»*

11 Bildotsaren odolaz
eta aitortu duten mezuaz
garaitu dute gure senideek:
ez dute beren bizitza maite izan
heriotzaren aurrean
atzera egiteko beste.

12 Poztu, beraz, zeruak
eta bertan bizi zaretenok.
Errukarriak, ordea, zuek, lur-itsasook!
Zuengana jaitsi baita deabrua
amorru biziz,
denbora gutxirako dela jakinik».

13 Herensugea, lurrera bota zutela ikustean, semea izan zuen emakumeari jarraika hasi zitzaion. **14** Baina bi arrano-hego handi eman zizkioten emakumeari hegan basamortura joan zedin, han, sugearengandik urrun, hiru urte eta erdiz bizitzeko prestatua zuen tokira. **15** Orduan, ur-ibaia bota zuen ahotik emakumearen kontra, ibaiak emakumea eraman zezan. **16** Baina lurra emakumeari laguntzera etorri zen: zabaldu egin zen eta herensugeak ahotik botatako ibaia irentsi egin zuen. **17** Orduan, herensugea, emakumearen aurka amorraturik, beronen gainerako ondorengoak borrokatzera joan zen, Jainkoaren aginduak bete eta Jesusen testigantza leial egiten dutenak, alegia.

18 Herensugea itsasertzeko hondarretan gelditu zen zutik.

Bi piztiak

13 ¹ Orduan, piztia bat ikusi nuen itsasotik irteten; hamar adar eta zazpi buru zituen, adarretan koroa bana eta buruetan Jainkoaren kontrako izen iraingarriak. ² Piztia lehoiabarraren antzekoa zen; hankak hartzarenak bezalakoak eta ahoa lehoiarena bezalakoak zituen. Herensugeak bere indarra, bere tronua eta ahalmen handia eman zizkion. ³ Haren buruetariko bat zauritua zegoen, hilzorian bezala; baina

heriotza-zauri hura sendatu egin zitzaion; lur osoa, liluraturik, piztiaren ondoren zihonan. ⁴ Denek herensugea gurtu zuten, piztiari ahalmena eman ziolako, eta piztia ere gurtu zuten esanez: «Nor piztia adinakorik? Nor borroka daiteke beraren aurka?».

⁵ Handikeriak eta Jainkoaren aurkako irainak esateko baimena eman zioten piztiari, eta berrogeita bi hilabetez jarduteko ahalmena. ⁶ Eta hala egin zuen hark: Jainkoaren aurka birao egin eta beronen izena, santutegia eta zeruan bizi direnak iraindu zituen. ⁷ Santuen kontra borroka egin eta haiak menderatzen ere utzi zioten; eta arraza, herri, hizkuntza eta nazio ororen gain agintea eman zitzaion. ⁸ Eta lureko bizilagun guztiek gurtuko dute, lepo eginiko Bildotsaren biziaren liburuan beren izenak munduaren hasieratik idatzirik dituztenak izan ezik. ⁹ Ulertzeko gauza denak uler beza:


10 «Gatibutzarako dena
gatibutzara doa.
Ezpataz hil beharrekoa
ezpataz hilko da».

Hor agertuko dira fededunen eramanpea eta sinesmena.

¹¹ Gero, beste piztia bat ikusi nuen lurretik irteten; bi adar zituen, ahariarenak bezalakoak, baina herensugea bezala mintzo zen. ¹² Piztia honek lehengoaren ahalmen guztia erabiltzen du bere zerbitzuan, eta lurra eta lureko guztiak bultzatzen ditu heriotza-zauria sendatu zitzaion lehenengo piztia gurtzera. ¹³ Mirari handiak egiten ditu, zerutik lurrera jendaurrean sua jaitsarazteraino. ¹⁴ Piztiaren alde mirariak egiteko ahalmena eman zitzaion eta mirari horien bidez liluratu egiten ditu lureko bizilagunak, eta ezpataz zauritua izan arren bizirik dagoen piztiaren ohorez irudi bat egiteko agintzen die. ¹⁵ Piztiaren irudiari bizi-arnasa emateko ahalmena ere eman zitzaion, irudiak hitz egin zezan eta bera adoratzen ez zutenak hil zitzaion. ¹⁶ Guztiei, txiki

nahiz handi, aberats nahiz behartsu, libre nahiz esklabo, eskuineko eskuan nahiz bekokian marka bat eramanarazi zien, **17** eta marka hori —hau da, piztiaren izena edo izenaren zenbakia— zeramanak bakarrik

eros edo sal zezakeen zerbait. **18** Hemen jakinduria behar da: buruargi denak asma dezala piztiaren zenbakiaren esanahia, gizon baten zenbakia baita. Zenbakia seiehun eta hirurogeita seia (666) da.



a-A

- abagune:** okasione, parada
abantail: bentaja
abaraska: ezti-orrazi, kofoin
abaro: itzal, aterbe
abegi on: ongietorri, batzarri on / harrera on
abeltalde: kabale-saldo, abere-talde
abelgorri: behi-motako abere
abeltzain: aberezain, kabalezain
abere-aska: abereen jantoki
abere: animalia ugaztun, kabale
abestu: kantatu
adabaki: betatxu, puska / erremiendu
adats: bilo, buruko ule-multzo
adats-kizkur: buruko ile / ule bihurritu
bilo-izur
adierazi: jakinarazi, entelegarazi
adierazpen: esanahi, erranahi
adimen: zentzu, entelegü
adin: edade
adina: bezainbat / beste, lain
adinako: heineko, bezalako / lako
adiskide min: adiskide-adiskide
adore: kemen, kuraia
adoretsu: suhar, kartsü / gogatsu
adoretu: kuraia / bihotz eman
ados: konforme, bat etorri
adreilu: brika, adrillü
afalostean: afalondoan, aihalondoan
agian: beharbada, heldubada
agindu: manatu / hitzeman
aginpide: nagusigo, buruzagitza
agintari: buruzagi, nagusi
aginte: botere, manü
agintzari: promes, hitzeman
agiraka egin: haserre egin, kexarazi
agor: antzu, fruitugabe
agudo: laster, zalhe/-u
agure: adineko gizon
ahalbait lasterren: hainbat arinen / zaluen
ahalegindu: egin ahala egin
ahalmen: indar, ahal
ahari: marro, aharito
ahaztu: ahantzi, ahatzte
aholku: kontseilu
ahots: mintzo
ahuntzile: ahuntzaren ile, ahuntzule
ahuspez: ahozpez
aiene: auhen, intziri
aintzakotzat hartu: ik. aintzat hartu
aintzat hartu: estimatu, kasu egin
aintzira: laku
aipu: entzute, soinu
aitalehen: herri-guraso, arbaso
aitorde: aita-orde
aitzaki: estakürü, atxakia
aitzindari: aurrelari, aurretik doana
aitzinean: aurrean
aitzitik: alderantziz, akontrari
aizto: ganibeta, labana, nabela
akabatu: bururatu, urrentu
akabera: bururatzte, amaiera
akats: hoben, huts, nokü
alabaina: hala ere / halaxe
alafede: ala jinkoa!, ala zangoa!
alaikiro: alegeraki, botzik
alarguntsa: emakume alargun
albistari: berri-emaile
albiste: berri, gertakari
albo: ondo, saihets
aldamenean: ondoan, alboan
aldarrikatu: deiadarkatu, oihükatü
aldegín: eskapatu, leküa hüstü
aldu: urrundu, baztertu
alderantziz: aitzitik, batekoz bestera,
bestetara
alderatu: konparatu
alderik alde: aldeanbeste, alde alde
alde aurretik: aurretiaz, aitzinetik
aldezkatu: aldeko izan, alde jokatu
ale: bihi, garau
alegia: ipuin / hau da, hots
alena!: handiak!, alahenak!, halangoak!
aletegi: bihitegi, garautegi
aletsu: bihidün, garautsu
alfonbra: tapiza
algara: barre handi, karkaila
almendra: amanda, fruitu-mota
alokairu: lansari, errenta
alokatu: errentan hartu/eman
alor: soro, landa, solo / arlo
altuegi: goregi

altuera: goratasun
amaiera: bururatzte, ürrentze, bukaera
amaitu: bururatu, ürrentü
amarru: abilezia, axerikeria
amarrukeria: azpijoko, axerikeria
amildu: erori, larrütü
amodio-garai: amodio-sasoi
amore eman: besteren iritzira makurtu
amorratu: errabiatu
amorru: haserre, errabia
amuku: kapita, ütztüpa / amelu
amustu: lanpüstü
anda: gainean zerbait eramateko bi hagadun tauladura
anega: izari, 55 litro/kg inguruko unitate
anitz: asko
anker: krudel, gupidagabe
anoa: eguneko janari-fardel
antoisin: pegar, edateko ontzi
antolatu: moldatu, eratu
antsi: lastura, larritasun
antzaldatu: itxuraldatu
antzeko: iduriko, gisako
antxume: pittika, ahüine
antzeman: ohartu, igarri
antzera: gisa, bezala
antzigar: lantxurda, izotz
antzina: behiala, ordu hetan
antzu: agor, fruitugabe
apaindura: edergailu
apar: bits, hagün
apatx: aztapar, azüzkülü
apologia: defentsa
apropos: behar bezalako
apur bat: pixka, koxü
apurtu: suntsitu, puskakatü
arakatu: miatu, ikertu
arantza: elorri, kardo
arau: erregela, lege
arazo: problema, arrenküra
arbuiatu: mesprezatu, hastiatu, gütietsi
ardandegi: arnotegi, soto
ardi-gantza: ardi-urin, ziho, milgor
arduratu: arta hartu, axolatü
are: oraindik gehiago
areago: gehiago, haboro
areagotu: emendatu, gehiagotu
arean: areaz (laborantzako tresna bereziaz) lan egin
arerio: etsai, ixterbegi
argal: mehar, flakü
argimutil: ganderailu, argizanko
argizari: ezko
argizuzi: tortxa, xirio
argudio: arrazoi, arrazu

arkakuso: kukuso
arkazia: akazia
arkazi-zur: akazi-zur / egur
arkulari: arranbel-tirari
arkume: bildots, axuri
armazoi: xarpanta, zureria
arnasa: hats
arnasaldi: hatsaldi
aro: aldi, garai
arotz: zurgin, maiastarü
arrabeteka: zeheka
arragoa: urrea urtzeko ontzi
arrakasta: exitu, ondore on
arrapaladan: lasterka, korrika
arras: erabat, guztiz
arrastaka: herrestaka
arrasto: herexa, aztarna
arren: otoi, mesedez / *etorri arren:* etorriagatik / *etortzearren:* etorri nahiz
arren eta arren: otoička
arrenka: eske eta eske
arrenkura: dei, otoi / kexa
arreta: arta, kasu emate
arriskatu: irriskatu
arrisku: irrisku
arrosondo: larrosondo
arrotz: lanpotar, ezezagun
arrubio: eskorpioi
arrunt: ohizko, nonnahiko
artadi: arte-toki, abarizketa / arto-soro/ -alor
artatxiki: arto ttipi, millet
arte: abari, hosto iraunkorreko zuhaitz
arteondo: arte, abaritze
artisau: ofiziale, eskulangile trebe
asaba: arbaso, aurreko
asaldatu: bühürtü, larritu / aurka jaiki
asaldura: nahasmendu, haserrealdi
askatu: laxatu, libratü
aske: libro
aski: nahikoa
asmatu: igarri, antzeman
asper-asper egin: enoatu, debeiatü
astindu: inarrosi, mugitu
astun: pezü/pisu handiko
at: kanpo
atabaka: diru-kutxa/-untzi
atalaga: atehaga
atalase: atari, harlaze
atalondo: ate-ondo, sargü
atal: parte, membro
atarramendu: aterabide, elkibide
atera: elki, urten
ate-uztai: ate-arku
atundu: antolatu, adelatü
atseden hartu: pausatü

atsekabe: nahigabe, malur
atxakia: estakuru, aitzaki
atxiki: heldu, oratu
atxikitasun: elkartasun, lotura
atxilo: preso
atzamar: erhi, behatz
atzarri: esnatu, iratzarri
atzealde: gibel-alde
atzeman: harrapatu
atzera egin: gibel egin
atzerarazi: gibelarazi
atzerri: kanpo-herri, erbeste
atzeritar: arrotz, erbesteko
atzetik: gibeletik
aukerako: hauta, haütü
aukera: parada, okasione
aukeratu: haütatü, hautetsi
aurka: kontra
aurkeztu: presentatu, aurrean jarri
aurpegi: begitarte, bisaia
aurpegi eman: buru eman
aurrean: aitzinean
aurre egin: buru/kontra egin
aurreirudi: aitzin-etsenplu/-iduri
aurren: lehen, lehenengo
aurreantzean: handik harat, engoitik
aurrearpen: aitzinamendu
aurrez: aurretiaz, aitzinetik
aurrez aurre: bekoz beko, bürüz bürü
ausardi: ausartze, atrebitze
auskalo: nork jakin?, Jinkoak daki!
axola: ardura
azabatxe: mineral-mota
azaldu: agertu, argitü
azkon: fletxa, txista
azkonar: pizti mota, harzku
azoka: merkatu
azpil: asieta, plater
azpiragotu: apalagotu, menpetü
aztarren: herresto
aztertzeke: miatu/ikertü gabe
aztertu: ikertü, begiztatu
azti: sorgin, mago
aztikeria: magia, sorginkeria
aztoratu: izitu, ehelegatu

b-B

babes: geriza
babeski: erredola, geriza
babesle: zaintzaile
bahitura: garantia, berme
bai-bainaka: kordokan, dudan
baieztatu: baietz esan

baikortasun: optimismo
bailitzan: balitz legez / bezala
baitan (norbaiten...): norbaitengan
bala (gari-): gari-sorta, azau, altzau
baldar: herrebes, trukets
baldintza: kondizione, planta
baliatu: erabili, aprobetxatu
baliots: baliotsu
bana: bedera
banako: ale, bakoitz
banan-banan: bederazka, banaka
banandu: bederazka eman, bereizi
banatatik: bakoitzetik
banatu: bana eman, barreiatü
bapo: ederto, ongi
baratza: ortu
barau: barur
barazki: ortuari
bare: lasai, mantso
barealdi: jabalaldi, ezialdi
baretu: jabaldu, eztitu
barik: gabe
barkabera: bihotz oneko
barkazio: barkamendu
barna: zehar
barne: barru
barne-muin: barruko muin
barne-zimiko: txatxamurkada, barruko har
barre: irri
barreiatu: sakabanatu
barren: barru
barrualde: barnealde
barru: barne, barren
barrunbe: barne-toki, barru-toki
bart: barda, joandako gau
basamortu: desertu
basapiztia: ihize
baso: oihan
bat etorri: ados izan
batipat: batez ere
bazkatu: belarra jan, larratu
bederen: behintzat
begirale: zaintzaile
begiramen: axola, errespetu
begirune: ikustate, errespetu
behatz: erhi, atzamar
behaztopa egin: oztopo egin
behaztoparri: oztopo-harri
behazun: gibel-atal, behaztun
behea jo: lurra jo, erori
beila: bela, otoitzaldi
bejondaiala: biba hi!, on deizüla!
bejondeiola: biba hura!, on deiola!
bekaizkeriu: ikusiez, inbidia
bekaizti: inbidia duena

bekoki

bekoki: kopeta, boronte
belaki: müstüka, esponja
belaunaldi: gizaldi
benetan: egiaz, segurki
beraien: beren
beraietan: haietan beretan
berau: hau bera
berealdiko: ugari, handi
berehala: segituan
bere kasa: bere kabuz/kontura
berekiko: berekautan, bere artean
beren: euren, haien
berilo: diamanta
berna: zango
berrantolatu: berriro ordenatu
berreraiki: berriz eraiki, arreraiki
berretsi: finkatu, baitetsi
berriro: berriz, ostera
berriz: ostera, berriro
berorren: horren beraren
bertako: hango bereko, hanko
bertan: han berean
bertatik: handik beretik, hantik
bezainbat: beste, adina
bibelar: 2. ebakialdiko belar, arradail
bidali: igorri
bidazti: bidailari, bidajari
bidegabe: zuzengabe
bidenabar: bitartean / bidebatez
bider: aldiz
bidezko: egoki, zuzen
bigantxa: miga, behi gazte
bigun: mardo, ezti
bihitegi: garautegi, aletegi
bihotz izan: adore izan
bihotz-jausia: bihotz-eroria
bikain: ezin hobe, hautu
bilakatu: bihurtu
bildu: batu
biloba: arraseme
biltzarre: batzarre, bilera
bipi: sits, zerren, pipi
bipildu: lumatu, hondatu
biraka: itzulika
birao: sakre, burau / maldizio
biramolari: sakrekari, bürauti
birfindu: garbi-garbi egin
biritxi: biki, bizki
birjaio: berriz sortu, arrasorta
birjosi: berriz josi
birrindu: xintxikatu, errausta
birsortu: arrasortu
bistamotz: lauso, begillabar
biziotsu: bihurri, gaizto
bizkar (besteren...): besteren lepo/kontura

bizki: biritxi, biki
bizkor: erne / zalhe
blai: busti-busti, xipatu
bolada: denboraldi / buhada
boli: «ivoire», «marfil»
borborka: purpurika, saldoka
bordatu: brodatu
bortizkeria: gogorkeria
botagura: goitik egin nahi
botere: aginpide / ahalmen
branka: itsasuntzi-aurrealde, untziaitzine
bueltaka: itzulika, inguruka
bukatu: amaitu
bular-oskol: burdin geriza/babes,
soin-bürdüin
bulartsuki: ausardiz
bulkada: bultzada
bultza egin: pusatu, bultzatü
buruan (hiru egunen...): hiru egun barru
burubide: aholku, xede
burusi: manta, estalki
burutapen: karkula, asmo
burutazio: asmo, gogoeta
burutsik: buruhas
burutu: amaitu, bururatu
buruzagi: buru, nagusi

d-D

damaskorantz: Damasera buruz
danbateko: banbako, danbada
debekatu: galarazi
deitore: auhen, intziri
desenkusagari: barkagarri
deus: ezer
dilista: «lentille», «lenteja»
dina: gai, on
diosala: agur
dirdaitsu: dirdiratsu
diti: bular
doan: urrik, duban, hutsean
dohakabe: errukarri
dolare: brentsa
dotore: lorios, kriket / apain
duin: gai, hon
duintasun: dinitate, gaitasun
durbante: buru-oihal
durundi: bunbako, düründa

e-E

ebazten: erabakitzen, ebakitzen
ederki: ederto

edonolako: nolanahiko
edonon: nunahi, nonnahi, nahinon
eduki: atxiki, oratu
edukin: barneko mami
egarbera: maiz egarri dena
egiaztatu: egia dela frogatu
eginkizun: zeregin
egitamu: plan, egingei
egitasmu: proiektu, helburü
egoitza: egonleku, bizileku
egokiera: parada on, xantza
egotzi: leporatu, besteren gain ezarri
egundaino: behin ere / gaur arte
egundoko: haundi, egüdanoko
egusenti: goizargi, argiazkorri
egurats: atmosfera, aide
eguzki-errainu: eguzki-inar, ekileinürü
eho: oihala egin / alea xehatu
ehortzi: lur eman
ehule: oihal-egile
ehun: oihal /100
ehundura: ehodara, oihal-egite
ehuntari: ehun soldaduren buru
ekialde: eguzkialde, sortalde
ekialderantz: ekialdera buruz
ekin: (lanari) lotu, (lanean) hasi
elbarri: enbalditu, paralisiatu
elikagai: hazkurri, janari
elikatu: jan
elkor: idor, lehor
eltxo: ulitxa, üülü
elur-bisuts: elur-erauntsi
emagin: emagintsa, «comadrona»
emaitza: fruitu
emakume: emazteki
eman dezagun: egin/pentsa dezagun
emankor: fruituz aberats
emari: opari, emaitza
enplasto: mantar, herskailü
entzute: omen, fama
epaitu: iuiatu
era: gisa, molde
erabaki: trenkatu
erabat: arrunt, osoki
erabateko: oso, betiko
eragin: eginarazi, sustatu
eraginkortasun: eginarazteko indar
eragotzi: debekatu, trabatu
eragozpen: traba, debeku
eraiki: (etxea) jaso/altxatu
eraikin: eraikitako zera
eraikuntza: etxagintza
eraitsi: eratzi, lurrera bota
erakarri: norberegianatu, ekarrarazi
erakargarri: liluragarri

eralgi: gastatu, xahutu
eramanezin: ezin jasan
eramanpen: pazientzia, eroapen
eranskin: gehigarri, emendio
erantsi: emendatu, gehitu
erantz: idoki, elki
erasoaldi: atakaldi, jauki
erasotzaile: jazarle, pertsegitzaille
erasotu: oldartu, jaukitu
eratu: moldatu, antolatatu
erauzi: elki, idoki, errotik kanporatu
erbeste: atzerri, desterru
erdaindu: zakilmuturra ebaki
erdainkuntza: zakilmuturraren ebakidura/ebakitza
erdeinu: iseka, mespretxu
erdibitu: bi erdi egin
erdietsi: lortu, iritsi
erdimin: umea egiteko min
eredu: etsenplu, ikasbide
ereintza-garai: ereite-sasoi
ereinotz: zuhaitz-mota
ergel: ahul, mali
eritasun: gaixotasun
erkidego: herri-kidego, elgarretaratze
erlakizten: zaldar, hantura
ernari: ume beha egon
ernamuin: muskil, bürno
ernamuindu: muskildu, bürnatü
erne: adi, zain-zain
ernearazi: pusarazi, sorrarazi / akulatu
erorbide: eskandalo
erori: jausi
eroso: aiseko, kaan
erosta: auhen, intziri, aiene
erostari: lanbidez negar-egile
erpuru: erimutur, behatz-mutur
erraldoi: gizon-emazte gaitz, gigante
erraustu: desegin, txikitu
errautsi: suntsitu, hauts bihurtu
erraz: errex
errebeld: bühürri
erregali: presenta, ikustate
erregu: otoitz, galde
erregutzaile: otoizlari
erreinatu: errege izan/bizi
errekasto: erreka, errekaxta
errementari: burdin arotz
erreskada: lerro, herronka
erresuma: erreinu
erreten: arroil, urbide
erretilu: plater handi
erretorde: errege-orde
errieta: ahar, gasail
erro: zuztar, sustrai

erroilu: bildu, bilgu
errolda: kondaketa, zenbaketa
erromes: beilari
erronka: desafio, apostu
errota: eihera
errotarri: eihera-harri
erru: hoben, oker
errubi: txingarri, malakita
errudun: hobendun, ogendun
errukitu: urrikaldu, ürrikaltü
erruki: urriki, ürrikalmentü
erruz: asko / hobenez
ertz: bazter, hegi
esamesak: erran-merranak
esanahi: erranahi
esaneke: obeditzen duen
eseki: zintzilik jarri, eskegi
eseri: jarri, jezarri
eskailera: zurubi
eskale: eskeko
eskari: galde, galto
eskarmentu: irakaspen, esperientzia
eskorta: arditegi, korrале
eskua erantsi: eskua bota, jabetu
eskualdatu: eskutik eskura eman
eskualde: komarka, bailara
eskuarki: gehienetan
eskuhartu: parte hartu
eskumen: eskukada
eskumendean: mendeko, menean
eskupekozale: azpi-sarizale
esnai: iratzarririk
esnatu: atzarri, iratzarri
espa: jeloskeria, ardura
espaloi: oinbidea errepidean, karrika-bazter
esparru: alagune
estali: tapatu
esteban: Estebe
estropezu eragin: behaztopatu
estualdi: herstüra, larrialdi
estuason: ik. estualdi
estu: tinki, larri
estutu: larritu / tinkatü
etekin: mozkin
eten: trenkatu, ürratü
etorkin: kanpotik jina, inmigratu
etorkizun: gero
etxola: txabola
etzaulki: etzan-aulki
eultz: garia jotzeko tresna, eltzü / gari-bala /
 -eskutada
eurijasa: eurite
euskarri: sustengu
eutsi: atxiki, etxekei
ezabatu: desegin, txikitu

ezaguera: jakitate
ezbaian: zalantzan
ezertan: deusetan
ez ezik: ez bakarrik
ezeztatu: ezetz esan
ezik: salbu
ezkabi: buru-azaleko gaixotasuna dakarren
 harra, gaixotasuna bera
ezkutari: gudulagun
ezkutatu: gorde, kukutu
ezkutuan: gordean
ezkutu: erredola, babeski
ezpateuli: mamutz, espere
ezponda: aldapako lur-zatia eraikuntza edo
 ibai ondoan
eztarri: züntzür
eztei: eztegu
eztei-otordu: apairü, ezteijatordu
eztei-segizio: eztei-laguntalde
eztenkada: ezten-ukaldi, ezten-kaldü

f-F

fardel: bidezorro
fatxada: aitzinalde, aitzine
fido izan: fidatu, ustea jarri
finkatu: sendotu, gogor ezarri
funts: mami, fundamentu

g-G

gabirai: xoriharrapari
gainbehera etorri: kordokatu
gaitzetsi: kondenatu, gaitzatz eman
gaitzespen: kondenazio
gaixo: eri
gaizkiesaka: gaizkierranka
gaiztotu: gaizkondu, gaixtotü
galbahe: ogi-bahe / gari-bahe
galburu: ogiburu
galeper: hegazti-mota, kalla
galarazi: debekatu
galga: arrasta, frenu
galirin: ogirin, gari-urrun
galtzu: lasto
ganadu: aziendak
ganorazko: baliozko, baliiodun
gantzutu: olioak kotsakratu/bereizi
garaile: irabazle
garaiz aurretik: denbora baino lehen
garato: handitu, hazi
garau: bihi, ale
garautsu: aletsu, bihitsu

garden: garbi-garbi, zehargi
gardu: kardo
garesti: kario
garibala: ogi-floka, gari-sorta
gari: ogi
garipilo: ogimeta
garisoro: ogi-alor
garisorta: ogi-floka, ogiazau
gariuzta: ogiuzta
garraiatu: karreatu
garrasi: orroa
garratz: larri, latz
gastatu: higatu / eralgi, xahutu
gatibu: preso
gatzaga: gatz-lekü
gaurdaino: egündaino
gaugero: gaurtik aurrera
gauza izan: on/gei izan
gaztaro: gazte-denbora
gaztun: bizi / gazi
geldo: nagi, lazü
geraldi: geldi-aldi, eküraldi
geratu: gelditu, eküratü
geroztik: harez gero
gerrate: gerla-aldi
gertu egon: prest egon
gertu: hurbil
geruza: kapa, azal
gesala: gatza duen ur
gezurrontzi: gezurti
gezi: azkon, fletxa
gidari: zuzendari / bide-erakusle
giltzarri: ixkin-harri
giltzurrun: giltxurrin, giltzürrün
girgilu: burdin esteka, katea
gizarajo: gizagaixo
gizaseme: gizonezko
gizateria: jendalde, jendetze
gizendu: loditu
gizonkote: gizon handi
goazeman: goazen, goatzan
gogaikarri: aspergarri, nekagarri
gogait eragin: nardatu, okaztatü
gogaketa: hausnarketa, pentsaketa
gogoberotu: adore/kemen eman
gogoeta: hausnarketa, pentsaketa
goibel: ülün, triste
golda: laborantza-tresna
goldaketan: goldez iraultzen/ützültzen
goldan: goldez lan egin
goldarrasto: golde-ildo
gomendatu: aholku eman
gomendio: errekomendazio, aholku
goradei egin: auziketan goragoko
 auzimahaira jo

goralpen: goresmen
gorantza: zeru aldera, zelüalde
gorantz: goitibürüz
gorazarre: goresteko/goraltzeko bertso
gorbizi: elkortasun/gor handi
gordailu: altxor
gorde: atxiki / kukutu
gorespen: gorapen, goralpen
goretsi: goraldü, gurtu
gori: gorri-gorri, sutan
gorotz: ongarri, simaur
gorpu: gorputz hil, hilotz
gorrimin: gorri-gorri, gorribizi
gorrotagarri: higuingarri
gorrotatu: hastiatu
gorroto: herra, hastio
gorteiu: jende-taldea lagun
gortina: erridau
gortu: elkortu
goru: murkuila, kukuilu
gotor: azkar, sendo
gotorleku: defentsaleku
gotortu: azkartu, defenditu
gubia: zurgin-tresna
gudaloste: armada, gudari-talde
gupibera: errukior, onbera
gupida: urrikalmendu, erruki
gupitu: urrikaldu, errukitu
gurari: nahikeria, desio
gurdi: orga
gurditeria: orgazione, orga-alde
guri: emankor, gizen
guritasun: gizentasun
gurpegiak: errota-/gurpil-ardatz, naxa
gurpil: errota
gurtu: adoratu, gü egin
gurtzaile: adoratzaile
gurtza: adorazio, gü
gutizia: nahikeria
gutun: eskutitz, karta

h-H

habaila: harriak botatzeko tresna
habailari: harri-jaurtikitzzaile
habe: pilare
habia: ohantze, kabi
hainbat: beste, adina
haitz: harri, peña, botxü
haitzarte: harri arte, harrarte
haitzorrotz: harri-zorrotz
haize-bolada: haize-buhako, haizealdi
haize eman: ufatu, buhatü
haizerauntsi: haize-bolada

idor: lehor
idulki: oin-aulki
idun: lepoko / sama
igarkizun: asmakizun
igarle: asmatzaile
igaro: iragan, igaran
igarobide: pasabide, igarangi
igaroleku: ik. igarobide
igarri: aitzinetik ikusi, asmatü
igeltsero: plastur
igitai: uzta ebakitzeko tresna
igitaitu: igitaiz moztu/ebaki
igo: igan
igorri: bidali
igurtzi: gantzutu, torratu
ihardetsi: erantzun
iharduera: lanmolde
ihardun: ari izan / lan
ihintz: iruntza / inontz
ihintz-geruza: ihintz-axal
ikaragarri: beldurgarri, izigarri
ikertu: aztertu, arakatu
ikuilu: aberetegi, korta
ikur: seinale, ezaugarri
ikuskari: ikuspen, goi-ikuskitun
ile: ule, bilo
ilinti: itxendi
inausi: adarrak moztu
inauskai: adarak mozteko tresna
inbidia: jeloskeria, bekaizkeria
indarge: indargabe
inola: ezelan, nehola, ihola
inork: nehork
intzirika: orroaz, auhenka
inude: haur-zaintzaile, amaño
inurri: xinurri, ainuarra
ipini: ezarri
ipurmasaila: ipur-mamina
ipur-mokor: ipurdi-konkor / ipurtondoko okela
ipuru: landare-mota, orre
irabiatu: nahastu
iragan: igaro
iragarri: anontzatu, aurrez jakinarazi
iraindu: laidoztatu, eletxarkatu
irain: laido, eletxar
iraitzi: haizata, bota
irauli: uzkaile, itzuli, amildu
ireki: zabaldu, ideki
irendu: xikitatu, osata
irentsi: tragatu, gaintitü
iren: xikitatu, osatü
irispide: heltzeko bide, egingarri
iritsi: heldu, jin
iritzi: ideia, abürü

irizpide: iuiamendu
irla: uharte
irribarre: irri
irrika: grina, tirria, gogo
irrikatu: gutziatu, nahi üken
irristatu: lerratu, labaindu
irrits: nahikünte, grina
irteera: jalgitza, elkigia
irten: jalgi, elki
irudi: iduri, itxura, eite
iruzurti: gezurti, engainatzaile
iruzur: trufa, engainio
isats: buztan
iseka: burla
iskanbila: gatazka, nahaskeria
iskilu: arma
isladatu: mirailatu, agertu
ispilu: mirail
istilu: gatazka, nahaskeria
istinga: lupetza, lohi-toki
isun: amanda, multa
itaizur: itogin, itaxura
itsasondo: itsaso-zola
itogin: itaxura, itaizur
itsasarotz: itsasuntziko zurgin
itsasgizon: itsasturu, marinel
itsaspen: atxikimendu, lotura
itsatsi: lotu, landareak hartu
itsumustuka: ütsü-mandoka
itun: batasun, hitzarmen
iturburu: iturri, sorburu
itxaron: beha egon, haiduru egon
itxaropen: esperantza, egürükantxa
itsasertz: itsasbazter
itxi: hertsu, zarratu
itxitura: hesi
itzali: amatatu
itzuli: bihurtu
ixipu-sorta: isopa-tusta, isopaeli
ixten: hersten, zarratzen
izadi: natura
izain: zizain (har odol-xurgaitzaile)
izara: mihise, maindira
izei: zumar (arbola)
izeki: sueman, biztu
izenburu: titulu
izengoiti: ezizen, gaitzizen
iziotu: süeman, biztu
izter: azpiki, ixter
iztupa-hari: liho-soka
izu: lazdüra, ikara
izugarri: ikaragarri, handi
izurri: peste, üzürrite
izutu: beldurtu, ikaratu

j-J

jabetu: ohartu / nagusitu
jadanik: dagoeneko
jaio: sortu
jaiotza: sortze
janari-banaketa: partekatze, bederazkatü
jangartzu: jale txiki, apürjale
jan-irrika: jateko gogo bizi
jaramon egin: kasu egin
jaregin: libratu, askatu
jarein-sari: askapen-sari, librasari
jarrera: portaera, planta
jasan: sufritu
jaso: altxatü, eraiki
jator: ezin hobe, gisako
jatorri: etorki, arraza
jatorriko: odoleko, ariako
jaulki: erori, bota
jaurtiki: ihautiki, bota
jausi: erori, jaitsi
jauzi: salto
jazargoa: etsaigoa
jela: karroin, izotz
jendilaia: jendezione, jendetze
jentil: judu ez dena
jentil-herri: judu ez den herri
jipoi: zafraldi, astinaldi
jipoitu: zigortu, zafratu
jira: itzuli
jirabira: inguruka, itzulika
jomuga: helburu
jopuntu: helmuga, «diana»
jori: aberats, ugari
jorratu: landu, aztertu
Jose: Josepe, Jasef
judizio: iuiamendu
juramenduka: zin eginez / biraoka, sakreka

k-K

kabuz (bere...): bere baitarik, bere kasa
kaio: itsasurtzo
kaleburu: karrikaburu
kantoi: izkin, kantu
kareharri: gisuharri, latsünarri
kareore: karez egindako ore/masa
kasa (bere...): bere baitarik/kontura
kaskarrean jo: bürüan jo
kasualitate: errekontru, ustegabe
katamarka: lau-hankan/-zangoka
katea: gatina
katigatu: esteki, kateaz lotu

kaxkar: ttipi, ahul, txiki
kazkabar: txingor, zitzer
kedar: tximiniako zikina
kementsu: suhar, adoretsu
ke-mordo: ke handi
kideko: pareko, lagun
kikildu: lotsatu / ukurtu
kimu: aldaska, muskil
kirika: ezkututik begira/so
kirikino: sagarroi, triku
kirten: gider
kirtenkeria: astakeria, hünzkeria
kitara: musika-tresna, zitara
kizkur: ile/uile bihurritu, bilo izur
koartel: gudaletxe
koartza: gilenpesker, gartza, hegazti-mota
kobratu: irabazi, eskuratu
kokatu: finkatu, ezarri
kokots: okotz
koldar: beldurti
kolirio: begietarako botika, begihur
koloka: kordoka, zalantza
komentzitu: sinetsarazi
kondaira: historia
konorte: korde, zentzun
konponarazi: arraberritu
konponbide: arraniamendu, antolamendü
konpromezu: elkargoa
kontu egin: kasu eman
konturatu: ohartu
kopuru: multzo, saldo
korail: korail
koraza: bular-babeski, soimburdün
kordegabe: ezagutzagabe, konortegabe
kornalina: mineral-mota, sardio-harri
kriseilu: argi
kristal: berina
kukulu: landareen goi-zati
kulunka: junpaka, balantzan
kutsagabe: garbi, kozügabe
kutsatu: zikindu, kozatü
kuttun: maite
kuzkuzean: zelatan, barrandan
kuzkurtu: kuzkulatu, konkortü

l-L

labain: lerrakor
labana: nabela, ganibeta
laborari: nekazari
laburki: motz
laga: utzi
lagunurko: lagun protsimo
lahar: kapar, nahar

laido: afruntu, irain
laidotu: iraindu
lakari: 3 kilo inguruko ale-neurgailu
landa: zelai, jende-bizilekuz kanpoko paraje
lankide: laneko lagun
lapikoko: eltzeko / lapiko-jana
lapurreta: ohointza, ebaste
lardaskatu: nahasi, nahastekatü
larrain: barrio, samatsa, garia jotzeko leku
larrapote: otte, matxinsalto
larratoki: bazkatoki, alagi
larratu: bazkatu
larre: alatze, alagi
larri: urduri / handi
larrialdi: herstura, trenpützar
larru: narru
larrugorri: buluzgorri, bilaizgorri
larrutan egin: sexu-harremanak izan
larrutu: gabetu, bipildu
larunbat: zapatu, ebiakoitz
lasai: gostuan, goxoki
lastargi: tortxa, xirio
latz: samin, zakar
lau: ordoki, zelai
lausengari: loxintxa-egile, koipe-emaile
lausengatu: zurikeriak egin, balakatü
lautada: ordoki, zelai
lautadarantz: lautada aldera, ordokialat
lazeria: bizitza dorpe/estu
laztan: musu / kuttun, maite
laztandu: besarkatu
legami: altxagarri, altxadara
legen: lepra, legenbeltz
lehertu: zartatu
lehiaketa: norgehiagoka
lehor: idor, lühidor
lehorreratu: idorreratu, lühidorrealatü
leinu: askazi, tribu
leize: harpe, usin
lekuko: testigu
lelo: sujeta, gai
lemazain: untzigidari, itsastürü
lepahetur: lepoko hezur, lepazur
lepamoztu: sama ebagi, lepoa moztu
lepo egin: lepoa/sama moztu/ebagi
leporatu: besteri bota/egotzi
lerde: hagin, adur
lerden: lirain, xotil
leundu: eztitu, leintü
likits: lizun, zikin
likiskeria: lizunkeria, zikinkeria
liluratu: harritu
limosna: amoina
lingirda: lekar-herexa, adur
liskar: aharra, borroka

listu: ttu, txistu
liskarti: aharrari, borrokalari
liztor: leizor, lozabia, erlabio
logale: logura
logaletu: loguratu
lohi: zikin / lokatz
lokarri: uhal, esteka
lokatz: lohi
lorosto: lore-hosto, lore-orri
lorratz: herexa, aztarna
lortu: ardietsi, eskuratu
losa: lauza
lotsa: ahalge
lotsabako: lotsagabe, ahalkegabe
lotsakizun: ahalge, ahalkixün
lotsari: buluzi, sexu-atal
lotsatu: ahalgetu
loxintxa: zurikeria, lausengu
lozorro: lohasma
lubeta: lürremendio, eusteko horma
ludi: lur planeta
luebaki: lur ebagi, labaki
luku: mahats-mordo/-molko
lukurreria: irabazkoikeria, zekenkeria
lukurrero: irabazi-gose, xuhur
lumaia: luma-sail, lumatza
lurbira: lur planeta
lur eman: ehortzi, lurperatu
lur jo: suntsitu, leher egin
lurrin: usaingoza, urrin
lurringin: usain-goxolari
lurrinkai: gauza urrindun
lurrin: urrin
lursail: alor, lurpeza
luzaroan: luzaz
luzaro: luzaz

m-M

magal: altzo
mahaspasa-mordo: mahats-golko idor, mahats-malatü
mahats-ale: mahats-bihi/-pikor
mahatsaro: mahats-garai, mahatsaldi
mahats-mordo: mahats-molko/-golko
mahats-luku: mahats-mordo/-golko
mailadi: mailak
mailatu: kolpatu (fruitua...)
maiseatu: marmarrear ari
maiseatzaile: kritikatzaille
maistra: emakumezko irakasle
maisu-lan: balio handiko obra/gauza
maitasun-espä: maitasun jelosia / zelo
makal: flako, ahul

makaldu: flakatu, ahültü
makurrarazi: plegarazi, okerrarazi
maldizio: sakre, jinko-karraska
malkar: lur harritsu, patar-gune
malko: nigar
mandatari: mezulari, berri-emaile
mandatu: mezu
mandio: bihitegi, garautegi
mantendu: hazi, jana eman / iraunarazi
mantenu: janari, elikagai / iraunarazpen
mantu: soingaineko
mantxa: tatxa, tona
maratila: klikket / txaramel, pasadore
marduldu: azkartu, gizendu
mardul: gizen, on
margo: kolore
marmola: atxuridin
marraka: marrumaka, bürfada
martioilar: hegazti-mota, martxo-oilar
masaila: matela, matraila
masta: untzi-haga
matxinada: oldartze, zimarku
matxinatu: jazarri, oldartu
matxinsalto: otte, ttirritta
mazkal: gaixo, makal
mazpildu: azal-puska kendu egostean ez lehertzeko
mehar: estu
mehatxu: amenazu, zemai
mendate: mendi-portu, mendilepo
mendekatu: mendekioa egin
mendeku: mendekio, bengantza
mendi garai: bortu, mendi altu
men egin: obeditu, makurtu
mesfidatu: fidakaiztu, ez fidatu
mesede: fagore
mesprezu: mespretxu, laido
mezulari: mandatari, berri-emaile
mihaztatu: likatu
mihi: mingain
mikatz: samin, karats
mingain: mihi
mingots: karats, garratz
minio: pintura-mota
mirabe: neskato, sehi
mirari: mirakulu, ikusgarri
mirespen: harridura
mizto: ausiki, ezten
mordoska: saldoska
more: kolore-mota, ubel
morroilo: giltzarrapo, zerrapo
morroi-mirabe: mutil-neskato, sehi
morroi: mutil, mitil
morrontza: mutilgoa, mitilgoa
motots: buruko ile-korapilo

muino: muno, mendiska
multa: amanda, isun
multzo: talde, pilo
murgildu: hondoratu, hurpealatü
murriztu: ttipittu, herta, gutxitu
musker: suaingila, süsker
muskildu: brokata, hosto berriak eman, pipildu
musu: mustur, aurpegi
musu-estalki: mustur-estalki
musukatu: pottaz bete, potkatü
musuzapi: mokes
muzin egin: ez aprobatu, mütürtü

n-N

nabari: nabarmen, bistako
nabarmen: ageriko, nabari
nabilkizu: ebiltzen natzaizu/nitzaizü
nagi: geldo, kemen gutxiko, alfer
nahaspilatu: nahastekatu
nahiera: nahikeria, nahikünte
nakar: txirlaren zatia pitxietan erabilia
nardagarri: higuigarri
nardo: usainki, usain gozo
narrastaka: herrestaka
narrasti: herrestari
nazkagarri: nardagarri, hügügarri
nazka: higuin, hügün
nazkatu: nardatu, hügüntü
neba: neba/arrebetan mutila neskarentzat
negargura: nigar egin nahia
nekazari: laborari
nekosta: zipres, pinu-mota
nerau: nihaurek
neskame: neskato, sehi
neuk: nihaurek
neurekiko: nihauren baitan, nihurtan
norabait: nora ere
norantz: norat buruz

O-O

ogi harrotu: ogi altxatu
ogi-hasikin: lehen mozkin, lehen uzta
ogirin-suil: ogi-urun-ontzi
ohaide: ohe-lagun
oharkabea: konturatu gabe
ohartu: konturatu
ohatila: esku-ohe
ohikune: errito, usantza
ohol: taula
oholtza: estrada, taulada

oihu: deiadar
oin: hanka / solairu
oinaze: sofrimentü
oinazeztatu: sufriarazi
oinaztarri: tximista
oinaztargi: ximixta, iñazi
oinorde-eskubide: ondokotasun-eskubide
oinordeko: nagusigai
oinzola: oinazpi
okaztatu: botaka egin
ok egin: ase, sobera jan
okela: haragi
okerbideratu: makurbideratu, okerrealatü
oker: makur
olatu: uhin, ühain
oldarka: bortizki, indarka
oldarkoi: bortitz, oldarkor
omenez: ohorez
onbera: amultsu, maitagarri
ondare: herentzia
ondorengo: odoleko // segidako
ondorengotza: ondoregoa
onginahi: maitasun, onberatasun
oniritzi: onartu, onetsi
onura: abantail, irabazi
onuragarri: abantail-ekarle, balios
onuratsu: probetxuzko
opa izan: desiratu, nahi ukan
opari: eskaintza, eskentza
oparo: nasaiki, ugari
oraino: oraindino
orbain: mantxa, zikatriza
orbela: hosto idor/erori
oremahai: ogi-aska, oraska
orkatila: aztalbarri, zango-oinen juntura
orpo: aztal, oinaren atzealde
orpotik atera: hondotik atera, zainützüli
ortze: ortzi, zeru-sabai
osasun: osagarri
osasuñtsu: sendo
oskol: atzazal, kaska
ostadar: ortzadar, «Erromako zubi»
ostean: ondoren
ostera: aitzitik, akontrari
ostruka: «autruche», abestruza
ostu: ebatsi, lapurtu
otarre: saski, otzara
otil-egun: altxagarrigabeko-egun
otoi: mesedez, arren
otordu: apairu, jatordu
oturuntza: bazkari handi, jatordu
otzan-otzan: eztiki
otzantasan: eztitasan
ozta-ozta: doi-doi // nekez
oztopatu: trabatu

oztopo: traba
oztopagarri: behaztopagarri

P-P

padura: urtoki, urgune
panderu: atabal ttiki
paraje: bazter, inguru
partaide: partekide, partalier
paseatu: promenatu, haratonakatu
pattar: edari azkar, aguardiente
patu: zorte, halabehar, jinbehar
pegar: pitxer
pertz: bertz, ontzi
petral: aharrari, baratxügaitz
petxa: legar, zerga
pila: pilo, meta
pilatu: metatu
pilo: meta, pila
pisu: pezu, astun // pisatzeko tresna, pezü
pittin: pixka, apür bat
pitzatu: arrailtü, zartatu
pixka: apur, pittin
piztia: ihize
plater: asieta
porrokaldi: zirtzikaldi, hondamenaldi
porrokatu: suntsitu, hondatu
porrot egin: leher egin
portaera: ebilbide, egimolde
portatu: jokatu
pozarren: pozez betea, xoratürik
pozo: beneno
pozoitsu: benenodun
premia: behar
prestaketa: atontze
prestatu: atondu
prestu: gisako, zuhur
printzatu: arraildu, pitzatu
proba: froga, boroga
probatu: frogatu
probetxugabe: irabazigabe, onuragabe
purpura: gorribizi
puska: zati
puskatu: apurtu
putre: sai
putz: ufatu, buha
puztu: hantu, haizez bete

S-S

sabai: gelako goi-alde estalgarri
sabela hustu: libratu
sagaratu: kontsagratu

saguzahar: gaueko ainara, gaüainera
saiatu: langile / entsaiatu
saihestu: baztertu, alboratu
sail: arlo
sakabanatu: barreiatu, banakatu
sakaildu: hil, eho
sakan: naba, mendiarteko toki
sakatu: zapaldu, bultza egin
sakon: barnekor, goibehe handiko
salakuntza: akusazio
salatu: akusatu
salbuespen: eszepzio
salokeria: sabelkoitasun, tripazaikeria
saltatu: jauzi egin
samaldan: jendea pilaka/saldoan
samar: doi bat
sargori: berosapa, bero pisu/astun
sarrailgile: giltzarrapogile
sarraski: hilketa/hondamen handi
sarraskitu: suntsikatu, zauriz bete
sarrera: sartze
sarri: ardura, maiz
sarritan: usu, ardura
sasi: lahar-toki, tarta / faltsu (sasiainko)
saski: otzara, otarre
sasoi: urtaro / fleitean
sastada: zizta, kolpe
sastraka: sasi, lahar-toki
segada: lakio, lazo
segizio: jendetalde, lagünsaldo
sekulako: betirako / handi
sen: zentzu, buru izan
sendagai: osagai
sendagile: osagile
sendaketa: osaketa
sendatu: osatu
sendo: azkar
senide: haurride, askazi
seniparte: familiako parte, etxeparte
senitarte: ahaidego, askazgoa
sesio: gatazka, haserre
setatsu: tematsu, bürüzkin
setiaketa: armaz inguratze, zepo
setiatu: armaz inguratu/üngüratü
simaur: ongarrri, gorotz, sats
sits: bipi, zerren
sobera: gehiegi, larregi
so egin: begiratu
soildu: hondatu, itxestü
solairu: etxeoin, selaurü
sorbaldia: bizkar
sorkari: kreatura
soro: alor, landa, solo
sos: diru apur
sorrera: sortze

suharri: sukarri, sugarri
suhatzak: pintzelak, sutarako tenazak
suil: pegar, likido-ontzi
sukarri: sugarri, silex
sumatu: senditu, asmatü
sumin: haserre bizi
suminkor: gaitzikor, haserrekor
suntsitu: hondatu, txikitu
suspertu: indartu, sütü, hasperritu
sustrai: erro, zuztar
sutsu: kartsu, gartsu
sutu: berotu, haserretu

t-T

talaia: zerbait zaintzeko toki garai
tamaina: izari, neurri
tamarindo: milazka, zuhaiska-mota
tankera: itxura, traka
tantai: animaleko, handi
tanta: ur-xorta, txorta
taxutu: moldatu, antolatu
teila-puska: teila-zati
teman jarraitu: gaitzitü, burugogor jarraitu
tente: xuxen, xut
testigantza: lekukotasun, jakilegoa
testigu: lekuko, jakile
tinka: tinki, trinko
tolesdura: plegu
tolestatu: plegatu
topo egin: buruz buru egin
trakets: malestruka, baldar
tranpa: zepo / engainio
trantze: egoera bizi
tratatu: erabili / harremanak izan
trikimailu: abilezia, axerikeria
triku: sagarro, kirikino
trinkatu: zapaldu, estutu
trinko: estu, gotor
triskantza: kalte handi, porrokatze
triskatu: puskatu, xehatu
trontzalari: zerralari
tropel: saldo, multzo
trukatu: ordezkatu
trumoikume: ortzanzkume
trumoi: ortzantz
tupust egin: behaztopatu, estropezu egin
turuta: adar, tronpeta
turutots: adarrots, turuta-hots
txabola: etxola, kaiola
txahal: miga, aratxe
txalma: basta, arbalda
txalmatu: bastatu, arbalda jarri
txalo: eskuzarta

txanda: aldi
txandaka: tartekatuz, aldika
txano: buru-estalki, bürütibeherako
txanpon: diru, sos
txantxetan: arrailerian, jostatuz
txaradi: xara, zuhaitz txiki askoko toki
txarto: gaizki
txepel: ahul, ganoragabe
txikitu: xehatu, puskatu
txikitxo: ttipino
txilin: xilintxa, xintxil
txima: bilo, ule handi, bilogarrotü
txingar: itxendi, ikatz gori-gori
txingarrantzi: itxendi-bertz
txinparta: pindar, ikatzaren zatiki sutu
txioka: pioka, ttiunttaka
txirikordatu: biribilkatu, biloiastü
txiro: pobre, behartsu
txirotu: pobretu, gabetu
txit: guztiz, biziki
txolarre: murruri, elizatxori
txopa: itsasuntziaren gibelalde/atzealde
txorimalo: txorimamu, küso
txosna: ttattola, salgi
txukundu: antolatu, kriket egin
txunditu: harritu, liluratu

U-U

ubide: urbide
ugaldu: emendatu, ugaritu
ugari: nasai, hanitz
ugatz: errape
ugazaba: nagusi
uharte: isla, irla
uhaska: ur-aska, huraska
uhin: olatu
ukendu: olio
ukitu: hunkitu, ikutu
ulertu: konprenitu, entelegatu
umetandik: haurtzarotik, txikitatik
une: bulta, gune
urdail: estomaka
urduri: arrangura, erreüs
urak borbor: purpurika, barbar
urjario: ur-isuri
urkabe: urkatzeko habe
urmael: aintzira, putzu, gorga
ur-mordo: ura zurrustan/burrustaka
urrats: pausu
urratu: puskatu
urri: gutti, gutxi
urrikaldu: errukitu
urrikaltsu: errukitsu

urrikarri: errukarri
urruna: ursoen hotsa, kurruka
urruti: hürrun
usadio: usaia, ohidüra
usainki: urrin gozo, ürrinon
usakume: urtzokume
usapal: tortoila, ürxapal
uso tankeran: usoak/urzoak bezala
usteon: fede, sineste, konfidantza
utikan: leku hemendik!, kanpo!
uxarrean: musturketan, musurikan
uxatu: haizatu, ohiltü
uzta: fruitu
uztai: arranbela, arkü
uztazu: utz iezadazu, ütزازü

X-X

xafila: zerbaiten orri mehe
xalo: xotil, laño, apal
xaxatu: zirikatu, haxitü
xedapen: erabaki
xede: asmo, helburu
xigortu: erre
xume: xehe, arrunt
xuxurle: xurrunurru-/marmar-egile

Z-Z

zabarkeria: ezaxolakeria
zabar: ezaxola, axolagabe
zabor: zikinkeria
zafiro: safira
zahato: xahako, bota
zaintza-postu: begiragune, goaitagi
zakar: gogor, bortitz / hondakin
zakilmutur: motto, pitomütür
zakur-tropel: zakur-multzo, txakürsaldo
zalantza: duda, ezbai
zalapartaka: tarrapataka
zaldar: hantutxu, erlakizten, üttxülarri
zalditeria: zaldi-saldo
zalgurdi: zaldikarro
zango: hanka
zantzu: seinale, ezaugarri
zapi: oihal
zapo: apo
zapore: gustu
zapuztu: utzi, baztertu
zarata: azantza, herots
zaratots: ik. zarata
zarpail: pildatxar, trakets
zarpazahar: ik. zarpail

zartailu: zigortzeko tresna
zartatu: brintzatu, printzatu
zaunka: xanpa, txanpa
zedarri: mugarri
zehar-egur: trebes, trabatetx
zeharkatu: trebeskatu
zeharo: guziz, erabat, guztiz
zehatz: juxtu
zehatz-mehatz: xeheki
zeinuka: keinuka
zeken: xuhur, lukur
zekenkeria: zikoizkeria, xuhurkeria
zekor: aratse, idisko
zelai: alagi, ordoki
zelatan: barrandan, haidürü
zelatari: barrandari, goaitazale
zenbatu: kontatü
zentsu: izen emate
zentzarazi: zuzenarazi
zentzubako: zentzugabe
zeregin: egiteko
zeregintsu: langile
zerga: kontribuzio, legar
zerraldo: luze-luze lurrean, hedailo
zerrenda: lerro, lista
zertzelada: xehetasun
zerurantz: zeru alderat, zelüalat бүрүз
zeuen: zuhauen, zihauen
zeuk: zuhauk, zihauk
zeuok: zuhauiek
zeu: zuhaur, zihau
ziegan sartu: preso harpean
zigilatu: zigiluz itxi
zigilu: erakunde-ezaugarria inprimitzeko tresna
zilegi: haizu, legearen araberako
zimentarri: oinarri
zinausle: traidore, hitz-jale
zinez: egiaz, benetan

zin dagit: zin egiten dut
zingira: aintzira, laku
zintarri: ertz
zintzilikatu: dilindan/txilintxan ezarri
zipriztindu: ihinzatu, busti, zirtatu
zirkin egin: mugitu, higitü
zirkin: ihakin, mugimendu
zirrara: bihotz-ikara
zirrargarri: beldurgarri, ikargarri
zirrarak hartu: ikarak hartu
zirriboratu: eskema/diseinua egin
zirrikitu: xilo, bitarte
zirtatu: busti, ihinzatu, zipriztindu
zital: gaizto, бүрүтүс
zitalkeria: gaiztakeria, hira
ziur: segur
zizta: suge-ausiki
ziztu bizian: ziuntan, presaka
zokor: lur mokor
zorabiatu: zoratu, txoratu
zorabio: zoradura, txorabio
zorakeria: menskeria, erokeria
zori: xantza, zortea / hil zorian
zornadura: usu, hirodüra
zorna: usu, hirodüra
zoro: ero
zoru: lur / lur-zelaiko
zotz egin: zozketatu
zumar: zuhaitz-mota
zuraje: zur-multzo, zurtaje
zurbil: hits, zuri-zuri
zurda-oihal: animalia ilezko oihal
zurrun: gogor, tente
zurrupatu: hustiatu, хүррүпатү
zurrutero: edale, хүррүпакари
zutabe: kolona, pilare
zutarri: pilare
zutoin: pilare, axera

MAPAK



EKIALDE HURBILA
ITUN
ZAHARRAREN
GARIAIAN

— Bide nagusiak

ITSASO BELTZA

KASPIO ITSASOA

GREZIA

HITIARRAK

EGEO ITSASOA

ANATOLIA

TAURUS MENDIAK

MEDITERRANEO ITSASOA

ARMENIA

MEDIA

KAFIRO (KRETA)

RODAS

KITIM (TXIPRE)

MESOPOTAMIA

ASIRIA

ARABIA

SIRIA

AMON

MOAB

EDOM

MADIAN

SINAI

EGIPTO

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARARAT MENDIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA


ARABIA

ARABIA

ARABIA

ARABIA


PALESTINA
ITUN
ZAHARRAREN
GARAIAN



SINAI PENINTSULA

IRTEERA GARIAIAN

- Irteerako ohizko bidea
- Garaiko bide nagusiak




PALESTINA

EPAILEEN GARAIAN

Israello leinuak **DAN**

Babes-hiriak ●



PALESTINA

ERREGEEN GARAIAN

Gutxi gorabeherako mugak

Israelen (par-erresumaren) eta Judaren (Hegoaldeko erreinuaren) arteko muga


Salomonen barrutiak





MEDITERRANEO ITSASOIA


ANEO ITSASOIA

ITSASO HILIA



PALESTINA
ITUN BERRIAREN GARAIAN


-  Gurxi gorabeherako mugak
-  Dekapolisko hiriak
-  Gotorlekuak



JERUSALEN Itun Berriaren Garaian

- Hiri zaharra gaur egun
- I eta II harresiak (Jesusen garaia)
- III harresia (Herodes Agriparen garaia)
- Erromatar harresia (K. o. III. mendea)

TENPLUAREN handiagotzea



- a** Banaketa-harresia
- b** Ate Eder
- c** Emakumeen ataria
- d** Gizonen edo Israelen ataria
- e** Santutegia
- f** Erre-opariaren aldea

